

HERODOTO

Historiak I

HITZAURREA

Bizitza

§ 1. Herodoto Halikarnason jaio zen, Dorideko hirian, Asia Txikiko itsas hegieren hegoaldean. Jatorri eta dialekto dorikoko populazio grekoak kolonizaturiko lurraldea zen, baina iparraldeko auzoa zen Joniaren eta kariar hinterlandaren kultur eta literatur eraginda, biztanleria-, hizkuntza- eta dialekto-nahaste ugariko bidegurutze bihurtu zuen. Izatez, Herodotoren aitaren izena –Likhes–, kontra egin zion Halikarnasoko tiranoarena –Ligdamis– eta Paniasis poeta epikoarena, –erabat argitu gabeko famili harremana izan zuen berarekin– (beharbada osaba zuen), guztiak jatorri ez-grekokoak dira, agian kariarrak. Horrela, bada, beste idazle greko arkaiko batzuk bezala --Safo, Alzeo, Hiponakte, Mimnermo--, Herodoto giro grekoan baina eragin ekialdetar -kasu honetan kariar- sakonak zituen batean jaio zen. Turiosen kolonizazioan esku hartu izatetik (cf. infra) dator haren jatorriaren aldaki turiarra, jadanik antzinaroan haren obraren sarreresaldian ageri dena, segur aski aro helenistikoaren (323-31 K. a.) aurretik. Aristotelesekin "Herodoto turiar" erapean aipatzen du, nahiz eta argi dagoen geroagoko tartekatze bat dela¹. Iturri gehienak, hala ere, bat datoz Halikarnaso haren sorterritzat ematean, bai eskusibitatean², bai aldaki turiarra aipatuz³. Batzuek uste izan dute agian lehen idazkuntza batean Herodoto halikarnasotar gisara aurkeztu zela, baina behin betikoan turiar gisara nahiago izan zuela azaldu. Nolanahi ere, antzinatik aldakia egoteak bermatu egiten du koloniaren sorreran izan zuen esku hartzea⁴.

Haren jaiotza-datari buruz, badaezpadako fidagarritasuna duten zeharkako aztarnak baizik ez ditugu. Aulo Gelio, K.o. II. mendeko autore latindarrak dio 53 urte zituela Peloponesoko gerratea (431) hastean, horregatik haren jaiotza 484koa⁵ bide zen. Gelioren baieztapena aurreko kronografoen kalkuluetan oinarritzen da, biografia baten oinarritzko mugarria grekoek ajkmhv ("heldutasun") deitzen zutenarekin bat etorritzen zutelarik, eta hori 40 bat urte inguruan izan ohi zen. Herodotoren kasuan une hori Turiosen kolonizazioan (444/3) esku hartzearekin bat etorritzeko nahi izan zuten, eta hortik sortuko zen haren jaiotzaren aipaturiko data. Haren obratik nekez ateratzen da datu fidagarriak. Xerxesek Greziaren aurka (480-479) egindako espedizioaren oroitzapen pertsonalik ez izatea, artean adin militarrean ez zegoen seinalea da, beraz arriskutsua litzateke jaiotze-data 490az harantzago aurreratzea. Gainera, Herodotok 461 baino lehen (data horretan hasi zuen herrialdeak pertsiar domeinuaren kontrako errebolta bat)⁶. Egiptora lehen bidaiak bat egin zuelako hipotesia onartzen badugu, haren jaiotza ez zen izan nonbait 485/484 baino geroagokoa, horrela gutxienez 25 urte izan zitzaizkion bidaiak hori egiteko. Hitz batean, 490-484 bitartean ezar dezakegu, gehiago zehazterik ez badugu ere.

§ 2. Antzina autoreen biografiak berreraikitzean fidagarriagozat jotzen dira beraiek emandako datuak ondorengo tradizioarenak baino, era guztietako aldaketek pean egoten baitira. Herodotoren kasuan, nahiz eta haren nortasuna etengabe agertzen den haren obran iritzi, zalantza, balioespen eta abarren erara, haren pertsonari buruzko xehetasunak urriak dira, bidaiak buruzkoak salbu, horietatik banaka batzuk aipatzen baititu. Horrek haren bizitza berreraikitzerakoan ondorengo iturriak batik bat erabiltzera behartzen gaitu. Haren lehen aldia Asia Txikian eta inguruko eskualdeetan iragan zen. Gerra Medikoetan pertsiarrak menperaturik gelditu ondoren, Asia Txikiko hiri batzuk --besteak beste, Halikarnaso-- botere pertsiararen baitan gelditu ziren tartean jarritako

tiranoen bitartez. Egoera horretan iragan zen nonbait Herodotoren gaztaroa. Liga atiko-deikoaren buruzagitza harturik Atenasek egin zuen kontraerasoak hiri horien askatasun-irrikak piztu zituen. Herodotok porrot egin zuen konjurazio batean esku hartu zuen Halikarnasoko Ligdamisen kontra, eta horrek Samos uharte hurbilera erbesteratu behar izatea ekarri zion. Horrela hasi zuen erbestealdia ezagutu zuten greziar historialari argien --Tuzidides, Polibio-- bezalakoen zerrenda. Ez dakigu noiz gertatu zen, ez zenbat iraun zuen. Suda entziklopedia literarioak, Ka. X. mendearen amaierakoak dio Herodotok Halikarnasora itzuli eta Ligdamis kanpora bidali zuela, eta hirikideekin etsaitu zelako berriz hiritik alde egin zuela, Grezia Handiko Turiosen (Hego Italian) kolonizazioan esku hartzeko⁷.

Herodoto ez zen egintza-gizona eta ez dirudi gertakari politiko horietan guztietan esku hartu zuenik, baina ziurra da inolako zalantzarik gabe tiranien etsaien taldean zegoela. 454an Halikarnaso ordurako Liga atiko-delikoaren barruan dago, horregatik Ligdamis lehenago bidali bide zuten kanpora.

§ 3. Haren bizitzako bigarren aldia Atenasen egon zenekoa da. Sudak aipatzen dituen herrikideekin izan zituen auziek, Atenasek Ligaren barruan paper hegemonikoa izatearen alde postura argia hartzearekin agian zerikusia zuten; beste batzuk hiri edo estatu kideei askatasun eta autonomia handiago bat ematearen alde agertzen baitziren. Eusebio Zesareakoak (K.o. III-IV. m.) bere Kanon kronografikoetan eta haren itzultzaile latindarra izan zen S. Jeronimok (K.o. 348-420) baieztatzen dute atenastarrek ohoratu egin zutela, jendaurrean haren obra irakurri eta gero, 83. Olinpiadan (448-444)⁸. Plutarkok (K.o. I-II. m.) dio horregatik atenastarrek hamar talentu eman zizkiotela, garai hartarako kopuru izugarria zena⁹. Haren obraren zatiak jendaurrean irakurtzea, poesia epikoko aedo eta rapsoda zaharren erara, antzinakoa da eta iturri desberdinetan ageri da. Ospetsua da, besteak beste, Tuzididesen biografoa zen Martzelinok (K.o. IV. m.), Sudak eta Foziok (K.o. IX. m.) jasotako anekdota, zeinak kontatzen duen Tuzidides aitarekin presente egon zela jendaurreko irakurraldi horietako batean eta, entzuten ari zenarengatik hunkiturik, negar egin zuela, eta Herodotok ikasteko zeukan gaitasun ona laudatu egin omen zion¹⁰. Luzianok (K.o. II. m.) dio entzuleengan eragindako lilura hainbestekoa izan zela, non liburuei gaur arte gorde diren bederatzi musen izenak ezarri zizkieten. Albiste horiek guztiak ez dira anekdota soilak baino ezer gehiago, genero bera lantzen zutenen biografiak erlaziotan jarri nahi zituztenak, edota obraren bereizkuntza justifikatu nahi zutena, bai baitaki egilea hil eta gerokoak direla. Nolanahi ere, Sofoklesen Antigonako 904-920 bertsoleerroak, 442-lean antzeztuak III, 119aren oihartzun direla onartzen da, eta horregatik data horretarako obraren zati batek gutxienez idatzirik egon behar zuela. Hitz batean, esan dezakegu 447 aldera Herodoto Atenasera joan bide zela eta bertan iraun zuela harik eta 444-3an Turiosera alde egin zuen arte. Hirian zegoen bitartean Periklesen inguruan bilduriko kultur eta literatur zirkulu hautatueneekin harremanetan egon zela pentsa genezake. Horien artean Sofoklesekin izan zuen harremana gailentzen da. Elkarren oihartzunak ikusi nahi izan dira bien obretan, lehen aipatutakoaz gainera; baina ezer baino lehenago gizakia, gizartea, bizitza, jainkotasunarekiko erlazioa eta errua eta espiazioaren ikuspenean datoz bat. Atenasen egon eta Periklesekin izan zuen harremanetik sortu bide zen, aditu batzuen arabera, hiria eta estatistarenganako begikotasuna. Batzuek partzialtasun filoatenastarra egotzi izan diote, baina horretaz geroago mintzatuko gara.

§ 4. Haren bizitzako hirugarren aldia antzinako Sibarisen hondakinen ondoan, Turiosen fundazioarekin hasten da. Kolonia kokamendu panheleniar gisa pentsaturik zegoen atenastarren gainbegiradapean, Periklesen kanpo-politikaren interes propagandazkoen barruan. Egiteko horretan izan zuen esku hartzea jasota dago antzinako eta Erdi Aroko

zenbait iturritan¹¹. Baina laster hasi zen kolonia metropoliarekiko lokarriak eteten, eta Peloponesoko Gerrateko lehen urteetan Atenasekin aliaturiko hirien artan ere ez da agertzen. Uste izan da, arrazoi hori dela-eta, Herodoto, atenastar politikaren aldeko gartsua izaki, ez zela eroso sentitzen eta gerra piztean behin betiko alde egin bide zuela Turiostik Atenasen egoitza jartzeko. Orduan birmoldatu zuen obran idatzirik zeukana eta behin betiko era eman arte hedatu zuen, gero ikusiko dugunez. Ez dakigu oraindik zenbat gehiago bizi izan zen. Aipatzen dituen azken gertakari historikoak 430eko udakoak dira eta bere heriotzarako terminus post quem gertatzen dira. Sudak dio Turiosen hil zela eta agoran ehortzirik zegoela, baina heriotza Pelan, Mazedoniaren hiriburuan izan zela dioen bertsioa ere aipatzen du. Ez batak eta ez besteak ez dute sinesgarritasun handirik, lehena berak kolonizatzen lagundu zuen lekuarekin bat datorrelako, bigarrena V. mendearen azkenetan literato eta intelektual bat baino gehiago bertaratu zirelako, besteak beste, Euripides. Aitu moderno batzuek uste dute Atenasen hil bide zela, Peloponesoko Gerratearen lehen urteetan Perikles hilobira eraman zuen izurrite beraren biktima agian¹².

§ 5. Auzi eztabaidatua, bere obraren biografia eta iturrietan eragina duena, atzeritik egin zituen bidaiena da. Ziurra da, Herodotok berak baieztatzen duenez, Egipton (II, 3; 29; 143; III, 12) eta Fenizian (Tiro: II, 44) izan zela. Litekeena da Mesopotamian eta Eszitian ibili izana, nahiz eta beste bidaiak batzuk eztabaidagarriagoak izan. Horien kronologia eta iraupena guztiz ezezagunak zaizkigu eta segida bat berreraikitze-ahaleginak ez dira hipotesi hutsetik pasatu. Herodotok ez zuen izan bidai egunkari bat idazteko asmorik, horregatik haren obran ageri diren toki batzuk beste batzuekin konparatzeak ez du derrigorrean aurrekotasun kronologikorik adierazten. Daukagun ia datu ziur bakarra da Atenasen egon aurretikoak bide direla bidaiak. Powellek, toki bakoitzaren aipamenen arteko erreferentzia gurutzatuzko sistema baten bitartez, bi egonaldi egin zituela Egipton uste du: bata 461az aurretik --data horretan hasi zen egiptoarren errebolta--, eta bestea 455az gero --orduan amaitu zen errebolta-- edo, hobeki oraindik, 449az gero, Atenas eta Pertsia Kaliasko bakea sinatu zuten urtearen ondoren. Lehenaren ondo-ondoan Fenizia, Asiria eta Babilonian egon bide zen, eta urte batzuk geroago Eszitiari bisita egin bide zion eta azkenik bigarrenez Egiptori egin bide zion bisita¹³. Beste batzuek, aldiz, ez dute inolako eragozpenik ikusten egiptoar erreboltan herrialdea bisitatu ahal izateko. Azkenik, askok uste dute materialen ezarketak ez duela ezer adierazten bidaien denborazko segidaz, geroagoko birlantze baten emaitza izango bailitzateke.

Historiaren edukia eta egitura

§ 6. Dionisio Halikarnasokoak (K.a. I. m.) Tuzidides bere opuskulu erretorikoan dio "Herodotok bere gaiaren aukera hedadura eta distira handiagora eraman zuen, eta nahiago izan zuen ez narratu hiri edo herri baten historia, baizik eta Europa eta Asiako egintza ugari eta askotarikoak bildu obra bakar baten markoan... tratatu bakarrean metatuz 240 urtean gertaturiko greko eta barbaroen jazoera gogoangarri guztiak"¹⁴. Zizeronek (K.a. I. m.) "historiaren aita" deitzen du, baina ez da ahazten esateaz, hori horrela izanik ere, haren obrak "ezin zenbatu ahala fabula" dituela¹⁵. Azkenik Foziok dio erlato eta digresio mitiko asko sartzan dituela narrazioan, zeinetatik darion bere pentsamenduaren ezintasuna, baina historiaren osaera iluntzen duten eta generoaren tipo kanonikoari ez dagozkionak¹⁶. Lekukotasun horiek guztiek agerian jartzen dute jadanik antzinakoak jabeturik zeudela haren obraren konplexutasun argumentuzkoaz. Gertakari horren azalpena gaur egun argiagoa da. Herodoto, bere aurretik zegoena historiografia zientifikoren zirrimarra bihurtzeko lehen pausoak eman zituenak, terminoaren zentzu zabalean hasi bide zen narratzaile gisa, hau da, erlato gutxi-asko luze samarren osatzaile

gisa eta gero bere Historian sartu bide zituen. Erlato horiek osagai bariatuak dituzte eta hiru sail handitan bana daitezke: geografia, etnografia eta historia politikoa. Behin betiko erlatoari gehitutako narrazioak egiazko digresio edo excursusak dira haren barruan; horietako batzuk hain luzeak dira, non irakurleak galdu egiten duen osotasunaren hari gidaria¹⁷. Hortik berehalaxe obraren batasunaren auzia planteatu izana 1913an, herodotoar ikerkuntzan mugarri bat izan zen lan batean, F. Jacobyk hasiera batean ikuspegi greko batetik interesgarritzat jotzen zituen material guztiak biltzen zituen geo-etnografoa zen Herodoto baten hipotesia jaurti zuen; aldiz, obra bakar batean biltzearen ideia geroagokoa izango zen. Material horien desberdintasunak eta hari gidaririk ere ez izateak --Jacobyri ez zitzaion nahikoa iruditu Mendebala/Ekialdea kontrajartzearen ideia orokorra ere-- digresioen teknikara bultzatu bide zuten, eta horrela material bakoitza narrazio orokorrean egokiena zeritzan tokian kokatzen zuen¹⁸. Jacobyren tesiak harrera zabala izan zuen hurrengo urteetan¹⁹.

§ 7. Jarrera analitikoaren ondoren erreakzio unitarista etorri zen, gerrarteko garaian Homeroren ikerkuntzarekin gertatu zenaren antzeratsu. M. Pohlenz²⁰ izan zen horren ordezkari gailenetako bat. Osotasuna ataletatik interpretatzen zuten analitikoek ez bezala, unitaristek ez zuten Herodotoren obra artikulazio gabeko disiecta membra multzo bat bezala ikusten, baizik eta bere egitura eta taxuera osotasun baten arabera zeukan zerbait bezala. Unitaristek ere egin zituzten gehiegikeria batzuk, obraren genesiari dagokionez batik bat: adibidez, Bornitzek hasierako kontzepzio baterakoi bat defendatu du guztiarentzat, eta horregatik Herodoto ez bide zen izan narratzaile xalo bat helburuaren kontzientzia argirik gabe materialak metatu zituena, baizik eta bere Historia bere bizitzaren azken aldera landu bide zuen askozaz lehenago pentsaturiko ideia baten arabera. Analitikoek planteaturiko arazoak areago sortuko ziren lan historiografikoaren gure kontzeptu murriztutik obraren baitatik baino: gertakari bakoitzaz Herodotok zekiena bere konplexutasun osoan kontatu bide zuen, eta horrek ilundu egin bide zuen oinarritzko argumentu-lerroa, baina inola ere ezabatu gabe²¹.

Gaur egun tarteko jarrera bat nahiago izaten da. Ez dirudi beharrezkoa denik Herodotoren obra aurrekontzebituriko asmo batetik sortua, zehaztua eta itxia izatea, baina ez da onartzen taxutu gabeko material-metatze soila denik ere. Antzinako beste autore grekoenak bezala (Homero, Hesiodo, Solon, Teognis) ez datoz bat obra baterakoiaren irizpide poetiko modernoekin kontzepzioz eta taxukeraz, baizik eta osaera irekiaren teknika arkaikoaren arabera idatzirik dago, material desberdinak metatuz, batzuetan ia hauteman ere egiten ez den lokarri oso laxo batekin. "Historia" iJstorivh terminoak berak ez du "giza iraganaren araketa" ondorengo zentzu teknikoa (IV. mendetik hasita), baizik eta "ikerkuntza" zentzu zabalean adierazten du. Horrela ulertzen da Herodotoren obra, proemioan "bere ikerkuntzaren azalpen" gisa aurkeztua iJstorivh" ajpovdexi", bere baitan izatea, material historikoak direnekin batera, gerora geografiko eta etnografiko gisa sailkatu direnen ondoan.

§ 8. Beraz, Herodotok "erlato-kontatzaile" lovgoi gisa hasi bide zuen bere jarduera, poesia epikoa kantatu eta errezitatzeko zuten aedo eta rapsoden erara²². Lan-sistema, gutxi gorabehera, antzinako aedoena bera zen nonbait: herrialde bateko historia, ohitura edo geografiaren bertsio desberdinak entzuten zituzten eta haietaz nork berea taxutzen zuen, beti berdina izaten ez zena errezitazio bakoitzean (pentsatu behar da haien egitekoa sorburuz ahozkoa zela), baizik eta entzuleria baten edo bestearen arabera alderdi bat edo beste bat azpimarratzen zen. Prosa-memorizatzaile horiek, iraganeko datu historikoak gogoan hartu eta ondorengoei helarazten zizkietenak, segur aski hasiera batean leinu, fratria edo tribuen esparruan aritu bide ziren, gerora antolakunde-era sozial eta politiko konplexuagoetara moldatzeko. Erlatoak iraganeko gertakarien tokiko bertsio

komun baten gisakoak bide ziren. Jarduera horren aipamena egiteko Herodotok *logopoiov*" (Hekateori egozten dio) eta *lovgioi* terminoak darabiltza, agian tokiko kontaera horien sortzaileak eta erreztatzaile soilak bereizteko²³. "Logografo" terminoa, geroago izaera orokorrarekin lehen historiak izendatzeko erabiliko zena, ez da oraindik haren obran agertzen, baina bai ordea urte batzuk geroago Tuzididesenean, eta berak halako arbuio-kutsu batekin erabiltzen du, egia ondorengoei helarazteko baino entzuleak liluratzeko bere kontaera areago ontzen zutenak aipatzeko, besteak beste, Herodotok sartzen zuen horien artean baina izena esan gabe²⁴.

§ 9. Prosazko erlato horien helburua, hasiera batean, poesia epikoak zuena bera zen: gertakari aintzatsuak ahanzmendutik erreskatatu eta ospe hilezkorra ematea. Horren garbi ematen du aditzera Herodotok proemioan: Hona Halikarnasoko ikerketaren azalpena, gizonek eginikoak denboraz desager ez daitezen, eta nola heleniarrek hala barbaroek buruturiko lan handi eta miresgarriak osperik gabe gera ez daitezen; elkarren aurka zergatik borrokatu ziren, besteak beste. Helburu horrek eta osaera-egitura irekiek, ezin zenbatu ahala digresiorekin, ematen diote Historiari poema homerikoen, batez ere Iliadaren antza. Halaber, epopeiara hurbiltzen dute narrazioa/hitzaldiak alternantziak eta katalogoek (esaterako, Xerxesen armadako indar integratzaileenak, VII, 61-99). Horregatik Dionisio Halikarnasokoak Homeroren lehiakide deitzen dio, Elio Aristidese (K.o. II. m.) poeta eta retoreen artean zangalatraba ezartzen du eta Ps. Longinok (ca. K.o. I. m.) imitaziozko literatura-inspirazioaren teoria garatzean "homerizatzaileena" izendapena ematen dio²⁵. Antzekotasun horiek gorabehera, Homero eta Herodotoren arteko distantzia, Aristotelesek berak ere aditzera eman zuenez, poesia eta prosaren artean dagoena da, hau da, gerta zitekeenaren eta errealki gertatu zenaren artekoa²⁶.

§ 10. Pasa gaitezen orain obraren egituraren azterketa xehera. Dagoeneko esan dut, nola Herodotok, historiko hutsak diren albisteez gainera, geografiko, etnografiko edo antropologikoak diren materialak ere biltzen dituen. Aipaturiko proemioan jakinaren gaineko bereizkuntza bat ikusi nahi izan da "giza gertakari" eta "egiteko burutu" terminoen artean, historia kultural eta politikoaren pareko izango liratekeenak, hurrenez hurren, baina azken terminoaren hizkuntz azterketak bere esanahiaren hedadura jarri du agirian, ez baita "monumentu eta obra iraunkor"-etara bakarrik hedatzen. Aditu batzuek ukatu egin diote Herodotori historialari-izaera, besteak beste, hain zuzen ere elementu heterogeneoen nahaste horregatik, itxuraz plan ardatz bat ez duena. Hala eta guztiz ere, gehienek onartzen dute obrak baduela egitura orokor bat, bi atal argi eta garbi bereizirekin:

a) Lehenean -eskuarki "Pertiaren Historia" Persikav bezala ezagutzen dena- Pertiaren Inperioaren aurreko medo, lidio eta asiriarren oinordeko denaren hazkuntza kontatzen da. Haren agintea hedatuz doan heinean, Herodotok konkistaturiko herri desberdinen logoak barruan hartzen ditu, nahiz eta hasiera batean independenteak izan: lehen liburuan lidiarrak, pertsiarrak, babiloniar eta masagetar logoak; bigarrena erabat Egiptokoari eskainia dago, bere hiru sail bereizgarriei: geografia (2-34), etnografia (35-98) eta historia (99-182); edukiz bariatuagoa den hirugarren liburu baten ondoren, laugarrenean beste logos luze bat aurkitzen dugu, Eszitiakoa, dagoeneko aipatu dugun egitura hirualdekoarekin (16-58; 59-82; 83-144), Zirenaikari buruzko beste laburrago batekin (Libia: 168-199).

b) Bigarren atala Grezia eta Pertiaren arteko enfrentamenduaren narrazioa bera da. Batzuek Xerxesen espedizioari eskainiriko azken hiru liburuetara mugatzen dute, tartekoek (V-VI) Grezia Joniako errebolturen bitartez pertsiarren historia nola sartu zen kontatzen dute. Beste batzuek, aitzitik, nahiago dute iragangunea V. liburuan jarri, Gerra medikoak izenpean ezagutzen ditugunak hasten direnean, ordena kronologiko

baten arabera: Joniako errebolta (V, 28-VI, 41), lehen espedizio pertsiarra Darioren agintepean eta Maratoiko porrota (VI, 94-140) eta Xerxesen azken espedizioa (VII-IX liburuak).

Banaketa hori ez da posible bakarra, nahiz eta zabalduena izan. Jakitun batzuek beste hirualdeko bat nahiago izan dute: lehen hiru liburuek Asia eta Egiptoko gertakariak kontatzen dituzte Ziro eta Kanbisesen erreinaldietan eta Dario nola tronoratzen den, eta hiru azkenekoek Greziakoak eta Xerxesekiko enfrentamendua. Beste batzuk aurreko banaketa bialdekoetik abiatzen dira eta hirugarren parte bat gehitzen diote, Lidiako historia (I, 6-94), Pertiako Historiaren barruan sartuko ez litzatekeena, baizik eta lokarritzat balioko lukeena horren eta Gerra Medikoei eskainitako azken partearen artean. Nolanahi ere, nahiz eta Historian bilduriko materialak hain heterogeneoak izan, horien aurkezpenari begiratu bat emateak agerian jartzen du Herodotok egitura eman nahi izan ziela, gaur egun laxoak irizten diegun irizpideekin izan bazen ere obra literarioaren ikuspegi modernotik.

§ 11. Puntu honetara helduz gero komeni da aztertzea multzoari batasuna ematen dion ideia edo dioten ideiak, auzi guztiz eztabaidatua den arren. Batzuentzat inperioen suzesioa, horien igoera eta erorkera: pertsiarrek medoen inperioa jarauntsi --haiek asiriarrengandik hartuta zeukatena-- eta lidiarren kostaldera hedatzen dute. Beste batzuek ardatz nagusia Grezia/Pertia enfrentamenduan jartzen dute edo, izaera orokorragoarekin, Mendebala/Ekialdearen artekoa, gizakiaren eta antolamendu sozial eta politikoari buruzko beren kontzepzio desberdinekin: despotismoa eta askatasunaren arteko enfrentamendua litzateke²⁷. Herodotok horren inguruan VI. mendearen amaierako eta V.aren hasierako gizartearen ikuspegi osoa eskaintzen bide digu, haren sineste, ohitura, politika eta gizartearekin, Homeroren obrak Troiako gerraren eta Ulisesen itzuleraren marko estua gainditu eta gizarte aristokratiko arkaikoaren irudi aberats bat eskaintzen digun bezala²⁸. Jacobyrentzat, jarrera analitikoaren defendatzailearentzat, logoi desberdinek ez dute zerikusirik obraren erdigunearekin --hori Gerra Medikoen narrazioa izango litzateke--, ezta Mendebala/Ekialdearen enfrentamendu orokorraren ondoz ondoko adibide gisa hartuta ere. Azkenik, O. Regenbogenek batasuna ematen dioten hiru elementu ikusten ditu obran: Mendebala/Ekialdea enfrentamendua, Inperio pertsiarren hazkuntzaren ideia eta Herodotoren azalpenari hats ematen dioten erlijio-printzipioak²⁹.

Zeinahi dela ere obraren argudio nagusia --horrelakorik baldin badu behintzat--, multzoari batasuna emateko Herodotok lehen partean bigarreneko pertsonaia eta gertakariei buruzko erreferentziak sartu behar izan zituen, eta alderantziz. Pasarte jakin batzuetan dio esan gabe uzten dituela logoi batzuk, horrela egitura bat badagoela adieraziz, kontzepzioan ez bada, azken idazkuntzan gutxienez. Hala eta guztiz ere, nahiz eta gogor landu materiala batasuna eta oreka emateko, begi-bistakoa da behin betiko forma zeharo bestelakoa izango zatekeela, baldin eta hasieratik Gerra Medikoa bakarrik narratzeko asmoa izan balu. Sarrerako esaldia, zalantzarik gabe a posteriori erantsia, aski zabala da nola "Pertiaren Historia" "gizonek eginikoak... eta nola heleniarrek hala barbaroek buruturiko lan handi eta miresgarriak", hala "Gerra Medikoa" "Elkarren aurka zergatik borrokatu ziren besteak beste" bere baitan hartzeko.

§ 12. Nahiz eta onartu Herodoto geo-etnografo gisa hasi zela, Jacobyk defendatu zuenez, haren Historiaren lehen parteak berrikuntza bat dakar aurreko logografoen aldean, zeren periploaren (bidaian zehar ikusitako herri desberdinen geografia eta etnografiaren deskribapena) genero historiografikoak eta horografia (analitika latindarrari dagokion termino grekoa, urteka tokiko gertakariak kontatzen zituen azpigenaroa) konbinatzen baititu, historia unibertsal moduko batean, "Pertiaren

Historia". Bigarren partea, bestalde, aurrerapen berri bat aurrekoarekiko osagai geo-etnografikoak ezabatu eta arreta iraganeko historiara biltzen duelako. Beraz, bilakaera psikologiko bat kontuan hartu beharra dago Herodotoren obran. Ez jarrera hertsiki unitarista, bidaiei aurretik hasieratiko egitasmo bat zegoela defendatzen duena eta Herodoto egiazko historialari bihurtzen duena³⁰, ez analitika erradikala aurreko logografiarekiko menpekotasuna defendatzen duena eta ideia gidari bat ukatzen edo ahalik eta gehien dagoelakoa murrizten duena, dira erabat asebetegarriak. Obra jaio zen giro kultural eta literarioan interpretatu behar da. Ondorengo geografia, etnografia eta historia banaketa (beste abar zehatzago batzuk ez aipatzearren) oraindik ez zen existitzen, eta neurri handi batean ahozkoa zen literatura baten esparruan, entzuleriak era guztietako albisteak jasotzeko itxaropena zeukan segur aski logos batean. Baina Herodotok, dagoeneko esan dugunez, gaingitu egiten du geo-etnografo hasiera-fase hori eta bere obraren lehen partean zerbait originala sortzen du, "Pertsiaen Historia" bat erlato partikular desberdinak sartzeko marko orokortzat darabilena, horiek horrela Gerra Mediarrekin³¹ begiztatuz. Material horien ordenamenduak ere badu berritasunik, zeren ez baitagokio irizpide geografikoari, periploek egiten zutenez, kronologikoari baizik, herri konkistatu desberdinak Inperio pertsiarrekin harremanetan sartuz zihozten heinean. Pixkanaka kontzepzio berri hori bilakatuz joan zen eta, V. liburutik hasita, "Pertsiaen Historia" erlato partikularrak sartzeko marko orokor izatetik narrazioaren eduki espezifiko izatera iragan zen: Joniaren errebolta eta Dario eta Xerxesen espedizioak. Aldaketak ez zuen soilik edukian eragina izan, baita metodologian ere: Herodotok bertan behera uzten du kazetaritza-estiloa (relata refero) eta bere edukia "asmatu" beharra dauka, taxukera propioa emanez; horretarako poesiaren tekniketara jotzen du, epikarenera batik bat, baina baita dramarenera ere. Dagoeneko aipatu ditut lehenaren harenzitasun batzuk. Bigarrenarenak aurrerago aipatuko ditugu. Materialen aurkezpen artistiko hori eta obraren zirkunstantzialtasuna (jendaurreko irakurgai gisara pentsatua, antzinako iturrien arabera) Herodoto Tuzididesengandik urruntzen duten bi ezaugarri dira, izan ere azken horrek aurkezpen zientifikoa bilatzen baitu, iraupen-nahiarekin kth~ma eij" ajeiv, "betiko lorpena" (1, 22, 4)³². Ez dugu epaitu behar, azken finean, Herodotoren obra historiografia modernoaren irizpideekin, baizik eta aurrekoetatik, materialen hautespen eta taxukeran sartu zituen berrikuntzetatik eta bere obra ondu zuen ingurunetik eta lortu nahi zuen helburutik.

Osaera-data. Obraren helburua

§ 13. Obraren egituraren arazoari hertsiki loturik dago osaeraren datarena. Gutxi batzuek defendatu dute Xerxesen espedizioaren narrazioaren lehentasun kronologikoa (VII-IX liburuak). Sorburuko ideia monografia labur batena izan bide zen, Herodotok bere bidaiak egiten hasi baino lehen idatzi bide zuena eta gerora txangoak egitean bildutako materialez osatu zuena³³. Hala ere, zabalduago dago alderantzizko ustea, "Pertsiaen Historia" lehenago idatzia denaren aldekoa, beraren eta "Gerra Mediarrek" lanen artean nabari den bilakaerarengatik batik bat, material historiagarriaren kontzeptuari dagokionez. Lehena idazteko Atenasen egon zen urteak ematen dira. Turiosen kolonizazioaren aurre-aurrekoak (ca. 447-444). Terminus ante quem dagoeneko aipatu dugun Sofoklesen Antigonaren antzezpena izango litzateke, eta post quem eta 455 edo 449. urteez geroko Egiptorako bidaiak, baldin eta onartzen baditugu lehen aipaturiko egiptoar erreboltan oinarrituriko argumentuak. Parte hori hartzaile atenastarrentzat idatzia izango zen, zeren eta erabilitako konparazio gehienak Atikako biztanleentzat bakarrik baitira ulergarri³⁴.

§ 14. Bigarren partea denboraldi bat geroago idatzia bide da, Peloponesoko Gerratearean (431-104) lehen urteetan³⁵. Eztabaida ugari izan da hori idaztean

Herodotok izan zituen asmoez. Meyerrek, joan den mendearen azkenetan, defendatu zuen bere garaiko Atenasen eta Periklesen politikaren defentsa gisa idatzi zuela, Heladen gogor auzitan jartzen ari ziren urte batzuetan³⁶. Urte batzuk geroago Jacobyk zuzendu egin zuen zertxobait ikuspuntu hau: defentsa ez litzateke gerraren hasierako Atenasena, baizik eta 460-440. urteetako Atenas bikainarena, besteak beste, Espartarenganako ere begikotasun handia ageri baitu, urte horiek baino geroagoko politikaren defentsa batekin ongi ezkonduko ez litzakeena³⁷. Polenzek uste zuen Herodotok idatzi zuela Heladerenganako miresmenak eta esker onak eraginik, zeren eta txikia eta sakabanatua, bere independentzia eta askatasuna gordetzen jakin izan zuelako pertsiarren erasoaren aurrean³⁸. Azken horren kontra esan liteke ausardikeria dirudiela Herodotori ca. 430. urtean Gerra Mediararak amaitu eta berehalakoa areagoa dirudien sentimendu bat, egoera politikoak aldaketa errotikorik izan ez balu bezala iragandako 50 urteetan. Hedatzen ari zen inperio baten aurrean independentzia eta askatasunaren ideala defendatu zuen Atenasi askok gaitz bera salatzen zioten, eta ez dirudi sinesgarria Herodotok zirkunstantzia berriak kontuan ez izatea. Azkenik, Strasburger edo Fornara bezalako autoreek ez dituzte hain argi ikusten Herodotoren begikotasun filoatenastarrak eta bere "kredo politiko"-tzat (V,78) hartu izan dena bera garatzen ari denean ere, hitz gakoa "askatasuna" da ejleu?eriva, nahiz eta pasarte horretatik erregimen demokratikoari atxikirik zegoela argi eta garbi ateratzerik ez egon. Herodoto tiraniaren kontra bakarrik agertuko litzateke, baina etsaitasun hori, jakina denez, ez zen demokraten ondarea soilik, baita aristokraziarena ere. Horrela ulertzen da Historian Espartak, oro har, hartzen duen aldeko trataera. Herodotok bi estatuenganako zituen begikotasunak, nahiz eta orduan buruz elkarren kontra jarrita egon, Pertsiaen porrota ahalbidetu zuen askatasun eta independentziazko ideologia horren errainu lirateke, gauzatzeko estatu-era egokienaren eztabaidan sartu gabe. Hau da, Herodoto ideologia zabal baten defendatzaile gisa aurkeztuko litzateke, ez konstituzio politiko berezi baten aldeko. Horri lotutako auzi bat da Herodotok Alkmeoniarren, Periklesen familia atenastarraren alde ageri zuen joera alderditarra. Beste batzuen iritzian, hura gorestekoa idatziak omen diren pasarteak xeheki aztertuz gero, Fornarak ateratzen duen ondorioa da objektiboak direla, eta ez inondik ere alderdikoiak; gainera, Perikles ezagutzen dugunetik, ez dirudi ideologikoki Herodotorengandik hurbil egon zitekeenik³⁹.

§15. Nolanahi ere, Herodotoren aurka zuzenduriko alderdikotasun-salakuntzak antzinakoak dira. Plutarkok opuskulu bat eskaini zion --De Herodoti malignitate-- eta izenburuak dena adierazten du. Bertan Herodotoren "makurkeria" guztien zerrenda bat dago bere obratik ateratako adibideekin: hiztegi peioratiboaren erabilpena, norbaiten alderdi negatiboak azpimarratzera zuzenduriko digresioak eta, alderantziz, egite positiboak esan gabe uztea nahiz eta kontatzeri ongi egokitu; bertsio desberdinen artean kontrakoena hautatzea; borondate txarreko aieruak adieraztea; egintza aintzatsuei garrantzia kentzea, ahaleginik gabe edo zoriz egin direla iradokiz, eta abar. Plutarko beoziar, korintoar eta espartarrei berei emandako tratuaz kexatzen da, lehenei bere filomedismoarengatik, eta bigarrenei une erabakigarrietan absente egoteagatik, azkenei laguntza emateko orduan berandutzen zirelako, ia beti jairen bat ospatzen zeudelako. Alde batera utzirik ahakarkizun horietan egon litekeen herra pertsonala (Plutarko Beozia, Keroneakoa zen), orokorrean obraren objektibitatea auzitan jartzen zuen sentimendu bat zegoelakoaren adierazgarritzat har daitezke. Ez da bidezkoa, ordea, Herodotoren aurka gertakarien aurkezpenetik harago doan gaitzerizkoz jardutea. Antzinako aedo eta rapsoden gisara berak ikuspegi orokor batetik narratzen du, ez lokalistatik, eta ageri dituen begikotasunen zabalera ez dator bat batzuek egotzi nahi izan dioten alderdikotasun filoatenastarrarekin. Herodotok ez du Atenas gerraria

zuribidetzen, baizik eta iraganeko distiraren ondorio tragikoak erakustera mugatzen da. Egoeraren ikuspegi errukitua aurkezten da, hori bai, orduan sortzen zuen gorrotoa baztertuz: Atenas bere handitasunaren biktima izango litzateke beste hiriak beren espansionismoarenak izan diren bezalaxe. Eta 431ko gerraren hasiera izan bide zen monografia batean Xerxesen espedizioa narratzera bultzatu zuena. Une historiko hartan greko guztiak elkartu ondoren hegemoniarengatik liskarra sortu zen, gutxi-asko estalia 50 urtez eta erabat agerikoa 431. urtez geroztik. Atenas Inperio pertsiarren antzeko prozesu batean erori zen eta Herodoto elikatu zuen psikologia, inperialismoarena aztertzen ahalegindu zen. Hitz batean, Esparta eta Atenasenganako sentitzen zuen miresmena bateraezina da jarrera alderdikoi itxi batekin, baina hain zuzen ere azken horrenganako begikotasunak haren egoera historikoa hobeki ulertzeko ahalegin berezi bat egitera eramane zuen, baina ez zuribidetzeraz.

§ 16. Labur esateko, Herodotok "Gerra Mediarak" Atenasen idatzi zituen Peloponesoko Gerratearen lehen urteetan. Aldez aurretik "Pertsiaeren Historia"-ren birmoldaketa bat egin bide zuen liburu berriekiko erlazioan jartzeko. Berrikusketa ez zuen oso xeheki egin, gerora betetzen ez diren iragarpen batzuk kontuan hartuz gero (deigarriena logos asiriarrarena da I, 184an, behin betiko idazkuntzan ageri ez dena). Inkoherentzia horiek obrak argitalpen postumo bat izan ote zuen pentsarazi diote zenbaiti, agian Herodoto bera izurritearen biktima izan ondoren, lehenago esan denez. Horrela izan edo ez izan, osaera-akatsak obra iritsi zaigunez osorik ote dagoen ala ez planteatzera behartzen gaituzte. Kontrako argudioak batez ere azken kapituluetan oinarritzen dira (IX, 114-122), berarentzat azken galdortzat duinak ez diruditen gertakariak narratzen baitituzte. Batzuentzat, logika hutsean Eurimedonteko (467/6) batailaraino luzatu behar zuen, Asia Txikiko grekoen independentzia eta askatasuna behin betiko segurtatu baitzituen. Jakitun gehienak, ordea, ados dago itxitzat ematean, ikuspuntu formalek ez bada (agian epilogoren bat itxaron zitekeen), edukiarenetik gutxienez. Kresoeke Jonia dominatzearekin hasten da obra eta Mikaleko (479) batailaren ondorengo askapenarekin amaitzen da, ziklo historiko bat itxiz. Kontaeraren jarraipenak ziklo berri batean sartu izana esan nahiko zukeen, gerraren zuzendaritzatik Espartak alde egitea, Liga atiko-delikoa sortzea eta Pertsiaeren aurkako defentsa-politikaren ezaugarriak zituen batean. Gainera, ideia bera I, 4, 4an "Zeren, pertsiarrek Asia eta bertako biztanleria barbaroa etxekotzat jotzen dute, Europa eta heleniar herria, ordea, bereizitzat" eta IX, 116, 3an errepikatzen da, "eraztun-osaera" izeneko teknikaren arabera, literatura greko arkaikoan hain sarri agertzen dena. Azkenik, obra ixten duen esaldiak "nahiago izan baitzuten lurralde antzuan bizi eta inperio bat edukitzea, haren emankorrek landuz beste batzuen esklabo izatea baino" amaiera-kutsu nabaria du. Hitz batean, badirudi Herodoto gehiago bizi izan balitz ez zukeela erlatoa luzatuko, nahiz eta osaera-akatsak zuzenduko zituzkeen agian. Aristofaneren Akarnatarrak, 523-9an idatzi eta 425ean antzeztu zen obran irakurtzen ditugun Historiaren hasierari buruzko isekak obrak berehalaxe lortutako hedapen eta arrakasta handiaren adierazgarri dira.

Iturriak. Metodologia

§ 17. Excursus modura osatze-teknikak eta Historian planteaturiko gaien zabalerak, erabilitako iturrien arazoa planteatzen dute berehalatik. Herodoto biltzaile soiltzat hartu izan dutenen mutur-jarreraren erori gabe -orduan multzo osoaren taxukera artistikoan bakarrik legoke haren originaltasuna-, bistan dago material guztiak ez dituela bereak, baizik eta aurreko materialak baliatu zituela, bai idatziak eta bai ahozkoak. Pasarte desberdinetan ikusarazten ditu argi eta garbi horiek hautatzean erabiltzen dituen irizpideak. Niloa eta horren iturriez (II, 29) dio Elefantinako hirian berak ikusitakoa narratzera doala eta, horretaz hegoalderago, omenka dakiena. II, 99an dio ordura arte bere "behaketak" o[yl], "iritziak" gnwvmh eta "ikerkuntzak" iJstorivh hitz egin

dituela, eta aurrerantzean "kontaerak" lovgoi kontatukoa dituela entzun zituenez. Pasarte horiek eta beste batzuek agerian jartzen dute nolako aldea dagoen iturrien artean, "behaketa pertsonal" eta "kontaeren" artean, lehenaren aldeko nagusitasunarekin. Kontuan har bedi Herodotok iritzia behaketaren alboan jartzen duela, eta horrek historialariaren ezgaitasuna aitortzea esan nahi du erlatoen balioespen kritiko bat, baina horrek ez du esan nahi besterik gabe onartzen dituenik. Baina iturri ez-literarioez hitz baino lehen zerbait esan dezagun literarioez, horiez eztabaida luzeak izan baitira.

Horien artean Samosko Kerilo aipatzen da, Pertsiaokoak titulua duen Gerra Mediarrei buruzko poema epiko baten egilea aipatzen da, Dionisio Miletokoa eta Karonte Lanpsakokoa, izenburu bereko prosazko bi obraren egileak, Xanto Lidiakoa, Lidiako Erlato batzuen egilea. Horiengandik iritsi zaizkigun zatiak, oso urriak dira menpekotasun-erlazio bat ziurtasunez ezartzeko. Gainera, horietako batzuen kronologia oso eztabaidatua da, horregatik ez da argi gelditzen denborazko aurrekotasuna. Nolanahi ere aurreko material idatzien biltzaile soil Herodoto bihurtzeak haren lana historiografia modernoaren ikuspegitik interpretatzea esan nahi du, izan ere horrentzat iturri idatziek eta beste historialari batzuen informazioak lehentasuna baitute. Herodotok gehien erabilitako autorea Hekateo Miletokoa dela onartu izan da, pasarte batean baino gehiagotan aipatzen baitu (II, 142; V, 36; VI, 137). Lurraren inguraldi bat idatzi zuen Gh~" perivodo" Mediterraneoaren deskribapen bat, mendebaleko muturretik ekialdekoraino bat itxuraz zeukan periplo bat zeukan bere baitan, batez ere Herodotok Egiptori buruzko II. liburuan erabili zuena. Ospetsu bihurtu da II, 143an datorren anekdota, Hekateok Tebasko apaizekin izandako elkarriketarena: hark bere genealogia adierazi eta 16. belaunaldiko jainko batengan jarri zuen bere etorkia, eta haiek apaiz nagusien 345 belaunaldiren estatuak erakutsi zizkieten, tartean inolako jainkorik gabe. Herodotok ateratzen duen ondorioa logikari garbienean sartzen da: grekoek beren artean bizi izandako azken jainkoei usadioz izendatzen dieten data (Dioniso eta Pan, beren aroa baino 800-900 urte lehenagokotzat jotzen dituzte), jainko bezala existitzen zirela jakin zuten garaiari dagokio, baina lurrean askozaz lehenagotik ibili bide ziren, egiptoarrek ziotenez. Herodotok pasarte batean baino gehiagotan hitz egiten du genealogien eta Periloen osatzaileez, eta horrek esan nahi du haien idatziak ezagutzen eta erabiltzen zituela. Dionisio Halikarnasokoak⁴⁰ Peloponesoko gerratearen aurretik loratu ziren eta tradizio epikorikoez narratzen zituzten historialari-sail baten izenak ematen dizkigu. Ez dakigu Herodotok horiek zer neurritan ezagutu eta erabili zituen.

§ 18. Iturri literario, geografiko eta etnografikoen erabilera "Pertsiaeren Historia"-n handiagoa izan bide zela onartzen da, non halaber ugariagoak diren bidaietan jasotako behaketa pertsonalak ere. "Gerra Mediarrek" obran, alderantziz, izaera ez-literarioko iturriak erabili bide zituen, hala nola, orakulu-bildumak, konposizio poetikoak, agiri ofizialak, eta abar, baita gertakarien erlato herritarrek ere. Zailtasuna datza Herodoto haien menpeko zer puntutaraino izan zen jakitean. Batzuek uste dute material osoak hartu zituela logoi horietatik ia batere aldatu gabe eta beste batzuek diote anekdota batzuk bakarrik hartu zituela, informazio gehiena ahozkoa zelarik, gertakarietan esku hartu zuten pertsonengandik entzuna. Eskuarki tokiko iturriak "atenastarrek diote", "Arkadian kontatzen denez", "Menfisén entzun nuen" bezalako esamoldeekin aipatzen ditu; aipu epikoriko deituak dira, bai Greziako eskualde eta hirietakoak eta bai Ekialdeko edo Egiptokoak⁴¹; eta horiei subjektu gabeko aipuak gehitu behar zaizkie ("diote", "kontatzen dute"). Aipu anonimozko bi talde horien aurrean oso urriak dira informatzailearen edo haren karguaren izena ematen digunak (adibidez, "Tebasko, Menfisko eta abarreko apaizak). Herodotok hobespenez aipatzen ditu bere iturriak gertakari beraren bertsio kontrajarriak daudenean, bai atseginena zaiona hautatzeko askatasuna irakurleari utziz⁴², bai berak bere iritzia azalduz (I, 65; II, 2; III, 32; VI,

137). Beste kasu batzuetan, aitzitik, iturrien batetortzeak aukera ematen dio Herodotori kontatzen ari denaren sinesgarritasuna azpimarratzeko (I, 20; 23; II, 75; IV, 12; 150). Iturri bakarraren kasuan haren jarrera antzekoa da: aipatzeak ongi balio du bere informazioak berretsi eta sinesgarritasunez hornitzeko (adibidez, II. liburua orokorrean), baita erantzukizuna bere gainetik kentzeko ere behar bezain egokitzat jotzen ez direnean (II, 123; III, 9; VII, 152).

Ideologia

§ 19. Baldin eta batzuek edukiz Herodotoren obra batzerik ez dagoen material-multzo bat bezala hartzen badute, hori errazago aurkitzen da ideologiaren alorrean. Herodoto izpiritu greko berantarkaikoaren adibide peto bat da, eraldakuntza bizkorrean aurkitzen den mundu batean. Nahiz eta alde batetik ez jarri zalantzan jainkoen existentzia, ezta orakulu, amets eta mirarien bitartez giza bizitzan haiek duten esku-hartzea, bestaldetik ezin zuen ihes egin filosofia eta zientzia joniarraren izpiritu arrazionalistaren eraginpetik, eta horrek batzuetan mito batzuk razionalizatzea darama, beste batzuetan tradizio herediatutik onartezintzat dauzkan osagai batzuk kritikatzera Xenofanes Kolofongoa bezala, jainkoen kontzepzio antropomorfikoaren eta Homerok eta Hesiodok ezarritako akatsen kritikari zorrotza, sineste tradizionalak osagai aizun orotatik arazten duen joerakoa da, haiek alde batera uztearen aldeko zirenen aldean. Hala eta guztiz ere, nahiz eta funtsean izpiritu erlijiosoa izan, eskuarki jainkotasunera jo gabe eraikitzen ditu gertakariak. Haren obran kritika arrazionalista sistematiko bat ez egoteak ez du esan nahi egoki deritzonean erabiltzen ez duenik. Adibide adierazgarri bat Hekateok eta Tebasko apaizek izandako elkarrizketaren lehen aipaturiko anekdota da. Beste ospetsu bata haren obrako lehen kapituluetan irakurtzen duguna da: Europa eta Asiaren arteko erasoen aurrekari mitikoak kontatzen hasten da -Io eta Helenaren harrapaketa asiarren aldetik, Medea eta Europarena grekoen aldetik-, eta horietan dauden bertsio desberdinen oihartzun bihurtzen da, eta ez ironiarik gabe, eta bai gertakariei buruz berak daukan iritziarena ere, bera ez dela horiez guztiez arduratuko azkenik baieztatzeko, baizik Kreso Lidiakoaz, hartaz ziurtasunez baitaki grekoen lehen erasotzailea izan zela. Jarrera kritiko horren ondoan, narrazioan etengabe ageri dira osagai mitikoak eta erlato fantastikoak, naturaltasun osoz sartuak. Adibidez, Xerxesen erasoaren aurrean Delfoseko orakuluak iragarrita zeukan Apolo jainkoak berak zainduko zuela barrunbe sakratuaren segurtasuna, eta hala gertatu zen: pertsiarrek iristean mirari batzuk gertatu ziren eta Herodotok onartu egiten ditu giza ihardunaren aldetik azalpenik bilatu gabe (VIII, 36-39). Osagai supernaturalaren barruan, orakulu eta ametsak leku nabarmena dute Historian. Azken horiek, Homerorenekin alderatuta, funtzio desberdinagoak dituzte: destinoa iragartzen dute, heriotza edo jaiotza baten berri ematen dute, egintza bat agindu edo lasaitu egiten dute. Baina beren funtzio supernaturala gorabehera, oso bakan egozten zaizkio jainkotasun bati eta oraindik gutxiago jainko jakin bati: ametsa faktore psikologikotzat, barnekotzat areago hartzen da kanpokotzat baino⁴³. Orakuluei dagokienez, Herodotok ez du zalantzan jartzen haien egiazkotasuna jainkoaren borondatearen adierazpidetzat. Orakulu bat faltsua dela baieztatzen duenean, esan behar zuenari sobornoren bat egin izanagatik gertatzen da (V, 63; VI, 66), eta aurkezten dituen eszeptikoak ez dira grekoak, barbaroak baizik, Kreso (I, 46 hh.) edo Mardonio (VIII, 133) bezalakoak⁴⁴. Hitz batean, Herodotok ezin hobeki konbinatzen ditu sinestezintzat daukanaren kritika arrazionala ametsak eta orakuluak bezalako gertakari supernaturalen jatorri jainkozkoa irmo sinestearekin.

§ 20. Orakulu eta ametsen betekizun nagusietako bat era bazterrezinean betetzen den destinoa iragartzea da. Nahiz eta Kresok ahaleginak egiten dituen Atis bere semea ametsak iragarritako burdin puntarengatik heriotzatik libratzeko, destinoa, halabeharrez bada ere, nagusitu egiten zaio (I, 34-45). Gertatutakoaz jainko bati ardura egotziz

pasartearen amaieran Kresok esaten dituen hitzak, baita Herodotok berak haren hasieran "jainko baten sumina" esateak auzi horri buruz pentsatzeko duen moduari buruzko aztarna nabariak dira. Era berean Kanbises errege pertsiarrek ere eragotzi egin nahi du Smerdis anaiari heriotza eman ez hura errege-aulkian esertzea, ametsak iragarri zionez, baina destinoa ezinbestean betetzen da eta beste Smerdis batek, aztiak, usurpatzen dio tronua (III, 30 eta 61 hh.). Destino baten "premia"-ren adierazpenak sarri agertzen dira: "Kandulesi halabeharrez zoritxarra baitzegokion" (I,9), "Baina naxostarrak espedizio honen pean suntsitzea ez zenez patua" (V,33) "Baina halabeharra zen Eetionen oinordekoa Korintoko zorigaitzen iturri izatea" (V, 92, 4), eta abar. Itxura guztien kontra formula horiek ez dira pentsamolde ezkor eta determinista baten aztarnak, eta gizakien erabaki libre eta banakoa ez dute baztertzen. Homeroren obran bezala, plano jainkozkoa eta gizakizkoa ez dira elkarren kontrakotzat, bateraezintzat hartzen, baizik eta elkarren osagarritzat gizakien bizitzan. Horiek pentsamendu eta giza desirak eraginik dihardute, eta horiekin tarteka faktore jainkozkoa ere tartekatzen da. Horrela argi eta garbi ageri da hori Grezia inbaditu baino lehen Xerxesen deliberazio eta zalantzetan: lehen erabaki positibo baten ondoren Artabanoren aholkuek atzera jotzera daramate, baina hiru aldiz amets bera agertzeak Greziaren aurka joka dezan behin betiko erabakia hartzera bultzatzen du (VII, 12-18). Xerxes horrela figura tragiko baten ezaugarriekin aurkezten du, ezagutzen ez duen destino itzuriezin batek hondamendia ekarriko dion erabaki bat hartzera bultzaturik, baina hartu ondoren, erabat bere gain ezartzen du. Baina ez da hori Herodotok tragediarekin duen ukigune bakarra. Antzezpen tragikoetan desfase bat zegoen modura ikusleek (tradizio mitikoa ezagutzen zutelako) zeukaten informazioaren eta heroi tragikoak zeukanaren artean desfasea zegoen bezala, haiengan horrenganako errukia sentiarazteko erabiltzen zena, horrela Herodotok ere isildu egiten ditu bere obrako pertsonaia batzuen zenbait alderdi, bai aldekoak eta bai kontrakoak, baina ez alderdikieriaz, dramatizatzeko baizik, entzuleek oso ongi ezagutzen zituzten figura batzuk dramatizatzeko baizik⁴⁵. Bestalde, ondorio moralak "harrokeria" u{bri" - "itsutasuna" a[th- "sumin jainkozkoa" nevmesi" Xerxesen jardura ezaugarritzen duena, nahiz eta presente egon mende bat eta erdi lehenago Solonen obran, Eskiloren tragediaren ezaugarri da: Asia eta Europa bere agintepean elkartu nahi izateagatik harrokeriazko bekatu batean erori zen eta itsutasunak Helesponto itsasoari zigorkadak emateraino eramanez, gurutzatzeko eraiki zuen zubi bat ekaitzak hondatu zionean (VII, 34-36), eta horregatik jainkoei kolera jasan behar izan zuen porrot-erara. Eskiloren tragediaren ezaugarri berezia da, halaber, herentziazko errua, Gigesek bost belaunaldi lehenago egindako hobonarengatik Kresori emandako zigorrean agertzen dena (I, 13). Era berean giza oparotasunaren iraupenik eza, Solon eta Kresoren arteko elkarriketan agertzen denez (I, 32) eta horrek Zirori emandako aholkuan (I, 207), Eskiloren antzerkiaren ideia bereizgarrietako bat da. Hitz batean, Herodoto ezin hobeki kokaturik aurkitzen da bere garaiko espektro ideologikoan. Berarengan jainkoengan irmoki sinestea eta horren agerpenak eta azken horien alderdi batzuk errefusatzerako edo bere zalantzak agertzera eramaten duen arrazionalismo kritikoa konbinatzen dira.

Hizkuntza eta estiloa

§ 21. Nahiz eta doriarrek kolonizaturiko eskualde batetikoa izan, lehenago esan dugunez, Herodotok dialekto joniarra erabiltzen du, Jonia auzoaren eraginez eskualdean ohikoa zena. Haren hizkuntza, hala ere, ez da Halikarnasoko inskripzioetatik ezagutzen dugun joniera epikorikoa, ezta Hekateorena bezalako beste autore batzuen joniera garbiago ere. Hermogenes Tarsokoak (ca. K.o. 200) "misto"-tzat dauka⁴⁶. Dionisio Halikarnasokoak eta Fozioak, aitzitik, Herodoto dialekto joniarraren atikeraren "kanon"tzat daukate Tuzididesekin batera⁴⁷. Ez gaitu harritu behar balioespen-alde horrek, zeren eta agian biak baliozkoak baitziren zeukaten obraren bertsioetarako.

Arazoa zegoen Herodotok editore eta kopialarien hizkuntza arautzeko joeren pean jasan behar izatean. Horretara sartu ziren Historian, bai hizkuntza komun berantiarreko formak koinhv eta bai hiperjonismoak eta haren lumatik irten ez ziren beste dialektalismo batzuk. Jatorrizko hizkuntz forma berreraikitzea, beraz, alferrikakoa da, aldeztatik porrota ziurtatua duen ekintza. Zalantzarik ez dago Herodotok hizkuntz forma misto bat erabili zuela, oinarri joniarra zuena, baina arkaismo eta atizismo ugariak. Termino arkaikoak batez ere epopeiatik hartuak daude, luzaroan hezkuntza grekoaren oinarritzko eskuliburua izan zenetik. Atizismoei dagokienez, baliteke batzuk geroko transmisioaren emaitza izatea, baina ziurrenik gehienak autorearengandik berarengandik datozenak dira. Liga atiko-delikoa eratzean koinhv edo hizkuntza komun bat hasi zen eratzen dialektoen gainetik, oinarritz batez ere atikoa zena, baina beste dialektoetatiko ekarriekin, jonierazkoekin batik bat. Ez da harritzekoa, beraz, Herodoto, Atenas eta Turiosen bizi zenak forma atikoak erabiltzea hertsiki joniarrak zirenen aldean⁴⁸.

§ 22. Bukatzeko, esan dezagun zerbait estiloaz. Dionisio Halikarnasokoak Tuzididesekin konparatzen du eta honako berezitasun hauek azpimarratzen ditu: haren terminoen garbitasun eta argitasuna, bigarrenaren laburtasun adierazkorraren aldean, beti ez baitu behar adinako argitasunik agiri; karaktereak marraztean duen trebetasuna, emozioen alorrean duen domeinuaren aldean; pertsuasioa eta gozamina, kemenak eta tiranduraren aldean; labur esateko, Dionisioarentzat Herodotoren hizkuntza "edertasun maitekorra" deitzen duenak ezaugarritzen du, Tuzididesen "edertasun izugarri"-aren aldean⁴⁹. Aristoteles baino mendeak lehenago Herodoto ezarria zuen levxi" eijromevnh edo "estilo elkarbigiztatu"-aren eredutzat, beste autore greko batzuek zuten levxi" katestrammevnh edo "estilo periodiko"-aren aurrez aurre⁵⁰. Lehenaz dio antzinako guztiek eta bere garaiko batzuek erabiltzen zuten estiloa zela, eta ez duela amaierarik bere baitan garatzen duen gaia bukatu ezean. Zehazgabetasun horregatik Aristotelesek dio ezatsegina gertatzen dela, estilo periodikoaren aldean, non irakurleak argi eta garbi hautematen dituen eraikuntzaren egitura eta bukaera. Terminologia modernoa identifika genezake, grosso modo, estilo periodikoa "menpekotze"-arekin, eta "elkarbigiztatua" juntatze edo koordinazioarekin. Lehenaren ezaugarria da perpausetan periodo konplexuak izatea, nagusi batekin eta menpeko batekin edo gehiagorekin. Perpaus horiek batasun itxi bat, periodoa eratuz, osatzen dute elkar. Estilo "elkarbigiztatu"-an, aitzitik, parez pareko perpausak ondozkatzen dira, menpekotasun eta batasunik batere eratu gabe: hortik dator Aristotelesen baieztapena, hizkuntzaren erakuntza gaia agortzean bukatzen dela, ez egitura bat ixten delako, eta haren iritziz, desatseginagoa omen da, irakurleak ez baititu argitasunez ikusten kontuaren batasun desberdinak. Izan ere, Herodotoren ezaugarria lokailu koordinatzaileak erabiltzea da, izenordeak (erakusleak, pertsonalak, eta abar.), aurreko baieztapen baten edukia birkapitulatzeko balio duten partizipioak, eta abar⁵¹. Ez dira falta, ordea, prozedura estilistiko finagoak, antitesiak, paralelismoak, errepikapenak eta abar bezalakoak, Sofistikaren mugimenduaren inguruan sortzen ari den prosa berriak dituenak. Ez dira falta periodo menpekotu luze samar eta konplexuak ere. Baina haren hizkuntzaren ezaugarria estilo laua, berezkoa, arautua da, Zizeronek ezin hobeki ezaugarritu zuena esatean "Herodotoren jarioa korrante patxadatsu bat da, inolako zakarkeriarik gabea"⁵².

José M. FLORISTÁN IMIZKOZ

Oharrak

¹ Arist., Rh. 1409-28. Interpolazio bat dela argi gelditzen da zeren aipaturiko esaldia adibide txar bat baita Aristotelesek esaten duen estilo literarioarena eta sintaxia argiro hausten duelako.

- ² D.H. Th. 5; Luc., Herod. 1; Luc., Dom. 20; Phot., Bibl. 148b 13; Demetr., Eloc. 17.
- ³ Plu., Mor. 868A eta 604F; Str. 14, 2, 16; Sud., s. v. ÔHrovdoto".
- ⁴ Eztabaida honen historiaz Antzinarotik gure egunotararte, cf. M. AMERUOSO, "Erodoto turio", *Annali della fac. Lett. Bari* 34, 1991, 95-117.
- ⁵ Gell. 15, 23.
- ⁶ J. E. POWELL, *The History of Herodotus*, Londres 1939, 8r hh.
- ⁷ Sud., s. v. ÔHrovdoto".
- ⁸ EUSEBIO, *Chronicorum Canonum quae supersunt*, ed. Schöne, vol. II, Berlin 1866 (berrinpr. Dublin-Zurich), 106-107. Nahiz eta S. Jeronimok Eusebio itzultzen duen, honek gertakaria aldi horretako hirugarren urtean kokatzen du (446/5), hark, berriz, laugarrenean jartzen du (445/4).
- ⁹ Plu., Mor. 862B
- ¹⁰ Marcellin. Vit. Thuc. 54; Phot., Bibl. 19b 36hh; Sud., s. vv. Qoukudivdh" eta ojrga~n. Azken bi iturriek irakurketa hori Olinpian kokatzen dute, Joko panheleniar batzuk zirela-eta.
- ¹¹ Str. 14, 2, 16; Plu., Mor. 604F eta 868A; Plin., HN 12, 18; Sud., s. v. ÔHrovdoto".
- ¹² J. E. POWELL, O. C. 79.
- ¹³ J. E. POWELL, O. C. 24hh.
- ¹⁴ D. H., Th. 5.
- ¹⁵ Cic., Leg. I, 1, 5.
- ¹⁶ Phot., Bibl. 19b 19hh.
- ¹⁷ Autorea bera jabeturik dago errealitate horretaz eta bere digresiozaletasuna aitortu ere egiten du, cf. IV, 30; VII, 171.
- ¹⁸ F. JACOBY, "Herodotos" in PAULY-WISSOWA, *Realencyclopädie der Classischen Altertumswissenschaft*, Supplementband II, Stuttgart 1913, 205-520 zutab.
- ¹⁹ Adibide gisa honako azterketa hau aipatzen dut: W. ALY *Volksmärchen, Sage, Novelle bei Herodot und seine Zeitgenossen*, Göttingen 1921 (19692), Historia marko orokor gisa hartzen baitu, non kontraera zahar eta berriak sartzen diren.
- ²⁰ M. POHLENZ, *Herodot, der erste Geschichtsschreiber des Abendlan-*

des, Neue Wege zur Antike, II Reihe, Heft 7/8, Leipzig 1937 (berrinprim. Teubner, Stuttgart 1961).

21 H. F. BORNITZ, Herodot-Studien. Beiträge zur Verständnis der Einheit des Geschichtswerkes, Berlin 1968.

22 Pindaro (P. 1, 92-94) eta N. 6, 30) erlaziotan jartzen ditu prosazko kontaera hauek lovgoi kantu epikoekin, eta horien errezitazailleak lovgioi aedoekin.

23 II, 143; V, 36, 125 logopoiov" ikusteko; I, 1; II, 3; 77 lovgio" ikusteko.

24 Th. 1, 21; 22, 4.

25 D. H., Pomp. 3, 11; Aristid., Or. 49, 381. Longn. 13, 3, hizkuntza eta estiloari dagokie funtsean, baina kalifikatiboa, esan dugunagatik, konposizioari ere egotz lekiok.

26 Arist., Po. 1451a 36hh.

27 Adibidez, M. POHLENZ, O. C. 120 hh. eta M. GIGANTE, Nomos basileus, Napoli 1956, 123-145 orr.

28 J. B. BURY, The Ancient Greek Historians, N. York 1908, 45 or.

29 O. REGENBOGEN, "Herodot und seine Werk. Ein Versuch", Die Antike 6, 1930 [202-248], 245 or.

30 W. SCHADEWALDT, "Die Anfänge der Geschichtsschreibung bei den Griechen", Die Antike 10, 1934, 157.

31 G. DE SANCTIS, Studi di storia della storiografia greca, Il pensiero storico 34, Florentzia 1951, 25hh.

32 Luziano, Hist. cons. 38-42, Tuzidides eta Xenofonte historiografia egiazko eta alderdikeria gabearen eredutzat jartzen ditu, lausengu eta morronkeriarik gabe, egia bakarrik bilatzen duenarena, inoren ederra irabazten edo inor gaitzesten ibili gabe. Horretarako ondorengo belaunaldien epaia bakarrik hartu behar da jarduera-arautzat, ez historialariari garaikideek egiten dioten onarpena.

33 J. B. BURY, O. C., 39hh.

34 Hala uste du J. E. POWELLEK, O. C. 36-38.

35 Jadanik E. MEYERREK, Forschungen zur Alten Geschichte I, Halle 1892, 154 baieztatu zuen ondorio ziur bakar honetara iritsi zirela Herodotoren obraren kronologiari buruzko ikerketak.

36 E. MEYER, O. C. II, Halle 1899, 196hh.

37 F. JACOBY, O. C. 359 zutab.

38 M. POHLENZ, O. C. 175 or.

39 H. STRASBURGER, "Herodot und das perikleischen Athen", Historia 4, 1955, 1-25; Ch. W. FORNARA, Herodotus. An Interpretative Essay, Oxford 1971, 37-58.

40 D. H., Th. 5,2.

41 Ikus bedi F. JACOBYgan aipu hauen zerrenda osoa, 398-99 zutab.

42 Gertakari beraren bi bertsio aurkeztearen teknika edo "argitzapen bikoitza", beraietako batekiko hobespena ageriki baieztatu gabe, Th. SPATH-ek aztertu zuen xeheki, Das Motiv der doppelten Beleuchtung bei Herodot, Diss. Viena 1968.

43 P. FRISCH, Die Träume bei Herodot, Meisenheim am Glan 1968.

44 J. KIRCHBERG, Die Funktion der Orakel in Werke Herodots, Göttingen 1965.

45 W. FORNARA, Herodotus. An Interpretative Essay, Oxford 1971, 59hh.

46 Hermog., Id. II, 12.

47 D. H., Pomp. 3, 16; Phot., Bibl. 19b, 17-19.

⁴⁸ Cf. M. UNTERSTEINER, *La lingua di Erodoto*, Bari 1949, edo H. B. ROSÉN, *Eine Laut- und Formenlehre der herodotischen Sprache*, Heidelberg 1962.

⁴⁹ D. H. Th. 23, 7 eta Pomp. 3, 16-21.

⁵⁰ Arist., Rh. 1409a 28hh.

⁵¹ Cf. E. LAMBERTS, *Untersuchungen sur Parataxe bei Herodot*, Viena 1967; D. MÜLLER, *Satzbau, Satzgliederung und Satzverbindung in der Prosa Herodots*, Meisenheim 1980.

⁵² Cic. Orat. 39.

Bibliografia

- ALY, W.: Volksmärchen, Sage und Novelle bei Herodot und seinen Zeitgenossen, Göttingen 1921 (19692).
- BENARDETE, S.: Herodotean Inquiries, La Haye 1969.
- BORNITZ, H.-F.: Herodot-Studien. Beiträge zum Verständnis der Einheit des Geschichtswerkes, Berlin 1968.
- COBET, J.: Herodots Exkurse und die Frage der Einheit seines Werkes, Historische Einzelschriften 17, Wiesbaden 1971.
- DARBO-PESCHANSKI, C.: Les discours du particulier. Essai sur la enquête hérodoteenne, Paris 1987.
- DREXLER, H.: Herodot-Studien, Hildesheim-New York 1971.
- EVANS, J. A. S.: Herodotus, Explorer of the Past. Three Essays, Princeton, New Jersey 1991.
- FEHLING, D.: Die Quellenangabe bei Herodot. Studien zur Erzählkunst Herodots, Berlin-New York 1971.
- FOCKE, F.: Herodot als Historiker, Stuttgart 1927.
- FORNARA, Ch. W.: Herodotus. An Interpretative Essay, Oxford 1971.
- FRITZ, K. von: Die griechische Geschichtsschreibung, I Von den Anfängen bis Thukydides, Berlin 1967, 104-475.
- GIL, L.: "La historiografía griega", Historia 16, a. X, n.º 105, 1985, 109-118.
- HART, J.: Herodotus and Greek History, Londres 1982.
- HARTOG, F.: Le miroir d'Hérodote, Paris 1980.
- HAUVETTE, A.: Hérodote, historien des guerres médiques, Paris 1894. Hérodote et les peuples non grecs. Neuf esposés suivis des discussions, Entretiens sur l'Antiquité Classique n.º 35, Geneva 1990.
- HOW, W.W.-WELLS, J.: A Commentary on Herodotus, I-II Oxford 1912-28.
- HUNTER, V.: Past and Process in Herodotus and Thucydides, Princeton 1982.
- IMMERWAHR, H.R.: Form and Thought in Herodotus, Cleveland 1966.
- JACOBY, F.: "Herodotos" in PAULY-WISSOWA, Realencyclopädie, Suppl. II, Stuttgart 1913, 205-520 zutab.
- LACHENAUD, G.: Mythologies, religion et philosophie de l'histoire dans Hérodote, Lille-Paris 1978.
- LANG, M. L.: Herodotean Narrative and Discourse, Cambridge-Mass. 1984.
- LATEINER, D.: The Historical Method of Herodotus, Toronto 1989.
- MASARACCHIA, A.: Studi erodotei, Roma 1976.
- MEYER, E.: Forschungen zur alte Geschichte I, 151-209; II, 196-268, Halle 1892-99.
- MYRES, J. L.: Herodotus, Father of History, Oxford 1953.
- PERADOTTO, J.-BOEDEKEN, D.: (eds.) Herodotus and The Invention of History, Arethusa XX 1-2, New York 1987.
- POHLENZ, M.: Herodot, der erste Geschichtsschreiber des Abendlandes, Neue Wege zur Antike, II Reihe, Hefte 7/8, Leipzig 1937 (19612).
- POWELL, J.E.: The History of Herodotus, Cambridge 1939.
- RAMÍREZ TREJO, A.: Heródoto. Historias, I-III, intr., A. Ramírez Trejoren itzulp. eta oharra, Univ. Nac. Autónoma de México, 1984.
- SCHEPENS, G.: L'autopsie dans la méthode des historien grecs du Ve siècle avant J. C., Brusela 1980.
- SCHRADER, D.: "Heródoto" in J.A. LÓPEZ (ed.) Historia de la literatura griega, Madrid 1988, 503-536.
- SCHRADER, C. Heródoto. Historia, C. Schrader-en itzulp. eta oharra, I-V liburukiak, Madril 1977-1989.

SELINCOURT, A. de: The World of Herodotus, Londres 1962.

VANDIVER, E.: Heroes in Herodotus: The Interaction of Myth and History, Frankfurt am Main 1991.

WATERS, K. H.: Herodotus on Tyrants and Despots. A Study in Objectivity, Wiesbaden 1971.

WATERS, K. H.: Herodotus the Historian. His Problems, Methods and Originality, Londres-Sidney 1985.

WELLS, J.: Studies in Herodotus, Oxford 1923.

WOOD, H. The Histories of Herodotus. An Analysis of the Formal Structure, Haga-Paris 1972.

I. LIBURUA

Hona Halikarnasoko Herodotoren ikerketaren azalpena, gizonak eginikoak denboraz desager ez daitezen, eta nola heleniarrek hala barbaroek buruturiko lan handi eta miresgarriak osperik gabe gera ez daitezen; elkarri egin zioten gerraren zergatia, besteak beste¹.

1. Persiarren arteko adituek, pheniziarrek izan zirela diote liskarraren eragile; zeren hauek, Erythre deritzaten itsasotik itsaso honetara² heldu eta gaurdaino bizi diren leku horretan egoitzatu orduko, itsasketa luzeei ekin omen zieten eta, egyptoarren eta asyriarren salkariak eramanez, beste [lurralde]en artean Argosa iritsi omen ziren. Eta Argosek, garai honetan, egun Helade izeneko lurraldean dauden guztiak gainditzen zituen. Beraz, pheniziarrek, Argos horretara iritsi ondoren, beren kargamendua saltzen jarri omen zuten. Eta iritsi zirenetik bosgarren edo seigarren egunera³, ia dena saldua zutenean, beste emakume askoren artean erregearen alaba etorri omen zitzaien itsasora. Honen izena, heleniarrek ere aipatzen dutena, Io Inakhorena⁴ zen. Emakumeok, itsasuntziaren txopan jarriarik, gogokoen zituzten salkariak ari omen ziren erosten.

Pheniziarrek, elkarren eraginez, gainera jauzi omen zitzaizkien; emakumeetatik gehienek ihes egin omen zuten; Io, ordea, besteekin batera harrapatu eta, untzian sartu ondoren, itsasoratuz, Egyptora abiatu omen ziren.

2. Persiarrek honela iritsi zela diote Io Egyptora, ez heleniarrek dioten bezala; eta hau izan omen zen bidegabekerietan lehena. Honen ondoren, heleniar batzuek (hauen izenik ezin baitute zehaztu), Pheniziako Tyron lehorreratuz, erregearen alaba Europa harrapatu zutela diote; kretarrak ziratekeen. Hori, hain zuzen, berdinarek berdinez gertatu omen zitzaien; honen ondoren, ordea, heleniarrak izan omen ziren bigarren bidegabekeriaren eragile. Izan ere, itsasuntzi luze baten Kolkhideko Ean eta Phasis ibaian lehorreratuz, eramandako beste zereginak burutu ondoren, erregearen alaba Medea harrapatu omen zuten. Orduan, kolkhoen [erregeak], Heladera mezularia bidaliz, harrapaketa-ordaina eskatu eta alaba itzultzea exigitu omen zuen; heleniarrek, ordea, beste haiek Argosko Ioren harrapaketa-ordainik ez zitetela eman erantzun omen zuten: hortaz, berek ere ez zitetela emango.

3. Eta, diotenez, gertakizun hauen ondorengo bigarren belaunaldian, Alexandro Priamorenak, hori entzuna zuelarik, harrapaketa-ordainik ez zuela eman beharko jakinik, heleniarrek ere eman ez zutelako. Honek Helena horrela harrapatu ondoren, heleniarrek, lehenik eta behin mandatariak bidaliz, Helena itzultzea exigitu eta harrapaketa-ordainak eskatzea erabaki omen zuten. Haiek eskariok aurkeztean, besteek Medearen harrapaketa aurpegiratu omen zieten, hots, berek ordainik eta itzultzeko eskatutakorik eman gabe nahi zutela besteengandik ordaina jaso.

4. Beraz, ordurarte, elkarren arteko harrapaketak izan omen ziren; ordutik, ordea, heleniarrak bilakatu omen ziren handiki harrapaketen errudun; izan ere, heleniarrek lehenago ezarri omen zuten gerra Asian berek Europan baino. Alabaina, emakumeak harrapatzea bidegabeko gizonen egintza zela uste omen zuten; burugabekoena mendekua egiteko apeta; zentzudunena, berriz, harrapaketen inolako axolarik ez izatea. Argi omen dago, egon ere, berauek nahi ez balute ez lituzketela harrapatuko. Persiarrek esaten dute berek ez zutela hitzik atera Asiatik harrapaturiko emakumeez; aldiz, heleniarrek, lazedemoniar emakumea zela eta, untziteria handi bat bildu eta, Asiara joanez, Priamoren boterea eraitsi zutela. Harrezkero, heleniar herria etengabe etsaitzat omen daukate. Zeren, persiarrek Asia eta bertako biztanleria barbaroa etxekotzat jotzen dute, Europa eta heleniar herria, ordea, bereizitatzat.

5. Honela gertatu zela diote persiarrek, eta heleniarrenganako etsaitasunaren hasiera Ilionen hondamenean aurkitzen dute. Ioz, ordea, pheniziarrak ez datoz bat persiarrekin; bada, diotenez, ez zuten Egyptora eraman harrapaketaren bidez; aitzitik, Argosen untzizainarekin nahasi zen, eta, haurdun zegoela ohartzean, gurasoen beldurrez, nabari gera ez zedin, bere gogoz itsasoratu zen pheniziarrekin. Gauza horiek dira, beraz, persiarrek eta pheniziarrek kontaktzen dituztenak. Ez noa esatera horrela ala agian bestela diren. Neuk dakit, ordea, heleniarren aurkako bidegabekeriei lehenik ekin zienaren berri; honen aditzera eman ondoren jarraituko natzaio aurrerantzeko kontakizunari, giza hiri txiki eta handietara era berean etorritz.

Izan ere, antzina handi zirenetatik anitz, txiki izatera heldu dira. Aitzitik, nire garaian handi zirenak, lehenago txiki ziren. Beraz, gizonaren zoriontasunak inoiz ez duela berean irauten jakinik, biak berdin aipatuko ditut.

6. Kreso, jatorriz lydiarra eta Alyatesen semea, Alys ibaiatz honantz⁵ herrien tyrano⁶ zen, ibai hori eguerditik syriarren eta paphlagoniarren artean igaroz ipar-haizerantz Euxino deritzan Ponton⁷ itsasoratzen delarik. Guk ezagunak ditugun barbaroetatik Kreso hau izan zen lehenik heleniar batzuk zergapean jarri eta beste batzuk adiskide egin zituen. Asiako joniarrak, eoliarrak eta doriarrak menperatu egin zituen, lazedemondarrak, berriz, adiskide egin. Kresoren aginte aurretik heleniar guztiak libreak ziren. Izan ere, Joniaren aurka zuzenduriko zimeriarren gudaldia, Kresorena baino lehenagokoa izanik, ez zen hirien hondamen izan, harrapaketarako sarraldi baizik.

7. Honela igaro zen heraklidek zuten buruzagitza mermnadena zeritzan Kresoren leinura. Heleniarrek Myrsilo izenez ezagutzen duten Kandaules, Sardesko tiranoa izateaz gainera, Alzeo Heraklesenaren jatorrikoa zen. Izan ere, Agron Ninorena Belorena Alzeorena izan zen Sardesko lehen errege heraklida; Kandaules Myrsorena, berriz, azkena. Lurralde honetan Agronen aurretik errege izan zirenak Lydo Atysenaren jatorrikoak ziren. Beronengandik jaso zuen izena lehenago meiondarra zeritzan lydiar herri osoak. Haiengandik berenganaturik, orakuluaz eskuratu zuten agintea heraklidek. Hauek Jardano eta Heraklesen mirabearengandik zetozen. Gizonezkoen hogeita bi belaunalditan bostehun eta bost urtez agindu zuten, agintea Kandaules Myrsorenarenganaino semeak aitarengandik eskuratuz.

8. Horrela bada, Kandaules hori bere andreaz maitemindu zen eta, maitemindurik, denetan emakumerik askoz ederrena zeukala uste zuen. Hala ezen, uste honetan, Kandaulesek Gyges Daszylorena, lantzarietako bat, guztiz begikoa baitzuen, Gyges honi arazorik axolazkoenak gomendatzeaz gainera, andrearen edertasuna biziki goraipatzen zion. Luzaro gabe, Kandaulesi halabeharrez zoritxarra baitzegokion, hona zer esan zion Gygesi: "Gyges, ez baitzaidak iruditzen andrearen edertasunaz hitz egitean sinesten didaunik (belarriak begiak baino sinesgaitzagoak dituk eta), molda hadi bera biluzik ikusten". Eta honek hala esan zion oihuka: "Jauna, zer proposamen zoro egiten didazu neure etxeakoandrea biluzik ikustera eraginez? Emakumeak soinpekoa erantztearekin batera galtzen du lotsa. Antzina gizarteak sorturiko lege ederrak ikasi behar dira. Hauetan bat, nork bereari begiratzea da. Sinesten dut bera dela emakume guztietan ederrena. Ez iezadazu, arren, legezkoa ez denik eska".

9. Honek bere hitzez ez zuen horrelakorik onartzen, hortik kalteren bat etor zekion beldur baitzen. Hala ere, besteak honela erantzun zion: "Izan ezak adore, Gyges, eta ez hadi nire beldur izan hi zirikatuz proposamen hau egiten diadalakoan, ez andrearen beldur ere beronengandik kalteren bat etorriko zaialakoan; zeren, hala konponduko diat den-dena, non jabetu ere ez den egingo hik bera ikusi duala. Gu lotaratzen garen gelan ezarriko haut ate irekiaren atzean. Ni sartu ondoren, neure andrea ere han azalduko duk etzateko. Sarrera ondoan bazegok throno bat. Erantzi ahala, soinekoetako bakoitza horren gainean jarriko dik eta lasaitasun handiz ikusi ahal izango duk.

Eta hura tronotik ohera abiatu eta hi haren bizkarraldetik jar hadinean, ahalegin hadi atondotik irteten ikus ez hazan".

10. Besteak ihesbiderik ez zuen eta, prest jarri zen. Kandaulesek, etzateko ordua zela iritzi zionean, Gyges logelara zuzendu zuen eta handik berehala agertu zen andrea ere; eta sartzen ez ezik, soinekoak jartzen ere ikusi zuen Gygesek. Eta emakumea etzatera abiatu orduko, honen bizkarraldetik jarri zenean, isilgordeka atera zen. Hala ere, emakumeak ikusi egin zuen irteten. Senarrak eginikoaz jabetu zen arren, ez zuen lotsaz garrasirik egin eta ezjabetuarena egin zuen, Kandaulesez mendekatzeko asmoz; zeren, lydiarren eta ia gainerantzeko barbaroen artean, gizonezkoa biluzik ikustea ere guztiz lotsagarritzat jotzen da.

11. Horrela, bada, emakumeak, aldi batean deus nabarmendu gabe, patxada izan zuen. Baina eguna iritsi bezain laster, leialenak zitzaizkiola zekusan zerbitzariak prest jarri ondoren, Gygesi deitu zion. Hau, eginikoaren berri erreginak deus ez zekielakoan, deitua izanik, etorri egin zen. Zeren, lehendik ere, erreginak deitu ahala, joan-etorriak egiten ohitua zegoen. Gyges etorri orduko, hau esan zion emakumeak: "Gyges, bide bi dituzu aurrean. Bietako zeinetatik jo nahi duzun aukera ematen dizut. Edo Kandaules hil eta egin zaitez nire eta lydiarren erresumaren jabe, edota berehala zeuk hil beharko duzu, denetan Kandaulesen esanera jarritz aurrerantzean ez dagokizunik ikus ez dezazun. Zinez, azpikeria hau egin duenak hil behar du edota zeuk, ni biluzik ikusi eta ohiturak hautsi dituzun horrek". Lehenik harritu egin zen Gyges esandakoekin. Gero, arren ez zezala behartu derrigorrez honelako aukera egitera eskatu zion.

Dena den, ez zuen konbentzitu. Aitzitik, edo nagusia hiltzea edota bestela bera hiltzea zinez ezinbestekoa zuela ikusten zuen. Berak bizirik irautea aukeratzen du. Orduan, hizketari jarraituz, honela galdetu zion: "Nahi gabe neure nagusia hiltzera behartzen nauzunez, esan, entzungo dizut eta: nola ezarriko diogu eskua?". Eta berak, erantzunez: "Erasoa, berak ni biluzik ikusteko eran jarri ninduen leku beretik izango da, eta loak hartzen duenean ezarriko zaio eskua".

12. Azpikeria moldatu orduko, gaua heldu zenean (Gygesi ez baitzitzaion uzten, inolako irtenbiderik ere ez baitzuen, nahitaez bera ala Kandaules hil), emakumeari logelaraino lagundu zion. Eta honek, aitzito bat eman ondoren, ate beraren atzean ezkutatzen du. Gero, Kandaules atsedenean zegoen bitartean isilgordeka atera eta, hau erail ondoren, Gyges andrearen eta erresumaren jabe egin zen. Eta Paroko Arkhilokhok ere, garai berean jaio zelarik, janbozko trimetro⁸ baten aipatu zuen.

13. Beraz, erresumaren jabetasuna bereganatu eta Delphosko orakuluak berretsi egin zuen. Izan ere, Kandaulesek jasana gaitzetsi egiten baitzuten lydiarrek eta armetan jarriak baitzeuden, Gygesen partaideak eta gaineratiko lydiarrak adostasunera iritsi ziren: baldin orakuluak lydiarren errege bera zela erabakitzen bazuen, bera izango zen errege, bestela, agintea heraklidei itzuliko zien. Orakuluak erabaki egin zuen, eta honela ekin zion Gygesek errege izateari. Pythiak, ordea, honenbesteko bat ere esan zuen: heraklidei, alegia, bosgarren belaunaldian⁹ iritsiko zitzaiela mendekua. Esan honi lydiarrek eta beren erregeek ez zioten jaramonik egin bete zen arte.

14. Mermnadek honela jabetu ziren tiraniaz heraklidei kendu ondoren. Eta Gygesek, tyrano egin zenean, ez zuen eskaintza gutxi igorri Delphosa; aitzitik, Delphosen zilarrezko eskaintza guztietatik gehienak harenak dira; eta, zilarraz gainera,

kontaezin ahala urre oparitu zuen; besteren artean gogoangarrienak, berak eskainitako urrezko sei kratera. Hauek korinthoarren altxortegian daude, hogeita hamar talentu¹⁰ pisatzen dutelarik. Egia esanda, ez da Korinthoko herriarena, Eetionen seme Zypselorena baizik. Bestalde, Phrygiako errege Midas Gordiasenaren ondoren, Gyges hau izan zen, guk dakigunetik, barbaroetan lehena Delphosen opariak eskaini zituen. Izan ere, Midasek eskaini zuen jendaurrean eseri eta bertatik epaiak eman ohi zituen errege-thronoa ere, ikusgarria delarik; eta throno hori Gygesen kraterak dauden leku berean dago. Bestalde, Gygesek oparitutako urre eta zilar honi delphostarrek, eskaintzailearen goitizenez, Gygesenak deritzete. Halaber, honek, agintera iritsi ondoren, gudaroste bat jaurti zuen Miletoren eta Smyrnaren aurka eta Kolophon hiria eskuratu zuen. Baina bere hogeita hemezortzi urteko erregetzan ez baitzuen beste lan handirik egin, hori guztia gogoratu ondoren, aurrera egingo dugu.

15. Eta Gygesen hurrena errege izan zen Ardys Gygesenaren aipamena egingo dut. Honek Priene eskuratu zuen eta Miletoren gain jaurti zen; eta hau sardestarren tirano zela, zimeriarrak, szythiar nomadek beren egoitzetatik egotzirik, Asiara heldu ziren eta Sardes hartu zuten, akropolia izan ezik.

16. Ardys berrogeita bederatzi urtez errege izan ondoren, Sadyates Ardysenak oinordetu zuen, eta hamabi urte errege izanik, Alyatesek Sadyates. Alyatesek Deiozesen jatorriko Zyaxaresi eta mediarrei gerra egin zien, zimeriarrak Asiatik bidali zituen, Kolophonek eraikitako Smyrna hartu zuen eta Klazomenasi gaineratu zitzaion.

Baina ekintza hauetatik ez zen nahi bezala atera, guztiz lur jota baizik.

17. Hala ere, agintean zegoela, beste egintza batzuk ere burutu zituen. Hona gogoangarrienak. Aitagandiko gerrari jarraituz, miletoarren aurka gudukatu zen. Aurrera egitean, era honetan setiatzen zuen Mileto. Lurrean uzta heltzen zeneko, bere gudarostea jaurtitzen zuen, eta soldaduak siringaren, harparen eta xirula emaztekiaren eta gizonkiaren soinuz aurreratzen ziren; eta Miletoko lurraldera iristen zenean, ez zituen landetxeak lurreratzen, ez erretzen, ez ateak apurtzen ere, zeuden-zeudenean uzten baizik; eta zuhaitzak eta lurreko uzta suntsitu ondoren, atzera bihurtzen ziren. Izan ere, itsasoz miletoarrak ziren nagusi; beraz, gudarosteak ez zuen setiatzen zereginik. Eta honengatik ez zuen lydiarrak landetxerik botatzen: miletoarrek haietatik irten eta lurra erein eta lant zezaten eta, haiek lan egin ondoren, bera gaineratzen zenean zer arpilaturik ere izan zezan.

18. Gauza hauek eginez, hamaika urtez gudukatu zen. Hauetan miletoarrek bi hondamen handi izan zituzten beren lurra zuten Limeneon eta Meandro zelaian. Hamaika urteotatik sei, Sadyates Ardysena izan zen lydiarren agintari, sasoi hartan bere gudarostea Miletoko lurraldearen aurka jaurtiz. [Sadyates] hori izan zen, hain zuzen, guduari ekin ziona. Baina sei hauen ondorengo bost urteetan Alyates Sadyatesena gudukatu zen. Lehen azaldu dugun bezala, bera izan zen aitagandik jasotako guduari kementsu eutsi ziona. Eta joniarretatik inortxok ez zien miletoarrei gudu hau arindu, soilki khiotarrek izan ezik. Hauek ordaina itzuliz lagundu zieten.

Lehenago miletoarrak izan baitziren khiotarrei erythrastarren aurkako gerra burutzen lagundu zietenak.

19. Alabaina, hamaikagarren urtean gudarostea uzta erretzen ari zela, honelako gertakari bat gertatu zen. Uzta sutu orduko, haizeak biziturik, Asesia izeneko Athenearen tenpluak hartu zuen su eta, suak hartu ondoren, erraustua geratu zen. Eta berehalakoan ez zitzaion inolako jaramonik egin; gudarostea Sardesa iritsita gero, ordea, Alyates gaixotu egin zen. Eta gaixotasuna aski luzatzen zenez, galdetzaileak bidaltzen ditu Delphosa norbaiten aholkuz edota, jainkoari gaixotasunaz galdetzearen, bidaltzeari berak ongi zeritzalako. Delphosa iritsi zirenean, Pythiak Mileto aldeko Aseson erretako Athenearen tenplua berreraikitzen ez zuten bitartean igarpenik ez ziela egingo esan zien.

20. Horrela gertatu zela, delphostarrei entzunik dakit. Miletoarrek, ordea, hau eransten diote: Periandro Zypselorenak, orduan Miletoko tyrano zen Thrasybuloren adiskide minak, Alyatesi eginiko igarpenaren berri jakin zuenean, adiskideari albistari bat bidaliz jakinaren gainean jarri zuela, aurrez oharturik, egoerari begira erabaki zezan. Miletoarrek bederen honela gertatu zela diote.

21. Eta Alyatesek igarpena jaso zuenean, berehala mezulari bat bidali omen zuen Miletora, tenplua eraikitzen zuen bitarte guztirako Thrasybulorekin eta miletoarrekin su-etena egin nahiz. Bidalia Miletora bidean zen; baina, Thrasybulok gai osoaren berri garbi jakin eta Alyatesek egin nahi zuenaz jabetua zegoelarik, hona zer asmatzen duen. Hirian zen bere eta norberaren gari guztia plazararaziz, miletoarrei, berak adieraz ziezaien unean denak zurrutari eta kalejirari ekiteko agindu zien.

22. Eta, hain zuzen, honengatik egin eta eginarazi zuen hau Thrasybulok: Sardesko mezulariak, isuritako gari-pila handia eta jendearen ongizatea ikusiz, Alyatesi iragar ziezaion. Eta, gertatu ere, hala gertatu zen; bada, mezularia, hura ikusi eta lydiarraren mandatua Thrasybulori eman ondoren, Sardesa itzuli zenean gertatu zen, nik dakidanez, bakerako aldaketa, ez beste ezerengatik. Izan ere, Alyatesek Mileton gari-eskasia handia zegoela eta herria miseria gorrian hiltzen ari zela uste bazuen ere, Miletotik itzuli zen mezulariari, berak uste zuenaren kontrako berriak entzun zizkion. Ondoren, elkarren lagun eta gudukide izatekotan, bakera aldatu ziren; eta Alyatesek Aseson tenplu baten ordeztu bi eraiki zizkion Atheneari, eta bera suspertu egin zen. Honela egokitu zitzaion Alyatesi miletoarren eta Thrasybuloren aurkako gerra.

23. Alabaina, Periandro, Thrasybulori igarpena ezagutarazi ziona, Zypseloren semea zen; Korinthoko tiranoa, bestalde. Korinthoarren diotenez (eta hauekin bat datoz lesboarrak), mirari izugarri bat gertatu zen honen bizitzan: Arion methymnarra, bere garaiko inoren hurrengo ez zen zitarajolea¹¹ eta, guk dakigunetan, ditiranboa¹² lehenik sortu, izen eman eta Korinthon antzestu zuena, izurdearen gainean ekarria izan omen zen Tenarora.

24. Esaten dutenez, Arion honek, luzaro Periandrorenean bizi izan ondoren, Italiarantz eta Siziliarantz itsasoratzea desiratu zuen eta, diru asko irabazita gero, ostera Korinthora itzuli nahi izan zuen.

Tarentotik irten eta, korinthoarrez baino gehiago inortaz fido ez zenez, korinthoar itsasgizonen untzia alokatu omen zuen. Hauek, ordea, itsas zabalean, Arion jaurti eta honen dirua berenganatzea erabaki omen zuten azpikeriaz. Honek, horretaz oharturik, dirua eman eta arren bizirik uzteko eskatzen omen zien. Hala ere, ez omen zituen bereganatu. Aitzitik, untzilariek, lehorrean ehortzia¹³ izan zedin bere buruaz beste egiteko edota ahalik lasterren itsasora jauzi egiteko agindu omen zioten. Arionek, noraezean, erregu egin zien, hala erabakitzen zutenez gero, arren utz ziezaiotela bere apaindura guztiarekin untzizubian zutik abesten; eta abestu ondoren bere burua hilko zuela agintzen omen zien. Eta hauei munduko abeslaririk bikainenari entzungo ziotelakoan atsegina barruratu baitzitzaien, itsasuntziaren txopatik erdialdera baztertu omen ziren. Eta Arionek, apaindura guztiaz jantzi eta zithara hartuz, untzizubian zutik nomo orthioa¹⁴ jalgi omen zuen eta, amaitzean, zegoen bezala, jantzi eta guzti, bere burua itsasora bota. Haiek Korinthora jo omen zuten untziz. Hau, berriz, izurde batek bizkarrean hartuz, Tenarora ekarri zuela diote. Eta lehorreratu ondoren, bere apaindurarekin Korinthora itzuli omen zen eta, iritsi zenean, gertaturiko guztia kontatu omen zuen. Periandrok fidagaiztasunez, Arioni inora joaten utzi gabe zaindaripean eutsi eta untzigizonekin adi jarri omen zen. Eta hauei, bertaratu ziren orduko deiaraziz, Arionez zerbait esan ahal zezaketen galdetu omen zien. Hauek, Italia aldean osasuntsu eta sendo zegoela eta Tarenton onik utzi zutela erantzutean, Arion azaldu omen zitzaaien bat-batean, botatzerakoan zegoen era berean. Eta hauek, harri eta zur, jada ezin omen zuten ukatu errudun zirela. Hori esaten dute behintzat korinthoarren eta lesboarren; eta Tenaron bada handia ez den brontzezko eskaintza bat: gizon bat izurde gaian jarri.

25. Bestalde, Alyates lydiarra miletoarren aurkako gerra burututa gerora zendu zen, berrogeita hamazazpi urtez errege izan zelarik. Eta, gaixotasunari ihes egin ziolako, bere sendiko bigarrena izan zen Delphosi eskaintza egiten: zilarrezko kratera handi bat eta burdinazko kraterapeko bat soldaturik, Delphosen eskaintako guztietan ikusgarriena, Khioko Glaukoren lana; berau izan zen, izan ere, gizon guztien artean burdin soldadura asmatu zuen bakarra.

26. Alyates hil ondoren Kreso Alyatesenak oinordetu zuen erregetza, hogeita hamabost urte zituelarik; honek, heleniarretan lehenik, ephesoarrei eraso zien. Hain zuzen, ephesoarrek hark setiaturik zeuden unean eskaini zioten tenplua Artemisi, tenplutik harresira korda bat lotuz; eta setiaturik zegoen hiri zaharraren eta tenpluaren artean zazpi estadio¹⁵ daude. Kresok aurrenik hauei ezarri zien eskua, eta hurrena txandaka joniarren eta eoliarren herri bakoitzari, batari eta besteari salakuntza desberdinak egotziz, sendoagoak asma ziezazkiekeenei sendoagoak eta besteei ahulagoak leporatuz.

27. Eta Asiako heleniarrak zerga-ordainketaraino menperatu zituenean, une beretik itsas gerrauntziak eraiki eta irlatarrei eskua ezartzea bururatu zitzaion. Untzigintzarako gauza guztiak prest zituenean, batzuek Prieneko Bias¹⁶ heldu zela diote Sardesa, beste batzuek, berriz, Mytileneko Pitako; Kresok heldu zenari Heladeri buruz berririk ba al zen galdetu zionean, untzigintza geldiarazi omen zuen honako hau erantzunez: "Oi errege, irlatarrak milaka zaldi ari dira erosten, Sardesen kontra eta zure aurka joateko asmoz". Eta honek egia zioelakoan, hala esan omen zuen Kresok: "Irlatarrei jainkoek bururaraz diezaietela

lydiarren semeen aurka zaldiekin etortzea!". Eta hark erantzun: "Maiestate, zaldizko irlatarrak lurbarruan harrapatzea gogo betez irrikatzen duzula iruditzen zait, itxarotea bidezkoa denez. Baina irlatarrek zer besterik desiratzen dutela uste duzu, beren aurka gerrauntziak eraiki behar dituzula jakin bezain azkar, morrontzapean dituzun lurbarruko biztanle heleniarrengatik zutaz mendeka daitezen, otoika lydiarrak itsasoan harrapatzea baino?". Azken esana agitz atsegin izan omen zitzaion Kresori eta, egoki mintzatu zelakoan, untzigintza geldiaraztera jarri omen zen. Eta honela egin omen zuen adiskide-elkargoa irletan bizi ziren joniarrekin.

28. Denbora joanik eta Alys ibaiatz honantz bizi diren ia guztiak menperatuak zituelarik -ziliziarrek eta lyziarrak izan ezik beste guztiak Kresok bere menpe baitzeuzkan, hots, lydiarrak, phrygiarrak, mysiarrak, mariandynoak, khalybeak, paphlagoniarrak, Thraziako thyniarrak eta bithyniarrak, kariarrak, joniarrak, doriarrak, eoliarrak, pamphyliarrak-.

29. Kresok, bada, herri horiek menperatu eta lydiarrei erantsi zizkielarik, besteak beste, garai honetan Heladen suertatzen zen jakintsu oro, athenastar Solon bereziki, nor bere joaneran, ondasun betean zegoen Sardesa joaten hasi zen. Hau, eske zeuzkan athenastarrei legeak ezarri ondoren, hamar urtez atzerriratu zen, mundua ikustearen aitzakiaz itsasoratuz, nahiz eta, batez ere, ezarri zuen legeren bat indargabetzera behartua izan ez zedin itsasoratu. Izan ere, athenastarrek berek ere ez zezaketen hori egin; Solonek jarri zizkien legeak hamar urtez betetzea zin handiez beren gain hartua baitzuten.

30. Beraz, honengatik eta mundua ikusteagatik atzerriratuz, Solon Amasisengana etorri zen Egypton eta Kresorengana

Sardesen. Heldu zenean, Kresok bere jauregietan eman zion ostatu. Eta ondoren, hirugarren edo laugarren egunean, Kresok Soloni deitu eta zerbitzariak altxortegiari inguru egitera eraman zuten eta guztia zeinen handi eta aberats zen erakutsi zioten. Eta berari zegokion eran ikusmiratu zuenean, galdera hau egin zion Kresok: "Athenastar arrotza¹⁷, zure jakinduria eta hara-honako ibilia dela bide, esan asko iritsi zaigu: jakinminez eta ikusmiraz lurralde askotara heldu omen zarela, alegia. Orain, bada, denetan dohatsuena den norbait jada ikusi duzun galdetzeko irrika sortu zait". Dohatsuena bera zelakoan egin zion galdera. Solonek, ordea, inolako zurikeriarik gabe, zintzotasunez baizik, "Maiestate, Telo athenastarra" erantzun zion. Eta, erantzunaz harriturik, joranez "Zergatik uste duzu Telo dela dohatsuena" galdetu zion. Eta hark erantzun: "Batetik, Telok biziera oneko hirian ume eder eta onak¹⁸ izan zituen, eta guztiongandik ondorengoak jaiotzen eta luzaro bizitzen ikusi zituen; bestetik, guri dagokigun mailan bederen ongi bizi izan ondoren, bizi-bukaerarik distiratsuena heldu zitzaion. Izan ere, Eleusisen athenastarrei auzoen aurkako gudua heldu zitzaientean, laguntzera joanez eta etsaiei bizkarra emanaraziz, heriotzarik ederrena izan zuen¹⁹, eta athenastarrek herriki hobiratu zuten erori zen leku berean eta handiki ohoratu ere bai".

31. Eta Solonek Teloz gauza ugari eta dohatsuak esanez Kreso zirikatu egin baitzuen, bigarrenengo postua berak eramango zuen erabateko ustean, haren hurrena nor zen galdetu zion. Eta honek: "Kleobis eta Biton -erantzun zion-. Zeren, hauek jaiotzez argostarrak izanik, behar hainbat bizibide bazuten

eta honez gainera esango dudan sasoia ere bai: biak-ala-biak atleta saridun zirenaz gainera, hona zer kontatzen den. Argostarrek Heraren ospakizuna zuten batean, ezinbestekoa zen beren ama gurdian santutegiratzea; idiak, ordea, ez zitzaizkien alorretik garaiz iritsi. Ordua igarorik, gazteek berek uztarpean jarritz arrastatzen zuten gurdia eta gurdian eraman zuten ama; eta berrogeita bost stadio²⁰ garraiatu ondoren heldu ziren santutegira. Eta biltzar osoaren begi-bistan hau eginda gero, bizi-amaierarik bikainena gaineratu zitzairen. Hauen baitan, gizonarentzat hobe zela hiltzea bizitzea baino erakutsi zuen jainkoak. Izan ere, argostar gizonak, gazteak inguratuz, indarrarengatik zoriontzen zituzten; emakumeak, berriz, hauen ama, honelako semeak zituelako. Eta ama, eginaren eta esanaren pozez gainezka, jainkosaren irudi aurrean zutik jarritik, otoi egin zion, handiki ohoratu zuten Kleobis eta Biton bere semeak, gizonak lor zezakeen gauzarik bikainena eman ziezaiela. Otoi honen ondoren opaldu eta ospakizuna burutu zutenean, gazteak, santutegian bertan lotara etzanik, inoiz gehiago ez ziren jaiki; aitzitik, amaiera hori izan zuten. Eta argostarrek hauen irudiak eginarazi eta, gizonik bikainenak bailiran, Delphosen sagaratu zituzten".

32. Beraz, Solonek hauei eman zien bigarren postua dohatasunean. Orduan Kresok, egonezinez, "Athenastar arrotza! -esan zion-, gu gizasoil horien duin ez egiteraino ezesten al duzu gure dohatasuna?". Eta hark erantzun: "Oi Kreso, jainkoa bekaizti eta aztoratzaile dela dakien honi galdetzen diozu giza arazoak berri²¹. Izan ere, luzaroan, gauza asko dira batek ikusi nahi ez dituenak, eta asko ere jasan nahi ez dituenak.

Hain zuzen, gizakiari hirurogeita hamar urteko bizi-muga jartzen diot. Hauek, hirurogeita hamar urte izanik, hogeita bost mila eta berrehun egun osatzen dute, tarteko hilabetea gaineratu gabe; baina biz behingo urtea, urtaroak behar bezala egokitzearren, hilabetez luzatu nahi bada, hogeita hamabost dira hirurogeita hamar urteon tarteko hilabeteak, eta mila eta berrogeita hamar hilabeteon egunak. Hirurogeita hamar urteen baitan diren hogeita sei mila berrehun eta berrogeita hamar egun guztietatik, ez dio batak besteari erabateko berdina den gertakizunik luzatzen. Beraz, Kreso, gizona zori huts²² da. Horrela, zu oso aberats eta gizon askoren errege zarela iruditzen zait niri; baina zure bizialdia ongi amaitu duzula jakin arte, galdetzen zenidan hura zarenik ez dizut esango. Izan ere, aberats handi bat ez da egunean-egunekoa duena baino dohatsuago, on guztiak izanez zoriak bizia ongi amaitzen laguntzen ez badio. Gizonetan aberats porrokatu asko da dohakabe, eta bizitzeko doi-doi duen asko, berriz, zori oneko. Aberats handiak baina dohakabeak, bitan bakarrik gainditzen du zori onekoa; honek, aldiz, askotan aberats dohakabea. Batak ahalbide gehiago du bere irrika asetzeko eta jausten zaion hondamen handia jasateko. Besteak, hala ere, gauzotan gainditzen du hura: ez du haren ahalbide berdinik bere hondamena eta irrikari aurre egiteko, baina zori onak aienatu egiten dizkio alde horiek eta aje gabe dago, gaixotasun gabe, txarrik jasan gabe, ume oneko, itxura ederreko. Eta horietaz gainera bizi-akabera on bat izaten badu,

horixe da zuk bilatzen duzun hura, dohatsu deitzea merezi duena. Baina, zaude akabera datorkiokeen arte: oraindik ez deitu dohatsu, zori oneko baizik. Beraz, gizon izanik, ezinezkoa da dohain guztiok bateratzea. Ondasun guztiak berekin dituen herrialderik ez den bezala: batzuetan bat ukan arren, besteetan bestea faltako zaio eta gehien dukeena izango da gailen. Era berean, ez da gizakirik ere berenez aski denik; zeren, bata izango du, baina bestea faltako zaio; eta gehiena izanez bizia igarota gero pozik amaitzen duenak izen hori eramatea bidezkoa da, Maiestate, niretzat. Haatik, ezinbestekoa da gauza ororen amaierak zertara egingo duen ikustea. Izan ere, jainkoak askori dohatasuna erakutsi ondoren, erro-errotik gainbeheratzen ditu".

33. Hori esatean ez bide zion graziarik egin Kresori. Hitz bat ere egin gabe agurtu zuen. Tentel hutsa zela iruditu baitzitzaion aurrean zituen ondasunak baztertuz gauza ororen amaierari begiratzeko aholkatzen zuena.

34. Eta Solonek alde egin ondoren, jainkoaren mendekua jabetu zen Kresoz²³, itxura denez, gizon guztietan dohatsuena zela sinesturik zegoelako. Bat-batean, lotan zegoela, bere semeari gertatuko zitzaizkion zorigaitzen egia agertzen zion amets bat heldu zitzaion. Kresok seme bi zituen; batak ajea zuen, mutua baitzen; bestea, berriz, era guztietara, bere adinekoen artean lehena zen; Atys zuen izena. Atys hau, bada, burdin punta baten zauriz galduko zuela adierazten zion ametsak. Eta esnatu eta bere baitan pentsatu ondoren, ametsaren ikaraz, emazteki bat hartu zuen bere semearentzat eta lydiarren gudarostea gidatu ohi zuen arren, inora ere ez zuen geroztik horrelako eginkizun batera bidali.

Aitzitik, azkonak, lantzak eta gizonek gerrarako erabiltzen dituzten gisa honetako tresna guztiak, gizategietatik ateraz, ganbaretan pilatu zituen, bateren bat zintzilik zegoen lekutik semeari eror ez zekion.

35. Eta semearen ezteia eskuartean zuela, hor non etortzen den Sardesa zorigaiztoz eskuak zikinduak²⁴ zituen gizon bat, jatorriz phrygiarra eta errege-odolekoa. Eta Kresoren egoitzan aurkezturik, herriko ohituren arabera araztasuna lor ziezaiola eskatu zion. Eta Kresok araztu egin zuen. Lydiarrek eta heleniarrek arazkera berdintsua izaki. Baina Kresok ohikoak egin zituenean, nondik zetorren eta nor zen galdetu zion esanez: "Nor zara, gizon, eta Phrygiako zein lekutatik zatoz nire etxapera? Zein gizon edo emakume hil duzu?". Eta hark erantzun: "Oi errege, Midasen seme Gordias naiz eta Adrasto dut izena. Nahi gabe bederen, neure anaia hil baitut, hemen nauzu ezegabeturik, aitag deserriratu". Kresok, hitz-truke, "Halabeharrez, nire adiskideen umea zara -esan zion-, eta adiskide artean zaude. Gurean geratzen bazara, hemen ez zaizu dirurik faltako. Eta zorigaizto hori ahalik eta arinen eramanez irabaziko duzu gehien".

36. Beraz, Adrastok Kresorenean zeraman bere bizimodua. Garai honetan bertan, ordea, Mysiako Olympon basurdetzar izugarri bat agertzen da; mendi honetatik abiatuz, mysiarren laboreak hondatzen zituen eta, mysiarrak behin eta berriz haren aurka joaten ziren arren, ez zioten ezeren kalterik ezartzen, beraiek harengandik jaso baizik. Azkenean, mysiar albistari batzuek, Kresorengana etorriz, hau esan zioten: "Maiestate, laboreak hondatzen dizkigun basurde izugarri bat azaldu zaigu geure lurraldean.

Ahalegintzen garen arren, ezin dugu harrapatu. Beraz, geure lurraldetik kanpora dezagun, oraingoan, otoi, gazte aukeratuekin eta zakurrekin zeure semea bidal diezaguzula eskatzen dizugu". Hori eskatu zioten haiek; baina Kresok, ametsa gogoratuz, hitz hauek esan zizkien: "Ez dezazuela gehiago nire semea gogoan izan, ez baitizuet bidaliko. Ezkonberria da eta hori axola zaio orain. Hala ere, lydiar aukeratuak eta zakurreria guztia bidaliko dizuet, eta doazenei piztia lurraldetik botatzen ahalegintzeko aginduko diet". Hau izan zen erantzuna.

37. Eta, mysiarrek eskaintza hauekin aski zutelarik, horra non sartzen den Kresoren semea, mysiarren eskaria entzunda gero. Eta Kresok semeari ez zuela haiekin bidaliko esan ondoren, gaztea honela mintzatzen zaio: "Aita, lehen, gerretara eta ehizetara joan-etorritz, ospetsu izateko bide guztiz eder eta jatorrak genituen. Orain, ordea, ez koldarkeriarik, ez uzkurkeriarik ikusten ez didazun arren, biotatik aldendua naukazu. Zer aurpegirekin azaldu behar dut orain neure plazarako joan-etorrietan? Zer-nolako naizela irudituko zaie hiritarrei? Eta zer-nolako, emazte ezkonberriari? Nolako gizonarekin bizi dela irudituko zaio? Utz iezadazu, bada, ehizara joaten edota arrazoiz ulertaraz iezadazu nola hobe dudan horrela jokatzeara".

38. Hau erantzun zion Kresok: "Seme, ez diat hau egiten koldarkeria edo beste akatsen bat ikusten diadalako. Alabaina, lotan heldu zitzaidan amets baten ikuspenak bizilabur izango hintzela adierazi zidaan, burdin punta batek hilko hinduelako. Ikuspen honengatik azkartu nian, hain zuzen, hire ezkontza eta ez haut bidaltzen eginkizunetara, ni bizi naizeino salba ote hintzakedan zaindus. Hi haut, izan ere, neure seme bakarra; zeren, bestea, (entzumeneko) ajea duenez, ez-banutzat jotzen diat".

39. Gazteak honela erantzuten dio: "Barkakizun zaizu, aita, horrelako ikuspena ikusi eta ni zaintzea. Baina bada zer bait hartaz ohartzen ez zarena; aitzitik, ametsak ezkutatu egin dizu, eta bidezkoa zait zuri esatea. Diozunez, ametsak burdin punta batek hilko nauela adierazi dizu. Baina, nolakoak dira basurdearen eskuak? Eta nolakoak zu beldurtzen zaituen burdin punta? Bada, hortzak edo honen antzeko beste zerbaitek hilko ninduela esan balizu, egiten ari zarena egiteko biderik bazenuke. Burdin puntak esan zizun, ordea. Beraz, gizonen aurkako borroka ez dugunez, utz nazazu".

40. Kresok, "Seme -erantzuten dio-, ametsari buruzko ulerkera honen azalpenak bentzutu bide naik. Beraz, hik bentzuturik²⁵ iritziz aldatzen bainaiz, utzi egingo diat ehizara joaten".

41. Hau esan ondoren, Kresok phrygiar Adrasto ekarrarazten du eta, iristean, honela mintzatzen zaio: "Adrasto, aurpegiratzen ez dizudan zorigaitzoz lur joa zeundenean, nik araztu zintudan eta, gastu oro ordainduz, neure etxapean zauzkat. Orain, bada, nik lehenik zuri egin nizun mesedea mesedearekin ordaintzea baitagokizu, ehizara doan nire semearen zaindari zeu izatea nahi dut, bidean gaitz egiteko asmoz lapur gaizkileren batzuk ager ez dakizkizuen. Gainera, zuri ere axola zaizu joatea, zeure egintzekin ospetsu egingo zaren tokira. Izan ere, zeure arbasoengandiko joera da hau eta baduzu oraindik kemenik".

42. "Maiestate -erantzun zion Adrastok-, ni neu ez nintzateke bestela horrelako lan baten sartuko. Zeren, ez da itxurazkoa honelako zorigaitza pairatu duena zorte oneko lagunengana joatea, ez eta ondoratu nahi izatea ere; era askotan galaraziko nioke neure buruari. Baina orain zuk estutzen nauzunez eta zuri eskerrak ematea beharrezkoa zaidanez (nire eginbidea baita zuri mesedeak ordaintzea), prest nago hori egiteko. Zaintzeko agintzen didazun zure semea, zaintzaileoni esker, kalterik gabe itzuliko zaizula itxaron ezazu".

43. Kresori erantzun hau eman ondoren, jarraian gazte aukeratuez eta zakurrez hornituta, bideari ekin zioten. Eta Olympo mendira ailegatu zirenean, piztiaren bila hasi ziren, eta aurkitu eta jirabiran inguraturik, azkonak jaurtitzeari ekin zioten. Une berean, atzerritarrak, hilketaz araztua izan zenak eta Adrasto²⁶ zeritzanak, basurdea azkonkatzen ari zela, huts egin eta halabeharrez horra non jotzen duen Kresoren semea. Honek, bada, azkon-puntaz zauritua izanik, ametsetako igarkizuna bete zuen. Eta norbait lasterka Kresori albiste ematera joan zen. Eta, Sardesa iritsi zenean, pizti borrokaren eta semearen halabeharra adierazi zion.

44. Eta Kreso, semearen heriotzak asaldaturik, batez ere berak hilketatik araztu zuenak hil izana deitoratzen zuen. Eta zorigaitzaren atsekabe handiz, alde batetik, Zeusi araztaile bezala dei egiten zion, atzerritarrak jasanarazi zizkionaren lekuko eginez eta, bestetik, jainko beraren izena aipatuz, sendi- eta adiskidetasun-zaindari bezala dei egin ere; sendi-zaintzaile bezala, atzerritarra bere etxapean hartuz, ustekabe, bere semearen hiltzailea mantendu zuelako; eta adiskidetasun-zaindari bezala, zaintzaile gisa bidali arren, harengan etsairik handiena topatu zuelako.

45. Ondoren, lydiarrak azaldu ziren gorpuarekin, eta honi atzetik hiltzailea zerraion. Eta honek, gorpuaren aurrean zutik jarri eta eskuzabalik, bere burua eskaini zion Kresori gorpuaren gainean lepoa motz ziezaiola eskatuz; aurreko bere zorigaiztoa aipatzen zion eta nola haren ondoren bere araztailea hil zuen. Baina Kresok barruan hain zoritxar handia bazuen ere, gauzok entzunez, errukitu egin zen Adrasto, eta hala esan zion: "Oi arrotza, zeure burua heriotzara epaitzen duzunez gero, jaso dut zugandik ordaintza osoa. Ez zara baina zu, nahigabe egin duzun heinean izan ezik, nire zoritxarraren eragile, agian jainko bat baizik, gertatuko zitzaidala aspaldi igarri zidana hain zuzen".

Beraz, Kresok lur eman zion, zegokion eran, bere semeari; bestalde, Adrasto Gordiasena Midasenak, bere anaiaren eta araztailearen hiltzaile zenak, ehorz leku inguruan jendearen lasaitasuna sortu zenean, berak ezagutzen zuen gizonik zorigaiztokoena zela oharturik, hilobi gainean bere burua lepo egin zuen.

46. Kreso bi urtez atsekabe handitan egon zen bere semea galdu zuelako. Baina gero, Astyages Zyaxaresenaren nagusitza Zyro Kambysesenak eraisteak eta persiarren ekintzak ugaltzen joateak eman zioten amaiera Kresoren nahigabeari. Persiarrak handi izatera heldu baino lehen, ugaltzen zihoan haien boterea geldiaraz ote zezakeen burura zitzaien. Beraz, burutapenaren ondoren, Heladeko eta Libyako orakuluak probatzeari ekin zion, mandatari batzuk batera eta besteak bestera bidaliz: batzuk Delphosa, besteak Phozideko Abasa eta besteak Dodonara. Zenbait Amphiaraorengana eta Trophoniorengana bidali zuen; beste zenbait, berriz, Miletoko brankhidengana. Beraz, heleniar orakulu hauengana bidali zituen Kresok, igarketaz jabetzearren. Besteak, aldiz, Libyako Amonengana bidali zituen, jainkoari galdetzeraz. Zer asmatzen zuten, igarleak probatuz bidaltzen zituen: egia asmatzen zutela topatzen bazuen, hurrengoak bidaliz, persiarren aurkako guduari ekin ziezaiokeen galdetuko zien.

47. Eta, igarleak probatzeko, honako agindu honekin bidali zituen lydiarrak: Sardestik abiatzen ziren egunetik ondorengoak zenbatuz, ehungarrean kontsulta zitzatela orakuluak lydiarren errege Kreso Alyatesena zer egiten ari zen galdetuz;

eta eman bide zuten erantzun bakoitza idatziz, ekar ziezaiotela berari. Orain, beste inorengatik ez da deus esaten zer erantzun zuten; Delphosen, ordea, lydiarrak jainkoari kontsulta egitera jainkote gira²⁷ sartu eta agindutakoa galdetu ziotenean, Pythiak honela erantzuten die hexametrotan²⁸:

"Badakit zenbat den hondartza eta zein zabal den itsasoa,
ulergarri zait totela eta entzungarri hitz gabekoa.
Sudurmintzetara heldu zait dortoka azalgogorrekoa
bildots-haragiarekin batera tupikian egosirikoa;
tupikia du azpikoa eta tupikia gainekoa".

48. Pythiak emaniko erantzun hau idatzi ondoren, Lydiarrak, itzuliz, Sardesa etorri ziren. Eta bidaliak izan ziren gainerakoak ere beren igarpenekin azaldu zirenean, une berean Kreso, idazki bakoitza zabalduz, ikuskatzen hasi zen. Hauetako ezein ez zetorkion ongi. Baina Delphostikakoa entzun bezain azkar, egin zuena asmatu ziolako, Delphoskoa zela orakulu bakarra sinetsiz, gurtu eta onartu egin zuen. Izan ere, galdetzaileak igarlekuetara bidali zituen orduko, izendaturiko eguna zaindu eta era honetan moldatu zituen gauzak. Asmatu eta sumatu ezinezkoak pentsatuz, dortoka eta bildotsa zatikatu eta elkarrekin egosten jarri zituen tupikizko pazi batean, tupikizko tapa gaineratuz.

49. Hain zuzen, horrela igarri zioten Kresori Delphostik. Amphiaraoren orakuluak emandako erantzunaz, ordea, ez dezaket esan zer erantzun zien Lydiarrei tenplu inguruan ohikoak burutu ondoren (horretaz ez baita deus esaten), hau besterik: honen igarpena ere benetakotzat hartzen zuela.

50. Eta, ondoren, Delphosko jainkoa erre-opari handiz bere alde jartzen ahalegindu zen. Bada, opalgai zen abere bakoitzetik hiru mila opaldu zituen; eta urre-zilarrez estaliriko etzakiak eta

urrezko katiluak eta purpurazko jantzi eta soingainekoak sutzar baten metatuz, erre egin zituen, egintza hauen bidez jainkoa hobeki bereganatuko zuelakoan; eta lydiar bakoitzari, norberak ahal zuen guztia opal zezala agindu zion. Eta erre-oparia amaitzean, urre ugari isuri, eta hemendik totxoak atera zituen, luzeeneraz sei arrabetekoak²⁹ eginez, motzeeneraz hirukoak, goieraz arrabetekoa eta kopuruz ehun eta hamazazpi; eta hauetatik lau ziren urre hutsezkoak, bakoitzak bi talentu eta erdi³⁰ pisatuz; beste totxoak, osteraz, urre zurizkoak ziren, pisuz talentu bikoak. Urre hutsezko lehoi-irudi bat ere eginarazi zuen, hamar talentu pisatzen zuena. Lehoi hau, Delphosko tenplua erre zenean, totxoetatik behera erori zen (hauen gainean jarria baitzegoen), eta egun korinthoarren altxortegian datza, sei talentu eta erdi pisatzen dituelarik; hiru eta erdi urtu egin baitzitzaizkion.

51. Eta gauzok burutu ondoren, Kresok Delphosa igorri zituen eta, horiekin batera, baita beste honako hauek ere: kratera bi handieraz handiak, urrezkoa eta zilarrezkoa; hauetatik urrezkoa tenpluan sartzen zenaren eskuinaldean zegoen; zilarrezkoa, berriz, ezker aldean. Baina tenplu-erreketa garaian lekuz aldatuak izan ziren biak. Eta urrezkoa, zortzi talentu eta erdiz gainera hamabi mina³¹ pisatzen duena, klazomenastarren altxortegian dago; zilarrezkoa, aldiz, tenplu atariko angeluan, eta seiehun amphora³² hartzen ditu. Izan ere, delphostarrek bertan nahasten dituzte ardo-urak Theophanietan³³. Bestalde, delphostarrek Samoko Theodororen lana dela diote, eta neuk ere baderitzat; ez baitzait iruditzen ohiko lana denik. Eta zilarrezko lau tina ere igorri zituen; hauek korinthoarren altxortegian daude. Urrezko eta zilarrezko ihinzta-ontzi bi ere eskaini zituen. Urrezkoak

lazedemondarren eskaintza dela esaten duen inskripzio bat dauka, egia ez badio ere; zeren, hau ere Kresorena da; baina delphostar batek, lazedemondarrei atsegin eman nahiz idatzi zuen; bere izena badakidan arren, ez dut aipatuko; alderantziz, eskutik ura darion haurra bai, lazedemondarrena da; ez, ordea, ihinzta-ontzi bietakorik. Kresok, hauekin batera, ezaugarriarik gabeko beste eskaintza asko ere bidali zituen: zilarrezko isurpen-ontzi borobilak ez ezik, baita delphostarrek Kresoren emakume okinaren irudia dela dioten hiru besabeteke andre-irudi urrezko bat ere. Eta horrez gainera, bere andrearen lepokoak eta gerrikoak ere eskaini zituen.

52. Gauzok igorri zituen Delphosa. Eta Amphiariori, beronen bikaintasun eta pairamenaz jabeturik, dena urre hutsezkoa zen ezkutua eta dena hurre hutsezkoa zen lantza trinkoa eskaini zion, puntak bezalaxe makila ere urrezkoa zuena; bata eta bestea, oraindik nire garaian, Thebasen zeutzan, Thebasko Apolo Ismenoarraren tenpluan, hain zuzen.

53. Halaber, Kresok santutegietara opariok eraman behar zituzten lydiarrei agindu bat eman zien: igarleei galde ziezaietela ea (Kreso) persiarren aurka guduka zitekeen eta gudarosteren bat lagun har zezakeen. Eta lydiarrek, igorriak izan ziren lekuetara iritsi eta beren eskaingaiak eskaini zituzten orduko, igarleei ekin zieten esanez: "Kresok, lydiarren eta beste herriarren erregeak, munduko orakulu bakarrak hemengo hauek direla sinetsirik, zuen asmakizunen dinako opariak ematen dizkizue, eta, une berean, persiarren aurka guduka daitekeen eta gudarosteren bat lagun har dezakeen galdetzen dizue". Haiek galdera hau egin ondoren, igarle bien esanak bat etorri ziren, Kresori, persiarren aurka gudukatzen bazen

aginte handi bat desegingo zuela aurreratu ziotenean. Eta heleniarren artean indartsuen aurkitzen zituenak lagun gisa bereganatzeko aholkatu zuten.

54. Kresok itzuli zizkioten jainko-esanen berri izan zuenean, neurritz gain poztu zen erantzunengatik; eta, Zyroren erresuma porrokatuko zuen uste osoz, berriro Pytho-Delphosa³⁴ mandatariak bidali eta, bertako biztanle-kopuruaz jabeturik, bakoitzari urrezko stater³⁵ bi ematen dizkio oparitzat. Eta, hauen ordainetan, delphostarrek Kresori eta lydiarrei, lehen igarketa, zergagabezia, lehen eserlekua, eta haietatik nahi zuenari beti delphostar izateko eskubidea eman zieten.

55. Eta Kresok delphostarrei opari egin ondoren, hirugarrenez ere jo zuen igarlearengana. Izan ere, honengandik egia jaso zuenetik, etengabe kontsultatzen zuen. Igarlearenganatze honetan, luzaroko erregetza izango zuen galdetu zion. Eta Pythiak hau erantzun:

"Baina mandoa mediarrentzat errege izan dadinean, jo oin biguneko lydiar horrek Hermo harritsura ihesean. Ez gero gera, ez gero lotsa koldarra zaren ustean".

56. Heldu zitzaizkion hitz hauekin beste guztiekin baino gehiago poztu zen, gizonaren ordezkoi mediarren errege izango ez zelakoan eta, ondorioz, ez berak eta ez bere oinordeko inork aginterik galduko ez zuelakoan. Ondoren, heleniarren artean indartsuenak nortzuk ziren ikertu eta hauek bere adiskidetasunera erakartzea pentsatu zuen. Eta, ikertzean, lazedemondarrak eta athenastarrak nabarmentzen zirela aurkitu zuen: lehenak doriar eta bigarrenak joniarrak jatorrikoak; izan ere, herriok ziren gailenak, hau jatorriz pelasgiarra³⁶ eta hura heleniarrak zelarik. Eta bata ez da inora lekualdatu; bestea, aldiz, hagitx ibiltari izan da.

Zeren, Deukalion erregearen garaian Phthiotide lurra zuen bizileku; Helenen seme Dororenean Histieotide deritzan Osaren eta Olymporen peko lurraldean bizi izan zen; eta Histieotidetik kadmearek egotzi zutenean Pindon egoitzatu zen, mazednoarra zeritzalarik; eta, halaber, hemendik Dryopidera aldatu zen, eta horrela, Dryopidetik Peloponesora heldu zenean, doriarra deitua izan zen.

57. Pelasgiarrak zein hizkuntzatan mintzatzen ziren ez dezaket ziur esan. Baina, gaur doriar deritzatenen auzo behinola izanaz gainera, Thesaliotide deritzan lurraldean orduan bizi eta, tyrreniarrez goitik³⁷, egoitza Kreston hirian³⁸ izanik, oraindik ere badiraute pelasgiarrak ezaugarritzat hartuz esan behar bada; are gehiago, athenastarren bizilagun zirela, Helesponton Plazia eta Szylaze eraiki zituzten pelasgiarrak eta, pelasgiar izanik ere, bere izena aldatu zuten beste hirixka guztiak ezaugarritzat hartuz esan behar bada, pelasgiarrak hizkuntza barbaroan mintzatzen ziren. Beraz, pelasgiar herria osorik honelakoa bazen, Atikakoa, pelasgiarra izanik, heleniartzearekin batera aldatu zen hizkuntzaz. Izan ere, ez krestoniarrek, ez plaziarrak, ez dira mintzakide egungo bere ingurukoekin; haiekin, ordea, mintzakide dira eta lurraldeotara aldatzean eraman zuten hizkera bera gordetzen dutela erakusten dute.

58. Bestalde, heleniar herriak, niretzat nabaria denez, sortu zenez geroztik hizkuntza bera erabili du. Baina pelasgiarrengandik bereizia zegoenean ahul bazen ere, urritasunezko hasieratik abiatuz, batik bat pelasgiarrak eta gainerako herri arrotz asko atxiki zaizkionean, herri-multzo izateraino ugaltu da. Beraz, lehen, atzerri zenean, pelasgiar herria handiki hazi ez zelakoan nago.

59. Herri hauetatik Atikakoa garai honetan Athenasko tirano zen Pisistrato Hipokratesenak menperatua eta banatua zeukala jakin zuen. Hipokrates, norberazko bat izanik, Joko Olympikoetan esku hartzen ari zela, mirari handi bat gertatu zitzaion. Bada, opari-abereak hil ondoren, paziak aurrean jarri eta haragiz eta urez beteak zeudela, surik gabe irakin eta gainezka egin zuten. Khilon³⁹ lazedemondarra han suertaturik eta miraria ikusi zuelarik, lehenik etxera emazte umegilerik ez eramateko kontseilua eman zion Hipokratesi, eta, hurrena, halabeharrez andrerik baldin bazuen, kanpora zezala eta, umerik bazuen, utz zezala. Dena den, Khilonek kontseiluok eman arren, Hipokratesek ez omen zuen esanik egin nahi izan; eta, ondorioz, Pisistrato delakoa jaio omen zitzaion. Honek, kostalde eta lautadako athenastarrak matxinatu zirenean, eta haien buruzagi Megakles Alkmeonena eta lautadakoena Lykurgo Aristolaidesena zela, tiraniarako asmo isilez, hirugarren alderdia altxarazi zuen; eta partaideak bildu eta menditarren taldeko aitzindari jarritz, asmakizun hau izan zuen: bere burua eta mandoak zauritu, eta gurdia plazara gidatu zuen, etsaien ihesi bailitzan. Hauek, landara zihoala, hil egin nahi izan zutela eta, herriari beronengandiko zaingo bat edukitzea eskatu zion, lehenik megararren aurkako gudalburutzan Nisea⁴⁰ eskuratu eta bere gain harturiko beste lan handien onirizpena eginez. Eta Athenasko herriak, arras atzipeturik, hiritarretatik hirurehun gizon aukeratzeko bidea eman zion; hauek Pisistratoren lantzari ez baina mazokari izan ziren; egur-mazoarekin baitzerraizkion atzetik. Delakoek, Pisistratorekin matxinatuz, akropolia hartu zuten. Ordudanik Pisistratok agindu zuen athenastarren artean, zeuden aginteak mugitu gabe eta legeak aldatu gabe. Eta ezarririko legeon arabera banatu zituen gauzak, hiria edertuz eta onduz.

60. Baina, luzaro gabe, Megaklesen eta Lykurgoren partaideek, bat eginik, kanporatu egin zuten. Pisistrato honela egin zen

lehen aldiz Athenasen jabe eta honela galdu ere artean sendo errotu gabe zuen tirania; Pisistrato kanporatu zutenek, ordea, berriro elkarren aurka altxatu ziren. Eta Megaklesek, beronen alderdiak bultzaturik, Pisistratori mezulari bat bidali zion ea tyraniarengatik haren alaba emaztetzat hartu nahi zuen galdetuz. Pisistratok proposamena onartu eta baldintza horiekin bat etorri ondoren, itzulirako, nik topatzen dudan egitasmorik tentelena bururatu zitzaien (antzinatik heleniar herria, iaioagoa izateaz gainera, hain tentel burugabea ez delako bereizi baita atzeritik), baldin haiek egitasmo hori jakinduriaz aitzindari omen diren athenastarren artean asmatu bazuten behintzat. Bazen peanar demoan⁴¹ Phya izena zuen emakume bat, handiz lau beso hiru hatz⁴² gutxiago eta gainera itxura onekoa zena. Emakume hau armadura osoarekin⁴³ jantzi, zalgurdira igoarazi, eta prestuen ager zitekeen era erakutsi ziotenean, hiriburura gidatu zuten, aurretik lasterka mezulariak igorritz. Hauek, hiriburura heldu zirenean, agindua honelako hitzez aldarrikatu zuten: "Athenastarrok, har ezazue gogo onez Athenea berak, gizonetan gehien ohoratuz, bere akropolira itzultzen duen Pisistrato". Hara-hona joanez, hori zioten mezulariek. Eta berehala heldu zen herrietara Atheneak Pisistrato itzuli zuen hotsa. Eta hiriburukoek, emakumea Athenea bera zela sinetsirik, gizakia gurtu eta Pisistrato onartu egin zuten.

61. Eta Pisistrato, tirania esan dugun moduan eskuratu ondoren, Megaklesekin hitzartu bezala, Megaklesen alabarekin ezkontzen

da. Baina semeak mutilduak zituenenez eta alkmeonidak madarikatuak zeudela ziotenez, emakume ezkonberriarengandik ez baitzuen ondorengorik izan nahi, ez zen arauzko eran elkartzen berarekin. Emakumeak hasieran gorde egiten zituen gauzok. Baina, gero, galdeturik edo galdetu gabe, bere amari kontatzen dio, eta honek senarrari. Eta Megaklesekin gaizki hartu zuen Pisistratogandik jasotako desohorea. Eta amorrutik baitzegoen, bere alderdikoenganako etsaigoa bertan behera utzi zuen. Eta Pisistratok, bere aurkako ekintzen berri jakinik, lurraldetik erabat irten eta, Eretriara helduz, bere semeekin erabakitzen zuen. Eta tirania berreskuratzearen aldeko iritziarekin Hipias nagusiturik, zerbaiten esker ona zor zieketen hirietatik emariak bildu zituzten. Eta askok diru ugari eman bazuten ere, thebastarrek gainditu zituzten diru-emaitzez. Hitz gutxitan esanda, denbora joanik, dena prest geratu zen itzulerarako. Zeren, argostar mertzenarioak ere etorri ziren Peloponesotik. Baita Lygdamis zeritzan naxoar bat ere: bere gogoz hauekin elkarturik, zaletasunik handiena azaltzen zuen, dirua ez ezik gizonak ere ekarritik.

62. Eta Eretriatik abiatu eta hamaika urteren buruan itzuli ziren. Eta Atikatik Marathon izan zen hartu zuten lehena. Hain zuzen, lurralde honetan kanpaturik zeudela iritsi zitzaizkien hiriburuko alderdikideak; tirania askatasuna baino atseginago zuten beste batzuk ere etorri zitzaizkien herrietatik. Hauek, bada, elkartzen joan ziren. Bestalde, hiriburuko athenastarrek, Pisistrato diru biltzen zebilen bitartean eta Marathon hartu ondoren ere, ez zuten burutapenik; baina Marathondik hiriburura zetorrela jakin zutenean, orduan hasi ziren haren aurka elkarri laguntzen. Eta, gudaroste osoarekin, itzultzen zirenen bidera jo zuten; eta Pisistratorekin ingurukoak Marathondik abiatu eta hiriburuaren aurka zetozela, Athenea Palenetarraren tenplura iritsi ziren,

leku berean bat eginez, eta armak aurrez aurre ezarri zituzten. Orduan, jainkoagandiko etorriaz baliaturik, Amphilyto igarle akarnaniarra aurreratu zitzaion Pisistratori eta, ondoratuz, igarpen hau egiten dio hexametrotan:

"Egina dago jaurtiketa eta sarea dago zabalik
ilargi gauez habaila biziz etorriko da atunik".

63. Hark jainkoak hartuta igarri zuen hau. Eta Pisistratok, igarpena ulertuz eta igarria onartzen zuela esanez, gudarostea gainera bota zien. Une hartan, hiriburuko athenastarrak gosaltzen ari ziren, eta gosalongoan hauetako batzuk dadotan eta besteak lo zeuden. Eta Pisistratoren ingurukoek, gainera eroriz, athenastarrei bizkarra emanarazten diete. Hauek ihesi doazela, Pisistratori han bertan erabaki guztiz zuhurra bururatzen zaio athenastarrak berriz elkartu ordeztatuak egon daitezen. Bere semeak, zaldi gainera igoaraziz, aurretik bidali zituen. Eta hauek, iheslariak atzemanez, Pisistratok agindurikoa esaten zien, adore izateko eta nor bere eginkizunetara itzultzeko gomendatuz.

64. Eta athenastarrak esanera jarritz, Pisistratok, horrela hirugarrenez Athenas bereganatu ondoren, mertzenario ugari eta bertatik eta Strymon ibaitik bateratzen zen diru-sarreraz errotu zuen tyrania. Eta erasoari eutsi eta berehalakoan ihesi egin ez zuten athenastarren semeak, bahizat hartuz, Naxora eraman zituen (Pisistratok irla hau gerraz menperatu eta Lygdamisi eman baitzion); eta, horrez gainera, orakuluen esanera, irla ere araztu zuen, eta honela araztu ere: santutegitik ikusgai zegoen lurralde oroko gorpuak desehortziz, Deloko beste lurralde batera lekualdatu zituen. Eta Pisistrato athenastarren tyrano izan zen; athenastarretako batzuk, berriz, borrokaldian erori ziren, eta beste batzuek alkmeonidekin egin zuten ihes beren sorterritik.

65. Beraz, sasoi honetan, batetik athenastarrak honelako egoerapean zeudela jakin zuen Kresok; lazedemondarrak, aldiz, ezbehar handiei ihes egin ondoren eta gerran zeudelarik, jada tegearrei gailendu egiten zitzaizkiela. Izan ere, Spartan, Leon eta Hegesikles errege zirela, gainerako gerrak irabazi ondoren, tegearren aurka bakarrik jo zuten lurra. Bestalde, garaiok baino are lehenago, heleniar guztietan lege txarrenekoak ziren baita ere beren artean; atzerritarrekin, berriz, harreman gabeak. Baina, hona nola aldatu ziren lege onera. Lykurgo, spartarren artean ospetsu zen gizona, Delphosa igarpen bila heldu zelarik, jainkoteaira sartu ordukoxe, hau esan zion Phythiak:

"Heldu zatzaizkit, Lykurgo, tenplu aberats honetara;

Zeusena eta Olympon bizi den ororen lagun zara.

Jainko zaren ala gizon, igartzeko dut dardara;

Jainko zarela esango nuke, Lykurgo, ene baitara".

Zenbaitek dioenez, hitz hauetaz gainera, Pythiak hari, egun spartarrek ezarria daukaten antolakuntza adierazi zion. Lazedemondar berek diotenez, ordea, Lykurgok bere loba eta spartarren errege zen Leobotesen tutore zela ekarri zuen Kretatik. Bada, tutoretza hartu orduko, lege guztiak aldatu eta inork hautsi ez zitzaizkion. Eta, ondoren, Lykurgok gerrarekikoak ezarri zituen: enomotiak, triekadak eta sysitiak; eta, gainera, ephoroak eta geronteak⁴⁴.

66. Honelako aldaketen bidez, lege onak izan zituzten; eta Lykurgori, hil ondoren santutegi bat eraikiz, jaiera handia diote. Eta lurralde on eta giza kopuru handikoan baitzeuden, berehala jo zuten gorantz eta loratu ziren. Eta jadanik ez zitzaien aski bakean bizitzea; aitzitik, arkadiarrak baino indartsuagoak ziren hantustez, Delphosen orakuluari arkadiarren

lurralde osoaren aurka joateaz galde egin zioten. Pythiak, ordea, igarpen hau egin zien:
"Arkadia eske? Askoren eske! Ez diat emango hiri.

Baduk Arkadia horretan gizon ezkurjale ugari.

Hauek haute geldiaraziko. Ez diat uko bekaizti.

Oinpeko Tegea emango diat ekin hakion dantzari:

lautada ederra, kordaz hakion ekin neurketari".

Esanikoak itzuli eta lazedemondarrek entzun zituztenean, gainerako arkadiarrengandik aldendu egin ziren. Baina, girgiluak berekin eramanez, tegearren aurka abiatu ziren, igarpen bihurritz tegearrak gatibu egingo zituztela fidaturik. Elkar jotzean, ordea, lazedemondarrak garaituak izan zirelarik, gatibu eginak izan ziren guztiek, berek eramano girgiluez loturik, Tegeako lautada landu zuten kordaz neurtu ondoren. Eta haien lokarri izan ziren girgiluak oraindik ere nire garaian osorik zeuden Tegean, Athenea Alearen tenplu inguruan zintzilik.

67. Hain zuzen, lehen gerratean, etengabeko zorte txarrez borrokatu ziren beti tegearren aurka; baina Kresoren garaian eta Anaxandrides eta Ariston Lazedemongo errege izan zirenean, jada spartarrak gerran gailen izatera iritsi ziren; honela iritsi ere. Gudan beti tegearrek garaitzen zituztenez, Delphosa galdetzaileak bidaliz, zein jainko bereganatuz gertatuko ziren gerran tegearren garaile galdetu zuten. Eta Pythiak, Agamemnonen seme Orestesen hezurak berekin eramaten bazituzten izango zirela erantzun zien. Orestesen hilobia, ordea, ezin baitzuten aurkitu, Orestes zetzan lekuaz galdetuz, berriro ere jainkoarengana bidali zituzten. Galdera hori egin zuten mezulariei Pythiak honela erantzun zien:

"Arkadiako zelaigunean baduk hiri bat, Tegea;
adur bortitzak bi aldetatik eragiten dik haizea,
kolpea eta kontrakolpea, nekearen gain nekea.

Lur emankorrek han gordetzen dik Agamemnonen semea;
eraman ezak heurekin eta, hadi Tegearen jabea".

Baina lazedemondarrek gauzok entzun eta bazter guztiak miatu arren, ez zeuden aurkikuntzatik hurbilago, Likhas, ongile zeritzaten spartarretako batek topatu zuen arte. Hain zuzen, ongileak hiritarren artean betidanik urtero zaldunetatik ateratzen diren bost zaharrenak dira. Zaldunetatik irteten diren urte horretan, spartar komunitatearen zerbitzurako zuzenduak daudenez, nork bere eginkizunean ez du atsedean hartzerik.

68. Hauetako gizon batek, Likhasek, topatu zuen, bada, hilobia Tegean, zorte on eta zorroztasunaz baliatuz. Izan ere, garai honetan tegearrekiko harremanik bai baitzuten, errementariarengana joanez, burdina lantzen zuenari begira jarri eta, egiten ari zena ikusiz, harriturik zegoen. Errementariak, harriturik zegoela ohartu zenean, lana utzi eta hau esan zion: "Lakoniar atzerritar hori, oraingo burdin lan hau hain harrigarria gertatzen zaianez, neuk ikusi nuena ikusi bahu, benetan harri eta zur geratuko hintzen. Zeren, baila honetan putzu bila zulo egiten ari nintzela, halabeharrez zazpi besoko zerraldo bat topatu nian. Eta gaur baino gizon handiagorik inoiz izan denik sinetsi ezinez, ireki eta zerraldoaren luzera bereko gorpua ikusi nian. Eta, neurtu ondoren, birlurperatu egin nian". Honek, soilki, ikusia baizik ez zion esan; baina besteak, esana hausnartuz, orakuluaren arabera, Orestes zela susmatu zuen, honengatik susmatu ere: errementariaren hauspo biak ikusiz, "haizeak" zirela aurkitzen zuen; ingudea eta mailua, "kolpea eta kontrakolpea"; burdina landua, berriz, "nekearen gaineko nekea", burdina, halamoduzko irudimenez, gizonaren kalterako asmatua izan zela iruditzen baitzitzaion. Eta susmo honekin Spartara itzuliz, gertaturiko guztia kontatu zien lazedemondarrei. Baina, hauek asmakeriagatik auzitegira eraman eta deserriratu egin zuten.

Eta berak, Tegeara itzuliz, eta errementariari bere zorigaitza kontatu ondoren, baila alokatu nahi izan zion; honek, ordea, ez zion alokatu. Hala ere, denboraz ulertarazi baitzion, bertan jarri zen bizitzen eta, ehorzlekua ireki, hezurak bildu eta hauek eramanez, Spartara joan zen. Eta ordutik, elkarrekin neurtzen zirenero, lazedemondarrak guduan askoz gailenago izan ohi ziren; gainera, jada menperatua zuten Peloponeso gehiena.

69. Beraz, gauzon berri izan zuenean, Kresok opariekin mandatariak igorri zituen Spartara gudukidetza eskatzearen eta zer esan behar zuten aginduz. Eta, iristean, honela mintzatu ziren: "Lydiarren eta gainerako herrien errege Kresok mezu honekin bidali gaitu: Lazedemondarrok! jainkoak orakuluz heleniarra adiskidetzat hartzeko esan didalarik, Heladeko buruzagi zuek zaretela jakin baitut, ondorioz orakuluaren arabera zuei dei egiten dizuet, adiskide eta azpikeriarik eta iruzurrik gabeko gudukide izan nahiz". Kresok mezu hori igorri zien mandatarien bidez; lazedemondarrek, beren aldetik, Kresori eginiko orakulua entzuna baitzuten, Lydiarren etorreraz poztu, eta ostatutza eta gudukidetzako hitzarmenak sinatu zituzten. Behartu ere, lehenago Kresogandik jasotako zenbait mesedek behartzen zituen; zeren, lazedemondarrek urre-erosleak bidali zituzten Sardesa, egun Lakoniako Thornaxen eraikia dagoen Apoloren irudian erabiltzeko asmoz: Kresok, ordea, erosten ari zirela, oparitzat eman zien.

70. Horrengatik eta, heleniar guztien artean hobetsiz, adiskidetzat aukeratu zituelako onartu zuten, bada, lazedemondarrek gudukidetza. Eta agintzen zuenerako prest zeuden, alde batetik; bestetik, Kresori mesedea ordaindu nahiz, tupikizko kratera bat egin

eta kanpoaldetik ezpainaren jiran irudiz beteaz, handiz hirurehun amphora⁴⁵ kabitzen zuena eramane zioten. Kratera hau bi eratara eman ohi diren arrazoiongatik ez zen Sardesa iritsi: lazedemondarrek diotenez, kratera Sardesa zeramatela, Samoko lurralderaino heldu zenean, samoarrek, jakinik, itsasuntzi handietan gaineratu eta kendu egin zieten; aldiz, samoarrek diotenez, kratera zeramaten lazedemondarrak berandutu eta Sardes eta Kreso menperatuak izan zirela jakin baitzuten, kratera saldu egin zuten Samon, eta gizon pribatuek, erosiz, Hereoan⁴⁶ eskaini omen zuten. Eta litekeena da saldu zutenek, Spartara itzultzean, samoarrek kendu zitetela esatea ere.

71. Honela izan zen, bada, kraterarekikoa. Kresok, bere aldetik, orakulua erratuz, Kapadoziaren aurka joatea erabaki zuen, Zyro eta persiarren boterea azpiratzeko itxaropenez. Baina Kreso persiarren aurka joateko prestatzen ari zela, lydiar batek, hain zuzen lehendik ere jakintsutzat zeukatelarik irizpide honen ondoren lydiarren artean ospe handia hartu zuenak, hona zer esan zion Kresori (izena Sandanis zuen): "Maiestate, hara zer-nolako gizonen aurka ari zaren prestatzen: galtzak larruzkoak dituzte, larruzkoa gainerako jantzia ere, ez dute nahi hainbat jaten, ahal dutena baizik, izan ere, lurralde harritsuak baitute. Horrez gainera, ardorik ere ez dute erabiltzen, ura edaten baizik, eta jateko ez dute ez pikorik, ez beste ezer onik. Batetik, bada, bentzutzen badituzu, zer kenduko diezu deus ez dutenei? Bestetik, bentzutua izan bazintez, kontuan izan ezazu zenbat gauza on galduko duzun. Zeren, gure gauza on guztiak dastatu ondoren, hauei atxikiko zaizkie eta kanporaezinak izango dira. Beraz, nik neuk eskerrak damaizkiet jainkoei,

persiarrei lydiarron aurka gerraratzea bururarazi ez dietelako". Honela hitz egin arren, ez zuen Kreso konbentzitu. Izan ere, persiarrek, lydiarrak menperatu aurretik, deus finik eta onik ez zuten.

72. Hain zuzen, heleniarrek kapadoziarrei syriar deitzen diete; eta syriar hauek, persiarrek agindu baino lehen, mediarren menpekoak ziren, orduan ordea Zyrorenak. Izan ere, Mediako eta Lydiako aginterrien arteko muga Halys ibaia zen; hau Armeniako menditik ziliziarren artean barrena doa eta, bere joanean, matienoak ditu eskuinaldean, phrygiarrak, berriz, bestaldean; eta hauek igaro eta ipar-haizerantz igo ondoren, alde batera kapadoziar syriarrak eta ezkerraldera paphlagoniarrak uzten ditu. Horrela, Halys ibaiak, Zypro⁴⁷ aurreko itsaso ondotik Ponto Euxinora arte, ia Asiako lurralde guztiak banatzen ditu. Eta hau da lurralde honetako guztiko mehargunea⁴⁸: oinkari bati bost egun doazkio bidean.

73. Beraz, hona zergatik joan zen Kreso Kapadoziaren kontra: batetik, lur-gosez, bere sailari gehiago erantsi nahi baitzion eta, bestetik, orakuluarekiko uste osoa zuenez, Zyrori Astyagesena ordainaraztea desiratzen baitzuen. Izan ere, Zyro Kambysesenak menperatu eta berekin zeukan Astyages Zyaxaresena, Kresoren koinatua eta mediarren erregea, Kresoren koinatu izatera honela iritsi zelarik. Szythiar talde nomada bat asaldatu eta Mediako lurraldean babestu zen; aldi hartan mediarren jabe Zyaxares Phraortesena Deiozesena zen; honek szythiar haiek, otoilari⁴⁹ gisa, ongi hartu zituen lehenik; eta estimu handitan zeuzkanez, gazte batzuk gomendatu zizkien haien hizkuntza eta gezilaritza ikas zezaten. Baina, denbora joanik, eta szythiarrek harantz-honantz

ehizara zihoazen bakoitzean zerbait ekartzen zuten arren, behin ezer ez harrapatzea gertatu zitzaien. Esku hutsik itzultzean, Zyaxaresek (erakutsi zuenez, guztiz haserrekoa zen eta) irain eginez, biziro garratz hartu zituen. Eta haiek txarkeriok jasan ondoren, jasaterik merezi ez zutelako, beren ondoan ikasten ari zen gazteetako bat zatitzea erabaki zuten, eta ehiza ohi zuten eran maneatz, Zyaxaresi eraman eta benetan ehiza bailitzan ematea eta, eman bezain laster, Sardesen Alyates Sadyatesenaren ondora joatea. Gertatu ere, horrela gertatu zen: bada, Zyaxaresek eta bere ondoko mahaikideek haragi horretatik jan zuten, eta szythiarrak, hori egin ondoren, Alyatesen otolari bihurtu ziren.

74. Gero, Zyaxaresek eskatu arren, Alyatesek ez baitzizkion szythiarrak entregatu, lydiarren eta mediarren artean bost urteko gerra izan zen; hauetan, sarri, mediarrek garaitu zituzten lydiarrak eta, sarri, lydiarrek mediarrak; eta gauezko borrokaldiren bat ere egin zuten. Eta gerra berdinduta burutzen zutela, seigarren urtean gatazka sorturik, borroka bizian eguna gau bilakatzea egokitu zitzaien. Egunaren bilakaera hau gertatuko zela Thales Miletoarrak⁵⁰ joniarrei aurrez iragarria zien, gatazka izan zeneko urtemuga ezarri⁵¹. Baina lydiarrek eta mediarrek, eguna gau bihurtzen ikusi zutenean, gatazka eten eta elkarrekiko bakea egiten ahalegindu ziren. Haien elkargile, honako hauek izan ziren: Syenesis ziliziarra eta Labyneto babyloniarra. Haiei elkargoa zin eginarazten ahalegindu ez ezik, ezkontrukea ere eragin zuten; izan ere, Alyatesek Zyaxaresen seme Astyagesi bere alaba Aryenis ematea erabaki zuten; odol-lokarri hertsirik gabeko elkargoek ez

baitute irauten ahal. Egin ere, herriok heleniarrek ohi dituzten zinak egiteaz gainera, beso-azalean ebaki bat egin eta elkarren odola miazkatzen dute.

75. Astyages hau zen, bada, Zyrok, aitaldeko aitona zuen arren, geroko ihardunean adieraziko dudan arrazoiarengatik, menperatu eta bere esku zeukana. Gauzok Zyrori aurpegiratuz, mandatariak bidali zituen orakuluengana persiarren aurka joan ote zitekeen galdetuz; are gehiago, erantzun bihurria iritsi eta bere aldekoa zelakoan, persiarrei zegokien lur-sailaren aurka abiatu zen. Eta Kresok, Halys ibaira iritsi zenean, nire ustez, han diren zubietan barrena igaro zuen gudarostea; baina, heleniar askoren ustez, Thales Miletoarrak igaro zion. Zeren, gudarosteak ibaia nola zeharkatuko zuen Kreso noraezean zebilela (bada, garai horretan ez omen zeuden agian zubi horiek), Thalesek, kanpamenduan zelarik, gudarostearen ezkerraldetik zihoan ibaia eskuinaldetik ere joan zedin lortu zuela diote; honela lortu ere: kanpamenduz goitik hasiz, lubaki sakon bat hondearazi omen zuen, ilargi erdiaren antzera bideratuz; modu honetan, lubakiaren erara ibaia lehengo ubidetik ateraz, eraikitako kanpamendua atzealdetik harrapatzen zuen eta, kanpamenduaren ondotik igaro ondoren, berriro lehengo korrontera jausten zen; ondorioz, ibaia erdibitu bezain laster, alde bietatik zeharkagarri bilakatu zen. Eta badira lehengo ubidea arras lehortu zela diotenak ere; baina honetan ez nator bat; nola zeharka zezaketen, bada, itzuleran?

76. Eta Kresok ibaia igaro eta bere gudarostearekin Pteria deritzan Kapadoziako lurrera iritsi zenean (Pteria da, izan ere, lurralde

honetako indartsuena, alde-aldean Ponto Euxinoko Sinope hirirantz dagoelarik), bertan kanpatu zen, syriarren lur-sailak suntsituz. Eta pteriarren hiria hartu eta gatibu egin zuen, baita bere inguruko guztiak ere eta, syriarrak, inola errudun ez zirelarik, deserriratu egin zituen. Zyro, bestalde, bere gudarostea bildu eta zeraman bidean bizi ziren guztiak berekin hartuz, Kresoren aurka abiatu zen. Baina bere gudarosteari aurrera eragin baino lehen, mezulariak joniarrengana igorritz, hauek Kresorengandik aldentzen saiatu zen. Hala ere, joniarrak ez ziren haren esanera jarri; eta Zyro heldu eta Kresoren aurrean kanpatu zenean, orduan Pteriako lurrian elkar indarrez neurtu zuten. Gatazka bortitza izan zelarik eta bietako asko erori, azkenik, gaua heltzean, bietako inork garaitu gabe banatu ziren. Halakoxe borroka egin zuten bi kanpamenduek.

77. Baina Kreso, bere gudarostearen kopuruaz atsekabeturik (Zyrorena baino askoz txikiagoa baitzen bildu zuen gudarostea), horrengatik atsekabeturik, Zyro biharamunean erasotzen saiatu ez zenean, Sardesa itzuli zen, zin egindakoaren arabera egyptoarrei dei egiteko asmoz (lazedemondarrekin baino lehenago Egyptoko errege zen Amasisekin ere egina baitzuen gudukidetza), bai babyloniarrei etorrazteko ere (hauekin ere egina baitzuen gudukidetza, eta Labyneto zen garai honetan babyloniarren nagusi), eta bai lazedemondarrekin esandako unean aurkez zitezen jakinarazteko ere; eta hauek bildu eta bere gudarostea bateratuz, negua igaro ondoren, udaberriarekin batera persiarren kontra joatea bururatu zitzaion. Eta asmo hauekin Sardesa iritsi zeneko, mezulariak

igorri zituen gudukideengana, bosgarren hilabeterako Sardesen biltzeko aldarrikatuz; bestalde, ondoan zuen eta persiarren aurka borrokatu zen gudarosteari zegokionez, arrotzak ziren guztiak lizentziatu eta sakabanatu egin zituen, Zyro halako berdintasunez borrokatu ondoren Sardesen kontra joan zitekeen inola pentsatu gabe.

78. Burutapen hauek zerabiltzala, Kresori hiriburuko kanpoalde guztia sugez bete zitzaion. Eta hauek agertzean, zaldiek larrean egiteari utzi eta harantz-honantzka haiek irensten hasi ziren. Eta Kresori, ikustean, seinale bat zela iruditu zitzaion, izan ere bazenez. Eta berehala telmesoar interpretariengana mandatariak bidali zituen. Baina mandatari hauek ailegatu eta telmesoarrengandik seinaleak adierazten zuena jakin zuten arren, ez zioten Kresori iragarri ahal izan; itsasoz Sardesa itzuli baino lehen, Kreso harrapatua izan baitzen. Telmesoarren, haatik, hau ulertu zuten: Kresok berehala zuela atzeritar gudaroste bat bere lurraldearen gain eta, iristean, honek menperatuko zituela bertakoak, sugea lurkume, zaldia, berriz, etsai eta arrotz zela adieraziz. Hori izan zen, bada, telmesoarren Kresori jada gatibu zegoela erantzun ziotena, artean Sardesi eta Kreso berari buruzkoez deus jakin gabe.

79. Bestalde, Kreso Pterian gertaturiko borrokaren ondoren abian jarri zen orduko, Zyrok jakin baitzuen Kresok iristean gudarostea sakabanatu egingo zuela, deliberatuz, bere egitekoa ahalik eta lasterren, lydiarren indarrak birbildu baino lehen, Sardesen kontra joatea zela aurkitu zuen. Erabaki bezala, bai azkar egin ere; [bada], gudarostea Lydiara gidatzearekin, bera izan zen Kresori albistari gisa joan zitzaiona. Orduan Kresok, egitasmoak uste ez bezala atera zitzaizkiolako estutasun handi batera iritsi zen arren, hala ere, lydiarrak borrokara aterarazi zituen.

Garai honetan Asian ez zen herririk ez adoretsuagorik eta ez kementsuagorik lydiarra baino. Zaldizko borroka zen berea, lantza luzeak zeramatzaten eta zaldiz trebeak ziren.

80. Eta gudaroste biek Sardesko hiri aurrean dagoen lautada handi eta gorrian elkar jo zuten (Hylo eta beste ibaiak bertan barrena joanik, Hermo deritzan handienez ibairatzen dira, hau, Dindymongo Amaren⁵² mendi sakratutik abiatuz, Phozeako hirirantz itsasoratzen delarik); leku honetan Zyrok, lydiarrak erasoeran jartzen ikusi zituenean, zaldieriari beldur baitzion, hona zer egin zuen Harpago soldadu mediarraren adierazpenez: janaria eta tresnak eramanez bere gudarosteari zerraizkion gamelu guztiak bildu eta zamak kenduaz, zaldunez jantziriko soldaduei igoarazi zien gainera, eta prest jarri zituenean, Kresoren zaldieriaren aurka gainerako gudarostearen aurretik joateko agindu zien; eta, oinezko taldeari, gamelueriari jarraitzeko ordena eman zion; aldiz, zaldieria osoa oinezkoaren atzetik eratu zuen. Eta guztiak erasoeran jarri zirenean, aurrean jartzen zitzairen gainerako lydiar oro barkamenik gabe hiltzeko ohartarazi zien; Kreso bera, ordea, ez zezatela hil, ez eta harrapatzean defendatzen bazen ere. Ohar hauek egin zizkien. Gameluak, berriz, arrazoi honengatik eratu zituen zaldieriaren aurka: zaldiak izua dio gameluari eta, haren irudia ikustean, nahiz hura usantzean, bere onetik ateratzen da. Beraz, honengatik burura zitzaion azkarkeria: Kresori zaldieria baliagarri izan ez zekion, lydiarrak honekin gailentzea itxaron bazuen ere. Eta, hain zuzen, biak borrokaratu zirenean, zaldiek gameluak usaindu eta ikusi zituzten ordukoxe, atzera egin zuten, eta Kresori itxaropena galdu zitzaion.

Hala ere, lydiarrak ez ziren honengatik koldartu; aitzitik, gertatutakoaz jabeturik, zaldietatik salto egin eta oinezko bezala eraso zieten persiarrei. Denboraz, alde bietako asko erori ondoren, lydiarrek eman zuten bizkarra, eta harresi artean hertsiaz, persiarrek setiatu egin zituzten.

81. Setioa ezarri zitzaien, bada; eta Kresok, setioa luzarorako izango zelakoan, gotorlekutik beste mandatari batzuk bidali zituen gudukideen lurraldeetara. Zeren, aurrenekoak bost hilabeteren buruan Sardesen biltzeko aginduz izan ziren bidaliak; hauek, ordea, Kreso setiatua zegoela eta, ahalik eta lasterren laguntzeko eskatuz igorri zituen.

82. Beraz, gudukideen lurralde desberdinetara eta, bereziki, lazedemondarengana igorri zituen mandatariak. Baina, hain zuzen, hauei [lazedemondarrei] Thyrea deritzan lurraldeari buruzko liskar bat gertatu zitzaien garai honetan argostarrek. Izan ere, Thyrea hau Argolideren lur-saila izan arren, beronengandik bereizirik, lazedemondarrek zeukaten. Eta argostarrena zen sartalderantz zegoen Malearainokoa ere: bai barrualdea, bai Zythera irla eta bai gainerako irlak. Baina argostarrak bereizitako lurra aldeztera abiatu zirenean, orduan elkarriketari ekin zioten, alde bakoitzetik hirurehun gizon borrokatuko zirela eta lurraldea garaileena izango zela hitzartuz; bestalde, gudarosteak bertan zeudela bietakoren bat galtzen zihoala ikusiz nork bereari lagun ez ziezaion, gudaroste-multzoa norbere lurraldera itzuliko zen, borrokatzen ziren bitartean geratu gabe. Baldintza hauetan bat jarri ondoren, aldendu egin ziren, eta alde bakoitzetik hautaturiko soldaduak geratu eta elkarri eraso zioten. Borrokaldia hain berdindua izan zen, seiehun gizonetatik hiru geratu ziren: argostarretatik Alzenor eta

Khromio, eta lazedemondarretatik Othryades; eta, geratu ere, gaua heldu zitzaielako geratu ziren hauek. Argostar biek, irabazle izan bailiran, lasterka Argosera jo zuten. Othryades lazedemondarrak, aldiz, argostarren gorpuak biluzi eta armak bere kanpamendura ekarri ondoren, bere postuari eutsi zion. Biharamunean han azaldu ziren alde biak gertaturikoaren berri jasoz. Eta, denbora guztian, bietako bakoitzak bera izan zela irabazle zioen: batzuek beretatik gehiagok iraun zutela bizirik esanez; besteek, berriz, hauek ihes egin zutela, baina berea, haien gorpuak biluziz, bere postuan geratu zela azalduz. Azkenik, eztabaidatik eskuetara etorritz, borrokari ekin zioten; eta alde bietako asko erori ondoren, lazedemondarrak irten ziren garaile. Ordudanik, hain zuzen, argostarrek, lehen ile luzea zeramatelarik, kaskoak moztuz, madarikaziopeko lege hau ezarri zuten: Thyrea berreskuratu arte argostar inork ez zezala ilea luzatzen utzi, ez eta berauen emakumeek ere urrerik eraman. Lazedemondarrek, aldiz, kontrako legea ezarri zuten: ordurarte ileluze ez zirenak, ordutik ileluze egin baitziren. Baina Othryadesek, hirurehunetatik bizirik geratu zen bakarrak, bere taldekideak galdu eta Spartara itzultzeaz lotsaturik, Thyrean bertan bere buruaz beste egin zuela esaten dute.

83. Spartarrei honelako arazoak gaineratu zitzaizkien unean heldu zitzairen Sardesko mezularia, Kresori, setiatua zegoenez, laguntzeko eskatuz. Hala ere, mezulariarena jakin ondoren, laguntzera jarri ziren. Eta jada gertu zeudela eta itsasuntziak prest, beste albiste bat iritsi zitzaien: lydiarren gotorlekua, alegia, hartua eta Kreso gatibu egina izan zela. Haiek, zorigaitz handitzat joaz, atzeratu egin ziren.

84. Eta hona nola hartu zuten Sardes. Kresori setiatua zegoela hamalagarren eguna heldu zitzaionean, Zyrok bere gudarosteari,

zaldunak bidaliz, gotorlekura lehen igotzen zenari saria emango ziola iragarri zion. Honen ondoren, gudarosteak, saiatsu arren huts egin baitzuen, orduan, besteek atzera egin zutenean, Hyreades zeritzan soldadu mardo bat saiatsu zen igotzen zaintzailerik jarri gabe zegoen gotorleku azpitik; alde honetatik gotorlekua, malkartsu eta erasoezina zenez, ez baitzen inola ere hartu-beldur. Leku honetatik bakarrik ez zuen igaro Sardesko lehen errege Melesen ohaidearengandik jaiotako lehoia, telmesoarrek, lehoia harresi inguruan igarotzen bazen Sardes harrezina izango zela epaitu zuten arren; Melesen, gainerako gotorlekuaren jiran, erasogarri zen [ingurunetik] igaro bazuen ere, erasogaitz eta malkartsu zelakoan, alde hau ez zuen aintzat hartu; hain zuzen, Tmolorantz begira dagoen hirialdea da. Beraz, Hyreades mardo honek bezperan hemendik ikusi baitzuen lydiar bat gotorlekuan behera jaisten eta igotzen erori zitzaion kaskoaren bila, kontuan hartu eta bere golkoan gorde zuen. Eta une honetan azpialde horretatik igo zen bera eta honen atzetik igo ziren beste persiarrek. Eta asko igorik, horrela hartu zuten Sardes eta hiri osoa arpilatu zuten.

85. Kresori berari dagokionez, berriz, hona zer gertatu zen. Bazuen seme bat, lehen gogoratu dugunez, beste dohainez hornitua, baina mutua. Hala bada, aurreko ongizatean, zezakeen guztia egina zuen haren alde eta, besteren artean, mandatariak ere bidaliak zituen Delphosa jainkoari hartaz galdetuz. Hau izan zen Pythiaren erantzuna:

"Lydiar kasta, askok errege hauten Kreso txit zuntzun,
heure semeak hitz egitean ez dezaala nahi entzun

etxean gura duan oihua. Hobeto, bahago urrun;
zorigaiztoko egun batean izango baituk hiltun".

Hain zuzen, gotorlekua hartzean persiar bat Kreso hiltzera baitzihoan nor zen jakin gabe, Kresok bazetorrela ikusten zuen arren, heldu zitzaion zoritxarragatik arduragabeturik zegoen eta ez zitzaion bost axola zauripean hiltzea. Delako seme mutuak, ordea, persiarra gaineratzen ikusi zuenekoxe, beldurak eta nahigabeak eraginik oihu egin eta "gizon! -esan zion-, etzazu Kreso hil!". Hauek izan ziren esan zituen lehen hitzak, eta, ondoren, jada bizitza osoan hitz egin zuen.

86. Persiarrek beren aldetik Sardes eskuratu eta Kreso bera gatibu egin zuten, honek hamalau urtez agindu eta hamalau egunez setiatua izan ondoren, igarpenaren arabera, aginte handi bati, bereari, amaiera eman ziolarik. Persiarrek hartu eta Zyroren aurrera eramane zuten. Eta honek, su-meta handi bat egin eta, Kreso, girgiluz loturik, haren gainera igoarazi zuen eta berarekin lydiar zazpi bikote gazte⁵³ ere bai, jainkoren bati hasikin hauek eskaintzeko asmoz, edo promesaren bat bete nahiz, edota, agian Kreso jainkotiar zela jakin zuelako igoarazi zuen su-metara, jainkoren batek bizirik erretzetik libratzen ote zuen jakin nahiz. Dena den, hori egin omen zuen. Eta Kresori, su-metaren gainean zegoela, halako egoera txarrean egonik ere, Solonen hura omen zetorkion burura, jainkoaren goiargiz esana bailitzaion: "Bizi direnetatik inor ez da dohatsu". Eta hori bururatzean, bihotz barrutik hasperen bat jalgi omen zitzaion eta, atsedenaldira luze baten ondoren, hiru bider errepikatu omen zuen "Solon" izena. Eta Zyrok,

entzutean, Kresori ea nori dei egiten zion galdetzeko agindu omen zien interpretariei; eta hauek joan eta bai galdetu ere. Kreso, ordea, galdetu zioten arren, isilik egon omen zen lehenik; baina gero, beharturik, hala erantzun omen zuen: "Aberastasun ugari baino nahiago nuke gizon hori tirano guztiekin hizketaratuko balitz". Eta hitzok ulertezinak izan zitzaizkienez, zer esan nahi zuen galdetu zioten berriro. Eta teman jarraitu eta astunak izan ondoren, esan zien nola hasiera batean Solon Athenastarra etorri eta, haren dohatasun guztia ikusiz, (bat eta beste esanez) gutxietsi zuen, eta nola dena hark esan bezalaxe gertatu zitzaion, norberaz baino gehiago gizaki oroz eta, batez ere, beren burua dohatsutzat zutenez ziharduelarik. Kreso hau esaten ari zela, jada metari su eman eta inguruak erretzen hasi omen zitzaizkion. Eta Zyrok interpretariengandik Kresok esanikoa entzun zuenean damutu eta bera, gizon izanik, beste gizon bat, zoriontasunean bera baino gutxiago ez zena bizirik sutara jaurti zuela konturatuz eta, horrez gainera, ordainaren beldur, gizonentzat deus ez dela iraunkorrik pentsatuz, erretzen ari zen sua berehala itzali eta Kreso eta berekin zeudenak eraisteko agindu omen zuen. Baina saiatzen zirenek ezin omen zuten jada sua menperatu.

87. Lydiarrek esaten dute orduan Kreso, mundu guztia sua itzali nahiz eta itzali ezinik ikusi zuenean, Zyroren damuaz jabeturik, garrasi bizian Apolori deika hasi zela, baldin haregandik opari atseginik jaso bazuen, arren ondoratu eta une hartako gaitzetik libra zezala eskatuz. Negarrez jainkoari deika ari zela, bat-batean zeru garbi eta barean hodeiak elkar jo eta ekaitza lehertu omen zen eta, euri-jasari ekinez, su-meta

itzali omen zuen. Era honetan, Zyro ohartu zenean Kreso gizon jainkozale eta ona zela, su-metatik jaitsiaraziz, honela esan omen zion: "Kreso, zein gizonek bultzatu zintuen nire lurrean sartu eta adiskide ordeztasun izatera?". Eta hark erantzun: "Oi errege, zure zorionerako eta neure zorigaiztorako egin nuen egin; ekintza hauen erantzule, ordea, heleniarren jainkoa da, zure aurka joatea eragin zidanez. Izan ere, inor ez da hain zoro, bakearen ordeztasun gerra aukeratzen duenik; bakealdian umeek hobiratzen baitituzte gurasoak, gerraldian, berriz, gurasoek umeak⁵⁴. Baina agian jainkozkoek atsegin zitzaizen hori horrela gertatzea".

88. Hark hori esan eta Zyrok, askatuz, bere ondoan eserrarazi zuen eta begirune handia izan zion; eta bai bera eta bai inguruko guztiak, hari begira, harriturik zeuden. Aldiz, hura, burutapenetan murgildurik, isilik zegoen. Gero, ordea, bere onera itzuli eta persiarrak lydiarren hiriburua arpilatzen ikusi zituenean, "Errege, -esan zion-; burura etor dakidana zuri adieraztea ala orain isilik egotea dagokit?" Zyrok, orduan, nahi zuena konfidantzaz esatera bultzatu zuen. Eta besteak, hitz eginez, hau galdetu zion: "Zer egiten du horko jendetza handi horrek presaka bizian?". Eta hark esan: "Zure hiria arpilatzen ari dira eta zure dirua eramaten". Eta Kresok erantzun: "Ez nire hiririk, ez dirurik, ez dute arpilatzen; horietatik deus ez baitut jada neurerik; aitzitik, zure gauzak dira lapurtu eta daramatzatenak".

89. Kresok esandakoa kezagarri izan zitzaion Zyrori, eta, gainerakoei irtenaraziz, haien egintzetan beraren kalterako zer ikusten zuen galdetu zion Kresori. Besteak orduan: "Jainkoek zure esklabo egin nautenez gero, bidezkoztat daukat, gehiago ikusten badut, zuri adieraztea. Persiarrak izatez oldarkor izanik, behartsu dira. Beraz, aberastasun handiak harrapatzean eta berenganatzean zuk ezikusia egiten badiezu, hona

haiengandik zer gertatu bide zaizun: ondasun gehienaren jabe egiten dena, zaude ziur zure aurka altxatuko dela. Orain, bada, nik esandakoari ongi baderitzazu, egizu honako hau: jar itzazu zeure lantzarietako batzuk zaindari bezala ate guztietan; hauek, dirua kanpora daramatenei kendurik, esan biezaiete hortik Zeusentzat hamarrenak atera behar direla. Batetik, zu ez zara haientzat gorrotagarri izango dirua indarrez kentzen diezulako; bestetik, zuk bidezkoa egiten duzula ezagutuz, haiek borondatez utziko dizute".

90. Hau entzunik, asko poztu zen Zyro, gauza on bat proposatzen ziola iruditut baitzitzaion. Eta bizi goraipatu eta, bere lantzariei Kresoren proposamena burutzeko agindu ondoren, hau esan zion Kresori: "Kreso! Zu, errege hori, egintzaz eta hitzez on egiteko prest zauzkanenez, eska iezadazu oraintxe bertan lortu nahi duzun mesede bat". Hark "Jauna -erantzun zion-, mesede handi bat egingo didazu baldin heleniarren jainkoari, nik neuk jainkoetan gehien ohoratzen nuenari, girgilu hauek bidaliz, ongileak engainatzeko ohitura al duen galdetzen uzten badidazu". Baina, hori eskatzeko, zer aurpegiratzen zion galdetu zion Zyrok. Eta Kresok bere buruhauste guztiak errepikatu zizkion: orakuluen erantzunak eta, batez ere, bere eskaintzak eta nola igarpenek bultzaturik persiarren aurka joan zen; eta jainkoari hori aurpegiratzen uzteko berreskatuz amaitu zuen ihardunaldia. Zyrok, ordea, barrez, "Kreso -esan zion-, hori ez ezik, une oro eska diezazkidezun beste gauza guztiak ere emango dizkizut". Eta Kresok hori entzun bezain laster, lydiar batzuk Delphosa bidean jarri eta agindu zien, girgiluak tenplu atarian ipini eta galde ziezaiotela jainkoari, girgiluak erakutsiz, ea ez al zen lotsatzen, halako hasikinak ekarri zizkion

Zyroren botereari amaiera emango ziola eta, igarpenen bidez eraginik, Kresori persiarren aurka joanarazteaz; horrez gainera galde ziezaiotela baita ere ea heleniar jainkoek eskergabeak izateko ohitura zuten.

91. Lydiarrak etorri eta agindurikoa esan zutenean, honela erantzun omen zien Pythiak: "Jainkoari ere ezinezkoa zaio erabakitako zorteari alde egitea. Kresok, hain zuzen, bosgarren belaunaldiko baten errua ordaindu du⁵⁵, honek, heraklidei lantzari zela, emakumearen maltzurkeriari jarraituz, bere jauna hil eta berari inola ere ez zegokion agintea eskuratu baitzuen. Eta Loxiasek⁵⁶ Sardesko zigorra Kresori berari ez baina bere umeei eror zekien ahaleginak egin dituen arren, ezin bereganatu ahal izan ditu Moirak⁵⁷. Baina hauek eskaini dioten guztia burutu du eta mesedegarri izan zaio; izan ere, hiru urtez atzeratu du Sardesen hartzea; eta Kresok jakin beza hau: erabakiak zeuden urte horiez geroztik izan dela atzemana. Eta mesede horien hurrena, erretzetik libratu du. Bestalde, egin zitzaion igarpenaz Kresok ez du kexatzeko biderik. Loxiasek, persiarren aurka joaten bazen, [berak] aginte handi bat desegingo zuela iragarri baitzion. Eta erantzun honekiko argibide on bat nahi izanez gero, joan eta ea bereaz ala Zyroren aginteaz ari zen galdetu behar zion. Eta, esandakoa ulertu ez, eta berriz galdetu ez bazion, har beza erruduntzat bere burua. Are, azken galdera egitean, Loxiasek mandoari buruz [esan ziona], hura ere ez zion izpirik ulertu. Izan ere, mando hura Zyro zen; giza maila desberdineko bikotearengandik jaio baitzen: ama goitiarragoarengandik eta aita behetiarragoarengandik; lehena, mediarra eta mediarren errege Astyagesen alaba zen;

bigarrena, aldiz, persiarra eta haien menpekoa eta gauza guztietan apalagoa zen arren, bere erreginarekin jarri zen bizitzen". Hori izan zen Pythiak lydiarrei eman zien erantzuna. Hauek Sardesa eraman eta Kresori jakinarazi zioten. Eta honek, entzun ondoren, ezagutu zuen bera zela hutsegile eta ez jainkoa.

92. Horra nola izan zen Kresoren aginteari eta joniarren lehen gainbeherakadari dagokiona. Baina, esandakoez gainera Kresok badu Heladen beste eskaintza asko ere: alde batetik, Beoziako Thebasen urrezko tripode bat, Apolo Ismenoarrari eskainitakoa; beste aldetik, Epheson urrezko behiak eta zutabeetako asko, eta Delphosko Athenea Pronearenean⁵⁸ urrezko ezkutu handi bat. Eskaintza horiek oraindik nire garaian ere bazirauten; besteak, aldiz, galduak ziren. Gainera, Kresok Miletoko brankhidei egindako eskaintzak, nik jakin dudanez, Delphosen eskainitakoen pisu berekoak eta antzekoak ziren. Horrela bada, Delphosi eta Amphiariori eskainiak, bereak eta aitagandik jasotako lehen ondasunak ziren, eta gainerako eskaintzak, bera errege izan baino lehen lydiarren buruzagitza Pantaleonentzat izan zedin ahaleginduz bere aurka jaiki zen etsai baten ondasunetatik zetozen. Pantaleon, berriz, Alyatesen semea zen eta, Kresok ama desberdineko anaia zuen. Izan ere, Alyatesi kariar emakume bategandik sortu zitzaion Kreso; Pantaleon, aldiz, joniar bategandik. Eta, aitak emanik, Kreso agintearen jabe egin zenean, aurka zegoen gizona txarrantxa gainean arrastatuz hil eta honen ondasunak, jada aurretiaz sagaratu ondoren, aipaturiko santutegiei eskaini zizkien esandako eran. Eta, honenbestez, eskaintzei buruz guztia esana bego.

93. Beste zenbait lurralderen aldean Lydiak ez du deskribatzeko hain gauza harrigarrik, Tmolok urpean daraman urre-hondarra

izan ezik. Obra bat bada, ordea, egyptoarren eta babyloniarren obrak kenduz gero, berdinik ez duena: hantxe dago Kresoren aita Alyatesen hilobia; zimendua harri handiz egina du eta gainerakoa lurketa da. Lan hau plazako salerosleen, eskulangileen eta prostituzioan ziharduten neskatxen kontura egina dago. Hilobi gainean bost zutarri zeuden, oraindik nire garaian ere badaudelarik, eta beraietan zizelaturik idazki batzuk zeuden bakoitzak eginarazitako lanaz; eta, neurtuz gero, neskatxen lana agertzen zen handiena. Izan ere, lydiar herriko alaba guztiak prostituitu egiten dira, beren ezkonsaria bilduz, elkarbizitza egiten jar daitezkeen arte; eta berak dira beren buruak ezkonsaritzen dituztenak. Hilobiaren ingurubira sei estadio eta bi pletrotakoa zen⁵⁹; zabalera, berriz, hamahiru plethrotakoa; hilobitik abiatu aintzira handi bat dago, lydiarrek diotenez, beti uretan dagoena: Gygesena deritazio. Honelakoxea da, hain zuzen, hilobi hori.

94. Gainerakoan, lydiarrek, beren alabak prostituitzen dituztenaz aparte, heleniarren antzeko ohiturak erabiltzen dituzte. Guk ezagutzen ditugun gizonetatik, hauek izan ziren lehenak urre- eta zilar-txanpenez baliatu zirenak eta lehenak dendari izaten ere. Eta lydiarren beraien hitzetan, hauen eta heleniarren artean ezarririk dauden jokoak ere beraien asmaketa dira. Eta berengan Tyrrenia⁶⁰ kolonizatzearekin batera sortu zituztela esaten dute, joko horietaz honela mintzatzen direlarik. Atys Manesena erregearen garaian janari-eza gogorra sortu omen zen Lydia osoan. Aldi batean iraun omen zuten jasaten; gero, ordea, amaitzen ez zelako, erremedioak bilatzen hasi eta bakoitzari gauza bana bururatzen omen zitzaion.

Honela asmatuak omen dira dadoen, kurkuluxen, pilotaren eta beste joko guztien moldeak, damena izan ezik, hauek ez baitituzte lydiarrek beren asmakizuntzat hartzen. Eta asmaketa hauen bidez honela aurre egiten omen zioten goseari: egun biz bat oso-osorik, janariaren atzetik ez ibiltzearren, jolas egiten omen zuten eta biharamunean jolasa utzi eta jan. Honela iraun omen zuten hemezortzi urte arte. Baina gaitza atzeratu ordez areagotu egiten zenez, erregeak, lydiar guztiak sail bitan banatuz, zotz egin omen zuen nor geratu eta nor atzerriratu; eta sail bietatik geratzea egokitu zitzaionari erregeak bere burua jarri omen zion gidari, alde egitea egokitu zitzaionari, berriz, Tyrreno izeneko bere semea. Beren lurraldetik irtetea suertatu zitzaienak Smyrnara jaitsi, itsasuntziak moldatu eta, itsasbidean beharrezko zuten guztia untziratuz, itsasora jo omen zuten bizibidearen eta lurraren bila, herri asko igaro ondoren, ombriarren artera iritsi ziren arte; beren hiriak eraiki eta gaurdaino hemen bizi omen dira. Eta lydiar deitura, beraiek gidatu zituen erregearen semearenaz trukatu omen zuten; horrengandik hartu omen zuten, hartu ere, goitizenez tyrreniarren izena. Lydiarrak, hain zuzen, persiarren morrontzapean geratu ziren.

95. Eta hemendik aurrera, gure historia, Kresoren agintea hondatu zuen Zyro nor zen eta persiarrak Asiako gidari izatera nola iritsi ziren esaten saiatuko da. Beraz, Zyrori buruzkoak goratu ez baina esaten dena kontatu nahi duten persiar batzuen kontakizunen arabera idatziko dut, Zyroz beste hiru kontaera desberdin zabaldu direla badakidan arren. Asyriarrek bostehun eta hogeitaz Asia garaian agindu ondoren, mediarrak izan ziren haiengandik alde egiten hasi ziren lehenak;

eta hauek, nonbait, askatasunagatik asyriarren aurka borrokatuz, adoretsu bilakatu ziren eta, beren morrontza astinduz, aske geratu ziren. Eta hauen ondoren gainerako herriek ere mediarrena bera egin zuten.

96. Baina barrualdeko herri guztiak burujabe zirela, hona nola berriro ere tiraniara heldu ziren. Mediarren artean Deiozes zeritzan gizon bizkor bat sortu zen: Phraortesena semea. Delako Deiozesek, tiraniaren zaletasunez, hara zer egin zuen. Mediarrek herrikkatan bizi zirelarik, hura lehen ere bere lurrian omentsu zen arren, are ahalegin handiagoz aritu zen zuzentasuna egiten, eta, egin ere, Media osoan legegabezia handia zegoen garaian egin zuen, zuzengabea zuzenaren etsai dela jakinik. Eta herrixka bereko mediarrek, honen jokaera ikusi zutenean, beren epaile hautatu zuten; eta, noski, honek agintea desiratzen zuenez, zuzena eta zintzoa zen. Honela jokatzear, hiritarrendik ez zuen gorespen gutxi jaso; hala ezen, non beste herrikketan, zuzen epaitzen zuen gizon bakarra Deiozes zela jakitean, lehen epai okerreaz kexatzen zirenek, entzun zutenean, beraiek ere epai eske Deiozesenganako joan-etorria pozik egiten zuten eta azkenik beste inorengana ez ziren itzultzen.

97. Gauzak ziren bezala epaitzen zituela jakinik egunetik egunera bisitari gehiago joaten baitzitzaion, Deiozesek, dena bere baitan zegoela oharturik, ez zuen aurrerantzean eseri nahi izan lehen epaitzeko eseri ohi zen tokian, eta jada ez zuela epaiketarik egingo esan zuen: ez zitzaiola interesatzen, alegia, bere egitekoak baztertuz, egun osoan ingurukoak epaitzen aritzea. Ondorioz, herrikketan barrena oraindik lehen baino harrapaketa eta legegabezia gehiago zelarik, mediarrek leku bat berean bildu eta hizketaratu, zegokienaz hitz egin zuten (eta hitz egin ere, ene ustez, Deiozesen adiskideek hitz egin zuten gehien):

"Oraingo egoeraz baliatuz, ezin baikintezke herri honetan bizi, ea, jar dezagun geure artetik errege bat; eta horrela herria legeoneratuko da bai, eta gu geure lanetara itzuliko eta legegabeziak ez gaitu asaldatuko". Honelatsuko arrazoen bidez limurtu zituzten beren buruak erregepean jartzera.

98. Eta berehala, errege nor jarriko zuten aurreratzean, mundu guztiak behin eta berriz Deiozes proposatzen eta goraipatzen du, beren errege hura dela onartzen duten arte. Honek, bere aldetik, erregetzari zegozkion egoitzak eraiki eta lantzarien bidez bere aginpidea indartzeko eskatu zien. Egin ere, horixe egin zuten mediarrek: egoitza handi eta sendoak jaso zizkieten berak esandako lekuan, eta mediar guztien artean beretzat lantzariak aukeratzen utzi zioten. Eta honek, agintea eskura orduko, mediarrek hiri bakar bat eraikitzen eta, hau zainduz, besteez arreta gutxiago izatera behartu zituen. Eta mediarrek honetan ere esaneko dituela, gotorleku handi eta bortitza eraikitzen du, egun Agbatana deritzana, harresia harresiaren barruan ezarriz. Eta gotorlekua hala dago antolatua, non harresi batak bestea almenez bakarrik gainditzeko duen. Agian lurraldeak ere laguntzen du horrelakoa izaten; hala ere, gehien bat bururatua izan zen. Harresiak orotara zazpi direlarik, erregearen egoitza eta altxorak azkenekoan daude. Eta handienak gutxi gora-behera Athenasko harresiaren luzera du. Halaber, lehen harresiko almenak zuriak dira; bigarrenak, beltzak; hirugarrenak, gorriak; laugarrenak, urdinak, eta bosgarrenak, laranja kolorekoak. Horrela, bost harresietako almenak tinduraz margotuak daude;

azken bietakoek, aldiz, bata zilarreztatua eta bestea urreztatua dago.

99. Harresi hauek eraikiarazi zituen Deiozesek beretzat eta bere egoitzen inguruan, eta gainerako herritarrei gotorlekuaren inguruan bizitzeko agindu zien. Eta guztia eraikia zegoenean, Deiozesek ezarri zuen lehenik honako ordenamendu hau: inor ez zedila erregearenganatu, aitzitik, gauza guztietarako mandatariez balia zitezela, eta inork ez zezala erregea ikusi, eta, horrez gainera, guztientzat lotsagarri izan zedila honen aurrean barre egitea eta txistua botatzea. Eta hona zergatik ezarri zuen begiramendu hau bere inguruan: adinekoek, harekin batera hazitakoek eta etxe txarrago eta gizatasun gutxiagokoak ez zirenek, hura ikusirik, mindu eta konspiratu ordeztu, ikusi gabe, berak ziren ez bezalakotzak eduki zezaten.

100. Eta ordenamendu hau jarri eta bere burua tyraniaz indartu zuenean, zuzentasunaren zaintzaile zorrotza izaten hasi zen. Eta auziak idatziz etxe barrura bidaltzen zizkieten, eta berak, ekartzen zizkietenak erabaki ondoren, itzuli egiten zituen. Auzietan honela jokatzeko zuen. Baina honako beste ordena hauek ere jarri zituen: norbaitek ausarkeriaren bat egin zuela jakiten bazuen, ekarrarazi eta bakoitza merezi zuen zigorrez epaitzen zuen, eta bere agintepeko lurralde osoan zelatariak eta entzulariak zituen.

101. Hala, Deiozesek Mediako herria bakarrik bateratu eta eraendu zuen. Eta mediarren artean honenbeste leinu daude: busak, paretazenoak, strukhateak, arizantoak, budioak, magoak. Hainbat leinu daude mediarren artean.

102. Eta Deiozesengandik seme bat sortzen da: Phraortes; honek oinordetu zuen agintea, berrogeita hiru urtez errege izan ondoren Deiozes hil zenean. Eta oinordetu zuenean, ez

zuen aski izan mediarrek bakarrik eraentzea, aitzitik, persiarren aurka joanez, hauek izan ziren menperatu zituen lehenak eta mediarren esaneko egin zituen aurrenekoak. Eta, ondoren, herri bi eta indartsu horiekin Asia menperatzeari ekin zion, bataren hurrena bestea erasoz, asyriarren aurka gerraratu zen arte; Ninoren⁶¹ jabe ziren eta lehen guztien nagusi izanik, orduan gudukideengandik banatu eta bakarrik egon arren, berez ongi baliatzen ziren asyriarren aurka, hain zuzen; hauen aurka ari zela hil zen bera, hogeita bi urtez agindu ondoren, eta baita bere gudaroste gehiena ere.

103. Eta, Phraortes hilik, Phraortes Deiozesenaren seme Zyaxares izan zen ondorengo. Hau oraindik ere arbasoak baino askoz adoretuagoa izan zela esan ohi da. Eta asiarrak konpainietan taldekatu zituen lehena izanaz gainera, lehena izan zen lantzariak, gezilariak eta zaldunak bata bestearengandik bereizturik lerrokatzen ere; ordurarte guztiak era berean nahasi-mahasian baitzeuden. Hau izan zen lydiarren aurka borrokatu zena, borrokan ari zirela eguna gau bihurtu zitzairenean, eta Halys ibaiatz goiko Asia osoa bereganatu zuena. Eta bere agindupeko konpainia guztiak bildurik, Ninoren aurka abiatu zen, aita menpekatu eta hiri hori suntsitzeko asmoz. Eta elkar jo eta asyriarrak garaitu ondoren Nino inguratzen ari zela, szythiarren gudaroste handi bat gaineratu zitzaion, zeina szythiarren errege Madyes, Protothyesen semeak gidatzen zuen. Hauek, zimeriarrak Europatik jaurti ondoren, Asiara jo zuten eta, haiei beren ihesean jarraituz, honela heldu ziren mediar lurraldera.

104. Meotide aintziratik⁶² Phasis ibaira eta Kolkhidera oinkari arin batentzat hogeita hamar eguneko bidea dago; baina Kolkhidetik

Mediara igarotzeko ez dago lurralde askorik; aitzitik, bien artean herri bakar bat dago: saspireena⁶³; eta hau igarotzen dutenak Median daude. Hala ere, szythiarrak ez ziren hemendik barrena gaineratu, askoz luzeagoa zen goragoko bidetik desbideratuz Kaukaso mendia eskuinera zutela baino. Orduan mediarrek, szythiarrekin elkar jo eta gaindituak izan ondoren, beren agintea galdu eta szythiarrak jabetu ziren Asia osoaz.

105. Eta hemendik Egyptora abiatu ziren. Baina Syria Palestinan zeudela, Psametikhok, Egyptoko erregeak, bidera irten eta, emariz eta erreguz aurrerago joatetik atzerarazi zituen. Itzultzean, ordea, Syriako Askalon hirira iritsi eta szythiarren gehiengoak kalterik egin gabe aurrera jarraitu zuen bitartean, hauetako gutxi batzuek, atzera geratuz, Aphrodita Uraniaren santutegia arpilatu zuten. Eta santutegi hau, nik jakitea lortu dudanez, jainkosa honek dituen santutegi guztietan zaharrena da; zeren hemendik sortu zen Zyproko santutegia ere, zyproar berek diotenez, eta Zytherakoa pheniziarrek eraiki zuten Syriako alde honetatik etorriz. Eta Askalongo santutegia arpilatu zuten szythiarrei eta hauen aldian aldiko ondorengoei jainkosak emetasun-gaitza itsatsi zien; ondorioz, szythiarrek diotenez, horrengatik gaixotu ziren haiek une berean, eta szythiar lurraldera doazenek berek ere ikus dezakete enareak deritzaten szythiarrak zein egoeratan dauden.

106. Beraz, szythiarrek hogeita zortzi urtez agindu zuten Asian eta, ausarkeriaz eta gutxiespenez, dena hondatua utzi zuten. Izan ere, alde batetik, herri bakoitzari gaineratzen zioten zerga exigitzen zioten eta, beste aldetik, zergaz gainera, beren zaldizko ingurubiratan, norberak zuena ere harrapatu egiten zuten. Baina Zyaxaresek eta mediarrek, hauetako gehienak gonbidatu

eta mozkortu ondoren, hil egin zituzten; eta mediarrek honela berreskuratu zuten agintea eta lehengo lurralde berberen jabe izan ziren, eta Nino hartu (nola hartu zuten, ordea, beste pasadizotan azalduko dut) eta asyriarrak, Babyloniako zatia izan ezik, menpeko egin zituzten. Egintza hauen ondoren, berrogei urtez, szythiarren agintepekoak barru, errege izanik, hil egiten da Zyaxares.

107. Eta erresuma Zyaxaresen seme Astyagesek oinordetu zuen. Eta alaba bat izan zuen: Mandane jarri zion izena. Honek hainbeste pixa egiten zuela iruditu zitzaion Astyagesi ametsetan, non bere hiria bete eta Asia osoa gainezkatzen zuen. Eta ametsetakoa mago amets-interpretarien baitan jarri zuenean, esanahi bakoitzaz jabeturik, beldurtu egin zen. Eta delako Mandane ezkontzeko sasoirra heldu zenean, ikuspenarekiko izuaz, ez zion emaztetzat eman mediarren artean haren duin zen inori, Kambyses izena zuen persiar bati baino, hau etxe onekoa eta izaeraz baketsua aurkitzen baitzuen, erdimailako mediarraz behekotzat jotzen bazuen ere.

108. Eta Mandane Kambysesekin bizi zela, lehenengo urtean Astyagesek beste ikuspen bat izan zuen: iruditu zitzaion bere alaba honen lotsaizunetatik mahatsondo bat sortu eta Asia osoaz jabetzen zela. Eta hau ikusi eta amets-interpretarien baitan jarri ondoren, Persiatik erditzeaz zegoen bere alaba ekarrarazi zuen; eta, iritsi orduko, zaindu egin zuen, haregandik jaiotzen zena hiltzeko asmoz; zeren ikuspenari buruz magoetako amets-interpretariak, bere lekuan alabaren umea izango zela errege adierazi zioten. Beraz, Astyages zain zegoela Zyro jaio zenean, Harpago, gizon etxetiar eta mediarretan leialena

izateaz gainera bere ondasun guztien gain zegoenari deituz, honela mintzatu zitzaion: "Harpago, eman bide diadan eginkizuna ez iezadak gutxiets, ez nazak engaina, eta besteren ona aukeratzeagatik ez hadi azkenean heure buruarekin behaztopa. Har ezak Mandanek izan duen haurra, eramanez heurekin eta erahil; eta, ondoren, heuk nahi duan eran hobira ezak". Eta honek erantzun: "Oi errege, inoiz ez bide diozu igerri honako honi atsegin ez zaizunik, eta zainduko gara aurrerantzean ere ezeren hutsik ez egiten. Aitzitik, hori horrela egitea gogoko bazaizu, nire obligazioa da zu arretaz zerbitzatzea".

109. Harpagok horrela erantzun zuen arren, haurtxoa heriotzarako prestatu ziotenean, bere etxera joan zen negarrez. Eta, iristean, Astyagesek esandako guztia kontatu zion bere andreari. Eta honek "Beraz, zer egitea bururatzen zaizu orain?", esan zion. Eta hark erantzun: "Inola ere ez Astyagesek agintzen didana; ez eta zoratu eta dagoen baino eroago ipintzen bada ere, ez naiz bere asmotara jarriko, ez eta honelako heriotzarik burutuko. Eta arrazoi askorengatik ez dut hilko: haurra neure odolekoa izateaz gainera, Astyages zaharra delako eta ondorengo mutilik ez duelako; eta bera hil ondoren, orain nire bidez semea hiltzen dion alaba honengana aginpidea eskualdatzea erabakitzen bada, zer besterik geratuko zait ondoren arriskurik handiena baino? Hala ere, nire segurtasunerako, haur honek hil beharra dauka; hiltzaile, ordea, Astyages berarendarretako batek izan behar du eta ez niretarretakoak".

110. Hori esan eta berehala, idiak larre egoki eta mendi piztiatsuetan larratzen zituela jakinik, Astyagesen itzainetako

batengana mandataria bat bidali zuen; Mitradates zuen izena. Esklabokide zuen emakume batekin bizi zen, eta bizikideak Zyno zeritzan heleniarren hizkuntzan, Spako berriz medieraz; mediarrek zakur emeari "spaka" deitzen baitiote. Eta itzain honek idilarrak dituen mendipeak Agbatanaz ipar-haizera eta Ponto Euxino aldera daude. Izan ere, alde honetatik saspiereenganantz, mediar lurraldea biziki menditsu eta garaia da eta oihanez estalia dago; aldiz, gainontzeko lurraldea zelai da dena. Horrela, itzaina deitua izan eta bizkor asko heldu zenean, hau esan zion Harpagok: "Astyagesek, haurtxo hau hartu eta mendietako lekuri bakartienean uzteko agintzen dik, ahalik eta lasterren hil dadin. Eta hiri hau esateko agindu zidak: baldin, hil ordeztu, edonola salba badezak, heriotzarik gogorrena jasango duala. Hain zuzen ere, neroni nagok jarria utzia izan dela ikuskatzeko".

111. Itzainak hau entzun eta haurtxoa berekin hartuz, bide beretik itzuli eta abeletxera heldu zen. Baina, bere emaztea, egunero erditzeaz zegoela, agian jainkoak hala nahiz, hain zuzen itzaina hirira bidean dela, orduantxe erditzen da. Egon ere, bata besteaz kezkaturik zeuden biak: bata bere emaztearen erditzeaz; emaztea, berriz, Harpagok bere senarrari ohi ez zuen moduan deitu ziolako. Eta itzuli eta azaldu zenean, itzaropena galdurik ikusi baitzuen emazteak, berau izan zen lehena Harpagok zergatik hain gogatsu deitu zion galdetzen. Eta hark "Ai andrea -esan zion-; hirira iristean, ez nik ikusi eta gure ugazabei inoiz gertatu ere gertatu behar ez zitzaizena ikusi eta entzun nuen. Harpagoren etxea negarrak hartua zegoen; ni

izaturik sartu nintzen barrena. Eta, barruratu nintzenerako, hor ikusten dut haurtxo bat aurrean etzana, negar batean, itzulipurdika, urrez apaindua eta jantzi ñabarrez jantzia. Harpagok ikusi ninduen orduko, haurtxoa berehala jaso eta, nirekin eramanez, joan eta mendietako lekuri piztiatsuenean uzteko agindu zidan, hau agintzen zidana Astyages zela esan eta egiten ez banuen mehatxu asko eginez. Eta nik jaso eta eraman egin nuen etxekoren bat zela pentsatuz; inoiz ez baitzitzaidakeen bururatuko nondikoa zen. Harriturik nengoen, ordea, urrez eta jantziz apaindua ikustiaz gainera, Harpagorenean ezarria zegoen negar nabarmenaz. Eta bidean barrena, niri lagunduz, haurra hiritik at eskuetan jarri zidan zerbitzariarengandik jakin dut bat-batean kontu guztia: nola Astyagesen alaba Mandaneren eta Kambyses Zyrorenaren semea den eta Astyagesek hiltzeko agintzen duen. Hona orain hemen!".

112. Eta hori esatearekin batera itzainak haurra desestali eta erakutsi egin zion. Eta andreak haurtxo mardul eta ederra zela ikustean, negarrez eta gizonari belaunetatik helduaz, inola ere ez abandonatzeko erregutzen zion. Hark, ordea, ez zezakeela besterik egin esan zion: Harpagoren zelatariak harantz-honantz begiak gainetik kendu gabe zebilzkiola eta egiten ez bazuen heriotzarik txarrena izango zuela. Eta andreak ez baitzuen senarra konbentzitu, bigarrenaz honela mintzatu zitzaion: "Beraz, ezin baitzaitut ez abandonatzera limurtu, egizu hau bederen: abandonatua dagoela ikustea erabat ezinbestekoa bada, -nik ere haurra izan baitut, hila bada ere-, eraman ezazu hau eta abandona, eta Astyagesen alabaren semea haz dezagun geurea bailitzan. Eta honela zu ez zaituzte ugazaben aurkako bidegabekeria harrapatuko

eta guk geuk ere ez dugu erabaki txarra hartuko; zeren hildakoak errege-ehorzketa izango du eta badirauenak ez du bizia galduko".

113. Oraingoan bere andreak oso ondo hitz egiten zuela iruditu zitzaion itzainari eta, besterik gabe, horixe egin zuen; hiltzera zeraman haurra bere emazteari ematen dio, eta berea, hila zegoenez, hartu eta bestea zeraman kutxatilan jarri zuen; eta beste haurraren apaindura guztiarekin apainduz, mendirik bakartienera eramane eta utzi egiten du. Eta abandonatua izan zenetik hirugarren egunera, itzaina, bere itzain-mutiletako bat hura zaintzen utziaz, hirira joan zen; eta Harpagorenera heldu zenean, haurtxoaren gorpua erakusteko prest zegoela esan zion. Eta Harpagok bere lantzaririk leialenak bidali eta hauen bidez egiaztatu ondoren, itzainaren haurtxoa hobirarazi zuen. Hain zuzen, hau izan zen hobiratua; aldiz, geroago Zyro deiturikoa, itzainaren andreak hazi zuen semetzat hartu eta Zyro ez beste edozein izen jarriaz.

114. Eta haurrak hamar urte zituela, beroni gertatu zitzaion honelako gertaera batek nabarmendu zuen. Idi-talde haiek ere bertan ziren etxaldean jolasten ari zen; eta beste adinekoekin bidean jolas egiten zuen. Eta hurrek, jolastean, itzainaren seme zeritzan hori hautatu zuten beren errege. Eta honek haietako batzuei etxeak eraikitzeke agindu zien, besteei bere lantzari izateke, halakoren bati errege-begi⁶⁴, eta besteren bati mezu-ekarlearen kargua eman zion, nori bere eginkizuna ezarri. Hala, jolaskide zituen haurrotako batek, mediarren artean ospetsu zen Artembaresen semeak, Zyrok agindurikoa ez baitzuen egin, honek beste hurrei hura atxilotzeko agindu zien eta, hurrek esana egin ondoren,

Zyrok biziki latz astindu zuen zigorrez. Eta hura, askatua izan zen bezain azkar, bere duin ez zirenak jasan zituelako are haserreago zegoen eta, hirira jaitsiz, aitari Zyroren pean pairatu zituenaz kexatu zitzaion, nahiz eta ez Zyroz hitz egin (artean ez zen hau bere izena eta), Astyagesen itzainaren semeaz baino. Eta Artembaresek, sumindurik, Astyagesengana jo eta semea berekin batera eramanez, egintza desegokiak jasan zituela esan zion hitzokin: "Maiestate, hona nola iraindu gaituen zure esklaboak, itzain baten semeak"; eta haurraren bizkarra erakutsi zion.

115. Astyagesek entzun eta ikusi ondoren, Artembaresenganako begirunez haurra zigortu nahiz, itzaina eta honen semea ekarrarazten ditu; eta biak aurkeztu zirenean, Zyrori begiratu eta hau esan zion: "Beraz, hi, horrelako aitaren semea izanik, nirean handiki den honen semea hain itxuragabe astintzera ausartu hintzen?". Eta hark honela erantzun zion: "Jauna, nik zuzentasunez egin nion hori. Izan ere, etxaldeko haurrek, eta hau zen horietako bat, jolastean, beren errege jarri ninduten; horretarako egokientzat bainindukaten. Hala bada, beste haurrek agindutakoa betetzen zuten bitartean, honek ez zuen ez esanik ez jaramonik egiten, zegokion zigorra jaso zuen arte. Beraz, honengatik ezeren txarrik merezi badut, hementxe nauzu".

116. Haurra hau esaten ari zela, Astyages hura berrezagutzen hasi zen: haren aurpegiera berearen antzekoa iruditu zitzaion, erantzuna gizon askeari zegokiona guztiz, eta, abandonatzearen garaia haurraren adinarekin bat zetorrela pentsatu zuen.

Burutapen hauekin txunditurik, aldi batean hitzik gabe egon zen; baina, nekez bederen noizbait bereratu zenean, hitz hauek esan zituen, itzaina bakarka hartu eta galdekatzeko Artembares aldendu nahiz: "Artembares, ez zuk eta ez zure semeak inolako kexurik izan ez dezazuen eran egingo ditut gauzak". Beraz, Artembares agurtu eta Zyro, Astyagesen aginduz, barrenera eraman zuten zerbitzariak. Eta itzaina bere aldetik bakarka hartu zuenean, haurra nondik hartu zuen eta nor zen emaille galdetu zion. Honek, ordea, beregandik sortu zela eta erditu zuena oraindik berekin bizi zela erantzun zion. Baina Astyagesek ez zuela buruz jokatzeko esan zion baldin eta tortura handiak nahi bazituen. Eta, hau esatearekin batera, lantzariei berekin hartzeko seinale egin zien. Eta torturetara zeramatela azaldu zuen benetako historia. Egiaz baliatuz, hasieratik kontatu zuen kontatu ere, eta erreguka eta barkamen eske amaitu zuen.

117. Baina itzainak egia aitortu zuenean, Astyagesek jada jaramon gutxi egin zion; aitzitik, Harpagorekin biziki haserre, honi deitzeko agindu zien bere lantzariei. Eta Harpago aurkeztu zenean, galdera hau egin zion Astyagesek: "Harpago, nolako heriotzaz hil huen nik entregatu nian neure alabaren semea?". Harpagok ikusi baitzuen itzaina barruan zegoela, ez du gezurrezko bidera jotzen, bete-betean harrapatua izan ez dadin, hau esaten baizik: "Maiestate, haurtxoa hartu nuenean, pentsatzen eta aztertzen hasi nintzen nola ez nintekeen, zure nahiaren arabera jokatu eta zuri huts egin gabe, zure alabarentzat eta zuretzat hilketaren erantzule izan. Hona, bada, zer egiten dudana: itzain honi deituz, haurtxoa entregatzen diot,

hau hiltzea agintzen duena zeu zarela esanez; eta hau esatean ez nioen gezurrik; zuk horrela agindu baitzenidan. Hala ere, era honetan entregatu nion: mendi bakarti batean utzi eta, hil arte bertan egonez, zain zezala aginduz eta, aginduok bete ez bazitzan, guztietarikoekin mehatxatuz. Eta honek agindua egin eta haurtxoa hil zenean, eunukoetan leialenak bidaliz, hauengandik berria jakin eta ehortzarazi egin nuen. Horrela dira gauzak, Maiestate, arazo honi buruz, eta horrelako zoria izan zuen haurrak".

118. Harpagok azalpen zuzena egin zuen benetan. Astyagesek, ordea, gertaturikoagatik barruan zeraman mingostasuna gordez, lehenik, arazoa berak itzainari entzuniko modu berean birkontatu zion Harpagori, eta, gero, errepikatu ondoren, haurra bederen bizi zela eta gertaturikoa ongi zegoela esanez amaitu zuen. "Izan ere -jarraitu zuen esanez-, haurrari eginikoarekin neke handitan nengoen, eta nire alabaren gorrotoa ez zitzaidan arina. Beraz, adur ona egokitu zaidanez, bidaliezadazu zeure semea iritsi berria dudaneure semearen albora eta, ondoren, (ohore hau ongi merezia duten jainkoei salbameneko erre-opariak egin nahi baitizkiet) zatoz nirekin bazkaritara".

119. Harpagok hau entzun zuenean, belaunikatuz eta bere hutsegitea onbeharrerako gertatu zelako eta adur ona ospatzeko bazkaritara deitua izan zelako handietsiz, bere etxera joan zen. Eta iritsi bezain azkar, seme bat bakarra baitzuen, gehienez ere hamahiruren bat urte zituen, horra non bidaltzen duen hau, Astyagesengana joateko eta honek agin ziezaiokeena egiteko esanez. Eta berak, pozez gainezka, gertaturikoaren berri ematen dio emazteari. Astyagesek, ordea, Harpagoren semea heldu zen orduko, lepoa moztu eta gorpu-ataletan zatikatuz,

haragi-zati batzuk erre egin zituen; beste batzuk, egosi eta ongi manearaziz, [prest] eduki zituen. Eta, bazkalordua iritsirik, beste bazkaldarien artean Harpago ere aurkeztu zenean, bai besteei eta bai Astyagesi berari mahai-bete ardi-haragi jarri zieten aurrean, Harpagori, ordea, oso-osorik bere semearena jarri zioten, burua, eskuak eta hankak izan ezik; hauek aparte otar batean estaliak zeuden. Eta Harpagori janetik aski zitzaiola ematen zuenean, bazkaria atsegin izan al zitzaion galdetu zion Astyagesek. Eta Harpagok oso atsegin izan zitzaiola zioelarik, hartarako jarria zeudenek semearen burua eta hankak eta eskuak mahairatu zizkioten estalirik. Eta, hurreratuz, Harpagori, arren desestali eta nahi zuenetik hartzeko esan zioten. Harpagok, esana eginez, desestali, eta bere semearen hondakinak ikusten ditu. Ikusi arren, ordea, ez zen aztoratu: bere senean geratu zen. Astyagesek, orduan, zein piztiaren haragia jan zuen ezagutzen al zuen galdetu zion. Eta hark ezagutzen zuela erantzun, eta erregeak egin zezakeen guztiari oso ongi zeritzala. Horrela erantzun ondoren eta haragi hondarrak berekin hartuz etxera itzuli zen. Gero, nire ustez, zati guztiak bildu eta ehortzi egingo zituen.

120. Astyagesek honelakoxe zigorra ezarri zion Harpagori. Aldiz, Zyrori buruz erabakia hartu nahian, bere ametsa era hartan ulerrarazi zioten magoei deitu zien; eta, iritsi zirenean, bere ikuspena nola ulertu zuten galdetu zien. Eta hauek gauza bera errepikatu zioten: haurrak bizirik bazirauen eta lehen hiltzen ez bazen, halabeharrez errege izango zela esanez. Orduan hark honela erantzun zien: "Haurra bada, eta bizi da oraindik; eta, landan bizi izanik, etxaldeko haurrek errege jarri dute eta, eginaren eginez, benetako erregeek egin ohi duten guztia

burutu du; izan ere, bere agindupean lantzariak eta atezainak eta berriemaileak eta gainerako guztiak eratu ditu. Eta orain nora garamatzatela uste duzue gertakizun hauek?". Magoek hala erantzun zioten: "Bizirik badirau eta haurra ustekabeen errege izan bada, zaude adoretsu honengatik, izan gogatsu, ez du jada bigarrenez aginduko eta. Izan ere, guretzat igarpen batzuk gauza txikietan betetzen dira eta ametsei dagozkienak, hain zuzen, azkenean huskerietara jotzen dute". Astyagesek honela erantzuten die: "Neu ere, magoek, iritzi honekin guztiz bat nator: haurra errege izendatua izan denez, ametsa bete dela, alegia, eta haurra jada ez zaidala arriskugarri. Hala ere, ongi begiratzuz, kontseila iezadazue nire etxearentzat eta zuentzat seguruen izango dena". Eta hitz hauei honela erantzun zieten magoek: "Oi errege, geuretzat ere garrantzi handikoa da zure aginteak sendo irautea. Izan ere, era hartan, agintea persiarra den haur horrengana igarotzen bada, besteren eskutara aldatzen da eta gu, mediarrak izanik, morroi izango gara eta, arrotz izanik, persiarrentzat deus ez gara izango; baina zu, herrikide zaitugun hori errege egonez, agintekide gara eta zuregandiko ohore handiak ditugu. Beraz, era honetan, ahalegin osoz zaindu behar zaitugu zu eta zure agintea. Eta orain bertan zerbait beldurgarririk susma badezagu, den-dena esango dizugu. Une honetan, ordea, ametsa ezerezean geratu denez, gu geu adoretsu gaude eta zuri ere beste horrenbeste kontseilatzen dizugu. Bidal ezazu haur hori begien bistatik Persiara, sortu zutenengana".

121. Poztu zen Astyages hau entzutean, eta, Zyrori deituz, "Mutil! -esan zion-; hiri, gertatu ez den ametsetako ikuspen bat dela eta, bidegabekeria egin diat. Hain zuzen, heure adurrez dirauk bizirik. Orain, bada, hoa zorionean Persiara;

gidariekin batera bidaliko haut. Eta, iristean, han topatuko dituk aita eta ama, Mitrادات itzaina eta bere emaztea ez bezalakoak".

122. Hau esanik, Astyagesek Zyro agurtzen du. Eta hau Kambysezen egoitzetara itzultzean, gurasoek errezibitu zuten, eta, errezibitzean, hartaz jabetu ziren orduko musuka hartu zuten, jaio eta berehala hil zelakoan baitzeuden, eta nola bizirik atera zen galdetu zioten. Eta honek lehen ezer ez zekiela, aitzitik, oso erratua zegoela esanez erantzun zien; bidean jakin zuela bere kinkaren berri; Astyagesen itzainaren semetzat zuela bere burua, baina handikako bidean gidarien ahotik jakin zuela istorio guztia. Itzainaren emazteak hazi zuela ere esan zien, eta etengabe hau goratzen aritu zen, eta bere kontakizunean Zyno zen dena. Eta gurasoek, izen hau jasoz, persiarrek haien semeak jainko-laguntzaz zirauela bizirik uste izan zezaten, Zyro abandonatu zutenean zakur eme batek hazi zuenaren zurrumurrua sortu zuten. Horra nondik barreiatu zen hots hori.

123. Eta Zyrori, gizontzen ari zela eta adinekoetan bulartsuena eta maitagarriena zelarik, Harpago zetxekion opariak bidaliz, Astyagesez menpekatzeko asmoz. Zeren berak, norberazko bat izanik, Astyagesez menpekatzeko biderik ez zuen ikusten; baina, Zyro hazten ari zela antzematean, borrokakidetzat hartzen zuen, Zyroren eramankizunak bereekin berdinduz. Hau baino lehen, ordea, hona zer egin zuen: mediarrentzat Astyages gogorra zenez, mediarren artean lehenengo zirenetako bakoitzarekin elkartu eta, Zyro beren buru jarriaz Astyages erregetzatik kendu egin behar zela sinestarazten ibili zen. Hori lortu eta prest zeukala, era berean Harpagok Persian bizi zen Zyrori bere egitasmoa agertu nahi baitzion,

ibilbideak zainduak zeudenez, ezin zuen beste inolako eran, eta honelako jukutria bat asmatzen du. Erbi bat moldatu, honi sabela ireki, eta ile bat kendu gabe, zegoen-zegoenean, orri bat sartu zion, zeritzana idatziz; eta erbiaren sabela josi eta zerbitzari leialenari, ehiztari bailitzan, sareak eman ondoren, Persiara bidali zuen, agindu hau emanez: Zyrori erbia ematean, hitzez esan ziezaiola bere eskuz irekitzeko eta hau inor aurrean ez zela egiteko.

124. Eta, egin ere, halaxe egin zen: Zyrok erbia hartu eta ireki zuen eta, barruan zeukan orria topaturik, hartu eta irakurri egin zuen. Eta idatziak honela zioen: "Kambysesen seme, jainkoek begiratzten zaituztenez, ez baitzenuen bestela hainbesteko ditxarik izango, menpeka zaitez orain Astyages, zeure hiltzaileaz; bada, honen desiraz hila zaude; bizirik badirauzu, ordea, jainkoengatik eta niregatik da. Guztion berri, hots, nola jokatu zuen zurekin eta zu hil ordeztzainaren eskutan jarri zintudalako Astyagesek nolakoak jasanarazi zizkidan aspaldi jakina duzula uste dut. Beraz, nire esana egin nahi baduzu, oso-osorik Astyagesek agintzen duen lurralde horren gain aginduko duzu. Jo ezazu, bada, gudarostearekin mediarren aurka, persiarrak hauengandik apartarazi ondoren. Eta Astyagesek nahiz ni izendatzen banau zure aurkako buruzagi, nahiz mediarren artean ospetsu den besteren bat izendatzen badu, zuk gura duzuna izango duzu; hauek izango baitira lehenengo harengandik banandu eta zureganatuz, Astyages botatzen saiatuko direnak. Beraz, hemengoa prest dagoenez, egizu hori eta azkar egin ere".

125. Hori entzunda gero, Zyro persiarrak harengandik nola modurik bizkorrenean apartaraziko zituen pentsatzen jarri zen, eta, pentsatuz, honako hau topatu zuen egokien "eta" egin

ere haxe egin zuen. Gogoak eman ziona paperean idatzi ondoren, persiarrei batzarrera dei egin zien; ondoren, papera zabaldu eta bertan irakurriz, Astyagesek persiarren gudaiburu izendatzen zuela adierazi zien. "Eta orain -jarraitu zuen esanez-, persiarroi nor zeuen igitaiarekin aurkez zaitezela agintzen dizuet". Hori agindu zien Zyrok. Persiarren artean, ordea, leinu asko dira. Eta hauetatik Zyrok bildu eta mediarrengandik banantzeko agindu zienak, gainerako persiar guztien sustengu diren hauetxek dira: pasargadak, maraphioak eta maspioak. Hauetan nobleenak pasargadak dira; hauen artean dago errege perseiden jatorria dugun akhemeniden senitarte ere. Beste persiarrak honako hauek dira: panthialeoak, derusiarrak, germaniarrak; guztiok nekazari dira. Besteak, ordea, daotarrak, mardoak, dropikoak eta sagartioak, artzain.

126. Beraz, guztiak esan zitzaientzarekin aurkeztu zirenean, orduan Zyrok -Persian bai baitzen ingurune osoan hemezortzi edo hogeit hamar estadio⁶⁵ zuen otadi bat- egunaren buruan lurralde hau garbi ziezaiotela agindu zien. Eta persiarrek lana amaitu zutenean, bigarren agindu bat eman zien: biharamunean etor zitezela garbituak. Eta bitartean Zyro, aitaren ahuntz-, ardi- eta idi-talde oro leku berean bilduz, hilarazi eta, ardo eta janaririk egokienak gehituz, persiar jendea harrera egiteko prestatu zen; eta biharamunez persiarrak heldu zirenean, zelaian etzanaraziz, bapo jarri zituen. Eta Zyrok jaturaren ondoren, bezperan izan zutena ala ordukoa zitzaient aukeragarriago galdetu zien. Eta hauek bien artean alde handia zegoela erantzun zioten:

bezperan, alegia, dena zela txar; egungo egunean, ordea, dena on. Orduan Zyrok, hitza harturik, bere egitasmo osoa azaldu zien esanez: "Persiarrok, honela daude gauzak zuentzat; nire esana egin nahi baduzue, ondasun hau eta beste mila honelako izango duzue inolako morroi-lanik gabe; aldiz, nire esana egin nahi ez baduzue, atzokoaren antzera kontaezin ahala neke izango duzue. Beraz, orain nire esanera jarritz, izan zaitezte aske. Zeren, ni neu, patu jainkotiarrez, hori neure esku hartzeko sortua naizela uste dut, eta zuek ez gerragintzan eta ez bestetan mediarrek baino ahulago eta ezberdinago ez zaretelakoan nago. Honela izanik, bada, jaiki zaitezte ahalik lastarren Astyagesen aurka".

127. Orduan persiarrek, buruzagia bazuten eta, gogatsu ekin zioten askapenari, ezduintzat hartzen baitzuten aspaldidanik mediarren menpe egotea. Baina Astyages Zyroren egintza hauetaz jabetu zen orduko, mandatari bat bidaliz, dei egin zion. Zyrok, ordea, mandatariari Astyagesek berak nahi baino lehenago joango zitzaiola iragartzeko agindu zion. Astyagesek hau entzun ondoren, mediar guztiak armatu eta, hain zegoen jainko-itsumenak jota, Harpago izendatu zuen haien gudalburu, beroni egin zizkionak ahazturik. Eta mediarrek borrokan persiarrekin lotu zirenean, batzuek, egitasmoaren berri ez zekitenek, borroka egin zuten; aldiz, beste batzuk persiarrengana pasa ziren; gehienek, ordea, gogotxartu eta ihes egin zuten.

128. Eta mediar gudarostea lotsagarri desegin zenean, Astyagesek jakin bezain azkar Zyrori mehatxu eginez, "Hala ere, Zyrok ez du atsegin izango": esan zuen. Hau esan eta, lehenik, Zyro aske uzteko adierazi zioten mago amets-interpretariak gurutzeratu egin zituen eta, gero, mediarren hiriburuan geratzen ziren gizonezkoak, gazte eta zahar, armatu egin zituen. Hauek gidatu eta persiarren aurka jaurti zituen arren,

garaitua izan zen, eta Astyages bera gatibu egin zuten eta eramandako mediarrek galdu zituen.

129. Eta Astyages gatibu zelarik, Harpagok, aurrean jarritz, irain egiten zion, eta beste hitz mingarrien artean, bere semearen haragia janarazi zion bazkaria aipatuz, erregetzaren ondoko esklabotzari zer zeritzan ere galdetu zion. Astyagesek, Harpagori begiratzuz, ea Zyrorena bere egintzatzat jotzen zuen birgaldetu zion. Eta Harpagok esan zion, egitasmoa berak idatzi zuenez, bidezkoa zela egintza ere berea izatea. Astyagesek orduan, arrazoituz, munduko gizonik dorpeen eta bidegabeena zela azaldu zion: dorpeena, baldin errege izateko bidea izan, egintza haiek berak eragin, eta boterea beste bati eman bazion; eta, bidegabeena, bazkariarengatik mediarrek morroi bihurtu zituelako; zeren, erregetza berak izan ordez beste bati ematea ezinbestekoa bazen, bidezkoagoa izango zela ondasun hau mediarretako bati ematea persiarretako bati baino; orain, ordea, mediarrek arazo honetan errugabe izan arren, nagusi ordez morroi izatera iritsi zirela eta lehen morroi ziren persiarrak nagusi orain.

130. Beraz, Astyagesek, hogeita hamabost urtez errege izan ondoren, honela galdu zuen bere erregetza, eta mediarrek honen gogortasunagatik burua makurtu zieten persiarrei, ehun eta hogeita zortzi urtez, szythiarrek agindu zutenaz aparte, Halys ibaiaz goiko Asiaren jabe izan zirelarik. Hala ere, geroago, damu izan zuten hori egina eta Darioren aurka jaiki ziren; baina, jaiki ondoren, guduan garaituak izan baitziren, berriro ere haien menpe erori ziren. Beraz, Astyagesen garaian persiarrak Zyrorekin mediarren aurka altxatuz, Asiako zati horren jabe egin ziren. Eta Zyrok, beste gaitzik egin gabe, berekin eduki zuen Astyages hil arteraino. Honela jaio, hazi

[eta] errege izan zen Zyro eta gertakizun hauen ondoren, lehen esan dudan bezala, Kreso azpiratu zuen, eraso egin baitzion. Eta hau azpiratu eta era honetan jabetu zen Asia osoaz.

131. Nik dakidanez, persiarrek ohitura hauek erabiltzen dituzte: ez dute eraiki ohi jainko-irudirik, ez tenplurik, ez aldarerik; aitzitik, nire ustez, honelakoak egiten dituztenak zorotzat jotzen dituzte, inoiz ez baitute uste izan, heleniarrek bezala, jainkoek giza izaera dutenik. Zeusi opariak mendi gailurretara igoaz egin ohi dizkiote, zeru-sabai osoari Zeus deituaz⁶⁶. Egin ere, eguzkiari, ilargiari, lurrari, suari, urari eta haizeei ere egiten dizkiete opariak. Hasieratik hauei bakarrik egiten dizkiete opariak; gerora, ordea, ikasi dute asyriarrengandik eta arabiarrengandik Uraniari⁶⁷ ere egiten. Hain zuzen, asyriarrek Aphroditari Mylita deitzen diote; aldiz, arabiarrek Alilat eta persiarrek Mitra.

132. Hona aipaturiko jainkoenganako zer opari-mota ezarria duten persiarrek: opaltzerakoan ez dute aldarerik eraikitzen, ez surik pizten; ez eta ere ez dute isurpenik, ez txilibistarik, ez txingolarik, ez garagar errerik erabiltzen. (Norbaitek) haietako bati opari egin nahi dionean, aberea leku aratz batera eraman ondoren, batez ere bere tiara mirtoz koroituz, jainkoari dei egiten dio. Oparigileak ez ditzake ondasunak bereziki beretzat bakarrik eska, persiar guztien eta erregearen alde desira baizik; bera ere persiar guztion artean baitago. Eta opalgaiaren haragia, atalka zatitu eta egosi duenean, ahal duen belarrik gozoena, gehienetan hirusta, lurrean zabalduz, honen gainean jarri ohi ditu haragi puska guztiak. Eta han-hemen jarri ondoren, mago batek, alboan zutik, beraiek teogonia dela dioten abestia intonatzen du. Izan ere, ez zaie adeitsu magorik gabe opariak

egitea. Eta alditxo baten itxaronda gero, oparigileak haragiak eramane egiten ditu eta hauetaz gogoak ematen dion eran baliatzen da.

133. Eta egun guztietan gehien ospatzen dutena beren jaioteguna da. Honetan bidezkotzat jotzen dute besteetan baino janari gehiago zerbitzatzea; egun honetan beraietako aberatsek idia, zaldia, gamelua eta astoa zerbitzatzen dituzte labeetan erreak; behartsuek, berriz, abere xeheak⁶⁸ zerbitzatzen dituzte. Janari trinko gutxi erabiltzen dute; janburukoak, ordea, asko eta ez batera. Hain zuzen, persiarrek honengatik esaten dute heleniarrei jatean gosea ahitzen zaiela: janaren ondoren ez baitaie eskaintzen deus aipatzea merezi duenik, eta zerbait eskainiko balitzaie, ez omen lirateke jaten geratuko. Ardotarako joera handia dute. Eta ez zaie zilegi besteren aurrean botaka aritzea eta pixa egitea. Hala zaintzen dituzte egintza horiek. Bestalde, arazorik garrantzitsuenak mozkorturik eztabaidatzen dituzte. Eta eztabaidan atsegin izan zaien erabakia, biharamunean, eztabaidan aritu diren etxeko jaunak ardorik gabe proposatzen die; eta ardorik gabe ere atsegin bazaie, hartaz baliatzen dira, ez bazaie, berriz, baztertu egiten dute. Hala ere, ardorik gabe erabakitzen dutena, berriz mozkorren pean eztabaidatzen dute.

134. Eta bideetan elkarrekin topatzean, hona nola antzeman daitekeen topo egin dutenak kideak diren: agurtu ordezt elkarri ezpainetan musu ematen baitiote. Baina bata bestea baino maila apalagokoa bada, masailetan ematen diote musu. Aldiz, bata askoz apalagoa bada, bestearen aurrean auspez belaunikatu ohi da. Eta beren buruaz hurrena, denetan gehien estimatzen dituztenak berengandik hurbilen bizi direnak dira, eta hurrena hurren daudenak, maila honetan aurrera jarraituz. Estimatu gutxienean dituztenak norberagandik urrutien bizi direnak dira, uste ere arlo guztietan askoz gizonik bikainenak berak direla uste baitute eta, besteek, [esandako] maila horretan

direla ongile, eta berengandik urrutien bizi direnak direla gaiztoen. Halaber, mediarrek agintzen zutenean, herriek ere bata bestearengan agindu ohi zuten; mediarrek ziren guztiongan eta batez ere berengandik hurbilen zituztenengan agintzen zutenak; aldi berean horiek mugakideengan, eta hauek jarraian zetozenengan agintzen zuten, persiarrek duten estimu-mailaren arabera; herri bakoitzak hurrenez hurrengoarenganako aginte eta eraentza baitzuen.

135. Eta gizonen artean persiarrak dira batez ere atzerrietako ohituretara jotzen dutenak. Eta, horrela, berea baino ederragoa dela sinetsiz, mediarren janzkera daramate eta guduetarako egyptoarren korazak. Eta edonolako atsegintasunen berri izan orduko, hauetan murgiltzen dira; adibidez, heleniarrei jarraituz, gaztetxoekin nahasten dira. Hauetako bakoitzak legezko emazte asko ditu, eta are ohaide gehiagoren jabe egiten da.

136. Gizontasunaren azalpena da borrokari trebea izanaz gainera seme asko azaldu ahal izatea; eta gehien azaltzen duenari erregeak urtero sariak bidaltzen dizkio; asko izatea indartsu izatea dela uste baitute. Eta semeei bost urtetatik hasi eta hogeitaz arte hiru gauza bakarrok irakasten dizkiete: zaldiz ibiltzen, uztaia erabiltzen eta egia esaten. Bestalde, bost urtera iritsi baino lehen ez da aitaren betaurrera etortzen, emakumeen ondoan bizitzen baino. Eta hori honengatik egin ohi da: haztean hil baledi, aitari atsekaberik ezar ez diezaion.

137. Onartzen dut, alafede, ohitura hori eta baita honako hau ere, hots, arrazoi bat bakarragatik erregeak berak ere inor ez hiltzea, eta beste persiarren artean ere inork arrazoi bakarragatik bere zerbitzarietako inori sendaezinezko gaitzik ez jasanaraztea. Baina, kontuak atera ondoren, egindako mesedeak baino kalteak gehiago eta handiagoak direla aurki badeza, orduan haserre erabil dezake. Diotenez, inork ez du inoiz bere aitarik edo amarik hil;

aitzitik, oraindaino horrelakorik gertatu denero, aztertzean, egintza hori bortarena edo adulteriozkoarena dela aurkitzen omen dute; itxuragabea dela esaten baitute egiazko guraso bat bere semeak hiltzea.

138. Eta egitea zilegi ez zaiena ez zaie zilegi esatea ere. Eta lotsagarrientzat jotzen dutena gezurra esatea da, hurrena zor izatea, eta hau beste arrazoi askoren artean, diotenez, ezinbestekoa delako zorduna gezurti izatea. Eta hiritarren batek legen beltzik edo zuririk izan badeza, hau ez daiteke hirian sar, ez gainerako persiarrekin nahas; eta hori eguzkiaren kontra bekatu egin duelako daukala diote. Eta askok gaitz hauek joa dagoen atzerritar oro beren lurraldetik egozten dute, eta uso txuriak ere bai arrazoi bera leporatuz. Ibaira ez dute pixarik egiten, ez txisturik botatzen, ez bertan eskurik garbitzen, ez beste inori egiten uzten; aitzitik, ibaiak bereziki gurtzen dituzte.

139. Eta guretzat ez baina persiarrentzat ezkutuan dagoen beste honako hau ere gertatzen zaie: gorputzei eta handitasunari dagozkien izenak letra beraz amaitzen dira denak: doriarrek san eta joniarrak sigma deiturikoaz. Eta, aztertzen hasten bazara, persiarren izenak letra horrekin amaitzen direla aurkituko duzu; ez, ordea, hauek bai eta besteak ez, guztiak berdin baizik.

140. Persiarrez jakinaren gainean ziurta ditzaket gauzok. Hildakoari buruzkoez, ordea, ezkutukoak eta ilunak bailiran hitz egiten da: persiarraren gorpurik ez omen da, alegia, hobiratzen hegazti edo zakurren batek arrasta ez dezakeen arte. Dena den, ziur nago magoek horrela egiten dutela; agerian egiten baitute.

Persiarrek, hain zuzen, gorpua argizaritu ondoren estaltzen dute lurrez. Bestalde, magoak asko bereizten dira gainerako gizonen eta Egyptoko apaizengandik; zeren, hauek araztasuntzat daukate animaliarik ez hiltzea, opaltzen dutenaz aparte; magoek, ordea, zakurra eta gizona izan ezik, bizidun oro beren eskuz hiltzen dute, eta hau egintza handitzat dute, era berean txingurri eta suge eta gainerako narrazti eta hegaztiak hilez. Eta ohitura honi dagokionez, bego hasieran ezarria izan zen bezala; neure aldetik lehengo gaira itzultzen naiz.

141. Joniarrek eta eoliarrek, lydiarrak persiarren pean erori bezain azkar, mandatariak bidali zituzten Sardesa Zyrorengana, Kresoren esanekoak izan ziren baldintza beretan harenak ere izateko asmoz. Hark, proposaturikoa entzun ondoren, alegia bat kontatu zien: xirulari batek itsasoan arrain batzuk ikusi eta, hauek lehorrera jalgiko zirelakoan, xirula jotzen omen zien; itxaropena galdu zuenean, ordea, sarea hartu eta arrain multzo handia harrapatu eta kanpora atera omen zituen; eta saltoka ikusiz hala esan omen zien arrainei: "Utziozue dantzatzeari, nik xirula jotakoan ez zenuten dantzara jalgi nahi eta". Zyrok joniarrei eta eoliarrei arrazoi hauengatik kontatu zien alegia hau: lehen Zyrok berak mandatarien bidez Kresorengandik apartatzeko eskatu zienean, joniarrek ez baitzuten esanik egin eta, orduan, dena amaitua zegoenean, prest baitzeuden Zyroren esanera jartzeko. Honek, suharrak hartuta hitz egin zien horrela. Eta joniarrek, hirietara itzuli zituzten esan hauek entzun zituztenean, nor bere lurraldea harresiz inguratu zuten eta miletoarrak ez beste guztiak Panjonioan⁶⁹ bildu ziren; Zyrok hauekin bakarrik sinatu baitzuen hitzarmena lydiarrarekin eginiko baldintza beretan. Gainerako joniarrek aho batez Spartara mandatariak bidaltzea erabaki zuten, joniarrei lagun ziezaien.

142. Hain zuzen, Panjonioa berea duten joniar hauek dira guk ezagutzen ditugun gizon guztien artean beren hiriak zeru eta mendirik ederrenetan eraiki dituztenak; zeren, ez lurralde honez goikorik, ez behekorik hartzen da Joniaren era berekotzat, [ez eta ekialdera eta sartaldera ere,] batzuk hotzak eta bustiak estutzen baititu, besteak berriz beroak eta lehorrak. Eta joniar hauek ez dute hizkuntza bera erabiltzen, lau era desberdinetakoa baizik. Mileto da berauen lehenengo hiria hegoaldera, hurrena Myunte eta Priene; hauek Karian kokatuak daude, modu berean mintzatzen direlarik. Lydian, aldiz, hauk daude: Epheso, Kolophon, Lebedo, Teo, Klazomenas, Phozea. Baina hiri hauek ez dute lehen esandakoen hizkuntza berean hitz egiten; beren artean, ordea, hizkera berean mintzatzen dira. Eta oraindik joniar hiru hiri geratzen dira: hauetatik bi, Samo eta Khio irletan kokatzen dira eta bat, Erythras, kontinentean eraikia dago. Khiotarrak eta erythrastarrak era berean mintzatzen dira, baina samoarrak berean bakarrik. Horra non diren lau hizkera desberdinak.

143. Beraz, joniarren artean miletoarrak beldurretik babes zeuden, hitzarmena sinatua baitzuten, eta irletakoek ez zuten inolako arriskurik, zeren oraindano ez pheniziarrak ziren persiarren menpeko eta ez persiarrak ere itsasgizon. Eta hauek ez ziren beste ezergatik gainerako joniarrengandik banandu, garaiko heleniar herri osoa ahula izanik denetan askoz ahulena eta osperik gutxienekoa joniarra zelako baizik; Athenas izan ezik, beste hiri aipagarriarik ez baitzuten. Gainerako joniarrek eta athenastarrek, bada, joniar deitzerik nahi ez izateraino ihes egiten zioten izen honi, eta oraindik ere hauetako asko izen horretaz lotsatu egiten dela uste dut. Aitzitik, hamabi hiri haiek

harro zeuden deituraz eta berentzat tenplu bat eraiki zuten, Panjonioa⁷⁰ izena ezarriz, eta hemen joniarretatik beste inor ez onartzea erabaki zuten (eta, eskatu ere, inork ez zien onartzeko eskatu, smyrnarrek izan ezik).

144. Hauen arabera, egun Pentapolis eta lehen Hexapolis⁷¹ deituriko lurralde berean bizi diren doriarrak ere zorrotz zaindu ohi dute auzoko doriarretatik inortxo ere Triopioko tenpluan onar ez dezaten; are gehiago, beretatik tenplu-legeak hautsi zituztenak ere batzarretako partaidetzatik jaurti zituzten. Izan ere, antzina Apolo Triopiarraren jokoetan brontzezko tripodeak eskaintzen zitzaizkien garaileei, eta eskuratzen zituztenek ez zitzaizkien tenplutik atera, bertan jainkoari eskaini baizik. Alabaina, Agasikles izeneko halikarnasoar batek, garaile izan ondoren, legeari erdeinu egin zion, tripodea bere etxera eraman eta han zintzilikatuz. Arrazoi honengatik bost hiriek, Lindo, Jalyso, Kamiro, Kos eta Knidok, batzarretako partaidetzatik jaurti zuten Halikarnaso, seigarren hiria. Honelako zigorra ezarri zieten, bada, haiek hauei.

145. Nire ustez, joniarrak hamabi hiri osatzen zituzten, eta hona zergatik ez zuten gehiago onartu nahi izan: Peloponeson bizi zirenean, haien artean hamabi eskualde baitzeuden; horren arabera, joniarrak kanporatu zituzten akhearren artean ere orain hamabi eskualde daude: Sizyondik abiatuz Pelene dago lehenik, gero Egira eta Egas (hemen dago etengabeko isuria duen Krathis ibaia, nondik duen Italiakoak bere izena), Bura eta Helize (hona ihes egin zuten joniarrak borrokaldi baten akhearrek menperatu zituztenean), Egio, Rhypes, Patras, Pharas eta Oleno (hemen aurkitzen da Piro ibai handia), Dyme eta tritearrak, lurralde barruan kokaturik dauden haietako bakarrak.

146. Hamabi eskualdeok orain akhearrenak eta lehen joniarrenak ziren. Hori zela eta eraiki zituzten joniarrak hamabi

hiri; zeren hauek gainerako joniarrak baino joniarrago eta jatorri garbiagokoak direla esatea zorakeria handi bat da, hauetatik ez zati txikiena Joniatik izenik ere ez duten Eubeako abanteak baitira; gainera, hauekin nahastuak daude Orkhomenoko minyarrak, kadmearrak, dryopeak, banandutako phozidetarrak, molosoak, Arkadiako pelasgiarrak, Epidauroko doriarrak eta nahastutako beste herri asko. Bestalde, hauen artean Athenasko prytaneotik⁷² irten zirenek eta joniarren artean jatorrenak direla uste dutenek, hauek ez zuten emakumerik eraman beren koloniara; aitzitik, kariarrak hartu zituzten, hauen gurasoak hil ondoren. Baina, hilketa hori zela bide, emakumeok berentzat lege bat ezarri, zinpetu eta beren alabei luzatu zieten, hots, inoiz beren gizonekin ez zutela jango, ez hauei beren izenez deituko ere, arrazoi honengatik: beren guraso, senar eta seme-alabak hil eta, hori egin ondoren berekin bizi zirelako.

147. Mileton gertatu zen hori. Bestalde, joniar horietako batzuek Glauko Hipolokhorenaren ondorengo lyziarrak hartu zituzten erregetzat, besteek Kodro Melanthorenaren ondorengo pyloar kaukonak, eta besteek bietakoak batera ere bai. Hala ere, beren izena gainerako joniarrak baino gehiago zaintzen dutenez, izan bitez jatorri garbieneko joniarrak. Izatez, sorrera Athenasen izan eta Apaturietako jaia ospatzen duten guztiak dira joniar; ospatu ere, guztiek ospatzen dute, ephesoarrek eta kolophonarrek izan ezik; bada, joniarretan horiek bakarrik ez dituzte Apaturiak ospatzen; eta horiek hilketa baten aitzakiaz, hain zuzen.

148. Panjonioa Mykaleko toki sakratu bat da, hartz-izarrerantz begira dagoena eta joniarrak amankomunean Posidon Helikondarrari sagaratua daukatena. Mykale, berriz, Samo aurrean mendebal-haizerantz luzatzen den lehorreko tontor bat da;

joniarrak, hirietatik bilduz, hemen ospatu ohi zuten beren jaia; Panjonia jarri zioten izena. Baina hori ez zaie gertatzen joniarren jaiei bakarrik, baizik eta heleniar guztien jai guztiak era berean letra beraz amaitzen dira, persiarren izenak bezalaxe.

149. Horiek dira joniarrak; eoliarrak, aldiz, hauek: Zyme, Phrikonide deritzana, Larisas, Neontikhos, Temno, Zila, Notio, Egiroesa, Pitana, Egeas, Myrina, Grynna. Hamaika hauek dira eoliarren antzinako hiriak. Hauetako bat, Smyrna, joniarrak banandu egin zuten; kontinentekoak ere hamabi baitziren. Eta eoliar hauek joniarrak baino lurralde hobean egoitzatzea gertatu zen, baina giroz ez hain egokian.

150. Smyrnari dagozkionez, eoliarrak hona nola galdu zuten. Matxinada baten garaituak izan eta beren aberritik kanporatuak izan ziren kolophondarrei ostatu eman zieten; baina, gero, Kolophongo deserriratu hauek, Dionysori harresiz kanpo jai egiten ari ziren smyrnarrak zaindu ondoren, ateak itxi eta hiri eskuratu zuten. Eoliar guztiak laguntzera etorri zitzaizkielarik, akordio batera iritsi ziren: joniarrak etxe-ondasunak itzultzen bazituzten, alegia, eoliarrak Smyrna utziko zutela. Eta smyrnarrek hori egin ondoren, hamaika hiriek beren artean banandu eta hirikide egin zituzten.

151. Horiek dira, beraz, lehorreko hiri eoliarrak, Idan direnaz at; hauek aparte baitaude. Irletakoei dagokienez, bost hiri Lesbos sailkatzen dira⁷³ (Arisba, Lesbos kokatua dagoen seigarrena, methymnarrek morrontzapetu baitzuten, odol berekoak izan arren), eta Tenedon hiri bakarra dago, eta Hekatonesoak⁷⁴ deritzatenetan beste bat. Beraz, lesboarrek eta tenedoarrek, irletan dauden joniarrak bezalaxe, ez zuten ezeren beldurrik. Gainerako hiriek ordea, bat eginik, joniarrak jarraitzea erabaki zuten hauek gida zitzaketen lekura.

152. Eta joniarren eta eoliarren mandatariak Spartara heldu ziren orduko (gertakizun horiek azkar ari baitziren burutzen), Pythermo zeritzan phozear bat hautatu zuten guztien izenean hitz egiteko. Honek purpurazko soinekoa jantzi zuen, jakitean ahalik eta spartar gehienak bil zitezen eta, zutik jarriaz, luzaro hitz egin zien laguntza eskatuz. Lazedemondarrek, ordea, entzungor egin eta joniarrei ez laguntzea erabaki zuten. Orduan hauek alde egin zuten. Baina lazedemondarrek joniarren mandatariak atzera bota bazituzten ere, pentekontero⁷⁵ batean gerrari batzuk bidali zituzten, nire ustez, Zyroren eta joniarren arteko gertakizunen zelatari. Eta Phozeara heldu zirenean, beretako ospetsuena, Lakrines zeritzana bidali zuten lazedemondarren erabakia Zyrori adieraztearren: ez zezala Heladeko lurrik hondatu, ez ziotela utziko eta.

153. Eta mezulariak hori esan ondoren, Zyrok albokoei lazedemondarrak zein heleniar mota ziren eta zenbateko herriak egiten zizkion horrelako ohartarazpenak galdetu omen zien. Eta jakin zuenean, spartar mezulariari hala esan omen zion: "Inoiz ez natzaiek beldur izan hiriaren erdian bildu eta, zin eginez, elkarren engainurako toki bat⁷⁶ seinalatua duten tankerako gizasemei. Horrelakoek, osasunik badut, ez ditiztek izango mintzagai joniarren sufrimenak, beren etxeakoak baizik". Hitz hauek sal-erosketarako plazak dituztelako jaurti zizkien Zyrok heleniar guztiei; persiarrak ez baitira plazez baliatu ohi eta ez baitute inolako plazarik. Honen ondoren, Sardesko agintea Tabalo persiarraren gain eta Kresoren eta beste lydiarren urre-jasotzea Paktyas lydiarraren esku utzi eta berak Agbatanara jo zuen, Kreso berekin eramanez eta lehenengoz joniarrak batere kontuan hartu gabe. Babylon zuen, izan ere, behaztopo,

baita Baktrako herria, sakak eta egyptoarrak ere; berak hauen kontra gerraratu nahi zuen; joniarren aurka, berriz, beste gudalburu bat bidali zuen.

154. Baina Zyro Sardestik abiatu zen orduko, Paktyasek lydiarrak altxarazi zituen Tabalo eta Zyroren aurka; eta itsasora jaitsi eta, Sardeskoen urre guztia zuenez, mertzenarioak hartu eta itsasertzeko gizonak berekin gerra egitera jarri zituen. Eta Sardesen aurka joan eta akropolian itxirik zegoen Tabalo setiatu zuen.

155. Eta Zyrok bidean gertaera hauen berri izan zuenean, hau esan zion Kresori: "Kreso, zer atarramendu izango dute gertatzen ari zaizkidan gauza hauek? Nire iritziz, lydiarrek ez diote utziko niri eta beren buruei lan emateari. Hoberena hauek esklabo egitea ez ote dudan pentsatzen nago; zeren, aita hil eta beronen umeei bizia barka liezaiekeenaren antzera jokatu dudalakoan nago. Horrela, zu, lydiarrentzat aita baino gehiago zaren hori neurekin preso zaramatzadan bitartean, lydiarren beraien esku utzi dut hiria; eta gero harritu egiten naiz matxinatu zaizkidalako!". Honek pentsatzen zuena esaten zuen; Kresok, aldiz, Sardes suntsituko zuen beldurrez, honela erantzun zion: "Maiestate, itxurazko gauzak esan dituzu, baina ez zaitez erabat haserreaz balia, ez eta ere lehengo eta oraingo eginen errurik ez duen hiri zaharra suntsi. Lehengoak nik egin bainituen, neuk daramatzat neure buruaren gain. Baina oraingo bidegabekeriak, Sardes eskura zenion Paktyasenak direnez, beronek ordain diezazkizula. Eta lydiarrei barkamena emanaz, honako agindu hau emaiezu, matxina ez daitezen eta kezkarri izan ez dakizkizun: mandatariak bidaliz debeka iezaiezu gerra-armak eskuratzea, eta emaiezu soinpean tunikak eta oinetan koturnoak jazteko agindua, eta esan irakats diezaietela beren seme-alabei zitara jotzen, abesten eta dendari izaten; eta, Maiestate, berehala ikusiko dituzu gizonetzko ordeiz emakume bihurturik, matxinatuko zaizkizun beldurraren izpirik ez izateraino".

156. Kresok burubide hauek iradoki zizkion, lydiarrentzat esklabo egin eta salduak izatea baino hautagarriago aurkituz; bai baitzekien, proposamen egokiren bat luzatzen ez bazion, ez ziola erabakirik aldaraziko; bestalde, beldur baitzen lydiarrak, nahiz eta orduko arriskuari alde egin, hurrengo batean ere persiarren aurka matxinatuz, ez ote ziren deseginak izango. Eta Zyrori atsegin izan baitzitzaion burubidea, amorrua menperatuz, komentziturik geratzen zela esan zion. Eta Mazares mediarrari deitu eta Kresok adierazitakoa lydiarrei aldarrikatzeko agindu zion eta, gainera, lydiarrekin batera Sardesen aurka joandako beste guztiak esklabo egin eta oroz gainetik Paktyas bera bizirik beregana ekar zezala.

157. Beraz, Zyrok, bidetik agindu hauek eman ondoren, persiarren sorterrira jo zuen, eta Paktyas, bere kontra zetorren gudarostea hurbil zegoela jakinik, beldurrak eraginda, Zymera abiatu zen. Eta Mazares mediarra, berekin izan bide zuen Zyroren gudarostezatiarekin Sardesen kontra joan, eta jada Paktyasen ingurukoak Sardesen ez zeudela ikusi zuenean, lehenik lydiarrei Zyroren aginduak betearazi zizkien; eta agindu honetatik lydiarrek beren bizikera osoa aldatu zuten. Eta ondoren Mazaresek mandatariak bidali zituen Zymera, Paktyas entregatzeko aginduz. Baina zymetarrek, aholku bila, arazoa brankhiden jainkoari azaltzea erabaki zuten. Antzinatik hemen baitzuen bere egoitza joniar eta eoliar guztiek kontsultatu ohi zuten orakuluak. Eta toki hau Miletoko lurraldean, Panormoko portu gainean dago.

158. Beraz, zymetarrek beren galdetzaileak brankhidengana bidaliz, Paktyasi buruz jainkoen atseginerako zer egin behar zuten galdetu zuten. "Paktyas persiarrei entregatu": izan zen galderagileentzat erantzuna. Eta zymetarrek itzuli zitzaien erantzuna entzun zuten orduko, entregatzeko prest jarri ziren. Baina, jendetza horretarako prest bazegoen ere, hiritarren artean ospetsu zen Aristodiko

Heraklidesenak eutsi egin zien zymetarrei, bera barruan zelarik beste galdetzaile batzuk berriz ere Patyasez galdetzera joan arte horrelakorik egin ez zezaten; ez baitzen erantzunaz fidatzen eta, bere iritziz, galdetzaileek ere ez baitzuten egia esaten.

159. Eta brankhidengana iritsi zirenean, Aristodikok denen partetik kontsulta egin zion igarleari honela galdetuz: "Jauna, Paktyas lydiarra heldu zaigu otoilari, persiarrengandiko heriotza gogorrari ihes eginez. Hala ere, hauek berentzat eskatzen dute, zymetarroi askatzeko aginduz. Gu, ordea, persiarren botereari beldur gatzazkion arren, ez gara ausartu oraindano otoilari entregatzera, lehenik bietako zer egin dezakegun zuk guri zehatz azaldu arte". Hori galdetu zion honek; eta besteak berriro erantzun bera azaldu zien, Paktyas persiarrei entregatzeko aginduz. Hori entzunda, Aristodikok, aurrez pentsatua zuen bezala, hauxe egin zuen: tenpluari ingurubira eginez, txolarreak eta tenpluan habiak eginak zituzten beste txori-mota guztiak uxatu zituen. Eta, bera hori egiten ari zela, tenplu barrendik Aristodikorenganako ahots bat ateratu omen zen, hau esanez: "Gizonetan sakrilegoena zaren hori, nola ausartzen zara hau egitera? Neure otoilariak aienatzen dituzu nire tenplutik?". Eta Aristodikok, larritu gabe, hala erantzun omen zien hitz hauei: "Jauna, zuk horrela babesten dituzu zeure otoilariak, eta zymetarrei beren otoilariak entregatzeko agintzen diezu?". "Bai -erantzun omen zion besteak-, adeigabeak izanik, ahalik lasterren hil eta gehiago otoilarien entregatzeaz galdetzera etor ez zaitezela agintzen dut".

160. Erantzun hori ekarri eta zymetarrek entzun zutenean, ez baitzuten hura entregatzeagatik hil nahi, ez eta berekin edukitzeagatik setiatuak izaterik ere, Mytilenera bidali zuten. Eta mytilenetarrak, Paktyas entregatzeko esanez Mazaresek mandatariak bidaltzen zizkielarik, prest jarri ziren behar hainbat diruren truk; zenbat ezin dut zehatz esan, trukaketa ez baitzen burutu. Zymetarrek, izan ere, mytilenetarrak azpilan hauetan zebiltzala jakitean, itsasuntzi bat Lesbora igorritz, Paktyas Khiora eramaten dute. Baina hemen,

Athenea Poliukhoaren⁷⁷ tenplutik erauziz, khiotarrek entregatu⁷⁸ egin zuten. Atarneoren truk entregatu ere. Eta Atarneo hau Lesbo aurrean dagoen Mysiako lurraldea da. Hala, persiarrek Paktyas eskuratu eta zaindaripean jarri zuten, Zyrori erakutsi nahiz. Baina izan zen denboraldi bat, eta ez laburra, khiotarretako inork jainko inori ez Atarneo honetako garagar-alerik botatzen, ez hango gariaz eginiko talorik erretzen ez zuena, eta lurralde honetakoak ziren emari guztiak ere tenplu guztietatik aldenduak zirena.

161. Beraz, khiotarrek entregatu zuten Paktyas eta, Mazares, honen ondoren, Tabaloren setiatzailekide izan zirenen aurka joan zen, eta batetik prienetarrak esklabo egin zituen, eta bestetik Meandroren lautada osoa korritu zuen, gudarostearen harrapakin bilakatuz, eta berdin Magnesia ere. Berehala, ordea, gaixotasunez hil zen.

162. Hau hil ondoren, Harpago etorri zen goialdetik⁷⁹ ordezeko bezala. Jatorriz mediarra zen hau ere: mediarren errege Astyagesek mahai odoltsuan jaten eman eta Zyrori erregetza eskuratzen lagundu ziona. Une horretan Zyrok gizon hori gudalburu egin eta Joniara iritsi zen orduko, hiriak lurketen bidez hartzen joan zen; bada, bertakoak harresiz barru jartzen zituenean, ondoren, lurketak harresien kontra pilatuz, setiatu egiten zituen.

163. Eta Jonian Phozeari eraso zion lehenengo. Hain zuzen ere, itsasketa luzeez baliatu ziren lehen heleniarrak phozearrak izan ziren, eta hauek dira Adrias, Tyrrenia, Iberia eta Tarteso azaldu zituztenak; ez ziren, ordea, itsasoratzen untzi borobiletan, pentekonterotan baizik. Eta, Tartesora iritsi zirenean, atsegin izan zitzaizkion tartesiarren erregeari; honek Arganthonio zuen izena, lauogei urtez agindu zuen Tarteson eta guztira ehun eta hogeiz bizi izan zen. Eta phozearrak benetan hain atsegin izan zitzaizkion gizon horri, non

lehenik Jonia utzi eta bere lurraldean nahi zuten lekuan bizitzeko esan zien, eta ondoren, phozearrak esanera jarri ez zituenean, jakin baitzuen mediarra nola gainditzen ari zitzaien ere, hiriaren inguruan harresia eraikitzeke dirua eman zien. Eta, eman ere, neurrigabe eman zien; harresiaren ingurua ez baitzen estadio gutxikoa eta guztia harritzarrez ongi doitua baitzegoen.

164. Phozearrek honela eraiki zuten, bada, beren harresia. Eta Harpagok gudarostea bertaratu ondoren, setiatu eta proposamen hau egin zien: phozearrek nahi bazuten aski zitzaiola harresiko almena bat bakarra bota eta etxe bakarra sagaratzea. Baina phozearrek morrontza jasan ezinik, erabakitzeke egun bat nahi zutela eta gero erantzungo ziotela esan zioten; erabakitzen zuten bitartean, ordea, gudarostea harresitik aldentzeko erregutu zioten. Harpagok, zer egin nahi zuten ongi zekiela baina, hala ere, erabakitzen utziko ziela erantzun zien. Horrela bada, Harpagok gudarostea harresitik aparte zeukan bitartean, phozearrek pentekonteroak itsasoratu eta bertan seme-alaba, andre, eta etxe-ondasun guztiak ez ezik, tenpluetatik brontzezko, marmolezko edo harrizko ez ziren irudiak eta gainerako gauza guztiak sartu ondoren, berak ere untziratu eta itsasoz Khiora abiatu ziren; eta persiarrek biztanlerik gabeko Phozea eskuratu zuten.

165. Bestalde, phozearrek Enusak izeneko irlak⁸⁰ erosi nahi zituztelarik, khiotarrek, hala ere, hauek merkatu izatera heldu eta honengatik beren irla irtenbiderik gabe gera zitekeen beldurrez, ez baitzizkien saldu nahi, phozearrek horren aurrean Zyrnora jo zuten; izan ere, Zyrnon gertaera hauek baino hogeitaz urte lehenago, igarpen bat zela medio, Alalia zeritzan hiria eraiki zuten. Arganthonio, hain zuzen, ordurako hila zen. Baina, Zyrnora bidean jarri aurretik Phozean lehorreratu eta Harpagorengandik

hiria zaintzeko agindua hartua zuen persiarren zaingoa sarraskitu zuten eta, gero, hori egin ondoren, untziteria utzi bide zuen beretako edozeini madarikazio gogorrek jaurti zizkioten; eta madarikazio hauez gainera burdin salda gorria itsas azpira bota eta masa hura ur gainean azaldu arte ez zirela Phozeara itzuliko zin egin zuten. Baina Zyrnora abiaturik, hiritarren erdia baino gehiago hiriaren eta sorterriko bizilekuenganako mineriak eta aieneak jo zuen eta, zina hautsiaz, berriz ere Phozeara itzuli ziren untziz.

166. Zyrnora⁸¹ heldu zirenean, aurretik iritsitakoekin batera bizi izan ziren bost urtez eta santutegiak eraiki ere bai. Baina, auzotar oro harrapatu eta eraman egiten zutelako, tyrreniarrek eta karkhedondarrak⁸², elkar harturik, haien aurka joan ziren, bakoitza hirurogei itsasuntzirekin. Phozearek ere, beren aldetik, beren hirurogei untziak hornitu eta Sardoarra deritzan itsasoan irten zitzaizkien bidera. Eta itsas borrokan nahastean, kadmear garaitzapena⁸³ lortu zuten phozearek; zeren, batetik berrogei untzi hondatu zitzaizkien eta, bestetik, gainerako hogeia ez ziren erabilgarri, brankak okerturik zituztelako. Eta Alalian lehorreratuz, seme-alaba, andre, eta untziek garraia zitzaketan beste ondasun guztiak untziratu zituzten, eta gero, Zyrno utziaz, Rhegiora nabigatu zuten.

167. Eta hondatuak izan ziren untzietako gizonak karkhedondarrek⁸⁴ eta tyrreniarrek zozketatu zituzten; eta tyrreniarretatik agylarrei suertatu zitzaizkien haietako askoz gehienak eta, hiriz kanpora eramanez, harrika hil zituzten. Eta geroztik Agylan, harrika hildako phozearrak zeuden lekuan igarotzen zirenak, berdin abeltaldeak, uztarpekoak edo gizakiak, guztiak oker, eri eta elbarri geratzen ziren.

Eta agylarrek, beren hutsegitea konpondu nahiz, mandatariak bidali zituzten Delphosa. Pythiak, orduan, egun oraindik ere agylarrek burutu ohi dituzten ospakizunak egiteko agindu zien; izan ere, opari handiak eskaintzen dizkiete eta horrez gain gymnasia- eta zaldi-lehiaketak antolatzen dituzte. Horrelakoxe zortea jasan zuten phozear horiek. Aitzitik, hauetako besteak, Rhegion babestu ondoren, hemendik abiatuz, Enotria⁸⁵ lurrean egun Hyele⁸⁶ deritzan hiri horretaz jabetu ziren. Eta hiri hori, posidoniar gizon baten bidez Pythiak irla kolonizatu ez baina heroia zen Zyrenoren tenplua jasotzeko esan ziela jakitean eraiki zuten. Hori gertatu zen, bada, Jonian dagoen Phozeari buruz.

168. Eta horien antzeko zerbait egin zuten teotarrek ere; zeren, Harpagok lurketaz hauen gotorlekua hartu zuenean, guztiek, itsasuntzietan sartu ondoren, Thraziara jo zuten, eta hemen Abdera hiria eraiki zuten. Hau klazomenastar Timesiok haiek baino lehenago eraiki zuelarik, ez zitzaion baliatu; baina, thraziarrek egotzia izan zen arren, Abderako teotarrek heroitzat ohoratzen dute.

169. Hauek izan ziren, bada, joniarretan bakarrak, morrontza jasan ezinez, beren aberriak utzi zituztenak. Eta beste joniarrak, miletoarrak izan ezik, erbesteratu zirenek bezalaxe borrokan ekin zioten Harpagori eta adoretzu izan ziren nor bere aberriaren alde borrokatzen. Hala ere, garaituak eta menperatuak izanik, nor bere lurraldean geratu ziren eta agindutakoa egin zuten. Miletoarrak, ordea, aurrerago ere aipatu dudanez, Zyro berarekin hitzarmena sinatuta gero, bakean bizi izan ziren. Jonia horrela izan zen, bada, morroindua bigarrenez. Eta Harpagok kontinenteko joniarrak bere esku jarri bezain laster, irletan zeuden joniarrak, izuturik, beren burua entregatu zioten Zyrori.

170. Eta joniarrak egoera txarrean egon arren, hala ere Panjonioan bildurik zeudela, Prieneko Biasek, aditzera dudanez,

esana egin baliote heleniarretan zoriontsuen egingo zituen burubide guztiz baliagarria aurkeztu zien joniarreri: honek, elkarren untziterian sartuz, joniarrak Sardo⁸⁷ aldera itsasoratu eta gero joniarrak guztien artean hiri bakarra eraikitza aholkatu zituen; honela, morrontzari alde eginez, zoriontsu izango zirela, irla guztietan handiena elkarren artean banatuz eta besteengan aginduz; Jonian geratzen baziren, ordea, ez zuela ikusten, esan zien, jada askatasuna izango zutenik. Hori izan zen Prieneko Biasek deseginak zeuden joniarreri azalduriko burubidea. Baita ere baliagarria izan zen Jonia desegina izan baino lehen Thales Miletoarrak azaldurikoa, jatorriz pheniziarra bazen ere: joniarrak kontseilu bakarra eraikitza aholkatu zituen, eta bera Teon (Teo Joniaren erdian baitago); eta gainerako irla biztanledunak demotzat hartuko zituzten. Honelakoak izan ziren, bada, haiek azaldu zizkieten burubideak.

171. Eta Harpagok, Jonia menperatu ondoren, gudaldi bat egin zuen kariar, kaunoar eta lyziarren aurka, joniarrak eta eoliarrak ere berekin batera eramanez. Hauetatik kariarrak irletatik kontinentera etorri ziren; bada, antzina Minosen esaneko izanik eta lelegeak zeritzatela, irlak okupatzen zituzten, eta, aditzez luza nintekeen hainbat denboralditan bederen, ez zuten batere zergarik ordaintzen, eta Minosek eskatzen zien bakoitzean, itsasuntziak hornitzen zizkieten. Eta Minosek lur asko menperatu eta gerran zorte ona baitzuen, kariarra garai honetan herri guztietan askoz aipatuena zen. Eta heleniarrek erabili zituzten hiru aurkikuntza egin zituzten: izan ere, kariarrak izan ziren kasko gainetan mototsak lotzen eta ezkutuetan ezaugarriak ipintzen erakutsi zutenak, are, haiek izan ziren lehenak ezkutuei besalekuak ezartzen;

ordurarte ezkutuak erabiltzen zituzten guztiek besalekurik gabeko ezkutuak eramanez ohi baitzituzten, lepoen eta ezkerreko sorbalden inguruan jarririko larruzko uhalez gidatzen zituztelarik. Guztiz gerora, ordea, doriarren eta joniarren egotzi zituzten irletatik, eta honela iritsi ziren kontinentera. Eta kariarren buruz horrela gertatu zela diote kretarren; kariarrak, ordea, ez datoz bat haiekin; aitzitik, betidanik oraingo izen bera erabiltzen dutenez, berak kontinentera bertakoak direlakoan daude. Eta, lekuko bezala, Mylasako Zeus Kariarren antzinako tenplua erakusten dute, zeinetan kariarren ahaide izateagatik miletoarren eta lydiarren esku hartzen duten; izan ere, Lydo eta Myso, Karren senide zirela esaten dute. Eta egiaz horiek hartzen dute esku; ez, ordea, kariarren hizkuntza bereko izan arren erbestekoak direnak.

172. Eta, nire iritziz, kaunoarrak autoktonoak dira, beraiek Kretakoak direla badiote ere. Bestalde, hizkuntzan haiek kariar herrirantz jotzen dute, edota kariarrak dira kaunoarrentzat jotzen dutenak (ezin baitut zehatz bereizi); ohiturak, ordea, gainerako jendeetatik eta kariarretatik arras desberdinak dituzte. Zeren haien artean guztiz egokia da adinaren eta adiskidetasunaren arabera, gizon, emakume eta ume, taldeka elkarrekin edatera biltzea. Eta behinola atzerriko jainkoen santutegiak eraiki zituztelarik, gero, iritziz aldatu eta arbasoen jainkoez bakarrik baliatzea erabaki zutenean, adineko kaunoar guztiek armak hartu eta, lantzez airea astinduz eta atzerriko jainkoak kanporatzen ari zirela esanez, kalyndar mugetaraino jarraitu zuten.

173. Horrelako jokaerak dituzte horiek. Lyziarren, ordea, Kretan dute jatorria (antzinatik Kreta osoa barbaroek okupatzen baitzuten). Eta Europaren seme Sarpedon eta Minos Kretako erregetzaren inguruan lehiatu ondoren, gatazkan Minos nagusitu baitzen, Sarpedon bera eta bere jarraitzaileak kanpora bota zituen.

Kanporatuak, orduan, Asiatik Milyadeko lurrera etorri ziren; izan ere, egun lyziarrak bizi diren lur hori antzina Milyade zen, orduan milyei solymoak deitzen bazitzaien ere. Eta Sarpedon haien buru izan zen bitartean, beraiek ekarritako izenaz eta oraindik ere auzokoek lyziarrei deitzen dietenaz zeritzeten: termilak. Baina Lyko Pandionena, hau ere bere anaia Egeok kanporaturik, Athenastik termilengana Sarpedonen ondora etorri zenean, orduan Lyko deituraren arabera denborarekin lykiarrak (lyziarrak) deitu zitzaien. Eta batetik kretar ohiturak eta bestetik kariarrak erabiltzen dituzte. Hala ere, badute bat berezia, beste gizakiei inola ez dagokiena: amagandik hartzen dute deitura, eta ez aitagandik. Eta batek bere hurkoari nor den galde baliezaio, honek bere buruari amagandiko izenez deituko dio eta amagandiko jatorria kontatuko du. Eta emakume hiritarra esklaboarekin ezkon badadi, seme-alabak legezkotzat jotzen dituzte; aldiz, gizakume hiritarrak, hauetan lehena bada ere, emakumea arrotz edo ohaide izan badeza, seme-alabak eskubiderik gabe gertatzen dira.

174. Beraz, kariarrak Harpagoren morrontzapean erori ziren, egintza nabarmenik azaldu gabe; ez kariar hauek azaldu zuten eta ez lurralde honetan bizi den heleniarretako inork. Eta, besteren artean, lazedemondarren kolono diren knidiarrak bizi dira. Hauen lurraldea, Triopio deritzana, Bybasoko khersonesotik⁸⁸ hasi eta itsasoan barruratzen da, eta Knidia osoa, zati txiki bat izan ezik, urez inguratua dago (ipar-haizerantz Zeramiko golkoak eta hegoaldera Syme eta Rhodo aurrean dagoen itsasoak mugatzen baitu); beraz, zati txiki horretan, dena ere bost stadiokoa den horretan, Harpago joniarrak menperatzen ari zen bitartean knidiarrak lurra ebakitzen hasi ziren, lurraldea irla bihurtu nahiz. Guztia barru geratzen zitzaien; ebakitzen ari ziren istmoan

amaitzen baita knidiar lurraldea kontinenterantz. Eta knidiarrek eskulari askorekin lan egiten zutelarik, harria jotzean langileei gorputzaren beste atalez gainera bereziki begiak ohi baino maizago eta jainkozkoago zauritzen zitzaizkielakoan, mandatariak bidali zituzten Delphosa eragozleaz galdetuz. Eta knidiarrak mintzatu orduko, Pythiak hau erantzun zien trimetrotan⁸⁹:

"Ez dezazuela gotor, ez eta ebaki ere istmoa;
Zeusek irla egingo zuen, hori izan balu asmoa".

Pythyak hau erantzun ondoren knidiarrek bertan behera utzi zuten ebaketa, eta Harpago bere gudarostearekin heldu zenean borrokarik gabe entregatu zitzaizkion.

175. Bestalde, Halikarnasoz goitik barrualdean pedasarrak bizi ziren. Hauei edota beren auzokoei gauza desegokiren bat gertatu behar zaienean, Athenearen apaiz andereak bizar luzea edukitzen du. Horrelakorik hirutan gertatu zaie, gertatu ere. Kariaren inguruko gizonetatik hauek bakarrik aurre egin zioten aldi batez Harpagori eta arazo asko sortu ere bai, Lide izeneko mendia harresituz.

176. Alabaina, denborarekin pedasarrak egotziak izan ziren. Lyziarrek, aldiz, Harpagok gudarostea Xanthoko lautadara jaurti zuenean gainera jauziz eta gutxik askoren aurka borroka eginez, egitandiak azaldu zituzten; baina azkenean menperatuak eta gotorlekura zokoratuak izan zirelarik, akropolian andreak, seme-alabak, ondasunak eta zerbitzariak bilduta gero, su eman zioten akropoliari, osorik erre zedin; eta, hau burutu eta elkarrekin zin ikaragarriak egin ondoren, eraso eta xanthoar guztiak borrokan hil ziren. Beraz, egun xanthoar direla dioten lyziar gehienak, laurogei sendi izan ezik, etorkinak dira. Eta laurogei sendi horiek erbestean gertatu ziren eta horrela salbatu ziren. Era horretan jabetu zen Harpago Xanthoz.

Berdintsu jabetu zen Kaunoz ere; kaunoarrak gauza gehienetan lyziarren imitatzaile izan baitziren.

177. Beraz, Asia beheko⁹⁰ lurraldeak Harpagok suntsitzen zituen; goikoak, berriz, Zyrok berak, herri guztiak, bakar bat ere utzi gabe, menperatuz. Hauetako gehienak alde batera utzi, eta hari neke gehiena eman ziotenak eta gogoangarrien direnak aipatuko ditut.

178. Zyrok kontinenteko herri guztiak menpeko egin ondoren, asyriarrei eraso zien. Eta Syrian beste hiri handiak ere badiren arren, izendatuena eta indartsuena eta Nino suntsituz geroztik erregeen egoitza bilakatu zena, Babylon zen, izatez honelakoa delarik. Lautada handi baten datza; karratua denez, alde bakoitzak luzeran ehun eta hogeit hamar estadio du; hiriaren perimetrea, denera jota, laurehun eta lauogeit hamar estadiokoa da. Horrenbestekoa da Babylongo hiriaren handitasuna; eratzez, berriz, ezagutzen ditugun hirietatik beste inor ez bezala zegoen eratua. Lehenik, urez beteriko lubaki sakon eta zabalak inguratzen du eta, gero, berrogeit hamar errege-beso zabal eta berrehun beso gora duen harresiak. Hain zuzen, errege-besoa, ohiko besoa baino hiru hatz⁹¹ luzeagoa da.

179. Horrez gainera esan behar dut lubakiko lurra zertarako erabili zen eta harresia zer eratan egin zen. Lubakia zulatzen zuten aldi berean, zulotik ateratzen zuten lurra adreilu bihurtzen zuten eta, nahiko adreilu moldatu ondoren, labeetan erre egin zituzten; eta gero morterotzat asphalto beroa erabiliz eta, hogeit hamar adreilu-ilara bakoitzeko kanaberazko lastairak tartekatuz, lehenik lubakiaren ertzak jaso zituzten eta hurrena berdin harresia bera ere.

Eta goian, harresiaren azken muturrean, elkarrengana begira, solairu bakarreko etxeak eraiki zituzten; eta etxe artean kuadriga batentzako igaro-lekua utzi zuten. Eta harresiaren biran ehun ate altxatzen dira: denak, atalburu eta zangoak bezala, brontzezkoak. Bada, ordea, Babylondik zortzi eguneko bidean dagoen beste hiri bat. Is du izena. Bada han handia ez den ibai bat. Ibai honek ere Is du izena, eta bere urak Euphrates ibaira isurtzen ditu. Beraz, Is ibai horrek urarekin batera asfaltozko bikor asko sortzen baitu, hemendik garraiatu zen Babylongo harresirako asfaltoa.

180. Era horretan harresitua zegoen, bada, Babylon. Hirian, ordea, alde bi daude, ibai batek erdibitzen baitu. Honek Euphrates du izena eta armeniar mendietatik abiatzen da, handia, sakona eta lasterra delarik; atera, berriz, Erythre itsasoan ateratzen da. Ondorioz, alde banatako harresiek ibairaino luzatzen dituzte beren besoak eta hemendik, okertuz, ibaiertz bakoitzean barrena adreilu erreten hesia hedatzen da. Eta hiria bera, hiru eta lau sabaiko etxez betea dagoelarik, nola ibaiaren eran hala zehar, bide zuzenez gurutzatua dago. Beraz, bide bakoitzaren buruan, ibaiaren alboko hesian, kale hainbat atetxo zeuden kopuruz; horiek ere brontzezkoak ziren eta ibaira bertara eramaten zuten.

181. Harresi hau benetan koraza bat da; hala ere, barrualdean badu beste bat haren inguruan korritzen duena, ez lehenengoa baino askoz ahulagoa, meharragoa bada ere. Eta hiri alde biotako

bakoitzaren erdian gotorleku bana zegoen eraikia: batean harresi handi eta sendoz inguratutako erregearen egoitzak zeuden; bestean, berriz, brontzezko ateak zituen Zeus Beloren santutegia zegoen, oraindik ere nire garaian badena, alde bakoitzeko stadio bi dituen, karratua. Santutegiaren erdian estadio bana luze-zabaleko dorre trinko bat dago eraikia; eta dorre honen gainean beste dorre bat jaikitzen da, eta horren gainean beste bat, zortzi dorreetaraino⁹². Eta hauetarako igoera, kanpotik dorre guztiak jirabiran itzulikatuz egiten da; eta igoeraren erdialdean geltokia eta atsedenerako jarlekuak daude; hauetan eseriz deskantsatzen dira gora doazenak. Azken dorrean kapera handi bat dago, eta kaperan ongi jantzitako ohe bat eta alboan urrezko mahai bat. Hala ere, bertan irudi bakar bat ere ez dago eraikirik; ezein gizakumek ez dezake gaurik pasa, herri bereko emakume bakarrak izan ezik: jainkoak andre guztien artean aukera dezakeenak, hain zuzen, jainko horren apaiz diren khaldearrek diotenez.

182. Eta berauen hitzetan, niretzat sinestezinezko hitzak badira ere, jainkoa bera etortzen da maiz kaperara eta ohean pausatzen da; berdin gertatzen da, egiptoarrek diotenez, Egiptoko Thebasen (hemen ere emakume bat etzaten baita Thebasko Zeusenean⁹³ eta, esaten dutenez, batak hala besteak ez dute ezein gizonezkorekin harremanik); berdin ohi du Lyziako Patarasen jainkoaren igarle andereak ere, jainkoa badagokeenean; hemen ez baitago beti orakulurik; badagoenean, ordea, gauetan kapera barruan harekin giltzatzen da.

183. Baina, bada Babylongo santutegiaren pean beste tenplu bat; bertan Zeus eseriaren urrezko irudi bat dago⁹⁴, eta alboan urrezko mahai handia datza eta honen azpikoa eta tronoa ere urrezkoak dira; eta, khaldearrek diotenez, gauza horiek urrezko zortziehun

talenturekin⁹⁵ eginak daude. Eta tenplu atarian urrezko aldarea dago. Baina bada oraindik beste aldare bat ere, handia, abere hazien opalategi dena; urrezko aldarean ez baitago opaltzerik errapekoa izan ezik. Eta aldare nagusiaren gainean urtero khaldearrek, jainko horren jaia ospatzean, mila talentuko intsentsua erretzen dute. Eta esparru saindu horretan bazen oraindik garai hartan hamabi beso zen urre beteko giza irudi bat. Neronek ez dut ikusi, baina khaldearrek diotena esaten dut. Dario Hystaspesenak irudi hori azpika eskuratu nahi izan zuen arren, ez zen ausartu; Xerxes Dariorenak, ordea, hartu eta irudia mugitzea galarazten zion apaiza hil zuen. Beraz, honela hornitua dago tenplu hau, eta bertan badira norberazkoak diren makina bat eskaintza ere.

184. Babylon horretan errege asko izan bide ziren; asyriar kontakizunetan egingo dut hauen aipamena; harresiak eta tenpluak hornitu zituzten. Hauen artean emakume bi daude. Biotan aurrena agindu zuenak, hurrengoa baino bost belaunaldi lehenago sortu zelarik, Semiramis zuen izena. Honek lautadan barrena dike ikusgarriak eginarazi zituen; lehen, izan ere, ibaia lautada osoan barrena gainezkatu ohi zen.

185. Aldiz, horren hurrena erregina izan zenak, Nitokris zeritzanak, aurretik agindu zuena baino burutsuagoa zenez, batetik, xehetasunez azalduko ditudan oroigarriak utzi zituen; bestetik, mediarren agintea handi eta aseezina zela eta beste hirien artean Nino ere eskuratu zutela ikusirik, har zitzakeen neurri handienak hartu zituen. Lehendabizi, hiriaren erditik korritzen duen Euphrates ibaia, lehen zuzena zelarik, goialdean kanalak irekiz hain bihurria egin zuen, non haren korrontea Asyrian dauden herri xkatakoko batetik

hiru aldiz igarotzen den. Euphratesek zeharkatzen duen herrixka honek Arderika du izena. Eta orain, hemengo itsaso honetatik Babylonera igarotzen direnak, Euphrates ibaietz behera doazenean, hiru bider eta hiru egunetan herrixka berorretara alboratzen dira. Horrelakoxea zen, bada, egin zuen obra hori; eta, ibaiaren alde bakoitzean, duen lodiera eta altuera osoagatik harrigarria den dikea eraiki zuen. Eta Babylondik askoz gorago, ibaiaren joanera hurbilean, aintzira batentzat hondoa zulatu zuen, sakonean uraren mailaraino zulatu ere, zabalean laurehun eta hogeit hamar estadioko perimetroa emanaz; hondeatze horretatik ateratako lurra ibaiertzak lubetatzeko erabili zuen. Eta hondeatu ondoren, harriak eramanez, aintziraren inguruan, borobilean, malekoi bat luzarazi zuen. Bi lan hauek, ibaiaren bihurtzea eta lurzuloa dena aintzira bilakatzea, ibai-korrontea bihurtzetan hautsirik motelagoa izateaz gainera, Babylonerako unti-bidea bihurtia izan zedin eta untialdiaren ondoren aintziraren inguruko bide luzea gainera zedin eginarazi zituen. Egin ere, lurralderako sarbideak ez ezik, Mediatik biderik motzena zegoen leku horretan eginarazi zituen, mediarak haiekin nahasi eta beraien arazoan berri jakin ez zezaten.

186. Beraz, hondotik babes-lanak eraiki eta, horietatik abiatuz, hona nolako eransketa egin zien. Hiriaren alde bitan banatua zegoenez eta erdian ibaia zuelarik, aurreko erregealdietan alde batetik bestera igaro nahi zuenak txalupaz igaro behar zuen, eta hau, nire iritziz, gogaikarria zen. Hark hau ere kontuan izan zuen; bada, aintzirarentzat hondoa zulatu ondoren,

lan horretatik buruturiko beste honako oroigarri hau utzi zuen. Harri arras luzeak ebakiarazi zituen eta, harriok prest zirenean eta lurra zulatua izan zuenean, ibaiaren korronte guztia zulaturiko lurrera desbiderarazi zuen; hau betetzen ari zen bitartean, lehengo korrontea agor baitzegoen, batetik, hiri-atakatatik ibairako jaitsierak eta hiriaren eran zihoan ibaiaren ertzak harresiari zegokion hein bereko adreilu erreez sendotu zituen eta, bestetik, ateratako harriz, hiriaren erdialdean zubi bat eraiki zuen, harriak burdinarekin eta plomoarekin lotuz. Eta, eguna heltzen zenean, zubi honen gainean ohol karratuak hedarazten zituen, eta babylondarrak horien gainetik pasatzen ziren; gauez, ordea, kendu egiten zituzten arrazoi honengatik: [gauetan] hara-hona ibiliz elkarri lapurretarik egin ez ziezaioten. Eta zulatutako lurra ibai-urez betetako aintzira bilakatu eta zubi ingurua hornitua geratu zenean, Euphrates ibaia aintziratik lehengo ubidera itzularazi zuen. Eta, horrela, aintzira bihurtutako lur-zuloa beharrezkotzat jo zen eta hiritarrek zubia prest izan zuten.

187. Eta erregina honek berak honelako ziri bat asmatu zuen. Jenderik gehiena igarotzen zen hiriko atearen gainean beretzat ehorzlekua prestatu zuen ate bereko atalburutik zintzilik, eta ehorzlekuan hitz hauek zizelarazi zituen: "Nire ondoren datorren Babylongo erregeren batek diru-beharrik izan baleza, ehorzlekua irekiz, nahi hainbat har beza; baina ez dezala ireki beharrean egon ezik, ez baitu hobe izango". Ehorzleku hau

mugitu gabe egon zen erresuma Dariorengana iritsi arte. Dariori, ordea, zentzugabea ere iruditzen zitzaion ate horretaz deus ez baliatzea eta, dirua egon eta idazkiak hartzera dei egin arren, zegoena ez hartzea. Eta, hain zuzen, arrazoi honengatik ez zen deus baliatzen ate honetaz: igarotzean gorpua buru gainean gertatzen baitzitzaion. Hala ere, ehorzlekua ireki zuen eta dirua ez baina gorpua eta hitz hauek aurkitu zituen idatziak: "Diruz aseezin eta lotsagabe ez bazina, ez zenituzke gorpuen jarlekuak irekiko". Horrelakoa zela diote, bada, erregina hori.

188. Eta Zyro andre horren semearen kontra irten zen; honek Labyneto, bere aitaren izena izateaz gainera, asyriarrenganako agintea zuen. Eta Errege Handia janariz eta etxeko aberez ongi hornitua doa gerrara eta, honekin batera, baita Susatik igarotzen den Khoaspes ibaiko ura ere eramaten du, erregeak hemendik bakarrik edaten baitu eta ez beste inongo ibaitik. Eta, Khoaspesko ur hori, irakina, zilarrezko ontzietan garraiatuz, lau gurpileko mando-gurdi ugarik segitzen dio doakeen leku bakoitzera.

189. Baina Zyro Babylonerako bidean Gyndes ibairaino iritsi zenean -eta ibai horrek matienoen mendietan ditu iturburuak, dardaniarren artean igarotzen da eta Opis hirian barrena Erythre itsasoan sartzen den Tigris izeneko beste ibaiari ematen dizkio urak-, Zyro, bada, untziz igarogarri den Gyndes ibai hori zeharkatzen hasi zenean, une berean zaldi sakratu

bat, zurietakoa, asalduraz ibaian sartu eta zeharkatzeari ekin zion eta, zurrunbiloak irentsi eta urpera joanez desagertu egin zen. Agitz haserretu zen Zyro irain hori egin zion ibaiarekin, eta ondorenean emakumeek berek ere belaunik busti gabe erraz zeharka zezaketen neurriraino ahulduko zuela mehatxatu zuen. Eta mehatxuaren ondoren, Babylonon kontrako irtenaldia bertan behera utziz, sail bitan banatu zuen gudarostea eta, banatu zuenean, Gyndesen ertz bakoitzean, alde guztietara zuzenki bideratuz, ehun eta laurogei kanal-marra luzatu zituen eta, gudarosteari, lerroka jarri ondoren, zulatzeko agindu zion. Eta talde handiak lan egiten zuenez gero, amaitu egin zen lana, uda osoa bertan era honetako lanean igaro bazuten ere.

190. Eta, hirurehun eta hirurogei kanaletan bananduz, Zyro Gyndes ibaiaz mendekatu zenean eta hurrengo udaberria piztear zegoela, orduantxe jo zuen Babylonera. Bere aldetik babylondarrak, bidera irtenez, zain jarri zitzaizkion; eta, aurreratuz hirira inguratu zenean, babylondarrak gaineratu zitzaizkion, baina borrokan garaituak izanik, hiri barruan itxi ziren. Izan ere, jada lehendik bai baitzekiten Zyro ez zela geldi egongo, aitzitik, herri orori berdin erasotzen ziola ikusiz, urte askotarako janaria barruratua zuten. Era honetan hauek ez zuten setioaz inolako buruhausterik; Zyro, aldiz, noraezak estutzen zuen, denbora asko aurrera joanik bere eginkizunak ez baitziren aurreratzen.

191. Beraz, edo noraezean zegoela zer egin behar zuen beste batek belarriratu ziolako, edota bera ohartu zelako, hona zer egin zuen: gudarostearen gehiengoa ibaia hiriratzen den sarreran eta gainerakoak ibaia hiritik kanporatzen den lekuan eratuz, gudariei ubidea igarogarri bilakatu zela ikusi orduko

bertatik hirian sartzeko agindu zien. Honela eratu eta agindu ondoren, berak atzera egin zuen gudarosteko talde baliogabearekin. Eta aintziraratuz, babylondarren erreginak ibaiarekin eta aintzirarekin egin zituen gisa bereko gauzak egin zituen: ibaia zingira baizik ez zen aintzirara kanalaren bidez eraman ondoren ibaia jaitsi egin baitzen, lehengo ubidea igarogarri izatea lortu zuen. Eta horrelako hori gertatu zenean, prezeski horretarako eratuak zeuden persiarrak, gizonari izter erdialderaino jaitsi bide zitzaion Euphrates ibaiaren ubidean barrena sartu ziren Babylonen. Alabaina, babylondarrek Zyro egiten ari zenaren berri aurretik izan edo jakin balute, bere aldetik persiarrei hirian sartzen utziz, erarik txarrenez suntsituko zituzten; zeren, ibairako ataka guztiak itxiz, ibaiertzen alboan barrena eraikitako harresietara igo balira, butroian bezala harrapatuko zituzten. Baina, alderantziz, persiarrak ustekabean gaineratu zitzaizkien. Hiriaren handia zela medio, bertako biztanleek diotenez, hiri-bazterrak hartuak zeuden arren, erdialdean bizi ziren babylondarrek ez zekiten hartuak zeudenik; aitzitik, (halabeharrez jai baitzuten) denbora guztian olgeta eta dantzan zebiltzan, hartaz ongi jabetu ziren arte⁹⁶. Honela hartua izan zen, bada, Babylon lehen aldiz.

192. Eta babylondarren aberastasuna zenbatekoa den, beste argibide askoren artean honako honen bidez ere adieraziko dut. Errege Handiak bere agintepeko lur osoa, zergaz gainera bere eta bere gudarostearen mantenurako, lurraldetan banatua dauka. Beraz, urteak dituen hamabi hilabeteetatik

lautan Babyloniako lurraldeak mantentzen du, eta zortzi hilabetetan gainerako Asia osoak. Horrela, Asyriako lurraldeak aberastasunaren aldetik Asia osoaren herena suposatzen du. Eta persiarrek satrapia deritzaten lurralde horretako agintea, aginte guztietan boteretsuena da askoz, sail hau erregearengandik eskuratu zuen Tritantekhmes Artabazorenari egun bakoitzeko artaba bete zilar ematen baitzion (eta artabak, persiar neurria delarik, atikar medimnoak⁹⁷ baino hiru khenize⁹⁸ gehiago hartzen ditu); bestalde, gerrarakoez aparte, bere jabetzako zaldiak ere bazituen: zortziehun ziren behorak estaltzen zituztenak, estaliak berriz hamasei mila; zaldi hauetako bakoitzak hogeit hamar estaltzen baitzituen. Indizakurretatik, berriz hainbesteko kopurua hazten zuen, non lautadako lau herri handi, beste zergarik gabe, zakurroi janaria emateko izendatuak zeuden. Honelako aberastasunak zegozkion Babylongo agintariari.

193. Bestalde, asyriarren lurra euri gutxikoa da, eta gutxi horixe da gari-zuztarra elikatzen duena; hazi, ordea, ibaitik ureztatuz hazten da laborea eta heltzen gari-alea, ez Egypton bezala ibaia bera soroetara gaineratuz, eskuz eta urgailuz ureztatuz baizik. Izan ere, Babyloniako lurralde osoa, Egyptokoa bezalaxe, kanalez ebakia dago; eta kanalik handiena untziz igarogarri da, neguko eguzkialdera zuzendua dago, eta, Euphratestik, alboan Nino hiria eraikia zuen Tigris izeneko beste ibairaino luzatzen da. Eta haxe da

guk ezagutzen ditugun lurralde guztietatik Demeterren fruitua ematen askoz hoberena. Gainerako zuhaitzik, pikondorik, mahatsondorik edo olibondorik landatzen saiatu ere ez baitira egiten. Hain da ona, ordea, Demeterren fruitua ematen, non gutxienez bateko ehun ematen duen eta, bere ekoitzaldirik hoberenean, hirurehunera iristen den. Eta han gari- eta garagar-orriak aise egiten dira lau hatz zabal. Artatxikiari eta sesamoari buruz ez dut gogoratuko, badakidan arren, zenbaiterano bilakatzen diren zuhaitz handi, ziur bainago Babyloniako lurraldera joan ez direnei laboreari buruz esandakoak ere guztiz sinesgaitz izango zaizkiela. Ez dute oliorik erabiltzen, sesamo-aleetatik eginiko koipea baino Eta lautada osoan palmondoak dituzte landatuak; hauetako gehienak fruitu-emaile dira, eta fruituotatik sortzen dute janaria, ardoa eta ezia. Palmondo horiek pikondoen erara zaintzen dituzte eta, bereziki, heleniarrek arrak deritzetenei dagokienez, hauen fruitua datil-emaile diren palmondo emeen inguruan lotzen dituzte, eulitxoak barruan sartuz datila umo dezan eta palmondoaren fruitua eror ez dadin; egiazki, basapikondoek bezalaxe, palmondo arrek ere beren fruituan zomorroak baitaramatzate.

194. Hala ere, ezagutaraztera noa niretzat, hiriaren beraren ondoren, han dagoen gauzarik harrigarriena. Ibai behera Babylonera joateko dituzten garraiuntziak, hain zuzen: borobilak eta dena larruzkoak baitira. Izan ere, asyriarrez goitik bizi diren armeniarren artean zumea ebakiz untzi-saihetsak egin bide dituztenean, kanpotik inguru guztian zoru gisa larruak hedatzen dizkiete estalgarri, ez txoparik nabarmenduz, ez

brankarik mehartuz; aitzitik, ezkutu gisa borobila eginez eta garraiuntzi dena lastoz bete eta salkariz aserik, ibai behera urak eramane dezan uzten dute. Eta, batez ere, palmondozko upelak jaisten dituzte, ardoz beterik. Txalupa, zutik doazen bi gizonek arraun motz banaz zuzentzen dute: bata barrena eragiten dio arraunari eta besteak kanpora bultz egiten dio. Eta garraiuntziok agitz handiak eta txikiagoak egiten dira; hauetako handienek bost mila talentuko⁹⁹ zama ere jaso ohi dute. Eta garraiuntzi bakoitzaren barruan asto bat doa bizirik, eta handitxoetan gehiago ere bai. Ondorioz, ibai behera Babylonerari iritsi eta beren salkariak saldu bide dituztenean, garraiuntziaren saihestak eta lasto guztia aldarrika saldu ohi dute eta, larruak asto gainera botatz, armeniarrenganako bidean jartzen dira. Bada, inola ere ezinezkoa da korrontearen biziagatik ibai gora joatea; horrengatik ez dituzte, hain zuzen ere, untziak zurezkoak egiten larruzkoak baino. Eta astoei eraginez atzera armeniarrengana itzuli bide direnean, era berean beste garraiuntziak egin ohi dituzte.

195. Horrelakoxe garraiuntziak dituzte, hain zuzen. Jazkera, berriz, era honetakoak erabiltzen dute: oinetaraino iristen den linozko soinpekoa eta honen gainetik artilezko beste soineko bat jartzen dute eta mantu txuriaz inguratzen, sorterriko oinetakoak beoziar abarketen antzekoak dituztelarik. Ilea luze dutenez, buruak mitraz koroatzen dituzte, gorputz osoa lurrinduz. Eta bakoitzak zigilu-eraztuna eta eskuz landutako makila darama; eta makila bakoitzean sagarra, nahiz arrosa, nahiz lilia, nahiz arranoa edo beste zerbait dago landua; ez baitute makila ezaugarririk gabe eramateko ohiturarik. Horixe da, beraz, duten gorputz-apaindura. Hona, berriz, berentzat ezarri dituzten ohiturak.

196. Gure iritziz, hauxe da zuhurrena: aditu dudanez, Ilyriako enetoek ere erabili ohi dutena. Herrixka oro, urtean behin, hau egiten zuten: neskatzak ezkonsasoirak heldu orduko, denak bildu eta, elkarturik, leku batera eramaten zituzten eta beren inguruan gizonezko pila jartzen zen. Aldarrikariak banan-banan zutiaraziz salmentan jartzen zituen; lehenik denetan itxura ederrekoena eta gero, horrela topatzen zena diru askoan saldu ondoren, ederrenaren hurrengoa aldarrikatzen zuen. Saldu ere, elkarbizitzarako saltzen zituen. Eta babyloniarren artean aberatsen ziren ezkongai guztiek, bata bestearekin lehiatuz, ederrenak erosten zituzten. Herri-mailako ezkongai guztiek, ordea, ez zuten baliagarritasunaren aldetik itxuraren inolako beharrik, eta neskatzak itxusienaz gainera dirua jasotzen zuten. Zeren, neskatzetan itxura ederrekoenak saltzea amaitu orduko, itxuragabekoena edota hauetan norbait elbarri bazegoen, hau ere aldarrikatu egiten zuen, ea diru gutxienaren truk berarekin nork bizi nahi zuen galdetuz, merkeen eskaintzen zionari zetxekion arte. Dirua, hain zuzen, itxura ederreko neskatzak aldetik sortzen zen eta itxura ederrekoek ezkontzen zituzten itxuragabekoak eta elbarriak. Eta ez zitzaion zilegi norberari bere alaba nahi zuenarekin ezkontzea, ez eta ere erositako neskatzak bermatzailerik gabe etxera eramatea, aitzitik, ezinbestekoa zitzaion, zinez elkarrekin biziko zirenaren bermatzaileak jarritz, etxeratzea; eta, bat ez bazetozen, legeak dirua itzultzeko agintzen zuen. Eta nahi zuenak, beste herrixka batetik etorrira ere eros zezakeen. Ohitura bikain hori zeukaten, bada,

egun jarraitzen ez bada ere; berriki, ordea, bestelako jokaera bat badela idoro dute [ez beren neskatxak iraindu eta ez beste hirira ere eraman ez ditzaten]; izan ere, menperatuak izanik, hondatuak eta lur joak izan ziren unetik, eskasian dagoen herriko edozeinek bere alabak prostituitzen ditu.

197. Eta, zuhurtasunean hurrena, honako beste ohitura hau dute ezarririk: gaixorik daudenak plazara ateratzen dituzte; ez baitira sendagileez baliatzen. Beraz, gaixoarengana hurreratuz, gaixotasunari buruz kontseilu ematen diote, baldin eta gaixoak dukeena norberak jasan badu edota beste batek jasan duela ikusi badu; hurbilduz, era bereko gaixotasunari ihes egiteko norberak egin duena edo beste batek egin duela ikusi duena kontseilatzen eta gomendatzen diote. Eta ez zaie zilegi [gaixoaren] aurrean isilik igarotzea, lehendabizi zer gaixotasun duen galdetu gabe.

198. Hildakoak eztitan ehorzten dituzte; auhenak, berriz, Egyptokoen antzekoak dira. Eta babyloniar gizona, bere emaztearekin batzen den bakoitzean, intsentsu errearen inguruan esertzen da eta, beste aldetik, horixe bera egiten du emazteak ere; eta, eguna argitu ondoren, biak araztu egiten dira; araztu arte ez baitute ontzirik ukituko. Hain zuzen, hori bera egiten dute arabiarrek ere.

199. Bestalde, babyloniarren artean dagoen ohiturarik lotsagarriena hauxe da: ezinbestekoa da bertako emakume oro, Aphroditaren santutegian eseriz, bizitzan behin gizon atzerritarrarekin batzea. Eta haietako askok beren aberastasunaren harrokeriaz beste emakumeekin nahastea gutxietsi egiten baitute, santutegira gurdi estalietan joanez jarri ohi dira egonean, eta zerbitzari ugari darraikie atzetik. Gehienek, ordea, honela egiten dute: emakume-pila kordazko koroa buru inguruan duela Aphroditaren temenosean¹⁰⁰ eseri ohi da; batzuk etorri eta

besteak joan egiten dira. Eta emakumeen artean sokaz edonora zuzenduriko pasabideak daude; atzerriko gizonak hauetan barrena igaroz egiten dute aukera. Eta emakumea bertan esertzen denean, ez da berriz etxeratzen atzerritarren batek bere magalera dirua bota eta santutegi barruan berarekin batzen den arte. Eta, dirua botatzean, honenbesteko bat esan behar da: "Mylita jainkosaren izenean dei egiten dizut". Hain zuzen, Mylita deitzen diote asyriarrek Aphroditari. Diru-kopurua, den hainbatekoa dela ere, ez du ezetsiko; ez baitzaio zilegi; diru hori sakratu bilakatzen baita; eta lehendabizi botatzen dionari jarraitzen dio berak, inortxo gaitzetsi gabe. Eta honekin batu ondoren jainkosarekikoa eginga baitu, bere etxera itzultzen da, eta hemendik aurrera ez diozu zeureganatzeko adina emango. Beraz, itxuraz eta egokitasunaz hornituak dauden emakumeak berehala itzultzen dira; itxuragabeek, ordea, luzaro itxaroten dute legea bete ezinik; zenbait hiru eta lau urtez ere egoten baita zain. Dena den, Ziproko lekuren baten bada horren antzeko lege bat.

200. Horra, bada, babyloniarrengan ezarriak dauden ohiturak. Bestalde, hauen artean badira hiru leinu, soilik arraina izan ezik, beste ezer jaten ez dutenak. Harrapatu eta eguzkitan xigortu ondoren, honela prestatzen dute: almerizera bota eta almeriz-eskuz xehatzen dutenean, zapian barrena bahetzen dute; eta haien artean hala nahi duenak, pasta antzeko bat oratuz, eta nahi ez duenak, ogia bezala erreaz, jaten du.

201. Beraz, Zyrok herri hori ere menperatu zuenean, masagetak bere esaneko egitea desiratu zuen. Herri hori handia eta indartsua dela esan ohi da, eta egunsenti-sortaldera kokatua dago, Araxes¹⁰¹ ibaiak handi, isedonen aurrean. Eta badira herri hori szythiarra dela dioten batzuk ere.

202. Eta, Araxes Istro¹⁰² baino handiagoa dela esan ohi da eta txikiagoa ere bai; bertan Lesboren antzeko irla handi

asko daudela diote, eta hauetan ba omen dira gizonak udan lurlean zuloak eginaz edonolako zainez elikatzen direnak eta zuhaitzetan aurkitutako fruituak bere sasoian mantenurako gorde eta neguan jaten dituztenak. Hala ere, topatzen omen dituzte honelako fruitu batzuk daramatzaten beste zuhaitzak ere; fruitu horiei dagokienez, taldeka leku berean biltzen direnean eta sua pizten dutenean, honen ingurubiran eseri eta sutara botatzen omen dituzte eta, botatako fruitua erretzen ari den bitartean usain eginez, lurrinarekin mozkortu egiten omen dira, heleniarrak ardoarekin bezala; eta, zenbat eta fruitu gehiago bota, orduan eta gehiago mozkortzen omen dira, dantzara jaiki eta abesteari ekiten dioten arte. Horrelakoa da, diotenez, herri honen biziera. Araxes, berriz, Zyrok hirurehun eta hirurogei kanaletan banaturiko Gyndesen sorburu den matienoen lurraldetik etorri eta berrogei ahotatik ateratzen da, hemendik denak, bat izan ezik, zingira eta paduratara kanporatzen direlarik; hemen bizi direla diote arrain gordina jan eta foka-larruz jantzi ohi diren gizonak. Eta Araxesen ahotako bakarrak behaztoporik gabe Kaspiar itsasoraino korritzen du. Bestalde, Kaspiar itsasoa, bere baitan dago, beste itsasorekin nahasi gabe¹⁰³. Zeren, heleniarrek zeharkatzen duten osoa, bai "Heraklesen" Zutabeez kanpoko itsasoa, Atlantikoa deritzana, eta bai Erythre halabeharrez bat dira¹⁰⁴.

203. Kaspiarra, ordea, bere baitan dagoen beste bat da; zeharkatzen arraunez baliatzen denarentzat haren luzera hamabost egunekoa da, zabalera berriz zortzi egunekoa. Eta itsaso horrez sartaldera hedatzen da Kaukaso, mendirik zabalena eta garaiena delarik.

Eta Kaukasok bere baitan jende asko eta edotarikoak ditu, gehiengoa erabat basazuhaitzetik bizi delarik. Esaten denez, horien artean mota honetako orriak ematen dituzten zuhaitzak daude: txikitu eta, ura nahasiz, beren jantzieta irudiak margotzen dituzte; irudiok ez omen dira garbitzean desagertzen, aitzitik, jatorriz ehunduak bailiran, gainerako artilearekin batera zahartzen omen dira. Eta, gizon emakume horien batzea, abereen artean bezalaxe, jendaurrean egiten omen da.

204. Beraz, Kaspiar deritzan itsaso horren sartaldere Kaukaso da muga; egunsenti- eta sortaldere, berriz, begiztatu ezin adina zabaleko lautada bat luzatzen da. Beraz, lautada handi "horren" zatirik ez txikiena masagetek okupatzen dute, zeinen aurka Zyrok gerraratu nahi zuen. Izan ere, arrazoi asko eta handiak zituen eragile eta bultzatzaile: lehenik, bere jatorria, gizon baino zerbait gehiago zen ustea eta, hurrena, gerrateetan zuen zorte ona; Zyrok gerran edonoren aurka jo nahi zuela ere, herri hura ihes egin ezinean gertatzen baitzen.

205. Hain zuzen, bere senarra hil ondoren, emakume bat zen masageten erregina; Tomyris zuen izena. Zyrok mandataria batez desiratu zuen, hitzez bere emaztetzat hartu nahiz. Tomyrisek, ordea, bera ez baina masageten erresuma desiratzen zuela oharturik, sarrera galarazi zion. Eta honen ondoren, Kresok, engainuz deus aurreratu ez zuenean, Araxesa abiatuz, nabarmen ekin zion masageten aurkako gerrabideari gudarostearentzat ibaiaren igarobidean zubiak uztartuz eta ibaia zeharkatzen zuten garraiuntzietan dorreak eraikiz.

206. Baina lan honetan ari zela, Tomyrisek, mezularia bidaliz, honela esan zion: "Mediarren errege hori, utz itzak bertan

behera heure ahaleginak, ez bide dakik-eta egintza horiek onurako izango dituan; utziz, bada, erreina ezak heureengan eta jasan ezak guk geure agindupekoengan agintzen dugula ikustea. Seguraski kontseilu hauetaz ez duk baliatu nahi izango; aitzitik, bakean irautea baino nahiago izango dut edozer gauza. Beraz, masagetekin neurtzeko irrika bizian bahago, ea, utz ezak ibaia uztartzen duan nekea eta, gu ibaitik hiru eguneko bidean atzeratzen garenean, igaro hadi hi gure lurraldera. Aldiz, gu zuenean hartzea nahiago baduk, egik heuk ere horixe bera". Baina Zyrok, hori entzunda gero, persiarren aitzindariei deitu zien eta denen erdian bilduz arazoa aurkeztu zien, bietatik zer egin zezakeen kontseilu eskatuz. Eta hauen iritziak bat etorri ziren, Tamyris eta honen gudarostea bere lurraldean har zezala kontseilatzean.

207. Baina Kreso lydiarra bertan zegoelarik, eta iritzi hori gaitzetsiz, aurkeztutako iritziaren kontrakoa azaldu zuen, hau esanez: "Maiestate, lehen ere esana dizut, Zeusek zure eskutan jarri nauenez, zure etxean galbideren bat dagoela ikus baneza, aldentzen ahaleginak egingo ditudala. Zoritzarreko jasapenak izan ditudanez, ikasbide gertatu zaizkit¹⁰⁵. Hilezkor zarela eta gisa horretako gudarosteari agintzen diozula uste baduzu, alferrikakoa da zuri neure iritziak agertzea; baina gizon zarela eta zure agindupekoak ere horrelakoak direla aitortzen baduzu, kontuan har ezazu lehenik harako hura: giza arazoetan gurpil bat dagoela eta jiratzean ez duela beti bat bedera zoriontsu izaten uzten. Horrenbestez, bada, aurkeztu den arazoaz alderantzizko iritzia daukat. Zeren, etsaiak geure lurraldean hartu nahi baditugu, bere horretan

arrisku bat dago zuretzat. Garaitua izanez gero, zeure aginterri osoa desegiten duzu; garbi baitago masagetak gailentzen badira ez dutela atzera ihes egingo, zure jabegoetara joko baino. Garaituz gero, berriz, ez duzu garaituko zeu haien lurraldera igaro ondoren masagetak gailendu eta iheslariei jarraituz bezainbat; zeren, haiei zegokien gauza bera kontrajarriko dizut: zeu izango zara masagetak garaitu eta zuzenean Tomyrisen aginterrira joko duzuna. Eta, esandakoaz parte, lotsagarria eta jasanezina da Zyro Kambysezenak emakume baten aurrean bere lurraldea utzi eta atzera egitea. Beraz, orain nik uste, ibaia igaroz, haiek atzeratzen diren heinean guk aurreratu egin behar dugula eta haiek gainditzeko saiatu ekintza hauen bidez. Hain zuzen, jakin dudanez, masagetek ez dute persiar ondasunen baliamenturik, ez gozamen handien sentipenik. Ondorioz, gizon horiei, begiragabeko abere-pila hil eta maneatu ondoren, eskain diezaiegun otordu bat geure kanpamenduan; horrez gainera baita nahasi gabeko ardodun kraterak eta era guztietako janariak ere nahierara; hori eginda gero, gudarosteko talderik makalena bertan utziz, gainerakoak osteratzen ibaira erretira daitezela. Zeren, ustea ustel gertatzen ez bazait, behintzat, haiek, hainbat gauza on ikusiz, hauetara itzuliko dira eta guri, hemendik aurrera, egitandiak burutzea geratzen zaigu".

208. Iritzi horiek bildu ziren, eta, Zyrok lehenengoa baztertu eta Kresorena onartuz, Tomyrisi atzeratzeko aldarrikatu zion, honen aurka ibaia berak igaroko zuela eta. Hau, hasieran agindu bezala, atzeratu egin zen. Orduan Zyrok, erregetza bere seme Kambisesen eskutan utzi eta Kreso honen eskutan jarritz,

masageten kontrako ibilaldia zuzen ateratzen ez bazen ere, hau guztiz aintzat hartu eta ongi trata zezala agindu zion. Hori agindu eta hauek Persiara igorritik, berak eta bere gudarosteak ibaia igaro zuten.

209. Eta Araxes zeharkatuta gero, gaua gaineratu zenean, masageten lurraldean lo zegoela, honelako ikuspena izan zuen. Zyrori lotan Hystaspesen semerik zaharrena sorbaldeetan hegoak zituela ikusten zuela iruditu zitzaion, eta hauetako batzuek Asiari eta besteaz Europari itzal egiten ziola. Hain zuzen, Hystaspes Arsamesenak, akhemenida izaki, Dario zuen semeetan zaharrena, orduan gehienez ere hogeitaz zituelarik; eta han persiarren artean geratuta zegoen gerrara joateko adinik ez zuelako. Beraz, Zyro iratzarri zenean, bere buruarekin ikuspenaz pentsatzen jarri zen. Eta ikuspena garrantzi handikotzat jotzen baitzuen, Hystaspes deiarazi eta aparte hartuz, "Hystaspes -esan zion-, zure semea nire eta nire erresumaren aurkako azpilanean harrapatua izan da; eta hori nola ziur dakidan neronek adieraziko dizut. Jainkoek nire ardura dute eta gaineratuko zaidan guztia azaltzen didate; horrela, bada, bertan zure seme zaharrena sorbaldeetan hegoak dituela eta hauetako batzuek Asiari eta besteaz Europari itzal egiten ikusi dut. Guztiz ezinezkoa da, beraz, ikuspen honen arabera, hura nire aurkako azpilanean ez ihardutea. Itzul zaitez, bada, ahalik lasterren Persiara eta egizu, lurralde hauek menperatuta gero hara hel nadinean, zure semea galdeketaarako presta diezadazun".

210. Dario azpilanean ari zelakoan esan zuen hau Zyrok. Jainkoak, ordea, era horretan bera hantxe hil eta bere erregetza

Dariorengan eroriko zela adierazten zion. Dena den, hitz hauek trukatu zizkion Hystaspesek: "Maiestate, ez ahal da izango persiar gizonik zuri azpilanean ari zaizunik, eta, baldin bada, bertan hilko ahal da; zuk egin baitituzu persiarrak morroi ordeaz aske eta agindupeko ordeaz beste guztien agintari. Eta ikuspenen batek neure semea zure aurka jaikitzeaz azpilanean diharduela iragartzen badizu, neronek entregatuko dizut berarekin nahi duzuna egin dezazun". Hystaspesek hitz hauek trukatu eta, Araxes igaroz, Persiara abiatu zen, bere seme Dario Zyrorentzat gordetzearren.

211. Zyrok, berriz, Araxestik egun bateko bidean aurreratuz, Kresoren esanak egin zituen. Eta, honen ondoren, persiar gudarostearen zati baliotsua osteraz Araxes bidean jarri eta baliogabea bertan utzi zuelarik, masageten gudaroste herenak, gaineratuz, Zyroren gudarostetik utziak izan zirenak defendatu ziren arren hil egin zituen eta aurrean prest zeukaten janaria ikusi zutenean, etsaiak menperatu bezain agudo etzan eta jaten hasi ziren eta, jakiz eta ardoz beterik, lo hartu zuten. Eta persiarrek, gaineratuz, hauetako asko hil zituzten eta askoz gehiago oraindik preso egin, besteren artean Tomyris erreginaren semea, masageten gudalburua, Spargapises zeritzana.

212. Baina erreginak bere gudarosteari eta semeari gertaturikoaren berri jakin zuenean, Zyrori mezularia bidaliz, honela esan zion: "Odolez ase ezinezko Zyro, ez hadi harro izan egintza horrengatik: zeuok mahats-fruituz, ardoa barruratzeaz honek hitz txarrak

gainezkarazteraino aserik, zoratu egiten bazarete, horrelako drogaz engainatuz menperatu duk hik nire semea, ez ordea borrokan indarraren indarrez. Orain, bada, har ezak kontutan nire kontseilu ona: semea itzuliz, alde egidak zigorrik gabe lurralde honetatik, masageten herenari irain egin dioan arren. Zeren, hori egiten ez baduk, masageten jaun eguzkiaren izenean zin dagiat: odolez ase ezinik bahago, neuk aseko haut".

213. Zyrok, hitz horiek itzuli zizkiotenean, ez zien jaramonik egin; Tomyris erreginarene seme Spargapisesek, berriz, ardoak libre utzi eta zein egoera txarrean zegoen ohartu zenean, Zyrori kateetatik askatzeko eskatu ziolarik, lortu egin zuen; baina aske geratu eta bere eskuen jabe egin zen bezain azkar, bere buruaz beste egin zuen.

214. Era horretan bukatu zuen, hain zuzen, Spargapisesek; Tomyrisek, bere aldetik, entzungor egin baitzion Zyrok, bere indar guztiak bilduz Zyroren kontra jaurti zituen. Borroka hori barbaroen artean gertatu diren guztietan gogorrena izan zela uste dut, eta, izan ere, honela izan zela jakin dut. Zeren, esaten denez, lehenik elkarrengandik banaturik uztaiaz aritu ziren, eta gero, beren geziak uztaietatik jaurtiak izan zirenean, lantzekin eta aiztoekin elkarrengana jauziz, bata bestearekin lotu ziren. Luzaro eutsi omen zioten borrokari eta bietako inork ez omen zuen ihes egin nahi; baina azkenean masagetak gailendu omen ziren. Persiar gudarostearen zatirik handiena han bertan galdu zen eta Zyro bera ere hil egiten da, guztira hogeita bederatzi urtez errege izan ondoren. Eta Tomyris, zahagi bat giza odolez betearaziz, hildako persiarren artean Zyroren gorpu bila hasi zen eta, aurkitu zuenean,

haren burua zahagian sartu eta, irain eginez, honela esaten zion gorpuari. "Hik niri, bizirik nagoen eta borrokan garaitu haudan honi, neure semea iruzurrez harrapatuta hil hidan; nik, ordea, hi, egin nian mehatxuaren arabera, odolez aseko haut". Zyroren bizi-amaierari buruz istorio asko kontatu den arren, hauxe da niretzat sinesgarriena.

215. Bestalde, masagetek szythiarren antzeko jazkera daramate eta biziera dute; eta zaldiz eta zaldi gabe egin ohi dute borroka (bietan esku hartzen baitute), eta gezilari eta lantzari dira, sagariak¹⁰⁶ berekin ohi dituztelarik. Denetarako, urrez eta brontzez baliatzen dira; horrela, lantza-punta, gezi-punta eta sagari guztientzat brontzea erabiltzen dute; buruari, gerrikoari eta besoei dagozkien alde guztiak, berriz, urrez hornitzen dituzte. Era berean, zaldiei bular inguruan brontzezko korazak jartzen dizkiete eta uhaletan, ahokoetan eta burukoetan urrea darabilte. Inola ere ez dira baliatzen ez burdinaz ez eta ere zilarraz; beren lurraldean deus horrelakorik ez baitute; ugari, ordea, urrea eta brontzea.

216. Eta hona nolako ohiturak dituzten. Emazte bana hartzen dute, baina elkarren artean erabiltzen dituzte. Hain zuzen, hori szythiarrek egiten dutela diote heleniarrek; ez dira, ordea, szythiarrak hori egiten dutenak, masagetak baino. Zeren, gizon masageta, emakumeaz zaletzen denean, gurdi muturrean buiraka eseki eta kezkarik gabe batzen da berarekin. Beren bizitzari ere ez diote, duenaz beste, inolako mugarik ezartzen; baina bat guztiz agure izatera hel dadinean, ahaide guztiek, elkarrengana bilduz, opaldu egiten dute eta berarekin batera baita gainerako abereak ere, eta, hauen haragiak erreaz, ospatu egin ohi dute. Izan ere, hori guztiz dohatsutzat daukate; aldiz, gaixotasunez hiltzen dena ez dute jaten; aitzitik, opaldua izatera

iritsi ez delako dohakabetzat hartuz, lurrean estaltzen dute. Deus ez dute ereiten, abere eta arrainetatik bizi baizik; eta berauek ugari sortzen zaizkie Araxes ibaitik. Esne-edale dira. Jainkoetatik eguzkia bakarrik gurtzen dute: zaldiak opaltzen dizkiote. Eta opariaren arrazoia honako hau da: jainkorik bizkorrenari hilkor diren izaki guztietan bizkorrena eskaintzen diote.

II. LIBURUA

1. Zyro hil zenean, Kambysesek oinordetu zuen erregetza, Zyroren eta Pharnaspesen alaba Kasandaneren seme baitzen; hau goiz hil zelarik, Zyrok berak dolu handia egin zuen, eta menpean zituen gainerako guztiei ere dolu egiteko agindu zien. Zinez andere horren eta Zyroren seme zenez, Kambysesek aitagandiko morroitzat zeuzkan joniarrak eta eoliarrak, eta Egyptoren aurkako gerraldi bati ekin zion, agintepeko besteren artean, menpean zituen heleniarrak berekin hartuz.

2. Egyptoarrak, bestalde, Psametikhos¹⁰⁷ haien errege izan aurretik, gizaki guztietan lehenak zirelakoan zeuden¹⁰⁸. Baina, Psametikhok, errege jarri ondoren, lehenak nortzuk ziren jakin nahi izan zuenetik, ordutik phrygiarrak direla uste dute berak baino lehenagokoak eta berak gainerakoak baino. Psametikhok, hain zuzen, lehen gizonak nortzuk ziren asmatzeko inolako jakinbiderik ez baitzuen ikertu arren, hona nola moldatu zen. Artzain bati halabeharrez topaturiko gizakumeen haur jaioberri bi eman zizkion, bere artaldeetan honelako hazieraz haz zitzan agindu hau emanez: haien aurrean inork ez zezala hitz bat egin, txabola bakartian elkarren baitan egon zitezela eta bere orduan ekar ziezaizkiela ahuntzak eta, esnez asetakoan egin zitzala gainerako zereginak. Psametikhok, ulertezinezko marmarraldia igaro ondoren

hautxoan lehen hitza zein zen entzun nahi zuelako egin eta agindu zuen hori. Gertatu ere, hala gertatu zen. Bada, artzainak hori egiten urte bi zeramatzala, atea ireki eta hautxo biengana sartu zen batean, harengana jauzi eta eskuak luzatuz, bekos ahoskatu zuten. Lehenengo aldiz hau entzutean, artzaina lasai geratu zen; baina, askotan joan eta arduratzen zenez, hitz hori ere ugaltzen baitzihoakion, ugazabari horrela adierazi ondoren, honen aginduz begi-bistara eraman zizkion hautxoak. Eta Psametikhok berak ere entzun zuenean, arakatzen hasi zen zein gizon ziren zerbaiti bekos zeritzatenak, eta, arakatuz, phrygiarrek ogiari deitzen ziotela topatu zuen. Horrela, era horretako gertakizunaren ondorioz aitortu zuten egyptoarren phrygiarrek berak baino zaharragoak zirena. Honela gertatu zela Memphisko Hephestoren apaizei entzun nien. Heleniarrek, ordea, beste zorakerien artean, Psametikhok emakumeei mingaina moztu eta hautxoei horrelako emakumeen ondoan biziarazi ziela esaten dute.

3. Hautxoon hazierari buruz horrenbestexa esan ohi zuten. Baina Memphisen, Hephestoren apaizekin hizketaratu nintzenean, beste gauzak ere entzun nituen; eta kontu hauek direla eta, Memphisko esanekin bat zetozen jakin nahiz, Thebas eta Heliopolisera ere itzuli nintzen; zeren, diotenez, Heliopoliskoak dira egyptoarren artean istoriolari adituenak. Hala ere, ez nago esateko prest jainkoekiko zer-nolako kontuak entzun nituen, soilki hauen izenak izan ezik, hauetaz mundu guztiak gauza bera dakielakoan bainago; beraz, hauetatik aipa ditzakedanak kontraerak beharturik aipatuko ditut.

4. Aldiz, giza egintzei dagokienez, honela zioten adostasunez: jende guztien artean egyptoarrak izan zirela, alegia, urtea asmatzen lehenak, urtaldia hamabi zatitan banatu zutelarik. Eta hori izarretatik atera omen zuten. Eta, nire iritziz, heleniarrek baino kalkulu zorrotzagoa egiten dute; izan ere, heleniarrek urtaroengatik hiru urtez behin hilabetea tartekatzen duten bitartean, egyptoarrak, hamabi hilabeteak hogeita hamar egunekoak eginez, urte bakoitzari neurriz gaindiko bost egun gehitzen dizkiote, eta hauentzat, joan eta etorri, garai berean gertatzen da urtaroen itzulia¹⁰⁹. Eta, haien hitzetan, egyptoarrak izan ziren lehenak hamabi jainkoen deiturak erabiltzen, eta heleniarrek hauetatik berenganatu zituzten; lehenak, baita ere, aldareak eta tenpluak jainkoei izendatzen eta irudiak harrietan zizelatzen. [Eta] esandako gauza gehienok horrela zirela egiaztatu zidaten; eta Egypton erreinatu zuen lehen gizona Min zela zioten. Garai horretan, Thebasko nomoa izan ezik, Egypto osoa zingira omen zen, eta, bertan, egun itsasotik ibai gora zazpi egunez ureratuz heltzen den Meris aintziraz beheko lurralderik ez omen zen azaleratzen.

5. Eta lurraldeaz ziotenari zuzen neritzon. Argi baitago, lehendik aditzera izan gabe ere, ikusle den edozein zentzudunentzat, heleniarrak untziz iristen diren Egypto¹¹⁰ egyptoarrei gehituriko lur eta ibaiaren emari dena; baita aintzira horretaz gora hiru egunetarainoko ureratzeaz heltzen den lurraldea ere; honetaz apaiz haiek jada deus horrelakorik esan ez zidaten arren, gainerakoa ere era berekoa da. Zeren, hona Egyptoko lurraldearen izaera: lehenik, itsasoz zoazela, oraino lehorretik egun bateko bidearen aldean bazaude ere, itsas sonda hondoratuz lohia aterako duzu, eta, egon, hamaika

besaldira egongo zara; honek ibaiaren lur-garraioa honainokoa dela adierazten du.

6. Bestalde, Egypto bereko itsasertzaren luzera hirurogei eskenotakoa da, guk Egypto Plinthinako golkotik Kasio mendia alboan hedatzen zaion Serbonide aintziraraino mugatzen dugun eran; golko horretatik daude, bada, hirurogei eskeno. Izan ere, lur gutxikoek besaldiz neurtu ohi dute lurraldea; hain gutxiko ez direnek, berriz, estadioz; asko dutenek, parasangaz; eta sobera dutenek, eskenoz¹¹¹. Eta parasangak hogeita hamar stadio balio du; eta eskeno bakoitzak, neurri egyptoarra delarik, hirurogei estadio. Horrela, Egyptoko itsasertzak hiru mila eta seiehun estadio izan litzake.

7. Hemendik barrualdera, Heliopoliseraino, Egypto zabala da, dena laua, urtsua eta lohia delarik. Itsasotik gora Heliopolisera doanarentzat bidea, luzeraz, Athenasko Hamabi Jainkoen¹¹² aldaretik Pisako Zeus Olympoarraren tenpluraino eramaten duen bidearen antzekoa da. Norbaitek luzeraz desberdin diren bide bion arteko aldea kalkula baleza, gauza apurra topa lezake, hamabost stadiorena baino gehiago ez; Athenastik Pisarakoak hamabost stadio falta baititu mila eta bostehunekoa izateko, eta itsasotik Heliopoliserakoak osatu egiten du kopuru hori.

8. Heliopolistik gora doanarentzat Egypto estua da. Zeren, alde batetik Arabiako mendia lerrotzen da hartz-izarretik¹¹³

ekialde-hegoaldera zuzenduz, etengabe gorantz Erythre deritzan itsasora luzatzen delarik; hemen daude, hain zuzen, Memphisko piramideak¹¹⁴ eraikitzeke ireki ziren harrobiak; leku honetan mendi-lerroa eten eta aipatu dudan alderdira okertzen da; eta mendi honek, dudan aditzeraz, bere zabalenerako aldean, sortaldetik sartaldera, hilabete biko bidea du, eta, sortalderantz, beronen azken-lurak intsentsu-emaile dira. Horrelakoxea da, beraz, mendi hori. Bestalde, Libya aldeko Egypton, piramideak dauden beste mendi bat hedatzen da, harritsu, hondarrez inguraturik, hegoaldera doazen Arabiakoen norabide berean. Heliopolistik, bada, ez dago jada Egyptokotzat jo dezakegun lurralde askorik; aitzitik, hamalau eguneko untzibidean gora Egypto estua da. Bestetik, aipaturiko mendien bitartea lur laua da, eta honek, nire ustez, Arabiar menditik Libyakoa deritzanera, estueneko unean ez du berrehun stadio baino gehiago. Hemendik aurrera, ordea, berriz ere zabala da Egypto.

9. Hain zuzen, lurraldea izatez horrelakoa da. Heliopolistik gora Thebasa bederatzi eguneko untzibidea dago, hots, lau mila zortziehun eta hirurogei estadioko bidea, laurogeita bat skeno direlarik. Egyptoko estadio horiek batuz, itsasertzari dagokionez, lehen ere azaldu dut hiru mila eta seiehun estadiokoa dela, eta itsasotik lur barrura Thebaseraino zenbat dagoen adieraziko dut:

sei mila ehun eta hoge estadio daude; Thebastik Elephantina deritzan hirira, berriz, mila eta zortziehun estadio.

10. Beraz, esandako lurraldearen gehiengoa, apaizek zioten bezalaxe, niri ere egyptoarrei gehiturikoa zela iruditu zitzaidan. Izan ere, Memphis hiriaz goitik zeuden aipaturiko mendien erdigunea garai baten itsas golko izan zela agertzen zitzaidan, hain zuzen Ilion, Teuthrania eta Ephesoko inguruak eta Meandroren lautada bezalaxe, txikiak handiekin aldera badaitez bederen. Uholdez lurrok sortu zituzten ibaietatik bakar bat ere ez baita ugaritasunez Niloren ahotako bati alderatzekorik, eta hori bost ahokoa delarik. Nilo bezain handi ez izan arren, badira beste ibai batzuk ere, ondorio handiak eragin dituztenak. Besteren artean ez gutxien, Akhelooren izena aipa dezaket, zeinak, Akarnanian barrena joanez, itsasoratzean, irla Ekhinaden erdiak jada kontinente egin dituen.

11. Bada Arabiako lurraldean, Egyptotik ez urrun, Erythre deritzan [itsasotik] barruraten den den itsas golko bat, esatera noan bezain luze eta meharra: luzeran, untziz zeharkatzen hasten denari golko barrendik itsas zabaleraino berrogei egun joaten zaizkio arraunean, zabaleran, berriz, golkoa zabalen den aldetik egun erdiko untzialdia. Eta bertan, egunero, itsasgora eta itsasbehera gertatu ohi da. Egypto ere honelako beste golko bat izan zelakoan nago; bata, iparraldeko itsasotik Ethiopiaraino

hedatzen zen [golko]ak, eta besteak [Arabiarra deituko diodanak], hots, hegoaldekoetik Syriaraino luzatzen denak, elkarren barrualdeak, bien arteko lurraldetxo bat kenduz gero, ia bateratuak zituzten. Beraz, Nilok bere korrontea Arabiar golko horretara desbideratu nahi baleza, zerk eragotziko du joanaren joanez hogeita mila urteren buruan lurrez betetzea? Hamar mila urteren buruan ere beteko litzatekeela uste dut nik. Hain zuzen, ni jaio aurretik igarotako denboran ez ote zuen, bada, beteko golko askoz handiago bat ere, horrenbesteko eta horrelako eragineko ibaiak?

12. Egyptoz hori diotenei, bada, sinetsi egiten diet eta ni neu ziur nago horrela dela, ikusten baitut Egypto inguruko lurretatik aurreratu egiten dela eta mendietan maskorrak agertzen direla eta pyramideei kalte egiterainoko gatzua agertzen zaiela, eta hondarra duen Egyptoko mendi bakarra Memphisez goitik dagoen hau dela eta, horrez gainera, Egyptok ez duela antzik ez mugakide duen Arabiarekin ez eta ere Syriarekin (Arabiako kostaldean syriarrak sailkatzen¹¹⁵ baitira), alderantziz, bere lurra, ibaiak Ethiopiatik ekarritako lohi eta uholde-lur denez, beltz eta hauskor dela. Bestalde, badakigu Libya lur gorri eta hondartsuagoa, eta Arabia eta Syria buztintsu eta harritsuagoak direla.

13. Honako hau ere esan zidaten apaizek lur honen adierazgarritzat: Meris erregearen garaian, alegia, ibaiak, zortzi besotara¹¹⁶

bederen heltzen zenero, Memphisez beheko Egypto ureztatzen omen zuen. Et nik gauza hauek apaizengandik entzun nituenean Merisek ez zituen oraindik bederatziehun urte hilik. Baina orain ibaia gutxienez hamasei edo hamabost beso igotzen ez bada, lurraldera ez da gainezkatzen. Iruditzen zait, Meris aintziraz beheko lurraldean eta, bereziki, Delta izenekoan bizi diren egiptoarrek, baldin eta lurralde honek Nilok urpetuko ez duen neurrian gora egiten badu eta era berean haztera jotzen badu, egiptoarrok ondorengo denbora guztian pairatuko dutela berauek heleniarrek behin pairatu bide zutela ziotena. Izan ere, jakin zutenean heleniarren lurralde osoak euria hartzen zuela, baina ibaiek ez zutela berena bezala ureztatzen, heleniarrek inoiz beren itxaropen handia galdurik gosete gaiztoa jasango zutela esan zuten. Esaera honek zera adierazten du: jainkoak euria egin ordeztu lehortea jasanarazi nahi badie, heleniarrak goseteak harrapatuko dituela; ez baitute beste urbiderik Zeusengandikoa izan ezik.

14. Eta egiptoarrek zuzen ari ziren heleniarrei zegokienaz. Baina, tira!, orain egiptoarrei berauei zer gertatzen zaien esango dut. Lehen esan dudanez, Memphisez beheko lurraldeak (hau baita hazten dena) igaroaldiko neurrian gorantz hazi behar badu, bertan bizi diren egiptoarrek zer besterik izango dute gosea baino, beren lurraldeak euririk har ez badeza eta ibaia ere soroetara gainezkatzeko gauza izan ez baledi? Izan ere, orain beste gizon guztien eta gainerako egiptoarren artean

hauek jasotzen dute erosoan lurretiko emaria; ez dira nekatzen goldez ildoak irekitzen, ez hondeatzen, deus ere ez beste gizonei uzta inguruan nekegarri zaizkien lanak egiten; aitzitik, ibaiak berezko etorreran soroak ureztatzen dizkienean eta ureztatu ondoren lehenera itzultzen denean, orduan nor bere soroan hazia erein eta urdeak botatzen ditu bertara eta, urdeak hazia hankaperatu diotenean, honen uztaren zain geratzen da eta urdeen bidez garia joaz, honela biltzen du uzta.

15. Beraz, Egyptori buruz joniarren iritziez baliatu nahi bageneza, Egypto Delta bakarrik dela baitiote, -esan ere, haren itsasbazterra, berrogei eskenotakoa, Perseorena deritzan talaiatik Pelusiar gazitegiatarianokoa dela esaten baitute, eta itsasotik lur barrura, hura Zerkasoro hiriraino, hots, Nilo Pelusiora eta Kanobora abiatuz erdibitzen deneraino luzatzen dela, eta Egyptotik gainerakoak, bata Libyarenak eta besteak Arabiarenak direla gaineratzen baitute-, esan honetaz balia bagintez, froga genezake egyptoarren lehen ez zutela lurralderik. Izan ere, egun, berauen Delta, egyptoarren berek dioten bezala eta nik uste dudanez, korronte-lurra da eta, nolabait esan, gorantz berriki azaldua. Beraz, lurralderik ez bazuten, zergatik dihardute alferlanean gizonetan lehenak izan diren ustean? Lehenik zein hizkuntza ahoskatuko zuten jakiteko ez zuten haurren frogara zertan jorik. Nire iritziz, ordea, egyptoarrak ez dira sortu heleniarrek deituriko Deltarekin batera, betidanik, giza arraza sortu zenetik dira eta lurraldea aurrera joan zen ahala haietako asko atzera geratu zen eta beste asko ibai behera jaitsi zen. Gainera, garai batean Thebasi Egypto zeritzan, honen perimetroa sei mila eta hoge estadiokoa delarik.

16. Beraz, hauekiko gure ezaguera zuzena bada, joniarrak ez dute Egyptoz ongi pentsatzen. Joniarren iritzia zuzena bada, ordea, froga dezaket heleniarrek eta joniarrak berek, lur osoak hiru zati dituela diotenean, Europa, Asia eta Libya, ez dakitela kontua ateratzen. Laugarrena, Egyptoko Delta gehitu behar baitute, ez Asiakoa eta ez Lydiakoa ez bada. Kontu horren arabera, Asia Libyagandik mugatzen duena ez da Nilo; aitzitik, Nilok Deltari, erpinean erdibituz, inguru egiten dio eta, ondorioz, berau gertatuko litzateke Asiaren eta Libyaren artean.

17. Eta joniarren iritzia alde batera utzi eta hona guk zer diogun gai hauetaz: Zilizia ziliziarrek bizi diren lurraldea eta Asyria asyriarrak bizi direna den bezalaxe, Egypto egyptoarrak bizi diren lurralde osoa da, eta ez dugu arrazoi zuzenez ezagutzen Asiaren eta Libyaren arteko beste inolako mugarik Egyptorenak izan ezik. Baina heleniarrek sinesten dutenaz baliatzen bagara, Egypto osoa Kataraktetatik eta Elephantina hiritik aurrera zati bitan banatzen dela eta izen bi dituela sinetsi bide dugu, bata Libyakoa eta bestea Asiakoa denez. Izan ere, Nilo, Katadupetatik (Kataraktetatik) abiatuz, itsasora doa Egypto erdibituz. Hain zuzen, Zerkasoro hiriraino doan bitartean bat bakarra da; hiri honetatik aurrera, ordea, hiru bidetan banatzen da. Bata, Pelusioko ahoa deritzana, ekialdera itzultzen da, besteak mendebaldeko bidea hartzen du, eta honi Kanoboko ahoa deritzate. Nilok duen ibilbide zuzena, berriz, honako hau da: goitik etorri Deltaren erpinera heltzen da eta hemendik Delta erdibituz

itsasoratzen da, ez ur-kopuru urrienekoa ez eta ere aipamen gutxiienekoa ez delarik; honi Sebenyteko ahoa deritzate. Badira, hala ere, beste bi aho Sebenytekotik bananduz itsasora garamatzatenak; deitura hauek dituzte: batak Saiskoa eta besteak Mendeskoa. Bestalde, aho Bolbitinarrari eta Bukolikoari dagokienez, ez dira jatorrizkoak, hondeatuak baizik.

18. Egipto nik neure arrazoibidez azaldu dudana bezainbatekoa dela, nire iritzi honen lekuko da Amonek eginiko orakulua ere, neure Egiptori buruzko iritziaren ondoren jakin nuena. Hain zuzen, Marea eta Apiseko hiritarrak Libyarekin mugakide ziren Egiptoko lurraldeetan bizi zirelarik, beraiek egiptoar ez baina libyar zirela pentsatzen baitzuten, behien haragia galaraztea¹¹⁷ nahi ez zutelako erlijio-aginduaz atsekabeturik, mezulariak bidali zituzten Amonengana, berek eta egiptoarrek deus ez zutela elkarren artekorik esanez; Deltaz kanpora bizi zirela, alegia, eta ez zutela hizkuntza bera mintzatzen eta janari guztietatik dastatu ahal izatea nahi zutela. Jainkoak, ordea, ez zien hori egiten utzi, Egipto Nilok bere etorreran ureztatzen zuen hura zela eta Elephantina hiriz goitik bizi eta ibai horretatik edaten zuten haiek egiptoarrak zirela esanez. Honelako erantzuna eman zien.

19. Eta Nilok, handitzen denean, Delta ez ezik zenbait zatitan libyarra eta arabiarra deritzan lurraldea ere urpetzen du alde bietatik egun bietako ibilbidean; eta gehiago eta gutxiago ere bai. Ibaiaren izaeraz, ordea, ez apaizengandik ez beste inorengandik ez nuen deus jakiterik izan. Hauengandik zera jakin

nahi nuen: Nilo uda-solstiziotik aurrera zergatik ehun egunez jaisten den handi eta, berriro, egun hauen burura hurbildurik, zergatik itzultzen den korrontea gutxituz, negu osoan uda-solstizioa berretorri arte mehar izateraino. Gai hauetaz, bada, ezer ez nuen jakin ahal izan egyptoarr[engandik], Nilok beste ibaietatik alderantziz jokatzeko zer berezko bertute zuen galdetzen nienean. [Aipaturiko] gauza horiek jakin nahiz, ibai guztien artean haizekirri gabeko bakarra zergatik zen ere galdetzen nien.

20. Hala ere, heleniar batzuek, jakintsu agertu nahiz, ur honen arazoaz hiru irtenbide eman dituzte; [irtenbideotatik] bik ez dut uste gogoratzea merezi dutenik, soilik aipatzeko ez bada. Batak ibaiaren handitzea haize etesioengatik dela dio, Nilori itsasoratzea galarazten diotelako. Askotan, ordea, etesioek ez dute jotzen, baina Nilok gauza bera egiten du. Gainera, etesioengatik balitz, etesioen kontra doazen beste ibaiei ere berdin eta neurri berean gertatu behar litzaieke, are gehiago oraindik, txikiagoak izanik, korronte ahulagoak dituztelako. Eta ibai asko da Syrian, eta asko Libyan, Nilori bezalakorik gertatzen ez zaienak.

21. Bigarren irtenbidea aipatu duguna baino jakintza gutxiagokoa da, baina harrigarriagoa esateko; honek dioenez, ibaiaren jokaera miragarria Ozeanotik ateratzen delako da eta Ozeanok bere korrontez lur osoa inguratzen duelako.

22. Hirugarrena, guztietan arrazoizkoena dirudien arren, gezurrezkoena da. Ez baitu deus esaten Nilo elur urtutik datorrela esatean; zinez Libyatik Ethiopian barrena dator eta Egyptori entregatzen dizkio urak. Beraz, nola etor daiteke elurretatik, [leku] beroenetatik hotzagoetara badoa? Horrelako gaiez arrazoitzeko gauza den gizonari, elurretatik datorrena itxuragabetzat jotzeko lehen lekukotasuna, eta handiena, haizeek ematen diote, lurralde horietatik beroki joaz. Eta hona bigarren lekukotasuna: lurraldea beti da eurigabea eta izotzgabea; bestalde, elurra erori ondoren guztiz ezinbestekoa da bost egun barru euria egitea, hala ezen, elurra egingo balu, euria egingo bailuke lurralde horietan. Eta, hirugarrenez, lekuko dira eguzki-galdapean belztu diren gizonak. Halaber, miruak eta enarak urtean zehar egoten dira alde egin gabe; kurriloak, ordea, Szythiako lurraldean egiten duen ekaitzetik ihesi, lurralde honetara datoz negualdia igarotzera. Egiaz, Nilok zeharkatzen eta abiapuntutzat duen lurralde honetan elurra hainbestekoren bat bederen egingo balu, ezinbestekak erakusten duenez, horrelako ezer ez litzateke izango.

23. Kontua argitu ezineko gaira eramanez Ozeanori buruz mintzatu denak ez du frogarik; nik bederen ez baitakit Ozeano ibairik denik, eta uste dut Homerok edo aurreko poetaren batek asmatu zuela izen hau poesian ezartzearen¹⁸.

24. Baina aurkezturiko iritziak errefusatu ondoren, gai ilunez neure iritzia azaldu behar badut, esango dut zergatik nire iritziz Nilo udan handitzen den. Negualdian, ekaitzak direla eta, eguzkiak bere bide zaharretik aldendurik Libyako goialdeetara jotzen du. Labur-labur esateko, horra dena esan; izan ere, bidezkoa da

bereziki jainko hau gehien hurbildu eta beraren pean izan dezakeen lurraldea uraren egarri izatea eta lurraldeotako korronteak lehortzea.

25. Oraindik zehatzago esateko, honela gertatzen da. Eguzkiak Libyako goialdeak zeharkatzean gauza hauek egiten ditu. Lurralde hauetako eguratsa denbora guztian garbi eta lurraldea bero eta haize freskorik "gabe" baitago, eguzkiak zeharkatzean, udan zeru erditik igarotzean egin ohi duena bera egiten du: ura beregana erakartzen du eta, erakarri ondoren, goialdeetara kanporatzen du eta haizeek, berenganatuz eta barreiatuz, lurrundu egiten dute; eta lurralde honetatik jotzen duten haizeak, Noto eta Libe, arrazoiz dira haize guztietan askoz euritsuenak. Hala ere, uste dut eguzkiak aldi bakoitzean Niloren urteko ur guztia ez duela bidaltzen, bere inguruan zerbait gordetzen baizik. Eta negua baretzean eguzkia berriz zeru erdira itzultzen da eta horrezkeroztik jada berdin erakartzen ditu urak ibai guztietatik. Hauek orduraino, euri-ur asko nahasten zaienez, euria egin eta lurraldea korronteek zeharkatzen baitituzte, handituta doaz; udan, ordea, euria atertu eta eguzkiak ura erakartzen dienean, indargabe egoten dira. Baina Nilo, eurgabe eta eguzkiak erakarria izanik, bera da arrazoiz ibaietan bakarra garai honetan udan baino askoz jaitsiago doana; izan ere, udan ur guztien berdinean da erakarria, neguan, aldiz, bera bakarrik mehartzen da. Horrela, sinesturik nago eguzkia dela gertakizun hauen kausa.

26. Hau bera da, nire iritziz, hango eguratsa lehor izatearen zergatia ere, eguzkiak bere ingurabidea erre egiten baitu; horrela, Libyako goialdean udak eusten dio beti. Baina urtaroen kokapena aldatuko balitz eta egun Boreas eta negua dauden zerugunean Notoren eta eguerdiaren kokapena balego eta orain Noto dagoen lekuan Boreas balego, hots, guztia horrela balitz, eguzkia, neguak eta Boreasek zeru erditik kanporaturik, orain Libyako barrualdean igarotzen den bezalaxe igaroko litzateke Europako barrualdean, eta, Europa zeharkatzean, egun Nilon egiten dituen lan berak Istron egingo lituzkeelakoan nago.

27. Haizekirriari buruz, Nilotik haizeak jotzen ez duelakoaz, honako iritziz hau dut: benetan ez da bidezkoa lurralde guztiz beroetatik inolako haizek ez jotzea; aitzitik, haizekirriak zerbait hotzetik jo izan ohi du.

28. Bitez, bada, gauzok diren eta hasieran izan ziren bezala. Niloren iturburuez, hitz egitera etorri zitzaizkidan egyptoar, libyar eta heleniarretatik inork ez zidan argibiderik eskaini, Egypton, Sais hirian, Athenearen¹¹⁹ altxor sakratuko eskribauak izan ezik. Baina horrek zehazki zekiela esatean, txantxetan ari zela iruditu zitzaidan. Izan ere, berak zioenez, Thebasko Syene hiriaren eta Elephantinaren artean gailurrak zorrotzera jotzen duten mendi bi daude: bata Krophia omen du izena; besteak, berriz, Mophi; Niloren iturburuak, bada, hondogabeak direlarik, mendion tartetik irteten omen dira, eta uraren erdia, ipar-haizerantz, Egyptora omen doa, beste erdia, berriz, hegoalderantz,

Ethiopiara. Eta iturburu hauek hondorik ez zutela frogatzera, Psametikho, Egyptoko erregea iritsi zela esan zuen; milaka besaldiren luzerako soka bat kordaraziz, bertara jaurti omen zuen eta ez omen zen hondoraino iritsi. Beraz, baldin eskribau honek gertaturikoa esan bazuen, nik ulertzen dudanez, han gorantz-beranzko zurrumbilo indartsuak zeudela azaltzen zuen, eta ura mendien kontra jausten zelako, ezin zela botatako hondorakina hondoraino iritsi.

29. Beste inorengandik ez nuen ezer jakin ahal izan, baina guztiz bide luzean neureganatu nuen beste hainbat jakingai: neure begiz Elephantinarainoko bidean batetik eta hemendik aurrera entzumenez eta galde eginez bestetik. Elephantina hiritik gorantz igotzen denarentzat lurraldea malkartsua da; ondorioz, hemen txalupak, idiak bezala, alde bietatik loturik joan behar du; eta, amarrak hausten badira, txalupa korrontearen indarrak eramaten du. Bestalde, lurralde horrek lau eguneko untzi-bidea du, eta era honetan egin behar den untzizko zeharkabidea hamaika eskenotakoa da; eta, ondoren, ordeka lau batera helduko zara, non Niloren korronteak irla bat inguratzen duen; Takhompso du izena. Elephantinaz gora jada ethiopiarrak bizi dira irlaren erdian; beste erdian, berriz, egyptoarrak. Irlaren hurrena aintzira handi bat dator, zeinaren ingurua ethiopiar nomadek sailkatzen duten¹²⁰; hau untziz zeharkatu ondoren, aintzira honi urak damaizkion Niloren korrontera iritsiko zara. Eta jarraian, untzitik irten ondoren, berrogei eguneko oinbidea egingo duzu ibaiertzean; zeren, Nilon harkaitz zorrotzak urgaineratzen eta uhaitz asko sortzen dira, zeinetan barrena nabigatu ezin den. Eta lurralde hau berrogei egunean zeharkatuta gero, berriz

beste untxi batera igoaz, hamabi egunez nabigatuko duzu eta, ondoren, Meroe deritzan hiri handi batera helduko zara. Hiri hau omen da gainerako ethiopiarren metropolia; bertakoek jainkoetan Zeus eta Dionyso bakarrik gurtzen dituzte, hauek, ordea, handiki ohoratzen; Zeusen orakulu bat ere ezarria dute; eta jainko honek igarpenez agintzen dienean doaz gerrara eta, joan ere, agintzen dien leku hartara joaten dira.

30. Hiri honetatik untziz Elephantinatik ethiopiarren metropolira iritsi zinen bezainbat denboran iritsiko zara desertoreen herrira. Hauei Asmakh deritzete, eta izen honek heleniarrez "erregaren ezker aldean jarriak" esan nahi du. Hain zuzen, berrehun eta berrogei mila egiptoar gudari igaro ziren ethiopiarrongana honako zio honengatik. Psametikhoren garaian gudazaingoak ezarri ziren Elephantina hirian ethiopiarren aurrean, beste bat pelusiar Daphnasen arabiarren eta asyriarren aurrean eta beste bat Marean Libyaren aurrean. Eta oraindik ere, nire eta persiarren garaian, Psametikhorenean zeuden bezalaxe irauten dute gudazaingoek; persiarrek, bada, gudazaintza egiten dute Elephantinan eta Daphnasen. Beraz, egiptoar horiek gudazaintzan hiru urte zaramatzaten arren, inork ez zituen zaintzatik liberatzen; batzartu ziren eta, elkar harturik, Psametikhoren utzi eta Ethiopiara igaro ziren. Psametikhok, jakitean, atzetik jarraitu zien eta, atzeman zituenean arren eta arren erregutu zien ez zitzatela bere arbasoen jainkoak, seme-alabak eta emakumeak utzi; eta, diotenez, haietako batek, bere lotsaizunak erakutsiz, honela erantzun omen zion, haiek zituzten lekuan han izango zituztela seme-alaba eta emakumeak ere.

Ethiopiara iritsi zirenean, beren buruak ethiopiarren erregeari entregatu zizkioten. Eta honek era honetan ordainsaritu zituen. Ethiopiar batzuk ez zetozen bat berarekin; hauek kanporatu eta haiei berauen lurretan bizitzera eragin zien. Desertoreek Ethiopian bizitzen jarri zirenetik, ethiopiarrek gizaberago bilakatu dira, egyptoarren ohiturak bereganatu ondoren.

31. Beraz, Nilo, Egypton duen bidea alde batera utzirik, lau hilabeteko untzialdi eta oinaldiraino ezagutzen da; honenbeste geratzen zaio Elephantinatik desertoreonganako bidean doanari, erabilitako hilabeteak batzen baditu; eta ibaia arratsaldetik eta [eguzkiaren] sarlekutik dator. Baina haragokoaz inork ezin du garbi hitz egin; lurralde hori eremu baita kiskaldurarengatik.

32. Baina, hona zer entzun nuen zyrenetar gizon batzuengandik. Joan omen ziren Amonen igarpenaz jabetzera eta amondarren errege Etearkhorekin hizketaratu omen ziren eta hizpidetik hizpidera Nilori buruzko elkarrizketara etorri omen ziren, inork ez zuela honen iturbururik ezagutzen eta. Etearkhok behinola nasamon batzuk etorri zitzaizkiola esan omen zien. Hau Libyako herri bat da eta Syrte eta Syrtez ekialdera dagoen lurraldean banatzen dira, ez urrunago. Eta nasamonak iritsi eta hauei Libyako eremuez zerbait gehiago esan zezaketen galdetu zienean, hala erantzun omen zioten: izan zirela beren artean gizon ahaltsuen ume ausartak, gizondu ondoren, besteren artean neurrigabeko egintzak burura zitzaizkienak, eta, bereziki, Libyako eremuak ikustearren eta urrunen ikusi zutenetatik are zerbait urrunago ikus ote zezaketen, bost gazte aukeratu zituztela zozketaz. Izan ere, Egyptotik hasi eta Libya amaitzen den Solunteko muturreraino, ipar itsasoaren eran dauden Libyako lurraldeen luzera osoan,

heleniarrek eta pheniziarrek okupatzen dutenetan izan ezik, libyarrak eta libyar herri asko daude hedatuak; baina itsasoz eta itsaso ondoan hedatutako biztanleez goitiko lurraldeei dagokienez, [goialdeotan] Libya piztiatsua da; eta lurralde piztiatsuaz goitikoak hondar, izugarri lehor eta alde guztietatik eremu dira. Gazte haiek, bada, beren adinekoek bidalirik, urez eta janariz ongi hornituta, jo omen zuten lehenik biziterrian barrena, eta hau zeharkatu ondoren alde piztiatsura iritsi omen ziren, eta hemendik irten eta eremua zeharkatu omen zuten, mendebal-haizearen kontra ibiliz. Eta egun askoren buruan lurralde hondartsu handia igaro zutenean, halako baten lautadan landatutako zuhaitzak ikusi omen zituzten; eta, hurreraturik, zuhaitz gainetako fruituak hartzen hasi omen ziren eta, hartzen ari zirela, gizon txiki batzuek, giza neurritz behekoak, eraso omen zieten eta, atxikirik, berekin eraman; eta ez nasamonek ulertzen omen zuten haien hizkuntza eta ez atxikitzaileek ere nasamonena. Eta zingira izugarrietan barrena eraman omen zituzten eta, hauek zeharkatu ondoren, guztiak eramaleen handitasun bereko eta kolore beltzeko zirenen hirira ailegatu omen ziren. Hiriaren alboan ibai handi bat omen zihoan, sartaldetik sortaldera joan ere, eta bertan krokodiloak agertzen omen ziren.

33. Bego honenbestean Etearkho amondarraren kontakizunaz azaldu dudana, hau gehitzeko ez bada: zyrenetarrek adierazi ziotenez, nasamonak etxeratu egin zirela esan zuen eta haiek iritsi ziren lekuko biztanleak denak aztiak zirela. Eta hiriaren alboan zihoan ibaiari dagokionez, Etearkhok ere Nilo zela susmatzen zuen, eta arrazoiak horrela dela frogatzen du. Izan ere, Nilo Libyatik dator eta Libya erdibituz etorri ere; eta, gauza ezezagunak agerietatik ezagupideratuz, neuk susmatzen dudanez

Istro bezain urrutitik abiatzen da. Zeren, Istro ibaia zelten lurraldetik eta Pyrene hiriritik abiatuz, Europa erdibituz doa. Eta zeltak Heraklesen Zutabeetatik at daude eta Europan sartalderantz egoitzaturik daudenetatik azken bizi diren zynesioekin¹²¹ mugakide dira. Bestalde, Istro, Europa osoa zeharkatuz, Ponto Euxino itsasoan, miletoar kolonoek bizi diren Istrian bukatzen da.

34. Hain zuzen, Istro biziterrian barrena doalako, askok ezagutzen du; Niloren iturburuez, ordea, inork ez dezake hitz egin; Libya, zeinetan barrena doan, biztanlegabe eta eremu baita. Honen korronteari buruz, ikertuz hel nintekeen bezain bide luzean hitz egina dago; Egyptori ematen dizkio urak, eta Egypto, goiti-beheti, Ziliziako mendialde aurrean datza; eta hemendik Ponto Euxinoko Sinoperaino ibiltari arin batentzat bost eguneko bidea dago zuzen-zuzenean; eta Sinope Istro itsasoratzen den aurrealdean datza. Horrela, Nilo, Libya osoa zeharkatzean, Istrori alderatzen zaiolakoan nago. Eta honenbestez aski bedi Niloz.

35. Eta luzaz hitz egitera noa Egyptoz, beste lurralde orok baino askoz gauza harigarriagoak dituelako eta, beste lurralde orori alderatuz, esan ezin ahalako obren jabe delako; horrengatik hitz egingo da gehiago honetaz. Egyptoarren beren zeru desberdinarekin eta beste ibaiek ez bezalako izaera duen ibaiarekin batera, ia gauza denetan beste gizonen alderantzizko ohitura eta legeak bereganatu dituzte. Hauen artean emakumeak dira plazara joan eta salerosketatxoak egiten dituztenak; gizonezkoak dira, berriz, etxe barruan geratuz, ehuntzen dutenak. Besteek irazkia gorantz bultzatuz ehuntzen dute; egyptoarren, ordea, berantz bultzatuz.

Gizonezkoek zamariak buru gainean daramatzate; emakumeak, ordea, bizkar gainean. Emakumezkoek zutik egiten dute pixa; gizonezkoek, berriz, makurtuta. Libramendua etxeetan egiten dute; jan, ordea, kanpoan, bideetan, lotsazko eginbeharrak ezkutuan eta lotsazkoak ez direnak agerian egin behar direla beren baitan pentsatuz. Ez da ez jainkoren ez jainkosaren apaiz den emakumerik; gizonezkoak, berriz, jainko eta jainkosa guztienak dira. Semeak, nahi ez badute, ez daude gurasoak mantentzera behartuak; alabak, berriz, guztiz behartuak daude, nahi ez badute ere.

36. Beste herrialdetan apaizek ilea luze dute; Egypton, ordea, moztu egiten dute. Gainerako gizonek, lutoarekin, kaskoa mozteko ohitura dute gehien erasandakoek; egyptoarren, aldiz, kaskamotz egonik, heriotzatan ilea eta bizarra luzatzen uzten dute. Gainerako gizonak abereengandik aparte bizi dira; egyptoarrak, berriz, abereekin batera. Besteak garitik eta garagarretik bizi dira; egyptoarren artean, ordea, hauetatik bizi denarentzat guztiz handia da desohorea; aitzitik, zenbaitek dseia deritzan olyraz egiten dute ogia. Irina hankaz oratzen dute; buztina, ordea, eskuz [eta gorotza jaso egiten dute]. Besteek, egyptoarren gandik ikasitakoek izan ezik, beren lotsaizunak jaiotako eran uzten dituzte; egyptoarrak, berriz, erdaindu egiten dira. Gizonezko bakoitzak soineko bi ditu; emakume bakoitzak, ordea, bat bakarra. Besteek belen eraztun eta sokak itsasuntziz kanpora lotzen dituzte; egyptoarren, berriz, barruan. Heleniarrek eskua ezkerretik eskuinera mugituz

idazten dituzte letrak eta kontatzen harkoskorrekin; egyptoarrekin, berriz, eskuinetik ezkerrera; eta, horrela egin arren, bere eskuinera eta heleniarrek ezkerrera egiten dutela diote. Eta bitariko letrak erabiltzen dituzte: bata sakratuak eta besteak herritarrak¹²².

37. Erlijioso neurritz kanpo direnez, gizon guztietan gehien erabiltzen dituzte honelako ohiturak. Brontzezko edalontzietatik edaten dute, garbitu ere egunero, ez honek bai eta hark ez, guztiek baizik garbitzen dituztelarik. Lihozko jantziak daramatzate, beti garbituberriak, arlo honetaz bereziki arduratzen direlarik. Garbitasunagatik beren lotsaizunak erdaintzen dituzte, nahiago baitute garbi izan itxura ederreko baino. Apaizek hiru egunez behin gorputz osoko ileak moztzen dituzte, jainkoak zerbitzatzean ez zorririk ez beste zomorro higuinarririk izan ez dezaten. Eta apaizek lihozko soineko bakarra eta papyrozko oinetakoak daramatzate, eta ez zaie zilegi beste soinekorik ez beste oinetakorik jatea. Egunean bi aldiz eta gauean bi aldiz ur hotzez garbitzen dira eta, nolabait esan, beste mila erlijio-iharduera burutzen dute. Hala ere, onura ez gutxi izan ohi dute, berenetik deus ez baitute ez kontsumitzen ez gastatzen; aitzitik, ogi sakratuak erretzen zaizkie eta egunero idien eta antzaren haragi ugari izan ohi da bakoitzarentzat eta mahats-ardoa ematen zaie; aldiz, ez zaie zilegi arraina hartzea. Eta egyptoarrekin ez dute inola ere lurrean babarik ereiten, eta sortzen direnak ez dituzte ez gordinik ez egosirik jaten; eta apaizek ezin dute ikustea ere jasan, lekari satsua dela uste baitute¹²³. Eta jainko bakoitzarentzat ez dago apaiz bakar bat, asko baizik, zeinetatik bata apaizburu den; eta hauetako bat hil dadinean, bere semeak hartzen du jarlekua.

38. Idiak Epaphorenak¹²⁴ direla uste dute eta horrengatik honela aztertzen dituzte: beren gainean ile beltz bat bederen ikusten badute, satsutzat daukate. Gauza hauek horretarako jarria dagoen apaiz batek miatzen ditu, azienda zutik eta hankazgora jarriarik eta, arauturiko seinaleetatik, zeinak beste baten aipatuko ditudan, aratz ote dagoen ikustearren, mingaina ateraraziz. Eta begiratzen dizkio isatseko ileak ere izaerari dagokion eran hazi ote zaizkion. Gauza hauetatik denetatik aratz badago, adarretan bildutako papiro batez seinalatzen du eta gero, zigilu-buztina gainean moldatu ondoren, hatz-zigilua ezartzen dio; eta honela erretiratzen dute aberea. Eta seinalegabeko idia opaltzen duenari heriotza-zigorra gaineratzen zaio.

39. Beraz, era honetan aztertzen da azienda, eta honako erre-oparitza hau dute eratua. Opaltzen duten aldarera seinalaturiko azienda eramanez, sua pizten dute eta gero, opalgaiaren gainera ardoa isuri eta jainkoari dei egin ondoren, lepo egiten diote; eta, lepo egindakoa, burua mozten diote. Eta aziendaren gorputza larrutu eta haren buru gainera arao asko jaurti ondoren, eramanez egiten dute; merkatuaz gainera bertan bizi diren merkatari heleniarrak dituzten lekuetan, merkatura eramanez, saldu egin ohi dute; heleniarrak ez den lekuetan, berriz, ibaira botatzen dute. Eta hau esanez jaurtitzen dituzte araoak buru gainera: opalgileoi edo Egipto osoari gaitzik hel badakie, itzul dakiola buru hari. Eta opalduriko aziendaren buruei eta ardo-isurtzeari dagokienez, egiptoar guztiek opalkuntza guztietan

era beraz ohitura berberak erabiltzen dituzte eta, ohitura honetan oinarriturik, egyptoar inork ez du dastatuko beste bizidun inoren bururik.

40. Erraien ateratzea eta erretzea, ordea, opalkuntza desberdinen arabera izaten da; hori dela eta, jainkosarik handiena dela uste dutenaz eta egiten duten ospakizunik handienaz mintzatuko naiz. Idia larrutu bide dutenean, otoi egin eta heste guztia ateratzen diote, baina barrunbe garrantzizkoenak eta gantza gorputzean utzi eta hankak, aldaka, sorbalda eta lepoa moztan dizkiote. Hau egin ondoren, idiaren gainerako gorputza irin hutsezko ogiz, eztiz, mahaspasaz, pikuz, intsentsuz, mirraz eta beste usaingarriz betetzen dituzte eta, bete ondoren, erre egiten dute, gainera olio ugari isuriz. Erre-oparia baraurik egin ohi dute eta opalgaiak sutan dauden bitartean, guztiek doluminez bular joka dihardute eta, bular jotzea amaitzen dutenean, opalgaietatik gordetako zatiak janaritarako aurkezten dituzte.

41. Egyptoar guztiek idi eta zekor aratzak opaltzen dituzte eta ez zaie zilegi behiak opaltzea, Isisi eskainiak baitaude. Izan ere, Isisen irudiak, emakumearena izanik, heleniarrek marrazten duten Iok bezalaxe, behi-adarrak ditu¹²⁵; eta abere guztietan behiak dira askoz egyptoar guztiek era berean gehien gurtzen dituztenak. Honengatik, ez egyptoar gizonezkoek ez emakumezkoek ez dio heleniar gizonezkoari ahoan musu emango, ez heleniar gizonezkoaren ganibetik ez burduntzirik ez pertzik erabiliko, ez eta heleniar ganibetaz ebakitako idi aratzaren haragirik ere dastatuko. Bestalde, era honetan lurperatzen dituzte akabatutako abelgorriak: behiak ibaira bota eta idiak hirien errebaletan

zulatoratzen dituzte, bietako adar bat edo biak lur gainean seinaleztat dituztela. Eta gorpua usteldu eta ezarritako denbora igarotzen denean, bari¹²⁶ bat etortzen da hiri bakoitzera Prosopitide deritzan irlatik. Hau Deltan dago, eta bere perimettoa bederatzi eskenotakoa¹²⁷ da. Hain zuzen, Prosopitide irla honetan hiri asko dago, baina abelgorrien hezurak jasotzera datozen barien hiriak Atarbekhis du izena, eta bertan Aphroditaren¹²⁸ santutegia eraikitzen da. Hiri honetatik asko dabil noraezean hiri batera eta bestera, eta hezurak lurretik atera eta denak leku berean lurperatzen dituzte. Eta beste aziendak ere, akabatzen direnean, abelgorriak bezala lurperatzen dituzte, hauei buruz horrela agintzen baitie legeak eta hil ere ez baitituzte hiltzen.

42. Thebasko Zeusi santutegia eraiki dion orok edota Thebas nomokoa denak, ardiak alde batera utziz, ahuntzak opaltzen ditu. Gurtu ere, egyptoar guztiek ez dituzte era berean jainko berak gurtzen, Isis eta Dionyso dela dioten Osiris izan ezik; hauek berdin gurtzen dituzte guztiek. Alabaina, Mendesen santutegia duen orok edota Mendeko nomokoa denak, ahuntzak alde batera utziz, ardiak opaltzen ditu. Horrela bada, thebastarrek eta hauenganako jarraibidez ardiak alde batera uzten dituen orok lege hau arrazoi honengatik ezarri zaiela esaten dute: Heraklesek ahalegin guztiz Zeus ikusi nahi omen zuen eta honek ez omen zuen hark ikusterik nahi, eta, azkenean, Herakles tematzen zenez, Zeusek "zera" asmatu omen zuen: aharia larrutu eta honi burua moztu ondoren aurrealdean jarri eta larrua jantziz, horrela

bere burua aurkeztea. Hemendik egin ohi dute egyptoarren Zeusen irudia ahariburuduna, eta egyptoarren amondarren ere, egyptoarren eta ethiopian kolono direnez eta bion arteko hizkera egiten dutenez. Eta amondarren beren buruari izena ere hemendik ezarri ziotelakoan nago, egyptoarren Zeusi Amon baiteritzate. Aldiz, thebarrak ez dituzte ahariak opaltzen; aitzitik, arrazoi beronengatik sakratutzat daukate. Hala ere, urteko egun batean, Zeusen jaian, ahari bat akabatu eta larrua kenduz, era berean jazen dute Zeusen irudia eta gero beste irudi bat, Heraklesena, hurreritzen diote; eta hau egin ondoren, santutegi inguruan dauden guztiek beren burua kolpatzen dute ahariarengatik eta jarraian jarleku sakratuan ehorzten dute.

43. Eta Heraklesi buruz hau entzun nuen: hamabi jainkoetako zela. Baina beste Heraklese, heleniarrek ezagutzen dutenaz, Egyptoko inongo lekutan ez nuen entzuterik izan. Alabaina, egyptoarren ez zutela heleniarrengatik [Heraklesen] izena hartu, alderantziz heleniarrek, eta heleniarren artean Amphitryonen semea Herakles izena ezarritakoek egyptoarren hartu zutela esateko, badut frogarik asko eta besteren artean hau batez ere: Herakles honen guraso biak, Amphitryon eta Alkmena, jatorriz Egyptokoak zirela, eta egyptoarren ez Posidonen eta ez Dioskuroen izenik ez dakitela esateaz gainera, jainkook ez dituztela beste jainkoen artean onartzen. Eta, hain zuzen, egyptoarren jainkoren baten izena heleniarrengatik hartu balute, jainko hauen izenaz ez zuten oso oroimen ahula izango, berezia baizik, baldin eta,

pentsatzen dudanez eta arrazoiak sinestarazten didanez, sasoi hartan bederen heleniar batzuk itsasketaz baliatzen eta itsasgizonak baziren; ondorioz, egyptoarren gehiago jakingo zuten jainko hauen izena Heraklesena baino. Egiptoarrentzat, ordea, Herakles antzinako jainko bat da; eta berauek diotenez, Amasisen erregetzaraino hamazazpi mila urte igaro ziren zortzi jainkoetatik hamabi jainko izatera iritsi arte, zeinetatik bat Herakles dela uste duten.

44. Gai hauetaz zerbait garbirik eman zezakeenengandik jakin nahiz, Pheniziako Tyrora ere nabigatu nuen, bertan Heraklesi eskainitako santutegi bat bazela jakitean. Eta eskaintza desberdin eta ugariz aberaski hornitua ikusi nuen, eta bertan baziren stela bi, urre hutsezkoa bata, eta bestea gauez asko distiratzten zuen esmeraldazkoa. Jainkoaren apaizekin hizpideratuz, santutegia eraiki zenetik zenbat denbora zen galdetu nien; eta hauek heleniarrekin ez zetozeela bat kausitu nuen; Tyro fundatu zen garai berean eraiki zela esan baitzuten jainkoaren santutegia, eta Tyron bizitzen jarri zirenetik bi mila eta hirurehun urte zirela. Eta Tyron ikusi nuen Heraklesen beste santutegi bat ere, goitizenez Thasoarra zeritzana. Eta joan nintzen Thasora ere, non Europaren bila itsasoratuz Thaso fundatu zuten pheniziarrek eraikitako Heraklesen santutegia topatu nuen; eta gertaera hauek Heladen Amphitryonen seme Herakles jaio baino bost belaunaldi lehenagokoak dira. Beraz, nire ikerkuntzek garbi azaltzen dute Herakles antzinako jainkoa dena; eta iruditzen zait heleniar hauek guztiz zuzen jotzen dutela Heraklesen bi santutegi eraki eta edukitzean; eta batari, goitizenez Olympoarra denari, hilezkortzat opaltzen diote; heroitzat, berriz, besteari.

45. Heleniarrek beste gauza asko ere kontatzen dute begiratu gabe; eta Heraklesez kontatzen duten istorio hau ere zoroa

da; hots, Egyptora iritsi zenean, egyptoarren koroatu eta prozesioan eraman omen zuten Zeusi opaltzeko; orduraino lasai egon omen zen; baina aldare aurrean opaltzeari ekin ziotenean, indarrera joaz, haiek guztiak hil omen zituen. Alabaina, heleniarrak, hau kontatzean, egyptoarren izaeraz eta ohiturez osoro ezjakinean daudela iruditzen zait. Izan ere, jainko-legez zerriak, idiak eta txekorrak, aratzak izan daitezkeenak bederen, eta antzarak izan ezik, aziendak opaltzea zilegi ez zaienek, nola opal ditzakete hauek gizonak? Bestalde, oraindik Herakles bakarra bada eta, diotenez, oraindik gizon izanik, nola du ahalmena milaka hiltzeko? Eta gai hauetaz hainbat gauza esan dugunok jainkoen eta heroien onginahia izan dezagula.

46. Hona zergatik ez dituzten ahuntzak eta akerrak opaltzen aipaturiko egyptoarren. Mendestarrek uste dute Pan zortzi jainkoetakoa dela eta zortzi jainkook hamabiak baino lehenagokoak direla diote. Horrela bada, margolariek eta irudigileek Panen irudia, heleniarren arabera, ahuntzburudun eta akerhankadun marrazten eta zizelatzen dute, ez horrelakoa dela uste dutelako; aitzitik, beste jainkoen antzekoa delakoan daude; baina zergatik horrela marrazten duten esatea ez zait atsegin. Mendestarrek ahuntz oro gurtzen dute eta arra gehiago emea baino, eta ahuntzainek begiramen gehiago diete arrei; eta hauetatik bati bereziki, zeinak hiltzen denean samin handia ezartzen duen mendestar nomo osoan. Hain zuzen ere, akerrari eta Pani egyptoeraz Mendes deritzete. Eta ene garaian nomo honetan izugarritzko bat gertatu zen: akerra emakume batekin ageriki lotu zen. Hau jendearen ikusmenera iritsi zen.

47. Zerria, ordea, egyptoarren abere kutsatutzat daukate; hau dela eta, alde batetik, alboan igarotzean norbaitek zerri bat uki baleza, ibaira joan eta jantzi berekin sartu ohi da uretan; bestalde, zerrizainak, jatorriz egyptoar izan arren, denetan bakarrik dira Egipton inongo tenplutara sartzen ez direnak, inork ez die bere alaba ezkontzarako eman nahi, ez eta beraingandik hartu ere; aitzitik, zerrizainek elkarrengandik eman eta hartu ohi dituzte ezkontideak. Egiptoarren ez daukate zuzentzat beste jainkoei zerriak opaltzea; Seleneri eta Dionysori bakarrik aldi berean, ilargibete berean, eta, zerriak opaldu ondoren, hauen haragitik jaten dute. Zergatik beste ospakizunetan zerriak gaitzetsi eta horretan opaltzen dituzten, bada horretaz egiptoarren kontatutako istorio bat, baina, jakin arren, ez zait kontatzeko hain egokia iruditzen. Eta hona Seleneri egiten zaion zerri-oparia: hil ondoren, isats-punta, barea eta baresarea leku berean bateratuz, aziendaren sabel inguruan dagoen gantz guztiarekin estali eta gero suz erretzen dira. Gainerako [haragi]a erre-opariak eskain ditzaketen ilargibeteko egunean jaten dute, eta jada ez bide dute dastatzen beste egunez. Eta beren arteko behartsuek, bizimoduaren ahulaz ogi-irinezko zerriak maneatu eta egosi ondoren, hauexek opaltzen dituzte.

48. Eta Dionysoren goralmenez jai-bezperan nork bere aturrean zerriari lepo egin eta saldu zion zerrizain berari ematen dio eraman dezan. Gainerakoan, egiptoarren koruek beste ia denetan heleniarren modu berean ospatzen dute Dionysoren jaiak. Baina faloaren ordezkariak gauza hauek asmatu dituzte: hariz mugitzen diren besoaren neurriko irudiak, zeinak emakumezkoek

herrixketan barrena prozesion daramatzaten, gainerako gorputza baino askoz txikiago ez den zakila¹²⁹ gora eta behera dabilelarik; eta xirula bat doa aurretik, eta emakumeek abestuz Dionysori darraiote.

49. Beraz, ez dut uste Melampo Amytheonena opalkuntza honetan ezjakin zenik, trebe baizik. Melampo baita, hain zuzen, Dionysoren izena, opalkuntza, eta faloaren prozesioa heleniarrei ezarri ziena. Zinez, ez zien den-dena batera erakutsi, aitzitik, honen ondorengo jakintsuek hobeki agertu zieten; hala ere, Melampo da Dionysoren goralmenezko prozesioan faloa ezarri zuena, eta heleniarrek honengandik ikasita egiten dute egin ohi dutena. Eta nik diot Melampok, gizon jakintsua izanik, igarletza bereganatu zuela eta, Egyptotik gauza askoren berri jasoaz, besteren artean Dionysori buruzkoak ere ezarri zizkiela heleniarrei aldaera apur batzuekin. Izan ere, esan behar dut Egypton jainkoari egiten zaizkion jaierak eta heleniarren artekoak ez datozela berez bat; heleniarren izaera berekoak izango bailirateke eta ez berriki ezarriak. Baita ere esan behar dut egyptoarren ez hori eta ez beste edozein ohitura ez dutela heleniarrengandik hartu. Batez ere uste dut Dionysori buruzkoak Melampok Tyroko Kadmorengandik eta berarekin Pheniziatik orain Beozia deritzagun lurraldera etorri zirenengandik jakin zituela.

50. Bestalde, ia jainko guztien izenak Egyptotik etorri dira Heladera. Barbaroengandik iritsi direla, azterketak egitean horrela aurkitu dut; eta bereziki Egyptotik heldu direlakoan nago. Izan ere, lehenago esan dudanez, Posidon eta Dioskuroak eta, horiez gainera,

Hera, Histia, Themis, Khariteak eta Nereidak izan ezik, beste jainkoen izenak betidanik dira lurralde hartan. Egiptoarrek berek diotena esaten dut. Eta, jainko batzuen izenak ez dituztela ezagutzen diote, baina jainko hauek, Posidonek izan ezik, pelasgiarrek jarritako izena dutela uste dut. Jainko honen ezaguera libyarrengandik izan zuten; izan ere, inongo herrik ez baitu hasieratik Posidonen izenik izan libyarrez beste, eta betidanik ohoratzen dute jainko hau. Eta egiptoarrek ez dituzte inola ere heroiak sinesten.

51. Ohitura horiek, bada, eta horiez gainera esango ditudan besteak heleniarrek egiptoarrengandik berenganatu dituzte; baina ez zuten egiptoarrengandik ikasi Hermesen irudiak zakil zutiarekin¹³⁰ egiten, pelasgiarrengandik baizik, hain zuzen heleniarren artean lehenik athenastarrek eta hauengandik gainerakoek oinordetu zutelarik. Izan ere, garai hartan lurraldean heleniarren partaide ziren athenastarrekin pelasgiarrak bizilagun izatera iritsi ziren eta, hasi ere, hemendik hasi ziren heleniartzat hartuak izaten. Eta pelasgiarrengandik eskuratu ondoren samothraziarrek ospatzen dituzten kabioren misterioetan eskolaturikoa edozein dela ere, gizon horrek badaki zer diodan; zeren, athenastarren bizilagun izan ziren pelasgiar hauek lehen Samothrazian bizi ziren, eta samothraziarrek haiengandik jaso zituzten misteriogintzak. Beraz, heleniarren artean athenastarrak izan ziren lehenak pelasgiarrengandik ikasi eta Hermesen irudiak zakil zutiarekin egiten. Eta gai honetaz Samothraziako misterioetan azaldua izan den edesti sakratu bat kontatu zuten pelasgiarrek.

52. Eta pelasgiarrek lehen erre-opari guztiak jainkoei otoi eginez egiten zituzten, nik Dodonan entzunda dakidanez, baina berauetako inoren goitizenik ez izenik ez zuten aipatzen; artean ez baitzituzten entzun. Eta, hain zuzen, honengatik deitu zieten jainko (?eouv"), banaketa oro gauza guztiak ordenan

jarritz (?evnte") egiten zutelako. Baina denbora askoren buruan Egyptotik etorritako beste jainkoen izenak ikasi zituzten, Dionysorena askoz geroago ikasi bazuten ere; eta handik aldi batera izen hauetaz galde egin zioten Dodonan orakuluari; zeren orakulu hau heleniarretan zaharrenetzat jotzen da eta, izan ere, garai honetan zaharrena zen. Beraz, pelasgiarrek Dodonan ea barbaroengandik etorritako izenak beregana zitzaketen galde egin zutenean, orakuluak erabiltzeko esan zien. Orduz geroztik jainkoen izenak erabiliz opaldu ohi zuten; eta ondoren pelasgiarrengandik hartu zituzten heleniarrek.

53. Baina jainkotako bakoitza nondik sortu zen edota guztiak betidanik ote ziren edo zer-nolalo itxurak zituzten, esate baterako herenegun edo atzo arte ez zekiten. Hesiodo eta Homero, bada, adinez ni baino lauhun urte direla uste dut zaharrago, ez gehiago; eta hauek dira poematan heleniarrentzat theogonia sortu zutenak eta jainkoei beren goitizena eman, ohoreak eta trebeziak banatu eta beren itxurak seinalatu zizkienak; eta hauek baino lehenago jaio zirela dioten poetak, nire iritziz, geroago jaio ziren. Gauza hauetan lehenak Dodonako sazerdotesek esaten dituzte, baina hurrengoa, Hesiodori eta Homerori dagokiona, neuk esaten dut.

54. Eta heleniarren artean eta Libyan dauden orakuluei buruz egyptoarrekin istorio hau kontatzen dute¹³¹. Thebasko Zeusen apaizek esan zidatenez, bi emakume sakratu harrapatu zituzten pheniziarrek Thebastik, eta haietako bat Libyan eta bestea heleniarren artean saldu zutela jakin omen zuten; eta emakume hauek izan omen ziren aipaturiko herriotan lehen orakuluak eraiki zituztenak. Eta nik

galdetu nienean nola hain ezagupen zehatzez kontatzen zidaten, honi erantzunez, emakume haien bila luzaz ibili zirela erantzun zidaten eta ezinezkoa gertatu zitzaiera aurkitzea, eta gero jakin zutela hain zuzen beraietaz kontatu zidaten guztia.

55. Hori entzun nuen, bada, Thebasko apaizengandik; Dodonako prophetesek, ordea, honako hau diote: bi uso beltz, egyptoarren Thebastik hegan eginez, bata Libyara eta bestea berengana heldu omen zitzaien. Artearen gainean jarritz giza ahotsez hitz egin omen zien, bertan Zeusen orakulu bat behar zela esanez, eta dodonarrek, jainko-agindua zutela ulertuz, esan bezala egin omen zuten. Libyara joan zen usoak, berriz, libyarrei Amonen orakulua sortzeko agindu omen zien; Zeusen orakulua ere bada hau. Horra dodonarren sazerdotesek kontatu zidatena, zeinetan zaharrenari Promenea zeritzan, hurrengoari Timarete eta gazteenari Nikandra; eta santutegi inguruko beste dodonarrak ere bat zetozen hauekin.

56. Hala ere, nik gauzoz iritzi hau dut. Baldin pheniziarrek emakume sakratuak egiatan eramanez, eta bata Libyan eta bestea Heladen saldu bazuten, nik uste dut emakume hau orain Helade eta lehen Pelasgia zeritzan lurralde berean thesprotiarrei saldu zirela; gero, hemen esklabo zelarik Zeusen santutegia eraiki zuen bertan landaturiko arte baten azpian, itxurazkoa baitzen Thebasko Zeusen santutegian zerbitzatu ondoren, iritsi zen lekuan haren oroimena izatea. Eta harrezkero, heladeraz jabetu zenean, orakulua ezarri zuen. Eta ahizpa ere bera saldu zuten pheniziarrek berek saldu zutela Libyan esan omen zuen.

57. Eta nik uste dut dodonarrek arrazoi honengatik deitu zietela uso emakumeoi: barbaroak zirelako eta, hain zuzen, txorien antzeko ahotsez mintzo zirela iruditzen zitzaielako. Denboraren buruan, ordea, emakumea ulergarri zitzaizkien gauzak esaten hasi zenean, usoa giza ahotsez mintzatzen hasi omen zen; aldiz, barbarreraz ari zenean, txorien erara mintzo zela uste zuten; izan ere, nola mintza zitekeen usoa giza ahotsez? Eta usoa beltza zela diotenean, emakumea egyptoarra zela adierazten dute. Eta, hala beharrez, Egyptoko Thebasen erabiltzen den igarkuntza eta Dodonakoa elkarren parekoak dira. Eta opalgaien bidezko igarkuntza ere Egyptotik etorria da.

58. Eta herri-jaibilkurak, prozesioak eta eskaintza-eramateak egin dituzten munduko lehenak egyptoarrak dira, eta heleniarrek hauetatik ikasi dute. Eta hona hemen horren froga: nabaria da ospakizun horiek aspaldidanik egiten direla; heleniarrak, ordea, berriki sortu ziren.

59. Eta egyptoarrek ez dituzte herri-jaibilkurak urtean behin bakarrik egiten, asko baizik. Nagusiena eta sutsuena Artemisen¹³² goralmenez Bubastis hirian egiten dute. Bigarrena Busiris hirian Isisen goralmenez; hiri honetan, izan ere, Isisen santutegi guztiz handi bat dago eta hiri hau Egyptoko Deltaren erdian jaikitzen da eta Isis heleniarren hizkuntzan Demeter da. Hirugarren herri-jaibilkura, berriz, Sais hirian egiten da Athenearen goralmenez. Laugarrena Heliopolisen Helioren goralmenez. Bosgarrena Buto hirian Letoren goralmenez. Eta seigarrena Papremis hirian Aresen goralmenez.

60. Beraz, Bubastisa doazenean, gauzok egiten dituzte: gizonezkoek eta emakumezkoek batera nabigatzen dute eta baris bakoitzean bietako ugari doaz; emakumetako batzuek, krotaloak berekin

dituztela, krotaloak astintzen dituzte; gizonezkoek, berriz, nabigaldi osoan xirula jotzen dute, eta gainerako emakumezkoek eta gizonezkoek abestu eta eskuak txalokatzen dituzte. Eta untziz beste hiri baten barrena igarotzen direnero, barisa lehorreratu eta hau egiten dute: emakume batzuek esan dudana egiten duten bitartean, besteek hiri horretako emakumeak deiadarka isekutzen dituzte, eta besteek dantza egiten dute, eta besteak, zutik jarri, bilostu egiten dira. Hori da egiten dutena ibaiertzetako hiri orotan. Eta Bubastisa iristean, jaia ospatzen dute erre-opari handiak eskainiz, eta gainerako urte osoan baino gehiago gastatzen da mahats-ardoa. Eta bertakoek diotenez, handik eta hemendik bat egin ohi duten gizon-emakumeak, haurrak salbu, zazpiehun milatara iristen dira.

61. Horra, bada, Bubastisen egiten dena. Eta gorago esana dut Busiris hirian nola ospatzen duten Isisen goralmenezko jaia. Opalkuntzaren ondoren, gizon eta emakume guztiak, milaka eta milaka pertsona, bular-joka ari izan ohi dira doluz; norengatik aritzen diren esatea, ordea, ez zait adeitsu¹³³. Eta Egypton bizi diren kariar guztiek oraindik hori baino gehiago egiten dute, hainbat ezen, bekokia ganibetaz ebakitzen dute, eta horrengatik nabari zaie egyptoarrak ez baino atzerritarrek direna.

62. Eta Saisen opalkuntzetarako biltzen direnean¹³⁴, gau baten guztiek egurats-argi ugari pizten dute borobilean bizilekuen jiran¹³⁵. Argiontzi hauek gatzez eta olio beteriko kriseiluak dira, gainaldean metxa bat dute eta honek gau osoan su dagi. Honi Su-argiaren Jaia deritzate. Bestalde, herri-jaibilkura honetara ez doazkeen egyptoarren, opalkuntzaren gaua zainduz, hauek guztiek ere argiontziak pizten dituzte eta, horrela, Saisen ez ezik Egypto osoan ere pizten dituzte. Zergatik gau honi suertatu zitzaion honelako argia eta ohorea, gai honetaz bada kontatu ohi den edesti sakratu bat.

63. Joan-etorria Heliopolisa eta Butora egin ohi dutenek opalkuntzak baizik ez dituzte egiten. Papremisen, ordea, beste lekutan bezala egiten dituzte opalkuntzak eta egintza sakratuak; baina, eguzkia beherantz doanean, apaizetako gutxiren batzuek imajinaren inguruan dihardute, eta gehienak, egurrezko borrak eskutan dituztela, santutegiko sarreran egoten dira tente; eta gainerako gizonetatik milaz gora, beren promesak beteaz, nork bere bastoia eskuan duela, haien kontrako aldean jartzen dira zutik. Bestalde, imajina, zur urreztatuzko kaperatxoan dagoena, bezperan alde zurratik beste egoitza sakratu batera eramaten dute. Eta, horrela, imajinaren inguruan geratu den apaiz banakak kapera eta kapera barruko imajina daraman lau gurgileko gurdia arrastatzen du; propyleotan zutik dauden beste apaizek, berriz, sartzea galarazten die; promesgileek, ordea, jainkoaren alde ekinez kolpatu egiten dituzte, haiek beren burua babestuz. Orduan bastoikadazko borroka bortitza pizten da eta kaskezurrak apurtzen dituzte eta, nire ustez, ez bide dira gutxi hiltzen zauriengatik; hala ere, inor ez zela hiltzen esaten zuten egypcioarrek. Eta bertakoek herri-jaibilkura hau honengatik jarri zutela diote: santutegi honetan Aresen ama bizi omen zen eta Ares, kanpoan hazia izanik, giza adinera heldu zenean, amarekin elkartu nahiz iritsi omen zen, eta amaren zerbitzariak, lehenago ikusi ez zutelarik, ez omen zioten ondoratzen utzi, aitzitik, aldendu egin omen zuten; hark, ordea, beste hiri batetik gizonak ekarri, zerbitzariak gogor tratatu omen zituen eta amarengana sartu omen zen. Hemendik ezarri zela diote Aresen jaiari jipoiketa honen ohitura.

64. Eta egypcioarrok dira santutegietan emakumeekin ez elkartzeko eta emakumeetatik datorrenean garbitu gabe santutegietan ez sartzeko bete duten lehenak. Zeren ia beste gizon guztiak,

egyptoarrak eta heleniarrak izan ezik, emakumeekin etzaten dira santutegietan eta [jaikitzean] garbitu gabe barruratzen dira, gizonak beste abereak bezala diren ustean. Izan ere, azienda eta hegazti-mota guztiak jainkoen tenpluetan eta esparru sakratuetan estaltzen ikusten omen dituzte; eta hau jainkoari begiko ez balitzaio, aziendek ez omen lukete egingo. Dena den, aitzakia hauek gaineratuz egin ohi dituzte niretzat bederen egoki ez dauden gauza horiek.

65. Egyptoarren sobera bete ohi dituzte eginkizun sakratuak, besteren artean hauek bereziki.

Egypto Libyarekin mugakide izan arren, ez da aberetsu; hala ere, bai gizonekin [berekin] bizi direnak, bai bizi ez direnak, guztiak dauzkate sakratutzat. Eta sakratutzat zergatik jotzen dituzten esan baneza, bereziki adierazi nahi ez ditudan jainko-arazoetan sar ninteke nire mintzoarekin. Aipatu ditudanak ere, ukituz bederen, ezinbestez esan ditut. Eta abereez honelako joera dute. Egyptoar gizonezkoak bezala emakumezkoak ere abere-mota bakoitzaren banakako haziketaz arduratzen dira, eginkizun hau haurrak gurasoengandik jasotzen duelarik. Eta hirietako guztiek eta bakoitzak haiekiko promes hauek betetzen dituzte: aberearen jainko izan bide denari otoi eginez, semeen buru oso, erdi edo hereneko ilea moztu eta ileak balantzaz jartzen dituzte zilarrarekin; eta pisa dezaketena abereen arduradunari ematen diote; eta honek trukean, arraina ebakiz, abereei janaritzat ematen die. Honelako mantenua aurkezten zaie. Eta norbaitek abere hauetakoren bat akabatzen badu, nahita izanez gero, heriotza-zigorra du, eta, nahi gabe bada, apaizek ezar diezaioketen isuna ordaintzen du. Baina ibisa edota belatza akabatzen duenak, nahita ala nahi gabe akabatu, hil beharra du.

66. Eta gizonen bizilagun diren abereak asko izanik, oraindik askoz gehiago lirateke katuei gauza hauek gertatuko ez balitzaizkie. Emeeek erditzen dutenean, jada ez dute arrenganako joerarik; eta hauek, haiekin lotzea desiratzen duten arren, ezin dute. Horretarako, bada, azkarkeria hau asmatzen dute: emeei umeak harrapatu eta ezkutuan kenduz, hil egiten dizkiete; hil ondoren, ordea, ez dituzte jaten. Eta haiek umerik gabe geratzean eta beste batzuen nahian, arrengana alboratzen dira; abere hau umezalea baita. Eta sutea sortzen denean, katuei gauza harrigarriak gertatzen zaizkie; izan ere, egyptoarrekin, han-hemenka jarritz, katuak zaintzen dituzte, sua itzaltzeaz arduratu gabe; katuek, ordea, jendartean sartu eta gainetik jauzi eginez, sutara jaurtitzen dira. Gertakizun hauek direla eta, atsekabe handi batek bereganatzen ditu egyptoarrak. Eta edozein etxetan katua berez hil badadi, bertan bizi diren guztiek betilak mozten dituzte; zakurra hil badadi, ordea, gorputz osoko eta buruko ilea ere bai.

67. Eta katuak hiltzean, Bubastis hirian aterpe sakratuetara eramaten dituzte, non gantzutu ondoren lurperatzen dituzten; aldiz, zakurrak norberaren hirian hobi sakratuetan lurperatzen dituzte. Eta ikhneumonak ere zakurrak bezala lurperatzen dira. Satitsuak eta belatzak, berriz, Buto hirira eramaten dituzte eta ibisak Hermopolisa¹³⁶. Eta bakan diren hartzak eta azeriak baino askoz handiagoak ez diren otsoak hilda aurkitzen dituzten leku berean zuloratzen dituzte.

68. Krokodiloen izaera, berriz, honelakoxea da: negu gorriko lau hilabete¹³⁷ deus ez du jaten; lauhankakoa izanik, lehorrekoa eta zingiretakoa da; hain zuzen, arraultzak lurrean ipini eta txitatzen ditu, eta egunaren zatirik handiena lehorrean igarotzen du, gau osoa, berriz, ibaian; ura eguratsa eta ihintza baino beroagoa baita. Guk ezagutzen ditugun izaki hilkorretan hauxe da txikienetik handien egiten dena; zeren, antzarek baino askoz arraultza handiagoak ez ditu ipintzen eta txita arraultzaren neurrikoa da, baina haztean hamazazpi beso eta gehiago ere izatera iristen da. Eta zerriaren begiak ditu, hortzak luze, eta [gorputzaren araberako] letaginak. Abereetan bakarra da berez mingainik ez duena. Ez du behe-baraila mugitzen; aitzitik, hau da abereetan bakarra goikoa behekoratzen duena. Halaber, atzapar sendoak eta bizkarrean ezkatadun azal haustezina du. Itsua da uretan; eguratsetan, ordea, guztiz begizorrotza. Eta bizitza uretan egiten duenez, aho barrena izainez betea darama dena. Gainerako hegazti eta abereek ihes egiten diote, baina trokhiloarekin baketsu bizi da, honek lagundu egiten baitio; izan ere, krokodiloak uretatik lurrera atera eta ahoa zabaltzen dueneko (gehienetan zefirorantz zabaltzeko ohitura baitu), une berean trokhiloak, haren aho barruan sartuz, izainak irensten dizkio; eta krokodiloak atsegin hartzen du laguntzarekin eta trokhiloari ez dio ezeren kalterik egiten.

69. Krokodiloak sakratu dira zenbait egiptoarrentzat; ez, ordea, beste zenbaitentzat; aitzitik, areriotzat hartzen dituzte. Thebas eta Meris aintziraren inguruko biztanleek guztiz sakratuak direla uste dute. Herrialde biotako bakoitzak krokodilo guztietatik bat hazten du, eskurakoi izaten irakatsiz,

belarrietan harlanduz eta urrez xartaturiko zintzilikarioak eta aurreko hanketan zirgiloak ezarriz, janaritzat jaki bereziak eta opalgaiak emanez, eta bizi direno ahalik ongien zainduz; eta, hiltzean, baltsamatu eta egoitza sakratuetan hobiratzen dituzte. Hala ere, Elephantina hiri inguruko biztanleek, sakratuak direnik uste ez dutelako, jan egiten dituzte. Hain zuzen, ez deritzete krokodilo, khampsai baizik; joniarrak deitu zieten krokodilo, hauen itxurari sasondoetan ziren muskerren¹³⁸ antza ematen zitelako.

70. Eta hauek harrapatzeko ehizaera asko eta desberdinak daude; hala ere, adierazgarrieneztat dudana idatziko dut. Ehiztariak erakargarritzat zerri-solomoa amuaren jiran jartzen duenean, ibai erdira jaurti eta berak ibaiertzean berekin duen zerri bat kolpatzen du. Kokodriloak, garrasia entzutean, hotsaren eran abiatzen da eta, solomoa topatu ondoren, irentsi egiten du; besteek, beren aldetik, tira egiten diote. Eta lurrera arrastatzen dutenean, ehiztariak gauza guztien aurretik begiak lohiz igurtzi ohi dizkio; horrela eginez gero, gainerakoan oso erraz menperatzen du; ez eginez gero, ordea, nekez.

71. Bestalde, hipopotamoak¹³⁹ sakratu dira Papremisko nomoan; ez, ordea, beste egyptoarrentzat. Eta itxuraz izaera hau ematen dute: lauhankakoa da, idiaren arabera oinazkazal bikoa eta sudurmotza, zaldiaren zurda du, letaginak erakusten ditu, isatsa eta irrintzia zaldiarenak ditu eta iditzarra bezain handia da. Bere azala, berriz, hain da lodia non berarekin, lehortzen denean, jabalina-muturrak egin daitezkeen.

72. Eta igarabak ere badira ibaian; hauek sakratutzat dauzkate. Eta arrainetatik lepidotoa deritzatena eta aingira ere -hauek Nilori¹⁴⁰ sagaratuak daudela diote- eta hegaztietatik khenalopekoak, sakratu direla sinesten dute.

73. Eta bada beste hegazti sakratu bat ere phenix¹⁴¹ deritzana. Neuk ez dut marrazkian baizik ikusi; izan ere, egyptoarrei bakan egin ohi die joan-etorria, heliopolistarrek diotenez, bostehun urtez behin; hain zuzen, joan-etorri hori aita hil dakionean egiten omen die. Eta marrazkiaren antzekoa bada beintzat, honenbestekoa eta honelakoa da: bere hegatsetako luma batzuk urre kolorekoak dira; beste batzuk, berriz, gorriak; ingurunez eta handitasunez osoro da arranoaren antzekoa. Sinestezin zaidana badiote ere, honako egite miresgarri hau burutzen omen du: Arabiatik abiatuz, aita barrutik mirraz igurtzirik, Helioren santutegira garraiatu eta bertan hobiratzen omen du; eta, garraiatu ere, honela garraiatzen omen du: agi denez, lehenik eraman ahal duen neurriko arraultza egin eta gero, eraman dezakeenentz proba egin ondoren, arrautza hustu eta aita barruan sartzen du, eta, gainerako mirrarekin, arraultza hustu ondoren aita sartu duen barrualdea igurtzitzen du, eta, aita barruan dagoela, pisu bera izatera heltzen da, eta, barruz igurtzirik, Egyptoko Helioren santutegira garraiatzen du. Hegazti horrek horrelakoak egiten dituela diote.

74. Eta badira Thebas inguruan gizonentzat inola ere kaltegarri ez diren suge sakratuak, tamainuz txiki izan arren buru gainetik sorturiko adar bi daramatzatenak, hiltzean Zeusen santutegian ehorzten dituztenak; jainko honi sagaratuak daudela baitiote.

75. Bestalde, bada Arabian lurralde bat, gutxi gora-behera Butos hiriaren aurrean datzana, eta lurralde horretara iritsi

nintzen suge hegadunen berri jakin nahiz. Bertaraturik, esan ezin hainbeste suge-hezur eta arantza ikusi nituen; arantza-pilak zeuden, handiak, handiz behekoak eta txikiagoak ere bai, eta asko ziren hauek. Arantzak pilaturik zeuden lurralde hau honelako bat da: mendietatik lautada zabalerako igarobide estu bat da, eta lautada hau Egyptoko lautadarekin lotzen da. Eta esaera bat bada, udaberriarekin batera suge hegadunak Arabiatik Egyptora hegaldatzen direla esaten duena; ibisek, ordea, lurralde honetako igarobidean aurre eginez, sugeei sartzen utzi ordez hil egiten omen dituzte. Eta arabiarrek diote ibisak lan honengatik direla hain preziatuak egyptoarren artean; eta egyptoarrek ere ezagutzen dute hegaztiok horrengatik estimatzen dituztena.

76. Eta hona ibisaren eitea: den-dena beltza da eta kurriloaren hankak daramatza, mokoak guztiz mako, uroilanda bezain handi; hau da sugeren aurka borrokatzen diren ibis beltzen ikuspegia. Aldiz, hona hemen gizonen hanketara gehien hurbiltzen direnena (bi eratako ibisak baitaude): buruari eta zintzur osoari dagokionez, soila da, lumazuria, buruari, hego eta isats-puntei dagokiena izan ezik (eta aipatu ditudan zati hauek izugarri beltzak dira); hankei eta mokoari dagokionez, berriz, beste ibisaren antzekoa da. Bere aldetik, sugearen forma uretakoaren tankerakoa da. Ez daramatza lumazko hegoak, saguzarraren guztiz antzeko hegatsak baizik. Bego horrenbestean abere sakratuez esan dudana.

77. Hain zuzen, egyptoar berauen artean, Egyptoko ereintza-lurretako biztanleak dira luzaz, oroimena gehien lantzean, ni harremanak izatera iritsi naizen gizon guztietatik kontu-esaleenak. Eta biziera hau daramate: hilabete bakoitzaren buruan hiru egunez jarraian hartzen dute purga, osasuna gonbitoekin eta labatibekin eskuratuz, gaixotasun guztiak elikagaietatik datozela sinesten baitute. Izan ere, libyarren ondoren, besterik bada, egyptoarrak dira gizon guztietan osasuntsuenak, nire ustez, giroa dela medio, urte-giroak aldatzen ez direlako; zeren, batez ere aldaketetan sortzen zaizkie gizonen gaixotasunak; beste guztien artean giroarenetan bereziki. Olyraz eginiko ogiak, beraiek kyllestis deritzatenak, jaten dituzte. Eta garagarrez egindako ardoa erabiltzen dute; mahastirik ez baitute beren lurraldean. Eta arrainetatik batzuk eguzkitan zimeldu ondoren, gordinik jaten dituzte; besteak, berriz, gazituak. Aldiz, hegaztietatik galeperrak, ahateak eta txoriak, aurrez gazitu eta gordinik jan ohi dituzte; eta sakratutzat ez dauzkaten gainerako hegazti eta arrain guztiak erreak edo egosiak jaten dituzte.

78. Bestalde, beren arteko ondasuntsuen bilkuratan, otorduaren amaierara iristean, gizon batek zerraldoan zurezko gorpua, margoz eta zur-lanez ongi itxuratu eta denera beso bat edo biko neurria duena inguruz inguru eramaten du, eta otordukide bakoitzari erakutsiz, hala esaten dio: "Edan eta diberti hadi honi begiratzean, honelakoa izango baihaiz hiltzean!" Gauzok egiten dituzte oturuntzetan.

79. Arbasoen ohiturak erabiltzen dituztenez, ez dute beste inolakorik berenganatzen. Eta beste ohitura aipagarrien artean

abesti bakarra dute, Linorena, Phenizian eta Zypron eta herrian herriko deiturarekin beste lekutan ere abesten dena; bat datoz denak heleniarrak Lino deituz abesten duten berbera dela; hala ezen, Egipto inguruan gertatzen diren beste gauza askoren artean, Linoren [izena] nondik hartu ote zuten harritzen naiz; zeren, abesti hau betidanik abestu dutela ematen du; hain zuzen, Linori egiptoeraz Maneros deitzen zaio. Egiptoko lehen erregearen seme bakarra izan zela esan zidaten egiptoarrek, eta, goiz hiltzean, eresi hauekin ohoratu omen zuten, eta hau izan omen zen beren lehenengo abestia eta bakarra.

80. Eta heleniarretan soilik lazedemonдарrek egiptoarrak beste honetan ere bat datoz: hauetako gazteak, zaharragoekin topo egitean, bidea eman eta alboratu egiten dira eta, heltzean, eserlekuetatik altxatu egin ohi dira. Hala ere, beste honetan ez datoz bat inongo heleniarrekin: bideetan elkarri agurra zuzendu ordez, eskuak belaunetaraino jaitsi, gurkera egiten diote.

81. Eta lihozko tunikak jutzen dituzte, berna inguruan kalasiris deritzaten borlak dituztela; eta hurrena, gainekotzat, artilezko mantu txuriak daramatzate. Baina santutegietara bederen ez dute artilezko jantzirik eramaten, ez eta ere hauekin ehortzen; adeigabea baita. Arau hauek orphikoak deritzeten erritoekin eta, egiptoarrak badira ere, bakkhikoekin eta pythagorikoekin bat datoz; zeren, ez da adeitsu misterio hauetan esku hartzen duena artilezko jantziekin ehortzia izatea¹⁴². Eta bada gauza hauetaz kontatu ohi den edesti sakratu bat.

82. Eta hona hemen egiptoarrek aurkitu dituzten beste gauza batzuk: hilabete eta egun bakoitza zein jainkorena den eta, bakoitza jaio den egunaren arabera, zerekin topatuko den,

nola bukatuko duen eta nolatsukoa izango den; eta heleniarretatik poesian ihardun zirenak aurkikuntza honetaz baliatu ziren. Eta beste gizon guztiek batera baino iragarkizun gehiago aurkitu dute; izan ere, iragarkizuna sortu ondoren, gertaturikoa idatziz gordetzen dute, eta gero haren antzekoren bat sor baledi, gauza bera gertatuko dela pentsatzen dute.

83. Beren igarlaritza era honetakoa da; artezia hau ez dagokio gizonetan inori, aparteko jainko batzuei baizik. Bai baita han Heraklesen igarkuntzarik, baita Apoloren, Athenearen, Artemisen, Aresen eta Zeusenik ere, eta igarkuntza guztietan estimatuen dutena Buto hirian dagoen Letorena da. Igarrerak, ordea, ez dituzte modu berekoak, desberdinak baino.

84. Halaber, sendakuntza era honetan banatua dute: sendagile bakoitza gaixotasun bakarrarena da eta ez da gehiagorena. Dena sendagilez betea dago; batzuk begietako sendagileztat daude jarriak, besteak burukotzat, besteak hortzetakotzat, besteak sabelekotzat eta beste batzuk, berriz, ezkutuko gaixotasunen sendagileztat.

85. Eta hauen deitore eta hiletak honelakoak dira: berauen etxeetatik aipatuxea den gizakiren bat desager dadinean, etxeotako emakumezko orok burua, edota aurpegia ere, lohiz igurtzi ohi du eta, ondoren, gorpua beren etxeetan utziz, hirian jiraka beren buruak kolpatzen dituzte, besoak garbaildu eta bularrak erakutsiz, eta hauekin emakume ahaide guztiek. Gizonezkoak hiriaren beste aldetik kolpatzen dira; hauek ere besoak garbaildurik. Eta hau egin bide dutenean, orduan baltsamatzera eraman ohi dute.

86. Eta badira lan honetarako jarriak daudenak eta trebetasun hori dutenak ere. Hauek, gorpu bat garraiatzen dietenean,

garraiatzaileei gorpuen zurezko erakuskari batzuk erakusten dizkiete, margoz imitatuak, eta hauetan arduraz eginikoena gai honetan bere izena aipatzea adeigabetzat dudanarena¹⁴³ dela esaten dute; eta bigarrena, hura baino kaskarragoa eta merkeagoa erakusten diete; hirugarrena, berriz, merkeena. Ezagutarazi ondoren, gorpua zein erakuskariren arabera prestatzea nahi duten galdetzen diete. Eta hauek, ordainketan ados jarri ondoren, alde egin ohi dute¹⁴⁴; besteei, aldiz, beren lantegietan geratuz, ardurarik handienez honela baltsamatzen dute: lehenik burdinazko gakoarekin sudurzuloetatik burmuina ateratzen dute, zati bat horrela eta beste zati bat buru barrura ukenduak isuriz. Jarraian, ethiopiar harri zorrotz batekin alboaren luzeran ebakia eginez, barru guztia kanporatu ohi dute, eta hau garbitu eta palma-ardoa iragazi ondoren, berriz usaingarri zehatuak iragazten dizkiete. Gero sabela, nahasigabeko mirra apurrez, kanelaz, eta intsentsua ez beste usaingarri guztiez bete ondoren, atzera josi egiten dute. Eta, hau eginik, gazitu egin ohi dute, hirurogeita hamar egunez gatzuz¹⁴⁵ estalirik; gehiago, orde, ez dago gazitzerik. Baina, hirurogeita hamar egunen buruan gorpua garbitu eta den-dena liho finezko ehunetik ebakitako bende biltzen dute, benda azpiak egiptoarrek gehienetan kolaren orde darabilten gomaz igurtzitzen dituztelarik. Eta ahaideek gorpua hemendik harturik, giza itxura duen zurezko kaxa bat eginarazten dute, eta egiña dutenean, gorpua barruan sartu, itxi, eta horrela hil-ganbaran gordetzen dute, hormaren kontra zutik jarriaz.

87. Erarik garestiengan nahi dutenei horrela antolatzen dizkiete gorpuak. Erdiko eran nahi dutenei, ordea, eta garestiari ihes egiten diotenei, honela prestatzen dizkiete. Zedro-olioz xiringa batzuk bete ondoren, gorpuaren barrunbea bete ohi dute, ez ebakirik egin eta ez sabela ateraz; aitzitik, ipurditik isurkaia sartu eta atzerabidea galaraziz, agindutako egunetan gatzuan eduki ohi dute. Eta azken egunean barrunbetik lehen sarturiko zedro-olioa ateratzen dute; eta hainbesteko indarra du honek, non berekin batera sabela eta erraiak deseginik kanporatzen dituen; haragiak, berriz, gatzuak desegiten ditu eta, benetan, gorputik azala eta hezurra baizik ez da geratzen. Eta hau egin bide dutenean, honelaxe itzuli ohi dute gorpua, beste ezertan ihardun gabe.
88. Baltsamatzeko hirugarren era, ondasunez ahulenak direnei antolatzen zaiena, hau da: purga baten bidez barrunbea garbitu eta hirurogeita hamar egunez gatzutan edukitzen dute eta ondoren, eraman dezaten, itzuli egin ohi dute.
89. Gizon nabarmenen emazteak, hiltzean, ez dira baltsamatzeko berehala entregatzen, ez eta guztiz itxura ederrekoak eta aipamen aski handikoak ere; aitzitik, hiruzpalau egun igaro ondoren, orduan entregatzen dizkiete baltsamatzaileei. Eta hau horrela arrazoi honengatik egiten dute, baltsamatzaileek emakumeekin lot ez daitezen; izan ere, hauetako bat emakumearen gorpu hilberriarekin loturik harrapatu omen zuten eta bere lankideak salatu omen zuen.
90. Eta egiptoar beretakoren bat edota berdin atzeritarren bat, krokodiloak edo ibaiak berak harrapatuta, hilik azaltzen bada, zein hiritara arrastatua izan den, bertakoak guztiz behartuak daude halakoa, baltsamatu eta ahalik ongien hornitu ondoren,

jarleku sakratuetan ehorztera. Ez da zilegi beste inork, ez ahaidetarik ez lagunetarik, hura ukitzea; aitzitik, Niloren apaizek berek, giza gorpua baino zerbait gehiago denez, beren eskuz ehorzten dute.

91. Heleniar ohiturak erabiltzeari, eta hitz batean esateko, [inola] beste inongo gizakienak erabiltzeari ere ihes egiten diote. Egyptoar guztiek oro har honela gordetzen dute joera hau. Bada, ordea, Thebasko nomoan Neapolistik hurbil hiri handi bat, Khemis¹⁴⁶; hiri honetan Danaeren seme Perseoren santutegi tetragonal bat dago eta bere inguruan palmondoak hazten dira; bestalde, santutegiko propyleoak, harrizkoak, guztiz handiak dira; eta berauen ondoan harrizko bi giza irudi jaikitzen dira; eta esparru honetan tenplu bat dago eta bertan Perseoren irudi bat. Khemistar hauek esaten dute Perseo maiz beren lurrean eta maiz santutegiaren barruan azaltzen dela eta, bertan, erabilitako sandalia bat, bi beso luzekoa, aurkitu ohi dela eta hau azaltzen denean Egypto osoa onik jartzen dela. Hau esaten dute, eta Perseoren goralmenez heleniarrak diren honelako ospakizunak egiten dituzte: lehiaera guztietako gymnasi lehiaketa ipintzen dute, saritzat, haziendak, mantuak eta larruak eskainiz. Eta galdetu nienean zergatik Perseo haiei bakarrik agertu ohi zitzaien eta zergatik bereizten ziren gainerako egyptoarrengandik gymnasi lehiaketa ipiniz, Perseo jatorriz beren hirikoa zela erantzun zidaten; Danao eta Lynzeo, alegia, khemistar izanik, Heladerantz untziratu zirela. Eta, hauen genealogiatik abiatuz, Perseorenganaino jaisten ziren. Eta esan zuten, heleniarrak dioten arrazoiaren arabera, Perseo, Libyatik Gorgonaren burua eramatearren Egyptora heldu zenean,

berengana ere etorri zela eta bere ahaide guztiak ezagutu zituela; eta, amarengandik ikasia zuenez, Khemisen izena zekiellarik heldu zela Egyptora; eta haren agindupean ospatzen zutela gymnasi lehiaketa.

92. Ohitura hauek denak zingirez goitik bizi diren egyptoarren bete ohi dituzte. Zingiretan bizi direnek, ordea, gainerako egyptoarren ohitura berak erabiltzen dituzte, eta heleniarrak bezalaxe haien artean ere nor bere emazte bakarrarekin bizi da; baina janarien merkerako honelako beste prozedura batzuk asmatu dituzte. Ibaia ase eta lautadak itsaso bihurtzen direnean, egyptoarren loto deritzaten lili ugari jaiotzen dira uretan. Lora hauek ebakitzen dituztenean, eguzkitan zimeldu eta gero, lotoren erditikoa, lobelarraren antzekoa dena, txikituz, honekin sutan erretako ogiak egiten dituzte. Bestalde, loto honen zaina ere jangarri da eta nahiko gozo du, borobila eta handitasunez sagarraren araberakoa delarik. Badira, ordea, beste lili batzuk ere, eta hauek ere ibaian jaiotzen direnak, zeinen fruitua, itxuraz osoro liztorren abaraska antzekoa, zainetik jaiotako beste lore-kukulu baten aurkitzen den; fruitu honen barruan oliba-hezurra adinako jaki ugari daude eta nahiz hezerik naiz lehorrik jan ohi dira. Eta urtero jaiotzen den papiroari buruz¹⁴⁷, zingiretatik ateratzen dutenean, bere gainaldeak ebakiz, beste zerbaitetarako zuzentzen dute, eta geratzen den besoren bateko azpialdea jan edota saldu egiten dute. Baina, papiroa baliagarritasunez erabili nahi dutenek labe goritan erregosi eta horrela jan ohi dute. Hala ere, egyptoar batzuk arrainetik bakarrik bizi dira; hauek harrapatu eta

barrunbea atera eta gero, eguzkitan zimeldu eta ondoren lehorrak jaten dituzte.

93. Taldekako arrainak ez dira asko ibaietan; aitzitik, aintziretan haziz, honelako jokaerak egiten dituzte. Ernalminak eztenkatzen dituenean, itsasora doaz taldeka, eta aurretik arrak doaz hazia isuriz, eta emeek, jarraituz, berenganatu egiten dute eta hemendik ernalduak geratzen dira. Eta itsasoan beterik gertatzen direnean, bakoitza berriro nor bere ohiko lekuetara itzuli ohi da ibai gora; gidari, ordea, ez doaz jada lehengo berak; aitzitik, emeek hartzen dute gidaritza. Eta taldeburuan doazela, arrek egiten zutena bera egin ohi dute; zeren, emeek, artatxikien neurriko arrautza-aleak bakanka isuri, eta arrek, jarraituz, irentsi egiten dituzte. Eta ale hauek arrainak dira; eta irentsi gabe geratzen diren aleetatik sortzen dira hazten diren arrainak. Eta itsasoratzean arrain hauetatik harrapatzen direnek buruaren ezkerraldea mailatua azaltzen dute; itzulian ibai gora datozenek, berriz, eskuinaldea dute mailatua. Eta hona zergatik jasaten duten hori: itsasora jaitsi, ibaiertza ezkerraldera dutela jaisten dira, eta ibai gora itzultzean ertz berean mantentzen dira, erantsirik eta ahalik gehien ukituz, hain zuzen korronteagatik desbidera ez daitezen. Eta Nilo uranditzen hasten denean, lur-sakanak eta ibai ondoko padurak dira lehenik betetzen hasten direnak ibaitik iragazitako urez; eta, lurraldeok bete orduko, berehala dena arrain txikiz beterik geratzen da. Eta arrain hauek nondik sor daitezkeen konprenitzen

dudalakoa nago. Aurreko urtean, Nilo urruntzean, arrainek arrautzak lokatzean ipini ondoren, azken urarekin batera erretiratu egiten dira; baina, denboraren itzuleran, ura berriro heltzen denean, arrautza haietatik berehala arrain [horiek] jaiotzen dira. Eta, arrainei dagokienez, horrela dira gauzak.

94. Zingira inguruetan bizi diren egiptoarrek kiki deritzaten errizinoen fruitutik ateratako olioak erabiltzen dute, eta honela prestatzen dute. Ibai eta aintzira ertzetan ereiten dituzte errizinoak, Heladen berezko egoera basatian hazten direnak; Egypton ereiten diren hauek fruitu ugari ematen dute, baina usain txarrekoak dira; biltzen dutenean, zenbait, txikitu ondoren, lauskitu egiten dute, beste zenbait berriz, kiskalita gero, egosi, eta hemendik isurtzen dena berekin jasotzen dute. Hain zuzen, isurki koipetsua da eta argiontziarentzat ez da olioak baino txarragoa, baina usain astuna ematen du.

95. Eltxoentzat, ugari baitira, hona zer asmatu duten. Zingirez goitik bizi direnak dorreez baliatzen dira, hauetara igo eta lo egiteko; eltxoak haizeengatik ezin baitira gorantz hegaldatu. Zingiren inguruan bizi direnek, ordea, dorreen ordeztan beste gauza batzuk asmatu dituzte. Gizon bakoitzak sare bat dauka; berarekin egunez arrainak harrapatzen ditu eta gauez honela baliatzen da: atsedean hartzen duen ohearen inguruan sarea jaso eta gero honen barruan sarturik lo egiten du. Eta norbaitek mantuz edo maindiraz bildurik lo egiten badu, eltxoek oihala hauetan barrena ziztatzen dute; baina sarean barrena saiatu ere ez dira egiten.

96. Eta zamak daramatzaten garraiuntziak akaziaz eginak daude; honen forma zyrenetar lotoaren guztiz antzekoa da eta goma bat da bere negarreztia. Beraz, akazia honetatik beso bi adinako egurrak moztu eta adreiluen antzera elkartzen dituzte, untziak era honetan josiz: beso biko egur hauek jiran zeharkari estu eta luzeekin lotzen dituzte; eta era honetan untzia josten dutenean, gainaldeko uztardurak hedatzen dizkiote. Ez dute barengarik erabiltzen; eta barruan loturak papiroz istinkatzen dituzte. Eta lema bakarra egiten diote, eta gilana barrena sartzen dute; bestalde, akaziazko mastak eta papirozko belak erabiltzen dituzte. Non eta haize biziak jotzen ez dituen, garraiuntzi hauek ezin dute ibai gora nabigatu, eta lehorretik atoian eramaten dituzte. Baina, korrontearen eran, honela gidatzen dituzte: badute tamariskoz eginiko oholeria bat, kanabera-kordaz josia, bai eta bi talenturen¹⁴⁸ bat pisuko harri zulatu bat ere. Hauetatik oholeria sokaz lotu eta untziaren aurrealdera botatzen dute garraiatua izan dadin, eta harria, beste soka batekin loturik, atzealdera. Eta batetik oholeria, korrontea gaineratzean, aurrera doa bizkor eta barisa (untziok izen hori baitute) arrastazen du, eta bestetik, harriak, atzean arrastaka eta hondoari eutsiz, untzia zuzentzen du. Egiptoarrek, kopuruari dagokionez, honelako garraiuntzi ugari dute, eta batzuek talentutan¹⁴⁹ milaka asko eramaten dute.

97. Eta Nilok lurraldea gainditzen duenean, hiriak bakarrik ikusten dira ur gainean, Egeo itsasoko irlen oso antzera. Egiptoko gainerako aldeak itsaso bilakatzen baitira eta hiriak bakarrik gaineratzen. Beraz, hori gertatzen denean, ez dira igarotzen

ibai-korrontearen eran, lautadaren erdian barrena baizik. Hain zuzen, Naukratisetik Memphisa untziz barruratzen denak untzi-ibilia piramide berberen ondoan barrena egiten du; hau ez da, ordea, bidea, Deltaren erpinean eta Zerkasoro hirian barrena baizik. Eta itsasotik eta Kanobotik lautadan zehar Naukratisa nabigatzen baduzu, Arkhandro deituriko Anthyla hirian barrena etorriko zara.

98. Eta hauetatik bata, Anthyla, hiri aipagarria dena, Egypton betidanik errege denaren emazteari oinetakoetarako aukerazko oparitzat ematen zaio. Eta hau Egypto persiarren menpe dagoenetik gertatzen da. Beste hiriak, berriz, izena Danaoren suhia den Akhandro Phthiorenak Akheorenarengandik duelakoan nago; deitu ere, Arkhandropolis deitzen baitiote. Bestalde, baliteke beste Arkhandroren bat ere izatea, baina izena ez da egiazki egyptoarra.

99. Hona arte neronen ikuspena, burutapena eta azterketa izan dira adierazle; hemendik aurrera, ordea, egyptoar esanak entzunaren arabera adierazteari ekingo diot; hala ere, hauei neure ikuspenetik ere zerbait erantsiko diet.

Apaizek esaten zuten Egyptoko lehen errege izan zen Minek dikez babestu zuela Memphis [ere]. Bada, ibai osoak Libyaranzko hondar-mendiaren alboan korritzen omen zuen, baina Minek goitik, Memphistik hegoalderantz ehunen bat estadiora, lubetaz bihurgune bat egin ondoren, korronte zaharra lehortu eta ibaia mendien erditik bideratu omen zuen. Eta oraindik ere persiarrek, Niloren bihurgune honek desbideratua jarrai dezan, axola handiz zaintzen dute urtero sendotuz; zeren, leku honetan lubeta hautsiz, ibaiari gainezkatzea gogo emango balio, Memphis osoak

urperatzeko arriskua izango luke. Eta lehen errege izan zen Min honek desbideraturiko ibai-zatia lehorturik eduki zuenean, egun Memphis deritzan hiri hau eraiki omen zuen bertan (egon ere, Memphis Egyptoren mehargunean baitago); eta, honez kanpotik, ingurunean aintzira bat hondearazi zuen ibaitik iparrerantz eta sartalderantz (sortalderantz Nilok berak mugatzen du eta); gainera, hirian Hephestoren santutegia eraikiarazi zuen, handia eta guztiz goraipagarria delarik.

100. Honen ondoren, apaizek papiroetatik beste hirurehun eta hogeita hamar erregeen izenak zenbatu zituzten. Hainbat giza belaunalditan ethiopiarrak ziren hemezortzi, emakume bat bakarra bertakoa eta egyptoar gizionezkoak gainerakoak. Eta erregina izan zen emakumeak Babyloniakoaren izen bera zuen: Nitokris. Honek, ziotenez, anaia mendekatu asmoz, egyptoarrekin beren errege zelarik hil baitzuten eta hil ondoren berari entregatu baitzioten erregetza, anaia mendekatu asmoz egyptoar asko suntsiarazi omen zituen iruzurrez. Hain zuzen, beretzat lurpean egoitza handi bat eginarazi eta, hitzez inauguratu egiten zuela zioen arren, burutapenez beste asmo batzuk omen zerabiltzan: egyptoarretatik asko, hilketaren errudun handienetzat zeuzkanak, jatera gonbidatu omen zituen eta, jaten ari zirela, atakatzar ezkutu batetik ibaia gaineratu omen zien. Andre honetaz ez zidaten besterik esan, hori eginda gero zigorrik ez izatearren, bere burua errautsez beteriko egoitza batera jaurti zuela baizik.

101. Eta beste erregeetatik, ez baitzidaten hauen inolako lan-azalpenik aipatu, inor ez omen zen ezertan oso distiratsu izan, haietako azken bakarra, Meris izan ezik. Honek Hephestoren santutegiko propileoak, ipar-haizerantz itzulirik daudenak,

eginarazi omen zituen oroigarritzat, eta aintzira bat hondearazi ere bai, honen ingurubidea zenbat estadiokoa den ondoren adieraziko badut ere, eta bertan pyramideak eraiki omen zituen, hauen handitasuna aintzirarenarekin batera aipatuko dudalarik. Honenbestekoxe lanak omen dira errege honek azaldutakoak, eta gainerakoetatik inortxok ez omen zuen deus azaldu.

102. Hauek alde batera utziaz, bada, hauen hurrena errege izan zen Sesostris izenekoaren aipamena egingo dut. Apaizek esaten zuten errege honek untzi luzeekin arabiar golkotik abiatu eta Erythre itsasoaren ertzeko biztanleak menperatu zituela, aurrera nabigatuz, ur gutxiarengatik jada nabigagarri ez zen itsasoraino iritsi zen arte. Hemendik berriro Egyptora heldu zenean, apaiz-esanaren arabera, gudaroste handi bat hartu eta lur barrualdera jo zuen bideratzen zitzaion herri oro menperatuz. Eta hauetatik adoretsuenak eta askatasunaren aldeko borrokari gogorrenak suertatzen zirenei berauen herrietan stelak eraikitzen zizkien inskribuz bere izena, aberria eta nola bere indarrez menperatu zituen esanez; baina borroka gabe eta erraz bereganatzen zituen herriei adoretsu izan ziren herriei bezalako inskribaketa ezartzen zien steletan eta, gainera, emakumearen lotsaizunak marrazten zizkien, zeinen ahulak ziren erakutsi nahiz.

103. Eta hau eginez zeharkatu zuen kontinentea, Asiatik Europara igaro eta szythiarrak eta thraziarrak menperatu zituen arte. Eta uste dut urrunena hauetaraino iritsi zela egyptoar gudarostea; haien lurraldean, bada, estelak agertzen dira eraikiak; aurrerago, ordea, ez. Eta handik itzuliz, atzera jo zuen; eta

Phasis ibaira iritsi zen; geroztikoa ezin dut ziur esan, Sesostris erregeak bere gudarostea bananduz zati bat bertan lurraldea kolonizatzeko utzi zuen, ala gudarietako batzuk, joan-etorriaz nekaturik, Phasis ibai inguruan geratu ziren.

104. Dena den, argi dago kolkhoak egiptoar direla; eta diodan hau besteei entzun aurretik burura zitzaidan. Baina, kezka bide izan nuenean, bietako biei galdetu nien, eta kolkhoak gehiago oroitzen ziren egiptoarrez, egiptoarrak kolkhoez baino. Hala ere, egiptoarrek esan zidaten, beren ustez kolkhoak Sesostrisen gudarostekoak zirela. Eta neronek honako honengatik igerri nion: azalbeltzak eta ilekizkurak direlako (eta honek ezertara ez garamatza, gainerakoak ere horrelakoak baitira), baina, horrez gainera eta batez ere, gizon guztien artean kolkhoak, egiptoarrak eta ethiopiarrak direlako hasieratik erdaintzen diren bakarrak. Bestalde, pheniziarrak eta Palestinan bizi diren syriarrak berak ere bat datoz egiptoarrengandik ikasi zutela esatean, baina Thermodonte eta Parthenio ibai inguruetan bizi diren asyiarrek eta auzo zaizkien makronek kolkhoengandik berriki ikasia dutela esaten dute. Munduan hauek bakarrik dira, bada, erdaintzen direnak, eta argi dago egiptoarren era berean egiten dutela. Hala ere, egiptoar eta ethiopiar berauen artean norik norengandik ikasi zuen ezin dut esan, ikusten baita aspaldiko ohitura dela. Egiptoarrekin harremanak izanez ikasi zutela esateko, honako froga handi hau dut: Heladerekin harremana duten pheniziar guztiak ez dira jada [lotsaizunekiko] egiptoarren imitatzaile; aitzitik, ondorengoak ez dituzte erdaintzen.

105. Ea, esan dezadan orain kolkhoi buruz zer bestetan diren egyptoarren antzekoak. Hauek eta egyptoarren bakarrik lantzen dute lihoa era berean, eta bizimodu osoa eta hizkera ere elkarren antzekoa dute. Bestalde, heleniarrek kolkhoen linoari sardonikoa deritzate; egyptoarra, berriz, Egyptotik datorrenari.

106. Eta Egyptoko errege Sesostrisek lurraldeetan eraikitzen zituen stelei buruz, gehienek ez dirudite jada dirautenik; neronek ikusi dut, ordea, Syria Palestinan badirela, bai aipaturiko inskribuen ezarpenak eta baita emakumezkoen lotsaizunenak ere. Eta Jonia inguruan ere badira harrietan ezarriak gizon honen irudi bi: bata Ephesiatik Phozearako bidean eta bestea Sardestik Smyrnarakoan. Biotan bost spithama handiko gizon bat dago zizelatu, eskuinean lantza eta ezkerrean uztaia duena eta berdin gainerako tresneria ere, egyptoarra eta ethiopiaarra baitu; eta besagailu batetik beste besagailu batera, bularrean barrena, harrian ezarritako egyptoar idazki sakratuak doaz hau esaten: "Nik neure besagailu hauekin neureganatu nuen lurralde hau". Nor eta nondikakoa den, ordea, hau ez du azaltzen; hala ere, beste lekuren baten azaldua du. Hain zuzen, ikusi dituztenetako batzuek Memnonen irudia dela susmatzen dute, egia orain oso urrun geratzen badira ere.

107. Beraz, egyptoar Sesostris hau erretiratzean eta menperatutako lurraldeetan zeuden herrietako gizon asko zekartzala, apaizek ziotenez, itzuleran pelusiar Daphnasen gertatu zenean, bere anaiak, Sesostrisek Egypto gomendatu zionak, hura eta haren umeak bere etxapera gonbidatu ondoren, etxea

egur-pilaz inguratu omen zuen eta, inguratuta gero, azpitik su eman omen zion. Eta Sesostrisek, ohartu ordukoxe, bere emazteari eskatu omen zion kontseilu; andrea ere berekin eramaten baitzuen. Eta honek, zituzten sei semeetatik bi sumetaren gainean hedatuz, su-zubia egin zezala kontseilatu omen zuen eta berak, haien gainetik igaroz, salbu izango zirela. Hori egin omen zuen Sesostrisek, eta horrela erre omen ziren bere semeetatik bi, gainerakoak, berriz, aitarekin batera salbatu omen ziren.

108. Eta Sesostris Egyptora itzuli eta bere anaiatz mendekatu ondoren, menperatu zituen lurraldeetatik ekarritako jendetza lan honetan erabili zuen: errege honen garaian Hephestoren santutegira eramandako harriak, tamainuz guztiz handiak baziren ere, hauek izan ziren arrastatu zituztenak, eta egun Egypton dauden kanal guztiak hauek hondeatu zituzten behartuta, eta, nahi gabe, lehen dena zaldizkoa eta gurdizkoa zen Egypto horietakorik gabea bilakatu zen; izan ere, orduz geroztik Egypto, dena laua izan arren, ez zaldizko eta ez gurdizko geratu da; eta kanalak izan dira honen kausa, asko baitira eta edonorantz zuzendurik baitaude. Bestalde, arrazoi honengatik zatitu zuen erregeak lurraldea: hiriak ibaiertzean ez baina lur erdialdean eraiki zituzten guztiak, ibaia erretiratzen zen bezain azkar, uren eskasiaz, putzuetatik ateratako edari aski gaziez baliatzen ziren; hain zuzen, Egypto horrengatik izan zen zatitua.

109. Ziotenez, errege honek banandu zien lurraldea egyptoar guztiei, bakoitzari sail karratu berdina emanez, eta sailkapen honetatik burutu omen zituen bere hartubideak, urtero

zerga-ordainketa ezarri. Baina, ibaiak norbaiten sailetik zatiren bat eramaten bazuen, honek, harengana joaz, gertaturikoa adierazi ohi zion; eta erregeak lurra zenbatez gutxiago zen ikusi eta neurtuko zutenak bidaltzen zituen, geratzen zen heinean ezarritako zerga ordain zezan. Eta ondorioz geometria asmatu eta Heladera iritsi zela uste dut. Zeren, eguzki-erlojua, gnomona eta egunaren hamabi zatiak heleniarrek babyloniarrengandik ikasi zituzten.

110. Zinez errege hori izan zen egyptoar bakarra Ethiopian agindu zuena, eta oroigarritzat Hephestoren santutegi aurrean hogeita hamar beso duen harrizko irudi bi utzi zituen: bera eta bere emaztea, eta, gainera, zituen lau semeak, bakoitza hogei besokoa. Eta hemendik denbora askoren buruan Hephestoren apaizak ez zuen utzi persiar Dariok haien aurrean bere irudia eraiki zezan, egyptoar Sesostrisek bezalako egintzarik ez zuela burutu esanez. Sesostrisek, alegia, hark menperatutako herri ez txikiagoen artean szythiarrak ere menperatu zituela, baina Dariok ezin izan zituela szythiarrak bereganatu. Beraz, haren egintzak gainditu ez zituenez, ez zela bidezkoa haren monumentuen aurrean eraikitzea. Dario, bere aldetik, hitz horiekin ados geratu zela esaten dute.

111. Eta Sesostris hil zenean, erregetza, honen seme Pherok oinordetu zuela esaten zuten. Honek ez omen zion inorenganako gudaldiri ekin; aitzitik, itsu geratzea suertatu omen zitzaion honelako egintza batean: aldi hartan ibaia hemezortzi beso uranditua jaitsi zelarik, soroak gaineztatu eta haizeak jo zuenean, ibaia uhindu egin

zen. Orduan, diote, erregeak, ausartziaz jokatz, lantza bat hartu eta ibaiko zurrunbiloen erdira jaurti zuela, eta bat-batean begietatik gaixotu eta itsu geratu zela. Hamar urtez izan omen zen itsu; eta hamaikagarrenean Butos hiritik igarpen bat heldu omen zitzaion zigorraldia amaitu zitzaiola esanez, eta baldin beste gizonik ezagutu gabe berearekin bakarrik harremanak izan zituen emakumearen pixetan begiak garbitzen bazituen, berriz ere ikusi egingo zuela. Eta hark lehenik bere emaztearekin egin omen zuen proba; eta gero, ikusi ez zuenez, hurrenez hurren emakume askorekin probatu omen zuen. Eta berrikusi zuenean, probatutako emakumeak, bere pixaz garbiturik berrikusarazi ziona ez beste guztiak, orain Erythrebolo¹⁵⁰ deritzan hiri batera eramanez omen zituen elkarrekin, zeinetan, bildurik, hiriarekin berarekin batera erre zituen. Aldiz, pixaz garbiturik ikustarazi zion hura emaztetzat hartu omen zuen. Eta begietako gaitzari ihes egin ondoren, eskaintza desberdinak eskaini zituen santutegi ospetsu guztietan, eta -aipatzea gehien merezi duena-, obra ikusgarriak eskaini zituen Helioren santutegian: harritzko bi obelisko, bakoitza harri bakarrekoa, goieraz ehun eta zabaleraz zortzi beso zena.

112. Eta, esaten zuten, honengandik heleneraz Proteo deritzan Memphisko gizon batek oinordetu zuela erregetza. Bada egun Memphisen honen temenos¹⁵¹ bat, oso eder eta ongi hornitua, Hephestioaz¹⁵² hego-haizerantz kokatua. Barruti honen inguruan Tyroko pheniziarrak bizi dira, eta alde honi osoari Tyroarren Kampamendua deritzate. Eta Proteoren temenosean Atzerritar Aphroditarena deritzaten santutegia dago. Hala ere, ni neu santutegi hau Tyndareoren alaba Helenarena ote den nago, entzuna baitut Helena Proteorenean bizi izan omen zela,

eta, gainera, Aphrodita Atzerritarra baitu goitizen; Aphroditaren beste santutegi guztiek inola ere ez baitute Atzerritarra goitzenik.

113. Eta niri, Helenari buruzko gertakizunez galdetzean, honela erantzun zidaten apaizek. Alexandrok Spartatik Helena harrapatu ondoren, untziz bere jatorrira omen zihoan; baina Egeon aurkitu orduko, kontrako haizeek Egyptoko itsasora bultzatu eta hemendik (haizeak ez baitziren baretzen) Egyptora iristen da, eta Egyptotik egun Kanobokoa deritzan Niloren ahora eta Tarikheasera. Eta bazen itsasertzean, eta oraindik ere bada, Heraklesen santutegi bat. Biztanleren batek, edozein gizonetatik hona ihes egin duela ere, baldin bere burua jainkoari entregatuz estigma sakratuak gainera baditza, ez da zilegi hau atzematea. Ohitura honek berdin darrai hasieratik nire garaira arte. Hori zela eta, Alexandroren zerbitzariak, santutegi honen inguruan zegoen ohituraz jabeturik, alde egin zuten harengandik eta, jainkoaren otoigile bezala eseriz, Alexandro salatu zuten, kalte egin nahiz, Helenari buruz nola jokatu zuen eta Menelaorenganako zuzengabekeriaz esateko guztia esanaz; salakuntza hauek apaizaren aurrean eta Thonis zeritzan Niloko ahozainaren aurrean egin zituzten.

114. Eta Thonisek salakuntzok entzun orduko, mezulari bizkor bat bidaltzen du Memphis, Proteorengana, honako hau esanaz: "Arrotz bat iritsi da, teukroa dena eta Heladen egintza sakrilego bat egin duena; zeren, bere ostalariaren emaztea engainatu eta, honekin batera ondasun pila handia ekarriz heldu da, haizeak zure lur honetara bultzaturik; beraz, ukitu gabe berriz itsasoratzen utzi behar diogu ala etortzean ekarri dituenak kendu egin behar dizkiogu?". Proteok, honi erantzunaz, mezu hau helarazten dio: "Gizon hau, edozein dela

ere, bere ostalariari bilaukeriak egin baitizkio, atxilotu eta ekarriadazue, zer diokeen jakin dezadan".

115. Eta Thonisek, hau entzutean, Alexandro atxilotu eta honen untiak atxikitzen ditu; eta, gero, bera, Helena, haren ondasunak eta otoigileak ere Memphisara eramane zituen ibai gora. Eta, denak garraiatuak izan zirenean, Proteok Alexandrori nor zen galdetu zion eta nondik zetorren itsasuntziz. Honek bere jatorria zehaztu eta aberriaren izena eman zion, eta horrez gainera nabigazioari buruz nondik zetorren garbi kontatu zion. Ondoren, Proteok Helena nondik hartu zuen galdetu zion; eta Alexandro erantzunean saiheska zebilenez eta egia-rik esaten ez zuenez, otoigileek, bidegabekeria-
z esateko guztia kontatuz, nabarmen utzi zuten. Eta bukaeran Proteok adierazpen hau egiten die, esanez: "Niri, haizeek desbideraturik jada nire lurrera etorri den atzerritarretako inor ez hiltzea asko axola ez balitzait, gizonik gaiztoen horri neuk ordainaraziko nia-
ke heleniarrarekikoa, ostalariaren abegikortasuna heureganatu ondoren, egin ere egintzarik bilauena egin baituk: heure ostalariaren emaztearengana hurbildu haiz; areago, ez zaik hori aski izan; aitzitik, hegoak eman eta [harrapatu ondoren] berarekin alde egin duk; eta, soilik hori ere ez duk nahikoa izan, alderantziz, ostalariaren etxeko ondasunak lapurtuz heldu hatzait. Orain, bada, arrotza ez hiltzea asko axola zaidanez, ez diat utziko andre hau eta ondasunak eramane ditzaan; aitzitik, heleniarrari neuk gordeko zizkioat, bera etorritz eramane nahi ditzan arte; eta hiri eta hire untzikideei hiru egun barru neure lurretik

beste baterantz itsasora zaitezten agintzen dizuet, bestela etsaitzat hartuak izango zarete".

116. Honelakoa izan zela esan zuten apaizek Helenaren Proteorenganatzea. Uste dut Homero ere jabetu zela edesti honetaz; baina, epopeiarako erabili zuen bestea bezain egokia ez zenez, baztertu egin zuen, edesti honen berri ere bazekiela azalduz. Eta argi dago hori Alexandroren desbideratzeaz Iliadan poesiaratu zuenagatik (eta beste inon ez zuen kontrakorik esan), hots, nola bidea galdurik Helenarekin beste lurraldera eramana izan zen eta nola Pheniziako Sidonera heldu zen. Honen aipamena Diomedesen Egitandian egiten du; eta bertso hauek kantatzen ditu:

"..., han zeuden bordaturiko peploak, sidondar

[emakumeen lanak,
jainko-antzeko Alexandro berak Sidondik eramanak,
untziz bideratu zelarik itsas zabalean barrena,
berekin eramanez aita noblearen alaba Helena".

Eta Odysean ere egiten du aipamenik honelako bertsootan:

"Zeusen alabak zituen drogak hain ziren zorrotzak, hain onak,
Thonen ohekide egyptoar Polydamnak eman zizkionak,
zeinari lur oparoak ekoizten baitio droga ugari:
nahasiak, batzuk ongarrri dira, besteak berriz kaltegarri".

Eta Menelao beste era honetara mintzo zaio Telemakhori:

"Itzulminez nengoen arren, jainkoek zidaten eutsi
Egypton, hekatonbeak burutu gabe bainituen utzi".

Bertso hauetan argi dago Homerok bazuela Alexandroren Egyptorako desbideratzearen berri; zeren, Syria mugakide da Egyptorekin, eta pheniziarrek, zeintzuen den Sidon, Syrian bizi dira.

117. Eta pasarte hauetako bertsoen arabera argi baino argiago dago Zyproar Kantuak Homerorenak ez baina beste norbaitenak direna; zyproarretan, Helena zeramala, aldeko haizeaz eta itsaso bareaz baliaturik, Spartatik Iliona hiru egunetan iritsi zela esaten baita; Iliadan, ordea, Helenarekin alderrai ibili zela dio. Dena den, hor konpon Homero eta Zyproar Kantuak.

118. Heleniarrek kontatzen dituzten Ilionekikoak zorakeriak diren ala ez apaizei galdetu nienean, hona zer erantzun zidaten, Menelao beragandiko argibideetatik zekitela esanez. Hain zuzen, Helenaren harrapaketa ondoren heleniarren gudaroste handi bat irten omen zen teukroen lurrera Menelaori lagunduz; eta lehorreratu eta kanpamendua ezarri zutenean, mandatariak bidali omen zituzten Iliona eta hauekin batera Menelao bera joan omen zen. Eta harresi barrura sartu ondoren, Helena ez ezik Alexandrok lapurretaz hari eramane zizkion ondasunak itzultzea exigitu eta irainen ordainak eskatu omen zizkieten. Teukroek, ordea, behin eta berriz, zin eginez eta zin egin gabe, erantzun bera ematen omen zieten, ez zutela ez Helenarik eta ez eskaturiko ondasunik, aitzitik, guztiok Egypton zeudela, eta ez zela zuzena Proteo, egyptoar [errege]ak zeuzkanagatik zigorra beraiek jasatea. Hala ere, heleniarrek, barre egiten zietelakoan, hiria setiatu zuten, hartu zuten arte. Eta gotorlekua eskuratuta gero Helena ez baitzitzaien azaltzen, alderantziz, lehengo erantzun bera jasotzen baitzuten, lehen esana sinetsirik, heleniarrek Menelao bera bidaltzen dute Proteorengana.

119. Eta Menelao Egyptoratu eta ibai gora Memphisira iritsi ondoren, gertakizunen egia kontatu zuenean, abegikortasun handia topatu zuen, eta gaitzik jasan gabeko Helena berreskuratu zuen,

eta honez gainera bere ondasun guztiak ere bai. Bereak lortu zituenean, ordea, Menelao ez zen gizon zuzena izan egyptoarrekin. Izan ere, itsasoratzera zihoala, kontrako haizeak galarazten zion; eta, horrelako egoera luzatzen ari zelarik, egintza sakrilego bat bururatzen zaio: bertako biztanleen haur bi hartu eta oparitzat hil zituen. Eta, ondoren, egin zuenaren berri izan zenean, gorrotatua eta jazarria zelarik, Libyara jo zuen ihesi bere untziekin. Baina handik nora zuzendu zen, egyptoarrek ezin zuten esan. Gertaera hauetako zenbait gauza ikerketen bidez zekitela zioten; beren artean gertatutakoez, ordea, zehatz zekitelako hitz egiten zutela.

120. Hori esaten zuten egyptoar apaizek, eta ni neu ere Helenaz esan zidatenari natxakio, honako hau gaineratuz: Helena Ilionen egon balitz, Alexandrok nahi ala ez, ziur heleniarrei itzulia izango zen. Ez Priamo eta ez honen gainerako ahaideak ez baitziren, Alexandro Helenarekin bizitzearren, beren buruak, umeak eta hiria arriskuan jarri nahi izateraino zentzugabe. Eta lehen unetan horrela pentsatu balute ere, heleniarrekin borrokan lotzen ziren bakoitzean ez baitzen aldirik hiltzen ziren beste troiar askoren artean Priamo beraren semeetatik bi, hiru eta gehiago ere borrokan hiltzen ez zenik, zerbait bederen poeta epikoez baliatuz esan behar bada, beraz gertaera hauek honela egokiturik, nik badut itxaropen, Helenarekin Priamo bera bizi izan balitz ere, akhearrei itzuliko ziela, zetozen zorigaitzak aldentzearren.

Erregetza ere ez zetorren herentziaz Alexandroengana Priamo zaharturik arazoak haren gain egoteraino; aitzitik, hura baino zaharragoa eta gizonagoa zenez, Priamo hiltzean, Hektorrek eskuratuko zuen, eta ez zen komeni honek bere anaiari, gaizkile izanik, men egitea, batez ere honengatik bereziki berari eta beste troiar guztiei hain zorigaitz handiak gertatzen ari zitzaizkienean. Alabaina, ez Helena itzul zezaketen, ez heleniarrek sinesten zuten egia esaten zieten arren, nik argi ikusten dudan iritziaren arabera dibinitatea prestatzen ari baitzen gizonak hondamendiaz hondatuz egia hau garbi utz ziezairen, bidegabekeria handientzat handiak direla jainkoengandiko zigorrak ere. Eta gauzok nire iritziaren arabera daude esanak.

121. Eta Proteoren erregetza Rhampsinitok¹⁵³ oinordetu zuela esaten zuten; honek oroigarritzat sartaldeantz zuzenduak dauden Hephestioko¹⁵⁴ propileoak utzi zituen, eta propileoen aurrean irudi bi jaso zituen, hogeita bost beso altu direnak, zeinetatik iparraldeantz dagoenari egiptoarrek Uda deitzen dioten, eta hegoaldeantzkori Negu; eta Uda deritzatena gurtu eta onetsi egiten dute, Negu deritzatenari, berriz, horren alderantzizkoa egiten diote. a. Hain zuzen, errege honek zilar-aberastasun handia izan omen zuen, ondoren etorri ziren erregeetako inork ez gainditu ez hurreratu ere egin ahal izan ez zuena. Eta dirua segurtasunean gorde nahi zuelarik, harrizko ganbara bat eginarazi omen zuen, zeinaren hormetako bat jauregiaren kanpoaldera zuen. Egileari, ordea, maltzurkeriaz honako hau bururatu omen zitzaion: harrietako bat hormatik bi gizonek edota bakarrik erraz ken zezakeena prestatzea.

Eta ganbara bukatu zenean, erregeak bertan gorde omen zituen diruak, baina, denbora aurrera zihoala, ganbaragileak, bizitzaren amaieran zegoela, semeei deitu omen zien (bada, bi omen zituen), eta hauei garbi esan omen zien nola, erregearen gordailua eraikitzean, alde zurretik haiengatik bizitza oparoa izan zezaten begiratu, maneiatu zuen; harriaren kenketaz guztia garbi zehaztu, honen neurriak eman omen zizkien, entzuna gordetzen bazuten erregearen diruzain izango zirela adieraziz. Eta hil omen zen, eta bere semeek luzaro gabe lanari ekin omen zioten. Gauez jauregiratu eta ganbaran harria topatu zutenean, erraz eskuratu omen zuten eta dirurik asko eraman ere bai. b. Eta erregea, ganbara irekitzea suertatu zenean, harritu egin omen zen kutxatila diru faltan ikustean; alabaina, ez omen zuen nor salaturik, zigiluak osorik eta ganbara itxita zegoenez. Baina bi eta hiru aldiz ireki ondoren, gero eta diru gutxiago azaltzen baitzen (bada, lapurrek ez omen zioten harrapatzeari uzten), honako hau egin omen zuen: zepo batzuk eginarazi eta dirua zegoen kutxatilen inguruan jarri omen zituen. Eta lapurrak aurreko aldian bezala iritsi eta bietako bat barruratu zenean, kutxatilara gerturatu zen orduko zepoan preso geratu omen zen. Eta zein kinka larrian zegoen ohartu zenean, berehala anaiari deitu, eta, egoera azaltzeaz gainera, ahalik eta lasterren barrura sartu eta burua motz ziezaiola eskatu omen zion, bera ikusi eta nor zen ezagutu ondoren hura ere gal ez zedin.

Besteari, berriz, ongi esaten zuela iruditu eta, konbentziturik, esan ziona egin omen zuen eta harria horman doitu ondoren, etxera itzuli omen zen, anaiaren burua eramanez. g. Eta eguna heldu zenean, erregea ganbaran sartu orduko txunditu egin omen zen lapurraren gorpua zepoan bururik ez zuela, ganbara ukitu gabe, eta ez sarrerarik eta ez inolako irteerarik ikustean. Eta noraezean hau egin omen zuen: lapurraren gorpua harresi gorenetik zintzilikatu eta, zaintzaileak bertan ezarriz, norbait negarrez edo aienaka ikusten bazuten, atzeman eta beregana ekar zezatela agindu omen zien. Bestalde, gorpua zintzilikatua izan zenean, amak gaizki hartu omen zuen, eta bizirik zirauen semea hitz batzuk esan ondoren, anaiaren gorpua askatu eta ekartzeko ahal zuen eran molda zedila agindu omen zion; eta baldin egiten ez bazuen, erregearengana joan eta dirua nola berak zeukan salatuko zuela mehatxu egin omen zion. d. Amak bizirik zirauen semea haserre hartu baitzuen eta honek, hitz eginagatik, ez baitzuen komentzitzen, honelako arteak bururatu omen zitzaizkion: astoak prestatu, eta zahagi batzuk ardoz bete ondoren, asto gainea jarri eta gero hauei eragiteari ekin omen zion. Eta gorpu zintzilikatuaren zaintzaileen pean zegoela, bizpahiru zahagian hankamuturrei tira eginez, lokarriak askatu omen zizkien; eta, ardoa isuri zenean, lehenik zein astorengana zuzendu ez bailekien, burujoka eta garrasika hasi omen zen. Eta zaintzaileak, ardo asko zihoala ikustean, edalontziak berekin zituztela, bat-batera bideratu omen zitzaizkion korrika bizian, eta, isuritako [ardo]a jasotzeari ekin omen zioten otxintzat harturik. Hark, aldiz, amorru-itxura eginez,

irainka eraso omen zien guztiei; zaintzaileek, ordea, lasaitu egiten zutenez, denborarekin baretzearena egin, amorrua jaitsi eta, azkenerako, astoak bidetik atera eta antolakuntzan hasi omen zen. Baina solasaldia areagotu eta norbaitek berrizukeriaren bat ere esan zuelarik, hari barrea jalgiarazi omen zion, zaintzaileei zahagietako bat emateraino; hauek orduan, bertan, zeuden eran etzan eta edatea erabaki omen zuten, eta hura ondoan hartu eta, beren artean geratuz beraiekin batera edan zezala erregutu omen zioten; hura esanera jarri eta geratu egin omen zen. Eta edanaren arian adiskidetasunez hartzen baitzuten, eman egin omen zien beste zahagi bat ere. Eta edariaz oparo baliatu ondoren, zaintzaileek ardoz gainezka egin zuten, eta loak menperatuta, edaten ari ziren leku berean lotaratu omen ziren. Besteak, gaua aurrerantz zela, anaiaren gorpua askatu omen zuen, eta, irain gisa, zaintzaile guztiei eskuin masaileko bizarra moztu eta gorpua asto gainean jarri ondoren, etxera abiatu omen zen, amak agindutakoa beteaz. e. Eta erregeak, lapurraren gorpua ostua izan zela iragarri ziotenean, gaizki hartu omen zuen, eta, eginahala guztian asmakizun horiek burura zitzaizkiona nor zitekeen aurkitu nahirik, niretzat sinestezinak diren arren, honako gauza hauek egin omen zituen: bere alaba bordel baten ipini omen zuen, gizon guztiak harrera berdinez hartzeko eta elkartu baino lehen bakoitzari bere bizitzan egin zuen egintzarik bizkorren eta okerreana zein zen esanarazteko aginduz; eta norbaitek lapurraren inguruan gertatutakorik kontatzen bazion, atzeman zezala ateratzen utzi gabe. Baina alaba aitak emandako agindua betetzen ari zela, lapurrak, zergatik ari zen oharturik, hauxe egin omen zuen, erregearen maltzurkeria

gainditu nahiz: gorpu hilberriari sorburutik besoa ebaki eta mantupean zuela joan omen zen; eta, erregearen alabarengana sartu zenean, eta gainerakoei galdetutako gai berberaz galdetua izan zenean, egintzarik bilauena erregearen gordailuan zepoan harrapaturiko anaiaren burua moztu zuenean egin zuela zehaztu zion; bizkorrena, berriz, zaintzaileak orditu eta zintzilik zegoen anaiaren gorpua askatu zuenean. Hura, entzun zuen orduko, heltzen hasi omen zitzaion; lapurrak, ordea, ilunpean gorpuaren besoa luzatu omen zion; hark, berriz, hartu eta eutsi, lapurraren besoa zeukalakoa; eta lapurrak hari besoa utziz, ateetatik ihesi joan omen zen. z. Eta berriok erregeari eraman zizkiotenean, gizon honen zuhurtasun eta ausardiaz harriturik geratu omen zen, eta azkenean mandatariak hiri guztietara bidaliz, bere begi-bistara etortzen bazen segurantzaz eta sari handiak emango zizkiola aldarrikatzen omen zuen. Lapurrak sinetsi eta etorri egin omen zitzaion, eta Rhampsinitok handiki mirestu omen zuen eta, gizonik iaioenari bezala, alaba hura eman omen zion bizilagun, egyptoarrak gainerakoak baino iaioagoak izanik hura egyptoarretan iaioena zelakoan.

122. Eta honen ondoren, errege hau bizirik heleniarrek Hades dela uste duten infernura jaitsi zela zioten, eta bertan dadotan jokatu ohi zuela Demeterrekin, eta batzuetan irabazi egiten zuela, eta besteetan galdu, eta berriro gorantz itzuli zela hark oparitutako urrezko esku-zapiarekin. Eta Rhampsinitoren infernuratzetik, itzuli orduko, egyptoarrekin jai bat ospatu zutela esan zidaten, zeina oraindik

nire garaian ere ospatzen dutela badakidan; ezin dut, ordea, baieztatu arrazoi horrengatik ospatzen duten. Hain zuzen, egun berean apaizek mantu bat ehundurik, beretako bati begiak estali ohi dizkiote, eta, mantua berekin duela, Demeterren santutegira daraman bidera gidatu ondoren, beraiek atzera itzuli egiten dira. Eta begiak estalirik dituen apaiz hau otso bik gidatzen dutela, diote, hiritik hogeitaz estadiora dagoen Demeterren [santutegi]ra, eta berriro otsoek zuzentzen omen dute santutegitik lehengo lurralde berera.

123. Dena den, egiptoarrek kontatutako gauza hauetaz balia dadila honelakoak sinesgarri zaizkiona; niri, kontakizun osoan zehar, bata eta besteak esandakoa entzun bezala idaztea dagokit. Bestalde, egiptoarrek infernuetan Demeterrek eta Dionysok agintzen dutela diote. Izan ere, egiptoarrak izan ziren lehenengoak giza arima hilezkorra dela eta gorputza hiltzean, etengabe sortuz beste bizidun batean sartzen dela, baieztapen hau egin zutenak; eta lehorreko, itsasoko eta hegozko bizidun guztiak igaro dituenen, berriro ere sortzen ari den gizonaren gorputzean sartzen omen da, eta itzulbira hau hiru mila urtean osatzen omen du. Zenbait heleniarrek¹⁵⁵, lehenago batzuek, eta geroago besteek, berena balitz bezala erabili dute esan hori; beren izenak badakizkidan arren, ez noa idaztera.

124. Ziotenez, bada, Rhampsinitoren erregetza arte, Egypton oso legedi ona izan zen eta Egypto handiki ari zen loratzen, baina honen ondoren errege Kheops izan zelarik, honek erabateko hondamendira gidatu zuen. Bada, santutegi guztiak itxi ondoren, lehenik opariak eskaintzea galarazi eta gero

egyptoar guztiei beretzat lan egiteko agindu omen zien. Batzuei arabiar mendian dauden harrobietatik Niloraino harriak arrastaraztea erabaki omen zuen; besteei, berriz, garraiuntzietan ibaia zeharkatu ondoren, harri haiek hartu eta Libyarra deritzan mendiraino arrastatzeko agindu omen zien. Eta etengabe ehun milako giza taldeka eta talde bakoitzak aldiko hiru hilabeteka egiten omen zuten lan. Eta harriak beherantz arrastatzeko galtzada egiten hamar urteko denboraldia kosta omen zitzaion herriari, egin zutena, nire ustez, piramidea baino lan txikiagoa ez delarik: bost estadio baita luze, hamar besaldi zabal, zortzi besaldi gorantz goreneko unean, eta irudiak ezarritako harri leunduz osatua baitago. Beraz, hamar urte hauek galtzadagintzan eta piramideak dauden muino gainean lurpeko egoitzak egiten igaro omen ziren, egoitzok Kheopsek, Nilotik kanalak bideratuz, bere hilobitzat irlan egin zituelarik. Eta piramideak berak hogeitau urteko denboraldia eraman omen zuen egiten; tetragonua izaki, haren aurpegi bakoitzak alde guztietan zortzi pletro¹⁵⁶ neurtzen ditu eta berdin goierak ere, eta harri leunduz eta ongi doituz egin dago; ez du hogeita hamar oinez¹⁵⁷ beheko harririk.

125. Eta pyramide hau batzuek krossak eta besteek bomidak deritzaten harmailen modura egin izan zen; eta lehenik era honetakoa egin zutenean, gainerako harriak egur motzekin egindako makinez jasotzen zituzten, lurretik harmailen lehen iladaraino igoaz; eta harria honaino jaso orduko, lehenengo iladan jarritako hurrengo makinan ipintzen zuten eta hemendik bigarren iladara arrastatzen zuten beste makina baten gainera.

Izan ere, harmaila-ilada bezainbat makina zeuden; edota, bakarra eta eramanerraza izanik, makina bera aldatzen zuten iladaz ilada, harria kendu ondoren; konta dezagun [, bada,] kontatu ohi den modu berean, bi era horietara. Dena den, lehenik gorenko aldeak izan ziren bukatuak, gero hauen hurrengoak eta azkenik pyramidearen lur gainekoak eta beherenekoak bukatu zituzten. Eta egyptoarren idazkeraz piramidean seinalatua dago errefautan, tipulatan eta baratxuritan zenbat gastatu zen langileekin; eta, idazkiak irakurri zizkidan interpretariak esan zituenak ongi gogoratzen baditut bederen, mila eta seiheun zilarrezko talentu¹⁵⁸ ordaindu ziren. Eta hau horrela bada, beste zenbat ote zen bidezkoa gastatzea lanean zerabiltzaten erremintatan, janaritan eta langileen jantzitan?; zeren, lanak esandako denboran egin zituzten, baina, nik uste dudanez, harriak ebakitzen eta eramaten eta lurpeko galeriak irekitzen igaro zuten gainerako denbora ez zen gutxi izan.

126. Eta Kheops halako gaiztakeriara iritsi zen, non, diruaren faltan bere alaba burdel baten jarritz, hainbesteko diru bat atera zezala agindu zion; zenbat ez zidaten, hain zuzen, esan. Eta honek atera omen zuen aita agindua, eta bere aldetik ere monumentu bat uztea erabaki omen zuen, eta bereganatzen zitzaion bakoitzari [obretan] harri bat erregala ziezaiola eskatzen omen zion; eta harri hauekin eraikia izan zela esaten zuten hiruen erdian piramide handiaren aurrean altxatzen den piramidea, alde bakoitzean pletro eta erdi dituen.

127. Eta egyptoarrek zioten Kheops berrogeita hamar urtez izan zela errege eta, hiltzean, bere anaia Khephrenek oinordetu

zuela erregetza. Eta honek bestearen modu berean jokatu omen zuen eta gainerako lanen artean piramide bat ere eginarazi omen zuen, nahiz eta haren neurrietara iristen ez den; neurri horiek guk geuk hartu baikenituen. Beraz, azpian ez du lurpeko egoitzarik, Nilotik ere ez zaio iristen kanalik besteari bezala ura isuriz; honek, egindako ataka batetik, barruan Kheops bera omen datzan irla inguratzen du. Eta lehen ilada ethiopiar harri pikardatuaz¹⁵⁹ egin ondoren, tamainuz ondoan daukan piramide handiaz berrogei oin azpitik utziz eraiki zuen; bestalde, piramide biok ehun bat oin altuko muino berean altxatuak daude.

128. Eta Khephren berrogeita hamasei urtez izan zela errege esaten zuten. Jotzen da ehun eta sei urte hauetan zoritxar oro izan zela egyptoarren artean, eta denbora honetan ez zituztela ireki itxitako santutegiak. Gorrotoagatik egyptoarrek ez dituzte aipatu ere egin nahi erregeok; aitzitik, garai berean lurralde hauetan ganaduak bazkatzen zituen Philitis artzainaren izena damaiete piramideei.

129. Eta honen ondoren Kheopsen seme Myzerino izan zela errege zioten. Aitaren egintzak ez omen zitzaizkion atsegin izan, eta santutegiak ireki eta miseria gorriak ahitutako herria bere lanetarako eta opalkuntzetarako aske utzi omen zuen; bestalde, errege guztien arteko epairik zuzenenez epaitu omen zituen. Jokaera honengatik, hain zuzen, orainarte egyptoarren errege izan diren guztietatik hau goraipatzen dute gehien; izan ere, ondo epaitzeaz beste, epaiatzeko xexu zenari beretik beste zerbait emanez asebetetzen omen zion irrika. Baina Myzerinori,

hiritarrentzat onbera izan eta hauekin horrela jokatu zuen arren, lehen zoritxarra bere alaba, etxean zuen ume bakarra hiltzean hasi zitzaion. Jausi zitzaion gertakizunagatik guztiz mindurik, eta alaba besteak baino zerbait handikiago ehortzi nahiz, zurezko behi huts bat¹⁶⁰ eginarazi omen zuen eta gero, [hura] urreztatu ondoren, bertan barruan ehortzi omen zuen hildako alaba.

130. Behi hau, bada, ez zen lurrez estalia izan; aitzitik, oraindik nire garaian ere ikusgai zegoen, Sais hirian baitago eta errege-etxeko egoitza apaindu baten kokatzen baita; eta bere alboan era guztietako intsentsuak erretzen dituzte egun osoan zehar; gauero, berriz, gau osoko argia du ondoan sutan. Eta behi honen aldamenen, beste egoitza batean, Myzerinoren ohaideen irudiak daude zutik, Sais hiriko apaizek esan zidatenez; zeren, bertan kopuruz hogeiren bat diren zurezko koloso jaikitzen dira, biluzik eginak; ezin dut esan, ordea, nortzuk diren, kontatu didatena baizik.

131. Hala ere, behi honetaz eta kolosoez istorio hau kontatzen dute batzuek, hots, Myzerino bere alabaz maitemindu eta bortxatu egin zuela; eta ondoren alabak saminez bere burua urkatu zuela diote, eta hark behi honetan ehortzi zuela, honen amak, bere aldetik, alaba aitari entregatu zioten neskameei eskuak moztu zizkiela, eta oraindik ere neskameen irudiak berauek bizirik zeudela jasan zutena ari direla jasaten. Nire iritziz, ordea, zorakeriak esaten dituzte, kolosoen eskuei dagokienez bereziki; geuk ikusi baikenuen hauek denboraren poderioz galdu zituztela eskuak, oraindik nire garaian ere beraien oinetan azaltzen zirenez.

132. Behia, lepo eta buruaz beste, purpurazko jantzipean estalia dago, eta haiek urre lodiz urreztatuak azaltzen dira; adar artean, berriz, eguzkia irudikatzen duen urrezko zirkulu bat dauka. Bestalde, behia ez dago zutik, belauniko baizik, eta, handiz, bizirik dagoen behitzar bat bezain handi da. Eta egoitzatik urtero da aterea, honelakoan aipatu ohi ez dudan jainkoaren izenean egyptoarrak kolpatzen direnean; behia ere orduan ateratzen dute, bada, argitara; hark, hiltzean, aita Myzerinori urtean behin eguzkia ikustea eskatu ziola esaten baitute.

133. Eta alabarenaren ondoren, errege honi bigarren jasankizun hau gertatu omen zitzaion: Butos hiritik orakulu bat heldu omen zitzaion, sei urte bakarrik bizi izan ondoren, zazpigarrenean hilko zela esanez. Honek, biziro haserreturik, jainkoaganako irainak igorri omen zizkion igarleari, bere aita eta aitaldeko osaba, santutegiak itxi eta jainkoez ahaztuz gainera gizonak suntsitu zituzten arren, luzaroan bizi izan zirela, berak, ordea, zintzoa izanagatik, hain azkar hil behar zuela aurpegiratuz. Baina igarleagandik bigarren orakulua heldu omen zitzaion esanez, joan ere horrengatik zihoakiola bizia azkar, egin beharrekoa egin ez zuelako; zeren, Egyptok ehun eta berrogeita hamar urtean izan behar zuela hondatua eta haren aurretik errege izan ziren biek ulertu zutela hau; ez, ordea, hark. Myzerinok hau entzunda gero, gauzok jada erabakiak zeudelakoan, argiontzi asko eginaraziz, gaua heltzen zen orduko, hauek piztu eta edateari eta bapo pasatzeari ekin omen zion, egun eta gau etengabe, zingiretarantz eta oihanetarantz hara-honaka, plazer-leku egokien berri non zuen, hara.

Eta hau, orakuluak gezurra zioela frogatu nahiz burura zitzaion, sei urteren orde, gauak egun bilakatuz, hamabi izan zitezten.

134. Eta honek ere utzi zuen piramide bat, aitarena baino askoz txikiagoa zena: tetragonoa delarik, haren aurpegi bakoitzak hiru plethro hogeï oin gutxiago neurtzen ditu, eta erdiraino ethiopiar harriz egina dago; heleniar batzuek Rhodopis hetairarena dela diote, zuzen ez badiote ere; ez zait, bada, iruditzen Rhodopis nor den dakitela hitz egiten dutenik (ez bailukete hau gisa honetako piramidearen egileztat jarriko, bertan konta ezin ahalako milakada talentu gastatu zirenez gero); gainera, Amasisen erregetzapean loratu baitzen Rhodopis, eta ez Myzerinorenean. Hain zuzen, piramide hauek utzi zituzten erregeok baino urte asko geroagokoa zen Rhodopis: jatorriz Thraziakoa eta samoar Jadmon, Hephestopolisko semearen eskriba eta Esopo alegiagilearen eskribakide zen. Izan ere, azken hau Jadmon eskriba izan zen, era honetan gutxien frogatu ez zenez; hain zuzen, delphostarrek orakuluaren ahoz behin eta berriz aldarrikatzen baitzuten ea Esoporen bizi-erreskatea¹⁶¹ nor beregan hartu nahi zuen, beste inor azaldu ez, eta Jadmonen semearen beste seme Jadmonek hartu zuen. Horrela, Esopo ere Jadmonena izan zen.

135. Rhodopis, bere aldetik, samoar Xanthesek eramane heldu zen Egyptora, eta, bere lanbiderako iritsi zenean, Skamandronymoren seme eta Sappho poetisaren neba Kharaxo, Mytileneko gizonak askatu zuen dirutza handiarekin. Rhodopis honela izan zen liberatua eta geratu zen Egypton eta, guztiz zoragarria izatera iritsi zenez, dirutza handia irabazi zuen; Rhodopisentzat aski izateko eran; ez, ordea, honelako piramide batera

iristeko moduan. Izan ere, nahi duen orok oraindik ere haren dirutzaren hamarrena ikus baitezake, ez zaio hari diru handirik bota behar. Rhodopisek, bada, bere oroigarri bat Heladen uztea ez ezik, beste inori santutegi baten asmatzea eta sagaratzea ere suerta ez zekioken lan bat eginaraziz, bere oroigarri hau Delphosen eskaintzea irrikatu zuen. Bere diruaren hamarrenarekin, bada, hamarrenak bidea ematen zion bezain idiburduntzi ugari eginarazi eta Delphosa igorri zituen; hauek oraindik gaur ere khiotarrek sagaratutako aldare atzean eta tenpluaren beraren aurrean daude pilaturik. Bestalde, Naukratisen hetairak zoragarriak izan ohi dira. Zeren, batetik kontakizun honetan aipatzen dena hain ospetsu izan zen, non heleniar guztiak Rhodopisen izena jakitera iritsi ziren; bestetik, honen ondoren Arkhidize izena zuen beste bat ere Heladen barrena gorai patua izan zen, nahiz eta aurrekoak baino zerresan gutxiago eman zuen. Eta Kharaxo, Rhodopis askatu ondoren, Mytilenera itzuli zenean, Sapphok abesti baten gogor iraindu zuen. Eta honenbestez, amaitu dut Rhodopisekin.

136. Eta Myzerinoren ondoren, apaizek zioten Asykhis izan zela Egyptoko errege; honek eginarazi omen zituen Hephestoren santutegian ekialderantz dauden propileoak, askoz ederrenak eta askoz handienak direlarik. Izan ere, propileo guztiek dituzte, izan, zizelaturiko irudiak eta eraikuntzatako beste milaka ikusgarri; hauek, ordea, oraindik askoz gehiago. Hau errege zela, diru-harreman eza handia zegoenez, egyptoarren artean lege bat sortu zela esaten zuten: mailegua aitaren gorpua bermetzat eskainiz

hartu behar zela; eta lege honi oraindik honako hau erantsi omen zitzaion: mailegu-emailea hartzailearen hilobi osoaz jabetzen zela; eta berme horren jartzaileak mailegua ordaindu nahi ez bazuen, zigor hau gaineratzen zitzaiola: hiltzean, ez bera zitekeen ehorts aitaren jarlekuan, ez beste inon, ez beretako beste hildakorik ehorts zezakeen. Eta errege honek, bere aurretik Egypton errege izan zirenak gainditu nahiz, adreiluz eginiko piramide bat utzi omen zuen oroigarri, harrian ezarririko idazkiek honako hau ziotelarik: "Ez nazazu gutxiets harrizko piramideekin alderatuz; Zeusek gainerako jainkoak bezainbat gainditzten baititut haiek. Zeren, aintziran arrauna urperatu eta arraunari erantsitako lohia bilduz moldeatu zituzten adreiluak eta era honetan burutu ninduten". Errege honek horrelako lanak azaldu omen zituen.

137. Eta honen ondoren, Anysis hiriko gizonitsu bat izan omen zen errege, izena Anysis zuelarik. Honen erregealdian, ethiopiarrak eta ethiopiarren errege Sabako egyptoarren aurka joan omen ziren indar askorekin. Orduan, itsu hori zingiretara joan omen zen ihesi, eta Egypton ethiopiarra izan omen zen errege berrogeita hamar urtean, zeinetan jokaera hauek azaldu zituen: egyptoarren batek huts egiten zuenean, ez omen zuen inor hiltzea nahi izaten, aitzitik, huts egindako handitasunaren neurrian epaitzen omen zuen, errudun bakoitzari bera zen lekuko hirian lurketak pilaraziz. Eta horrela hiriak are garaiagoak egin ziren; zeren, lehenik Sesostris

erregearen denboran kanalak ireki zituztenek altxatu zituzten lubetak eta ethiopiarraren denboran hurrena, eta hiriak agitz garaiak bilakatu ziren. Eta Egypton goratuak izan ziren hirietatik, nire ustez, Bubastis hiria izan zen goratuena; bertan dago Bubastisen santutegi guztiz aipagarria; izan ere, besteak santutegi handiagoak eta gastu gehiagokoak dira, baina ezer ez da ikusteko atseginagorik hau baino. Eta Bubastis heladeraz Artemis da.

138. Eta horra nolakoa den haren santutegia. Sarreraz beste, irla bat da; izan ere, Nilotik kanal bi datozkio elkarrekin nahasi gabe; aitzitik, bakoitza santutegiko sarreraraino dator batak alde batetik eta besteak bestetik inguratuz; bakoitza ehun oin da eta zuhaitz-itzalean dago. Propyleoak, berriz, hamar besaldi dira goieraz, eta aipagarri diren sei besoko irudiez hornituak daude. Eta santutegia hiriaren erdian dagoenez, inguru egiten dionak alde guztietatik ikusten du; egon ere, hiria lubetaz altxatu zelako eta santutegia hasieran egin zenetik mugitu ez delako dago ikusgai. Bestalde, irudiz zizelaturiko hesi batek inguratzen du santutegia; eta barruan zuhaitz handiz landatutako baso bat dago irudia aurkitzen den tenplu handiaren jiran; eta santutegiaren zabalera eta luzera, alde oro, stadio batekoa da. Sarreraren aurrean, harlosaz hedaturik, hirurehun bat stadio luzeko galtzada bat dago, plazan barrena ekialderantz daramana; zabalera lau pletrotakoa du; eta galtzadaren alde banatan zeruraino luze diren zuhaitzak daude haziak; eta bideak Hermesen santutegira eramaten du. Honelakoa da, beraz, santutegi hori.

139. Eta, azkenik, era honetan gertatu zela esan zidaten ethiopiarraren irteera; ihesi joan omen zen ametsetan honelako ikuspen bat ikusita: gizon batek, aurrean jarritz, Egyptoko apaiz guztiak bildu eta hauek erdi bi egitera aholkatzen zuela iruditu zitzaion; ikuspen

hau ikusi zuenean, esaten omen zuen sakrilegioa eginez jainkoengandik edo gizonengandik kalteren bat beregana zezan, jainkoek aitzakiatzat aurkezten ziotelakoan zegoela; beraz, ez zuela hori egingo, alderantziz, Egyptoko agintean igarri zioten denbora guztia igaro zitzaionez, alde egingo zuela. Izan ere, bera Ethiopian zela, ethiopiarrek galdekatzen dituzten orakuluek Egypton berrogeita hamar urtez izango zela errege erantzun zioten. Beraz, denbora hau igaroa zenez gero eta ametsetako ikuspenak aztoratzen zuenez, Sabako bere borondatez aldendu zen Egyptotik.

140. Eta ethiopiarra Egyptotik joan zenean, berriz ereitsuak agindu omen zuen, zingiretatik itzuliz, bertan errautsez eta lurrez pilatutako irla baten berrogeita hamar urte bizi izan ondoren; bada, egyptoarren bat ethiopiarren isilean norberari zegokion gariarekin zetorkionero, emariari errautsa gehitzeko eskatzen omen zion. Irla hau inork ez zuen aurkitu ahal izan Amyrteok baino lehenago; aitzitik, Amyrteoren aurretik izan ziren erregeak ez ziren aurkitzeko gai izan zazpiehun urte baino gehiagoan. Eta irla honek Elbo du izen, eta alde guztietara hamar stadio da handi.

141. Eta honen ondoren, Setho zeritzan Hephstoren apaizak erreinatu omen zuen. Gerrari-taldeak, ezertarako behar ez bailituen gutxietsiz, ez omen zituen aintzat ere hartzen, eta egin zizkien beste erdeinuen artean golde-lurrak kendu omen zizkien, aurreko erregeek bakoitzari bereziki emandako hamabi arura¹⁶². Gero, ordea, arabiarren eta asyriarren errege Sanakharibok gudaroste handi bat zuzendu omen zuen Egyptoren kontra; ondorioz, egyptoar gerrariak ez omen zioten lagundu nahi izan. Eta apaizak, noraezak eraginik, jainkotegira sartu eta imajinaren aurrean negar egiten omen zuen

jasaten ari zen arriskuarengatik; eta negarra zeriola, loa gaineratu omen zitzaion, eta amets-ikuspenean jainkoak, begien bistan jarriarik, adore ematen ziola iruditzen omen zitzaion: arabiarren gudarosteari aurre eginez ez zuela zorigaitzik jasango; berak bidaliko baitzizkion laguntzaileak. [Amets] horietan fidaturik, jarraitu nahi zioten egyptoarrak berekin hartuz, Pelusion kanpatu omen zen (hemen baitaude Egyptoko sarrerak); hala ere, gerrari-taldeetako gizonetatik inork ez omen zion jarraitu, dendariek, eskulangileek eta plazagizonek baizik. Etsaiei, hara iritsi zirenean, gauez soroetako saguak hara-hona gaineratu zitzaizkielarik, buirakak, uztaiak eta ezkutuen uhalak marraskatu omen zizkieten; hala ezen, biharamunean soin gorritan [armarik gabe] ihes egin baitzuten, asko erori omen ziren¹⁶³. Eta egun badago Hephestoren santutegian errege honen harrizko irudi bat, eskuan sagua duena, inskribuz hau dioelarik: "Niri begiratzen didanak izan beza begirune".

142. Kontakizunaren horrenbestearainokoa kontatu zidaten egyptoarrek eta apaizek, lehen erregetik azkena erreinatu zuen Hephestoren apaiz honenganaino hirurehun eta berrogeita bat giza belaunaldi eta, belaunik belaun, beste hainbat apaizburu eta errege izan zirela erakutsiz. Egiaz, hirurehun giza belaunaldik hamar mila urte suposatzen ditu; hiru giza belaunaldi ehun urte baitira; eta oraindik hirurehun hauei gehitzen zitzaizkien gainerako berrogeita bat belaunaldi, mila hirurehun eta berrogei urte dira. Horrela, hamaika mila hirurehun eta berrogei urtez

giza itxurako jainkorik ez zela izan esaten zuten. Eta, ziotenez, Egypton izan ziren gainerako erregeetan ez zen gertatu, ez lehen eta ez gero, horrelako gertakizunik. Hain zuzen, esaten zuten aldi horretan eguzkia lau aldiz atera zela ohiko lekuz kanpora; bi aldiz atera omen zen orain sartzen den lekutik, eta bi aldiz sartu orain ateratzen den lekutik; eta gertakari hauek egyptoarren arteko ezer ez omen zuten aldatu, ez lurretik ez ibaitik sortzen zaienik, ez gaixotasunaren ez heriotzaren ingurukorik.

143. Eta, lehenago, Hekateo istoriogileari, Thebasen bere buruaren genealogia eginez aitaren jatorria hamaseigarren belaunaldian jainkoarekin lotu zuenean, Zeusen apaizek niri egin zidatena bera egin zioten, nik neure buruaren genealogia egin ez banuen ere. Handia zen jainkotegira sarrarazi, eta aipatu ditudan bezainbat zurezko koloso kontatu zizkidaten erakutsiz; apaizburu bakoitzak han zutiarazten baitu bere bizialdian bere irudia; beraz, kontatzean eta erakustean, bakoitza bere aitaren semea zela ikusarazi zidaten, hilberriarena zen iruditik denetan barrena igaroz, guztiak erakutsi zizkidaten arte. Baina, Hekateori, bere genealogia egin eta jatorria hamaseigarren belaunaldian jainkoarekin lotu zuenean, irudi-kopuruen baitan kontragenealogia egin zioten, gizona jainkoagandik sortu izana onartzen ez ziotelarik. Eta, egin ere, honelako kontragenealogia egin zioten: kolosoetako bakoitza, piromis zelarik, piromis bategandik sortua zela esanez, hirurehun eta berrogeita bost kolosoetako bakoitza [piromisarengandik sorturiko piromisa zela]

ikusarazi zioten arte, eta berauek ez zituzten lotu inolako jainkorekin ez heroirekin. Eta piromis, hain zuzen, "gizon jatorra" da heladeraz.

144. Horrela, bada, haiek, berauen irudi ziren guztiok horrelakoak zirela eta jainkoengandik asko aldentzen zirela ikusarazi zidaten. Bestalde, gizon horiek baino lehen, jainkoek agintzen omen zuten Egypton, gizonekin batera biziz, eta beti haietako batek omen zuen boterea. Eta bertan Osirisen seme Orus, heleniarrek Apolo deritzatena izan omen zen azken errege; hau izan omen zen, Typhon¹⁶⁴ kenduz, Egypton azkena erreinatu zuena. Eta Osiris heladeraz Dionyso da.

145. Heleniarren artean, hain zuzen, jainkotan berrienak Herakles, Dionyso eta Pan direla uste dute; egyptoarren artean, aldiz, Pan guztiz antzinakotzat eta lehen jainko deritzeten zortzietakotzat dute, eta Herakles hamabi jainko deritzaten bigarrengoetakotzat, eta Dionyso hamabi jainkoetatik sortu ziren hirugarrengoetakotzat. Egyptoar berek Heraklesi Amasis erregearenganaino zenbat urte dagozkiola dioten lehen azaldua dut; eta Pani horiek baino are gehiago dagozkiola esan ohi da; Dionysori, berriz, horietan gutxien, eta honi Amasis erregearenganaino hamasei mila dagozkiola kalkulatzan dute. Eta zenbakiok zehazki dakizkitela diote egyptoarren, beti kontatu ez ezik, idatzi ere urteok beti idatzi ohi dituztelako. Beraz, Kadmoren alaba Semelegandik jaio zela dioten Dionysori mila [eta seiehun] bat urte dagokio nireganaino, eta bederatziehun bat Alkmenaren seme Heraklesi, eta Pani Peneloperenari (Pan honengandik eta Hermesengandik jaio zela esaten baitute heleniarrek), Troiako gertakizunez behetiko urteak dagozkio, zortziehun bat nireganaino.

146. Norbere baitan dago, bada, esandako bi arrazoi hauetatik, gehien konbentzitzen duenaz baliatzea; azaldu baitut neure beraiei buruzko iritzia. Izan ere, Amphitryonengandik jaiotako Herakles bezalaxe, Semelegandik jaiotako Dionyso¹⁶⁵ eta Penelopegandik jaiotako Pan¹⁶⁶ ere ezagunak izan eta Heladen zahartu balira, batek esan zezakeen horiek ere, beste gizon batzuk izanik, beren aurretik izan ziren jainko haien izenak zituztela. Egun, ordea, heleniarrek esaten dute Dionyso, jaio orduko, Zeusek bere izterrean josi eta, Egyptoz goitik Ethiopian dagoen Nysara eraman zuela, eta Pani buruz ez dakite esaten jaio zenean nora jo zuen. Beraz, argi dago heleniarrek hauen izenez beste jainkoenez baino geroago jabetu zirela; eta jabetza hori izan zutenetik egin zuten haien jatorriaren genealogia.

147. Hau da, bada, egyptoarren bakarrik diotena, eta gainerako gizonek eta hauekin bat eginez egyptoarren lurralde honetan gertatu zenaz esaten duten guztia berehala adieraziko dut; eta honi neure ikusketazko zerbait erantsiko diot. Egyptoarren, Hephestoren apaizak erreinatu ondoren aske izan zirenean, (une batean ere ezin baitziren erregerik gabe bizi) hamabi errege jarri zituzten, Egypto osoa hamabi zatitan bananduz. Erregeok, elkar-ezkontzak eginda gero, lege hauetaz baliatuz erreinatu zuten, hots, batak bestea ez eraistea, batak bestea baino gehiago ez nahi izatea, eta lagun handiak izatea. Eta hona zergatik sortu eta fermuki zaindu zituzten lege hauek: agintean jarri ziren ordukoxe, orakuluak Ephestoren santutegian brontzezko edalontziaz isurpena egiten zuen

beretako hura Egypto osoko errege izango zela igarri baitzien; bildu ere santutegi guztietan biltzen ziren eta.

148. Elkarren artean oroigarri bat uztea ere erabaki zuten; eta erabakia hartu ondoren, labirinto bat eginarazi zuten berentzat, zeina Meris aintziraz goi samarrean, gutxi gora-behera Krokodilopolis¹⁶⁷ deritzan hiriaren parean dagoen. Esan daitekeen baino handiagoa dela, nik neuk ikusi dut. Izan ere, norbaitek heleniarren harresi eta arte-lanen azalpena neur baleza, labirinto hau baino neke eta gastu gutxiagokoak direla ager lekiok; eta, hori, Epheson dagoen tenplua eta Samon dagoena benetan aipagarriak direlarik¹⁶⁸. Horrela, piramideak esan daitekeen baino handiagoak ziren eta hauetako bakoitza heleniarren lan asko eta handien baliokide zen; hala ere, labirinto honek piramideak ere gainditu egiten ditu. Izan ere, hamabi patio ditu estalirik, ateak elkarren aurrez aurre, sei iparraldera eta sei hegoaldera, jarraian zuzenduak; eta kanpotik harresi berak inguratzen ditu. Eta barruan bi mailatako egoitzak daude, batzuk lurpean eta besteak haien gainean eraikiak, kopuruz hiru mila, mila eta bostehun maila bakoitzean. Lur gaineko egoitzak geuk ikusi genituen zeharkatuz, eta geuk ikusi dugunez hitz egiten dugu; lurpekoez, ordea, esanen arabera dakigu; zeren, haren gain zeuden egyptoarren ez zizkiguten inola ere erakutsi nahi izan, labirinto hura eraikitzen hasi ziren erregeen hilobiak eta krokodilo sakratuenak bertan zeudela esanez. Horrela, lurrazpiko egoitzei buruz aditzez jabeturik mintzatzen gara; geuk ikusi genituen, ordea, giza lanez gaindikoak diren lur gainekoak. Izan ere, aterpetik aterperako irtenbideak eta patiotik patiorako kiribilak guztiz korapilatsuak zirelarik, neurrigabeko harridura sortzen ziguten patiotik egoitzetan barrena

eta egoitzetatik portaletara eta portaletatik beste aterpeetara eta egoitzetatik beste patio batzuetara igarotzean. Eta eraikuntza guztion sabaia, hormak bezalaxe, harrizkoa da, eta hormak irudi grabatuez beteak daude, eta patio bakoitza guztiz doituriko harri zurizko zutabez inguraturik dago. Eta labirintoa amaitzen den ertz batean irudi handiak ezarriak dituen berrogei besaldiko piramideak du leku; eta bertarako bidea lurpean egina dago.

149. Eta labirinto hori horrelakoa delarik, oraindik harridura handiagoa sortzen du Meris deritzan aintzirak¹⁶⁹, zeinaren ondoan eraikia dagoen labirinto hori. Honen itzuliaren perimetroa hiru mila eta seiheun estadiokoa da, hirurogei eskeno direlarik¹⁷⁰, Egipto bereko kostaldeak dituenak berak, hain zuzen; eta aintzira iparraldera eta hegoaldera luzatzen da, bere sakoneneko unean berrogeita hamar besaldi sakon delarik. Eskulanez egina eta hondeatua dela, berak ere erakusten du. Zeren, aintziraren erdirantz piramide bi jaikitzen dira, bakoitzak berrogeita hamar besaldi urez goitik duena, eta ur azpian beste horrenbeste dauka eraikia; eta bietako bakoitzean harrizko koloso bat dago thronoan eseria. Horrela, piramideak ehun besaldikoak dira; eta, ehun besaldi sei pletro luzeko stadioa da zuzenki, besaldiak sei oin edota lau beso neurtzen duelarik, oina lau arrabetekoa eta besoa seikoa delarik¹⁷¹. Baina aintzirako ura ez da bertan jaiotzen dena (bertako lurra guztiz urgabea baita); aitzitik, Nilotik kanalean barrena¹⁷² ekartzen da, eta sei hilabetez aintzira barrura isurtzen da eta sei hilabetez, aintziraz kanpo, Nilora itzultzen da. Eta ura kanpora doanean,

honek sei hilabeteko aldian erregearen ondasundegiari egun bakoitzean zilarrezko talentu bat ekoizten dio arrainketatik; ura aintzira barrura doanean, berriz, hogei mina¹⁷³.

150. Eta bertakoek baita ere esaten zuten nola aintzira horrek bere urak lurpean barrena Libyako Syrteri ematen dizkion, mendebaldera, lurbarrurantz dagoen Memphis ez goitiko mendi ondotik zuzenduz. Eta ez bainuen ikusten aintziraren hondeaketa-lurra inon zegoenik, arazoa axola zitzaidanez, aintziratik hurbilen bizi zirenei hondeaketaz ateratako lurra non zegoen galdetu nien. Hauek azaldu zidaten nora eraman zen, eta erraz sinetsi nien; esatez bai bainekien asyriarren hiri den Ninon¹⁷⁴ ere beste horrelako bat gertatu zena. Izan ere, Ninoko errege Sardanapaloren aberastasunak handiak zirelarik eta lurpeko altxortegietan gordeak zeuden arren, lapurrei ostea bururatu zitzaien. Beraz, lapurrek beren etxeetatik hasi eta lurpean erregearen egoitzetarako bidea kalkulatu, zulo bat egin zuten, eta zulotik ateratako lurra, gaua heltzen zenean, Ninoren alboan doan Tigris ibaira eramaten zuten nahi zutena burutu zuten arte. Horrelako beste zerbait gertatu zela entzun nuen Egyptoko aintziraren hondeaketan ere, gauean ez baina egunez egiten zela izan ezik; egyptoarren, bada, hondeatu ahala, lurra Nilora eramaten omen zuten eta honek bereganatu eta barreiatu egin behar omen zuen. Beraz, aintzira hau horrela hondeatu zela diote.

151. Eta hamabi erregeek zuzentasunez jokatzen zutelarik, denboraren arian Ephestoren santutegian opari egiten ari baitziren, jaialdiaren azken egunean isurpen-eskaintza egitera zihoazela, apaizburuak isurketak egin ohi zituzten urrezko edalontziak ekarri

zizkien, zenbakiz huts eginez hamaika, hamabi izanik. Orduan Psametikhok, haietatik azkena zegoenak ez baitzuen edalontzirik, brontzezkoa zen kaskoa erantziz, luzatu, eta isurpena egin zuen. Beste errege guztiek ere bazeramatzaten kaskoak eta orduan berekin edukitzea suertatu zen. Psametikhok, bada, inolako maltzurkeriarik gabe luzatu zuen kaskoa. Baina haiek gogoan hartu baitzuten Psametikhok eginikoa eta orakuluak igarri ziena, hots, brontzezko edalontziaz isurpena egiten zuen beretako hura izango zela Egyptoko errege bakarra, igarpen hau gogoratu arren, ez zuten bidezkoztat jo Psametikho hiltzea, galdekatzean, inolako asmorik gabe egin zuela ikusten baitzuten, eta honi aginterik gehiena kendu ondoren, zingiretara deserriratzea ebatzi zuten eta zingiretatik mugituz, gainerako egyptoarrekin harremanak izatea galarazi.

152. Eta Psametikho hau, lehenago, ethiopiar Sabakogandik ihesi zihoala, honek aita Neko hil baitzion hari, une hartan, Syriara ihesi zihoala, ethiopiarra ametsetan izan zuen ikuspenagatik erretiratu zenean, saistar nomoko egyptoarrek itzularazi egin zioten. Eta, ondoren, errege izanik, kaskoa zela eta, hamaika erregeek bigarrenez behartu zuten zingiretara ihes egitera. Beraz, haiek irain egin ziotelakoan, deserriratzailuez mendekatzeko asmotan zegoen. Baina, Buto hirira [Letoren igarletegira], egyptoarrentzat orakulurik zinezkoena dagoen lekura galderagileak bidali zituenean, igarpen hau heldu zitzaion: mendekua, itsasotik agertuko ziren brontzezko gizonengandik iritsiko zitzaiola. Benetan, sinestezin handia gaineratu zitzaion brontzezko gizonak laguntzera etorriko zitzaizkionaz; baina, denbora asko igaro gabe, halabeharrik

behartu zituen joniar eta kariar gizonak, harrapakin bila itsasorarazi eta Egyptora eramana izatea¹⁷⁵; eta lehorreratu zirenean, eta brontzez armatuak zeudelarik, egyptoar batek, lehenago ez baitzuen brontzezko gizonik ikusi, zingiretara etorri eta horra hor non iragartzen dion Psametikhori brontzezko gizon batzuk itsasotik heldu eta lautada arpilatzen ari direla. Hau, igarkuntza betetzen ari zela oharturik, joniarrekin eta kariarrekin adiskide egiten da eta sari handiak aginduz berekin elkartzera limurtzen ditu; eta limurtu zituenean, honela, [bere] nahierara zituen egyptoarrekin eta aliatuekin erregeak eraisten ditu.

153. Eta Psametikhon Egypto osoaz jabetu zenean, Memphisen hego-haizerantz zuzenduak dauden propyleoak eginarazi zituen Hephestorentzat, eta Apisi, azaltzen denean mantenu-leku zaion patio bat eraiki zion propyleoen aurrealdean, dena zutabez inguratua eta irudiz betea; eta pilareen ordean hamabi beso altuko kolosoek eusten diote patioari. Eta Apis heleneraz Epapho da.

154. Eta Psametikhok lankide izan zituen joniarrei eta kariarrei elkarren aurrez aurre dauden lurraldeak eman zizkien, Nilo erdian zutela, bizi izateko, Stratopeda¹⁷⁶ izena ezarri zuelarik. Eta haiei lurralde hauek emateaz gainera, agindutako beste gauza guztiak ere eman zizkien. Eta egyptoar haurrak ere gomendatu zizkien heladeraz irakats ziezaieten; eta hizkuntza ikasi zuten hauetatik sortu dira egun Egypton dauden interpretariak. Eta joniarrek eta kariarrek luzaro bizi izan ziren lurralde horietan; eta lurralde horiek itsasaldera, Bubastis hiriaz zerbait behetik daude, Pelusiokoa deritzan Niloren ahoan, hain zuzen. Geroago Amasis erregeak,

handik ateraz, Memphisen jarri zituen bizitzen, egyptoarren lekuan bere zaindari eginaz. Eta Egypton egoitzatu zirenetik, heleniarrek hauekin halako harremanak baitauzkagu, Psametikhon erregeagandik hasi eta Egypton gertatzen diren ondorengo gertakizun guztiak zehatz dakizkigu; izan ere, hauek izan ziren Egypton egoitzatu ziren lehen hizkuntz arrotzekoak. Eta atereak izan ziren lurraldeetan baziren oraindik nire garaian itsasuntzien arrastagailuak eta eraikuntzen hondakinak. Psametikhok, bada, horrela bereganatu zuen Egypto.

155. Eta, jadanik, askotan egin dut Egyptoko orakuluaren aipamena, eta, merezi duenez, beraz hitz egingo dut. [Egyptoko] igarletegi hau Letoren santutegia da eta hiri handian, Sebenytekoka deritzan Niloren ahoan eraikia dago itsasotik ibai gora egiten duenarentzat. Eta, lehen ere izendatu dudanez, Buto du izen orakulu hau dagoen lekuak. Eta Buto honetan bada Apoloren eta Artemisen santutegi bat. Eta orakulua dagoen Letoren tenplua bera handia da halabeharrez eta hamar besaldi altuko propyleoak dauzka. Baina ageri zirenetatik niri harridurarik handiena sortu zidana azalduko dut. Letoren temenos¹⁷⁷ honetan bada tenplu bat goieran eta luzeran harri bakarrarekin egina eta bietara horma berdina duena; hauetako bakoitza berrogei besokoa da. Eta teilatuko estalkia lau besoko erlaitza duen beste harri bat da.

156. Tenplu hau da, beraz, santutegiaren inguruan ageri direnetatik niri harrigarrien zaidana; hurrengoan artean, berriz, Khemis deritzan irla da. Butoko santutegi ondoan dagoen aintzira sakon eta

zabal baten kokatua dago, eta egiptoarrek irla flotatzailea dela esaten dute. Nik neuk ez flotatzen, ez mugitzen ikusi dut; aitzitik, entzutean harritu egiten naiz nola irla bat egiaz flotatzaile izan daitekeen. Dena den, bertan Apoloren tenplu handi bat dago eta barruan hiru aldare daude eraikiak, eta palmondo ugari eta beste zuhaitz asko ere hazten dira bertan, nola fruitu-emaileak hala -ezemaileak. Hala ere, egiptoarrek flotatzaile dela diote, istorio hau gaineratuz: lehen flotatzaile ez zen irla horretan, Letok, lehenengo belaunaldiko zortzi jainkoetako zelarik orakulu hori dagoen Buto hirian bizi zenak, Isisengandik Apoloren zaintza beregan hartu ondoren, orain flotatzailea deritzan irlan gordeaz salbatu omen zuen, Typhon, Osirisen semea aurkitu nahirik, dena miatuz heldu zenean. Esan ere, Apolo eta Artemis Dionysoren eta Isisen seme-alabak direla esaten dute, eta Leto izan zutela inude eta salbatzaile; bestalde, egiptoeraz Apolo Orus da; Demeter, berriz, Isis; eta Artemis, Bubastis¹⁷⁸. Eta istorio honetatik, eta ez beste inondik, hartu zuen Euphorionen seme Eskhylok nik esango dudana, honetan aurreko poeta guztietan bakarra delarik: hain zuzen, Artemis Demeterren alaba egin zuen. Eta irla, horrengatik bilakatu omen zen flotatzaile. Gauzok horrela kontatzen dituzte.

157. Psametikhoren berrogeita hamabost urtez izan zen Egiptoko errege; hauetatik hogeita bederatzi, Syriako hiri handia den Azoto aldean kanpatuz, eskuratu zuen arte setiaturik eduki zuen. Hain zuzen, guk dakizkigun hiri guztietatik Azotoko hiri honek iraun zuen gehien setiaturik.

158. Eta Neko izan zen Psametikhoren semea, eta Egypton erreinatu zuen. Honek ezarri zion lehen eskua Erythre itsasora doan kanalari, gero persiar Dariok erabat hondeatu zuenari. Lau eguneko untzibidea du luzeran, eta hain zabal izan zen hondeatua, non triere¹⁷⁹ bik, alboz albo gidatuak direlarik ere, nabiga dezaketen. Bertara Nilotik eramaten da ura eta, eraman ere, Bubastis hiria baino goraxeagotik Patumo, Arabiako hiri ondoan barrena eramaten da, eta Erythre itsasora irteten da. Egyptoko lautadatik Arabiarantz dagoen zatia izan zen lehendabizi hondeatua, eta lautadaz goitik Memphis aurrean luzatzen den mendia dago, zeinetan harrobiak dauden. Kanala, bada, luzeran mendi honen peko lurraldean zehar sartaldetik sortaldera doa eta gero arroiletan barrena luzatzen da, menditik eguerdialdera eta hego-haizerantz zuzenduz Arabiar golkoraino. Eta iparraldeko itsasotik hegoaldekora, Erythre ere deitzen zaion horretara igotzeko dagoen igarobiderik laburren eta motzenean barrena, Egypto eta Syria mugatzen dituen Kasio menditik Arabiar golkoraino, "doi-doi" mila stadio daude. Hau da biderik laburrena; kanala da, aldiz, luzeena, bihurriena delako. Hondeatzen hamabi mila egyptoark galdu ziren Nekoren garaian. Dena den, Nekok hondeaketa bertan behera utzi zuen erdigunean, orakulu bat izan baitzuen behaztopo, barbaroarentzat ari omen zela lanean eta. Egyptoarrekin, hain zuzen, beren hizkuntza berekoak ez direnei deritzete barbaro.

159. Eta Nekok kanala utzi zuenean, gerragintzara itzuli zen eta triereak eginarazi zituen, zenbait iparraldeko itsasoan

eta beste zenbait, zeintzuen arrastagailuak oraindik ageri diren, Erythre itsasoko Arabiar golkoan. Eta triere hauetaz beharrean baliatu ohi zen, eta Neko, lehorrez syriarrekin Magdolon topatu zelarik, garaile irten zen, eta borrokaldi baten ondorioz Syriako hiri handia zen Kadytis hartu zuen. Egintza hauek burutu zituenean, eramatea suertatu zitzaion jantzia Apolori eskaini zion, Miletoko brankhidei igorritz. Eta guztira hamasei urtez agindu ondoren, agintea bere seme Psamisi utziaz hiltzen da.

160. Eta Psamis hau Egyptoko errege zen garaian, elearrren mezulariak heldu zitzaizkion Olympiako lehiaketak inork eratzen zituen modurik zuzen eta ederrenean eratzen zituztela harro esanez eta denetan jakintsuenak ziren egyptoarrekin ere haien aldean ezin zitzaketela hobeak sortu iritziz. Eta elearrak Egyptora iritsi eta zertara etorri ziren esan zituenean, une berean errege horrek egyptoarretan jakintsuenak zeritzatenei deitzen die. Eta egyptoarrak, bildurik, elearrren hitzetatik lehiaketaren inguruan berek egitea komeni zen guztiaz jabetu ziren; eta elearrak, guztia zehatz azaldu ondoren, egyptoarrekin lehiaketa horiek baino zuzenagorik sor ote zezaketen jakitera etorri zirela esan zieten. Eta haiek, elkar aholkatu ondoren, beren hiritarrak lehiaketetan esku hartzen zuten galdetu zieten elearrei. Eta hauek erantzun zieten, beretatik eta berdin gainerako heleniarretatik, nahi zuenari zilegi zitzaiola buruz buru lehiaketan esku hartzea. Orduan, egyptoarrekin erantzun zieten, lehiaketak horrela eratuz, zuzentasunean erabateko hutsegitea egin zutela, atzerritarraren kaltetan beren hiriko lehiaketariari mesede egin gabe uzteko inolako ahalbiderik ez zutelako; alderantziz, zuzen eratu nahi bazuten eta Egyptora honengatik etorri baziren, atzerritar lehiaketarientzat

lehiaketa jartzera eta elearretatik inori lehiatzen ez uztera aholkatu zituzten. Horra nolako aholkua eman zieten egyptoarren elearreri.

161. Psamisek sei urtez bakarrik erreinatu zuen Egypton, eta, Ethiopiaren aurka gerraratu eta berehala hil ondoren, honen seme Apries izan zen ondorengo; hau, bere birraitona Psametikhoren hurrena, aurreko erregeetan zoriontsuena izan zen, hogeita bost urtez aginduz; hauetan Sidonen aurka gudarostea zuzendu eta itsasoz Tyrori eraso zion. Baina zorigaitza sortu behar zitzaionez, Libyako kontakizunetan luzarago azalduko dudana gertaldi bat zela bide sortu zitzaion, eta oraingoan neurritz azalduko dut. Apriesek, bada, zyrenetarren aurka gudarostea bidali zuen batean, hondamen handi bat izan zuen eta, egyptoarren hori leporatuz, beragandik banandu egin ziren, Apriesek jakinaren gainean, beraien suntsipena gerta zedin eta beronek gainerako egyptoarren aginte sendoagoa izan zezan, galera garbira bidali zituela uste izanez. Eta gauza horiek gaizki hartuz, itzuli zirenak eta hildakoen lagunak ageriki apartatu egin ziren.

162. Eta Apriesek horren berri izan zuenean, Amasis bidali zien hitzez baretu zitzaion. Baina hau iritsi eta, horrelakorik egin ez zezaten egyptoarren eusten hasi zen orduko, bera hizketan ari zela, egyptoarren batek, atzean jarritz, kaskoa jarri zion buru inguruan, eta jartzen zion bitartean, erregetzat jartzen ziola esan zion. Eta egin ez bide zen egin haren gogoz kontra, erakutsi zuenez; matxinatutakoek egyptoarren erregetzat hartu zutenean, Apriesen aurka joateko prestatu baitzen. Eta, hau jakitean, Apriesek Amasisengana bere inguruko egyptoarren artean omentsua zen gizon bat, izena Patarbemis zuena, bidali zuen, Amasis bizirik ekar ziezaion aginduz. Baina, iritsi eta Patarbemisek Amasisi beregana deitu zionean, Amasisek (halabeharrez zaldi gainean eserita baitzegoen), jaiki eta uzker bat bota zuen

eta hura Apriesi eramateko eskatu zion. Hala ere, Patarbemisek, erregeak deitzen zionez berarengana joan zedin erregutzen omen zion Amasisi; baina, honek aspaldidanik hori egiteko prestatzen ari zela eta Apriesek ez ziola gaitzestuko erantzun omen zion, bera aurkeztu ez ezik besteak ere eramango zituela eta. Patarbemis, bere aldetik, hitz horien ondoren jada ez omen zegoen haren asmoaren ezjakinean, eta, prestatzen ikusten zuenez, berehala abiatu omen zen ahalik eta lasterren egiten ari zen azpikeria erregeari azaldu nahiz. Baina Apriesengana Amasis gabe iritsi zenean, hark, arrazoi bakar bat eman gabe, alderantziz, suharrak hartuta, belarriak eta sudurra motz ziezaiotela agindu omen zuen. Eta oraindik haren alde zeuden gainerako egyptoarren beretako gizonik omentsuena hain lotsagarriro iraindua ikusi zutenean, geldiunerik gabe, besteengana pasa ziren eta beren buruak Amasisi entregatu zizkioten.

163. Eta Apriesek hori jakin zuenean, mertzenarioak armatu eta egyptoarren aurka gidatu zituen. Bere inguruan hogeita hamar mila kariar eta joniar zituen mertzenariotzat, eta bere errege-egoitzak, handiak eta ikusgarriak zirelarik, Sais hirian zeuden. Eta Apriesen ingurukoek egyptoarren aurka jo zuten eta Amasisen ingurukoek atzerritarren aurka. Momemphis hirian elkar topatu eta bata bestea neurtzeko bidean jarri ziren.

164. Hin zuzen, egyptoarren artean zazpi kasta daude, eta hauetatik batzuei apaizak deritze, besteei gerrariak, besteei itzainak, besteei zerrizainak, besteei merkatariak, besteei interpretariak eta besteei lemazainak. Hainbestexek dira egyptoarren kastak, eta deiturak beren lanbideetatik datozkie. Bestalde, hauen arteko gerrariei kalasiriak eta hermotybiak deritzaie, eta nomo hauetakoak dira; Egipto osoa nomotan banandua baitago¹⁸⁰.

165. Hermotybien nomoak hauek dira: Busiriskoa, Saiskoa, Khemiskoa, Papremiskoa, Prosopitide deituriko irla, Nathos erdia; nomo hauetakoak dira hermotybiak, gehien izan zirenean ehun eta hirurogei mila zirelarik. Eta hauetako inork ez du ikasi eskulanean; aitzitik, borrokara emanak daude.

166. Kalasirien nomoak, aldiz, beste hauek dira: Thebaskoa, Bubastiskoa, Aphthitekoa, Taniskoa, Mendeskoka, Sebenytekoa, Athribiskoa, Pharbethiskoa, Thmuiskoa, Onuphiskoa, Anysiskoa, Myekphoriskoa; nomo hau irla baten kokatua dago, Bubastis hiriaren aurrean; horiek dira kalasirien nomoak, gehien izan zirenean berrehun eta berrogeita hamar mila gizon zirelarik. Hauei ez zaie zilegi inolako lanbidetan ihardutea; aitzitik, gerran bakarrik dihardute, aitaren ondotik semeak jarraitzen duelarik.

167. Orain, ezin dut ziurtasunez erabaki hori ere heleniarrek egyptoarrengandik ikasi zuten, ikusten baitut thraziarrek, szythiarrek, persiarrek eta lydiarrek eta ia barbaro guztiek, lanbideak ikasten dituztenak eta hauen ondorengoak, beste hiritarrak baino duintasun gutxiagokotzat dauzkatela, eta eskulanetatik libre daudenak, eta bereziki gerrarako daudenak jatorragoak direlakoan daudela. Dena den, heleniar guztiak eta batez ere lazedemondarrak horretara jarriak daude, eta eskulanak gutxien gutxiesten dituztenak korinthoarrak dira.

168. Eta haiek bakarrik zituzten, apaizekin batera, ohore-sari bereiziak: bakoitzari zergagabeko hamabi arura-lur bereizten zitzaion. Eta arurak, alde oro, ehun egyptoar beso ditu, eta halabeharrez egyptoar besoa samoarraren berdina da¹⁸¹.

Sari bereizi hauek guztiei zegozkien, eta ondorengo bereizpen hauek txandaka lortzen zituzten eta inoiz ez pertsona berek: urte bakoitzean mila kalasiri eta beste hainbat hermotybi erregearen lantzari izan ohi ziren; eta hauei, arura-lurrez beste, bakoitzari egunero bost mina¹⁸² pisuko ogi errea ematen zitzaion, bi mina idi-haragi eta lau aryster¹⁸³ ardo; hori ematen zitzaion aldiro lantzariei.

169. Eta, elkarrengana bideratuz, Apries bere mertzenarioekin eta Amasis egyptoar guztiekin Momemphis hirira ailegatu zirenean, bata bestearengana jaurti ziren; eta atzerritarrek ongi borrokatu ziren, baina kopuruz askoz gutxiago baitziren, horrengatik garaituak izan ziren. Bestalde, hau zela diote Apriesen ustea: ez zela jainkorik hari erregetza utzaraziko zionik; hain sendo ezarria zuela iruditzen zitzaion. Eta orduko elkarjotzean garaitua izan zen, eta, preso, Saisko hirira eraman zuten, lehen bereak zituen egoitzetara eta orduz geroztik Amasisenak izango ziren erregearenetara. Eta aldi baten han, errege-egoitzetan mantendua izan zen eta Amasisek ongi tratatu zuen; baina azkenean egyptoarren aurpegiratu egiten baitzioten berauen eta bere etsairik handiena mantentzean ez zuela zuzen jokatzeko, egoera honetan Apries egyptoarreni entregatzen die. Eta hauek ito egin zuten, eta ondoren gurasoen ehorzlekuan ehortzi zuten. Ehorzleku hau Athenearen santutegian dago, jainkotegitik guztiz hurbil, sartzen denarentzat ezkerreko aldean. Saistarrek nomo honetakoak diren errege guztiak santutegi barruan ehortzi dituzte. Beraz, Amasisen hilobia jainkotegitik Apriesena eta honen gurasoena baino urrutiago dagoen arren, hala ere hura santutegiko patioan dago, zeina harrizko atari handi bat den eta palmondoen antzeko zutabez eta beste gauza baliotsuez hornitua dagoen. Eta atari honen barruan atetzar bi jaikitzen dira eta atetzar horietan dago hildakoaren jarlekua.

170. Eta bada Saisen honelakoan bere izena aipatzea adeitsu ez zaidanaren ehorzlekua ere; Athenearen santutegian, tenplu atzean dago, tenplu-horma osoa hartzen duelarik. Eta temenos¹⁸⁴ honetan harrizko obelisko handiak altxatzen dira, eta alboan aintzira bat dago, ongi egindako harrizko petril zirkularrez apaindua eta, nire ustez, trokhoide¹⁸⁵ deritzan Delokoa bezain handia.

171. Eta aintzira honetan egiten dira gauez haren nekaldi-erakuspenak, egyptoarren misterioak deritzetenak. Orain, horietako bakoitza nola den gehiago badakidan arren, horiei buruz bekit ahoa zuhur. Eta heleniarrek Thesmophoriak deritzaten Demeterren misterio-ospakizunari buruz ere bekit zuhur ahoa, adeitsu zaidan guztiaz izan ezik. Danaoren alabak izan ziren ospakizun hori Egyptotik ekarri zutenak eta pelasgiar emakumeei irakatsi zienak; gerora, ordea, Peloponeso osoa dorianren pean deserriratu zenean, ospakizuna galdu egin zen, eta peloponesoarrenetik atzerriratu gabe geratu ziren arkadiarren bakarrak gorde zuten misterio-ospakizuna.

172. Eta Apries [horrela] eraitsia izan zenean, Amasis, Sais nomokoa zena izan zen errege, eta Siuph izena duen hirikoa zen. Hasieran egyptoarren gaitzetsi egiten zuten Amasis, eta ez zeukaten inolako estimu handian, lehen herrikume eta etxe ilunekoa zenez; gero, ordea, Amasisek jakinduriaz eta setarik gabe bereganatu zituen. Beste hamar mila ondasunen artean bazuen urrezko oinontzi bat ere, zeinetan Amasisek berak eta honen mahaikide guztiek aldiro

oinak garbitzen zituzten; beraz, hau puskatu eta berarekin jainko baten irudia eginarazi eta hirian, egokiena zen lekuan eraiki zuen. Eta egyptoarren, irudiari joan-etorriak eginez, handiki gurtzen zuten. Eta Amasis hiritarrek egiten zutenaz jabeturik, egyptoarrak bildu eta egia azaldu zien, irudi hura, lehen bertan botaka ari, pixa egin eta oinak garbitu ohi zituzten oinontziz egina bazegoen ere, orduan handiki gurtzen zutela esanez. Eta, jarraituz, berak ere oinontziaren antzeko zortea izan zuela esan zien; zeren, lehen herrikume bazen ere, une hartan beraien errege zela; eta ohoratzeko eta zaintzeko eskatu zien. Era horretan beren morrontza onartzeraino bereganatu zituen egyptoarrak.

173. Eta bere eginkizunetan jokabide hau erabili ohi zuen: goiz lehenetik plazaren betealdira arte, ekartzen zizkioten arazoez ziharduen, eta honen ondoren edan eta edan-lagunei txantxak egiten zizkien eta kaskarin eta jolastia zen. Bere lagunak, ordea, jokaera hauekin gogaiturik, errieta egin ohi zioten honelakoak esanez: "Oi errege, ez duzu zeurekiko zuzen jokatzeko, zeure burua gehiegizko arinkerietara bideratuz; izan ere, zuk, throno errespetagarrian errespetuz eseriz, eguneroko gobernu-gaietan ari behar zenuke; eta horrela egyptoarren jakingo lukete jakin gizon handi batek zuzenduak daudela eta entzute hobe izango zenuke; baina egun ez duzu inola ere erregearenik egiten". Hark, baina, hitz hauekin erantzuten zien: "Uztaia dutenek, erabili behar dutenean estutu egiten dute, eta erabili dutenean lasatu; zeren, denbora guztian estu balego, hautsi egingo litzaieke, beharrean erabiltzerik ez izateraino. Horrela da giza jokabidea ere:

tarteka bere burua jolasera jarri gabe, beti lanean zorrotz ari nahi baleza, oharkabeen erotu edota gutxienez zoro bihur liteke. Nik hori jakinik, nori bere denbora ematen diot". Hori erantzun zien lagunei.

174. Eta Amasis, berekikoa zenean, edale eta txantxazale omen zen, eta inola ere ez langile zorrotza; baina, edanaz eta ongi bizi az, beharrezkoak falta zitzaizkionean, inguru-minguru ibiliz, ostu egiten omen zuen. Eta beraien ondasunak zeuzkala ziotenek, ukatzean, nork bere lekuan zuen orakuluarengana eramane ohi omen zuten; harrapatu ere, orakuluek askotan harrapatzen omen zuten, baina beste askotan zigorrari ihes ere egiten omen zion. Baina errege izatera iritsi zenean, honelakoak egin zituen: batetik, bera lapur ez zelakoan aske utzi zuten jainko guztien santutegiez ez ardurarik izan zuen, ez deus eman zien berrikuntzarako, ez oparirik eskaini zien joan-etorriak eginez, ezeren duin ez omen zirelako eta gezurrezko orakuluak zituztelako; bestetik, lapurra zelakoan kondenatu zuten guztiez, egi azki jainko zirelako eta benetako orakuluak eskaintzen zituztelako, bereziki arduratu zen.

175. Saisen, adibidez, Atheneari, alde batetik, propyleo miresgarriak burutu zizkion, goieraz eta handitasunez ez ezik harrien tamainuz eta kalitatez ere guztienak askoz gaindituz, eta, bestetik, koloso handi batzuk eta giza esfinge itzelak eskaini zizkion eta, berrikuntzarako, handiz ezohikoak ziren beste harri batzuk garraiarazi zituen. Eta hauetako batzuk Memphisen aurrean dauden harrobietatik ekarri zituen, eta handitxoak Saistik untzibidean hoge i eguneraino aparte dagoen Elephantina hiritik. Eta horietatik ez gutxien, gehien baizik, miresten dudana, honako hau da: Elephantina hiritik harri bakarrez egindako etxola bat garraiarazi zuen eta, garraiatu,

hiru urten garraiatu ere, eta horretarako bi mila gizon jarri zituen garraiatzaile, eta guztiok lemazainak ziren. Eta aterpe honen luzera kanpotik hogeita bat besokoa da, zabalera hamalaukoa, eta goiera zortzikoa. Neurri hauek harri bakarreko aterpearen kanpotikoak dira; barrendik, orde, bere luzera hemezortzi beso eta pygon batekoa da; "zabalera, berriz, hamabi besokoa" eta goiera bost besokoa da. Etxola hau santutegiaren sarrera ondoan dago. Bada, esaten dute santutegi barrura honengatik ez zuela arrastarazi: aterpea arrastatzen ari zirela, etxegileburua, denbora asko igaro eta lanez leher egina zegoela eta, antsika hasi omen zen, eta Amasisek, kezkatutik, ez omen zion utzi are aurrerago arrastatzen. Batzuek, hala ere, aterpe hura palankatzen ari zirenetako gizon bat beraren azpian suntsitua izan zela esaten dute, eta honengatik ez zela izan barrura arrastatua.

176. Baina Amasisek beste santutegi ospetsu guztietan ere eskaini zituen handitasunez ikusgarriak ziren lanak, eta, bereziki, Memphisen Hephestio¹⁸⁶ aurrean aurpegiz gora datzan kolosoa, zeinaren luzera hirurogeita bost oinekoko den. Eta oinarri beraren gainean ethiopiar harrizkoak diren koloso bi jaikitzen dira, bakoitza hogeitaz oin altu dena, bata handiaren alde batetik eta bestea bestetik. Eta bada Saisen ere beste honenbesteko bat, Memphiskoaren egoera berean datzana. Amasis da Isisen ohorez Memphisko santutegia eraiki zuena ere, handi eta guztiz ikusgarria delarik.

177. Eta, Amasis errege zela, orduantxe izan omen zen Egipto ondasuntsuen, bai ibaiak lurraldeari, bai lurraldeak gizonei

erakarri zienagatik, eta bertako biztanledun hiriak guztira hoge mila izatera iritsi omen ziren. Eta Amasis da Egiptoarrei lege hau jarri ziena: egiptoar orok urte bakoitzean erakuts ziezaiola nomarkhoari¹⁸⁷ nondik bizi zen, eta hori ez eginez gero eta bizibide zuzena ez azalduz gero, heriotzaratua izango zela. Eta Athenasko Solonek, lege hori Egiptotik hartuz, athenastarrei ezarri zien; eta hauek etengabe erabiltzen dute, akats gabeko legea delako.

178. Eta Amasis heleniarren lagun izatera heldu baitzen, heleniarretako batzuei azaldu zien beste mesederen artean Egiptora zetozenei Naukratis hiria eman zien bertan bizi izateko; eta, hemen bizi nahi ez, baina bertara nabigatzen zutenei aldareak eraikitzekeo lurrak eta jainkoentzat temenosak¹⁸⁸ eman zizkien. Beraz, honako hiri hauek dira temenos hauetan handien eta ospetsuen eta erabilien dena eta Heleniarra deritzana elkarrekin eraiki zutenak: joniarretatik Khio, Teo, Phozea eta Klazomenas; doriarretatik, berriz, Rhodo, Knido, Halikarnaso eta Phaselis; eoliarretatik mytilenetarrena bakarrik. Horiena da temenos hori eta hiri hauek dira merkatuburuak jartzen dituztenak; eta beretzat aldarrikatzen duten beste hiri guztiek ezeren eskubiderik gabe aldarrikatzen dute. Baina, honetaz aparte, egiptarrek beren baitan Zeusen temenos bat eraiki zuten eta Herarena beste bat samoarrek eta Apolorena miletoarrek.

179. Egipton, hain zuzen, Naukratis bakarrik zen antzina emporio¹⁸⁹, ez besterik. Eta norbait Nilok duen beste ahoren batera heltzen bazen, ez zela nahita heldu zin egin eta, zin egin ondoren, untzi berean Kanoboko ahora nabigatu behar zuen. Eta baldin ezin bazen kontra-haizera itsasoratu, bere zama

barisetan garraiatu behar zuen, Delta inguratuz, Naukratisa iritsi arte. Benetan hain preziatua izan zen Naukratis.

180. Eta, egun Delphosen dagoen tenplua egiteko amphiktyonek hirurehun talentuko¹⁹⁰ lansaria jarri zutenean (lehen bertan zegoena berezko batez erre egin baitzen), delphostarrei erori zitzaien lansariaren laurdena jartzea. Eta delphostarrek herriz herri joanez bildu zituzten emariak eta, hau egitean, ez zuten Egypton gutxien jaso; mila alumen-talentu eman baitzien Amasisek; hogeia mina¹⁹¹, berriz, Egypton bizi ziren heleniarrek.

181. Bestalde, Amasisek zyrenetarrekin adiskidetza eta gudukidetza hitzartu zuen. Eta nahi izan zuen hauetako bat emaztetzat hartu ere, edo heleniar emakume bat desiratzen zuelako, edo zyrenetarrenganako adiskidetasunagatik, besteak beste. Hor non ezkontzen den, bada, batzuek diotenez, Arsesilaoren alaba Batorekin eta, besteek diotenez, Kritobulo hiritar omentsuaren Ladize izeneko alabarekin. Amasis berarekin etzaten zenean, ordea, ezin zitzaion lotu, nahiz eta beste emakumeez baliatzen zen. Egoera luze baitzihoan, Ladize zeritzan honi Amasisek hala esan zion: "Emakume!, sorgin-edariren bat eman didazu eta ezingo diozu ihes egin inongo emakumek izan duen heriotzarik txarrenari". Eta Ladizek ezetz ziotsan arren, Amasis ez baitzen biguntzen, bere bihotzean promes egiten dio Aphroditari, hurrengo gauean Amasis lotzen bazitzaion, hori baitzen bere gaitzaren konponbidea, Zyrenera irudi bat bidaliko ziola. Eta promesa egin ordukoxe lotu zitzaion Amasis. Eta, orduz geroztik, harenganatzen zenero lotzen zitzaion eta, ondoren, asko maite izan zuen.

Ladizek, bere aldetik, bete zion promesa jainkosari; irudia eginaraziz, Zyrenera bidali baitzuen; hau, zyrenetarren hiriz kanpora eraikia dagoelarik, nire garaian osorik dago oraindik. Ladize hau, Kambysesek Egipto menperatu zuenean eta bera nor zen jakin zuenean, kaltegabe itzuli zuen Zyrenera.

182. Eta Amasisek Heladen ere eskaini zituen eskaintzak: Zyrenen, Athenearen urrezko irudi bat eta marrazkiz irudikaturiko bere imajina bat; Lindoko Atheneari harrizko irudi bi eta linozko koraza ikusgarri bat; Samon, Herari, zurezko bere imajina bi, oraindik nire garaian ere tenplu nagusian, ateen atzean, jarririk daudenak. Hain zuzen, Samon, bere eta Eazesen seme Polykratesen arteko abegikortasunagatik egin zituen eskaintzak; Lindon, ordea, ez inolako abegikortasunagatik, diotenez, Lindoko santutegia Danaoren alabak Egyptoren semeetatik ihesi zihoazela bertan porturatu eta eraiki zutelako baizik. Eskaintza hauek egin zituen Amasisek. Bestalde, Zypro hartu eta zergaren ordaintzapean jarri zuen lehen gizona izan zen.

III. LIBURUA

1. Amasis honen aurka gerraratu zen, bada, Kambyes Zyrorena, bere beste agindupekoen artean heleniar joniarrak eta eoliarrak gidatuz¹⁹². Hona zergatia. Kambyesek Egyptora mandatariak bidaliz, Amasisi alaba eskatu zion; eskatu, ordea, Egyptoko gizon baten aholkuz eskatu zuen; honek Amasisenganako arranguraz egin zuen hori: Egyptoko mediku guztien artetik, emazte eta umeengandik etenaz, persiarren esku jarri baitzuen, Zyrok bere mandatariak Amasisi igorritz, Egypton zen begi-sendagilerik hoberena eskatu zionean. Horrengatik, bada, egyptoarra, haserre bizian zegoelarik, aholkuan tematzen zen, Kambyes Amasisi alaba eskatzera bultzatuz, baldin ematen bazion min izan zezan, edota, ematen ez bazion, Kambyesentzat etsai izan zedin. Bestalde, Amasisek, persiarren indarrez kezkaturik eta beldurturik, ezin zuen ez eman eta ez ukatu; ongi zekien, jakin ere, Kambyesek ez zuela emaztetzat hartuko, ohaidetzat baizik. Beraz, gauza horiek buruan zebiltzala, hona zer egin zuen. Bazen aurreko errege Apriesen alaba bat, guztiz handi eta ederra, etxean bakar geratua eta izena Nitetis zuena. Amasisek, hain zuzen, neskata hori urrezko jantziz apaindurik, bere alaba balitz bezala bidaltzen du Persiara. Denbora joanik, Kambyesek aitagandiko deituraz agurtzen baitzuen, hala esaten dio neskatzak: "Maiestate, ez zara ohartzen Amasisek engainatu egin zaituela bere alaba ematen balizu bezala ni apain prestatu eta zuri bidaltzean, egiaz, hark, bere jaun izan arren, egyptoarrekin matxinatuz hil zuen Apriesen alaba naizelarik". Benetan, adierazpen horrek eta honen baitako salakuntzak eraman zuen Kambyes Zyrorena, guztiz suturik, Egyptoren aurka. Horrela diote, behintzat, persiarrek.

2. Egyptoarrekin, ordea, etxekotzat hartzen dute Kambyes, Apriesen alaba horrengandik jaio zela esanez; zeren, Kambyes ez baina Zyro izan omen zen Amasisi, alaba eskatuz, mandatariak bidali zizkiona. Hori diotenean, ordea, ez diote zuzen; ez daukate ez ahaztua (inor bada eta, egyptoarrak baitira persiarren ohiturak dakizkitenak) hauek ez dutela legezko, oinordekoa edukirik, lehenik sasikoa errege jartzea eta, halaber, Kambyes, Pharnaspes akhemenidaren alaba Kasandaneren semea zela eta ez egyptoarrarena. Hala ere, historia aldrebestu egiten dute, Zyroren etxe-ahaide diren itxura eginaz. Eta horra nola diren gauzak.

3. Baina, baita ere kontatzen da niri sinestezin zaidan istorio hau: emakume persiar batek, Zyroren emakumeengana etorritik, Kasandaneren alboan zutik ume eder eta handiak ikusi zituen batean, txunditurik, laudorio asko egin omen zizkion; baina, Kasandanek, Zyroren emazte izanik, hau esan omen zion: "Ni horrelako umeen ama izan arren, Zyrok desohorean nauka; Egyptotik lortutakoa, ordea, ohorean jarria dauka". Hori esan omen zuen Nitetisez sumindurik, eta Kambyesek, semeetan zarrenak, hala erantzun omen zion: "Beraz, ama, ni gizon izan nadinean, Egypto goikoz behera eta behekoz gora jarriko dut". Hori esan omen zuen berak hamarren bat urte zituela, eta emakumeak harri eta zur geratu omen ziren. Eta, hori gogoratuz,

gizon egin eta erresuma bereganatu zuenean Egyptoren kontra gerraratu omen zen.

4. Eta gerraratze horri eragiteko beste honelako gauza bat ere gertatu zen: Amasisen mertzenarioengan bazen jatorriz halikarnasoarra zen gizon bat, eta izena Phanes zuen, adimenez jantzia ez ezik gerran ere adoretsua zena. Phanes hori, nolabait Amasisekin haserreturik, Egyptotik ihes egin zuen untziz, Kambysekin hizketaratu nahiz. Baina, bera mertzenarioen artean aipamen gutxikoa ez zenez eta Egyptori buruzko gauzez ezagupen guztiz zehatza zuelako, Amasisek atzemateko ahalegina eginez, atzetik jazartzen du, eta eunukorik leialena triere baten bidaliz jazarri ere. Honek Lyzian harrapatzen du; harrapatu arren, ordean, ez zuen Egyptora eraman; Phanesek zuhurtasunez engainatu baitzuen. Izan ere, zaintzaileak mozkortu eta persiarrengana alde egin zuen. Eta Kambyses Egyptoren aurka gerraratzear zegoela, eta basamortua zeharkatzeko norabidea ez zekielarik, Phanes heldu eta, besteak beste, Amasisen egoeraz mintzatzen zaio, eta norabidea ere deskribatzen dio, honela aholkatuz: arabiarren erregearengana mandatariak igorriz, iraganbide segurua presta zezan eska ziezaiola.

5. Era horretan bakarrik dira, hain zuzen, oztopogabeak Egyptorako bideak. Izan ere, Pheniziatik Kadytis hiriaren mugetaraino¹⁹³ palestinarrak deituriko syriarrena da; eta, nire iritziz, Sardes baino askoz txikiagoa ez den Kadytisko hiri honetatik Janysoko hirirainoko itsas emporioak Arabiako erregearenak dira; bestalde, syriarrena da berriro ere Janysotik Serbonide aintzirara

arte, zeinaren alboan Kasio mendia itsasoraino luzatzen den; aldiz, Serbonide aintziratik, eta bada istoriorik Typhon hemen dagoela dioenik, jada hemendik aurrera Egipto da. Hain zuzen, Janyso hiriaren eta Kasio mendiaren eta Serbonide aintziraren artekoa, lurralde txikia ez baina hiru egunerainoko bidea duena delarik, izugarri lehorra da.

6. Eta Egiptora nabigatzen dutenetan gutxi ezagutzen dutena esatera noa. Urtero, Helade osotik eta gainera Pheniziatik, ardoz betetako lurrontzia inportatu ohi da Egiptora eta, multzoan, ardo-lurrontzi bakar bat ere ezin da, esate baterako, hutsik ikusi. Zertan erabiltzen dira, bada?: esan dezake norbaitek. Eta hortaz mintzatuko naiz.

Demarkho¹⁹⁴ bakoitzak bere hiritik lurrontzi guztiak bildu eta Memphisera eraman behar dituzte, eta Memphiskoek, beren aldetik, urez bete eta Syriako lehordi horietara garraiatu behar dituzte. Horrela, aldiro etorri eta Egipton husten den lurrontzia Syriara garraiatzen da aurrekoari gaineratuz.

7. Beraz, persiarrak izan ziren Egipto hartu bezain azkar Egiptorako sarbidea prestatu eta, esan dudan bezala, urez hornitu zutenak. Baina orduan nonbait ez baitzen behar adina ur, halikarnasoar atzerritarrak jakinarazirik, halabeharrez Arabiako erregearengana mandatariak bidali zituen, bere hitza eman eta harena ere hartuz.

8. Eta arabiarrek inork baino gehiago bezala errespetatzen dituzte giza hitzak. Hain zuzen, hona zer eratan egin ohi dituzten hitzarmen horiek: hitzarmenak egin nahi dituztenetakoz beste gizon

batek, bi haien erdian zutik jarririk, harri zorrotzez, hitzarmenak egin behar dituztenen eskupeak ebakitzen dituzte hatz lodien ondoan eta, ondoren, bakoitzaren mantutik zirpila hartuz, erdian dauden zazpi harri igurtzitzen ditu¹⁹⁵ odolez, eta, hori egitean, Dionysori eta Uraniari deitzen die. Eta honek hori burutu ondoren, hitzarmenak eragin dituenak atzerritarra beronen lagunei gomendatzen die edota hiritarra, hiritarrarekin egin baditza, eta lagunek berek ere hitzarmenak errespetatzea zuzentasuntzat daukate. Bestalde, jainkoetan bakarrik Dionyso eta Urania direla pentsatzen dute, eta ilearen moztea Dionyso berak moztua duen eran egiten dutela esaten dute: hain zuzen, borobil mozten dute, ilea lokietaraino afeitatuz¹⁹⁶. Eta Dionysori Orotalt deritzate; Uraniari, berriz, Alilat.

9. Beraz, arabiar erregeak Kambysesen partetik etorritako mandatariekin hitzarmena egin zuenean, honelako egintzak bideratu zituen: gamelu-larruzko zahagiak urez bete eta bizirik zituen gamelu guztiei gaineratu zizkien eta, hori egin ondoren, basamortura gidatu zituen, eta hemen Kambysesen gudarosteari itxaron zion. Kontatzen diren istorioetatik hau da sinesgarriena; hala ere, komeni da hain sinesgarri ez dena ere, kontatu ohi denez gero, adieraztea. Bada Arabian Korys izeneko ibai handi bat, eta bere urak Erythre deritzan itsasoari ematen dizkio. Beraz, arabiarren erregeak idi-larruekin eta beste abereen larruekin luzeran ibaitik basamorturaino iristen zen urbide bat josirik, honen barrena ura eraman

eta basamortuan uharka handiak hondeatu zituela esan ohi da, ura jaso eta gorde zezaten. Hain zuzen, hamabi eguneko bidea dago ibaitik basamortu horretara. Eta hiru urbidetan barrena hiru lurraldetara eramanean omen zuen ura.

10. Bestalde, Amasisen seme Psamenito, Pelusiokoa deritzan Niloren ahoan zegoen kanpaturik Kambysezen zain. Zeren, Kambysesek, Egyptora jo ondoren, ez zuen Amasis bizirik aurkitu; aitzitik, zoritxar handirik izan gabe berrogeita lau urtez errege izan ondoren, hil egin zen. Eta, hil ondoren, baltsamatu eta berak eraiki zuen santutegiko ehorzlekuan ehortzi zuten. Eta Psamenito Amasisenaren erregetzapean egyptoarren iritziz mirari izugarri bat gertatu zen Egypton. Izan ere, Egyptoko Thebasen, ez lehen eta, thebastarrek berek diotenez, ez eta gero ere, niregana arte, inoiz euririk egin ez duelarik, euria egin zuen. Egypto goialdean ez baitu euri-tantarik egiten; dena den, orduan ere Thebasen ttanttake egin zuen.

11. Persiarrek, beren aldetik, basamortua igaro eta, erasotzeko asmoz, egyptoarrengandik hurbil kokatu zirenean, une berean egyptoarraren mertzenarioek, heleniarrak eta kariarrak ziren arren, Egyptoren aurka atzerriko gudarostea ekarri zuelako Phanesekin haserreturik, honelako egintza bat asmatu zuten beronen kontra. Bazituen Phanesek ume batzuk Egypton utziak; hauek kanpamendura eramane eta aitaren begi-bistan kratera bat jarri zuten gudaroste bien erdian; eta gero hara banan-banan eramanez, ume bakoitzari lepoa moztu zioten krateraren gainean. Ume guztiak bata bestearen atzetik igaro ondoren, ardoa eta ura bota zuten barrura, eta mertzenario

guztiek odola edan ondoren, horrela ekin zioten erasoari. Eta borroka bortitza bilakatu zelarik, eta kopuruz gudaroste bietako asko erorita gero, egyptoarrekin bizkarra eman zuten¹⁹⁷.

12. Alabaina, bertakoek jakinarazirik, gauza guztiz harriagarria ikusi nuen; izan ere, gudu honetan erori ziren alde bakoitzeko hezurak alde banatan barreiatuak daudelarik (hasieran bananduak izan ziren modu berean, persiarren hezurak alde batean eta egyptoarrenak bestean baitaude), persiarren kaskezurrak hain dira ahulak, non harkozkor soilez kolpatu nahi bazenitza, zula zenitzakeen; alderantziz, egyptoarrenak hain dira gogorrak, non harriz jota ere nekez hauts zenitzakeen. Hau zela zioten horren arrazoiak, eta erraz sinestarazi zidaten: egyptoarrak ume-umetatik irten ordukoxe hasten omen kaskoa mozten eta hezurra sendotu egiten omen zaie eguzkitan. Arrazoi hori bera da burusoil ez geratzearena ere; izan ere, gizon guztietatik egyptoarren artean ikus lezake batek burusoil gutxien. Horixe da, hain zuzen, hauek kaskezur gogorrak izatearen arrazoiak; persiarrentzat, aldiz, honako hau da kaskezur ahulak izatearen zergatia: hasieratik feldrozko tiarak eramanez, itzalean bizi direla. Beraz, era horretakoak [diren gauzak ikusi nituen]; baina, horien antzeko beste batzuk ere ikusi nituen Papremisen, libyar Inarok Darioren seme Akhemenesekin batera suntsitu zituenen artean.

13. Eta egyptoarrekin guduari bizkarra eman ziotenean, desordenan ihes egin zuten. Eta Memphisen inguratuak izanik, Kambysesek ibai gora, persiar mezulari bat zeraman mytilenatar untzi bat bidali zuen, egyptoarrekin akordiora¹⁹⁸ deituz. Hauek, beren aldetik, untzia Memphisen sartu zela ikusi zutenean, harresitik kanpora tropelean barreiatuz, untzia birrindu eta bertakoak zati-zati egin,

eta harresi barrura eramán zituzten. Eta horren ondoren egyptoarrak, setiatuak izan zirelarik, denboraren poderioz errenditu egin ziren, eta libyar mugakideek, Egyptoren inguruan gertatutakoaren beldurrez, borrokarik gabe entregatu ziren, eta zerga ordaintzeko hitza eman eta emariak igorri zizkioten. Horrela, zyrenetarrek eta barzetarrek ere libyarren antzeko beldurra izanik, beste horrelako bat egin zuten. Eta Kambysesek libyarrengandik heldu ziren emariak onartu egin zituen; aldiz, zyrenetarrengandik etorri zitzaizkionak, nire iritziz, gutxi zirela eta, gaitzetsirik (bidali ere, zilarrezko bostehun mina¹⁹⁹ bidali baitzioten zyrenetarrek), hauek bere eskuz hartu eta gudarostean barrena barreiatu zituen.

14. Eta Kambysesek Memphisko gaztelua²⁰⁰ hartu zuenetik hamargarren egunera, egyptoarren errege Psamenito irainez hiri-auzoan eseraraziz, erreinatu ere sei hilabetez erreinatu baitzuen, hau beste egyptoarrekin batera eseraraziz, beronen adorea probatu zuen honako egintza hauen bidez: honen alaba mirabe-jantziz atondu eta ur bila bidali zuen txanbil batekin eta honekin batera handikien neskatzetatik aukeraturiko beste neskatxa batzuk ere bidali zituen, erregearenaren antzera atonduak. Eta neskatzak bere gurasoen ondoan garrasi eta negar igarotzen zirenean, beste guztiek ere, beren seme-alabak tratu txarrean ikusirik, garrasi eta negar egiten zuten; Psamenitok, ordea, ikusi eta ezagutu zuenean, begiak lurrerantz jaitsi zituen. Eta neskatxa ur garraiatzaileak igaro zirenean, ondoren semea bidali zion adin bera zuten beste bi mila egyptoarrekin, lepoak sokaz lotu eta ahoak bridaturik. Memphisen untziarekin batera suntsitu zituztenengatik zigorra

ordainaraztera zeramatzaten; epai hau eman baitzuten erregearen epaileek: pertsona bakoitzeko egiptoarretako hamar handikik hil behar zutela. Alabaina, Psamenitok aurrean igarotzen ikusi zituenean eta heriotzara zeramaten semea ezagutu zuenean, bere ondoan zeuden gainerako egiptoarrak negarrez eta beren onetik aterata bazeuden ere, hark alabarengatik egin zuena bera egin zuen. Horiek igaro zirenean, ordea, haren mahaikideetako gizon adintsu bat, zituen ondasunetatik eraitsia eta eskale batek bezainbat baino ez zuena, Psamenito Amasisenaren eta hiri-auzoan zeuden egiptoarren ondoan igarotzea egokitu zen. Baina Psamenito, ikusi zuen orduko, negar bizian eta lagunari bere izenez deituz, burua kolpatzen hasi zen. Bestalde, han baziren, hain zuzen, igaroaldi bakoitzean hark egindako guztiaren berri Kambysesi adierazten zioten zaindariak. Eta Kambyses hark egindakoez harritu egin baitzen, mandatari bat bidaliz, honelako hitzez galdetu zion: "Psamenito, hau galdetzen dizu Kambyses jaunak: zergatik ez duzu garrasirik eta negarrik egin alaba tratu txarrean eta semea heriotzara bidean ikustean, baina, hark besteengandik jakin duenez, zure ahaide ez omen den eskalea aintzat hartu duzu?". Galdera hori egin zion mandatariak. Eta hark hau erantzun zion: "Oi, Zyroren seme; etxeko zorigaitzak handiegiak ziren negar egiteko; baina, ugalmen eta zoriontasunetik erorita, zahartzaroaren atarian eskera heldu den lagunaren samina bazen malkoen duin". Eta [mandatariak] erantzun hori itzuli zuen orduko, ongi esantzat hartu zuten. Eta, egiptoarrek diotenez, Kreso negarrez hasi omen zen (halabeharrez, horrek ere Kambysesi Egiptora jarraitu

baitzion), eta bertan zeuden persiarrek ere negar egiten omen zuten, eta Kambyses berari errukiren bat barneratu eta, berehala, heriotzaratzen ari zirenetatik Psamenitoren semea salbatu eta, hura hiri-auzotik igoaraziz, bere aurrera ekartzeko agindu omen zuen.

15. Hain zuzen, bila joan zirenek jada ez zuten semea bizirik aurkitu, lehenengo izan baitzen hila; Psamenito bera, ordea, jaikiarazi eta Kambysesen aurrera eraman zuten; ordudanik han bizi izan zen inolako gogorkeriarik jasan gabe. Are gehiago, azpikerietan ez ibiltzen jakin balu, bertako gobernari izateraino berreskuratuko zuen Egypto, persiarrek erregeen umeak ohoratzeko ohitura baitute; erregeak haien aurka matxinaturikoak izan badaitez ere, hauen semeei agintea itzuli ohi diete²⁰¹. Horrela, beste askoren artean Inaroren seme Thanyrasengan ondoriozta daiteke hori hala egin ohi dutela, bere aitak izan zuen agintea eskuratu zuelako, eta baita Pausiris Amyrteorenarengan ere; honek ere aitaren agintea eskuratu baitzuen; eta, hori, Inarok eta Amyrteok baino kalte gehiago inork egin ez zienik. Alabaina, Psamenito gaiztakeriak bideratzen ari zela, bere ordainsaria jaso zuen; egyptoarren matxinatzen harrapatu baitzuten; eta Kambysesek, jakin zuenean, zezenaren odola edanarazi eta bat-batean hil zen²⁰². Horrelakoxe amaiera izan zuen.

16. Kambyses, bere aldetik, Memphistik Sais hirira joan zen, zinez egin zituenak egin nahian. Izan ere, Amasisen egoitzetara heldu zenean, Amasisen gorpua ehorzlekutik kanpora ateratzeko agindu zuen; eta agindu hori bete zitzaionean, zigortu, ileak atera, eta zarta-zarta egiteaz gainera, beste era guztietara iraintzeko ordena eman zuen. Eta hori egiten nekatu zirenean (hain zuzen, gorpuak, baltsamatua zegoenez, iraun egiten baitzuen eta ez baitzen

zartatzen), Kambysesek errausteko agindu zuen, agindu sakrilegoa emanez. Persiarrek sua jainkotzat baitaukate. Beraz, ez herri bata ez besteak ez dauka inola ere gorpuak errausteko ohiturarik: persiarrek, esan denagatik, jainkoei giza gorpuak banatzea ez dela bidezkoa diotelako; egyptoarren, berriz, sua piztia bizi bat dela uste dute eta harrapatzen duen guztia irensten duela eta, [bera] jakiaz asetzen denean, irentsitakoarekin batera hiltzen dela. Ez dute, bada, gorpua piztiei emateko inolako ohiturarik; eta, baltsamatu ere, horrengatik baltsamatzen dute: hilik datzanean, zomorroek jan ez dezaten. Beraz, herri biek horrelako usadioa duten arren, Kambysesek egiteko agindu zien. Hala ere, egyptoarren diotenez, ez zen izan Amasis tratu hori jasan zuena; aitzitik, persiarrek, Amasisen adin bera zuen beste egyptoar bat irainduz, Amasis iraintzen zutela uste zuten. Zeren, esaten dute, Amasisek, hil ondoren gertatuko zitzaiona igarpenez jakin zuen orduko, etorkizuna konponduz, zigortua izan zen hildako gizon hori, bere hilobi barruan, ate ondoan sartu zuela, eta bera hilobiaren jarlekurik gordeenean jartzeko agindu ziola semeari. Alabaina, Amasisek ehorzlekuaz eta gizon horri buruz emandako agindu horiek ez zaizkit iruditzen inoiz gertatu direnik, egyptoarren zuriketa hutsak direla baizik.

17. Eta, horren ondoren, Kambysesek gerraratze hirukoitza izan zuen asmo: karkhedondarren aurka, amondarren aurka, eta ethiopiar makrobioen (biziluzeen) aurka, hauek Libyan hegoaldeko

itsasertzean bizi direlarik. Eta, asmo horrekin, karkhedondarren kontra gerra-untziteria bidaltzea erabaki zuen, amondarren kontra infanteria aukeratua, ethiopiarren aurka, berriz, lehenik zelatariak, ethiopiarren artean bazela zioten Eguzki-mahaia egiaz bazen ikus zezaten, eta, horrez gainera, beste gauzak ere zelata zitzaten, nahiz eta hitzez haien erregeari emariak eman.

18. Hain zuzen, Eguzki-mahaia deritzatena honelakoa dela diote: hiri-auzoan bada era guztietako lauhankakoen haragi egosiz betetako zelai bat; hemen, gauez, karguren baten dauden hiritar guztiek haragia uzten omen dute eta, egunez, nahi duenak joanez, jan egiten omen du; bertakoek, ordea, haragi hori aldiro lurrak berak sortzen duela esaten omen dute. Horrelakoa dela diote, bada, Eguzki-mahaia deritzatena.

19. Eta Kambysesek zelatariak bidaltzea erabaki zuenean, berehala Elephantina hiritik ethiopiar hizkuntza zekiten ikhthyophagoak²⁰³ etorrrazi zituen. Eta hauen bila zihoazela, bitartean gerra-untziteriari Karkhedonen²⁰⁴ aurka itsasoratzeko agindu zion. Pheniziarrek, ordea, ez zutela horrelakorik egingo esan zioten; egon ere, haiekin zin handiez loturik zeudela eta ez zutela ankerkeriarik egingo bere umeen kontra gerraratuz. Eta pheniziarrek nahi ez zutelarik, gainerakoak ez ziren izan gudukatzeko gai. Beraz, karkhedondarrek honela ihes egin zioten persiarrenganako morrontzari. Hain zuzen, Kambysesek ez baitzuen bidezkotzat jotzen pheniziarrek bortxatzea, beren buruak persiarrei entregatzeaz gainera, itsas gudaroste osoa pheniziarren baitan zegoenez gero. Eta zyproarrak ere, beren buruak persiarrei entregatu ondoren, Egyptoren aurka gerraratu ziren.

20. Eta Kambysesi Elephantinatik ikhthyophagoak etorri zitzaizkionean, ethiopiarrengana bidali zituen, esan behar zutena aginduz, eta emaritzat purpurazko jantzi bat, urrezko lepo-

katea, eskumuturrekoak, lurringaidun alabastro ontzia, eta upela bat bete palma-ardo zeramatzatelarik. Eta Kambysesek mandatariak bidali zizkien ethiopiar horiek gizon guztietan handienak eta ederrenak direla esan ohi da²⁰⁵. Baita ere esaten da, gainerako gizonetatik bereizirik, erabili ohi dituzten beste ohituren artean erregetzari dagokion hau dela: beren hiritarretako handiena izateaz gainera, indarra handitasunaren arabera duela juzgatzen duten hura daukate errege izateko duin.

21. Beraz, ikhthyophagoak biztanle horiengana iritsi zirenean, berauen erregeari emariak eman ondoren, hau esan zioten: "Persiarren errege Kambysesek zure adiskide eta arrotz²⁰⁶ izan nahiz, zurekin hizketaratzera bidali gaitu, eta erabiltzean berari atseginik handiena ematen dioten emariak ematen dizkizu. Ethiopiarrek, ordea, zelatari etorri zirela jakitean, honela hitz egin zien: "Ez persiarren erregeak bidali zaituzte nire ostatatza guztiz ohoretzat duelako, ez egirik esaten didazue (nire lurraldearen zelatari etorri baitzarete), eta ez gizon hura da zuzena; zeren, zuzena balitz, ez zukeen bereaz beste lurralderik desiratuko eta bidegabekeriarik egin ez duen gizonik ere ez luke esklabotzara eramango. Dena den, honako uztai hau eman, esan iezaizkiozue hitz hauek: "Ethiopiarren erregeak persiarren erregeari aholku hau ematen dio: persiarrek hain handiak diren uztaiak erraz teinka ditzaketenean, gerrara dadila orduan, kopuruz nagusiturik, ethiopiar makrobioen aurka, eta, bien bitartean eskerrak eman diezaizkiela jainkoei ethiopiar semeei beren lurraldeari beste bat eranstea bururarazi ez dietelako".

22. Eta hori esan eta uztaiak lasatu ondoren, etorri zirenei entregatu zien. Eta, purpurazko jantzia harturik, zer zen eta nola egin zegoen galdetu zien. Eta ikhthyophagoek purpuraz eta tinduaz egia esan ziotenean, nola gizonak hala berauen jantziak faltsuak zirela esan zien. Eta hurrena urrez galdetu zien: lepo-kateaz eta eskumuturrekoez hain zuzen. Eta ikhthyophagoek haren apaingarri zirela azaltzean, erregeak, barre eginez eta gauza haiek girgiluak zirelakoan, beren artean girgilu haiek baino gogorragorik bazela erantzun zien. Eta, hirugarren, lurringaiaz galdetu zien. Eta, honen egintzaz eta igurzketa mintzatu zitzaizkionean, jantziari buruzko kontu bera esan zien. Ardora iritsi zirenean, ordea, eta honen eraginaz jabetu zenean, edariaz liluraturik, erregeak zer jaten zuen eta persiarra gehienez zenbat denbora bizi zen galdetu zien. Haiek, berriz, erregeak ogia jaten zuela esan zioten, gariaren izaera azalduz, eta gizonarentzat bizi-muga lau rogei urten jarria zegoela. Hitz hauen aurrean, ethiopiarrak ez zela harritzen erantzun zien, gorotza jan eta urte gutxi bizi baziren; zeren, hainbat urte ere ezin izango zirela bizi edari harekin suspertzen ez baziren (ikhthyophagoei ardoa seinalatzen zielarik); hain zuzen, hortan berak zeudela persiarrez behetik.

23. Ikhthyophagoek, beren aldetik, erregeari bizitzaz eta bizieraz galdetu ziotenean, beretako gehienak ehun eta hogeitaz urtera iristen zirela "esan zien" eta batzuek urte horiek ere gainditzen zituztela eta haragi egosia zutela janari eta esnea edari. Eta zelatariak

urteez harriturik zeudenez, iturri batera gidatu omen zituen, zeinetatik, bainatzean, olio-iturria bailitzan, guriagoak ateratzen ziren; eta bertatik bioleta-usaina jalgitzen omen zen. Eta iturri honetako ura hain arina zela zioten zelatariek, non haren gainean ezerk ezin zezakeen flota, zura edo zura baino arinagoa ez zen bestek; aitzitik, beste edozer gauza hondora joaten omen zen. Eta, egiaz, esan ohi den bezalako ura baldin badaukate, horrengatik hain zuzen, etengabe horretaz baliatzen direlako dira agian biziluzeak. Eta, iturritik abiatuz, gizonen presondegi batera eraman zituen, non denak urrezko girgiluz lotuak zeuden; izan ere, ethiopiar hauen artean gauza guztietan urriena eta preziatuena brontzea da. Eta presondegia bisitatu ondoren eguzkiarena deritzaten Mahaia ere bisitatu zuten.

24. Honen hurrena, haien hilobiak bisitatu zituzten, zeinak harri gardenaz honelako eran hornitzen dituztela dioten: gorpua, nahiz egyptoarren ohi duten bezala, nahiz beste edozein eratara ihartu bide dutenean, guztia igeltsuz estali ondoren, margoz apaintzen dute, ahal den neurrian haren irudia berdinduz, eta, ondoren, hutsa dagoen harri gardenezko zutabez inguratzen dute (hau ugari eta landukor ateratzen baitute lurretik). Eta zutabe barruan sarturik, gorpua ikusi egiten da harrian barrena, inolako usain ezatseginik, ez beste ezer desegokirik sortzen ez duelarik; eta guztia gorpuaren beraren berdineko azaltzen da. Eta honen hurbilenekoek urte betez beren etxeetan edukitzen dute zutabea, emaitza guztietako hasikinak aurkeztuz eta erre-opariak eskainiz; eta honen ondoren, etxetik eramanez, hiri inguruan ipintzen dute.

25. Eta zelatariek, guztia ikusita gero, itzulerako bidean jarri ziren. Eta gauza horien berri eman zutenean, Kambyzes, su eta gar

eginik, ethiopiarren kontra abiatu zen, elikagaiaren inolako prestaketarik agindu gabe eta lurraren azken mugetaraino gerraratu behar zutela kontuan hartu gabe; hala ere, eroturik, bere senean ez zegoenez, ikhthyophagoei entzun zien orduko gerrara abiatu zen, ondoan zituen heleniarrei bertan²⁰⁷ itxaroteko aginduz eta oinezko gudaroste osoa berekin eramanez. Eta, gerrara bidean Thebasen aurkitu zenean, gudarostetik berrogeita hamar bat mila gizon bereizi zituen, eta hauei, amondarrak esklabo eginez Zeusen igarletegiari su emateko agindu zien, eta berak, gainerako gudarostea gidatuz, ethiopiarren aurka jo zuen. Eta gudarosteak bidearen bostena egin zuenerako, zituzten elikagai guztiak agortuak zituzten eta elikagaien hurrena jaten zituzten zamariak ere agortu egin zitzaizkien. Beraz, Kambysesek, horren berri izan ondoren, bere errua ezagutu eta gudarostea atzerarazi balu, hasieran egin zuen hutsa huts, gizon azkarra izango zen; baina, buruari inola eragin gabe, beti aurrera jo zuen. Eta gerrariiek lurretik hartzeko zerbait zuten bitartean, belarra janez zirauten; eremuratu zirenean, ordea, haietako batzuek egintza ikaragarri bat egin zuten: beren artean hamarretik bat zozketatu eta irentsi egin zuten. Eta Kambysesek, hori jakin zuenean, elkarjatearen²⁰⁸ beldurrez, ethiopiarren kontrako joanaldia utzi eta atzera egin zuen, eta gudarosteko anitz galduta itzuli zen Thebasa. Eta Thebastik Memphisa jaitsiz, heleniarrak itsasora zitezen, lizentziatu egin zituen.

26. Honela burutu zen ethiopiarren kontrako joanaldia. Bestalde, amondarren aurka bidaliak izan zirenak, Thebastik abiatu eta

gidariekin bideratu ondoren, argi dago Oasis hirira heldu zirela, hau eskhroniar leinukoak omen diren samoarren esku dagoelarik; bestalde, Thebastik eremuan barrena zazpi eguneko bidearen aldea dago, eta heleniarren hizkuntzan lurralde honek Makárõ n nêsoi²⁰⁹ du izen. Beraz, gudarostea lurralde honetara iritsi zela diote; baina, handik aurrera, amondarrek berek eta hauei entzun zietenek izan ezik, beste inortxok ez daki haiei buruz deus esaten; izan ere, ez amondarregana iritsi ziren, ez atzera itzuli ziren. Amondarrek berek, ordea, honako hau esaten dute: Oasis honetatik eremuan barrena haien kontra abiatu eta gutxi gora-behera haien eta Oasisen arteko erdibidean zeudenean, gosaltzen ari zirela, hego-haize handi eta indartsu batek jo, eta eremuko hondarra arrastatuz, estali egin zituela; eta, desagertu ere, horrela desagertu zirela. Amondarrek honelako gauzak gertatu zirela diote gudaroste horren inguruan.

27. Kambysek Memphis iritsi zenean azaldu zitzairen egyptoarrei Apis, heleniarrek Epapho²¹⁰ deritzatena; eta agerpen hau gertatu orduko, egyptoarrak soinekorik ederrenak jantzi eta ospakizunetan ziharduten. Kambysek, ordea, egyptoarrak une hartan hori egiten ikusiz, bozkariozko ospakizun horiek berari gaizki gertatutakoagatik egiten zituztela uste baitzuen oso-osorik, Memphisko gobernari dei zuen; eta, aurrera etorri zitzaizkionean, galdetu zien ea zergatik ez zuten egyptoarrak lehen, Memphisen zegoela, halakorik egin, eta, orduan, gudaroste multzo bat galdu eta berriro bertaratzean, bai. Eta hauek erantzun zioten, denbora askoren buruan agertu ohi zen jainkoa agertu zitzaizela, eta, agertzen zen bakoitzean, une horretan egyptoar guztiek pozez beterik jai egiten zutela. Kambysek, hori entzutean,

gezurra ziotela esan zien. Eta, gezurti bezala, heriotzara kondenatu zituen.

28. Eta, hauek hil ondoren, hurrena apaizei deitu zien bere aurrera. Baina apaizek gauza bera ziotenez, kontuan hartuko zuela esan zien egyptoarrei etorri zitzaiena jainko eskurakoia zenentz; eta, horrenbeste esan ondoren, apaizei Apis ekartzeko agindu zien. Hauek, orduan, ekartzera joan ziren. Hain zuzen, Apis hori, Epapho, behi batengandik jaiotako idisko bat da; behi horrek ez dezake beste umerik sabelera. Egiptoarrek diotenez, zerutik distira bat gaineratzen zaio behiari, honengandik Apis sortuz. Eta Apis izeneko idisko horrek honelakoxe ezaugarriak ditu: beltza izanik, kopetan trigono zuri bat dauka, arranoaren irudia bizkarrean, ile bikoitzak isatsean eta kakalardo bat mingainpean.

29. Beraz, apaizek Apis ekarri zutenean, Kambysesek, zoraturia baitzegoen, aiztoa atara eta Apisi sabela kolpatu nahian, izterra jo zion. Eta, barrez, hala esan zien apaizei: "Burugabe alaeak!, honelakoak al dira jainkoak?, odolezkoak, haragizkoak eta burdinaren berri dakitenak? Benetan, jainko hau egyptoarrei dagokiena da; zuek, ordea, ez nauzue, zeuon atseginerako barregarri utziko". Hori esan ondoren, honetan dihardutenei apaizak zigortzeko, eta jai egiten harrapatzen dituzten gainerako egyptoarrak hiltzeko agintzen die. Horrela, egyptoarrei jaia desegina geratu zitzaien; apaizak kastigatuak izan ziren, eta Apis, izterrean zauriturik, santutegian etzanda ahitzen ari zen. Eta, zauriaren ondorioz akabatu zenean, apaizek Kambysesen ezkutuan lur eman zioten.

30. Eta, egyptoarrekin diotenez, Kambysek, lehen ere bere senean ez zegoelarik, bidegabekeria honen ondoren erotu egin zen. Eta, lehendabizi, bere ankerkerien artean, aitaren aldetik ez ezik amaren beraren aldetik ere anaia zuen Smerdis hil zuen, ikhthyophagoek ethiopiarrengandik ekarri zuten uztaia ezinbestean hatz²¹¹ biraino teinkatu zuen bakarra izan zelako, bekaitzez Egyptotik Persiara bidali ondoren; bada, gainerako persiarretatik inor ez zen gauza izan. Beraz, Smerdis Persiara bidean zela, Kambysek ametsetan honelako ikuspen bat izan zuen²¹²: iruditu zitzaion mezulari batek, Persiatik etorritik, Smerdisen errege-tronoan eseririk buruarekin zerua jotzen zuela iragartzen ziola. Hori zela eta, bere baitan beldurtu egin baitzen anaiak bera hil eta agintean jarriko ote zen, Prexaspes, persiarren artean zuen gizonik leialena bidaltzen du Persiara hura hil dezan. Eta honek, Susara igo eta Smerdis hil zuen; batzuek ehizara eramanez hil zuela diote, besteek, oster, Erythre itsasora eraman eta urperatu egin zuela.

31. Zinez, hori izan omen zen Kambysek hasitako ankerkerietan lehena. Hurrena, alde bietatik senide izateaz gainera ezkontide ere bazen eta Egyptora lagundu zion arrebaren heriotza burutu zuen. Eta hona nola egin zuen emazte; lehen inola ere ez baitzuten persiarrek beren arrebeekin ezkontzeko ohiturarik. Kambysek bere bi ahizpetako batekin maitemindu zen, eta, ondorioz, honekin ezkondu nahiz, ezohikoa egin behar zuela eta, errege-epaile zeritzenei deituz, nahi zuenak arrebarekin ezkontzeko legeren bat ba al zen galdetu zien. Bestalde, errege-epaileak persiarretan hil arte edota bidegabekeriaren bat aurki dakiekeen arte hautatutako gizonak dira; hauek, persiarrei

epaiak emateaz gainera, arbasoengandiko legeen exegetak dira, eta dena haien gain dago. Beraz, Kambysesek galdetu ondoren, haiek [honi] erantzun zuzen eta hutsezina eman zioten, ez zutela anaia arrebarekin ezkontzea baimentzen zuen legerik topatzen esanez; hala ere, aurkitu zutela lege bat persiarren erregeari nahi zuena egiteko eskubidea ematen ziona. Honela, ez zuten legea indargabetu Kambysesen beldurrez, eta legea errespetatzeagatik gal ez zitezen, arrebeekin ezkontzea nahi zuenaren aldeko beste lege bat aurkitu zuten. Orduan Kambyses bere maitearekin ezkondu zen; alabaina, denbora asko gabe, beste arreba ere emaztetzat hartu zuen. Hain zuzen, horietan gazteena, Egyptora jarraitu ziona, hiltzen du.

32. Baina, honen heriotzaz, Smerdisenaz bezalaxe, kontraera bi daude. Heleniarrek diotenez, Kambysesek lehoikume bat eta zakurkume bat bota omen zituen elkarren aurka, eta emakume hori begira omen zegoen; eta zakurkumea galzorian zegoela, honen anaia zen [beste zakurkume] bat, katea hautsi eta laguntzera joan omen zitzaion, eta, horrela, [zakurkumeak] bi izanik, menperatu egin omen zuten lehoikumea; Kambyses, bere aldetik, atseginez omen zegoen begira; hark, ordea, negar egiten omen zuen beraren alboan. Eta Kambyses horretaz ohartu zelarik, zergatik negar egiten zuen galdetu omen zion, eta honek, zakurkumea anaia defendatzen ikustean Smerdisen oroitu eta harentzat defendatzailerik izango ez zena bazekielako negar egiten zuela esan omen zion. Heleniarrek esaten dute erantzun honengatik hil zuela Kambysesek; egyptoarren, aldiz, honela diote: mahaian zeudelarik, emakumeak letxu bat hartu eta orriak kentzen hasi omen zen, eta gizonari letxu orrigabetua

ala orriztatua zen ederrago galdetu omen zion, eta honek orriztatua erantzun; orduan hark honela esan omen zion: "Hala ere, zuk letxu honekin egin dudanaren antzekoa egin duzu, Zyroren etxea soilduz". Eta, haurdun zegoela, hura su eta gar jauzi omen zitzaion, eta, abortatuz, hil egin omen zen.

33. Erokeria horiek egin zituen Kambysesek etxe-etxekoen aurka, Apis edota beste zerbait zela bide; modu berean txar asko gaineratu ohi zaie gizonei. Horrela, Kambysesek gurasoengandiko gaixotasun larri bat, batzuek sakratua²¹³ deritzatena zuela diote; beraz, ez zen batere harrigarria, gorputza gaixotasun larriz gaixoturik, burua ere osasuntsu ez izatea.

34. Bestalde, honako erokeriok egin zituela esan ohi da beste persiarren aurka. Esaten dutenez, behin gehien ohoratzen zuen Prexaspei mintzatu zitzaion (hain zuzen, hauxe omen zen albisteak ekartzen zizkiona, eta Kambysesek honen semea omen zuen kopari, berau ohore txikia ez zelarik), eta, mintzatu, honela mintzatu zitzaiola diote: "Prexaspes, nolako gizontzat naukate persiarrek eta nola hitz egiten dute nitaz?". Eta hark zera erantzun omen zion: "Oi jauna, gainerako guztian handiki goratzen zaituzte, baina ardozaletasunari gehiegi atxikia zaudela diote". Hark persiarrez hori baizik ez omen zion esan; besteak orduan, haserre bizian, hitz hauekin erantzun omen zion: "Agidanez, persiarrek, ardoari atxikia nagoelako, erotua nagoela diote eta ez daukadala ezaguerarik. Beraz, lehengo hitzak ez ziren egiazkoak". Izan ere, lehen, persiarrak eta Kreso biltzarkide zituen batean, aita Zyroren aldean bera nolako gizontzat zeukaten galdetu zien Kambysesek. Eta haiek aita baino hobea zela erantzun zioten; berak, haren jabetza osoari eusteaz gainera, Egipto eta itsasoa bereganatu zituela eta. Hori esan zioten persiarrek; Kresok, aldiz, ondoan zegoenez

eta [emandako]erantzunari ongi ez zeritzalarik, honela esan zion Kambysesi: "Ez zait iruditzen, Zyroren seme, aitaren pare zarenik; zuk ez baituzu oraindik hark utzi zuen bezalako semerik". Hori entzunda, atsegin hartu zuen Kambysesek, eta txalotu egin zuen Kresoren epaia.

35. Beraz, gauzok gogoratuz, haserre mintzatu omen zitzaion Prexaspesi: "Ikus ezazu, bada, zuk [zerorrek] ea persiarrek egia dioten, ala hori esatean erotu egin diren: baldin ataurrean zutik dagoen zure seme horri gezia jaurtiz bihotzaren erdian eman baniezaio, argi geratuko da persiarrek ez dutela deus egiarik esan; huts egin baneza, ordea, esan ezazu persiarrek egia diotela eta ni ez nagoela neure senean". Eta, hori esan eta uztaila teinkatu ondoren, jaurti egin omen zion mutilari, eta, mutila erori zenean, aldenik alde ireki eta zauria begiratzeko agindu omen zuen; eta gezia bihotz barruan zuela ikusi zutenean, barrez eta pozez gainezka, mutilaren aitari hala esan omen zion: "Prexaspes, argi geratu zaizu ez nagoela ni ero eta persiarrak direla bere senean ez daudenak; eta orain esaiazu: mundu osoan nor ikusi duzu gaurdaino gezia hain begi zorrotzez jaurtitzen?". Eta Prexaspesek, gizona burutik egina zegoela ikusiz eta bere buruaz beldurturik, "Jauna -esan zion-, ez dut uste jainkoak berak ere hain ederki jaurtiko zuenik". Basatikeriok egin zituen orduan; beste batean, berriz, buruzagien mailako hamabi gizon, inolako arrazoibiderik gabe atzemanez, bizirik buruz behera lurperatu zituen.

36. Eta hori egin ondoren, lydiar Kresok bidezkoztat jo zuen hitz hauen bidez ohartaraztea: "Oi errege, ez ezazu dena sasoiaren eta bihotzaren gain utzi; aitzitik, izan zeure jabe eta eutsi zeure buruari. Zinez ona da aurreikusle izatea eta zuhurra aurrez

pentsatzea; zuk, ordea, inolako arrazoibiderik gabe atzemanetz, zeure herrikideak hiltzen dituzu eta umeak hiltzen dituzu. Begira honelako asko eginez gero ez ote zaizkizun persiarrak matxinatuko. Bestalde, zure aita Zyrok, behin eta berriz, ohartaraz zintzadala eta ongi topa nezakeena proposa niezazula eskatu zidan". Honek, zinez, bere onginaia azalduz aholkatzen zizkion gauza horiek. Hala ere, besteak honela erantzun zion: "Zu niri ere aholku ematera ausartzen zara, zu, zeure aberria "onuraz" eraendu eta nire aitari masagetek gure lurraldera igaro nahi zutenean Araxes ibaian barrena hauen aurka joateko esanez aholku "ona" eman zenion horrek, eta zeure aberriarekiko aginte txarrez zeure burua galtzeaz gainera zuri entzuteagatik Zyro [galdu] zenuen horrek! Baina ez duzu atseginik izango, aspaldidanik bainengoen zure aurkako aitzakiaren bat eskuratu beharrean". Hau esan eta uztaiari heldu zion hari geziak jaurtitzeko asmoz; Kreso, ordea, salto eginez, laster batean kanporatu zen. Alabaina, besteak geziz jo ahal izan ez zuenez, zerbitzariei atzeman eta hil zezatela agindu zien. Zerbitzariak, ordea, haren joeraren berri bai baitzekiten, gorde egin zuten Kreso arrazoi honengatik: Kambysesi damutzen bazitzaion eta Kresoren bila hasten bazen, haiek, [hau] azalduz, Kresoren erreskatetzat sariak jasoko zituzten, eta bestela, ez damurik, ez haren oroiminik ez bazuen, orduan hil egingo zuten. Egiaz, denbora asko baino [lehen], Kambyses Kresoren oroiminez jarri zen, eta zerbitzariak, hori jakitean, bizirik zirauela iragarri zioten. Orduan Kambysesek poztu egiten zela esan zuen Kresorengatik, bizirik zegoelako,

baina hori egin zutenak ez zirela zigorrik gabe geratuko, aitzitik, hil egingo zituela; eta horixe egin zuen.

37. Honelako erokeria asko egin zuen, Memphisen zegoela, persiarren eta gudukideen aurka, nola antzinako hilen jarlekuak irekiz, hala gorpuak miatuz. Joera berarekin sartu zen Hephestoren santutegian²¹⁴ ere eta iseka asko egin zion irudiari. Izan ere, Hephestoren irudi hau pheniziarrek trieren branketan eraman ohi dituzten pheniziar patekoen antz-antzekoa da; eta hauek ikusi ez dituztenei, neuk adieraziko diet zer diren: pigmeo baten irudikapenak dira. Eta sartu zen legez apaizak beste sar ez daitezkeen kabiroen santutegian ere; eta irudi hauetaz iseka asko egin ondoren erre ere egin zituen. Hauek, hain zuzen, Epehestoren irudien antzekoak dira; eta haiek honen umeak direla diote.

38. Beraz, niretzat oso argi dago Kambyzes zeharo erotu zela; ez baitzien bestela sainduei eta usadioei barre egingo. Zeren, norbaitek, horretara eraginez, gizon guztiei usadio guztietan ederrenak aukeratzea proposatuko balie, ongi begiratu ondoren, nork bereak aukeratuko lituzkete; hain daude denak sinetsirik norberen usadioak direla askoz ederrenak. Ez da, bada, itxurazkoa eroa ez den bestek horrelako gauzak barreagaritzat hartzea. Eta gizadi osoak usadioez horrela uste duela, beste adibideen artean zinez honako honek ondorioztatzen du: Dariok, bere agintaldian, ondoan zituen heleniarrei deituz, gurasoak, hiltzean, zenbat dirurengatik

zeudekeen jateko prest galdetu zien; eta hauek ezergatik ere ez zutela horrelakorik egingo esan zioten. Eta horren ondoren, kalatiak zeritzaten indiar gurasojaleei deitu eta heleniarrak bertan zirela eta ziotena interpretarien bidez ulertzen zutelarik, gurasoak hiltzean zer dirurengatik onar zezaketen galdetu zien sutan erretzea; eta hauek, guztiz oihuka, ongi hitz egiteko erregutu zioten. Horrelako ustea dute bada, eta, nire iritziz, zuzen zioen Pindarok bere poesian "usadioa ororen errege" zela esan zuenean.

39. Bestalde, Kambyzes Egyptoren kontra zihoala, lazedemonدارrak ere Samoren aurka eta Samo altxamenduz eskuratu zuen Polykrates Eazesenaren aurka²¹⁵ abiatu ziren. Honek lehenik, hiria²¹⁶ hiru puskatan zatitu ondoren, bi bere anaia Pantagnoto eta Sylosonteri banandu zizkien, baina gero hauetako lehena hil eta gazteena, Sylosonte, deserriratura gero, Samo osoaz jabetu zen. Eta, jabe zela, Amasis, Egyptoko erregearekin arrotz-elkargoa²¹⁷ hitzartu zuen, hari emariak igorritz eta harengandik ordainak jasoaz. Eta, denbora gutxiren baitan, laster gehitu zen Polykratesen agintea, eta, Jonian ez ezik gainerako Heladen ere ahoz aho zebilen; edonon zela ere, gerraratzen zenero dena ongi suertatzen baitzitzaion. Hain zuzen, ehun pentekonteroan eta mila uztailarien jabe zen. Eta denei zien lapurtu eta eramaten, inor bereizi gabe; zeren, bera adiskidearentzat atseginagoa zela, zioen, lapurtutakoak itzuliz, ezertxo ere lapurtu gabe baino. Zinez, irla ugari eta kontinenteko hamaika hiri ere eskuratu zituen; besteak beste, indar guztiekin miletoarrei laguntzen ari ziren lesbiarrak itsas guduan garaitu ondoren, preso hartu zituen, eta hauek izan ziren, loturik, Samoko harresi inguruan lubaki osoa ireki zutenak.

40. Eta Amasisi ez bide zitzaion ezkututzen Polykratesen arrakasta handia; alderantziz, hori kezagarri zitzaion. Eta arrakasta handitzen zihoakionez, gutun bat idatziz, honako hau igorri zion Samora: "Amasis honela mintzo zaio Polykratesi: atsegina da adiskide eta arrotz bati ongi doakiola jakitea; zure arrakasta handiek, ordea, ez naute pozten, jainkotasuna zein bekaizti den jakinik²¹⁸. Eta nahiago dut, agian, bai neronek eta bai axola zaizkidanetakoez, zenbait egintza-arlotan arrakasta izan arren, beste zenbaitetan porrota izatea, eta, modu honetan, bizitza batezbesteko gertakariz igarotzea; izan ere, neuk dakidanez, inortaz ez dut entzun, denetan zorionekoa izanik, azkenean deserrotua izaterainoko zorigaiztoz amaitu ez duenik. Zuk, bada, niri entzunez, egizu hau zorionarekiko: pentsatu ondoren, topa dezakezun gauzarik estimagarriena eta, galdurik, bihotzean minik handiena emango dizun hori jaurti ezazu zeuregandik jada inoren eskuetara iritsiko ez den eran. Eta, baldin hemendik aurrera zorionak zoritxarrekin batezbestean ez baletoz, erremedia ezazu neuk adierazi dizudan moduan".

41. Polykratesek gutun hau irakurri ondoren, eta Amasisek ongi aholkatzen zuela oharturik, galdutakoan bihotzean nahigaberik handiena eman ziezaiokeen altxorra bilatzen saiatu zen, eta, bila ibili ondoren, honako hau aurkitu zuen: bazuen berekin eraman ohi zuen urre-loturazko zigilu-eraztun bat²¹⁹, esmeraldazkoa zena, eta Samoko Theodoro Teleklesenak egina. Beraz, hori jaurtitzea erabaki zuenean, honelakoak egin zituen: pentekontero bat gizonezkoz hornituz, bertan sartu zen eta, gero, itsas gora jotzeko agindu zuen;

eta irlatik aldendu zenean, zigilu-eraztuna hatzetik kendu eta, untzikide guztiek ikusten dutela, itsasora botatzen du. Hori egin ondoren, bira egin zuen, eta, bere egoitzetara itzuli zenean, nahigabeak eman zion.

42. Baina gertaera hauetatik bospasei egunera, hona zer gertatu zitzaion: arrantzale batek arrain handi eta eder bat harrapatu zuelarik, egoki iritzi zion Polykratesi oparitzat emateari. Beraz, jauregiko ateetaraino eramanez, Polykratesen begibistara iritsi nahi zuela esan zuen, eta, bere gogoari leku eman zitzaionean, arraina emanez "Oi errege -esan zion-, hau neuk harrapatu dudalarik, ez zait bidezkoa iruditu merkatura eramatea, neure eskulanetik bizi banaiz ere; aitzitik, zuri eta zure aginteari dagokiola iruditu zait; beraz, hona ekarriz, zeuri ematen dizut". Hark orduan, atseginez, honelako hitzekin erantzun zion: "Oso ondo egin duzu, eta bekizu esker bikoitza bai hitzengatik eta bai opariarengatik; gainera, afaltzera gonbidatzen zaitugu". Arrantzalea, bada, hori handietsiz etxeratu zen; baina zerbitzariak, arraina ebakitzean, honen sabelean Polykratesen zigilu-eraztuna zegoela aurkitu zuten; eta ikusi orduko hartu eta, pozez beterik, Polykratesi eraman zioten, eta, zigilu-eraztuna emanez, nola topatu zuten esan zioten. Eta honi jainkoaren lana zela bururatu zitzaion, eta gutun batean berak eginiko guztia gertatu bezala idatzi eta, idatzi ondoren, Egyptora igorri zuen.

43. Eta Amasisek Polykratesengandik heldutako gutuna irakurri zuenean ulertu zuen, ulertu, gizonari ezinezkoa zitzaiola gizona beroni dagokion etorkizunetik libratzea, eta Polykratesek ez zuela ongi bukatuko, gauza guztiak, beregandik jaurtitakoak aurkitzeraino ongi suertatzen zitzaionez gero. Eta, Samora mezulari bat bidaliz,

arrotz-elkargoa hautsia geratzen zela adierazi zion. Eta hori arrazoi honengatik egin zuen: Polykrates zorigaitz beldurgarri eta handi batek harrapatuz gero, berak bihotzean arrotzarekiko minik izan ez zezan.

44. Beraz, gauza guztiak ongi zihoazkion Polykrates honen kontra abiatu ziren lazedemonدارrak, ondoren Kretan Zydonia eraiki zuten samoarrek deiturik. Baina Polykratesek, samoarren ezkutuan, Egyptoren aurka gudarostea biltzen ari zen Kambyses Zyrorenari mezularia bidaliz, bere aldetik mandatari bat igorri eta gudaroste bat eska ziezaiola erregutu zion. Eta Kambysesek, hori entzutean, gogo onez igorri zion Samora mandataria, harenarekin batera Egyptoren aurka gerra-untziteria bat bidal ziezaiola eskatuz. Eta honek hiritarren artean altxamendurako prestuen susmatzen zituenak bildu eta berrogei trieretan bidali zituen, Kambysesi hauek berriz ez itzultzeko aginduz.

45. Batzuek esaten dute [Polykratesek] bidalitako samoarrok ez zirela Egyptora iritsi, aitzitik, nabigatuz Karpathon gertatu zirenean, elkarrekin hizketaratu eta jada aurrera ez nabigatzea erabaki zutela. Besteek, berriz, Egyptora iritsi eta, zainduak zeuden arren, ihes egin zutela diote. Baina, Samora itzultzeaz zeudela, Polykrates, bere unziekin bidera irtenez, borrokara jarri zen; eta itzultzen ari zirenek garaiturik, irlara jaitsi ziren, baina, bertako oinezko borrokan garaituak izan ziren, eta, horrela, Lazedemonera nabigatu zuten. Hala ere, badira Egyptotikakoek Polykrates bentzutu zutela esaten dutenak, nire iritziz zuzen ez badiote ere; izan ere, Polykratesi aurre egiteko gai baziren, ez zuten lazedemonدارrei deitu beharrik. Gainera, ez da arrazoizkoa,

kopuruz soldatapeko mertzenario eta etxekeko uztailari asko zituena, itzultzen ari ziren samoarrek, gutxi izanik, menperatua izatea. Bestalde, Polykratesek prest zeuzkan, untzi-etxoletan bildurik, bere agindupean zituen hiritarren ume eta emakumeak, haiek, itzultzen ari zirenetara igaroz beren buruak entrega bazitzaten, untzi-etxolekin berekin erretzeko.

46. Eta Polykratesek egotzitako samoarrak Spartara heldu zirenean, arkhonteengana aurkezturik, eskaera ugari zutenez, asko hitz egin zuten. Baina arkhonteek, lehenengo aurkezpenean, hasieran esandakoa ahaztu egin zutela erantzun zieten, eta ez zutela hurrengorik ulertzen²²⁰. Gero, bigarren aldiz aurkeztu zirenean, ez zuten beste konturik esan; aitzitik, irin-zaku bat ekarriz, zakuari irina falta zitzaiola esan zieten. Orduan, besteek zakuarena alferrik atera zutela erantzun zieten. Nolanahi ere, haiei laguntzea erabaki zuten.

47. Eta gero, prestatu ondoren, lazedemondarrak Samoren aurka gerraratu ziren, samoarrek diotenez, onegite bat ordainduz, berak izan baitziren lehenik meseniarren aurka beren itsasuntziekin haiei lagundu zietenak; lazedemondarrek diotenez, ordea, ez ziren horrenbeste eskean zetozen samoarrei lagundu nahiz gerraratu, Kresori zeramakioten krateraren eta Egiptoko errege Amasisek beraiei emaritzat bidali zien bularrekoaren lapurreta mendekatzeagatik bezainbat. Bada, samoarrek kratera baino urte bat lehenago lapurtu zuten bularrekoa, linozkoa eta irudi askorekin ehundua izanaz gainera urrez eta kotoiez hornitua zegoelarik; eta bularrekoaren hari bakoitza miresgarri egiten da arrazoi honengatik: fina den arren, bere baitan hirurehun eta hirurogei harizpi

baititu, guztiak agerian. Honelakoa da Amasisek Atheneari Lindon eskaini zion bestea ere.

48. Eta Samoren aurkako gerraratze hau halako elkarlanean egin zen, non korinthoarrak berak ere prest izan ziren; bai baitzen samoarren aldetik hauen kontrako irain bat, nahiz eta krateraren lapurretako urte berean ez burutu, gerraratze hau baino hiru belaunaldi lehenago gertatu zena. Izan ere, Periandro Zypselorenak²²¹ zerzyrar buruzagien arteko hirurehun mutil bidali zituen Sardesa Alyatesengana iren zitzaten. Baina, mutilen gidari ziren korinthoarrak Samora heldu zirenean, samoarrek, Sardesa zergatik zeramatzen jakinik, lehendabizi mutilei Artemisen santutegiari atxikitzen irakatsi zieten eta, gero, otoilariak santutegitik at arrastatzen ez utzi arren korinthoarrek mutilei janaria galarazten baitzieten, samoarrek oraindik ere modu berean ospatu ohi duten jai bat egin zuten: hain zuzen, gaua heltzean, mutilak otoilari izan ziren denbora guztian, neska-mutilen koruak antolatzen zituzten, eta, koru hauen antolakuntzan sesamo- eta ezti-opilak eramateko ohitura sortu zuten, zerzyrar mutilek harrapatuz janaritzat izan zitzaten. Eta hau, mutilen zaindari ziren korinthoarrek haiek utzi eta alde egin zuten arte gertatu zen; eta samoarrek mutilak Zerzyrara itzuli zituzten.

49. Dena den, Periandro hil ondoren, korinthoarrek zerzyrarrenganako adiskidetasuna izan balute, haiek ez zuten arrazoi horrengatik Samoren kontrako gerraldian esku hartuko; orain, ordea, irla kolonizatu zutenez geroztik, burujabe [izanik], etengabeko desberdintasunak dituzte elkarrekin. Beraz, gauza horiengatik zuten korinthoarrek samoarrenganako

oroitzapen txarra. Bestalde, Periandrok mendekuz bidali zituen zerzyrar buruzagien mutilak Sardesa irenduak izatera; zerzyrarrak izan baitziren hari ausarkeria egiten lehenak.

50. Izan ere, Periandrok bere emazte Melisa hil zuenean²²², zoritxar honetaz gainera, beste honelako bat ere gertatu zitzaion. Melisagandik ondorengo bi zituen; adinez, bata hamazazpi urtekoa eta bestea hemezortziko. Hauei, amaldeko aitona Proklesek, Epidauroko tiranoa zelarik, bere ondora erakarriz, onginahia azaltzen zien, bidezkoa zen bezala, bere alabaren umeak zirenez. Baina etxera bidean jarri zituenean, "Mutilak - esan zien bidali aurretik-, ba al dakizue nork hil zuen zuen ama?". Esan hori ez zuen zaharrenak inola ere kontuan hartu; gazteenak, ordea, Lykophron zeritzanak, halako mina hartu zuen entzutean, non Korinthora iritsi zenean, aitari, amaren hiltzaile zelako, ez zion hitzik egin, eta honek, hitz egin arren, deus ez zion erantzuten, eta, zerbaitetaz galdetzean, ezeren arrazoirik ez zion ematen. Azkenean, Periandrok, haserre bizian bere egoitzetatik egotzi zuen.

51. Eta hau kanporatu ondoren, zaharrenari amaldeko aitonak esan zizkienez galdetu zion. Eta honek zehatz adierazi zion nolako onginahiz hartu zituen; baina, Proklesek bidali aurretik esan zien kontuaz ez baitzen jabetu, ez zuen gogoratu. Hala ere, Periandrok ez zegoela beste biderik zioen, hark zerbait adierazi zuela baizik, eta galdetzen jarraitu zuen. Orduan, besteak, oroitzuz, hura ere esan zion. Eta Periandrok, [hori] ulertu eta inolako biguntasunik azaldu nahi gabe, kanporatu zuen semeak bizimodua

egiten zuen tokikoengana mandataria bidaliz, hura beren etxeetan ez hartzeko agindu zien; eta, hau, kanporatzen zutelarik, beste etxe batera joaten zenero, honetatik ere kanporatu egiten zuten, haren hartzaileei Periandrok mehatxu egin eta aldentzeko agintzen baitzien. Eta, kanporatua zelarik, lagunen artean etxerik etxe zebilen; eta hauek, Periandroren semea zelako, beldurrez bederen, hartu egiten zuten.

52. Baina azkenean Periandrok aldarrikapen bat egin zuen: hura bere egoitzetan hartu edota harekin hitz egin bide zuenak Apolori isun sakratu bat, berak izendatu zuen hainbatekoa ordaindu beharko ziola. Beraz, aldarrikapen hau zela eta, inortxok ez zuen ez harekin hitz egin, ez hura etxean hartu nahi; eta gainera berak ere ez zuen bidezkoztat jotzen galarazia zegoena egiten saiatzea; hala ere, berean iraunez, aterpez aterpe errondaka zebilen. Laugarren egunean, ordea, Periandrok garbitasun eta jan gabezian eroria ikusi zuenean, errukitu egin zen; eta haserrea bertan behera utziz, hurreratu eta "Seme -esan zion-, zein ote duk bietan hautagarriena, heure gogoz orain duan egoera, ala nik orain ditudan tirania eta ondasun hauek, aitaren lagun izanaz, oinordetzea? Hik, nire seme eta Korintho aberatseko printzea haizen horrek, arlote baten bizia hautatu duk, gutxien behar huenaren aurka jaiki eta haserrea erabiliz. Zeren, gertakizun haietan zorigaitzen bat gertatu bazen, hortik baituk nireganako susmoa, zorigaitz hori niri gertatu zitzaidaan eta neu nauk haren partaiderik handiena, neuk burutu nuen heinean. Baina, hik, errukitua izatea baino bekaiztua izatea zenbatez hobea den ikusteaz gainera, aldi berean ikasi baituk gurasoen eta indartsuagoen aurka haserretzea zer-nolakoa den, itzul hadi etxera". Hitz hauekin heltzen zion Periandrok; besteak, ordea, deus ez zion erantzuten aitari; aitzitik, berarekin

hizketatzeagatik jainkoari isun sakratua ordaindu beharrean zela esan zion. Eta Periandrok, semearen gaitza irteerarik gabekoa eta garaitu ezina zela ezagutuz, itsasuntzi bat antolatu eta begien bistatik urrun Zerzyrara bidaltzen du; honengan ere agintzen baitzuen. Eta hau urrutiratu ondoren, Periandro Prokles aitagarrebaren aurka gerraratu zen, orduko bere arazoen sortzailerik handiena zelakoan; eta Epidauroz jabetu zen eta Prokles beraz ere jabetu eta preso hartu zuen.

53. Baina, denbora joanik, Periandrok, zahartu eta konturatu egin baitzen jada ez zela gauza arazoei begiratzeko eta jarraitzeko, mandatari bat Zerzyrara bidaliz, Lykophroni tirania hartzera deitu zion; semeetan zaharrena ez baitzuen gai ikusten, alderantziz, aski motela iruditzen baitzitzaion. Lykophronek, ordea, ez zuen solaskidegarritzat hartu mezu-ekarlea. Hala ere, Periandrok gaztea inguratu nahiz, bigarren aldian arreba bidali zion, bere alaba hain zuzen, honi bederen entzungo ziolakoan. Honek, heldu orduko, "Mutil -esan zion-, nahiago al duk tirania besteengan erortzea eta aitaren etxea harrapakatua izatea heuk, hara itzuliz, biak eskuratzea baino? Itzul adi heure egoitzetara, utziok heure burua hondatzeari. Ondrazaletasuna bai gauza aldrebesa! Ez ezak gaitza gaitzarekin senda. Asko dituk zuzentasunaren aurretik egokitasuna²²³ jartzen dutenak. Eta asko ere, amaren ondra bila aitarena galdu ohi dutenak. Gauza irristakorra duk tirania; asko dituk, hala ere, honen amorante; bestalde, jada zaharturik eta sasoi gabe zagok bera; ez iezaizkiek besteei eman heure ondasunak". Aitak irakatsirik,

arrazoi erakargarrienak esan zizkion honek; hala ere, hark, erantzun gisa, aita bizi zela jakinbide zuen bitartean inola ere ez zela Korinthoratuko erantzun zion. Eta alabak berri hauek itzuli zizkionean, Periandrok hirugarren aldiz mezularia bidaltzen dio, bera Zerzyraratu nahiz; bestalde, hari Korinthora etorritz tiranian bere oinorde izateko eskatzen dio. Semeak baldintza hauetan baietsi zuelarik, Periandro Zerzyrarako eta semea Korinthorako prest zeuden. Baina, zerzyrarrek gauza hauek banan-banan jakinik, Periandro beren lurraldera etor ez zedin, gaztea hil egin zuten. Horra, bada, zergatik mendekatzen zen Periandro zerzyrarrez.

54. Dena den, lazedemondarrak untziteria handi batekin heldu ondoren, Samo setiatu zuten; eta, harresiaren kontra oldartuz, hiriaren kanpoaldean itsasorantz jaikitzen den bastioian jarri zuten oina; baina, gero, Polykratesek soldadu-talde ugari batekin lagunduz, kanporatuak izan ziren. Mertzenarioek, aldiz, eta samoar beretako askok mendi gailurrean dagoen goiko bastioira jo zuten, eta alditxo baten lazedemondarrei eutsi ondoren, atzera ihes egin zuten; baina etsaiek, jazarriz, hil egin zituzten.

55. Beraz, han ziren lazedemondarrak egun horretan Arkhias eta Lykopasen antzekoak izan balira, Samo hartua izango zen. Izan ere, Arkhias eta Lykopas izan ziren ihesi zihoazen samoarren aurka elkarrekin harresi barrura sartu eta, atzera bidea itxi zitetelarik, samoarren hirian hil ziren bakarrik. Eta Arkhias honengandik hirugarren belaunaldiko beste Arkhias batekin, hots, Arkhiasen biloba zen Samioren semearekin egokitu nintzen neroni Pitanan (demo honetakoa baitzen); honek samoarrak zituen atzerritar guztietatik gehien

estimatzen zituenak, eta bere aitari Samio (Samoarra) zeritzatela zioen, honen aita Arkhias Samon lorioski hil zelako; eta samoarrek haren aitonari ohorezko herri-hileta egin ziotelako estimatzen omen zituen samoarrak.

56. Beraz, lazedemondarrak Samo setiatzen berrogei egun igaro ondoren ez baitzen izan inolako aurrerapausorik, Peloponesora itzuli ziren. Bestalde, ahoz aho irten den zentzu asko gabeko esan baten arabera, Polykratesek bertako molde berunezko irudi ugari txanpondu, urreztatu, eta lazedemondarrei eman omen zien, eta hauek hartu eta horrela alde egin omen zuten. Hau izan zen doriar lazedemondarrek Asiaren kontra egin zuten lehen gerratea.

57. Bestalde, samoarretatik Polykratesen aurka gerraratu zirenak lazedemondarrek abandonatu egin zituztenez, beraiek ere itsasoratu egin ziren Siphno aldera. Izan ere, diruaren beharrean ziren; siphnoarren egoera, berriz, aldi horretan sasoi betekoa zen; irlan urre- eta zilar-mehatzeak zituztenez, irlatarren artean aberatsenak ziren; hala ezen, hemendik sortzen diren ondasunen hamarrenarekin Delphosen thesoro bat dago eraikia, aberatsenen pare; eta urtero bakoitzari sortzen zitzaizkion etekinak banandu egiten zituzten. Beraz, thesoroa egiten ari zirela, orakuluari orduan zituzten ondasunek luzaro iraun ahal zezaketen galdetu zioten; eta Pythiak hau erantzun zien:

"Alabaina Siphnon dadinean izan pritaneo zuri
eta agora bekain-argi, orduan gizon bat behar da zogi
bidea diezaion itxi zurezko segada eta mezulari gorriari"

Hain zuzen, garai hartan siphnoarrek agora eta pritaneo Paroko harriz²²⁴ hornituak zituzten.

58. Igarpen hori ez ziren ulertzeko gauza izan, ez berehalakoan, ez samoarrak etorritakoan. Izan ere, samoarrek, hurbildu ziren bezain azkar, itsasuntzietako bat igorri zuten hirira mandatariak eramanez. Eta antzina untzi guztiak minioz igurtzirikoak ziren; eta horixe zen Pythiak siphnoarrei adierazi ziena zurezko segada eta mezulari gorriarengandik zain zitezela aholkatu zituenean. Beraz, albistariak, iritsi orduko, siphnoarrei hamar talentu²²⁵ mailegatzeko eskatu zieten; siphnoarrek, ordea, ez zietela prestatuko esaten baitzieten, samoarrek haien lurraldeak suntsitzeari ekin zioten. Siphnoarrek, jakin zutenean, berehala heldu ziren laguntzarekin eta, haiekin borrokaratuta gero, garaituak izan ziren, eta hauetako askori samoarrek hirirako atzerabidea moztu zioten; eta honen ondoren ehun talentu exigitu ere bai.

59. Bestalde, hermionetarrengandik diru-truke irla bat eskuratu zuten, Peloponeso parean dagoen Hydrea, eta hau trezendarren gain utzi zuten; eta beraiek Kretako Zydonia eraiki zuten, nahiz eta horrengatik ez baina zazyntoarrak beren irlatik botatzeagatik itsasoratu ziren. Geratu ere hemen geratu ziren, eta hain ongi bizi izan ziren bost urtez, non egun Zydonian dauden santutegien eta Diktynaren tenplugile berauek izan ziren. Baina seigarren urtean eginarrek, kretarren laguntzarekin, haiek itsas guduan garaitu eta esklabo egin zituzten, eta basurde-itxurazko brankak dituzten itsasuntzien muturrak moztu eta Eginako Athenearen santutegian eskaini zituzten. Eta hori eginarrek samoarrenganako gorrotoarengatik egin zuten; izan ere, samoarrak izan ziren lehenengo, Samon Amphikrates errege zela, Eginaren aurka gerraratuz eginarrei kalte handiak egin zizkienak, eta, jasan, haien pean jasan zuten. Horra zergatia.

60. Samoarrei buruz gehiago luzatu naiz, berek eginak baitira heleniarren arteko hiru obra handienak: ehun eta berrogeita hamar besaldi altuko mendi batean, honen oinetik hasita, ahoa alde banatan duen tunel bat ireki zuten; tunelaren luzera zazpi estadiokoa da; goiera eta zabalera, berriz, bakoitza zortzi oinekora²²⁶; eta honen luzera osoan hogeï beso sakoneko eta hiru oin zabaleko beste kanal bat dago zulatua, zeinetan barrena iturritzar batetik doan ura hodietan bideratuz hiriraino iristen den. Tunal honen arkitekto²²⁷, megarar Eupalino Naustrophorena izan zen. Horixe da, hain zuzen, hiru obretatik lehena; bigarrena portuaren inguruan itsas gainean dagoen kai-muturra da, sakonean hogeï besaldirainokoa eta luzeran bi estadioz gorakoa delarik. Eta egina duten hirugarren obra tenplu bat da, guk ikusi dugun tenplu guztietan handiena; honen lehen arkitektoa lurralde bereko Rheko Philesena izan zen. Hori dela eta luzatu naiz zertxobait gehiago samoarrei buruz.

61. Eta Kambyzes Zyrorena Egipto aldean denbora igarotzen eta erokeriak egiten ari zen bitartean, anaiak ziren mago bi matxinatu zitzaizkion, zeinetatik bata Kambysesek bere egoitzen arduradun utzi zuen. Eta matxinatu ere, Smerdisen heriotza gertatu ondoren ezkutatua izan zela eta persiarren artean horren berri zekitenak gutxi, baina bizirik zegoela sinesten zutenak gehien zirela jakitean matxinatu zen. Horretarako, erabakia hartu ondoren, erregetzaren aurkako egintza hauei ekin zien. Bazuen anaia bat, esan dudanez, berarekin matxinatu zena, irudiz, Kambysesek bere anaia izan arren hil zuen Smerdis Zyrorenaren antz osoa zuena; hain zuzen, Smerdisen antzeko irudiaz gainera izena ere bera zuen: Smerdis.

Patizithes magoak gizon honi gauza guziak berak bideratuko zizkiola jakinarazi ondoren, errege-tronora eraman eta bertan eserrarazi zuen. Eta, hori egin ondoren, beste lekuren artean Egyptora ere mezulariak bidali zituen, aurrerantzean Kambysesi ez baina Smerdis Zyrorenari obeditu behar zitzaiola esanez.

62. Beraz, mezulariak horixe aldarrikatu zuten eta, besteren artean Egyptorako agindua hartu zuenak (Kambyses eta bere gudarostea Syriako Agbatanan zeudela topatu zituen, topatu ere) erdian zutik jarriaz aldarrikatu zuen magoaren ordena. Eta Kambysesek mezulariarengandik hori entzun ondoren, egia esaten zuela eta Prexaspesek saldu egin zuela sinetsiz (berak Smerdis hiltzera bidali arren, hori egin ez zuelakoan), Prexaspesengana zuzenduz, "Prexaspes -esan zion-, horrela bete didazu jarri nizun betekizuna?". Eta besteak "Jauna -erantzun zion-, hori ez da egia: ez zeure anaia Smerdis matxinatu zaizu, ez harengandiko liskarrik, ez handirik ez txikirik sortu zaizu; zuk agindu zenidana eginaz, neuk neure eskuz lurperatu bainuen. Alabaina, hilak piztu badira, itxaron ezazu Astyages mediarra ere matxinatuko zaizula; lehen bezala bada, ordea, ez izan harengandik ezer ustekabekorik sor dakizukeen beldurrik. Beraz, orain gu mezularien atzetik joan eta aztertu egin behar dugula deritzat Smerdis erregearenganako obedientzia noren partetik etorritz aldarrikatzen digun galdetuz".

63. Prexaspesek hori esan ondoren (Kambysesi laket izan baitzitzaion), mezularia, berehala atzemana izan zelarik, itzuli egin zen. Eta iristean, hau galdetu zion Prexaspesek: "Gizon, Zyroren seme Smerdisengandiko mandatari bezala etorri zarela baitiozu,

itzul zaitez, bada, onik, egia esan ondoren: Smerdisek berak zeure begien bistan agertuz agindu zizun hori, ala haren zerbitzarietako batek?". Eta honek erantzun: "Nik Smerdis Zyrorena ez dut ikusi Kambysek erregea Egyptora abiatu zenez geroztik. Hala ere, Kambysek bere egoitzen arduradun seinalatu zuen mago horrek eman dit agindua, berau zuei aldarrikarazten didana Smerdis Zyrorena dela esanez". Honek, bada, inolako gezurrik esan gabe hitz egin zien. Kambysek orduan hala esan zuen: "Prexaspes, zuk, gizon zintzoa bezala, agindua bete egin baituzu, ez zara salagarri; nor izan liteke persiarren artean, ordea, Smerdisen izenean oinarrituz nire aurka matxinatu dena?". Eta hark erantzun zion: "Nik, errege, gertatu dena ulertzen dudala uste dut; magoak dira matxinatu direnak: Patizithes, zuk zeure egoitzen arduradun utzi zenuena, eta honen anaia Smerdis".

64. Kambysek, Smerdisen izena entzun orduko, esandakoaren eta ametsetakoaren egiak kolpatu zuen; norbaitek ametsetan Smerdisek errege-tronoan eseri eta buruarekin zerua jotzen zuen iragarpena egiten ziola uste izan zuen. Eta bere anaiaren heriotza alferrikakoa izan zela ohartzean, negar egin zuen Smerdisengatik; eta negar egin eta, gertaturiko guztiaengatik atsekabetu ondoren, zaldi gainera saltatu zen ahalik lasterren Susara magoaren kontra joateko asmotan. Eta, zaldi gainera saltatzean, ezpata-zorroaren txurroa erortzen zaio, eta ezpatak, biluzik geratzean, izterra kolpatzen dio. Eta berak, lehen egyptoarren jainko Apis kolpatu zuen leku berean zauritua izan zelarik, heriogunean kolpatua izan zela uste baitzuen, hiriak zer izen zuen galdetu zien Kambysek, eta besteek Agbatana zuela erantzun zioten. Jada lehenago

Butos herritik igarria zioten Agbatanan amaituko zuela bizia. Eta hau Mediako Agbatanan zaharrik hilko zelakoan zegoen hemen baitzituen bere gobernakizun guztiak. Orduko igarpenak, ordea, Syriako Agbatanan zioen. Beraz, orain galdetu eta hiriaren izena jakitean, magoaren eta zauriaren gertakizunak jota, zentzatu egin zen, eta, jainko-igarpena ulertuz, "erabakia dago -esan zuen-, Kambyses Zyrorenak hemen amaitu behar duela".

65. Horrenbestexa esan zuen orduan. Hogeiren bat egun geroago, ordea, bertan ziren persiar aipagarrienei etorraziz, hitz hauek esan zizkien: "Persiarrok, behartua nago gauza guztietan gordeen eduki dudana honako hau zuei azaltzera. Bada, nik, Egypton nengoela, inoiz ikusia damu zaidan ikuspen bat ikusi nuen ametsetan: iruditut zitzaidan iragarle batek, jauregitik etorritik, Smerdisen errege-tronoan eserit buruarekin zerua jotzen zuela iragartzen zidala. Eta nik, neure anaiak agintea kenduko zidan beldurrez, zuhur baino arinago jokatu nuen; izan ere, gertatu beharrekoa saihestea ez zegoen giza izaeraren baitan; hala ere, nik, ergel honek, Prexaspes bidaltzen dut Susara Smerdis hiltzera. Eta, honenbesteko gaiztakeria eginda gero, beldur gabe bizi nintzen, Smerdis ezabatu eta inoiz beste gizonen bat nire aurka matxina zitekeen inola ere pentsatu gabe. Aitzitik, etorkizunaz oso-osorik huts eginez, ezereen beharrik gabe senide-hiltzaile bilakatu naiz, eta horrengatik ez didate gutxiago erregetza kendu; hain zuzen, Smerdis magoa baitzen nire aurka matxinatuko zela jainkoak ikuspenean azaldu zidana. Beraz, egintza egin dut, eta pentsa ezazue Smerdis

Zyrorena jada ez dagoela zuen artean; magoak dira gorteaz jabetu zaizkizuenak: egoitzen arduradun utzi nuena eta honen anaia Smerdis. Honela, bada, magoengandik lotsagabekeriak jasan ditudan honetan gehien lagundu behar zidan hori heriotza ankerrez bere etxekoenen esku hilik dago; baina, hau jada bizi ez denez, hona, persiarrok, esateko geratzen zaidan hurrengoa: ezinbestekoa zait, bizia amaitzean gerta dakidan, nahi dudana eskatzea. Beraz, errege-jainkoak lekuko hartuz, hauxe da zuei, zuei guztioi eta batez ere hemen zaudeten akhemenidoi gomendatzen dizuedana: ez utzi hegemonia berriro mediarrenganatzen; aitzitik, horretaz iruzurrez berenganatuz jabetzen badira, ken iezaiezue iruzurrez, edota, indarren baten bidez lortzen badute, berreskura ezazue irmoki indarraren bidez. Eta, hori egiten baduzue, betiere aske izateaz gainera, bekizue lurra emankor, eta emakumeak eta abere-saldoak umegile. Boterea berreskuratzen ez baduzue, ordea, edota berreskuratzen saiatzen ez bazarete, otoi dagit horren alderantzizkoa gerta dakizuen eta, horrez gainera, persiar bakoitzari, niri heldu zaidan bezalako azkena hel dakion". Eta Kambysesek, hori zioen bitartean, bere egoera osoa deitoratzen zuen.

66. Persiarrek erregea negar batean ikusiz, guztiek jantzi gisa zutena urratu eta aiene betean hasi ziren eta, ondoren, hezurra kariatu eta izterra berehala pasmatu egin baitzitzaion, honek eraman zuen berekin Kambyses Zyrorena, denera zazpi urte eta lau hilabetez errege izan zelarik²²⁸ eta inolako ondorengorik, ez arrezkorik ez emezkorik utzi ez zuelarik. Eta bertan zeuden persiarrei

sinesgabetasun handia barneratu zitzairen magoak gobernakizunen jabe zirenez; aitzitik, sinesturik zeuden Kambysesek Smerdisen heriotzaz esan zuena kalumniaz esan zuela, persiar herri osoa haren aurka gerra bidean jar zezan.

67. Hain zuzen, hauek sinesturik zeuden Smerdis Zyrorena zela errege jarri zena; izan ere, Prexaspesek ukatu egiten zuen irmoki Smerdis hil zuenik; Kambyses hilda gero, ez baitzen harentzat segurua Zyroren semea bere eskuz hil zuela aitortzea. Beraz, Kambyses hil ondoren, magoak, izen bereko Smerdis Zyrorenarengan oinarrituz, zazpi hilabetearen erreinatu zuen kezkarik gabe, Kambysesi zortzi urteak osatzeko geratzen zitzaizkionak hain zuzen; hilabete hauetan menpeko guztienganako hainbeste onegite azaldu zuen, non bera hiltzean, Asiako biztanle guztiek, persiar berek izan ezik, mira izan zuten; izan ere, magoak bere agindupeko herri orotara mezulariak bidaliz, hiru urteko gudaritza- eta zerga-salbuespena aldarrikatu zuen.

68. Hain zuzen, agintean jarri orduko egin zuen aldarrikapen hau; baina, zortzigarren hilabetearen hona nola nabarmendu zen. Otanes Pharnaspesen semea zen, eta jatorriz eta ondasunez lehen mailako persiarraren parekoa zen. Otanes horrek susmatu zuen lehenik magoa Smerdis Zyrorena ez baina zen huraxe zela, adierazgarriok bilduz: ez zela gaztelutik irteten eta persiarretako ospetsuenei ez ziela bere begibistara deitzen. Eta magoaren susmo izanik, hona zer egin zuen Otanese. Honen alaba, Phedymia izenekoa, Kambysesek emazte izan zuen; garai honetan, hain zuzen, hori bera izan zuen magoak, eta beronekin eta Kambysesen beste emakume guztiekin bizi zen. Hori zela eta, Otanese,

bere alaba honengana mandatu bat bidaliz, zein gizonekin oheratzen zen galdetu zion, Smerdis Zyrorenarekin ala beste norbaitekin. Eta alabak, ez zekiela esanez itzuli zion mandatua: ez zuela, alegia, Smerdis Zyrorena inoiz ikusi eta bere bizikidea nor zen ere ez zekiela. Otanesez bigarren mandatu bat bidali zion esanez: "Smerdis Zyrorena heuk ez badun ezagutzen, jakin ezan Atosarengandik norekin bizi zireten bera eta biok, bere anaia bederen arras ezagutuko din eta". Alabak, honi erantzunez, beste mandatu bat bidaltzen dio: "Ez Atosarekin hizketara naiteke ez nirekin bizi diren emakumeetatik ikus dezaket beste inor; zeren, gizon horrek, edozein dela ere, erregetzaz jabetu zen orduko, barreiatu egin gintuen, alde banatan kokatuz".

69. Hori entzutean, Otanesi nabariago agertu zitzaion arazoa. Eta hirugarren mandatua bidaltzen dio, hau esanez: "Ene alaba, jatorri onekoa haizenez, onartu beharra dun aitak aurre egiteko eska diezanakeen arriskua; zeren, benetan, Smerdis Zyrorena ez baina nik susmatzen dudana bada, hirekin etzan eta persiarren botereaz jabetu delarik, ez din aldendu behar zigor gabe, dagokiona ordainduta baizik. Orain, bada, egin ezan hau: hirekin lotaratu eta lozorroan dagoela ohar hadinean, uki iezazkion belarriak; eta belarriak badituela nabaritzen badun, pentsa ezan Smerdis Zyrorenarekin bizi haizela; ez baditu, ordea, Smerdis magoarekin". Mandatu horri Phedymiak beste batekin erantzun zion, hori egiten bazuen arrisku handiz jokatzeko zuela esanez; izan ere, suertatzen bazen ez zuela belarririk eta harrapatzen bazuen ukitzen, ongi zekiela ziotsan desagerraraziko zuena; baina, hala ere, egin egingo zuela. Beraz, esana beteko zuela agindu zion

aitari; bestalde, Kambysesen seme Zyrok, agintari zela, txikia ez zen arrazoiren batengatik belarriak moztu zizkion Smerdis mago horri. Beraz, Phedymia delakoak, hain zuzen, Otanesen alabak, aitari hitz emaniko guztia beteaz, magoaren ganatzeko aldia heldu zitzaionean (emakumeak persiar senarrei txandaka egin ohi baitzieten joan-etorria), alboratu eta harekin lotaratu zen, eta magoa lo zurrunga zegoela, belarriak haztatu zizkion. Eta ohartu zenean, ez nekez, erraz baizik, gizon hark ez zuela belarririk, eguna argitu orduko, mandatu baten bidez, gertaturikoaren berri aitari adierazi zion.

70. Eta Otanesez Aspathines eta Gobryas berekin hartuz, persiarretako lehenak baitziren eta fidagarrienak baitziztaizkion, guztiaren berri zehatz-mehatz eman zien. Hauek ere susmatzen zuten, ordea, hori horrela zela, eta, Otanesez amaitu zuenean, honen hitzak abegi onez hartu zituzten. Eta bakoitzari fidagarrien zitzaion persiar bat laguntzat hartzea erabaki zuten beren artean. Horrela, Otanesez Intaphrenes sartzen du barruan, Gobryasez Megabyxo eta Aspathinesez Hydarnes. Eta hauek sei zirelarik, horra non agertzen den Susan Dario Hystaspesena, Persiatik etorritik; honen aita baitzen horietako eraentzaile. Beraz, hori heldu zenean, persiarretako seiok Dario ere laguntzat hartzea erabaki zuten.

71. Eta hauek, zazpi zirelarik, elkarganatu eta elkarri beren iritziak eta fidagarritasunak eman zizkieten. Eta Dariori bere aburua argitzeko garaia iritsi zitzaionean, hau esan zien: "Nik bakarrik nekiela uste nuen hori, hots, magoak erreinatzen zuela eta Smerdis Zyrorena hila zela; etorri ere, horrexetarako etorri natzaizue azkar:

magoa hiltzeko elkar hartzera, hain zuzen. Eta, soilki nik ez ezik zuek ere jakitea egokitu baita, berehala ekitea eta ez luzatzea deritzat; ez baita hobe". Honi Otanesez erantzun zion: "Oi Hystaspesen seme, aita adoretuarengandik hator eta bazirudik heu ez haizela ezertan aita baino gutxiago. Hala ere, ekintza hau ez ezak hain zentzugabe azkar; aitzitik, har ezak zuhurtasunez; gehiago garela ekin behar baitiogu". Dariok erantzuten dio: "Hemen zaudeten jaunok, Otanesez adierazitako jokaeraz baliatzen bazarete, jakin ezazue erarik txarrean galduko zaretela; izango baita norbait albistearekin magoarengana joango dena soilik beretzat etekinak jasoaz. Ondorioz, egintza hori zeuen gain hartuz egin behar zenuten; baina gehiagori ezartzeaz gainera, nire gain ere jarri duzue gero, egin dezagun gaur bertan, edota zaudete ziur, gaurko eguna igarotzen bazaizue, niri aurreratuko zaidan salatzailezik ez dela izango, aitzitik, nik neuk salatuko diodala magoari".

72. Otanesez Dario oldartsu ikusten baitzuen, honela erantzun zion: "Azkar ibiltzera behartzen gaituanez eta luzatzen uzten ez diguanez, ea! azal iezaguk heuk zein eratan sartuko garen jauregietan eta hauei eskua ezarriko diegun. Zeren, heuk ere badakikek, ikusiz ez bada entzutez, han-hemen zaingoak jarriak daudela; nola igaroko ditugu?". Dariok honela erantzuten dio: "Otanesez, egiaz gauza asko dira hitzez erakuts ez daitezkeenak, eta bai egintzaz; alderantziz, badira hitzez badaitezkeenak, baina gauzotatik ez da sortzen ondorio argirik. Eta jakin ezazue ezarritako zaingoak ez direla igarogaitzak. Zeren, gu

garenak garelarik, ez da izango igarotzen utziko ez digunik, batetik errespetua eta bestetik beldurra baitigute; bestalde, gure sarbiderako aitzakia bikaina daukat neronek, arestian etorri naizela Persiatik eta neure aitaren partetik erregeari kontu bat jakinarazi nahi diodala esanez. Gezurra esan behar denean, esan egin behar baita. Izan ere, nahiz gezurra esaten dugunok, nahiz egiaz baliatzen garenok, gauza bera irrikatzen dugu: batzuek beren gezurrekin konbentzitzen zerbait irabaz dezaketenean, orduan esaten dute gezurra; besteek, aldiz, egiaren bidez irabaziren bat erakartzearen eta norbait berenganagotzearen esaten dute egia. Horrela, jokaera desberdinez, gauza berari gatzekio. Eta irabazirik ez balego, berdin litzateke egiesalea gezurti eta gezurtia egiesale izatea. Beraz, nahita sartzen utz diezagukeen atezainak hobe izango du gerora; aldiz, aurre egiten saiatzen dena une berean etsaitzat seinalatua izan bedi. Eta, ondoren, barrura joaz, hel diezaiozun lanari".

73. Jarraian, Gobryas da mintzo: "Adiskideok, noiz izango dugu egokiera ederragorik boterea berreskuratzeke, edota, berreskuratzeke gauza ez bagara, hiltzeko? Noiz eta orain, gu, persiar izanik, mediar mago batek eta, hain zuzen, belarririk ez duen honek bere menpe gauzkanean! Kambyses elbarri zegoela berarekin zeundeten guztiok ondo asko gogoratzen dituzue berak bizia amaitzean, boterea berreskuratzen saiatzen ez ziren persiarrei bota zizkien madarikazioak; orduan hauek ez genituen aintzat hartu; aitzitik, Kambyses kalumniaz mintzatzen zelakoan geunden. Beraz, Darioren esanari jarraitzea eta, zuzenean magoaren aurka abiatzeko ez bada, bilkura hau ez haustea hautatzen dut". Hori esan zuen Gobryasek eta denak horretara jarri ziren.

74. Eta hauek azpikeria honetan ziharduten bitartean, hona zer suertatu zen. Magoek, elkarrekin hitz egin ondoren, Prexaspesekin adiskidetzea erabaki zuten, Kambysesengandik, semea geziz hil zionarengandik, jasanezinekoak pairatu zituelako, eta, Smerdis Zyrorena bere eskuz hil zuenez, honen heriotzaren berri berak bakarrik zekielako; baina, horretaz gainera, [Prexaspes] persiarren artean osperik handienekoa zelako ere bai. Hain zuzen, arrazoi honengatik deitu eta saiatu ziren adiskidetzat berenganatzen, haiek persiarrei eginiko iruzurra berekin gordeko zuela eta inori ez ziola jalgiko hitza eman eta zin eginaraziz gainera, hamar mila gauza emango ziotela aginduz. Magoek konbentzitu balute bezala, Prexaspesek hori egingo zuela hitz eman ondoren, bigarren proposamen bat egin zioten, beraiek persiar guztiak erregearen gaztelupera deituko zituztela esanez; hari, berriz, dorrera igo eta aldarrika zezala eskatu zioten Smerdis Zyrorenaz beste inork ez ziela agintzen. Bera persiarren artean guztiz sinesgarria zelako eta, Smerdis Zyrorena bizi zen iritzia askotan azaltzeaz gainera, honen hilketa ukatu ere ukatu zuelako egin zioten horrelako eskabidea.

75. Eta Prexaspesek hori egiteko ere prest zegoela aitortu ondoren, magoek persiarrei dei eginez, hura dorre batera igoarazi eta aldarrikapena egiteko eskatu zioten. Baina honek, nahita, ez zion jaramonik egin haiek eskatzen ziotenari, alderantziz, Akhemenesengandik hasiz, Zyroren aitagandiko genealogia egiten hasi zen; eta, arian-arian, honenganaino iritsi zenean, amaitzeko, Zyrok persiarrei egin zizkien mesede guztiak aipatu zizkien. Eta hauek adierazi ondoren, egia azaldu zien, lehen (gertaturikoa esatea arriskutsu zitzaiolako) gorde egin bazuen ere,

orduan agertu beharra iritsi zitzaiola esanez; eta, Kambysesek beharturik, berak hil zuela esan zien Kambyses Zyrorena eta magoak zirela errege. Eta baldin boterea berreskuratu eta magoez mendekatzen ez baziren persiarren gain arao ugari jaurti ondoren, dorretik buruz behera egiten utzi zion bere buruari. Beraz, Prexaspesek, une oro ospetsu izan zelarik, horrela amaitu zuen.

76. Eta persiarretako zazpiek magoei, luzaro gabe, eskua berehala ezartzea erabaki baitzuten, jainkoei otoi eginik, bidean jarri ziren Prexaspesen inguruan gertaturikoaz deus jakin gabe. Erdibidean zihoazela jakin zuten Prexaspesi gertaturikoaren berri. Orduan, bidetik baztertu eta berriz elkarrekin hitz-trukatze bat egin zuten, batzuek, Otanesen inguruan, egintza atzeratzea eta egoera nahasi hartan ez erasotzea, eta besteek, Darioren inguruan, berehala joan eta erabakitakoa luzaro gabe egitea biziki eskatuz. Eta hauek eztabaidan ari zirela, zazpi belatz pare agertu ziren bi sai pare jazartzen, lumatzen eta atzapartzen. Eta, hori ikustean, zazpi-zazpiek onartu zuten Darioren iritzia eta, ondoren, errege-egoitzetara jo zuten hegaztiekin bultzaturik.

77. Eta, ateetan zeudela, Dariok zeritzan bezalatsu gertatu zitzaien; bada, zaintzaileek, persiar buruzagiei begirune izanik eta hauengandik horrelako ezer gertatuko zenik susmatu gabe, jainkoen gidaritzaz baliaturik, igarotzen utzi zieten eta inork ez zien deus galdetu. Baina, patiora iritsi zirenean, mandatuak eramaten zituzten eunukoekin topatu ziren; hauek zeren bila etorri ziren galdetu

zieten; eta, horiei galdetzearekin batera, atezainak mehatxatzen zituzten haiei sartzen utzi zietelako, eta zazpiek aurrera jarraitu nahi zutelarik, eutsi egin zieten. Orduan hauek, elkarri adore emanez, aiztoak atera eta hantxe bertan sastatu zituzten, eta beraiek lasterka gizategira jo zuten.

78. Eta halabeharrez une hartan mago biak barruan zeuden eta Prexaspes zela bide gertaturikoak, elkarrekin bildurik, eztabaidatzen ari ziren. Beraz, eunukoak asaldaturik eta oihuka ikusi zituztenean saltatu ziren bere aldetik mago biak eta, gertatzen ari zenaz jabetu zirenean, defentsara jo zuten; hauetako bata uztia hartzerantz aurreratu zen; bestea, berriz, lantzaren bila itzuli zen. Bertan jo zuten elkar. Hain zuzen, uztia hartu zuenari, etsaiak gertu eta erasoka zituenez, ez zitzaion batere baliagarri izan; bestea, ordea, lantzarekin defendatu zen, eta batetik Aspathines zauritu zuen izterrean, eta bestetik Intaphrenes begian; zauri hau zela medio, Intaphrenesek begia galdu zuen, baina ez zen hil. Magoetako batek, beraz, horiek zauritzen ditu; besteak, aldiz, uztia baliagarri izan ez zitzaionez, bai baitzen gizategirako sarrera zuen gela bat, hona ihes egiten du, bertako ateak ixteko asmoz. Eta zazpietako bi, hain zuzen Dario eta Gobryas, berarekin batera jausten dira barrura; eta Gobryas eta magoa elkarrekin korapilatuak baitzeuden, Dariok, haien aurrean jarriarik, ilunpean zegoenez, ez zekien zer egin, Gobryas ez zauritzeko arretaz. Eta Gobryasek, deus ez zuela egiten ikusiz, zergatik ez zuen eskua erabiltzen galdetu zion. "Zureganako arretaz ez dut zaurituko": esan zion honek. Orduan, Gobryasek "sar ezak aiztoa biongan barrena!": erantzun zion.

Eta Dariok, esana eginez, jo zuen sastada eta, halabeharrez, magoari eman zion.

79. Eta magoak hil eta hauei buruak moztu ondoren, beren zaurituak bertan utzi zituzten, berauen ezintasunagatik eta gotorlekua zaintzeagatik, eta haietako bost lasterka irten ziren magoen buruekin, oihu eta zarata eginez, eta beste persiarrei dei egiten zieten gertaturikoa zehazki adieraziz eta buruak erakutsiz; eta, aldi berean, oin aurrean jartzen zitzairen mago oro hiltzen zuten. Persiarrek, bestalde, gertaturikoa eta magoen iruzurra zazpiengandik jakitean, bidezkotzat jo zuten beraiek ere beste horrenbeste egitea, eta, aiztoak ateraz, edozein lekutan magoren bat topatzen zutela ere, hil egiten zuten; eta gauak, heltzean, eutsi ez balie, ez zen mago bakar bat ere geratuko. Persiarrek egun guztietan bereziki egun hau publikoki ospatu eta bertan jai handi bat egiten dute, Persiarrek magophonia²²⁹ deritzatena; jai honetan ez da zilegi magorik inor argitara azaltzea; aitzitik, egun honetan magoek etxe barruan edukitzen dituzte beren buruak.

80. Eta asaldura baretu eta bost egunak igaro zirenean, magoen aurka matxinaturikoek gobernakizun guztiez deliberatu zuten eta zenbait heleniarrentzat sinestezinak dira izan eman ziren hitzaldiak, baina eman egin ziren. Otanesez gobernakizunak persiarren baitan jartzea eskatu zuen hitz hauek esanez: "Gizon bakarra jada gure agintari bakar ez izatea deritzat; ez baita atsegina, ez ona. Izan ere, ikusi duzue noraino iritsi den Kambysesen harrokeria, eta magoaren harrokeriaren partaide ere izan zarete. Nola izan daiteke, baina, monarkia gauza zuzena, konturik eman gabe nahi duena egin badeza? Munduko gizonik

bikainena ere aginte horretan jar baledi, bere ohiko irizpideetatik atera lezake. Zeren, berekin dituen ondasunen pean harrokeria barneratzen zaio, eta bekaitza sorreratik itsasten da gizonarengan. Biak baditu, txar guztiak ditu; bada, batetik, harrokeriaz eta bestetik bekaitzaz aserik dagoenenan, burugabekeria asko egiten du. Benetan tiranoak, ondasun guztiak baititu, bekaizgabea behar luke izan; baina, berez alderantzizko joera du hiritarrekiko; bekaizti baita hoberenekin inguruan eta bizirik dituen artean; pozkidatsu, ordea, gaiztoenekin eta guztiz harkor kalumniekin. Eta denetan aldrebesena: neurritz miresten baduzu, haserretu egiten zaizu aski losentxatu ez duzulako, eta norbaitek aski losentxatzen badu, haserretu egiten zaio losentxari delako. Eta handienak esatera noa: arbasoen ohiturak aldatzen ditu, emakumeak bortxatzen eta jendea epai gabe hiltzen. Herriaren agintaritzak, ordea, lehenik eta behin, denetan izenik ederrena du, isonomia²³⁰, eta, bigarren, monarkhak ohi dituen horietatik deus ez du egiten: aginteak zozketaz eskuratzen ditu, eta erabileraren kontua ematen du, eta erabaki guztiak elkartearen gain jartzen ditu. Beraz, monarkia ezeztatu eta boterea herriari ematea da nire iritzia; zeren, dena giza taldearen baitan dago". Iritzi hau aurkeztu zuen, hain zuzen, Otanese.

81. Megabyxok, ordea, gobernakizunak oligarkiaren esku uztea eskatu zuen, hitz hauek esanez: "Otanese tirania ezeztatuz esan duen hori izan bedi baita ere neuk esana; baina, boterea herriratzearen aldeko honen proposamena iritzi hoberenetik aldentzen da. Izan ere, deus ez da ezjakinagorik, ez lotsagabeagorik, jendetza alferra baino. Eta zinez jasanezina da, tiranoaren lotsagabekeriatik ihesi, galga gabeko herriaren lotsagabekeria erortzea; zeren, hark,

zerbait egiten badu, ezagueraz egiten du; hau, ordea, ez da ezagutzeko gai ere. Nola ezagut lezake, bada, etxean gauza ederrik ez ikasi eta ez ikusi ez duenak, eta, ibai uholdetsuaren antzera jausiz eginkizunak amiltzen dituenak? Beraz, balia daitezela herri-aginteaz persiarrenganako burutapen txarra dutenak; guk, aldiz, gizaseme hoberenen artean talde bat hautatuz, horni ditzagun botereaz; geu ere horien artean izango baikara; eta, itxurazkoa den bezala, gizon hoberenetatik sortuko dira burubide hoberenak". Hau izan zen, hain zuzen, Megabyxok aurkeztu zuen iritzia.

82. Eta, hirugarrenez, Dariok azaldu zuen berea, esanez: "Nik zuzen dagoela deritzat Megabyxok herri-aginteaz esan duenari; ez, ordea, zuzen oligarkiazkoari. Zeren, aurkeztu diren hiruetako bakoitza, esate batez, hoberena izan arren, hoberena bai herri-agintea bai oligarkia eta bai monarkhia, hau luzaz haien aurretik dagoela diot. Izan ere, ezin da agertu, hoberena bada, gizon bakarra baino hoberik; zeren, era honetako pentsaera erabiliz goberna lezake herria gaitzespenik gabe eta arerioekiko erabakiak horrela gera litezke batez ere isilpean. Oligarkian, ordea, bere dohaina elkartearen zerbitzuan erabiltzen duen askori bereganako etsaitasun bortitzak sor lekizkioke; izan ere, norbera buruzagi izan eta bere iritziekin gailendu nahi duelarik, elkar biziki gorrotatzera iristen dira; gorrotoetatik liskarrak sortzen dira, liskarretatik hilketa eta hilketatik, ondorioz, monarkiara heltzen da; eta hemen garbi azaltzen da zenbateraino den hori aginterarik hoberena. Alderantziz, herriak agintzen duenean, ezinbestekoa da gaiztakeria sortzea; baina, gaiztakeria sortzean, gaiztoen artean ez da gorrotoerik pizten, adiskidetasun sutsua baizik: elkarteari kalte egiten diotenek elkar harturik egiten baitiote. Eta hau honela gertatu ohi da, norbait herriaren alde jarri eta horrelakoak geldiaraz ditzakeen arte;

ondorioz, mirestu egiten du hori herriak eta, mirestua izatean, agintari bakartzat hartu ohi du; eta honek ere garbi erakusten du monarkhia dela hoberena. Guztia hitz batean laburbilduz esateko: nondik eta nork emanik etorri zaigu askatasuna? Agian herriarengandik? Edota oligarkiarengandik? Ala monarkiarengandik? Beraz, gizon bakarraren bidez askatuak izan garenez, agintera horri eustea, eta horrez aparte arbasoen ohiturak, ongi daudenez, ez indargabetzea deritzat; ez baita gauza hoberik".

83. Hiru iritzi hauek proposatu ziren eta, zazpi lagunetatik lau azken horri atxiki zitzaizkion. Baina Otanesez, persiarren artean isonomia sortzen ahalegindu zelarik, asmo horretan gauditua izan baitzen, beraien erdian hona zer esan zuen: "Erkideok, argi baitago, alafede, edonor dela ere, gutako batek izan behar duela errege, nahiz zozketaz hautatua izan, nahiz persiar herriari gomendatu haren hautaera, nahiz beste edozein prozeduraz egin; ez naiz, beraz, zuekin lehiatuko; bada, ez dut agindu nahi, ez agindua izan ere; eta honako honen baitan uko egiten diot aginteari: ez neu eta ez betidaniko nire ondorengorik zuetako inoren agintepean ez egotekotan". Otanesez hau esan ondoren seiak bat etorri baitziren baldintza horietan, hura ez zen jada hauen lehian sartu, tartetik aldendu baizik. Eta gaur oraindik persiarren artean horren etxeak bakarrik jarraitzen du aske izaten eta, persiarren legeak zapaldu ezean, berak nahi duen besteko esanera dago.

84. Eta zazpietatik gainerakoak erregea erarik zuzenenean nola jarriko zuten erabakitzen hasi ziren. Eta ontzat eman zuten Otanesi eta betidaniko bere ondorengoei, erregetza zazpietako beste norbaitengana heltzen bazen, pribilegio gisa urtero soineko mediar bat eta persiarrei estimagarrien zaizkien opari

guztiak ematea. Eta hona zergatik erabaki zuten gauza horiek ematea: bera izan baitzen lehena ekintza asmatu eta haiekin bat egin zuena. Horra, bada, Otanesen pribilegioak; erkidegoarentzat, berriz, hauek erabaki zituzten: zazpietatik nahi zuen oro sar zitekeela errege-egoitzetan mandataririk gabe, non eta erregea emakumeren batekin oheratua ez zegokeen, eta erregeari ez zitzaiola zilegi berekin matxinatu ziren ez besteengandik emaztea hartzea. Erregetzaz, berriz, honela erabaki zuten: hiriz kanpoan zaldi gainera igo eta, eguzkia ateratzean, noren zaldiak egiten zuen lehen irrintzia, harena izango zela erregetza.

85. Dariok, hain zuzen, Ebares izeneko gizon trebe bat zuen zaldizain. Biltzarkideak banandu zirenean, Dariok hau esan zion gizon horri: "Ebares, erregetzari buruz honela jokatzearabaki diagu: zaldi gainera igo eta eguzkia ateratzean noren zaldiak egiten duen lehen irrintzia, harena izango dela erregetza. Orain, bada, trebetasunik baduk, molda hadi ohore hori guk izan dezagun eta ez beste inork". Ebaresek honela erantzuten dio: "Jauna, errege izan ala ez benetan horren baitan badago, izan ezazu horren ustea, izan bihotz, zure aurretik inor ez baita errege jarriko; halako edabeak ditut eta". Dariok esaten dio: "Horrelako trikimailurik baldin baduk, luzatu gabe ekiteko garaia duk; bihar baitugu lehiaketa". Hori entzun ondoren, hona zer egiten duen Ebaresek: gaua heltzean, behorretako bat, Darioren zaldiak gehien desiratzen zuena, hiriz kanpora eraman eta lotu egin zuen eta, ondoren, Darioren zaldia eraman eta luzaroan behorraren ondoan itzulinguruka erabili zuen behorrari hurbilduz, eta azkenean zaldiari estaltzen utzi zion.

86. Eta egun argitzearekin batera, seiak, erabaki bezala, zaldi gainetan agertu ziren; eta hiriz kanpoan barrena zihoazelarik, aurreko gauean behorra lotua egon zen leku hartan aurkitu ziren orduko, Darioren zaldiak, arrapaladan joanez, irrintzi egin zuen. Eta zaldiak hau egitearekin batera, oskarbitik tximista eta trumoia jalgi ziren. Dariori gertaturiko gauza horiek akordioz gertatuak bailiran burutu zitzaizkion; eta besteek, zaldietatik salto eginez, gur egin zioten²³¹ Dariori.

87. Egiaz, Ebares horrela moldatu zela diote batzuek; honela, berriz, besteek (persiarrek bi eratara kontatzen baitute): eskua behor horren parteetatik pasa eta bere anaxyridetan²³² gorderik eduki omen zuen; eta eguzkia ateratzean, zaldiak abiatzear zeudela, Ebares horrek, eskua Darioren zaldiarengana luzatuz, sudurmintzetara eraman omen zion, eta honek, usaina entzun zuenean, ufatu eta irrintzi egin omen zuen.

88. Beraz, Dario Hystaspesena hartu zuten erregetzat, eta Asian zeuden guztiak, Arabiarrek izan ezik, Zyrok eta ondoren berriro Kambysesek menperatu zituztelarik, esaneko izan zitzaizkion. Arabiarrek, beren aldetik, inoiz ez ziren esklabo gisa persiarren esanera egon, aitzitik, etxetiar izan zitzaizkien Kambysesi Egyptoren aurka igarotzen uztean; bada, arabiarren gogoz kontra persiarrek ez zitzaizkion Egyptori gaineratuko. Persiarrentzat lehen mailakoak ziren ezkontzak egin zituen: batetik, Atosa eta Artystone, Zyroren bi alabekin ezkondu zen; Atosa aurrez Kambyses anaiarekin eta bigarrenenez magoarekin bizi izan zen; Artystone, berriz, birjina zen; eta, bestetik, Parmys zeritzan Smerdis Zyrorenaren alabarekin ere ezkondu zen;

eta magoa agerian utzi zuen Otanesen alaba ere hartu zuen. Dena bere boterez betetzen ari zen. Lehenik, bada, harrizko baxuerliebe bat egin eta eraikiarazi zuen; irudi bezala zaldun bat zegoen eta [honen] gainean idazki bat idatzarazi zuen, hau zioena: "Dario Hystaspesenak bere zaldiaren (izena adieraziz) eta Ebares zaldizainaren bertutez lortu zuen persiarren erregetza".

89. Eta, hori egin ondoren, Persian bertakoek satrapiak²³³ deritzeten hogeit hamar aginterri ezarri zituen; eta aginterriak eraiki eta hauen buru agintari bat jarri ondoren, zergak finkatu zituen herriak bereganatzearren, herri hauei auzoak erantsiz eta, auzoez gaindi, urrunagoko herriak elkarren artean sailkatuz. Eta hona nola banatu zituen aginterriak eta urteroko zerga-sarrerak: zerga zilarretan ordaintzen zutenei, babyloniar talentuaren pisutan ordainarazi zien; urretan ordaintzen zutenei, berriz, eubearren pisutan; eta babyloniar talentuak hirurogeita hamar "eta zortzi" eubear mina balio du²³⁴. Bada, Zyroren eta gero Kambysesen agintepean, ez zegoen zergaz deus ezarririk, baizik eta emariak eramaten zituzten. Eta zerga-ezarpen horrengatik eta horren antzeko beste neurriengatik, persiarrek Dario merkatari zela diote, Kambyses despota, eta Zyro aita; bata gauza ororekin trafikatzeko baitzuen, bestea, berriz, bihozgabea eta gutxieslea baitzen, eta azkenengoak, bihozbera izateaz gainera, edotariko ondasunak bideratu baitzizkien.

90. Hain zuzen, joniarrereandik, Asiako magnesiarreandik, eoliarrereandik, kariarrereandik, lyziarrereandik, milyengandik eta pamphyliarrereandik (zerga bakarra ezarri baitzizkaien

hauei) zilarrezko laurehun talentu eskuratzen zituen; zinez, hori zen ezarri zuen lehen herrialdea. Mysiarrengandik, lydiarrengandik, lasoniarrengandik, kabaliarrengandik eta hytenesengandik bostehun talentu; hori zen bigarren herrialdea. Eta itsasoan barruratzean eskuinaldera dituen helespontoarrengandik, phrygiarrengandik, Asiako thraziarrengandik, paphlagoniarrengandik, mariandynoengandik eta syriarrengandik zetorkion zerga hirurehun eta hirurogei talentukoa zen; hori zen hirugarren herrialdea. Eta ziliziarrengandik hirurehun eta hirurogei zaldi zuri eskuratzen zituen, eguneko bat, eta zilarrezko bostehun talentu; hauetatik ehun eta berrogei, Ziliziako lurraldea zaintzen zuen zaldierian gastatzen zen eta hirurehun eta hirurogei Dariori zetozkion; hori zen laugarren herrialdea.

91. Eta Posideo hiritik, Amphilokho Amphiararenak ziliziarren eta syriarren mugetan eraiki zuen honetatik hasi eta Egyptoraino, arabiarren zatia izan ezik (hau zergagabea baitzen), hirurehun eta berrogeitamar talentukoa zen jasotzen zuen zerga; eta herrialde horren barruan dago Phenizia osoa eta Palestina deituriko Syria eta Zypko; hori zen bosgarren herrialdea. Eta Egyptotik, Egyptorekin mugatzen diren libyarrrengandik, Zyrenetik eta Barkatik (hauek Egyptoko herrialdera zuzenduak baitzeuden) zazpiehun talentu jasotzen zituen, Meris aintziratik, arrantza zela eta, zetorkion zilarraz gain; beraz, zilar honen eta gaineratzen zitzaion gariaz aparte, zazpiehun talentu jasotzen zituen;

zeren, Memphisko Leukotikhon²³⁵ kokatuak dauden persiarrei eta hauen mertzenarioei egyptoarren ehun eta hoge mila medimno²³⁶ gari banatzen baitizkiete; hori zen seigarren herrialdea. Eta satagydek, gandariarrek, dadikek eta aparytek, bateratuak zeudelarik, ehun eta hirurogeita hamar talentu zekarkioten; hori zen zazpigarren herrialdea. Eta Susatik eta zisiarren gainerako lurraldetik hirurehun; zortzigarren herrialdea zen hori.

92. Eta Babylondik eta gainerako Asyriatik zilarrezko mila talentu eta irenduriko bostehun mutiko jasotzen zituen; bederatzigarren herrialdea zen hori. Eta Agbatanatik eta gainerako Mediatik, parikanioengandik eta orthokhorybantioengandik, laurehun eta berrogeita hamar talentu; hamargarren herrialdea zen hori. Eta kaspiarrek, pausikek, pantimathoek eta daritek, batera biltzen zutelarik, berrehun talentu ordaintzen zuten; hamaikagarren herrialdea zen hori. Eta baktrarrengandik egloarenganaino jasotzen zuen zerga hirurehun eta hirurogei talentukoa zen; hamabigarrena zen herrialde hori.

93. Paktykako lurraldetik, armeniarrengandik eta mugakideengandik Ponto Euxinoraino, berriz, laurehun talentu jasotzen zuen; hamahirugarren herrialdea zen hori. Eta sagartioengandik, sarangengandik, thamaneengandik, utioengandik, mykoengandik eta Erythre itsasoan dauden irletako biztanleengandik, zeinetan erregeak erbesteratu izenekoak kokatzen dituen, guztiongandik seiehun talenturen zerga zetorkion; hau hamalaugarren herrialdea zen. Aldiz, sakek eta kaspiarrek berrehun eta berrogeita hamar talentu ordaintzen zioten; hau hamabosgarren herrialdea zen.

Eta parthoek, khorasmiarrek, sogdianarrek eta arioek hirurehun talentu ordaintzen zuten; hamaseigarren herrialdea zen hori.

94. Parikanioek eta Asiako ethiopiarrek, berriz, laurehun talentu ordaintzen zioten; hamazazpigarren herrialdea zen hori. Eta matienoei, saspireei eta alarodioei berrehun talentu ezarri zitzaien; hemezortzigarren herrialdea zen hori. Aldiz, moskhoei, tibarenoei, makronei, mosynekoiei eta mareei hirurehun talentu izendatu zitzaien; hemeretzigarren herrialdea zen hori. Bestalde, indiar herria da guk ezagutzen ditugun guztietan askoz handiena, eta beste guztien aldean ordaintzen zuten zerga: urre-hautsezko hirurehun eta hirurogei talentu; hogeigarren herrialdea zen hori.

95. Hain zuzen, zilarrezko talentu babyloniarra eubearraren balioari alderatzen bazaio, bederatzi mila zortziehun eta laurogei talentu dira; bestalde, urrezkoa hamahiru halako dela kalkulatzeko bada, urre-hautsa lau mila seiehun eta laurogei eubear talentu direla ondorioztatzen da. Beraz, horiek guztiak batuz gero, Dariorentzat urtero hamalau mila bostehun eta hirurogei eubear talenturen kopurua bildu ohi zen zergatzat; eta hori baino gutxiagokoa, jada kontuan hartzen ez dudanez, aipatu ere ez dut egiten.

96. Zerga hori iristen zitzaion Dariori Asiatik eta Libyako zati txiki batetik; baina, denbora joan ahala, irletatik eta Europan bizi diren Thesaliarainoko biztanleengandik ere beste zerga bat jasotzen zuen. Zerga hau era honetan pilatzen du erregeak: urtu eta lurrontzietara isurtzen du, eta ontzia bete ondoren lur-estaldura kentzen dio; eta dirua falta denero, unean uneango beharraren arabera txanpontzen du.

97. Horiek ziren, bada, aginterrien eta zergen ordenamenduak. Persiar lurraldea bakarrik ez dut aipatu zerga-emailatzat; persiarrek zergagabeko lurraldea baitute bizileku. Bestalde, hauek dira, zerga emateko agindurik ez zuten arren, emariak eramaten zituztenak: Egyptoren mugakide diren ethiopiarrak, Kambysesek ethiopiar makrobioen aurka joatean menperatu zituenak, Nysa sakratuaren inguruan bizi eta Dionysori jaiak ospatzen dizkiotenak. Ethiopiar horiek eta berauen auzoek indiar kalantien esperma bera dute eta lurpeko egoitzak dituzte. Bi herri horiek hiru urtean behin elkarrekin ordaintzen zuten, eta nire garaia ere ordaintzen dute, arragotu gabeko bi khenize urre, ebenozko berrehun enbor, ethiopiar bost mutil eta elephantearen hogeitaz. Eta kolkhoek eta Kaukasoar mendirainoko mugakideek ere emaitzak ematea erabaki zuten (persiarrek mendi horretaraino agintzen baitute eta Kaukasoar mendiz ipar-haizealdeko herriek ez baitute jada persiarren ardurarik); horrela bada, haiek oraindik nire garaian ere bost urtez behin eramaten zituzten erabakitako emariok: ehun mutil eta ehun neska. Arabiarrek, aldiz, urtero intsentsuzko mila talentu eramaten zituzten. Emariok zergaz aparte bidaltzen zizkioten horiek erregeari.

98. Eta indiarrek urretza hori, zeinetatik erregeari aipaturiko urre-hautsa bidaltzen dioten, era honetan eskuratzen dute. Indiar lurraldeko sortaldeak hondartza da; izan ere, guk ezagutzen ditugun eta berauetaz zerbait ziur esan ohi den biztanleetatik, indiarrek dira Asian egunsentirantz eta sortalderantz bizi diren aurrenekoak. Beraz, hondarra dela eta, indiarren egunsentialdea eremu da. Eta

indiarren artean herri asko dira eta beren artean ez dira mintzaira bereko, eta hauetako batzuk nomada dira eta besteak ez, eta beste batzuk ibai-zingiretan bizi dira eta, kanaberazko itsasuntzietan boga eginez harrapatzen dituzten arrainez elikatzen dira; bestalde, itsasuntzi bakoitza kanaberaren adabetarte bakarraz egina dago. Hain zuzen, indiar hauek ihizko soinekoak daramatzate: ibaitik ihia bildu eta zehatu ondoren, zerriaren antzera espartzatuz, bularreko gisa jazten dute.

99. Hauez egunsentialdera bizi diren beste indiarrek, berriz, nomada dira, haragi gordina jaten dute eta padeak deritzete. Bestalde, honelako ohiturak omen dituzte: herritarren bat, dela emakumezkoa dela gizonezkoa, gaixo jartzen bada, gizonezkoa gizonezkoek, bereziki haren gertukoenek, hiltzen dute, bera gaixotasunak galtzen badu honen haragia berentzat galdua geratzen dela esanez; eta, gaixo dagoenik ukatzen badu, hala ere haiek, desados, hil eta elkarrekin ospatzen dute. Eta emakumea bada, era berean, bereziki harekin harremanak izan dituzten emakumezkoek, gizonezkoek egindako bera egiten dute. Izan ere, zahartzarora iristen dena opaldu eta ospatu egin ohi dute. Gutxi dira, ordea, horren adierazpenera heltzen direnak; lehenago, gaixorik erortzen den oro, hil egiten baitute.

100. Aitzitik, beste indiarrena da honako beste jokabide hau: inolako bizidunik ez dute hiltzen, deus ez ereiten, ez dute etxerik eduki ohi, eta, belarjale direlarik, badute leka barruan artatxikia bezainbat den ale bat, lurretik berez sortzen dena, zeina, bilduaz, lekarekin batera egosi eta jaten duten. Eta, hauetakoren bat gaixo eror badadi, bakartegira joan eta etzan egiten da; eta inor ez da hartaz arduratzen, ez hil ondoren, ez gaixo dagoelarik.

101. Bestalde, aipatu ditudan indiar guztion kopulatzea, abereena bezalaxe, agerikoa da, eta guztiek azal berdina eta ethiopiarren antzekoa daramate. Eta haien ernalkia, emakumeengan isurtzen dutena, ez da zuria, gainerako gizonetan bezala, azalaren arabera beltza baizik; eta ethiopiarrek ere horrelakoxe hazia isurtzen dute. Indiar hauek persiarrengandik aski urruti, hego-haizerantz bizi dira eta inoiz ez dira Dario erregearen esaneko izan.

102. Aitzitik, beste indiar batzuk Kaspatyro eta Paktykako hirien auzo dira, gainerako indiarrengandik hartz-izarrerantz eta ipar-haizerantz biziaz; hauek baktrarren antzeko biziera dute; horiek dira indiarren artean borrokariak, eta urre-bilaketak antolatzen dituztenak ere horiexek dira; bertan, hondartza dela eta, eremua baitago. Beraz, eremu horretan eta hondartzan inurriak daude, tamainuz zakurra baino txikiagoak eta azeria baino handiagoak direlarik; hauetako batzuk badira, izan, persiarren errege-egoitzan ere, leku horretatik harrapatuta ekarriak. Inurri horiek, bada, egoitza lurpean egitean, Heladeko inurriek bezalaxe, modu berean, eta itxura ere guztiz antzekoa dute, hondarra gorantz ateratzen dute; baina, ateratako hondarra urreduna da. Hain zuzen, indiarrek hondar honen bila antolatzen dituzte eremurako ibilaldiak, bakoitzak hiru gamelu uztartuz: alde banatan, arrastatzeko, gamelu ar kabestruduna eta erdian emea; eta indiarra eme honen gainera igotzen da, uztartzerako ume gazteenengandik banatzen ahalegindu ondoren; beraien gameluak ez baitira azkartasunean zaldiak baino gutxiago; eta, horrez aparte, zamak eramaten askoz ahaltsuago dira.

103. Heleniarrei ez noa deskribatzera gameluak zer-nolako itxura duen, bai baitakite; aitzitik, hari buruz ez dakiten honetaz mintzatuko naiz: gameluak atzeko hanketan lau izter eta lau belaun ditu eta zakila atzeko hankartean isatserantz begira dauka.

104. Beraz, indiarrek honelako antolamendua eta era honetako uztarketa erabiliz joan ohi dira urre bila, nola galdarik beroenean harrapatuko duten kontuan hartuz; inurriak galdarekin desagertu egiten baitira lurpean. Bestalde, gizon horiei goizeko eguzkia zaie beroen, ez eguerdikoa gainerakoei bezala, atera eta merkatua amaitzen den artekoa baizik. Eta, denbora horretan, eguerdian Helade ohi duen baino askoz gehiago erretzen du; hainbeste, non orduan bertakoek, diotenez, uretan bustitzen diren. Egunaren erdian, ordea, gainerako herritarrek bezalatsu erre ohi ditu indiarrek ere. Eta, eguerdia erortzean, gainerakoei goizekoa bezala bilakatzen zaie eguzkia. Eta une horretatik aurrera gero eta hotz gehiago egin ohi du, eguzkiaren sarreran hotz gogorra egiteraino.

105. Eta indiarrok, beren zakutoekin lurralde horretara iristen direnean, haiek bete eta ahalik azkarren itzultzen dira; inurriek, usainez berehala jabeturik, persiarrek diotenez bederen, jazarri egiten baitituzte. Eta beste inor ez bezala omen dira azkarrak, hala ezen, inurriak biltzen diren bitartean indiarrek bidean aurea hartuko ez balie, hauetako inortxo ere ez litzatekeen salbatuko. Horrengatik, gamelu arrak, lasterka emeak baino motelagoak direnez, tiratzetik libratu [ere] egiten omen dituzte, biak batera ez bada ere;

emeek, bere aldetik, utzi zituzten umeak gogoratuz, ez omen diote baretasunari lekurik ematen. Beraz, persiarrek diotenez, indiarrek honela eskuratzen dute urrerik gehiena; gainerakoa, lurraldean hondeaturikoa izanik, urriagoa da.

106. Eta, Heladeri denetan eguraldi-girorik orekatsuenak suertatu zaizkion bezala, biziterriaren ertzekoei ondasunik ederrenak suertatu zaizkie. Izan ere, alde batetik, indiar lurra da biztanledunetan azkena egunsentirantz, lehenxeago esan dudana bezala; hemen bizidunak, nahiz lauhankakoak, nahiz hegodunak, beste lurraldeetan baino askoz handiagoak dira, zaldiak izan ezik (eta hauek mediarrek gainditzen dituzte, nesear zaldiak deritzatenek, hain zuzen); bestalde, hemen urrea neurrigabe dago, bai hondeaturikoa, bai ibaiak garraiaturikoa, eta bai, adierazi dudana bezala, harrapaturikoa ere. Eta bertan basazuhaitzek, fruitutzat, ilea ematen dute, fintasunez eta kalitatez ardiengandikoa gainditzen duena; eta indiarrek zuhaitz horietikako jantziez baliatzen dira.

107. Eta Arabia da eguerdirantz biziterrietan azkenekoa; lurralde guztietan hemen bakarrik sortzen da intsentsua, mirra, kasia, zinamomoa eta ledanoa. Hauek guztiak, mirra izan ezik, nekearen nekez lortzen dituzte arabiarrek. Intsentsua, estirakea erreaz biltzen dute, pheniziarrek heleniarrei esportatzen dietena hain zuzen; hori erreaz eskuratzen dute; izan ere, intsentsu-emaileok suge hegaldunek zaintzen dituzte, tamainuz txikiak, itxuraz nabarrak, asko dira kopuruz zuhaitz bakoitzaren inguruan, horiexek dira Egyptori

erasotzen diotenak. Beste ezerk ez ditu zuhaitzetatik aldentzen estirakearen keak baino.

108. Eta arabiarrek hau ere esaten dute: lur osoa beteko omen litzateke suge horietaz, baldin, nik dakidanez, sugeetan gertatzen den bezalako zerbait haien artean gertatuko ez balitz. Eta, nolabait, jainkoaren probidentzia²³⁷, bidezkoa ere baden bezala, jakintsua baita, bizieraz izuti eta jangarri direnak, hauek guztiak ume askokoak egin zituen, irentsiak izatean desager ez zitezen; alderantziz, basati eta kaltegarri direnak ume gutxikoak. Adibidez, erbia abere, hegazti eta gizaki orok ehizatzen baitu, horrengatik da hain ume askokoa; abere guztietan bakarra da, umeturik, berrumetzen dena: sabelean ume bat iletua dagoen bitartean, bestea ile gabe dago, bestea umetokian itxuratzen ari da eta bestea sortzen. Horrela da hori; lehoi emeak, ordea, txit indartsu eta ausarta delarik, bizitzan behin ume bakarra egiten du; erditzean, umearekin batera umetokia kanporatzen baitu. Eta hona hemen horren zergatia: lehoikumeak, amaren barruan dagoela mugitzen hasten denean, abere guztiek baino askoz atzapar zorrotzagoak dituenaz, umetokia urratzen du, eta handitzen doan neurrian are larriago doa zarrastatzen; eta, zinez, erditzean dagoenean hartatik ez da deus ere osorik geratzen.

109. Era berean, baita ere, sugedorriak eta arabiarren arteko suge hegaldunak, izaeraz dagokien bezala jaioko balira, gizakiak ez luke bizitzerik izango; baina, sugeak elkarrekin uztartuz saltokatzen direnean eta arra isurketaren une berean dagoenean, emeak, hura eiakulatzen ari dela, lepotik heldu eta, hari itsatsirik, ez dio uzten irentsi [bide] duen arte. Arra esandako era honetan hiltzen da;

emeak, bere aldetik, honelako zigorra ordaintzen du arrarengatik: umeek aita mendekatuz, oraindik sabelean daudenean, ama jaten dute, eta honen erraiak janaz egiten dute irtenbidea. Aitzitik, gainerako sugeek, giza galtzaile ez direlarik, arraultzak egiten dituzte eta ume-multzo handiak hausten du eskola. Horrela, sugeak ludi osoan daude; hegaldun direnak, aldiz, Arabian daude bildurik eta ez beste inon; horrengatik, asko direla ematen du.

110. Intsentsua, bada, horrela eskuratzen dute arabiarrek; kasia, berriz, era honetan: gorputz osoa eta aurpegia, begiak izan ezik, larru onduz eta bestelako larruz lotu dituztenean, kasiaren bila irteten dira; eta hori aintzira ez-sakonean hazten da, eta honen inguruko eta gaineko eguratsean saguzarren guztiz antzeko animalia hegaldunak bizi bide dira, eta garrasi beldurgarriak egiteaz gainera, indarrari indarrez erantzuten diote; hauek begietatik aldenduz igitaitu behar da kasia.

111. Zinamomoa, berriz, oraindik horiek baino era harrigarriagoan bildu ohi da. Zeren, ez dakite esaten non jaiotzen den eta zein lur den hori elikatzen duena, batzuek, itxurazko arrazoia erabiliz, Dionyso hazi zen inguruetan sortzen dela baizik. Hain zuzen, guk pheniziarrengandik ikasiz zinamomo deritzegun zotz horiek hegazitzar batzuek garraiatzen omen dituzte; eta, garraiatu ere, gizona inola ere iritsi ezin den harkaitz malkartsuei buztinez atxikirik dauden habiak osatzeko garraiatzen omen dituzte. Horiekiko, bada, hona zer azkarkeria erabiltzen duten arabiarrek: galtzen zaizkien idi, asto eta gainerako uztarpekoen gorpukiak ahalik eta puska handienetan zatitu eta alde horietara

eramaten omen dituzte, eta, habietatik hurbil jarri ondoren, berauetatik urruti aldentzen omen dira; eta hegaztiek, berehala beherantz hegatur, uztarpekoen gorpukiak habietara igotzen omen dituzte; eta hauek, zamari eutsi ezinik, hautsi eta lurrera erortzen omen dira eta orduan, besteez, hara joanez, zinemomoa biltzen omen dute; eta bildutakoa horrela iristen omen da lurralde horietatik besteetara.

112. Eta arabiarrek ladano deritzaten ledanoa, oraindik hori baino harrigarriago sortzen da. Izan ere, usain txarreneko lekuan sortu arren, guztiz usain onekoa da; zeren, sastraka-erretxin bezala, akerren bizarrei erantsia aurkitzen da. Eta ukendu askotarako da baliarragi; arabiarrek lurringai hori erretzen dute bereziki.

113. Bego horrenbestez lurringaiez esan dudana; arabiar lurraldetik esanezin ahalako usain atsegina entzuten da. Bestalde, hauek badituzte harrigarriak diren bi ardi-mota, beste inon aurkitzen ez direnak. Hauetako bata hiru beso baino gutxiago ez den isats luzea du; arrastatzen utziko balitzaie, isatsa lurraren kontra marruskatuz, arrastadak izango lituzkete; orain, artzain orok badaki, ordea, horrenbestearaino zurgintzan; bada, gurditxo batzuk eginez, isats pean lotzen dizkiete, abereotako bakoitzaren isatsa norberaren gurditxo gainean lotuz. Beste ardi-motak, aldiz, isats zabala darama, eta beso baterainoko zabalera du.

114. Eta eguerdiaren jaitsieratik eguzkiaren sartaldetara biziterrietan azkena den Ethiopia luzatzen da; honek urre asko,

elephante handiak, basazuhaitz oro, ebenoa eta gizon guztiz galant, eder eta biziluzeak ematen ditu.

115. Hauek dira, bada, azken lurak Asian eta Libyan. Europan sartaldeantx dauken azkenekoez, ordea, ezin naiz zehazki mintzatu; ez baitut onartzen ipar-haizerantzko itsasoan kanporatzen den eta anbarren jatorri omen den ibai bati barbaroek Eridano deitzen diotenik; are ez dakit eztaingaren jatorri izan bide ditugun Irla Kasiterideak badirenentz. Hain zuzen, Eridano izen honek berak barbaroa ez baina heleniarra dela adierazten du, poetaren batek sortua; horri buruz, bere begiz ikusi duen inorengandik ez dut entzun, saiatu naizen arren, Europaz haraindikoa itsaso denik. Dena den, eztaingua eta anbarra ludiaren ertzetik datozkigu.

116. Bestalde, garbi dago Europako iparraldean dagoela askoz urrerik gehiena. Nola lortzen den ezin dut zehazki esan, baina esan ohi da begibakarreko arimaspoek grypoei harrapatzen dietela; hala ere, ezin dut sinetsi begibakarreko gizonik izaten denik, gainerako izaera besteen berdina dutelarik. Dena den, badirudi gainerako lurraldea hesitu eta mugatzen duten azken eskualdeek dituztela, hain zuzen, ederren eta bitxientzat ditugun gauzak.

117. Eta bada Asian alde orotatik mendiz hesituriko lautada bat, eta, egon bost menditataka daude. Lautada hori garai batean khorasmiarrena zen, khorasmiar berauen, hyrkaniarren,

parthoen, sarangen eta thamaneen mugetan dagoelarik; boterea persiarrek dutenetik, ordea, erregearena da. Horrela, bada, mendi-hesi honetatik ibai handi bat isurtzen da, eta Azes du izen. Honek lehen, bost adarretan banaturik, aipaturiko lurralde horiek ureztatzen zituen, bakoitzari mendi-ataka banatatik bideratzen zitzaizolarik; persiarren pean daudenetik, ordea, honelako egoera jasaten dute: erregeak, mendi-atakak hormatuz, ataka bakoitzean konportak jarri zituen, eta, uraren irtenbidea itxia dagoelarik, mendarteko lautada itsaso bilakatzen da, ibaiak, inondiko irteerarik ez duenez, bertan uzten baititu urak. Beraz, lehen uraz baliatu ohi ziren horiek, baliatu ezinik, ezbehar handian aurkitzen dira. Izan ere, neguan jainkoak gainerako gizonei bezala euria egiten badie ere, udan artatxikia eta sesamoa ereiteko ur hori erabili ohi dute. Beraz, tantarik ematen ez zaienean, berauek eta beren emakumeek persiarrengana jo eta, erregearen ataurrean zutik, uluka oihu egiten dute; orduan erregeak, haietan beharrenean daudenei, hauenganako ur-konportak irekitzeko agintzen du; eta hauen lurra ura edateaz asetzen denean, konporta hauek itxi eta beharrenean dauden hurrengoei, beste atea irekitzeko agintzen du. Baina nik aditzez dakidanez, zergaz gainera, ordainsari handiak exigituz irekitzen ditu. Horrelaxe dira gauza horiek.

118. Eta magoaren aurka matxinatu ziren zazpi gizon [haietako] bati, Intaphrenesi, matxinadaren ondoren berehala hiltzea gertatu zitzaion, ausartzia hau izateagatik: jauregian sartu eta erregearekin ihardun nahi zuen; eta, hain zuzen, honela zetzan araua: magoaren aurka matxinatu zirenek mandataririk gabe ere bazutela errege-egoitzetarako sarbidea, non eta erregea emakumeren batekin harremanean suertatzen ez zen. Beraz, Intaphrenesek ez zuen beharrezkotzat jotzen mandataririk bidaltzea, aitzitik, zazpietakoa zenez, sartu egin nahi zuen; bestalde, atezainak eta berriemaileak ez zioten uzten, erregea emakume batekin harremanetan zegoela esanez. Intaphrenesek, ordea, gezurra ziotelakoan, hona zer egiten duen: bere zimitarra ateraz, belarriak eta sudurrak moztzen dizkie, eta, zaldiaren bridari korapilatu ondoren, brida haien lepoetan lotu eta alde egin zuen.

119. Eta hauek erregeari beren buruak erakutsi eta zergatik pairatu zuten esan zioten. Orduan Dariok, hori seiek adostasunez egin ote zuten beldurturik, banan-banan deitu eta, egintza onartzen zutenentz haien iritzia arakatu zuen. Eta ohartu zenean Intaphrenesek ez zuela haiekin elkarturik egin, bere ahaideekin azpijanean haren aurkako matxinada prestatzen ari zen uste osoarekin, Intaphrenes bera eta honen umeez gainera etxeko guztiak atxiki, eta, atxilotu ondoren, hiltzeko espetxeratu egin zituen. Intaphrenesen emaztea, bere aldetik, erregearen ateetara joan-etorriak eginez, negar-zotinka ziharduen; eta, behin eta berriz hori bera eginez, Dario kupitza lortu zuen, eta, mandataria bidaliz, hau esan zion: "Emakume, Dario erregeak, espetxeratuak dituzun etxekoetatik bat, denen artean nahien duzuna salbatzea ematen dizu". Eta honek pentsatu ondoren,

hau erantzun zion: "Erregeak baten bizia ematen badit, denen artean anaia aukeratzen dut". Dariok, hori jakin ondoren eta erantzunaz harriturik, mandataria bidali eta hau esan zion: "Emakume, erregeak zer gogapen izan duzun galdetzen dizu, umeak baino arrotzago eta senarra bezain begiko ez duzun anaiaren bizia aukeratu eta gizona eta umeak bertan behera uzteko". Eta hark honela erantzun zion: "Oi errege, beste senar bat sor lekidake, jainkoak nahi izanez gero, baita beste umeak ere, hauek galduz gero; aita eta ama jada bizi ez ditudalarik, ordea, beste anaiarik inola ere ez nezake izan²³⁸. Gogapen horrekin mintzatu naiz horrela". Emakumeak benetan ongi hitz egin zuela iruditzen zitzaion Dariori, eta, eskatu ziona ez ezik, hartaz atsegindurik, semeetan zaharrena ere aske utzi zion; gainerako guztiak, ordea, hilarazi egin zituen. Horrela, zazpietako bat, esan dudana bezala, berehala hil zen.

120. Eta Kambysezen gaixoardian gertatu zen, gutxi gora-behera, honako hau. Zyrok izendaturik, Oretes zen sardestarren eraentzaile. Honi ankerkeria bat egiteko irrika sortu zitzaion: Samoko Polykratesengandik ez deus jasan, ez deus lotsagabekeriarik entzun, ez eta bera aurrez ikusi ere ez zuen arren, hura hartu eta hiltzeko gogo bizia barneratu zitzaion, gehienek diotenez honelako arrazoi batengatik. Oretes eta Mitrobates izeneko beste persiar bat, Daszyleo herrialdeko buruzagi zena, erregearen ateetan zeudela, hitzetatik irainetara jausi omen ziren; eta, adoreaz eztabaidatzen ari zirelarik, Mitrobatesek Oretesi hau aurpegiratu omen zion: "Ai, zer-nolako gizona hi! heure herrialdea

ukitzen duen Samoko irla, hain eskuraerraza izanik bertako batek hamabost hoplitekin oldatuz bereganatu eta orain tyrano duena, erregearentzat irabazi ez duan hori!". Hain zuzen, batzuek diote, hori entzun eta irainaren minez, hori esan zuenaz mendekatzea baino gehiago irrikatzen zuela gaizki entzuteko bidea eman zion Polykrates zeharo galtzea.

121. Beste batzuek, berriz, gutxiago diren arren, Oretesek Samora mezulari bat igorri zuela diote gauzaren bat eskatzera (zer zen ez baita esaten) eta, halabeharrez, Polykrates gizategian²³⁹ etzana topatu zuela eta Teoko Anakreonte ere haren alboan zegoela. Eta agian hark, jakinaren gainean, Oretesen ekintzak gutxien zituelako egin zuen, edota agian hala suertatu zen; dena den, Oretesen mezularia etorri eta hitz egiten ari zen bitartean, Polykratesek (hormarantz begira suertatu baitzen) ez itzuli eta ez erantzun egin omen zion.

122. Bi eratako arrazoi horiek izan ziren, diotenez, Polykratesen heriozpide, eta biotatik norberak nahi duena sinets dezake. Beraz, Oretesek egoitza Meandro ibaiaren gainaldean kokatzen den Magnesian zuelarik, lydiar Myrso Gygesena bidali zuen Samora mezu batekin, bai baitzuen Polykratesen asmoaren berri. Izan ere, guk dakigunez, Polykrates da itsasoa menperatzea pentsatu zuen lehen heleniarra, knosoar Minos eta honen aurretik itsas jaun izan bide zen besteren bat kenduta; dena den, giza aro deiturikoan Polykrates izan zen lehena, joniarren eta irlen nagusi izateko itxaropen askorekin. Oretesek, bada, asmo horren berri bazekienez, mezu bat bidali zion honako hau esanez:

"Oretesek honela diotsa Polykratesi. Badakit egite handietan sartu nahi duzula eta ez duzula egitasmo horien arabera baliabiderik. Horrela izanik, zuk honako era honetan jokatzeko baduzu, zeure burua jasotzeaz gainera ni salbatuko nauzu; zeren, Kambyse erregea nire heriotzaren bila dabil eta hori garbi iragarri zait. Beraz, ni neu eta nire ondasunak hemendik atera ondoren, hauetatik har ezazu zeuk zati bat eta utz iezadazu bestea niri hartzen; ondasunengatik Helade osoaren agintea izango duzu. Eta nire ondasunei buruz sinesten ez badidazu, bidal ezazu fidagarrien duzuna eta nik erakutsiko dizkiot".

123. Poztu zen Polykrates hori entzutean eta baietsi egin zuen; eta ondasunen irrika handiz baitzegoen, lehendabizi Meandrio Meandriorena, bere idazkari zen hiritarretako bat bidaltzen du begiratzera; honek, gertakizun hauetatik ez hain denbora luzera, Polykratesen gizategiko edergailuak, ikusgarriak direlarik, Hereoan eskaini zituen. Oretesek, bere aldetik, begiralea etortzeaz zegoela jakin zuenean, hau egin zuen: zortzi kutxa, doi-doi ertzetaraino gabe, harriz beteaz, harri gainean urrea bota zuen eta, kutxak lotu ondoren, prest eduki zituen. Eta Meandriok, etorri eta begiratu ondoren, Polykratesi iragarri zion.

124. Hau orduan pertsonalki joateko prestatu zen, nahiz eta nola igarleek hala adiskideek behin eta berriz galarazteaz gainera, alabak ametsetan honelako ikuspenera ikusi: iruditzen zitzaion bere aita airean zintzilikaturik, Zeusek garbitu eta Eguzkiak gantzutu egiten zuela. Ikuspen hau ikusirik, edonolako ahaleginak egiten zituen Polykrates Oretesengana ez zedin, are, pentekontera igo zenean,

susmo txarrak adierazi zizkion. Hark, ordea, onik itzultzen bazen, luzaroan neskata jarraitu beharko zuela mehatxatu zuen; hala ere, honek mehatxu hori bete zekiola otoi egiten zuen, aitarik gabe geratu baino nahiago zuela eta luzaroago neskata jarraitu.

125. Alabaina, Polykrates, aholku guztiak gutxietsiz, Oretesenganantz itsasoratu zen, berekin batera beste lagun asko eramanez, hauen artean bereziki krotondar Demozedes Kaliphonterena, sendagile izateaz gainera kidekoen artean bere lanbidea guztiz trebeki erabiltzen zuena. Eta Polykratesek, Magnesiara iristean, heriotza zitala izan zuen, bere nortasunari eta nobleziari ez zegokiona; syrakusar tyranoak izan ezik, gainerako heleniar tyranoen artean bakar bat ere ez baitzaio Polykratesi alderagarri handitasunean. Deskribagarri ez den eran erail ondoren, Oretesek gurutzean zintzilikarazi zuen; eta samoar ziren haren jarraitzaile guztiei joaten utzi zien, aske izateagatik eskerrak emateko aginduz, eta haren jarraitzaileetan arrotz eta esklabo ziren guztiak gatibuen artean sartuz, beretzat hartu zituen. Eta Polykratesek, zintzilikaturik, alabaren ikuspen osoa egiaztatzen zuen; izan ere, Zeusek euria egiten zuenean, garbitu egiten zuen, eta Eguzkiak, haren gorputzetik hezetasuna ateratzean, gantzutu egiten zuen. Beraz, [Egyptoko erregeak aurrez iragarri zion bezala] era horretan bukatu zitzaizkion Polykratesi zorion guztiak.

126. Ez askoz geroago, ordea, Polykratesen jeinu mendekariak ekin zioten Oretesi ere. Zeren, Kambysezen heriotzaren eta magoen erregetzaren ondoren, Oretesek, Sardesen geratuz, ez zien batere laguntzen persiarrei, agintea mediarrek kendua zieten arren; alderantziz, izandako zalaparta horretan Daszyleoko buruzagi zen

Mitrobates, Polykratesekikoa aurpegiratu ziona hilarazi zuen, eta baita Mitrobatesen seme Kranaspes ere, persiarren artean ospetsuak biak; eta, beste edonolako ausarkerien artean hau ere egin zuen: Darioren albistaria etorri zitzaion batean, albistea ez baitzitzaion atsegin izan, itzulerakoan, zenbait gizon bide ertzean ezarriz, hil egin zuen eta hil ondoan desagerrarazi ere bai bere zaldi eta guzti.

127. Baina Dariok, agintearen jabe egin zenean, Oretesez mendekatzeko gogo bizia zuen egin zituen bidegabekeria guztiengatik eta, bereziki, Mitrobatesen eta honen semearenagatik. Hala ere, zuzenean haren aurka gudarostea bidaltzeari ez zeritzan ongi, oraindik arazoak nahasiak zeuden garaian, agintea berriki eskuratua zuenean eta Oretesek zuen indar handiaren berri izanik: mila lantzarik zaintzen zuen eta phrygiar, lydiar eta joniarrak herrialdeen jabe zen. Egoera horretan, hona zer bururatu zitzaion Dariori. Persiarretan ospetsuenei deituz honela mintzatu zitzaien: "Persiarrok, zuetako nork hitz eman liezadake honako hau trebetasunez egingo duela eta ez indarrez edota gizaldez? Zeren, trebetasuna behar denean, indarrak ez du zereginik. Beraz, zuetako nork ekar liezadake bizirik edota hil Oretes? Gaurdaino persiarrei inolako zerbitzurik egin ez ezik, gaitz handiak egin baitizkie. Batetik, gutako bi, Mitrobates eta honen semea desagerrarazi ditu, eta, bestetik, niregana deituz bidaltzen dizkiodanak hil egiten ditu, jasanezineko lotsagabekeria azalduz. Beraz, persiarrei gaitz handiagorik egin baino lehen, heriotzaren bidez geldiarazi behar dugu".

128. Hau eskatu zien Dariok eta hogeita hamar gizonek hitz eman zioten, norberak hori egin nahiz. Lehian zebiltzala,

Dariok geldiarazi zituen zotz egiteko aginduz; eta, zotz eginda gero, denen artetik Bageo Artontesena izan zen hautatua. Eta, hautatua izan zenean, hona zer egin zuen Bageok: gai askotaz hitz egiten zuten gutun asko idatzi ondoren, Darioren zigilua ezarri zien, eta jarraian hauekin Sardesa joan zen. Iritsi eta Oretesen aurrean jarri zenean, gutunak banan-banan askatzen zihoan heinean, errege-idazkariari ematen zizkion irakur zitzan (eraentzaile guztiek baitituzte errege-idazkariak); Bageok, lantzariek Oretesengandik aldentzea onartzen ote zuten ikusteko ematen zituen gutunak. Eta, gutunei eta are gehiago gutunetan esaten zenari begirune handia zietela ikusirik, bertan hitzok zituen beste gutun bat entregatu zuen: "Persiarrok, Dario erregeak debekatu egiten dizue Oretesen lantzari izatea". Hauek, hori entzutean, bertan behera utzi zizkioten lantzak. Eta Bageok, honela gutunaren esana egiten ikusi zituenean, une berean, fidaturik, idazki hau zuen azken gutuna luzatu zion idazkariari: "Dario erregeak Sardesko persiarrei Oretes hiltzeko agintzen die". Lantzariek hori entzun zuten orduko, zimitarrak atera eta bat-batean hil zuten. Beraz, Samoko Polykratesen jeinu mendekariak honela ekin zioten persiar Oretesi.

129. Eta Oretesen ondasunak ekarri eta Susara eraman zituztenetik luzaro gabe, Dariok, pizti ehizan zebilela, zalditik jauzi egitean, hanka bihurritzea gertatu zen; eta bihurritu ere larriki bihurritu bide zuen; orkatila atera baitzuen hanka-jokoetatik. Eta lehendik ere sendakuntzan gorenekoak ziruditen Egiptoarrak inguruan izateko

ohitura zuelarik, honelakoez baliatu zen. Baina hauek, hanka bihurtuz eta behartuz, kalte handiagoa egin zioten. Hain zuzen, zazpi egun eta zazpi gau, zuen eritasunagatik esna egon zen Dario; zortzigarren egunean, ordea, gaizki aurkitzen zelarik, norbaitek, jada lehenago krotondar Demozedesen trebetasunaren berri entzun zuenez, Dariori iragarri zion; eta honek ahalik lasterren bereganatzeko agindu zuen. Hura Oretesen gatibuen artean arras abandonatua topatu bide zutelarik, denen erdian girgiluak arrastaka zituela eta zarpailaz jantzirik eraman zuten.

130. Eta Dariok, aurrean jarri zitzaionean, sendakuntzaren berri bazekien galdetu zion; eta hark, bere burua agertzen bazuen betiko Heladetik urrun gera zitekeen beldurrez, ezetz erantzun zion. Dariok, ordea, garbi ikusi zuen maltzurrian trebea zela, eta ekarri zutenei, denen erdira zigorrak eta eztenak ekartzeko agindu zien. Orduan nabarmendu zen, bada, Demozedes, zehatz ez bazekien ere, sendagile batekin ibili zenez, lanbidearen ezagupen ahul bat bazuela aitortuz. Gero, Dario bere esku jarri zitzaion orduko, heleniar sendabideak erabiliz eta indarrezkoen ondoren lasaigarriak ezarriz, hark loa beregana zezan lortu zuen eta denbora gutxian, hanka jada inoiz ez zitzaiola taxutuko uste zuenean, onik jarri zen. Dariok, horren ondoren, urrezko bi girgilu pare oparitu zizkion; baina hark, sendatu zuelako, berariaz bikoizten al zion zoritxarra galdetu zion. Dariok, hitz honetaz gustaturik, bere emakumeengana bidaltzen du; eta eunukoek, eraman zutenean, emakumeei huraxe zela esan zien erregeari bizia itzuli ziona. Orduan, hauetako bakoitzak, kopa bat bere urre-kutxan barruratuz,

halako emari oparoa oparitu zion Demozedesi, non Sziton izeneko morroiak, atzetik joanez, kopetatik erortzen ziren staterak²⁴⁰ jaso eta urre-pila handia bildu zuen.

131. Bestalde, Demozedes hori, Krotondik joanez, honela jarri zen harremanetan Polykratesekin. Krotonen aiurri gaiztoko aitarekin bizi zen; jasan ezin zuenez, utzi, eta Eginara jo zuen. Eta, hemen jarri ondoren, lehenengo urtean gainerako sendagileak gainditu zituen tresna gabe egon arren eta lanbidearen inguruan ohi diren lanabes guztietatik deus ere eduki gabe. Bigarren urtean, eginarrek ofizialki talentu bat jartzen diote lansaritzat, ehun mina hirugarrenean athenastarrek eta bi talentu Polykratesek laugarrenean²⁴¹. Honela iritsi zen Samora, eta, gizon hau zela bide, krotondar sendagileek ez zuten ospe gutxien izan. [Hain zuzen ere, Helade zabalean²⁴² lehenak krotondar sendagileak eta bigarrenak zyrenetarrak zirela esaten zutenean gertatu baitzen hori; eta, garai horretan berean ere, argostarrak zirela entzun ohi zen heleniarretan lehenak musikan].

132. Orduan Demozedesez, Dario sendatu ondoren, etxe bikain bat zuen Susan, erregearen mahaikide bilakatu zen, eta, soilki Heladera itzultzeko eskubidea izan ezik, gainerako guztiak zituen. Eta, behin, Egiptoar sendagileak, lehenago erregea sendatzen zutenak, heleniar sendagile batek garaitu zituelako, hesolaratuak izan zorian baitzeuden, hauengatik erregeari erregu eginez, libratu egin zituen. Beste behin, elea igarle bat, Polykratesen jarraitzaile izan eta gatibuen artean arras baztertua zegoena libratu zuen. Demozedes erregearen aurrean guztiz itzal handiko norbait zen.

133. Eta gertakizun hauetatik denbora gutxira, honako beste hauek suertatu ziren. Zyroren alaba eta Darioren emazte

Atosari handitsu bat sortu zitzaion bularrean, eta, lehertu ondoren, gero eta aurrerago ari zitzaion jaten. Aski txikia zen bitartean, lotsaz gordeaz, inori ez zion esaten; baina, egoera larrian aurkitu zenean, Demozedesi deitu eta erakutsi egin zion. Honek, sendatuko zuela esan ondoren, zin eginarazi zion ordainetan eska zekiokeen hura ziur egingo ziola, deus lotsaizunezkorik ez ziola eskatuko gaineratuz.

134. Eta, horren ondoren, sendaketen bidez onik jarri zuenean, Atosak, Demozedesek irakatsirik, honelako hitzak zuzendu zizkion ohean Dariori: "Oi errege, horrenbesteko ahalmena duzularik, egonean zaude, persiarrei ez herririk ez indarrik gehitu gabe. Egoki da gizon gazte eta ondasun handien jabeak zerbait eginez bere burua ezagutaraztea, persiarrek ere zein gizonen pean dauden jakin dezaten. Gainera, bi arrazoiongatik axola zaizu hori egitea: persiarrek beren buruzagia gizon dela jakin dezaten, eta, gerran diharduten bitartean, astirik gabe, azpikeriatan ari ez dakizkizun. Izan ere, orain, adinez gazte zaren bitartean egin zenezake egintza handi bat; zeren, gorputza haztearekin izpiritua ere hazi egiten da, zahartzearekin zahartu eta ekimen orotarako ahuldu". Atosari, irakaspenez ikasitakotik jaulki zitzaizkion hitz horiek; Dariok, aldiz, honela erantzun zion: "Oi emakume, hain zuzen neronek egitea pentsatzen dudan guztia esan didazu. Bada, erabakia daukat kontinente honetatik beste kontinentera zubi bat egin eta szythiarren kontra gerraratzea. Eta denbora gutxi barru egintza horiek burutuak egongo dira". Atosak hau esaten dio: "Begira, bada; utz iezaiozu lehenik szythiarren aurka gerraratzeari; horiek, nahi dezakezunean, zeuretzat izango dituzu eta;

aitzitik, gerrara zakizkit Heladeren aurka. Izan ere, hauen berri aipuz jakin arren, neskame lakoniarrek, argostarrak, atikarrak eta korinthoarrak edukitzeko gogo bizian nago. Heladeko herrialde bakoitzaren erakusle eta gidari izateko, berriz, munduko gizonik egokiena daukazu: hanka sendatu zizun hura". "Emakume -erantzuten dio Dariok-, gu lehenik Heladeren aurka saiatzea iruditzen zaizunez gero, lehendabizi, miatzaile gisa, zuk diozun horrekin batera haiengana persiar batzuk bidaltzeari hobeki deritzat, galdetu eta ikusirik, haien gauza guztien berri banan-banan eman diezaguten; eta, jakin ondoren, haien kontra zuzenduko naiz".

135. Hori esan eta, egin ere, esanaz batera egin zuen. Bada, eguna argitu orduko, persiarretako hamabost gizon prestuei deitu eta Heladeko kostaldeak Demozedesi jarraituz zeharkatzeko agindu zien, eta Demozedesek ez ziezaiela ihes egin, aitzitik, ororen gainetik itzul ziezaiotela. Eta, hauei hori agindu zienean, hurrena Demozedesi berari dei eginez, persiarrak gidatu eta hauei Helade osoa erakutsi ondoren, berriz etortzeko eskatu zion; bestalde, eskuartean zituen ondasun guztiak hartuz aitari eta senideei oparitzat eramatera bultzatu zuen, ordainetan beste horrenbeste eta gehiago emango ziola esanez; eta, gainera, opariei orotariko ondasunez beteriko zamauntzi bat gehituko ziela esan zion, itsasoan lagun zekion. Nire ustez, Dariok benetan engainu-asmorik gabe eskaini zizkion gauza horiek; Demozedesek, ordea, proban ari zitzaion beldurrez, ematen zion guztia ez zion inola ere lasterka onartu, aitzitik, bere ondasunak bertan utziko zituela esan zion, itzultzean har zitzan; hala ere,

senideen oparitarako Dariok eskaintzen zion zamauntzia onartzen ziola esan zion. Eta Dariok, honi ere agindu horiek eman ondoren, itsasora bidean jartzen ditu.

136. Hauek, beren aldetik, Pheniziara eta Phenizian hain zuzen Sidon hirira jaitsiz, berehala triere bi hornitu zituzten, eta horiekin batera gaulo²⁴³ handi bat ere bai edotariko ondasunekin; eta guztia prest izan zutenean, Heladera nabigatu zuten, eta hemen lehorreratu zirenean, itsasertzak miatu eta erregistratu egin zituzten, bertako leku gehienak eta izendatuak aztertu ondoren, Italiako Tarentora iritsi ziren arte. Eta hemen tarentoarren errege Aristophilidesek, Demozedesenganako onginahiz, mediar untzien lemak askarazi zituen eta, bestetik, persiarrak berak, izan, zelatari omen zirelako, espetxeratu egin zituen. Eta, persiarrak neke horiek jasaten ari zirela, Demozedes Krotonera heltzen da; eta, jada, hau bere herrira heldu zenean, Aristophilidesek persiarrak askatu egin zituen eta untzietatik hartu zituenak itzuli egin zizkien.

137. Persiarrak orduan, handik itsasorantz eta Demozedesi segika, Krotonera etortzen dira, eta plazan zebilela, aurkitu eta eskuak ezarri zizkioten. Eta krotondarren artean batzuk, persiarrekiko arazoen beldurrez, haien esku uzteko prest zeuden; beste batzuek, ordea, beren esku hartu eta makilaka eraso zieten persiarrei, nahiz eta hauek arrazoi hauek argudiatu: "Krotondarrok, begira egiten ari zaretena: erregearen iheslari bilakatu den gizon bat ari zatzaizkigute kentzen. Nola utziko du besterik gabe Dario erregeak horren lotsagabeki iraindua izatea? Kendu egiten badiguzue, nola izango da zuen onerako egintza hori? Zein hiriren aurka gerraratuko gara honen aurka baino lehen? Zein saiatuko gara lehenik gatibu egiten?". Hitz horiek esan arren, ez zituzten krotondarrak

konbentzitu; alderantziz, Demozedes kendu eta honekin batera zeramaten gau loaz gabeturik, persiarrak berriro Asiarantz itsasoratu ziren, eta, Heladera iristean, jada ez ziren aurrerago deus jakiten saiatu, gidaririk gabe zeudenez. Itsasoratzera zihoazela, ordea, Demozedesez ez zien beste mandaturik eman: esan ziezaiotela, arren, Dariori Demozedesez Milonen alaba hartu zuela emaztetzat. Izan ere, Milon borrokalariaren izenak eragin handia zuen erregearengan. Eta, niri dirudidanez, honengatik saiatu zen Demozedes, dirutza handia xahutuz, ezkontza hori azkar egiten: haren herrian ere ospetsu zela Dariori garbi ager zekion.

138. Eta persiarrek, Krotondik itsasoan barruratu ondoren, beren untziekin Japygian jo zuten lurra eta, hemen esklabo zirelarik, Gilok, tarentoar atzerriratuak, askatu eta Dario erregearengana eramane zituen. Hau, bere aldetik, prest zegoen hari ordainetan nahi zuena emateko. Orduan Gilok, bere zoritxarra kontatu ondoren, Tarentora itzuli ahal izatea aukeratu zion; baina, harengatik Italiarantz untziteria handi bat itsasoratzen bazuen Helade asalda ez zezan, aski zela esan zion bere itzultzaile knidiarrak bakarrik izatea, tarentoarren adiskide zirenez hauen eskutik guztiz ziur itzuliko zela uste baitzuen. Dariok hitza eman eta bete egin zuen: mandatariak Knidora bidaliz, hemengoei Gilo Tarentora itzultzeko agindu zien. Baina, knidiarrek Dariori esana egin zioten arren, ez zituzten tarentoarrak esanera ekarri eta, bestalde, ezin zuten indarra erabili. Gauza horiek, bada, horrela gertatu ziren, eta horiek izan ziren Asiatik Heladera etorri ziren lehen persiarrak, eta horrelako arazoarengatik bilakatu ziren miaztaile.

139. Eta, gertakizun horien ondoren, Dario erregeak hiri heleniar eta barbaroen artean lehenik Samo hartzen du, honelako arrazoi batengatik hartu ere. Kambyzes Zyrorena Egyptoren

aurka gerraratu zenean, heleniar asko joan zen Egyptora, besteak beste, zenbait, itxurazkoa denez, merkataritzara, zenbait soldadutzara, eta beste zenbait lurraldearen beraren ikusle bezala ere bai; Sylosonte Eazesena ere horietakoa zen, Polykratesen anaia eta Samotik ihes egina zelarik. Sylosonte horri honelakoxe halabehar bat suertatu zitzaion. Mantu gorri-gorri bat hartu, jantzi eta Menphisko plazan zebilen. Dario, Kambysesen lantzari eta artean ospe handi gabekoa zena, hura ikusirik, mantuaren irrikaz geratu zen eta, hurbildurik, eroatera zihoakion. Sylosontek, ordea, Dario mantuaren irrika bizian ikustean, honela esan zion jainko-zoriz: "Nik ez dut hau inolako diruz saltzen, bai ordea bestela ematen, zeurea izatea ezinbestekoa bazaizu". Dariok, hitz hauek goretsiz, hartu egiten du jantzia.

140. Sylosonte mantua bere lelokeriagatik galdu zuelakoan zegoen. Baina, denbora joanik, Kambyses hil, zazpiek magoen aurka matxinatu, eta zazpiotatik erregetza Dariok eskuratu zuenean, hor non jakiten duen Sylosontek, behin batez Egypton jantzia eskatu eta berak eman egin zion gizon hari suertatu zitzaiola erregetza. Orduan Susara igoaz, errege-egoitzen ataurretan eseri eta Darioren ongile zela esan zuen. Atezainak, hori entzunik, Dariori iragartzen dio; eta honek, harri eta zur, "nor duk -esaten dio- zordun natzaion heleniar ongilea, agintearen jabe berriki naizelarik? Oraindik inor gutxi igo duk horietakorik guregana eta. esaterako ez diat heleniar inorekiko inolako zorrik. Hala ere, sarraraz ezak barrura, hori zeren asmoz dioen ikus dezadan". Atezainak sarrarazi zuen Sylosonte eta, erdiratu zenean, interpretariek nor zen

eta erregearen ongile zela esateko zer egin zuen galdetu zioten. Beraz, Sylosontek mantuari buruz gertaturiko guztia kontatu zuen eta bera zela oparitu zion hura. Dariok erantzuten dio: "Gizonetan eskuzabalen hori, zu zara niri, artean inolako botererik ez nuenean, opari egin zenidana; txikia bazen ere, zinez haren onginahia egun edonondik jaso nezakeen sari handi baten berdinekoa zen. Ordainetan, bada, neurtu ezin ahala urre eta zilar ematen dizut, Dario Hystaspesenari on egin izanaz inoiz damu ez zaitezen". Sylosontek esaten dio: "Niri ez iezadazu eman, errege, ez urrerik ez zilarrik; aitzitik, berreskuratu eta [eman iezadazu] Samo sorterrria, nire anaia Polykrates Oretesek erail ondoren gure morroietako batek daukana, emaidazu hura, inor hil edo esklabo egin gabe.

141. Dariok, hori entzunik, gudaroste bat bidali zuen eta, gudalburu, Otanes, zazpietakoa izan zena, Sylosontek eskatu zuen guztia betetzeko aginduz. Eta Otanesez, itsasora jaitsiz, prest jarri zuen gudarostea.

142. Eta Samoko boterea Meandrio Meandriorenak zeukan, hain zuzen, agintea Polykratesengandik ordezeko gisa jaso zuelarrik; gizonik zuzenena izan nahi zuen arren, ez zuen lortu. Bada, Polykratesen heriotza iragarri zitzaionean, hona zer egin zuen. Lehenengo, Zeus Eleutheriori²⁴⁴ aldare bat eraiki zion eta egun hiriaren kanpoaldean dagoen temenosa mugarritu zuen. Ondoren, hori egina zuenean, hiritar guztien batzarra bilduz, hau esan zien: "Nire gain itzuli da, zuek ere badakizueenez, Polykratesen zetroa eta ahalmen osoa, eta orain nik dut zuen agintari izateko abagune. Baina, hurkoari

egozten diodana ez dut nik neuk egingo; zeren, ez Polykrates zitzaidan atsegin bere berdinekoen jauntxo izatean, ez horrela jokatzeko duen beste inor. Hori horrela, Polykratesek bete zuen bere patua; nik, neure aldetik, agintea denon artean jarritz, isonomia aldarrikatzen dizuet. Hala ere, bidezkozat jotzen dut niretzat honenbeste ohore-eskubide izatea, hots, Polykratesen ondasunetatik sei talentu niretzat izatea; eta, horrez gainera, niretzat eta nire betiereko ondorengoentzat Zeus Eleutherioren apaizgoa hautatzen dut, neuk honi santutegi bat eraiki eta beraren izenean askatasuna ezarri dizuedalako. Eskaera horiek gaineratu zizkien samoarrei; hauetako batek, ordea, altxatuz, honela esan zion: "Aitzitik, inor ez haiz hi, bilau eta madarikatu hori, guri agintzeko; alderantziz, hobe duk esku artean erabili dituan ondasunez kontu ematen baduk".

143. Honela mintzatu zen hiritarren artean ospetsu zen Telesarkho izenekoa. Eta Meandriori, agintea uzten bazuen bere lekuan beste bat jarriko zela konprenituz, inola ere ez uztea bururatu zitzaion; aitzitik, akropolira itzuli zenean, ondasunen kontua ematera bailihoan, banan-banan deituz, atxilotu eta espetxeratu egin zituen. Eta handik denbora gutxi barru, espetxean zeudela, gaixotasunak harrapatu zuen Meandrio. Eta, hilko zen ustean, anaiak, Lykareto izenekoak, Samoko gobernakizunak errazago beregana zitzan, espetxeratu guztiak hiltzen ditu; zirudienez, aske izan nahi ez zutelako.

144. Beraz, persiarrak, Sylosonte itzuliz, Samora iritsi zirenean, inortxok ez zuen eskurik altxatu haien aurka, eta Meandrioren jarraitzaileek eta Meandriok berak ere irlatik ateratzeko

prest zeudela zioten hitzarmenaren pean. Eta Otanesez baldintza horiek onartu eta hitzarmena egin ondoren, maila goreneko persiarrek beren thronoak akropoli aurrean jarri eta eseri egin ziren.

145. Hain zuzen, Meandrio tyranoak bazuen Kharilao izeneko anaia bat, asalatu samarra; hau, berak egindako hutsegite batengatik ziegan zegoen preso; eta, orduan gertatzen ari zena entzun eta ziegatik burua ateraz persiarrak lasai eseririk ikusi zituen. Meandriok, entzutean, askatu eta beregana ekartzeko agindu zuen. Eta ekarri zuten bezain azkar, irainka eta gaitzespenka, persiarrei eraso ziezaien anaia konbentzitzen saiatu zen honela esanez: "Koldar alaena! Ni, heure anaia izanik eta espetxeragarri den bidegabekeriari egin ez dudanez arren, atxilotu eta ziegaren duin egin nauk, eta persiarrak, heu kanporatu eta etxe gabe uzten hautela ikusiagatik, ez haiz mendekatzera ausartzen, horren menperakorrak izanik? Alabaina, hi horiekin beldurturik bahago, emazkidak heure mertzenarioak eta neuk zigortuko dizkiat hona etortzeagatik. Eta heu irlatik ateratzeko prest nagok".

146. Hori esan zion Kharilaok; eta esana onartu egin zuen Meandriok, niri dirudidanez, ez bere indarrez erregea gaindituko zuela uste izaterainoko zoramenera iritsi zelako, Sylosontek hiria bere osoan nekerik gabe eskuratu behar bazuen hau ikusezinago izan zuelako baizik. Beraz, persiarrak hasarraraziz, samoar indarrak ahalik eta gehien ahuldu eta horrela haiei entregatzea nahi zuen, ziur baitzegoen persiarrak, gaitzik jasaten bazuten, samoarren aurka are gehiago suminduko zirela eta jakin ere bai baitzekien ziur irtengo

zela irlatik nahi zezakeen unean; akropolitik itsasora zeraman pasabide ezkutu bat egina zuen eta. Horrela, bada, Meandriok berak Samotik itsasora jo zuen; Kharilaok, berriz, mertzenario guztiak armatu ondoren, ateak zabaldu eta persiarren gain jaurti zituen, hauek, guztia adostua zegoelakoan, horrelakorik inola ere itxaro ez zutenean. Eta mertzenarioek, gainera jausiz, aulkitxoetan eraman ohi zituzten eta osperik handienekoak ziren persiar guztiak hil zituzten. Haiek hori zegiten bitartean, gainerako persiar gudarostea hauei laguntzera joan zitzaien eta mertzenarioak, estuturik, atzera akropolin barruraraziak izan ziren.

147. Bere aldetik, Otanese, persiarrek ondamen handia jasan zutela ikusiz, nahiz eta Dariok bidaltzerakoan eman zizkion aginduak, samoarrik ez hil eta ez esklabo egiteko eta irla Sylosonteri kalterik jasanarazi gabe emateko, nahiz eta agindu horiek gogoratzen zituen, ahaztu egin zituen; aitzitik, gudarosteari topa zezaketen oro, bai gizon eta bai ume hiltzeko ordena eman zion. Orduan, gudarosteko batzuek akropolia setiatu zuten, eta besteek aurrean jartzen zitzaien oro, nola santutegian hala santutegiz kanpora, hil egiten zuten.

148. Meandriok, berriz, Samotik ihesi, Lazedemonera jo zuen itsasoz; eta hona iritsi zenean, abiatzean berekin hartu zituen ondasunak igoaraziz, hona zer egin zuen: zilarrezko eta urrezko edalontziak aurrean jarri eta bere zerbitzariak garbitzen zituzten bitartean, berak, Spartako errege zen Kleomenes Anaxandridesenarekin hizpideratu bide zelarik, hau bere egoitzetara eraman zuen; eta Kleomenesek edalontziak ikusi zituen orduko, mirespenez txunditurik geratu zen; hark, orduan, errege egin zion nahi zezakeen beste eraman zezan. Meandriok bi eta hiru bider

ere errepikatu arren, Kleomenes gizonik zuzenena gertatzen da, ez baitzeritzan zuzen eskainitakoa hartzeari; aitzitik, gainerako hiritarrei eskaintzen bazien laguntza topatuko zuela konturaturik, ephoroengana joan eta Spartarentzat hobe zela esan zien samoar atzerritarra Peloponesotik aldentzea, bera edo beste spartarren bat gaizto izatera bultza ez zezan.

149. Persiarrek, beren aldetik, Samo sarekadaz garbitu ondoren, biztanlerik gabe entregatu zioten Sylosonteri. Alabaina, gerora Otones gudalburuak, ametsetakoa ikuspen baten ondorioz eta lotsaizunak harrapatu zizkion gaixotasun bat zela bide, kolonizatzen ere lagundu zuen.

150. Itsas gudarostea Samoren aurka zihoan garaian babylondarrak jaiki ziren, guztiz ongi prestatuak zeudelarik; zeren magoa agintzen jarri eta zazpiak matxinatu ziren bitarteko denboraldi guztian, are aztoramen aldian, setiaketarako prestatzen aritu ziren; eta hori ezkutuan egin bide zuten. Baina agerian jaiki zirenean, honelako bat egin zuten: amazkoak alde batera utziz, nork bere etxetik nahi zuen emakume bat, bakarra, hautatu eta gainerako guztiak bilduz ito egin zituzten; bakar hori, hain zuzen, bakoitzak jan-prestakuntzarako hautatzen zuen. Itotzen zituztenak, berriz, beren jana gasta ez ziezaieten itotzen zituzten.

151. Eta Dariok, honen berri jakin zuenean, bere indar guztiak bateratuz, haien aurka gerraratu zen, eta, Babylonera zuzenduz, setiatu egin zituen, nahiz eta hauek setiaketaren kezkarik ez zuten. Izan ere, babylondarrek, harresi gainetara igoz, iseka-keinuak egiten zizkieten Dariori eta honen gudarosteari, eta haietako batek hitz hauek esan zizkien: "Persiarrak! Zertarako zaudete hemen egonean? Aitzitik, zergatik ez duzue alde egiten? Mandoek umea egin dezaketenean, orduan eskuratuko gaituzue". Honela

mintzatu zen babylondar bat, mandok sekulan umerik egin ez zezakeelakoan.

152. Eta jada urte bat eta zazpi hilabete igaro zirenez, Dario jasan ezinik zegoen anartean gudaroste osoa Babylon hartzeko gauza izan ez zelako. Dena den, estratagema guztiak eta baliabide guztiak erabili zituen Dariok haien aurka; hala ere, ez zituen hartu ahal izan, zein eta, beste estratagemen artean, Zyrok haiek eskuratzeko erabili zuenaz baliatu zen; babylondarrak, ordea, guztiz erne baitzeuden, ez zen eskuratzeko gai izan.

153. Honela, hogeigarren hilabetea, Zopyro Megabyxorenari, hau magoa eraitsi zuten zazpi gizonetako bat baitzen, Megabyxo honen seme Zopyrori, bada, mirari hau gertatu zitzaion: bere jan-garraiatzaile ziren mandoetako batek umea egin zuen. Eta honen berri eman zitzaionean eta, sinestezinik, umea ikusi zuenean, ikusi zutenei gertaturikoa inori kontatzea galaraziz, deliberatzen hasi zen. Eta beroni, babylondarraren hitzetara itzuliz, honek hasieran esan baitzuen mandoek umea egin zezaketenean orduan izango zirela hartuak harresiak, Zopyrori, hain zuzen, esan horretara itzuliz, Babylon jada eskuragarri zela iruditu zitzaion, hark jainkoaren eraginez hitz egin eta mandoak berari umea egin ziolakoan.

154. Eta Babylon hartua izatea patuaren erabakitzat jotzen zuenez, Darioenganatuz, Babylon hartzea guztiz garrantzi handikotzat al zeukan galdetu zion. Eta asko estimatzen zuela jakitean, deliberatzen hasi zen berriro nola izango ote zen bera hiriaren hartzaile eta nola egintzaren jabe; persiarren artean egintza onak asko preziatzen baitira handitasunaren aurrekuntzarako. Horrela bada, ez zuen pentsatu beste inolako egintzaz hiria eskura zezakeenik, bere burua elbarritu eta haiengana desertatzen ez bazuen. Orduan,

gauza arintzat hartuaz, bere burua elbarritzen du sendaezineko elbarritasunaz: bere sudurra eta belarriak moztu, ilea lotsagarri ebaki eta bere burua zigortu ondoren, Darioren aurrera joan zen.

155. Eta Dariok gizon guztiz omentsua elbarriturik ikusi zuenean, haserre bizian hartu zuen, eta, bere thronotik saltatuz, deiadarka hasi zen eta elbarritzailea nor zen eta zergatik elbarritu zuen galdetu zion. Zopyrok hala esan zion: "Ez da gizonik, zu beste, ni honela jartzeko hainbat ahalmen duenik; atzerritar inork ere ez du, errege, hau egin, nik neuk neure buruari baizik, asyriarrek persiarrei iseka egitea ezduintzat hartzen dudalako". Dariok erantzun zion: "Gizonik zorigaiztokoan horrek, egintzarik lotsagarrienari izenik ederrena ezarri diok, heure burua sendaezineko eran setiatuengatik jarri duala esanez. Burugabea! Zergatik baina errendituko dituk lehenago etsaiak, heu elbarritua egonik? Nola ez hintzen, bada, heure senetik aterako, heure burua galduaz?". Eta Zopyrok esan zion: "Hain zuzen, egitera nindoana adierazi banizu, ez zenidan utziko; beraz, neure gain hartuz egin dut. Une honetan, bada, zuri dagokizunik falta ezean, eskutan dugu Babylon. Zeren, ahal dudan bezala harresi barrura desertatu eta zuk oinaze hauek nola jasanarazi dizkidazu esango diet; eta hori horrela dela sinestarazten badiet, uste dut gudaroste baten jabe izango naizela. Zuk, zeure aldetik, ni harresi barrura sar naitekeen unetik hamargarren egunera, zeure gudarostetik jar ezazu ordenan Semiramisenak deritzeten ateetan galtzea batere axolarik ez zaizun mila gizoneko talde bat; eta ondoren, hamargarrenetik zazpigarrenera²⁴⁵ jariezazkidazu beste bi mila Ninoarrenak²⁴⁶ deritzeten ateetan; eta zazpigarren egunetik utz itzazu

hogei egun igarotzen eta, ondoren, beste lau mila eramanez, ipin itzazu Khaldearrenak deritzeten ateetan. Ez lehenengoek eta ez hauek ez dezatela, ordea, defentsagailurik izan, aiztoak izan ezik; hori bai, utz iezaiezu hori edukitzen. Baina, hogeigarren eguna igaro eta berehala, agin iezaiozu gainerako gudarosteari alde guztietatik harresiari erasotzeko; baina persiarrak jar iezaizkidazu Belorenak eta Zisiakoak deritzeten ateetan; izan ere, uste dudanez, nik egitandiak egiten baditut, babylondarrek besteak beste, ategiltzak ere nire gain utziko dituzte; eta hemendik aurrera ni eta persiarrak arduratuko gara egin behar dena egiteaz".

156. Eginbide horiek eman ondoren, ateetara zuzendu zen, egiaz desertore balitz bezala behin eta berriz bihurtuz. Eta, dorreetatik ikusi zutenean, alde horretara jarririk zeudenek, lasterka jaitsi eta atearen atal bat zertxobait irekiz, nor zen eta zeren bila zetorren galdetu zioten. Honek Zopyro zela eta haiengana desertatzen zuela esan zien. Atezainek berehala, hori entzutean, babylondarren batzarrera eramanez; eta, honen aurrean jarriaz, kexuka hasi zen, bere buruari jasanarazi zizkionak Dariok jasanarazi zizkiola esanez, eta jasan ere, hiria hartzeko inolako biderik agertzen ez zenez, gudarostea erretira zezan aholkatu zuelako jasanarazi zizkiola. "Eta orain -jarraitu zuen esaten- hona hemen ni non etorri natzaizuen babylondarroi, zeuen mesede handienerako eta Darioren eta bere gudarostearen [eta persiarren] kalte handienerako; ni horrela elbarritu ondoren ez baita ordainik gabe geratuko; ongi ezagutzen ditut bere egitasmoen nondik norako guztiak". Horrelakoak esan zituen.

157. Babylondarrek, beren aldetik, persiarren artean guztiz omentsu zen gizon hura sudurra eta belarriak kendua eta zigorkadaz eta odolez orbandua ikusi zutenean, egia zioen eta aliatu gisa etorri

zitzaien uste osoan, eskatzen ziena emateko prest jarri ziren; eta, eskatu ere, gudaroste bat eskatu zien. Eta haiengandik hori lortu zuenean, Dariorekin hitzarturikoak hitzez hitz bete zituen. Bada, hamargarren egunean, babylondarren gudarostea atera eta, Dariori ordenan jartzeko eskatu zion lehen milak inguratuz, hil egin zituen. Eta, honek hitzak egintzekin uztartu zituela egiaztatzean, babylondarrak pozaren pozez agindu oro egiteko prest jarri zitzaizkion. Eta, erabakitako egunak pasatzen utzi ondoren, aukeraturiko babylondarrekin irteera berri bat egin zuen eta Darioren gudarietako bi milak hil zituen. Eta babylondar guztiek, egite hori ikustean, Zopyroren goraipamena zeukaten ahotan. Eta honek, berriz ere, erabakitako egunak igarotzen utziz, gudarostea aurrez izendatutako lekura atera eta, inguratu ondoren, lau mila hil zituen. Eta egite hori ere burutu zuenean, dena zen Zopyro babylondarrentzat, eta beren gudalburu eta harresizain izendatu zuten.

158. Baina Dariok, erabaki bezala, harresiari alde guztietatik eraso zionean, orduantxe utzi zuen argi Zopyrok bere iruzur guztia. Zeren, babylondarrek harresietara igo eta Darioren gudarostearen erasoari aurre egiten zioten bitartean, Zopyrok, Zisiakoak eta Belorenak zeritzeten ateak zabalduz, persiarrak harresi barrura sartu zituen. Eta hark egindakoa ikusi zuten babylondarrek Zeus-Beloren santutegira ihes egin zuten; ikusi ez zutenak, berriz, nor bere jarlekuan geratu ziren, horiek ere salduak izan zirela ulertu zuten arte.

159. Beraz, honela hartua izan zen Babylon bigarrenez. Eta Dariok, Babylon menperatu zuenean, batetik, hauen harresiak suntsitu eta ate guztiak ondotik aterarazi zituen (Zyrok lehenengo hartualdian ez baitzuen bietakorik egin); bestetik, Dariok

gizonetako hiruren bat mila buruzagi hesolaratu zituen, eta gainerako babylondarrei hiria eman zien bertan bizi zitezten. Eta hauek emakumeak izan zitzaizten eta ondorengoak sor zekizkien (bereak, hasieran azaldu dudan bezala, babylondarrek, janarekin zer gerta ere, ito egin baitzituzten), Dariok, aurreikuspenez, hona zer egin zuen: inguruko herriei Babylonerak emakumeak ekartzeko agindu zien, bakoitzari, batezbeste berrogeita hamar mila biltzeraino, zenbanako bat ezarri. Hain zuzen, emakumeetatik sortuak dira egungo babylondarrak.

160. Bestalde, Zopyrori dagokionez, persiarretako inork, ez lehengorik, ez oraingorik eta ez gerokorik, ez zuen, Darioren ustez, haren egintza ona gainditu, soilki Zyrok izan ezik; ez baita persiarretan bakar bat ere bere burua honi alderatzeko duintzat jo duenik. Eta Dariok, hain zuzen, askotan azaltzen omen zuen iritzi hau: zuenaz gainera hogeitababylon gehiago izatea baino nahiago zuela Zopyrok itxuragabekeria hura jasan ez izana. Preziatu, ordea, handiki preziatu zuen; izan ere, urtero, persiarrei preziatuen zitzaizkien emariak ematen zizkion, eta, bere bizialdirako Babylon zergarik gabe eraentzea ez ezik beste sari asko ere gaineratu zizkion. Eta Zopyro horrengandik sortzen da Megabyxo, Egypton athenastarren eta berauen gudukideen aurka gerraratu zena; eta Megabyxo honrengandik sortzen da Zopyro, Persiatik Athenasera desertatu zuena.

IV. LIBURUA

1. Babylon hartuta gero²⁴⁷, Dariok berak szythiarren²⁴⁸ aurka eginiko gerraratzea gertatu zen. Izan ere, Asiak gizonez loraturik egoteaz gainera dirutza handiak metatzen zituenenez, Dairiori szythiarrez mendekatzeko irrika sortu zitzaion, berauek izan baitziren lehenak Mediaren gain jausiz aurkariak guduan garaitu eta bidegabekeriari hasiera ematen. Bada, aurrerago esan dudan bezala, hogeita zortzi urtez agindu zuten szythiarrek Asia Garaian²⁴⁹. Gaineratu ere zimeriarrak jazartzean gaineratu zitzaizkion Asiari, mediarren agintea etenez; hauek agindu baitzuten Asian szythiarrak iritsi baino lehenago. Baina, szythiarrei, hogeita zortzi urte kanpoan bizi eta hainbat denboraren ondoren beren sorterrira abiatzean, ez zitzaien Mediakoa baino neke arinagoa bideratu; izan ere, txikia ez zen gudaroste bat topatu zuten beren aurka irtena; szythiarren emakumeek, beren senarrak luzaro kanpoan zituztelarik, esklaboekin izan baitzuten harremana.

2. Hain zuzen, szythiarrek, edaten duten esnea dela eta, esklabo guztiak itsutzen dituzte²⁵⁰ honelako egintza baten bidez: xirulen antz-antzekoak diren tutuak hartu eta behorren parteetan sartu ondoren, ahoekin putz egiten diete, eta, batzuek putz egiten dieten bitartean, besteek jetzi egiten dituzte. Eta hori arrazoi honengatik egiten dutela diote: behorren zainak haizatzean hazi eta errapea jaitsi egiten omen zaio. Eta, esnea jetzi ondoren, zurezko ontzi sakonetara

isuri eta, itsuek, ontzien arabera lerrokatuz, esnari eragiten diote, eta, gainean geratzen dena atera eta baliotsuagotzat jotzen dute; azpian geratzen dena, berriz, ez bestea bezainbat. Zerbitzu hauengatik itsutzen dute szythiarrek harrapatzen duten oro; ez baitira nekazari, nomada baino.

3. Beraz, szythiarren esklabo eta emakume hauengandik gazteen belaunaldi berri bat sortu zen gerora; hauek, beren jatorriaz jabetu zirenean, Mediatik zetozenen aurka irten ziren. Eta lehenbizi lurraldea moztu zuten, Tauroar mendietatik²⁵¹ hasi eta Meatide aintzira hedatsuen denera arte luzatzen zen lubaki zabal bat hondeatuz; eta, ondoren, haiengana jausten saiatzen ziren szythiarren aurrean jarri eta borrokari ekin zioten. Baina, behin eta berriz borrokatu eta szythiarrek abantailarik lortu ezin zutelarik, hauetako bat honela mintzatu zen: "Zertan ari gara, szythiarrok? Gure esklaboak borrokatzean, gu hiltzen bagaituzte, geu gertatzen gara gutxiago, eta haiek hiltzen baditugu, ondorenean gutxiagoengan aginduko dugu. Horrengatik, oraintxe bertan lantzak eta uztaiak bertan behera utzi eta gutako bakoitza zaldi-zigorrarekin haien bila joatearen iritzikoa naiz. Zeren, orain arte armekin ikusten gintuzten eta gure berdina eta jatorri berdinekoak zirela uste zuten; armen orde zigorrekin ikus gaitzatenean, ordea, gure esklabo direla ohartuz eta hori ezagutuz, ez dute aurre egingo".

4. Proposamen hori entzun ondoren, szythiarrek burutu egin zuten; besteei, berriz, gertatzen ari zenarekin zoraturik, borrokaz ahaztu eta ihes egin zuten. Horra nola agindu zuten szythiarrek Asian, eta atzera, mediarrek egotzirik, nola itzuli ziren beren

lurraldera. Horrengatik zuzendu zuen Dariok gudarostea haien aurka mendeku bila.

5. Eta, szythiarrek diotenez, hauena omen da herri guztietan berriena, eta sortu ere honela sortu omen zen: lur honetan jaio omen zen, eremu zela, Targitao zeritzan lehen gizona; eta esaten dute, niretzat sinestezina badiote ere hala esaten dute, Zeus eta Borysthenes ibaiaren alaba direla Targitao horren gurasoak. Hain zuzen, honelako jatorri bat omen zuen Targitaok, eta honengandik hiru ume sortu omen ziren: Lipoxais, Arpoxais eta, gazteena, Kolaxais. Hauen agintaldian, zerutik jaurtiriko urrezko tresna batzuk, goldea, uztarria, sagaria eta kopa²⁵² erori omen ziren Szythiara, eta, lehenengo ikusi zituen zaharrena izan zelarik, hurbildu omen zen eskuratu nahian, baina, gaineratzean, urrea goritu egin omen zen. Hau aldendu zenean gaineratu omen zen bigarrena, eta urreak berriro gauza bera egin omen zuen. Zinez, bada, urreak, goriturik, bi hauek baztertu egin omen zituen; baina, hirugarrenez, gazteenari, gaineratu zenean, itzali egin omen zitzaion; eta senide zaharrenek gertakizun horien aurrean erresuma osoa gazteenari ematea erabaki omen zuten.

6. Hain zuzen, Lipoxaisengandik sortuak omen dira jatorriz aukhatak deritzeten szythiarrak, Arpoxais erdikoarengandik katiaroak eta traspisak deritzetenak, eta senideetan gazteenetik erregeak, paralatak deritzetenak; guztiei, [erregearen goitizenez, skolotoak deitzen omen zaie; heleniarrek, ordea, szythiarrak deitu zieten. Szythiarrek, bada, berak horrela sortuak direla diote;

7. eta, esan ere, esaten dute, berak sortuak direnetik, hots, lehen errege Targitaorengandik hasi eta Darioren haienganatze arte, ez gehiago eta ez gutxiago, mila urte direla igarotako urte guztiak. Bestalde, beraien erregeek era berezian gordetzen dute urre sakratu hori eta urtero, erre-opari handiekin adiskidetzen dute. Eta baldin ospakizunean zehar urre sakratu hori bere esku duenak eguratsetan lo har badeza, horrek urte bete ez duela irauten esaten dute szythiarrek; horrengatik honi egun batean zaldiz berak ingura ditzakeen sail guztiak ematen omen zaizkio. Eta, lurraldea handia denez, Kolaxaisek erresuma hirukoitza ezarri omen zuen bere umeentzat eta erresuma hauetako bat, urrea gordetzen zuena egin omen zuen handien. Eta [esan, hala diote] lurralde honetaz haratago ipar-haizerantz bizi diren herriez goikoak jada ezin omen dira aurrerago ez ikusi ez zeharkatu barreiatu dauden lumengatik; zeren, nola lurra hala airea lumaz beterik omen dago eta hauek omen dira ikusmena zerratzen dutenak.

8. Horrela hitz egiten dute szythiarrek beren buruaz eta berenaz goitik dagoen lurraldeaz; honela, ordea, Ponton²⁵³ bizi diren heleniarrek. Herakles, Geryonesen behiei eraginez, orduan eremu zen eta egun szythiarrek sailkatzen duten lur honetara iritsi omen zen. Geryones, bere aldetik, Pontoz kanpora bizi omen zen, bere egoitza heleniarrek Erythia deritzaten irlan, Heraklesen Zutabeez haraindi Ozeano ertzean dagoen Gadeiras aldekoan zuelarik. Bestalde, Ozeanok eguzkiaren sortaldetik hasi eta lurbira osoa inguratzen duela esan ohi dute esan; egiaz, ordea, ez dute frogatu. Herakles hemendik egun szythiarra deituriko lurraldera iritsi zen orduko (neguak eta hotzak harrapatu baitzuten),

lehoi-larrua gaineratu eta lozorroan geratu omen zen, eta denbora horretan gurditik aske bazkatzen ari ziren behorrak desagertu egin omen zitzaizkion jainko-zoriz.

9. Eta Herakles, esnatzean, bila hasi omen zen, eta, lurraldeko bazter guztiak igaro ondoren, azkenean Hylea deritzan lurrera heldu omen zen; eta han, koba batean, erdineska zen izaerabiko herensuge²⁵⁴ bat topatu omen zuen, ipurmasailez gora emakume eta behera suge zena. Eta ikustean, harriturik, behor batzuk hara-hona begiztatu ote zituen galdetu omen zion; hark orduan berak zeuzkala eta berekin elkartzen ez zen bitartean ez zizkiola emango erantzun omen zion; eta Herakles ordainsari horren truke elkartu egin omen zen. Hark, hain zuzen, Heraklesekin ahalik eta denbora gehien egotearren, luzatu egiten omen zion behorren itzultzea, eta honek berreskuratu eta alde egin nahi omen zuen; baina azkenean hark, itzuliz, hau esan omen zion: "Hona etorri diren behor horiek nik gorde dizkizut eta zuk eman didazu ordaina; zugandik hiru ume baititut. Hauei buruz esan iezadazu zer egin behar den hazten direnean: bertan kokatuko ditudan (neuk baitut lur honen agintea) ala zure ondora bidaliko ditudan". Honek galdera hauek egin eta hark honela erantzun ziola diote: "Umeak gizonduak ikus ditzazunean, ez duzu huts egingo hau egiten baduzu: umeotako bat uztai hau honela teinkatzen eta gerriko hau era honetan janzten ikusi bide duzunean, egizu huraxe lur honetan bertako; aitzitik, agintzen ditudan lan hauek egin gabe uzten dituen, bidal ezazu lurraldetik. Eta, hori eginaz, pozik izango zara zerori eta agindutakoak egingo dituzu".

10. Heraklesek uztaietako bat teinkatu (ordurarte bi eramaten baitzituen) eta gerrikoarena erakutsi zionean, bai uztaiata eta bai lotune gorenean urrezko kopa zuen gerrikoa, biak eman omen zizkion, eta, eman ondoren, alde egin omen zuen; eta hark, izan zituen umeak gizondu zitzaizkionean, lehenik izenak ezarri omen zizkien, haietan batari Agathyrso, hurrengoari Gelono eta gazteenari Szytha; gero, mandatua gogoratuz, aginduak egin omen zituen. Eta, hain zuzen, umeetako bi, Agathyrso eta Gelono, aurkezturiko frogara iritsi ezin zirenez, amak egotzirik, lurraldetik irten omen ziren; baina, umeetan gazteenak gainditzean, lurraldean geratu omen zen. Eta Szytha Heraklesenarengandik datoz, agidanez, szythiarren artean izan diren aldian aldiko erregeak; bestalde, szythiarrek kopa hori dela bide daramatzate kopak gerritik zintzilik gaurdaino. Ama soilik Szytharen alde saiatu omen zen. Hori da Ponton bizi diren heleniarrek diotena.

11. Bada, ordea, neu gehien natxekion beste kontatera bat ere, honela dena: szythiarrek, Asian bizi ziren nomadek, masageten gerrak estuturik, Araxes ibaia igaro eta Zimeriako lurrera jo omen zuten (egun szythiarrek sailkatzen duten hori antzina zimeriarrena zela baitiote), eta, zimeriarrek, beren aldetik, szythiarrak gaineratzen zitzaizkielarik, erasoan zetorkien gudarostea handia zela eta, deliberatzen hasi omen ziren, eta, hain zuzen, beren iritziak erdibiturik geratu omen ziren, biak tinkoak, nahiz eta bikainena erregeena zen; bada, herriaren iritziak, egitekoa alde egitea zela proposatzen omen zuen eta askoren aurka ez zegoela arriskatu

beharrik; erregeenak, alderantziz, egitekoa lurraldearen defentsan erasotzaileen aurka borrokan egitea zela. Beraz, ez herriak nahi zuen erregeen esanera jarri eta ez erregeek herriarenera. Honek, lurraldea erasotzaileei entregatuz, borrokarik gabe alde egitea erabaki omen zuen; erregeei, berriz, zenbat gauza onez gozatu zuten eta aberritik ihes egiten bazuten ziur aski zenbat gauza txar berenganatuko zuten pentsatuz, herriarekin ihes egin baino hobeto iruditu omen zitzaaien hil eta beren lurraldean hilotzik egotea. Eta erabaki horiek hartu zituzten orduko, kopuru berdineko talde bitan aldebanaturik, bata bestearen aurka borrokatu omen ziren; eta elkarren aurka hil ziren guztiak zimeriar herriak Tyres ibaiertzean ehortzi omen zituen (eta berauen ehorzlekua ikusgai dago oraindik), eta ehortzi ondoren irten omen ziren lurraldetik, eta szythiarrek, gaineratu zirenean, eremu zen lurraldea hartu omen zuten.

12. Eta egun badira Szythian zimeriar harresiak, bada zimeriar itsasarte bat, bada Zimeria izeneko lurralde bat, eta bada Zimeriarra deritzan Bosporo²⁵⁵ bat ere. Eta argi dago zimeriarrek szythiarrengandik Asiara ihes egin eta egun Sinope²⁵⁶ heleniar hiria kokatzen den penintsula kolonizatu zutela. Argi dago, baita ere, szythiarrak haien atzetik abiatu eta, bidea erratuz, mediar lurraldera jauzi zirela. Izan ere, zimeriarrek etengabe itsasertzaren erara ihes egin zuten; szythiarrek, berriz, Kaukaso eskuinera zutela jazarri zituzten, lurbarrura desbideratuz Mediara jauzi ziren arte. Eta kontaktzen den beste kontakizun honetan bat datoz heleniarrak eta barbaroak.

13. Bestalde, Prokonesoko Aristeas Kaustrobiorenak poema epiko batean Pheboren argi-eraginez²⁵⁷ isedonengana heldu zela esan zuen, eta isedonez goitik arimaspoak, begibakarreko gizonak bizi zirela; hauez goitik, berriz, grypo urrezainak, eta hauen hurrena hyperboreoak, itsasoraino²⁵⁸ luzatuz. Eta, hain zuzen, hyperboreoak izan ezik, herri hauek guztiek, arimaspoengandik hasirik, etengabe erasotzen omen zieten auzotarrei; eta isedonak arimaspoek jaurti omen zituzten berauen lurraldetik; isedonek, berriz, szythiarrek; eta zimeriarrek, hegoaldeko itsasertzean²⁵⁹ bizi zirelarik, szythiarrek estuturik utzi omen zuten lurraldea. Horrela, hura ere ez dator bat szythiarrekin lurralde honi buruz.

14. Eta esana dut nongoa zen Aristeas, poema honen egilea; eta kontatzera noa honi buruz Prokoneson eta Zyzikon entzun nuen kontakizuna. Bada, Aristeas, hiritarretan inor baino jatorri apalagokoa ez zena, Prokoneson kardategi batera sartu eta hilik geratu zela diote; kardaria, orduan, lantegia itxi eta hildakoaren ahaideei berri ematera joan omen zen. Eta jada hirian barrena Aristeas hil zela barreiatu zenean, Artaze hiritik heldutako zyzikoar bat hizketan zihardutenei eztabaidan ekin omen zien, Zyzikora zetorrela berarekin suertatu eta hizketan etorri zela esanez. Eta honek eztabaidan tinko zirauen bitartean, hildakoaren ahaideak kardategian aurkeztu omen ziren eramangailuekin gorpua jasotzeko asmoz. Egoitza irekitzean, ordean, ez hilik eta ez bizirik agertu omen zen Aristeas. Baina zazpi urte geroago honek, Prokoneson azalduz, egun heleniarrek arimaspoak deritzeten poema horiek sortu omen zituen, eta, sortu ondoren, bigarrenez desagertu omen zen.

15. Hau esaten dute hiri horiek, eta nik, Prokoneso eta Metapontioko²⁶⁰ berriak alderatzean aurkitu dudanez, badakit Aristeezen bigarren desagerralditik berrehun eta berrogei urte geroagora Italiako metapontiarrei hau gertatu zitzaiela. Metapontiarrek diote, Aristeeas bera agertuz, lurraldean Apoloren aldare bat eraiki eta Prokonesoko Aristeezen izenarekin haren alboan irudi bat ipintzeko agindu ziela; zeren, Apolo italiarren²⁶¹ artean haiei bakarrik lurralderatu zitzaiela esan omen zien eta une hartan egun Aristeeas bera zenak lagundu ziola, orduan, jainkoari lagundu zionean, bele bazen ere. Eta hori esanik desagertu egin zela diote metapontiarrek, eta berauek, Delphosa mandatariak bidaliz, giza agerpen hura zer zen galdetu omen zioten jainkoari. Pythiak agerpenaren esana egiteko gomendatu omen zien, eta egiten bazuten on egingo ziela. Eta haiek, esana onartuz, bete egin omen zuten. Eta egun Apoloren imajinaren alboan Aristeezen izena duen irudi bat dago eta beraren inguruan erramuak daude zutik; imajina, berriz, agoran dago eraikia. Beraz, Aristeeasi buruzkoa bego horrenbestexean.

16. Bestalde, ekin diodan istorio honetan kontagai dudan lurraz goikoa²⁶² zer den inork ez daki zehazki; ni bederen ez naiz bere begiz ikusirik dakiela dioen inorengandik jabetu; zeren, ezta arestian aipatu dugun Aristeeasek ere, honek ere ez du esaten egin zituen poemetan isedonez gorago iritsi zenik,

aitzitik, haiez goikoez aditzeraz mintzatu zen, horien adierazle isedonak zirela esanez. Hala ere, geure aldetik aditzeraz urrutien lortu ahal izan dugun zehaztasun oro kontatua geratuko da.

17. Borysthenestarren emporiotik²⁶³ (hau baita Szythia osoko itsasertzean dagoen erdikoena), hemendik abiatuz lehenik kalipidak sailkatzen dira, szythiar heleniartuak direlarik, eta, hauez goitik alizondarrak deritzaten beste herri bat dago. Hauek eta kalipidek szythiarren era bereko lanbidea dute gainerakoan, baina garaia ereiten eta biltzen dute, eta baita tipula, baratxuria, dilista eta artatxikia ere. Eta alizondarrez goitik bizi dira szythiar goldelariak, garaia jateko ez baina saltzeko ereiten dutenak. Hauez goitik bizi dira, berriz, neuroak, eta neuroez ipar-haizealdera, guk dakigun bestez, eremu da gizonez. Herri horiek Borysthenesez sartaldera Hypanis ibaiaren luzeran daude.

18. Bestalde, Barysthenes igaroz gero, itsasotik lehenengoa Hylea da, eta hemendik gora joanez szythiar laborariak bizi dira, Hypanis ibaiertzean bizi direnek borysthenestar eta beren buruari olbiopolita²⁶⁴ deritzatenak. Beraz, szythiar laborari horiek ekialdera hiru eguneko bidean sailkatzen dira, Pantikapes izeneko ibairaino iritsiz; ipar-haizealdera, berriz, Borysthenes gora hamaika eguneko untzieldian; eta lurralde horiez goikoa luzaro eremu da. Eta eremuaren ondoren androphagoak²⁶⁵ bizi dira, herri berezi bat,

inola ere szythiarra ez dena. Eta hauez goitik jada benetan da eremu, eta, nik dakidan bestez, ez dago giza herririk.

19. Eta, Pantikates ibaia igaroz gero, szythiar laborari horiez ekialdekoan jada szythiar nomadak sailkatzen dira, deus ereiten eta lantzen ez dutelarik; eta lurralde hori guztia, Hylea izan ezik, soil dago zuhaitzez. Eta nomada horiek ekialdera hamalau eguneko bidean Gerro ibairaino luzatzen den lurraldean sailkatzen dira.

20. Eta Gerroz haraindi daude errege-herri²⁶⁶ deritzenak eta szythiar goren eta gehienak, gainerako szythiarrak beren morroitzat hartuz; eta horiek eguerdirantz Taurikaraino iristen dira; ekialderantz, berriz, itsuen semeek hondeatu zuten lubakiraino eta Kremnos deritzan Meatide aintzirako emporioraino; aldiz, horien beste sail batzuk Tanais ibairaino²⁶⁷ luzatzen dira. Eta ipar-haizerantz errege-szythiarrez goitikoan melankhlenoak²⁶⁸ bizi dira, szythiarra ez den beste herri bat. Eta melankhlenoez goitik aintzirak daude eta eremu da gizonez, guk dakigun bestez.

21. Eta Tanais ibaia igaroz gero, jada ez da Szythia, aitzitik, lehenengo saila sauromatena²⁶⁹ da; hauek Meatide aintziraren barrualdetik hasi eta iparraldera sailkatzen dira hamabost eguneko bidean, lurralde osoa nola basazuhaitzez hala landuez soil dagoelarik; eta hauengandik gora hurrengo sailean budinoak bizi dira, edotariko oihanez erabat estalitako lurrean banaturik.

22. Eta budinoez gora iparraldera lehenik eremu bat dago zazpi eguneko bidean, eta eremuaren ondoren, ekialde-haizerago okertuz, thysagetak sailkatzen dira, herri ugari eta berezi bat; bizi ere ehizatik bizi dira. Hauen segidan, leku beretan jyrka izenekoak daude bizitzen, berauek ere ehizatik bizi direlarik; eta hona nola: ehiztaria zuhaitzera igoaz, eta ugari da hau lurralde osoan barrena, zelatan jartzen dira; bestalde, ehiztari bakoitzak prest dauka zaldia, makurrazteagatik tripa gainean etzaten irakatsia, eta baita zakurra ere; eta hark, zuhaitzetik ehiza ikusten duenean, gezia jaurti, [eta] zaldira igo eta jazarri egiten du, eta zakurrak eutsi. Eta hauez goitik, ekialdera okertuz, beste szythiar batzuk bizi dira, errege-szythiarrengandik banandu eta lurralde horretara joanak.

23. Szythiar horien herrialderaino, hain zuzen, aipatu dugun lur osoa laua eta mardula da; harritsu eta malkartsua, ordea, hortik aurrera. Baina, lur malkartsu honen alde handi bat zeharkatuz gero, mendi garaien pean²⁷⁰, guztiak, bai har eta bai eme, jaiotzez burusoil direla dioten gizakiak bizi dira, sudurmotz eta kokotsluzeak, mintzo berezi bat ahoskatzen dutenak, szythiarren jazkera darabiltenak eta zuhaitzetatik bizi direnak. Beren bizi-iturri duten zuhaitz honek pontokoa du izen, eta handiz gehienbat bikondoaren adinakoa da; bestalde, babaren antzeko fruitua ematen du eta hezurra du. Eta hori heltzera iristen denean, ehunetan barrena zanpatuz iragazi, eta bertatik zuku beltz eta lodi bat isurtzen da; askhy du izena; eta hori miaztu eta esnearekin nahastuz edan ere egiten dute, eta hondoko lodiarekin

pasta batzuk osatu eta hauekin mantentzen dira. Izan ere, ez dute ganadu askorik; bertan ez baita larre onik. Bakoitza zuhaitz baten pean bizi da, neguan, atergarri, zuhaitza feldro zuriz inguratuz eta udan feldrorik gabe. Gizakirik ez da kalte egiten dienik (sokratutzat baitauzkate), eta gerrazko armarik ere ez dute. Eta berak dira auzotarren arteko desadostasunak konpontzen dituztenak, eta, bestetik, haien babesera ihesi datorkeenari inork ez dio kalterik egiten. Argipeoak dute izena.

24. Burusoil horiengana arte, bada, lurraldearen eta aurreko herrien ezaupidea handia da; zeren, bada zenbait szythiar horiengana heltzen denik, berauengandik jakiten zail ez delarik, eta baita Borysthenes emporioko eta beste pontoar emporiotako zenbait heleniar ere. Eta haiengana daitezkeen szythiarrek zazpi interpretarien eta zazpi hizkuntzen bidez egiten dituzte salerosketak.

25. Beraz, hauengana arte ezaguna da; burusoilez goikoaz, ordea, inork ez daki zehatz hitz egiten; mendi garai iragangaitzek eteten baitute bidea eta inork ez ditu gainditzen. Hala ere, burusoil horiek, niretzat sinestezina badiote ere, mendietan ahuntz-hankadun gizonak bizi direla esaten dute, eta, hauek igarotzean, sei hilabetez lo egiten duten beste gizon batzuk daudela; eta hau bai ezin dudala inola ere onartu. Aitzitik, zehazki ezaguna da burusoil hauez ekialdera isedonak bizi direna; baina, ipar-haizeranz, bai burusoilez eta bai isedonez goitikoa, hauek diotenaz beste, ezezaguna da.

26. Eta isedonek honelako ohiturak erabiltzen omen dituzte. Gizon bati aita hiltzean, ahaide guztiek ganaduak eramaten dizkiote, eta, hil eta haragiak zatitu ondoren, hartzailearen aita zendua ere zatitu egiten dute, eta, haragi guztia nahastuz, janaritzat aurkezten dute. Eta zenduaren burua soildu eta garbitu ondoren urreztatu egiten dute, eta aurrerantzean imajina bezala erabiltzen dute urtero opalkuntza handiak burutuz. Eta hori, heleniarrek urteurrenak ohi dituzten eran egiten dio semek gurasori. Bestalde, zuzenak omen dira hauek eta emakumeak era berdinean gizonen eskubide berekoak.

27. Ezagunak dira, bada, hauek ere; horiez goikoaz, ordea, isedonak dira gizon begibakarrak eta grypo urrezainak daudela diotenak; eta szythiarrek horiengandik jaso dutena kontatzen dute; eta gainerakook szythiarrengandiko iritzia dugu, eta haiei szythieraz arimaspoak deritzegu; szythiarrek arima deitzen baitiote "bata"-ri eta spou "begia"-ri.

28. Aipatu dugun lurralde oso hori hain giro txarrekoa da benetan, non urteko zortzi hilabeteen jasan ezinekoa gertatzen den hotza; hil horietan ura isurtzen baduzu, ez duzu lohirik egingo; alderantziz, sua piztuz gero egingo duzu lohia; itsasoa, berriz, izoztu egiten da, baita Zimeriar Bosporo osoa ere; eta lubakiz barrendik bizi diren szythiarrak izotzaren gainean gerraratzen dira, eta gurdiak itsasoz bestaldera gidatzen dituzte sindikarren aurka. Beraz, zortzi hilabete iraute du neguak; hala ere, gainerako lau hilabeteetan hotz egiten du bertan. Eta negu horrek bere izaeran badu beste lurralde guztietan izan ohi diren neguekiko berezitasunik:

bere sasoian ez du esatea merezi duen euririk egiten, baina udan ez du atertzen. Beste lurraldeetan trumoiak sortzen direnean, hemen ez dira sortzen; udan, ordea, handiak izan ohi dira; baina, neguan trumoi egin badeza, mirari bat bailitzan [hartuz], harritu egiten dira; eta, nola udan hala neguan, lurrikararik sor badadi, Szythian miraritzat daukate. Zaldiek, beren aldetik, eramankortasunez jasaten dute negu hori; mandoek eta astoek, ordea, inola ere ezin dute jasan; alderantziz, beste lurraldeetan zaldiak, hotzean zutik, pasmatu egiten dira; astoek eta mandoek, aldiz, jasan egiten dute.

29. Iruditzen zait idi-kasta adarmotzari horrengatik ez zaizkiola hazten adarrak Szythian; eta nire iritziaren lekuko da Odysean dagoen Homeroren bertso hau²⁷¹:

"eta Libya²⁷², non berehala arkumeak adardun diren".

Ongi esana; lurralde beroetan azkar sortzen dira adarrak; hotz gogorrekoetan, ordea, inola ez da adarrik jaiotzen edota jaiotzen badira nekez dira hazten.

30. Gauza horiek, bada, hotzak eragiten ditu han; eta harritzen naiz (hasieratik nire kontakizun hau eranskin bila dabilenez) nola elear lurralde²⁷³ osoan ezin den mandorik sortu lurraldea hotza ez delarik eta beste inolako arrazoi nabaririk ere ez dagoelarik. Hain zuzen, elearrek berek madarikazioren batengatik ez zaiela mandorik sortzen esaten dute. Dena den, behorak umetzeko sasoia heltzean, hauek auzoko herrietara eramaten dituzte eta astarrak auzoan gaineratzen zaizkie behorrei, umetzen diren arte; eta, ondoren, ekarri egiten dituzte atzera.

31. Eta lumei buruz, zeinez szythiarrek aire guztia lumaz betea dagoela eta, hauengatik ezin dela kontinentearen barrualdea ez ikusi eta ez zeharkatu esaten duten, horiei buruz

honako iritzi hau dut: lurralde horrez goitik elurra ari du beti, nahiz eta, itxurazkoa den bezala, neguan baino gutxiagotan ari udan. Beraz, elurra mardul erortzen ikusi duenak antzeman dio jada esaten ari naizenari; elur-malutek lumak baitirudite; eta negu hori horrelakoa delako da, hain zuzen, biziezina kontinente horren iparraldea. Szythiarrek eta hauen auzokoek, bada, elur-malutak lumekin irudikatuz hitz egiten dutelakoan nago. Beraz, esana dago urrutikoenez esan ohi dena.

32. Bestalde, hyperboreoei²⁷⁴ buruz ez szythiarrek eta ez lur horretan bizi diren besteek ez dute deus esaten, agian isedonak izan ezik. Baina, nire ustez, hauek ere ez diote ezer; szythiarrak ere mintzatuko bailirateke begibakarrekoez mintzaten diren eran. Aitzitik, Hesiodok bai hitz egiten du hyperboreoez, eta baita Homerok ere Epigonoetan, poema horiek egiaz Homerok egin bazituen bederen.

33. Baina haietaz askoz berririk gehiena ematen dutenak deloarrak dira, honako hau diotelarik: hyperboreotatik ekarririk, gari-lastotan bilduriko opari sakratuak szythiarrengana iristen omen dira, eta, jada szythiarrengandik, auzo guztiek eta bakoitzak hurrenez hurren jasoaz, sartalderantz guztiz urruti, Adriaseraino eramaten omen dituzte; eta, hemendik hegoalderantz igoririk, dodonarrak omen dira heleniarretan lehenengo jasotzen dituztenak; eta hauengandik Melideko golkora jaitsi eta Eubeara igarotzen omen dira, eta hiriz hiri Karystoraino bidaltzen omen dituzte; eta, hemendik abiatuz, saihestu egiten omen dute Andro; zeren, karystoarrak omen dira Tenora eta tenoarrak Delora daramatzatenak. Beraz, opari sakratuak horrela iristen direla esaten dute Delora. Alabaina, hyperboreoek lehenenengo aldian, deloarrak Hyperokhe eta Laodize deritzeten neskatxa bi bidali omen zituzten opariekin;

eta berauekin batera, segurtasunarengatik, hyperboreoek hiritarretako bost, egun perpheresak deritzetenak eta Delon handiki ohoratzen dituztenak igorri omen zituzten bidezain. Baina, bidaliak izan zirenak hyperboreoei itzultzen ez zitzaizkienez, beraiek etengabe bidali eta berreskuratu gabe geratu beharraz gogaiturik, auzoei, gari-lastotan bilduriko opariak mugetaraino eramanez, arren berengandik beste herrira bidal zitzatela eskatu omen zieten. Eta honela igorritz iristen direla diote Delora. Nik neure aldetik badakit opari horien antzekoa den honako hau egin ohi dela, hots, thraziar eta peoniar emakumeek, Artemis Erreginari opari egiterakoan, ez diotela gari-lastorik gabe egiten.

34. Eta jakin badakit horiek horrela egiten dutela; bestalde, hyperboreoetatik etorri eta Delon hil ziren neskak horien omenez deloar neska-mutilek burua soiltzen dute; neskek ezkonaurretik kizkur bat moztu eta ardatzean kiribildurik haien hilobi gainean jartzen dute (eta hilobia Artemisioko sarreran ezkerrera dago eta honen gainean olibondo bat hazi da); mutilek, berriz, deloarren artean diren bezainbatek, ile batzuk belar hezearen inguruan bildu eta berauek ere hilobi gainean jartzen dituzte. Hori da neskak haiek Deloko biztanleengandik jasotzen duten ohorea.

35. Beraiek Hyperokhe eta Laodize baino oraindik lehenago etorri zirela diote Delora, herri berak igaroz, Arge eta Opis ere, birjina hyperboreoak zirelarik. Hain zuzen, haiek, hyperboreoek Ilithyari²⁷⁵ umegite azkarrarengatik agindutako ordainsaria eramanez

heldu omen ziren; Arge eta Opis, ordea, jainko berberekin batera etorri zirela diote, eta beraiek beste ohore batzuk eskaintzen omen dizkiete; horrela, emakumeek, lyziar Olenek egin zien abestian birjinen izenak goraipatuz, hauentzat eskea egiten dute, eta, bai irlarrek eta bai joniarrak horiengandik ikasirik abesten omen diote Opisi eta Argeri, izenak aipatuz eta eskea eginez (bestalde, delako Olen horrek konposatu zituen, Lyziatik etorririk, Delon abesten diren beste abesti zaharrak); halaber, aldare gainean izterrak erre-oparitzean, horren hautsa Opis eta Argeren hilobi gainera jaurtitzen erabiltzen omen da. Horien hilobia Artemisioaren atzean sortalderantz begira dago, zeotarren jategitik guztiz hurbil.

36. Eta aski bedi Hyperboreoez esanikoa; ez bainoa kontatzera hyperboreoa omen zen Abarisi buruzko istorioa, nola deus jan gabe lurbira osoan barrena gezia eramanez [esanez]. Bestalde, baldin hyperboreoak diren gizon batzuk badira, hypernotioak²⁷⁶ diren beste batzuk ere badira. Dena den, barre egiten dut ikusiz dagoeneko asko direla lurraren inguruak marraztu dituztenak eta inork ez dituela zentzuz deskribatu. Hauek Ozeano lurraren ingurubiran doala marrazten dute, konpasezkoa bailitzan, zirkularra; eta Asia Europaren berdinekoa egiten dute. Hitz gutxitan azalduko dut, bada, hauetako bakoitzaren handia eta baita deskribapenerako nor nolakoa den ere.

37. Erythre deritzan hego-itsasoraino iritsiz persiarrak bizi dira; huez goitik, berriz, iparhaize aldera mediarrek bizi dira, mediarrez goitik saspireak, eta saspireez goitik kolkhoak bizi

dira, Phasis ibaia itsasoratzen den ipar-itsasoraino²⁷⁷ iristen direlarik. Itsasotik itsasora lau herri horiek bizi dira

38. Eta, handik sartalderantz, deskribatuko ditudan penintsula bi luzatzen dira itsasoan barrena²⁷⁸. Bata, iparralderantz Phasis ibaitik hasten dena, Ponto eta Helespontoren ertzean Troadeko Sigeoraino luzatzen da itsasoan; eta penintsula hori bera hegoaldeetik Pheniziarantz dagoen Myriandoko golkotik Triopioko muturreraino luzatzen da itsasoan. Eta penintsula horretan hogeita hamar herri bizi dira.

39. Horixe da, beraz, penintsula bietako bata. Bestea, berriz, persiarrengandik hasiz Erythre itsasoraino hedatzen da, Persia, honen ondoren Asyria eta Asyriaren ondoren Arabia hartuz; eta amaitu, ohiko esatez baizik amaitzen ez bada ere, Arabiar golkoan amaitzen da, zeinetara Dariok Nilotik kanal bat bideratu zuen. Beraz, Persiatik Pheniziaraino lurralde zabal eta handi bat dago, eta penintsula hori Pheniziatik itsaso honetan barrena²⁷⁹ Syria Palestina eta Egyptoren alboan hedatzen da, hemen bukatuz. Penintsula honetan hiru herri baizik ez daude.

40. Hauek dira persiarrengandik Asiako sartalderantz dauden zatiak; bestetik, persiarrez, mediarrez, saspirearrez eta kolkhoez haraindi ekialdera eta sortaldera daudenei dagokienez, alde horretatik Erithre itsasoa hedatzen da; iparraldera, berriz, Kaspiar itsasoa eta Araxes ibaia, sortaldera isuriz. Asia egoitzatua dago Indiaraino;

hemendik ekialderakoa, ordea, jada eremu da eta inor ez da zer den esateko gai.

41. Honelakoa eta horrenbestekoa da Asia; Libya, berriz, bigarren penintsulan dago; Egyptoren jarraian baitator Libya. Hori bai, Egypto aldeko penintsula hau meharra da; izan ere, hemengo gure itsasotik²⁸⁰ Erythre itsasora hamar mila besaldi dago, eta hauek mila stadio lirateke²⁸¹; baina, zati mehar honen ondoren guztiz zabala suertatzen da Lidya deritzan penintsula.

42. Beraz, harriturik nago "Libya, Asia eta Europa" mugatu eta sailkatu dutenez; ez baita txikia berauen arteko desberdintasuna; bada, luzez, Europa beste bien pare hedatzen da; zabalez, berriz, ez dut uste besteekin alderagarri denik. Izan ere, Libya urez inguratua agertzen da, Asia aldeko mugetan izan ezik; Neko, Egyptoko erregea izan zen guk dakigunetan lehena hori frogatzen; honek Nilotik Arabiar golkora iristen zen kanala hondeatzeari utzi eta pheniziar batzuk igorri zituen itsasuntzietan, itzuleran Heraklesen Zutabeetatik barrena ipar-itsasoraino nabigatu eta modu horretan Egyptora itzultzeko aginduz. Beraz, pheniziarrek Erythre itsasotik abiatuz, hego-itsasora nabigatu zuten; eta, udazken amaiera heltzen zelarik, nabigatuz aldi bakoitzean egokitzen ziren Libyako lurrean lehorreratuz, hazia erein eta uztaren zain egoten ziren; eta, garia bildu bide zutenean, itsasoratu egiten ziren; hala ezen, urte bi igaro ondoren, hirugarrenean, Heraklesen Zutabeetan okertuz, Egyptora itzuli ziren²⁸². Eta, -beste batentzat sinesgarri bada ere,

niretzat ez dena- Libya inguratzean eguzkia eskuinaldean izan zutela esan zuten.

43. Horra nola ezagutua izan zen lurralde hori lehenengo aldiz, eta ondoren karkhedondarrak dira baieztatzen dutenak, Sataspes Teaspisena, akhemenestarra, helburu berarekin bidalia izan zen arren, ez baitzuen Libya itsasoz inguratu, alderantziz, itsasaldiaren luzeraz eta bakardadeaz beldurturik atzera egin baitzuen amak agindu zion neke-lana burutu gabe. Izan ere, Zopyro Megabixorenaren alaba, birjina zelarik, bortxatu egin zuen; arrazoi honengatik Xerxes²⁸³ erregearen aginduz hesolaratua izatear zegoela, Sataspesen amak, Darioren arreba izanik, otoi egin zion, hark baino zigor handiagoa ezarriko ziola berak esanez; bada, Libya itsasoz inguratzen ari beharko zuela, hau inguratuz arabiar Golkora iristen zen arte. Eta, Xerxesek proposamen horri leku emanik, Sataspes, Egyptora joan eta hemengoengandik untzia eta untzigizonak hartu ondoren, Heraklesen Zutabeetarantz itsasoratu zen; eta, Solunte izena duen Libyako lurmuturra ontziz igaro eta okertuz, eguerdirantz nabigatu zuen, eta hilabete askoan itsaso asko zeharkatu zuen arren beti ere gehiago falta baitzen, bira egin eta atzera ontziz Egyptora jo zuen. Eta hemendik Xerxes erregearengana joan eta, hitz eginez, lekuri urrutienekoan palma-jantzia erabiltzen zuten gizontto batzuen itsas inguruan ibili zela esan zion; haiek untziaekin lehorreratzeko zirenean, hauek beren hiriak utzi eta mendietara ihes egiten zutela; eta beraiek barruratzeko ez zieten ezeren kalterik egiten, ganaduren bat hartzea izan ezik. Bestalde, Libya erabat ez inguratu izanaren zioa honako hau zela esan zion:

untziak jada ezin zuela aurrera egin, aitzitik, geldi geratu zitzaieiela²⁸⁴. Xerxesek, ordea, ez zuela egirik esaten ezagutuz, jarri zitzaion lana burutu ez zuelako, hesolararazi egin zuen lehengo zigorra ezarri. Eta Sataspes honen eunukoak, nagusia hil zela jakin zuen orduko, ondasun handiekin Samora ihes egin zuen; ondasun hauek samoar batek eskuratu zituen; honen izena badakidan arren, nahita gorde egiten dut.

44. Baina Asiako alde gehienak Dariok aurkitu zituen; honek, Indo ibaia, ibai guztien artean krokodiloak dituzten bietako bata izanik, ibai hori non itsasoratzen zen jakin nahiz, egia esango ziotela uste zuen beste batzuekin batera Karyandako Szylax bidaltzen du itsasuntzietan. Eta hauek Kaspatyro hiritik eta Paktykako lurraldetik abiatu, ibai beheara eguzki-sortaldera joaz, itsasoraino jaitsi ziren; eta itsasoan barrena mendebaldera nabigatuz, hogeita hamargarren hilean, lehen aipatu ditudan pheniziarrek egyptoar erregearen aginduz Libya inguratzeke abiapuntu izan zuten lurralde horretarara iritsi ziren. Eta hauek burutu zuten periploaren ondotik, Dariok indiarren menperatu eta itsaso hori erabili zuen. Honela, sortaldera daudenak izan ezik, beste lurraldeei dagokienez, Asia Libyaren antzeko aurkitzen da.

45. Europa, ordea, inorentzat ez da garbi ezagun, nahiz sortalderantz nahiz sartalderantz ur-korronteaz inguraturik ote dagoen; hala ere, ezaguna da beste bien pare hedatzen dela luzez. Ezin dut ulertu zergatik lurraldeak, bakarra izanik, hiru izen, hirurak emakumeen deitura direnak ezarri zaizkion, eta zergatik

jarri zaizkion mugatzat Nilo egyptoar ibaia eta Phasis kolkhoa (aldiz, zenbaitek Tanais ibai meatarra eta Zimeriar itsasarte direla diote), ez eta ere ezin dut jakin mugatzaileen izenik eta nondik jarri dizkioten deiturak. Zeren, egun heleniar gehienek diotenez, Libyak bertako emakumea zen Libyarengandik du izena²⁸⁵; Asiak, berriz, Prometheoren emazteagandik deitura. Eta lidyarrek beretzat hartzen dute izen hori, Asia Prometheoren Asiarengatik ez baina Asias Kotysena Manesenarengatik deitzen dela esanaz; berorrengatik deitzen zaiola Asias Sardesko leinuari ere. Baina Europa inorentzat ez da ezagun ez urez inguraturik dagoen, ez izen hori nondik hartu zuen, ez eta ere ez dago argi ipini ziona nor izan zen, non eta lurraldeak tyroar Europatik hartu zuela ez dugun esaten; lehen, gainerakoak bezala, izengabea izan bide zen. Alabaina, garbi dago hura jatorriz Asiakoa zena eta ez zela etorri heleniarrek Europa deritzaten lur horretara, Pheniziatik Kretara eta Kretatik Lyziara ez bada. Beraz, aski bedi esandakoa; horien ohiturazko izenak erabiliko baititugu.

46. Bestalde, Dario aurka zihoakion Ponto Euxinok, szythiarraz aparte, inongo herririk atzeratuenak ditu; Ponto barruko herri bat ere ezin baitugu aurrean jarri jakinduri arloan, eta gizon burutsurik izan denik ere ez dakigu herri szythiarraz eta Anakharsisez beste. Guk dakigunez bederen, szythiar leinuak asmatu du inork baino lehenago giza arazorik handienetako baten konponbiderik

zuhurrena, nahiz eta beste ohiturak ez ditudan miresten. Hain bikaina da asmatu dutena, non beraien aurka joandako inork ez dezakeen ihes egin eta, aurkituak izaterik nahi ez badute, inork ez ditzakeen harrapa; hauek ez baitute eraikiriko hiririk ez harresirik, aitzitik, etxe-garraiatzaile izanez zaldizko uztailari baitira denak, are nekazaritzatik ez baina abeltzaintzatik bizi direlarik egoitzak gurdi gainetan baitituzte, nola ez litezke izan garaitezin eta inguraezinak?

47. Bestalde, lurra egokia eta ibaiak lagun dituztelako asmatu dute biziera hori; izan ere, lur hori zelai delarik, belartsu eta urtsu ere bada, eta bertan barrena korritzen duten ibaiak ez dira kopuruz Egyptoko kanalak baino gutxiago. Eta hauetatik ospetsu eta itsasotik nabigagarri diren guztiok izendatuko ditut: bost ahoko Istro, ondoren Tyres, Hypanis, Borysthenes, Pantikates, Hypazyris, Gerro eta Tanais. Eta horiek era honetan korritzen dute.

48. Istrok, guk ezagutzen ditugun ibai guztietan handiena izanik, bai uda eta bai negu bere betiko neurri berean korritzen du, eta Szythiakoetan mendebaldetik korritzen duen lehena delarik, beste ibai asko ere hara isurtzen baitira, horrengatik bilakatu da handien. Eta hona berori handi egiten dutenak: bost dira Szythiako lurraldean barrena korritzen dutenak: szythiarrek Porata eta heleniarrek Pyreto deritzatena, eta besteak Tiaranto, Araro, Naparis eta Ordeso. Ibaiotan aurrena aipaturikoa handia da eta, ekialdera joaz, bere ura Istrorekin batzen du; bigarrena,

Tiaranto deiturikoa, mende balderago dago eta txikiagoa da; Araro, Naparis eta Ordeso, berriz, horien artetik joanez, Istron jausten dira. Bertan jaiotako szythiar ibai horiek dira hau betetzen laguntzen dutenak; bestalde, Maris ibaia, agathyrsoengandik abiatuz, Istrorekin elkartzen da.

49. Hemoko gailurretatik²⁸⁶ ipar-haizerantz korrituz, beste hiru ibai handi isurtzen dira hara: Atlas, Auras eta Tibisis; bestetik, Thrazian eta bereziki Thraziako krobyzoengan barrena korrituz, Athrys, Noes eta Artanesez Istrori ematen dizkiote urak; hona isurtzen da Szio ibaia ere, peoniarrengandik eta Rhodope menditik abiatu eta Hemo erdibituz. Anglo ibaia, berriz, ilyiarrengandik ipar-haizealdera korrituz, Tribaloarren lautadara²⁸⁷ eta Brongo ibaira isurtzen da eta Brongo bere aldetik Istrora; horrela, bata eta bestea, handiak biak, Istrok hartzen ditu. Bestalde, ombriarren lurraldez goitik, Karpis ibaiak eta bestea Alpisek, hauek ere ipar-haizerantz korrituz, hari ematen dizkiote urak. Izan ere, Istrok, sartaldeantantz zyneteen ondoren azken biztanle diren zeltengandik hasirik, Europa osoan barrena korritzen du; eta Europa osoan barrena korritu ondoren Szythiaren saihetsera isurtzen da.

50. Beraz, aipatutako ibai hauek eta beste asko elkartuz, horien urak egiten du handien Istro ibaia; zeren, bataren ura bestearekin alderatuz gero, Nilok gaintitzen du kantitatez; izan ere, ez da ibairik ez iturririk bere urak emanez hau haziarazten duenik. Bestalde, Istrok, nire irtiz, honelako zerbaitegatik du beti korrante

berdina uda eta negu: neguan, den bezainbatekoa da eta berez denetik gutxi da handiago; bada, lur horrek neguan guztiz euri gutxi hartzen du; aitzitik, dena da elur; udan, ordea, neguan eroritako elurra lurrestali delarik, urtu eta edonondik Istrora doa. Eta hona datorren elur horrekin batera euri-jasa gogorrek ere laguntzen dute hura betetzen; udan euria egiten baitu. Eta eguzkiak beregana zenbat eta ur gehiago erakartzen duen udan neguan baino, hainbat eta gehiago da udan neguan baino Istrorekin batzen dena. Ekintza kontrajarri horiek batezbestekoa sortzen dute, ibaia beti berdina dela emateraino.

51. Istro da, beraz, szythiarrek duten ibaietako bat²⁸⁸; hurrengoa ipar-haizealdetik datorren Tyres da, eta Szythia eta Neuride mugatzen dituen aintzira handi baten du hasiera honen korronteak. Hain zuzen, tyrestarrak deritzen heleniarrek honen ahoan dute egoitza.

52. Hirugarren ibaia, Hypanis, Szythiatik abiatzen da, eta honen korronteak inguruan basazaldi zuriak larratzen zaizkion aintzira batean du iturburua. Eta aintzira honi modu zuzenez "Hypanisen Ama" deritza. Beraz, Hypanis ibaia, aintzira horretatik sortuz, mehar eta geza doa bost eguneko untzibidean; izugarri garratz, ordea, hemendik itsasorantz lau eguneko untzibidean; hori, iturri garratz batek bere ura ematen diolako da; hain iturri garratzak ezen, honek, tamainuz txiki izanik, Hypanis nahasten du, gutxi bezala handi den arren. Iturri hau szythiar goldelarien eta alizondarren lurralde-mugetan dago; iturri honi

eta beronen sorburuari szythieraz Exampeo deitzen zaio; heleniarren hizkuntzan, berriz, Hirai Hodoi²⁸⁹. Bestalde, Tyres eta Hypanisek alizondarrengan elkarganatu egiten dituzte beren norabideak; baina hemendik aurrera bakoitza bestearengandik aldendu eta elkarren arteko tartea zabalduz doa.

53. Laugarren ibaia Borysthenes da; Istroren hurrena bera da ibai horietan handiena eta aberatsena, gure iritziz, ez szythiar ibaien artean bakarrik, baita beste guztien artean ere, Egyptoko Nilo izan ezik; honi ezin baitzaio beste ibairik alderatu; baina gainerakoetan aberatsena Borysthenes da, honek larre guztiz bikain eta zainduak baititu abereentzat, baita denetan arrainik hoberen eta ugarienak ere; guztiz atsegina da edateko, eta arreak datozen korronteen ondoan garbi doa bera; honen inguruan guztiz emankor bilakatzen da ereintza, eta ereiten ez den lurraldean belar guztiz mardula sortzen da. Ibai honen ahoan neurtu ezin ahala gatz kristaltzen da berez. Gainera, antazeoak deritzeten arantza gabeko arraintzarrak ematen ditu gaziketarako, eta miresgarri diren beste gauza asko ere bai. Jakina da, beraz, berrogei eguneko untzibidean dagoen Gerro lurralderaino ipar-haizetik datorrena; baina honez goitik zein lurraldetan barrena doan inork ez daki esaten; argi dago, hala ere, szythiar laborarien lurraldera eremuan zehar doana; szythiar horiek hamar eguneko untzibidean sailkatzen baitira haren ertzean. Hain zuzen, ibai honen eta Niloren iturburuez bakarrik ez dezaket deus esan, eta heleniarretan ere inork ez dezakeela uste dut. Bestalde, Borysthenes, bere joanean itsasotik hurbil aurkitzen dela, Hypanisekin elkartzen da, zingira berera urak isuriz. Eta, ibai bion tartea

lurmutur bat delarik, Hipolaoko tontorra deitzen zaio, eta bertan Demeterren santutegi bat dago eraikia. Eta santutegiz bestaldetik Hypanisen ertzean kokatzen dira borysthenestarrak.

54. Horra ibai horietaz dioguna. Hauen ondoren, Pantikapes izeneko beste ibaia da bosgarren; hau ere iparraldetik dator eta aintzira batetik, hain zuzen; honen eta Borysthenesen tartean bizi dira szythiar laborariak; eta, Hyleara jo eta honen alboan igaro ondoren, Borysthenesekin batzen da.

55. Hypazyris da seigarren ibaia; hau aintzira batetik irten eta, szythiar nomaden erditik igaroz, Karzinitis hiri ondoan itsasoratzen da, eskuinera Hylea eta Akhileodromoa deritzana mugatuz.

56. Zazpigarren ibaia, Gerro, Borysthenes ezagutzen den lurralderainoko neurrian, Borysthenestik aldentzen doa; eta, hain zuzen, lurralde honetatik aldentzen denez, lurraldeak berak duen izena du, Gerro; eta itsasbidean szythiar nomaden eta errege-szythiarren arteko lurraldea mugatu eta Hypazyrisi entregatzen dizkio urak.

57. Tanais da zortzigarren ibaia; korronte honek goitik aintzira handi bat du abiabidetzat eta Meatide deritzan aintzira are handiagora isurtzen da; aintzira honek errege-szythiarrak eta sauomatak mugatzen ditu. Bestalde, Hyrgis izena duen beste ibai batek bere urak Tanaisa jaurtitzen ditu.

58. Szythiarrak horrelako ibai ospetsuz daude hornituak; eta Szythian jaiotzen den belarra da guk ezagutzen ditugun belar guztietan abereentzat behazun-eragileena; eta hori horrela dena abereak irekitzean ikus daiteke.

59. Horrela, baliabiderik garrantzizkoenak benetan ugari dituzte; gainerakoan hona berauen ohiturak. Jainko hauei bakarrik

egin ohi diete adiskidetza-oparia: Histiari lehenik, Zeusi eta Geari hurrena (Gea Zeusen emazte dela uste baitute²⁹⁰), eta horien ondoren Apolori, Aphrodita Uraniari, Heraklesi eta Aresi; hauek dira szythiar guztiek gurtzen dituztenak; errege-szythiarrak [deiturikoek], ordea, Posidoni ere egiten diote opari. Histiak szythieraz Tabiti du izena; Zeusek, berriz, nire iritziz guztiz zuzen deitzen zaiolarik, Papeo; Geak, Api; Apolok, Getosyro; Aphrodita Uraniak, Argimpasa; eta Posidonek, Thagimasadas. Hala ere, ez dute imajinarik, aldarerik eta tenplurik eraikitzeo ohiturarik, Aresi izan ezik; honi bai, eraiki ohi diote.

60. Opari orori dagokionez, guztientzat era berean errito bera dago ezarria, honela burutu ohi delarik: opalgaia bera zutik datza aurreko hankak lotuta; opalgileak, bere aldetik, aziendaren atzean jarririk, soka-muturretik tira egin eta lurrera botatzen du; eta, opalgaia erortzean, opari egin bide dion jainkoari dei egiten dio, eta ondoren lepoa inguratzen dio lakioz, eta, honi makila bat sartuz, bihurrituak eman eta ito egiten du, ez surik piztuz, ez aurre-eskaintzarik eginez, ez deus isuriz; eta, ito eta larrutu ondoren, egostera joaten da.

61. Eta szythiarren lurra guztiz egurgabea delarik, hona zer-nolako era asmatu duten haragia egosteko: opalduak larrutu ondoren, hezurak haragigabetzen dituzte; gero, haragi hori lurralde horretakoak diren pertzetara botatzen dute baldin halabeharrez berekin badituzte; pertzak lesboar krateren guztiz antzekoak dira, askoz handiagoak izatea izan ezik. Haragia, pertz horietara bota

ondoren, egosi egiten dute, opalduen hezurak azpian erreaz. Pertzik ez badute, berriz, opalduen sabelera haragi guztia bota eta, ura nahasiz, hezurak erretzen dituzte azpian; eta hauek oso ederki erre ohi dira, eta sabelak aisa egiten die leku hezurgabeturiko haragiei; eta honela idiak berak egosten du bere burua eta berdin gainerako opalgaiek ere nork berea. Eta, haragia egosi denean, opalgileak, haragien eta sabelkien hasikinak eskainiz, bere aurrera jaurtitzen ditu. Beste ganadu batzuk ere opaltzen dituzte, zaldiak batik bat.

62. Era horretan eta abere horiek opaltzen dizkiete gainerako jainkoei; era honetan, berriz, Aresi. Beren agintepeko herrialde bakoitzean Aresen honelako santutegi bat dute eraikia: luze-zabalean hiru stadio eta goieran gutxiago den bezainbateko neurrian sortaka zotz dago metatua. Meta honen gainean tetragono zabal bat egiten da: hiru aldeak pikoak dituen arren, bata igokorra du. Urte bakoitzean ehun eta berrogeita hamar gurdi-zotz gaineratzen diote; ekaitzek etengabe beheratu egiten baitute. Egur-pila honen gainean, hain zuzen, antzinako burdin ezpata bat zutitzen dute herrialde bakoitzean; horixe da Aresen irudia. Eta ezpata horri urtero ganadu- eta zaldi-opariak eskaintzen dizkiete, eta horrelako irudiei beste jainkoei baino are gehiago eskaini ere. Harrapatzen dituzten etsai guztietatik ehuneko bata opaltzen diote, ez ganaduen modu berean, bestela baizik. Bada, gizon horien burugainetara ardoa isuri ondoren, lepamoztu egiten dituzte

ontzi baterantz eta ondoren, ontzia egur-pilaren gainera eramanez, odola ezpata gainera isurtzen dute. Hura gora daramaten bitartean, behean, santutegi ondoan, hau egiten dute: lepamoztutako gizonen eskuin-sorbalda guztiak besoekin batera ebaki eta airera jaurtitzen dituzte; eta, ondoren, gainerako opalgaiekin ere amaitutakoan, erretiratu egiten dira; besoa erori bide den lekuan geratzen da eta aparte gorpua.

63. Beraz, opalkuntza horiek dira szythiarren artean ezarririk daudenak; baina hauek ez dute erabiltzen zerririk eta, hazi ere, ez dute inola hazi nahi beren lurraldean.

64. Bestalde, gerrari dagozkionak honela dauzkate arautuak: szythiar batek bere lehen gizona eraisten duenean, honen odola edaten du; eta guduan hil ditzakeen guztien buruak erregeari eramaten dizkio; burua eramanez gero hartzen baitu esku jaso dezakeen harrapakinean eta ez eraman gabe. Eta burua honelako eran larrutzen du: belarriaren ingurubiran, ebakia egin ondoren, larrutik heldu eta burutik ateratzen du; gero, zaldi-saihetsezurrez haragia harraskatu eta bere eskuz larrua ontzen du eta, leundu ondoren, eskuzapia bezala jasotzen du, eta berak gidatzen duen zaldiaren bridei lotu eta harro geratzen da; izan ere, [larru-]eskuzapi gehien dukeenari irizten zaio gizonik adoretuena. Eta horietako askok kendutako larruekin bizkarreratzeko jantziak ere egin ohi dituzte kapusai gisa josiaz; askok etsai-gorpuen eskuineko eskuei larrua azkazal eta guzti kendu eta buiraka-larruak egin ohi ditu; bestalde, giza larrua lodi eta argia da, agian larru guztietan argiena zuritasunez. Beste askok gizon osoak ere

larrutu eta egur gainetan zabaldurik, zaldien gainean eramaten ditu hara-hona.

65. Horra, bada, nolako ohiturak dituzten. Eta buru horiei, ez guztienei, etsaienei baizik, dagokienez, honela jokutzen dute. [Bakoitzak] bekainez behetik osoki zerratuz, garbitu egiten du; eta, behartsua bada, kanpoaldetik zaldi-larru ondugabea bakarrik hedatzen dio; aberatsa bada, berriz, zaldi-larru ondugabea hedatzeaz gainera, barrualdetik urreztatu eta horrela edalontzitzat erabiltzen du. Hori bera egiten dute etxetiarrekin ere haserretu eta erregearen aurrean bata besteari gailentzen bazaio. Eta arrotz aipagarriak etortzen bazaizkio, buru horiek aurrera ekarri eta, etxetiar zituen arren borrokara bidean jarri zutela eta berak azpiratu zituela gaineratzen die, hori gizontasuntzat aipatuz.

66. Eta urtean behin herrialdeburu bakoitzak bere herrialdean kratera bat ardo nahasten du urez, zeinetatik etsaiak hil izan bide dituzten szythiarrek edaten duten; egintza hori burutu ez bide dutenek, aldiz, ez dute ardo hori dastatzen; aitzitik, desohorez baztertuak geratzen dira; eta hori da haientzat irainik handiena; baina berauetatik gizonik gehien hil izan bide dituztenek, kopa bi hartuz, kolpe batean edaten dute.

67. Szythiarren artean igarle asko da; zume-zigor askorekin era honetan egiten dute igarpena: zume-zigor sorta handiak ekarri ondoren, lurrean jarri eta askatu egiten dituzte, eta zigorrak elkarren ondoan banakatu eta igarpen hitzak esaten dituzte, eta, horiek esatearekin batera, berriro zigorrak bildu eta berriro banan-banan jartzen dituzte. Arbasoengandiko igarletza dute hori

Bestalde, enareek -androgynoek- igarletza Aphroditak eman ziela diote; izan ere, ezki-azalaren bidez igartzen dute: ezki-azala hiru zati egin ondoren, beren hatzetan kiribildu eta askatuz egin ohi dute igarpena.

68. Eta szythiarren erregea gaixotzen denean, igarleetako hiru gizon ospetsuenak ekarraraziz, aipaturiko eran igarri ohi dute; eta horiek gehienetan hau esaten dute batez ere: horrelakok eta halakok -aipagai duketen hura aipatuz- errege-etxeen gain faltsuki zin egin duela; eta, hain zuzen, szythiarrek, zinik nagusiena egin nahi dutenean, errege-etxeen gain egin ohi dute. Eta, berehala atzemanik, aipatua izan bide den hori ekartzen dute, eta, iristean, igarleek igarpenean garbi dagoela frogatzen diote errege-etxeen gain faltsuki zin egin zuena eta erregea horrengatik minetan dagoena; hark, ordea, ukatu egiten du, ez duela zin faltsurik egin esanez, eta haserre bizian mintzatzen da. Honek ukatzean, erregeak beste bi halako igarle ekarrarazten du; eta hauek ere, igarpenari begiraturaz, faltsuki zin egiteaz kondena badezate, zuzenean burua mozten diote eta lehenengo igarleek banatzen dituzte haren ondasunak; aldiz, hurrena datozen igarleek absolbi badezate, beste igarle gehiago eta gehiago aurkezten dira; eta gehienek gizon hura absolbi badezate, erabakia dago lehenengo igarleek berek hil behar dutela.

69. Eta, hil ere, honela hiltzen dituzte. Gurdi bat ezkiz bete eta idiak uztarperatzen dizkiotenean, igarleei hankak kateatu, eskuak atzean lotu eta ahoa estali ondoren, ezki artean hersten dituzte, eta, egurrari su emanez, idiak izutu eta abiada

bizian jartzen. Igarleekin batera idi asko geratzen da kiskalirik, baina asko da garrak hartuta ihes egiten duena ere, pertika erretzean. Esan dugun era honetan beste arrazoiengatik ere erretzen dituzte igarleak, sasiigarle deituz. Eta erregeak hil bide dituenean, hauen umeak ere ez ditu uzten; aitzitik, semeak hil egiten ditu, nahiz eta alabei kalterik egiten ez dien.

70. Szythiarrek honela zin egiten dute berauekin zin egin dezaketenekin: lurrezko edalontzi handi batera ardoa isuriz, zin-egileen odola nahasten diote, aurrez gorputza ezten batez zulatuz edota ganibetaz pitin bat ebakiz, eta ondoren zimitarra, geziak, sagaria eta azkona edalontzian sartuz; eta hori egiten dutenean, araoka dihardute eta ondoren bai zin-egileek eta bai jarraitzaileetako ospetsuenek ere edalontzitik edaten dute.

71. Erregeen hilobiak, berriz, gerroarren lurraldean, Borysthenes nabigagarri denerainokoan daude. Hemen, erregea hil dakienean, lurrean lau aldeko zulo handi bat hondeatzen dute eta, hau prest jartzen dutenean, hildakoa, gorpu osoa argizaritua eta sabela irekia, garbitua eta iraur-belar zehatuz eta lurringaiz gainera apio- eta aneta-haziz betea duelarik, berriz ere josi eta gurdian beste herri batera eramaten dute. Eta eramandako gorpua jasotzen dutenek, errege-szythiarrek ohi duten bera egiten dute: belarri-zati bat ebakitzen dute, ilea buruaren jiran mozten dute, besoen jiran ebaketak egiten dituzte, aurpegia eta sudurra urratzen dituzte, ezker-eskua geziz zeharkatzen dute. Eta hemendik

gurdian [erregearen] gorpua beren menpeko beste herri batera eramaten dute eta hemengoek berauen aurretik etorritakoei jarraitzen diete. Eta, gorpua eramanez guztiei bira egin diezaietenean, jada beren menpeko azken lursailean bizi diren gerroarren artean eta bertako ehorzlekuetan aurkitzen dira. Eta gero, gorpua bere jarlekuan kamaina baten gainean ipini bide dutenean, gorpuaren alde banatan lantzak sartu eta gainean aldenik alde egurrak hedatzen dizkiote, eta ondoren geretaz estaltzen dute; eta jarlekuan geratzen den zabalgunean ohaideetako bat ehorzten dute, ito ondoren; baita koparia, sukaldaria, zaldizaina, laguntzailea, mezu-eramailea, zaldiak, dituen beste ondasun guztietatik hasikinak, eta urrezko edalontziak ere; zilarrezkorik eta brontzezkorik ez baitarabilte. Eta hori eginik, guztiek lurketa handi bat jasotzen dute, ahalik eta handiena egiten lehiatuz eta ahaleginduz.

72. Eta urtearen buruan berriro honelako ekitaldi bat egiten dute: gainerako zerbitzarietatik arduratsuenak hartuz (eta hauek szythiarrak dira jatorriz; erregeak berak agin diezaikeenek zerbitzatzen baitute, eta ez baitute diruz erosiriko zerbitzaririk), laguntzaile horietako berrogeita hamar eta berrogeita hamar zaldi ederrenak ito bide dituztenean, hauen sabela hustu eta garbitu ondoren, lastoz bete eta josi egiten dute; eta gurpil erdi bat hagunez behera hesola biren gainean eta honelako asko era horretan finkatu ondoren, zaldiei luzeran hesola lodiak zintzurreraino sartu eta gurpil gainetara jasotzen dituzte; eta lehen gurpil-erdiek zaldien besapeak

sustengatzen dituzte; atzekoek, berriz, iztarraldetik sabelaldeari eusten diote azpitik; horrela, bi hanka-pareak zintzilik geratzen zaizkie airean eta hedeak eta muturrekoak zaldiei ezarri, hedeak aurrealdera estutu eta ondoren iltzeetatik lotzen dituzte. Eta itoak izan diren berrogeita hamar gaztetxoetako bakoitza nor bere zaldi gainera igotzen dute, gorpu bakoitzari bizkarrezurraren eran hesola zuzen bat zintzurreraino sartuz, modu horretan igo ere; eta hesola horren behealdetik ateratzen den zati bat zaldian barrena doan beste hesolaren zuloan sartzen da. Eta hilobiaren jiran honelako zaldunak ezarri ondoren, aldendu egiten dira.

73. Erregeak honela ehorzten dituzte; gainerako szythiarrek, berriz, hil diratekeenean, gurdietan etzanik, gertueneko ahaideek lagunengana eraman ohi dituzte etxerik etxe; eta, hauetako bakoitzak beregan hartzean, oparotasunez hartzen du segizioa, eta hildakoari ere gainerakoei eskainitako guztitik aurkezten dio. Eta berrogei egunez horrela ibili ohi dituzte etxerik etxe norberazkoek; gero ehortzi egiten dituzte. Eta, ehortzirik, era honetako arazketa egin ohi dute szythiarrek; buruak igurtzi eta garbitu ondoren, soinari dagokionez hau egiten dute: hiru hesola zutik elkarrengana etzanak jarri eta hauen gainean, jira osoan, artilezko estalkiak hedatzen dituzte, eta, bata bestearekin ahalik gehien doitu ondoren, suaz goritutako harriak botatzen dituzte hesolen eta estalkien erdian datzan aska batera.

74. Hain zuzen, lurralde horretan kalamua hazten da, lodieraz eta goieraz izan ezik guztiz lihoaren parekoa delarik; bada, hau neurri handiz gainditzen du kalamuak. Hau, nahiz berez, nahiz ereinez sortu ohi da, eta honekin thraziarrek linozkoen antz-antzeko jantziak egin ohi dituzte. Horrelakorik askotan

erabili ez dukeenak ez lezake bereiz lihozkoa ala kalamuzkoa den; eta kalamuzko jantzia inoiz ikusi ez duenak lihozkoa dela uste izango du.

75. Beraz, szythiarrek kalamu honen hazia hartuz, estalkipera sartzen dira eta gero hazia [suaz] goritutako harrien gainera jaurtitzen dute; eta jaurtitzean usaina dario eta, sortu ere, hainbesteko lurrina sortzen du, non ez legokeen garait lekioken heleniar lurrin-bainurik. Szythiarrek oihu egiten dute atseginez. Hori bainuaren ordezkotzat izaten dute; gorputza ez baitute batere urez garbitzen. Emakumeek, beren aldetik, ura isuriz, altzifrearen, zedroaren eta intsentsuondoaren zura xehatzen dute harri latz baten inguruan; eta ondoren ore hori, lodia delarik, soin osoan eta aurpegian nahasten dute, eta, hori dela bide, haietaz usain gozo bat jabetzeaz gainera, hurrengo egunean, ore kentzean, garbi eta distiratsu geratzen dira.

76. Hauek ere atzerritarren ohiturak erabiltzeari gogor ihes egin ohi diote, besteak beste, heleniarrenei bereziki, Anakharsisek eta hurrena berriro Szylesek erakusten diguten bezala. Izan ere, batetik Anakharsisek mundu ugari ikusi eta bertan jakinduria asko azaldu ondoren, berriz szythiarren herrialdera zetorrela, Helesponton barrena nabigatuz, Zyzikon lehorreratu zen; eta zyzikoarrak Jainkoen Amaren²⁹¹ goralmenez guztiz handikiro ospakizun bat burutzen topatu baitzituen, Anakharsisek Amari, bere herrira bizirik eta onik itzularazten bazuen zyzikoarrak

egiten ikusten zituen era bereko oparia egin eta gau-jaia ezarriko ziola egin zion promes. Eta Szythiara iritsi zenean, Hylea deituriko lurlean barruratu zelarik (eta hau Akhileodromoaren alboan dago eta, halaber, guztia edotariko zuhaitzez beteaz aurkitzen da), Anakharsisek, lurralde honetan barruratu zelarik, jainkosaren goralmenez ospakizun osoa burutu zuen, tympanoa eskutan eta imajinak loturik zituela. Eta szythiarretako batek eginkizun horretan ikusi zuelarik, Saulio erregeari eman zion aditzera; eta bera ere etorri eta Anakharsis gauza horiek egiten ikusi zuenean, gezia jaurti eta hil egin zuen. Eta gaur egun norbaitek Anakharsisez galdetzen badu, szythiarrek ez dutela ezagutzen erantzuten dute, Heladera atzerriratu eta atzerriko ohiturak erabili zituelako. Bestalde, nik Ariapithesen administratzaile Tymnesi entzun nionez, hura szythiarren errege Idanthysoren aitaldeko osaba eta Gnuro Lykorena Spargapithesenaren semea omen zen. Beraz, Anakharsis etxe horretakoa bazen, jakin bedi anaiak hil zuela; Indanthyrso Saulioren semea baitzen, eta Saulio izan baitzen Anakharsis hil zuena.

77. Baina beste istorio bat ere entzuna dut peloponesoarrengandik, zera dioena: Anakharsis, szythiarren erregeak bidalirik, Heladeko ikasle izan omen zen; eta, berriro itzuli zenean, bidali zuenari heleniar guztiak, lazedemondarrak izan ezik, atsedean gabe jakintza orori emanak zeudela esan omen zion, baina zuhurki hitz egin edota entzun, azkeneko hauei bakarrik egin ziezaiekeela. Istorio hori, ordea, heleniarrek berek asmatutako berriketa hutsa da, gizon hori lehen esan dudana bezala hil baitzen. Beraz, honek atzerriko ohiturengatik eta heleniarrekiko harremanengatik bukatu zuen horrela.

78. Eta handik urte askotxora horren antzekoak jasan zituen Szyles Ariapithesenak. Izan ere, szythiarren errege Ariaphitesi beste umeen artean Szyles jaiotzen zaio; jaio ere, istriar emakume batengandik jaiotzen da eta inola ere ez bertako batengandik; amak berak Heladeko hizkuntza eta idazkera irakatsi zion. Handik aldi batera, Ariaphites azpikeriaz agathyrsoen errege Spargaphitesen esku hil zen, eta Szylesek oinordetu zuen erregetza eta Opea izeneko aitaren emaztea. Eta Opea hori herrian bertakoa zen eta Ariaphitesek honengandik seme Orik o izan zuen. Beraz, Szylesi, szythiarren errege izan arren, ez zitzaion batere atsegin szythiarren biziera; aitzitik, izan zuen hezieraren ondoren askoz etzanagoa zegoen heleniarren ohituretara; eta hona nola jokatzeko zuen. Szythiarren gudarostea borysthenestarren hirira gidatzen zuen bakoitzean (eta beren buruaz miletoar direla diote borysthenestar horiek), Szyles hauengana etortzen zen orduko, gudarostea hiriz kanpora utzi, bera harresian barruratu eta, ateak itxi ondoren, szythiar arropa kendu eta heleniar soinekoa hartzen zuen, eta honekin plazan ibiltzen zen, ez lantzaririk eta ez beste inor lagun ez zuelarik (bestalde, ateak zainarazten zituen, szythiarretako inork soineko horrekin ikus ez zezan), eta beste gauzetan ere heleniar biziera zeraman eta jainkoei heleniarren usantzara eskaintzen zizkien opariak. Eta hilabete edo gehiago igarotzen zuenean, szythiarren arropa jantziz alde egiten zuen. Askotan egin ohi zuen hori; eta Borysthenesen egoitza batzuk ere eginarazi zituen beretzat, eta, hauetan bizitzeko, bertako emakume batekin ezkondu zen.

79. Baina beharrezkoa baitzen zoritxarra gerta zekion, honelako abagunean gertatu zitzaion. Dionyso Bakkhoarraren²⁹² erritoei ekitea gogo eman zion; eta, ekitera zihoala, mirari izugarri bat gertatu zen. Bazuen Szylesek borysthenestarren hirian egoitza handi eta aberatseko esparru bat, arestian aipatu dudana, zeinaren inguruan marmolezko sphingeak eta grypoak jarriak zituen; egoitza honetara jainkoak tximistazkona jaurti zuen. Dena kiskalia geratu zen, baina Szylesek ez zuen horrengatik erritoekimenean atzera egin. Dena den, szythiarrek bakkhoak ospatzea aurpegiratzen diete heleniarrei; zeren, ez dela itxurazkoa diote gizonak zorarazten dituen hori jainkotzat hartzea. Eta Szylesek Bakkhoren erritoei ekin zienean, borysthenestar bat erresuminez szythiarrei zuzendu zitzaien esanez: "Zuek, szythiarrok iseka egiten diguzue bakkhoak ospatzen ditugulako eta jainkoa gutaz jabetzen delako; zuen erregeaz ere jabeturik dago egun jainkotasun hori eta bakkhoak ospatzen ari da, eta zoratu egin du jainkoak. Eta, sinesten ez badidazue, jarrai; neronek erakutsiko dizuet". Szythiarren arteko aitzindariak jarraitu zitzaizkion eta borysthenestarrak ezkutuan igoarazi eta dorre baten kokatu zituen. Eta Szyles thiasoarekin batera ondoan igaro zenean eta szythiarrek bakkhoak ospatzen ikusi zutenean, guztiz zorigaitz handitzat hartu zuten, eta, hiritik irtenez, gudaroste osoari ikusiaren berri eman zioten.

80. Eta gertaera horien ondoren Szylesek bere herrialdera jo zuenean, szythiarrek, haren anaia Oktamasades, Teresen alabarengandik jaioa gidari jarriaz, Szylesen aurka altxatu ziren. Baina honek, bere aurka gertatzen ari zenaz eta gertakizun horren zergatiaz

jabetu zenean, Thraziara ihes egin zuen. Oktamasadesek horren berri izatean, Thraziaren aurka abiatu zen; eta Istroren ibaiertzero iritsi zenean, thraziarrak irten zitzaizkion bidera, eta, elkar jotzera zihoazela, Sitalzesek Oktamasadesengana mezulari bat bidali zuen esanez: "Zergatik neurtu behar diagu elkar? Nire arrebaren semea haiz eta nire anaia daukak heurekin. Itzul iezadak hik hori eta emango diat nik heure Szyles. Baina ez hik eta ez nik ez dezagun gudarostea arriskarazi". Sitalzesek mezu hori luzatu zion, mezularia igorritz; izan ere, Sitalzesen anaia hori Oktamasadesenean aurkitzen zen iheslari gisa. Oktamasadesek, bere aldetik, ontzat eman zuen hori, eta, bere aitaldeko osaba Sitalzesi itzuliz, Szyles anaia hartu zuen. Eta Sitalzesek bere anaia jaso ondoren, itzuli egin zen; Oktamasadesek, berriz, burua moztu zion bertan Szylesi. Horrela zaintzen dituzte szythiarrek beren ohiturak eta horrelako zigorrak ematen dizkiete atzerriko ohiturak berenganatzen dituztenei.

81. Bestalde, ez dut zehazki jakin ahal izan szythiarren arteko jendetzaren berri; aitzitik, esan desberdinak entzun ditut hauen kopuruaz: bai szythiarrak guztiz ugari direla eta bai gutxi direla ere. Hala eta guztiz, hona zer azaldu zidaten begi-bistara. Borysthenes ibaiaren eta Hypanisen artean bada Exampeo izeneko lurralde bat, lerro hauek baino aurreraxeago aipatu dudana; esan dudanez, bertan ur garratzeko iturri bat dago, eta isurtzen den urak Hypanis edanezin bilakatzen du. Lurralde honetan brontzezko ontzi bat datza, handiz Pausanias Kleombrotorenak Pontoren sarreran eskaini zuen

krateraren sei halako dena. Eta hau inoiz ikusi ez duenari honela adieraziko diot: Szythiako brontzezko ontziak aise hartzen ditu seiehun amphora, eta lodiz szythiar brontze hori bada sei hatz²⁹³. Horrela izanik, bertakoek gezi-puntez egin zela esaten zuten. Izan ere, berauen erregeak, Arianta izenekoak, [honek] szythiarren jendetza jakin nahirik, szythiar guztiei bakoitzak [geziaren] punta bat ekartzeko agindu omen zien; eta ekar ez zezana heriotzarekin mehatxatu omen zuen. Ekarri, punta-pila handia ekarri omen zioten eta, hauekin oroigarri bat eginaraziz, ondorenerako uztea erabaki omen zuen; horiekin eginarazi omen zuen, bada, brontzezko ontzi hura eta Exampeon egin ere haren eskaintza. Horixe da szythiarren arteko jendetzaz entzun dudana.

82. Gainerakoan, lurralde horrek ez dauka gauza harrigarririk, ibairik handien handienak eta kopuruz ugarienak dituela izan ezik. Hala ere, ibaien eta lautadaren handitasunaz aparte, miresgarri agertzen den gauza bat agertuko dut: Tyres ibaiaren alboan Heraklesen oinatza agertzen da harkaitz baten ezarririk; giza oinkadaren antza du, baina bi beso da luze. Beraz, horrelakoxea da hori; eta, honenbestez, itzultzeroa noa hasieran esatera nindoan kontakizunera.

83. Dario szythiarren aurka prestatzen ari zen bitartean eta batzuei oinezko gudarostea eta besteei itsasuntziak emateko eta hurrengoei Thraziar Bosporon zubia egiteko aginduz mandatariak bidaltzen ari zela, Artabano Hystaspesenak, Darioren anaia zenak, szythiarren aurkako joanaldirik inola ere ez egiteko eskatzen zion, hauenganako bideraezina zehatz adieraziz. Baina, kontseilu onak eman arren ez baitzuen konbentzitzen, honek esateari utzi zion;

besteak, berriz, guztia prest izan zuenean, gudarostea Susatik aterarazi zuen.

84. Une honetan persiar Eobazok, hiru seme baitzituen eta guztiak baitzihoazkion gerrara, bat berarekin uzteko eskatu zion. Eta Dariok esan zion, adiskide zuenez eta neurrizkoak eskatzen zizkionez, seme guztiak utziko zizkiola. Eobazo benetan poz-pozik zegoen bere semeak gerraratzetik libratu zituelakoan; Dariok, ordea, egintza honen arduradunei Eobazoren seme guztiak hiltzeko agintzen die. Eta hauek, lepamozturik bederen, haren leku berean geratu ziren.

85. Eta Dario Susatik irten eta Khalzedoniako Bosporora, zubiz uztartua izan zen lekura iritsi zenean, itsasuntzian sartu eta hemendik Zyaneak izeneko irletaraino²⁹⁴, heleniarrek lehen alderrai zirela dioten horietaraino, nabigatu zuen; eta tontor batean eseriz, Pontori begira jarri zen, ikusgarria delarik; izan ere, itsaso guztietan harrigarriena da: hamaika mila eta ehun estadio luzean da eta zabaleneko aldetik hiru mila eta hirurehun estadio zabalean. Bestalde, itsaso horren ahoa lau stadio da zabalean, eta ahoaren luzera, gainetik zubiak uztartu zuen Bosporo izeneko itsas zintzurra, ehun eta hogeiren bat estadio da; eta Bosporo Propontideraino luzatzen da. Propontide, berriz, bostehun estadio zabal eta mila eta laurehun luze delarik, Helesponton isurtzen da, hau estueneko aldean zazpi estadio eta luzean laurehun delarik. Helesponto, bere aldetik, Egeo deritzan itsaso irekira irteten da.

86. Neurri horiek honela hartu dira: oro har, gehienez ere itsasuntzi batek egun luzeetako urtaroan hirurogeita hamar

mila besaldi²⁹⁵ egiten ditu egunez eta hirurogei mila gauez. Horrela, bada, itsas ahotik Phasiseraino (hori baita Pontoko alderik luzeena) bederatzi egun eta zortzi gaueko untzialdia dago; hauek milioi bat ehun eta hamar mila besaldi dira eta besaldi horietatik hamaika mila eta ehun estadio sortzen dira. Bestalde, Sindikatik Thermodonte ibaiaren ertzean dagoen Themiszyraino (hori baita Pontoko alderik zabalena) hiru egun eta bi gaueko untzialdia dago; hauek hirurehun eta hogeita hamar mila besaldi dira; hain zuzen, hiru mila eta hirurehun estadio. Beraz, horrela neurtu ditut Ponto hori, Bosporo eta Helesponto, eta izan, esanda bezala dira; horrez gainera, Ponto [horrek] badu alboan aintzira bat ere, bera baino askoz txikiagoa ez delarik berarengana isurtzen dena; Meatide eta "Pontoren Ama" deitzen diote.

87. Eta Dario, Pontori begira egon ondoren, Samoar Mandrokles arkitekto zuen zubira etorri zen berriro untziz. Eta Bosporo ere begietsi zuenean, marmol zurizko estela bi eraikiarazi zituen haren ertzean, asyriar idazkeraz batean eta heleniarrez bestean, berak gidatzen zituen herri guztien izenak zizelatuz; gidatu ere, bere agintepeko guztiak gidatzen zituen. Horien kopurua, untziteriaz aparte, zazpiehun mila gizonekoa zen zaldunekin; eta seiehun untzi bildu ziren. Handik gerora byzanziarrek, stela horiek beren hirira eramanez, Artemis Orthosiaren aldarerako erabili zituzten, harri bakar bat izan ezik; hori, asyriar idazkeraz betea, Byzanzioko Dionysoren tenplu ondoan utzi zuten. Eta Dario erregeak zubiz uztarrarazi zuen Bosporoko lurgunea, nik neure kalkuluen arabera

uste dudanez, Byzanzio eta itsas ahoaren ertzean dagoen santutegiaren arteko erdibidean dago.

88. Ondoren, Dariok, untzizko zubiaz atsegindurik, honen arkitekto izan zen samoar Mandroklesi kontaezin ahala sari²⁹⁶ eman zion. Mandroklesek bere aldetik, sari horietatik jasotako hasikin bezala, bizi-bizian Bosporoko zubigintza osoa, Dario erregea lehen-aulkian eseria, eta haren gudarostea handik igarotzen marraztu zuen; koadro hori marraztu ondoren, Hereoan eskaini zuen idazkun honekin:

"Arrain askoko Bosporo zubiz uztartu ondoren
Mandrokles berak Herari zion eskaini haren oroimen,
bere burua koroatu zuen Samoarren omen,
Dario erregeak pentsatu bezala burutu baitzuen"
Hori izan zen, bada, zubigilearen oroigarria.

89. Eta Dariok Mandrokles saritu ondoren, Europara igaro zen, joniarrei, Ponton barrena Istro ibairaino joan eta Istrora iristen zirenean ibaian zubia eginez berari bertan itxaroteko aginduz; untziteria, hain zuzen, joniarrek, eoliarrek eta helespontoarrek gidatzen baitzuten. Gerra-untziteriak Zyaneak zeharkatu ondoren, zuzenean Istrora jo zuen, eta itsasotik ibai gora egun biko untzibidean Istroren ahoak banatzen diren itsas zintzurreraino igo ondoren, zubia egin zuten. Dariok, bere aldetik, Bosporo untzizko zubi gainean igaro zuenean, Thrazian barrena joan zen eta, Tearo ibaiaren iturrietara iritsi zenean, hiru egunez kanpatu zen.

90. Tearo, berriz, honen ingurukoek, sendabiderako dituen beste bertuteen artean, nola gizonei hala zaldiei hazteria sendatzeko ibairik bikainena dela diote. Hogeita hemezortzi

iturri ditu haitz beretik dariola; horietako batzuk hotzak dira eta beroak besteak. Horietarako bide berdina dago Perinthoren alboan dagoen Hereo hiritik eta Ponto Euxinoko Apoloniatik: egun biko bidea. Eta Tearo horrek Kontadesdo ibaiari ematen dizkio urak; Kontadesdok, berriz, Agrianesi; Agrianesek Hebrori eta honek Eno hiriaren ondoan dagoen itsasoari.

91. Beraz, Dario ibai horretaraino heldu eta kanpatu zenean, ibaiaz atsegindurik, stela bat eraikiarazi zuen bertan honela zioen idazkuna idatzaraziz: "Tearo ibaiaren iturburuek ematen dute ibai guztietan urik bikainena eta ederrena; eta hauetaraino iritsi zen, szythiarren aurka bere gudarostea gidatuz, mundu guztiko gizonik bikainena eta ederrena, Dario Hystaspesena, persiarren eta kontinente osoko erregea". Hitz horiek idatzarazi zituen hemen.

92. Dario hemendik abiatuz, Artesko izena duen beste ibai batera iritsi zen; hau odrysen lurraldean barrena doa. Ibai horretara heltzean, honako hau egin zuen: gudarosteari lekua seinalatu ondoren, gizon orok, ondoan igarotzean, izendaturiko lekuan harri bat jartzeko agindu zuen. Eta gudarosteak hori egin zuenean, bertan harri-pila handiak utzirik, gudarostea abiarazi zuen.

93. Eta Istrora iritsi baino lehen beren buruak hilezkortzat dituzten getak²⁹⁷ hartzen ditu menpean. Izan ere Salmydeso okupatzen duten thraziarrek eta Apoloniaz eta Mesambria hiriaz goitik bizi direnek, hots, szyrmiadak eta nipseoak deritzatenek, beren buruak

borrokarik gabe entregatu zizkioten Dariori; getak, ordea, thraziarren artean adoretuenak eta zuzenenak izanik, setati jarri eta morroi eginak izan ziren berehala.

94. Eta hona nola uste duten hilezkor direla: sinesturik daude ez direla hilko eta, hiltzean, Salmoxis jainkoarengana joango direla; hala ere, hauetako batzuek horri Gebeleizis deritzate. Bost urtean behin, aldi oro, beren artean zozketaz suertatu den mezulari bat bidaltzen dute Salmoxisengana, une bakoitzean behar dutena enkargatuz. Eta honela bidaltzen dute: horretarako aginduak izan direnek hiru azkonei eusten diete; bitartean, besteek Salmoxisengana igorria izan denaren esku eta oinak alde banatatik hartu eta, airean kulunkatu ondoren, azkon-punten gainera jaurtitzen dute. Eta, aldenik alde zulaturik hil badadi, jainkoa beren alde dutela uste izaten dute; hil ezbadadi, berriz, mandatariari berari egozten diote errua, gizon gaizto bat dela esanez; eta, errudun egin ondoren, beste bat bidaltzen dute; eta enkargu ematen diote bizirik dagoen bitartean. Bestalde, thraziar hauek berek jainkoari ere mehatxu egiten diote, tximistari eta trumoiari gorantz zerualdera geziak jaurtiz, berena beste jainkorik ez delakoan.

95. Baina neuk Helesponton eta Ponton bizi diren heleniarrengandik jakin dudanez, Salmoxis hori, gizon bat zelarik, Samon esklabo izan zen eta Pythagoras Mnesarkhorena zerbitzatu zuen; gero, aske bilakatu zelarik, ondasun asko eskuratu omen zuen eta, eskuratu ondoren, bere lurraldera itzuli omen zen. Baina thraziarrak biziera txarrekoak eta tolesgabeak zirelarik, Salmoxis horrek, joniarren biziera ezagutzeaz gainera heleniarrekin eta

heleniarren artean jakintsurik ahulena ez zen Pythagorasekin harremanak izan zituenetz thraziarrenak baino burubide sakonagoak ezagutzen baitzituen, gizategi bat prestatu omen zuen; hemen, hiritarren arteko aitzindariak hartuz eta handiki oparituz, ez bera, ez bere gonbidatuak, ez eta hauengandik unean-unean sor zitezkeenak ere ez zirela hilko irakasten omen zien, aitzitik, betierean biziaz, onura guztiak izango zituzten leku horretara helduko zirela. Eta, aipaturikoak egiten eta esaten zituen bitartean, lurpeko egoitza bat eginarazi zuen. Eta, egoitza hori erabat amaitua izan zuenean, thraziarren artetik desagertu eta, beherantz jaitsiaz, lurpeko egoitzan bizi izan zen hiru urtean. Hauek, honen mira izan zuten eta, hiltzat emanez, negar egin zuten. Laugarren urtean, ordea, azaldu egin zitzairen thraziarrei eta horrela sinesgarri egin zitzairen Salmoxisek esan ziena. Hori egin zuela esaten dute.

96. Nik, neure aldetik, lurpeko egoitza horri buruz, ez sinesgogor naiz ez eta gehiegi sineskor ere, aitzitik, Salmoxis hori Pythagoras baino urte asko lehenago bizi izan zelakoan nago. Dena dela, nahiz Salmoxis gizon bat izan dela nahiz bera getentzat herriko jainko dela, hor konpon! Getak honelakoxeak direlarik, persiarrek eskua ezarri zietenean gainerako gudarosteari jarraitu zioten.

97. Eta Dario eta honekin batera oinezko gudarostea Istroraino iritsi zenean, guztiek ibaia igaro ondoren, Dariok joniarren, zubia desegin eta berauek eta itsasuntzietako gudarosteak lehorrez jarrai zekizkiola agindu zien. Joniarrak zubia desgin eta agindutakoa egitera zihoazela, Koes Erxandrorenak, mytilenatarren gudalburu zenak, honako hau esan zion Dariori, lehendabizi bere iritzia azaldu nahi zuenari entzutea atsegin izango zitzaion jakin ondoren: "Oi errege, ez nekazalgorik,

ez biztanledun hiririk azalduko ez den lurraldera zoaz gerran; laga ezazu, bada, zubia zutik dagoen lekuan, zubia egin duten horiek beraren zaintzaile utziz. Eta baldin, pentsatu bezala, szythiarrak topatzea lor badezagu, izango dugu itzulbiderik, eta, topa ez baditragu, itzulbide segurua izango dugu hori; ez bainaiz szythiarrek guduan bentzutuko gaituzten beldur; aitzitik, beldurrago naiz haiek aurkitu ezinik noraezean gabiltzala ez ote dugun zoritxarren bat jasango. Norbaitek, esan ere, esan lezake gauzok neure onagatik esaten ditudala, bertan gera nadin, alegia; baina nik, errege, zuretzat hoberena aurkitzen dudan iritzia aurreratzen dizut; edonola ere, ni zuri jarraituko natzaizu eta ez zintuzket utziko". Dario liluraturik geratu zen adierazpen honekin, eta honela erantzun zion: "Lesbiar atzerritarra, ni neure etxera onik itzultzen banaiz, ager hakit oroz gainetik, kontseilu baliotsuaren ordainez egintza baliotsuz sari zaitzadan".

98. Hori esan eta, uhal baten hirurogei korapilo egin ondoren joniarrak tyranoei hitzaldira deituz, honela hitz egin zien: "Joniarrak, lehen agertu dizuedan zubiarekiko erabakia bertan behera uzten dut; ordez, uhal hau zeuekin duzuela, egizue honako hau: ni szythiarren aurka abiatzen ikusi orduko, une horretatik hasiz, egunean-egunean korapilo bat aska ezazue; eta epe honetan ager ez banadi, aitzitik, korapiloek dagozkien egunak igaro badakizkizue, itzul zaitezte itsasoz zeuen herrira. Baina ordurarte, horrela erabaki dudanez, zain ezazue untzizko zubia, honen iraupenean eta zaintzan irrika guztia ipiniz. Eta, hori egiten baduzue, poz handia emango didazue". Dariok hori esan ondoren, ahalik lasterren bideari ekin zion.

99. Thrazia Szythiaren aurretik dago itsasaldera. Lurralde hartatik hedatzen den golkoaren hurrena dator Szythia, eta lurralde honetan barrera isurtzen da Istro, bere ahoa ekialdeko haizera zuzenduz. Eta Szythiaren neurketarako Istrotik hasiz haren itsasaldeko zatia deskribatzera noa. Istrotik hasten da jada antzinako Szythia, eguerdirantz eta hego-haizerantz dagoena, Karzinitide deritzan hiriraino iritsiz. Eta hemendik hasi eta itsaso bereraino hedatzen den zati horretan, lurralde menditsua izanik eta Ponton barruratzen delarik, tauroar herria sailkatzen da Trakheoa deritzan khersonesoraino²⁹⁸; eta hau ekialdeko haizera dagoen itsasoraino iristen da. Izan ere, Atikan bezalaxe, mugetatik alde bi itsasora hedatuak daude: eguerdirantz bata eta egunsentirantz bestea; eta, harekiko kidetasunari jarraituz, Atikan Thorikotik Anaphlystoko demoraino [lurmuturraren antzera] itsasoan barruratzen den Sunioko tontorrean athenastarrak ez baina beste herri bat sailkatuko balitz bezala sailkatzen dira tauroarrak ere Szythian. Gauza txikiak handiekin aldera daitezkeen neurrian esaten dut hori. Horrelakoa da Taurika. Baina Atikako alde horiek untziz inguratu ez dituenari, beste era batera azalduko diot: Japygian Brentesioko portutik hasi eta Tarentoko porturaino muga bat ebaki eta lurmuturrean japygiarra ez den beste herri bat kokatuko balitz bezala da. Eta, bi tontor horietaz hitz egitean, Taurikaren antzekoak diren beste askoz ari naiz.

100. Jarraian, Taurikatik aurrerako zatiari dagokionez, szythiarrak sailkatzen dira tauroarrez goitik eta ekialdeko itsasorantz dauden lur sailetan, hots, Zimeriar Bosporotik eta Meatide aintziratik sortaldera beronen hondora isurtzen den Tanais

ibairainokoetan. Bestalde, Istrotik aurrera, gorantz lurbarrura zuzentzen diren sailei dagokienez, lehenik agathyrsoek mugatzen dute Szythia, neuroek ondoren, androphagoek hurrena eta melankhlenoek azkena.

101. Szythia, bada, alde bi itsasora jaisten zaizkion tetragono bat delarik, lurbarruan zuzentzen den zatia eta itsasertzean zuzentzen dena alde orotatik berdinak dira. Izan ere, Istrotik Borysthenesa hamar eguneko bidea dago eta beste hamar Borysthenestik Meatide aintziraraino. Bestalde, itsasotik lurbarrura, szythiarrez goitik bizi diren melankhlenoenganaino hogeit hamar eguneko bidea dago. Eta egun bateko bidea berrehun estadio dela jotzen dut. Horrela, Szythiaren zeharkako neurria lau mila estadiokoa eta lur barrurako zutia beste horrenbestekoa izan daiteke. Horrexen handia da, bada, lur hori²⁹⁹.

102. Dena den, szythiarrak jabetu baitziren ez zirela Darioren gudarostea aurrez aurre berak bakarrik kanporatzeko gauza, madatariak bidali zituzten auzokoengana; hauen erregeak ere, elkarrengana bildurik, erabakiak hartzen ari ziren, gudaroste handi bat gaineratzen zitzaielako. Bildurik zeuden erregeak, tauroarrenak, agathyrsoenak, neuroenak, androphagoenak, melankhlenoenak, gelonoenak, budinoenak eta sauromatenak ziren.

103. Horietatik tauroarrek honelako ohiturak erabiltzen dituzte. Birjinari naufragoak eta itsasoan jazarritz harrapa ditzaketen heleniarrak opaltzen dizkiote era honetan: hasierako erritoak burutu ondoren, buruan jotzen dute mazo batez. Batzuek esaten dute gorpua amildegitik behera botatzen dutela (santutegia amildegi gainean eraikia baitago) eta burua hesola batean ezartzen dutela;

aldiz, beste batzuk bat datoz buruarekikoan, baina gorpua ez dutela amildegitik botatzen diote, aitzitik, lurlean ezkutatzen dutela. Eta opari egiten dioten jainkozko hori Agamemnonen alaba Iphigenia dela esaten dute tauroarrek berek. Eskura ditzaketen arerioei, berriz, hona zer egiten dieten: bakoitzak arerioari burua moztu eta bere egoitzetara eramaten du; ondoren, hesola handi baten puntan sartuz, goi-goian, egoitzaren goreneko lekuan jartzen du, kebidearen gainean bereziki. Buru horiek egoitza osoaren zaindari bezala daudela diote, goian jarriarik. Bizi ere, harrapakinetik eta gerratik bizi dira.

104. Agathyrsoak, berriz, guztiz gizon finak eta, batez ere, urre-apaindura daramatenak dira. Emakumeekiko harreman komuna burutzen dute, elkarren ahaide izan daitezen eta, guztiak etxeko izanez, elkarren aurkako bekaizkeriarik, ez gorrotorik izan ez dezaten. Gainerako ohituretan thraziarrengana hurbiltzen dira.

105. Neuroek, ordea, szythiar ohiturak erabiltzen dituzte, eta Darioren gerraratze hau baino belaunaldi bat lehenago sugeengandik lurralde osoa utzi behar izan zuten. Izan ere, lurraldeak suge asko sortzen zituen, baina gehienak goialdeko eremuetatik jausi zitzaizkien, hauek larriturik beren lurra utzi eta budinoen artean bizitzen jarri ziren arte. Bestalde, baliteke gizon horiek sorgin izatea. Bada, szythiarrek eta Szythian bizi diren heleniarrek, neuro bakoitza urtean behin, egun gutxitan bederen, otso bihurtu eta berriro nor bere itxuran jartzen dela esaten dute. Baina, hori esatean, ni neu ez naute konbentzitzen; hala ere, ez dute gutxiago baieztatzen eta, baieztatu ere, zin eginez baieztatzen dute.

106. Bestalde, androphagoek dituzte gizon guztietan ohiturarik basatienak, ez baitute zuzentasunik ezagutzen, ez inolako legerik erabiltzen. Nomadak dira eta szythiarren antzeko jantziak

eramaten dituzte, baina mintzaira berezia [dute] eta herri horietatik antropofago bakarrak dira.

107. Melankhleno guztiek, beren aldetik, jantzi beltzak eraman ohi dituzte; hauetatik datorkie goitizena ere; eta szythiarren ohiturak erabiltzen dituzte.

108. Budinoak, berriz, herri handi eta ugaria izateaz gainera, hagitz begiargiak eta ilegorriak dira osoro. Eta beren artean badute zurez eraikitako hiri bat; hiri honek Gelono du izena; eta horma-hesiaren luzera, alde bakoitzari dagokionez, hogeita hamar stadiokoa da, altua, eta guztia zurezkoa, eta berauen etxeak eta santutegiak ere zurezkoak dira. Hain zuzen, bada bertan heleniar jainkoen santutegirik, heleniarren erara zurezko imajinez, aldareez eta tenpluez horniturik, eta Dionysoren goralmenez hiru urtez behingo jaiak eta bakkhoak ospatzen dituzte. Izan ere, gelonoak jatorriz heleniarrak dira, baina, itsas emporioetatik alde eginez, budinoen artean egoitzatu ziren; eta erdi szythiarra, erdi heleniarra den mintzaira erabiltzen dute.

109. Alabaina, budinoek ez dute gelonoen hizkuntza bera erabiltzen, eta ez dute biziera bera ere; izan ere, budinoak, bertakoak izanik, nomadak dira, eta, horko herrien artean pinazijale³⁰⁰ bakarrak dira; gelonoak, ordea, lur-langile, ogijale eta baratzen jabe direlarik, ez itxuraz eta ez kolorez dira berdinak. Hala ere, nahiz eta ez zuzen deitu, heleniarrek budinoei ere gelonoak deitzen diete. Bestalde, hauen lurralde osoa edotariko oihanez estalia dago; eta oihanik zabalenean aintzira handi eta sakon bat dago eta honen inguruan zingira eta kanaberadia. Aintzira horretan igarabak, kastoreak eta mutur karratuzko beste piztiak harrapatzen dira; hauen larruz azpiltzen dira zamarra-ertzak,

eta berauen barrabilak umetokien sendakuntzarako baliagarri dira.

110. Sauromatei buruz honela kontatzen da: heleniarrak amazonen³⁰¹ aurka borrokatu zirenean (aldiz, szythiarrek amazonei oiorpata deritzete, eta badaiteke deitura honek heladeraz "giza eraile" adieraztea, gizonari oior eta eraileari pata baiteritzete), orduan, esan ohi da, heleniarrak Thermodonteko guduan garaitu eta bizirik harrapatu ahal izan zituzten amazona guztiak hiru itsasuntzitan eramanez, itsasora irten zirela, baina hauek, itsasoan oldarturik, gizonak kanpora bota zituztela. Berauek, ordea, ez omen zekiten untziei buruz ez lemarik, ez belarik, ez arraunik erabiltzen; aitzitik, gizonak kanporatu zituztenetik uhinaren eta haizearen erara eramanak ziren; eta Meatide aintziran Kremnosa iritsi ziren. Kremnos, berriz, szythiar askeen lurraldean dago. Hemen amazonak untzietatik lehorreratu eta biziterrira bideratu ziren. Eta, lehenengo zalditaldea topatu zuten orduko, harrapatu eta zaldi gainean jarritz, szythiarren ondasunak harrapakatzeari ekin zioten.

111. Szythiarrek, beren aldetik, ezin zuten gertaera ulertu; ez baitzuten ezagutzen ez haien hizkuntzarik, ez jantzirik, ez herririk; alderantziz, nondik etorri ote ziren harriturik zeuden; bestalde, adin gazteko gizasemetzat zeuzkaten eta hauen aurkako borrokari ekin zioten. Borrokaren ondorioz, szythiarrak hildakoen gorpuez jabetu ziren eta horrela jakin zuten emakumeak zirela. Hau zela eta, elkarrekin eztabaidatuz, jada haiek inola ere ez hiltzea, aitzitik, beretako mutilik gazteenak emakume haiengana bidaltzea erabaki zuten, beraiek osatzen zuten besteko kopurua berdinduz; mutil gazteok emakumeengandik hurbil kanpatu eta hauek egiten zutena bera egin behar zuten; eta, baldin jazartzen bazituzten, ez zuten borrokan egin behar, ihes baizik;

eta jazartzeari uzten ziotenean, berriro etorriz, hurbil kanpatu behar zuten. Szythiarrek haiengandik umeak izan naiz erabaki zuten hori.

112. Eta mutil gazteek, bidaliak izan ondoren, aginduak bete zituzten. Amazonek, beren aldetik, gazte haiek ez zirela ezeren kalterako etorri jakitean, bakean utzi zituzten; baina egunetik egunera kanpamendua kanpamenduarengandik hurbilago zegoen. Eta amazonek ez zuten bezala, mutil gazteek ere ez zuten berekin beste ezer, armak eta zaldiak izan ezik; are gehiago, haien biziera bera bizi zuten, ehizatuz eta harrapakatuz.

113. Eguerdi aldera amazonek hau egiten zuten: beren eginbeharretarako elkarrengandik urrun sakabanatuz, banaka eta binaka barreiatuak gertatzen ziren. Szythiarrak, oharturik, horixe bera egiten hasi ziren. Eta bat, bakarti zegoen haietako bati gaineratu zitzaion eta amazonak ez zuen gaitzetsi, aitzitik, beraz baliatzen utzi zion. Hitz, ezin zuen hitz egin (ez baitzuten elkar ulertzen), baina, eskuz, biharamunean leku berera etor zedila eta lagun bat ekar zezala esan zion, bi izan behar zutela eta berak ekarriko zuela bestea adieraziz. Eta mutil gaztea itzuli zenean, gainerakoei kontatu zien hori; eta biharamunean esandako lekura etorri zen bera eta berekin ekarri zuen laguna, eta amazona bere lagunarekin itxaroten aurkitu zuen. Gainerako mutil gazteek hori jakitean, berauek ere adiskidetu egin ziren gainerako amazonekin.

114. Eta ondoren, kanpamenduak elkartuz, batera bizi ziren, bakoitzak lehen aldiz elkartzean lagun izan zuen emakumea berekin zuelarik. Bestalde, gizonak ezin zuten emakumeen mintzaira ikasi,

baina emakumeek ulertzen zuten gizonena. Elkar ulertu zutenean, ordea, gizonak hau esan zieten amazonei: "Guk baditugu gurasoak, baita ondasunak ere. Beraz, jada ez dezagun luzaroago honelako biziera eraman, aitzitik, itzuliz, bizi gaitezen gure herrian; zuek izango zaituztegu emazte eta ez beste inor". Hauek hona zer erantzun zioten horri: "Gu ezin bizi izango ginateke zuen emakumeekin; guk eta haiek ez baititugu ohitura berak. Gu geziak eta azkonak jaurtitzen eta zaldi gainean ibili ohi gara, eta emakume-lanik ez dugu ikasi; zuen emakumeek, berriz, guk aipatu ditugun horietatik deus ez dute egiten, aitzitik, gurdietan geratuz, emakume-lanak egiten dituzte, ez ehizara joan eta ez beste ezer egin gabe; beraz, ezin izango ginateke haiekin bat etorri. Baina emaztetzat gu izan eta guztiz zuzenak eman nahi baduzue, zeuen gurasoengana joan eta har ezazue dagokizuen ondasun-parte eta gero, etorritz, bizi gaitezen geure baitan".

115. Mutil gazteak esanera jarri eta hori egin zuten. Baina zegokien senipartea hartu eta amazonengana itzuli zirenean, emakumeek hau esan zieten: "Beldurrak eta izuak hartuak gaude lurralde honetan bizi beharraz, batetik gurasoengandik banandu baitzaituztegu eta bestetik zuen lurra askotan hondatu baitugu. Alabaina, gu emaztetzat izatea ontzat hartzen duzuenez, egizue hauxe gurekin batera: ea! irten gaitezen lurralde honetatik eta, Tanais ibaia zeharkatuz, bizi gaitezen bestaldean".

116. Mutil gazteak horretara ere jarri ziren. Eta Tanais zeharkatuta gero, hiru eguneko bidea egin zuten Tanaistik sortaldera, eta hiru egunekoa Meatide aintziratik ipar-haizerantz.

Eta gaur egun bizi diren lurralde horretara iritsi ondoren, bertan jarri ziren bizitzen. Eta geroztik sauromaten emakumeek antzinako biziera daramate, eta beren gizonekin batera edo gizonengandik aparte ehizarako irteerak egiten dituzte zaldi gainean, eta gerrara joaten dira eta gizonek daramaten jazkera bera eraman ohi dute.

117. Hain zuzen, sauromatek szythiarren hizkera erabiltzen dute, antzinatek solezismoz hitz egiten dutelarik, amazonek ez baitzuten egoki ikasi. Eta ezkontzari buruz honelako arauak dituzte: neskatxa bat bakarrik ere ez da ezkontzen lehendabizi etsaietako gizon bat hil ez badeza. Eta haietako batzuk zaharrik ere hiltzen dira ezkondu gabe, arau hori bete ahal izan ez dutelako.

118. Beraz, aipatu ditudan herri horien errege-biltzarrerara szythiarren mandatariak iritsi zirenean, hitz egiten hasi ziren, jakinaraziz nola Persiarra³⁰², beste kontinentean zeuden gauza guztiak bere menpean jarri ondoren, Bosporoko itsas zintzurra zubiz uztartu eta beraien kontinentera igaro zen, eta nola thraziarrak menperatu ondoren Istro ibaian zubia egiten ari zen, bertako lur haiek denak ere menperatu nahiz. "Beraz, zuek ez zaitezte inola ere, auzitik at geratuz gure hondatzeaz axolagabe izan; aitzitik, asmo berarekin aurre egin diezaiogun erasotzaileari. Ez al duzue, bada, hori egingo? Guk, estuturik, edo lurraldea utzi beharko dugu edota, geratzen bagara, hitzarmenaz baliatu beharko dugu. Bada, zer gerta dakiguke zuek lagundu nahi ez badiguzue? Horren ondoren, ordea, zuentzat ez da arazo arinagoa izango; izan ere, Persiarra ez da gure aurka zuen aurka baino axola gehiagoz etorri; eta gu menperatzea ez zaio aski izango zuengandik aldentzeko. Eta adierazpen hauen froga handi bat emango dizuegu: zeren, lehen izan zuten gurekiko morrontza mendekatu nahiz,

persiarra gure aurka bakarrik gerraratu balitz, beste guztiengandik aldentu eta gure sorterriaren gainera baizik ez zuen jausi behar, eta argi geratuko zitzaien guztiei szythiarren aurka zetorrela eta ez besteen aurka. Orain, ordea, kontinente honetara igaro den orduko, aldi oro oin aurrean dituen herri guztiak ari da eskuratzen. Eta, beste thraziarren artean gure auzo diren getak ere bere agindupean ditu".

119. Szythiarrek eskakizun hori egin ondoren, herrietatik etorritako erregeak eztabaidatzen hasi ziren, eta beren arteko iritzia aldebaturik geratu ziren. Gelonoa, budinoia eta sauromata iritzi bereko izanik, onartu egin zuten szythiarrei laguntzea; agathyrsoak, neuroak, androphagoak eta melankhlenoen eta tauroarren erregeak, berriz, hona zer erantzun zieten szythiarrei: "Persiarrak iraindu eta gerrari hasiera ematen zeuok ez bazinete lehenengoak izan, orain eskatzen duzuen hori eskatzean zuzen ari zaretela irudituko litzaiguke, eta guk, esanera jarritz, zuekin bat egingo genuke. Zuek, ordea, gu gabe haien lurrera oldartuz, jainkoak eman zizuen adina denboran izan zenituzten zeuen menpe, eta haiek, jainko berak jaikiarazi baititu zuen aurka, irain bera ordaintzen dizute. Baina guk ez orduan iraindu genituen gizon horiek, ez orain izango gara lehenak irainari ekiten. Alabaina, gure herriaren aurka baletor eta irain egiten has balitez, guk ere ez diegu men egingo. Hori ikus dezagun arte, ordea, geurean geratuko gara; ez baitugu uste persiarrak gure aurka datozenik, irainbide izan zirenen aurka baizik".

120. Szythiarrek, ekarritako erantzunaz jabetu zirenean, herri horiek gudulagun bezala bateratzen ez zitzaizkienez,

aurrez aurreko borroka irekirik ez egitea erabaki zuten; aitzitik, azpika-azpika atzeratuz eta atzeraka borrokatuz, alboan igarotzen zituzten putzuak eta iturriak lurrez bete eta lurreko belartza ezabatu behar zuten, beren buruak bitan taldekatu ondoren. Sail bati, Skopasis errege zuenari, sauromatak batuko zitzaizkion; hauek, Persiarra alde horretara itzuliz gero, azpika atzera jo behar zuten, zuzen Meatide aintziraren alboan barrena Tanais ibaira erretiratuz; eta Persiarrak alde batera uzten bazituen, gainera jausiz, jazarri egin behar zuten. Horixe zen, alde batetik, szythiarrek zuten erresumako sail bat, aipatua izan den bidearen kargua hartu zuena. Bestalde, bi erresumetako sailek, handienaren buru Idanthyrso eta hirugarrenaren errege Taxazis zelarik, elkar egin eta, gelonoek eta budinoek beraiekin bat egin ondoren, hauek ere, egun bateko bidean persiarren aurretik jarriaz, azpika atzera joan behar zuten, amore emanaz eta erabakitakoa eginez: beraz, lehenik, zuzenean, gudulaguntza ukatu zietenen lurraldeetara egin behar zuten atzeraka, hauek ere gerrara bultzarazteko; eta persiarren aurkako gerran beren gogoz sartu ez baziren ere, gogogabe ekin beharko zuten; eta horren ondoren, beren lurrera itzuli eta eraso egin behar zuten, eztabaidatzean ongi iruditzen bazitzaien.

121. Hori erabaki ondoren, szythiarrak Darioren gudarostearengana irten ziren, aurrelari zaldunik hoberenak bidaliz. Eta beren ume eta andreen bizitoki ziren gurdi guztiak ez ezik, abere oro, mantenurako aski zitzaien adina atzean utziz, gainerakoak gurdiekin batera aurretik bidali zituzten, etengabe iparraldera jotzeko aginduz.

122. Horiek, bada, urrutiratu egin zituzten, eta szythiarren aurrelariak persiarrak Istrotik hiru eguneko bidean topatu zituztenean, topatu eta egun bateko bidean aurretik jarritz kanpatu ziren, lurreko landareak suntsituz. Persiarrak, beren aldetik, szythiarren zaldieria azaltzen ikusi zutenean, etengabe atzeraka zihoaztenen bideari jarraitu zioten. Eta ondoren (bakarra zen sailaren kontra jo baitzuten), persiarrak ekialdeko bidean Tanaisera jazarri zituzten. Eta haiek Tanais ibaia zeharkatu zutelarik, persiarrak honen barrena jarraitu zieten, sauromaten lurraldea igaro ondoren budinoenera heldu ziren arte.

123. Zinez, persiarrak, szythiarren eta sauromaten lurraldean barrena joan ziren bezainbat denboran, deus ez zuten arpilatu ahal izan, lurraldea gorri baitzegoen; baina, budinoen lurraldera jausi zirenean, zurezko hiriarekin topatzean, budinoek abandonatu eta gotorlekua orotarik hustua baitzegoen, su eman zioten. Eta hori egin ondoren, etengabe szythiarren bideari jarraitu zioten, lurralde hori igaro eta eremura iritsi ziren arte. Bestalde, eremu horretan ez da inolako gizonik sailkatzen, eta budinoez goiko lurraldean dago, zabalean zazpi eguneko bidea duelarik; eremuz goitik thysagetak bizi dira, eta, hauengandik lau ibai handi, meatarren artean barrena korrituz, Meatide deritzan aintzirara isurtzen dira; hona horien izenak: Lyko, Oaro, Tanais, Syrgis.

124. Beraz, Dariok, eremura iritsi zenean, ibilia geratuz, Oaro ibaiertzean finkatu zuen gudarostea. Eta, hau egin zuenean, zortzi gotorleku handi harresitu zituen, bata bestearengandik tarte berdina zutenak, hirurogei bat estadio gutxi gora-behera; haien hondakinak oraindik nire garaian baziraute. Eta hura

lan hauetara itzulia zegoen bitartean, jazarriak ziren szythiarrak, goialdetik bira eginez, Szythiara itzuli ziren. Eta, hauek erabat desagertu zirelarik eta haiei jada agertzen ez zitzaizkienez, egoera honetan Dariok gotorleku haiek erdi eginean utzi zituen eta, atzera joaz, mendebaldera abiatu zen, szythiar guztiak haiek ziren ustean eta mendebaldera ihes egin zutelakoan.

125. Gudarosteari guztiz bizkor eraginez Szythiara iritsi zenean, szythiarren sail bikoitzarekin topatu zen, eta, topo egin ondoren, atzetik eraso zien, haiek egun bateko bidean aurretik zihoazela. Eta Dariok ez baitzion erasotzeari uzten, szythiarrek, erabakien arabera, bere gudulaguntza ukatu zietenengana ihes egin zuten, eta lehenik melankhlenoen lurrera. Eta, szythiarrek eta persiarrek, gainera jausiz, hauek asaldatu zituztenean, szythiarrek androphagoen lurraldeetara erakarri zituzten; eta, hauek ere asaldatu zituztenean, Neuridera atzeratu ziren, eta, hauek ere asaldatu ondoren, szythiarrek, beren azpi-ihesean, agathyrsoengana jo zuten. Eta agathyrsoek, beren mugakideak szythiarrengandik ihesi eta asaldatuak ikustean, szythiarrak berengana jausi baino lehen, mezularia bidaliz, beren mugak gaingitza galarazi zieten, beren gain jausten saiatzen baziren lehenik haien aurka borrokatuko zirela oharraraziz. Agathyrsoak, ohar honen ondoren, mugei laguntza ematera abiatu ziren, gainera zetozenak atzerarazteko asmoz; melankhlenoek, androphagoek eta neuroek, berriz, persiarrak szythiarrekin batera sartu zitzaizkienean, ez zuten defentsara jo, eta, mehatxuaz ahazturik, etengabe iparraldera bidean, eremura ihes egin zuten asalaturik. Baina szythiarrak ez ziren jada abiatu agathyrsoengana, galarazi egin zieten; aitzitik, neuroen lurraldetik berenera erakarri zituzten persiarrak.

126. Eta azpijoko hori askotan egiten baitzen eta, amaitu ere, ez baitzen amaitzen, Dariok szythiarren errege Idanthysorengana zaldun bat bidaliz, honela mintzatu zitzaion: "Demonio alaena! zergatik habil etengabe ihesi, bi hauetakoren bat egin ahal izanik? Heure buruari nire indarrei aurre egiteko gai irizten badiok, hago!, eta, hara-hona ibiltzeari utziz, ekiok borrokari; aitzitik, ahulagoa haizela ezagutzen baduk, era horretan ere, korritzeari utzi eta, heure nagusiari emaritzat lurra eta ura bidaliz, hator hitz egitera".

127. Hitz horiei honela erantzun zien szythiarren errege Idanthysok: "Persiarra, nirea honela zegok: lehen ez diat inongo gizonen beldurrez ihes egin eta orain ere ez diat hiregandik ihes egiten; bakealdian egin ohi ez nuen gauza berririk ez nauk orain egiten ari. Eta zergatik ez naizen berahala borrokatzen, hori ere azalduko diat; guk ez diagu ez hiririk, ez landaturiko lurrik, hauek suntsituko edo ebakiko dizkiguten beldurrez zuekin berehala borrokan nahas gaitezen. Baina, dena den, berehalakoan horretara iritsi behar bada, badiagu halabeharrez gurasoen hilobirik. Ea! horiek idoro eta saia zaitezte profanatzen, eta orduan jakingo duzue hilobiengatik zuekin borrokan egingo dugun ala ez dugun egingo. Lehenago, ordea, burutapenak ez badigu ematen, ez gaituk borrokan nahasiko zuekin. Aski bedi horrenbestez borrokari buruz esandakoa. Nire nagusiei dagokienez, berriz, Zeus nire arbasoa eta Histia szythiarren erregina bakarrik zauzkaat nagusitzat. Eta, emaritzat, lurraren eta uraren orde, hiri dagokian bezalako opariak bidaliko dizkiat, eta, nire nagusi haizela dioanaren orde, "negar egingo duk" esaten diat". [Szythiarren esamoldea da hori].

128. Mezularia Dariori erantzun hori iragartzera abiatu zen; szythiarren erregeek, berriz, morrontzaren izena entzun zuten orduko, haserre betean jarri ziren. Sauromatekin batera lerrokaturiko saila, Skopasisek agintzen zuena bidali zuten, Istro uztartzen zuen zubiaren zaintzaile ziren joniarrakin akordiora heltzeko aginduz; eta, beraien artean geratu zirenek jada persiarrak hara-hona ibilarazi ez baina, janariak jasotzen zihardutenero erasotzea erabaki zuten. Beraz, Darioren gudariak janaria jasotzen ari ziren unea zaindu eta erabakitakoa egiten zuten. Szythiarren zaldieriak atzea emanarazten zion beti beste zaldieriari; persiar zaldunek, ordea, ihes egitean, oinezkoengana jotzen zuten eta oinezkoek babesten zituzten; szythiarrek, beren aldetik, beste zaldieriari atzera eginarazi ondoren, itzuli egin ohi ziren oinezkoen beldurrez. Eta szythiarrek gauetan ere egin ohi zituzten antzeko erasoak.

129. Eta Darioren kanpamenduari erasotzean, persiarrentzat aldeko eta szythiarrentzat aurkako zena, -gauza guztiz harrigarria esatera noa-, astoen arrantza eta mandoen itxura zen. Lehenago ere azaldu dudanez, Szythiako lurak ez du ez astorik, ez mandorik ekoizten; eta Szythiako lurralde osoan, hotzak direla eta, ez dago inola ere ez astorik, ez mandorik. Beraz, astoak harrotzean, szythiarren zaldieria asaldatzen zuten. Eta sarri persiarren aurkako erasoaren erdian, zaldiek astoen arrantza entzuten zutenean, asaldaturik atzea eman ohi zuten eta harriturik geratzen ziren, belarriak tente zituztela, lehenago horrelako hotsik eta horrelako abere-itxurarik ikusi gabe zeudelako. Beraz, hori gerrarako abantaila txiki bat zen.

130. Eta szythiarrek, persiarrak aztoratuak ikusten zituztenean, Szythian luzaroago gera zitezen eta, geratzean, ororen beharrez pena zitezen, hona zer egiten zuten: beren abereak

abeltzainekin atzean utzi eta beraiek azpika beste lurralde batera alde egiten zuten; orduan persiarrek, gaineratuz, abereak atzematen zituzten eta, atzeman ondoren, egindakoak suspertu egin ohi zituen.

131. Eta hori askotan gertatzen zelarik, azkenean Dario noraezean aurkitu zen, eta, szythiarren erregeek hori jakitean, mandatari bat bidali zioten Darioi emaritzat txoria, sagua, igela eta bost gezi zeramatzala. Orduan persiarrek emari-ekarleari emarien esanahiaz galdetu zioten; eta honek, emariak entregatu eta ahalik lasterren itzultzeko besterik ez ziotela agindu erantzun zien; hala ere, persiarrak, azkarrak baziren, emariok adierazi nahi zutena ulertzeraz bultzatu zituen. Hori entzun ondoren, persiarrak deliberatzen hasi ziren.

132. Hau zen, hain zuzen, Darioren iritzia: szythiarrek beren buruak, lurra eta ura entregatzen zizkiotela; emariei honela antz eman zien: "Sagua lurrean egoten da, gizonak ohi duen fruitu bera janaz; uretan, berriz, igela; aldiz, txoriak guztiz zaldiaren antza du, eta geziak beren boteretzat entregatzen dituzte". Iritzi hau azaldu zuen Dariok; baina iritzi honi Gobryasena, magoa hil zuten zazpi gizonetako batena kontrajarri zitzaion, emariei esanahi hau antzematzen baitzien: "Persiarrok! txori bihurtuz zerura hegatzeko, edo, igel bihurtuz putzuetara saltatzeko ez bazarete, gezi hauek jota, ez zarete berriz etxeratuko".

133. Persiarrek esanahi hori antzeman zieten emariei. Eta szythiarren sail bakarrak, lehen Meatide aintzira ertzean zaintza egiteko eta une hartan Istron joniarrarekin akordiora heltzeko agindua

zuenak, zubira iritsi zenean, hona zer esan zien: "Joniarrok! askatasuna ekarriz etorri gatzazkizue, entzun nahi badiguzue. Zeren, jakin, badakigu Dariok, zubia hirurogei egunean bakarrik zaindurik, epe honetan bera agertzen ez bazen zeuen sorterrira alde egiteko mandatua eman zizuela. Beraz, orain zuek hau egiten baduzue, haren eta gure erru-egozketatik at izango zarete: ezarritako egunetan geratu eta ondoren alde egizue etxera". Joniarrek hori egingo zutela agindu zutelarik, haiek ahalik lasterren itzuli ziren lehengo bidetik.

134. Eta emariak Dariorengana iritsi ondoren, atzean geratu ziren szythiarrak, nola oinezko hala zaldizko, persiarren aurrean lerrokatu ziren, erasotzeko asmoz. Baina, lerrokatuak zeudenean, erbi bat igaro zitzaien erditik; eta bakoitza, ikusi bezala, erbiaren atzetik abiatu zen. Eta szythiarrak asaldaturik eta zaratatsu baitzebiltzan, Dario arerioen zalapartaz jakinmendu zen; eta erbiaren atzetik zebiltzala jakitean, bere ohikoei hau esan zien besteren artean: "Gizon hauek asko gutxien gaituzte, eta garbi dago orain Gobryasek szythiarren emariez zuzen zioela. Beraz, niri ere jada gauzak horrela direla iruditzen zaidanez, ezinbestekoa da erabaki on bat, arrisku gabe etxera gaitzen". Hitz hauei honela erantzun zien Gobryasek: "Oi errege, nik, gutxi-asko, kontaeraz ere banekien gizon hauenganako bideraezina; heldzean, ordea, areago jabetu nintzen, adarra jotzen ari zitzaizkigula ikusiz. Orain, bada, nik, gaua heldu bezain azkar, besteetan ohi dugun bezala suak piztu ondoren, nekeetarako ahulen dauden soldaduak engainatu, asto guztiak lotu eta alde egin behar dugula deritzat,

szythiarrak Istrora zubia desegitera aurreratu edota joniarrak gu honda gaitzakeen zerbait erabaki baino lehen".

135. Hori kontseilatu zuen Gobryasek; eta ondoren gaua heldu zen eta Dario egitasmo horretaz baliatu zen: gizon nekatuak eta galtzea axola gutxien zitzaizkionak eta asto guztiak, loturik, han bertan era horretan utzi zituen kanpamenduan. Utzi ere, arrazoi honengatik utzi zituen astoak eta gudarosteko gizon ahulak: astoak, arrantza-hotsa sor zezaten; gizonak, berriz, ahultasunagatik utzi zituen, nahiz eta garbi aitzakia honengatik egin zuen: berak gudarosteko talde sanoarekin szythiarrei erasotzen zien bitartean, haiek denboraldi horretan kanpamendua defendatuko zutelakoan. Dariok hori geratzen zirenengan suposatuz eta suak piztu ondoren, ahalik lasterren Istrora bidean jarri zen. Bestalde, astoek, taldetik banandurik, are eta arrantza gehiago egiten zuten; eta szythiarrak, astoei entzunez, erabat sinesturik zeuden persiarrak lurralde hartan zeudela.

136. Eguna heltzean, ordea, geratu zirenek, Dariok saldu egin zituela ezagutzean, eskuak luzatu³⁰³ zizkien szythiarrei eta gertatzen ari zena kontatu zieten; eta hauek entzun zuten orduko, szythiarren sail bikoitza eta sauromatekin lerrokaturikoa eta budinoak eta gelonoak, elkarrengana itzuliz, persiarren atzetik zuzenean Istrora abiatu ziren. Baina, persiar gudarostearen gehiengoa oinezkoa baitzen eta bideak, ebaki gabe zeudenez, ez baitzituzten ezagutzen, bestalde, szythiarrena zaldizkoa baitzen eta bai baitzekiten lasterbidearen berri, gudaroste biek elkar huts eginez, szythiarrak askoz lehenago iritsi ziren zubira persiarrak baino.

Eta persiarrak oraindik ez zirela iritsi ikustean, honela mintzatu zitzaizkien untzietan zeuden joniarrak: "Joniarrak, igaro zaizue egunen kopurua eta ez duzue zuzen jokatzeko oraindik bertan egonez. Aitzitik, lehen beldur zinetelako geratu zinetenez, orain ahalik lasterren igarobidea desegin eta alde egizue, aske izateaz pozturik eta jainkoekin eta szythiarrekin eskerroneko izanez. Lehen zuen jaun zena jada inongo gizonen aurka gerraratuko ez den eran jarriko dugu guk".

137. Honen aurrean, joniarrak deliberatzen hasi ziren. Athenasko Milziades, Helespontoko khersonesoarren gudalburu eta tyrano zelarik, szythiarren esana egin eta Jonia askatzearen iritzikoa zen; horren aurkakoa zen, berriz, Miletoko Histieo, beraietako bakoitza Dariori esker zela orduan hiriko tirano³⁰⁴, esanez; Darioren agintea eraistean, ordea, ez berak miletoarrengan eta ez beste inork inorengan ez zuela agintzerik izango, hiri bakoitzak tiraniapean baino demokratikoki bizi izatea nahiago izango zuelako. Histieok iritzi hau azaltzean, berehala denak, lehen Milziadesena hautatu bazuten ere, iritzi horretara itzuli ziren.

138. Botoa eman zutenak eta erregearentzat estimagarri zirenak hauek ziren: helespontoarren tyrano bezala, Abydoko Daphnis, Lampsakoko Hipoklo, Parioko Herophanto, Prokonosoko Metrodoro, Zyzikoko Aristagoras eta Byzanzioko Ariston; hauek [ziren] Helespontoko tyranoak; Joniakoak, berriz, Khioko Stratis, Samoko Eazes, Phozeako Laodamas eta Miletoko Histieo, Milziadesen aurkako iritzia aurreratu zuena. Eoliarren artean, esatekorik, Zymeko Aristagoras zegoen soilki.

139. Beraz, hauek Histieoren iritzia hautatu zutenean, honen gehigarri, hau egitea eta esatea erabaki zuten: deus egin gabe zerbait egiten ari zirela eman zezan eta szythiarrak indarrez [eta nahiez] zubiaren eran Istro igarotzen saia ez zitezen, szythiarren aldetik zegoen zubiaren zatia, gezikada bat iristen zen hainbatekoa desegitea, eta, horrez gainera, Szythia aldera zegoen zatia desegiten ari ziren bitartean szythiarrei atsegin zitzaien guztia egingo zutela esatea. Neurri hauek gehitu zizkioten Histieoren iritziari eta, ondoren, guztien artetik Histieok erantzun zuen esanez: "Szythiarrok! proposamen baliotsuak ekarriz heldu zarete, eta une egokian heltzen ahalegindu ere. Zeuen aldetik gauzak era baliotsuan bideratzen dizkiguzue eta geure aldetik ere behar bezala ari gatzaizkizue zerbitzatzen. Zeren, ikusten duzuen bezala, iraganbidea desegiten ari gara eta ahalegin guztia jarriko dugu horretan, aske izan nahi baitugu. Baina, gu hori desegiten ari garen bitartean, zuek haien bila joan eta aurkitu ondoren, guregatik eta zeuengatik haietaz merezi bezala mendekatzeko une egokia da".

140. Szythiarrek, bigarrenez, joniarrak egia esaten zutela sinetsiz, persiarren bila itzuli ziren eta oso-osorik huts egin zuten haien ibilbidea. Baina hutsegite horren errudun szythiarrak berak izan ziren, bertan ziren zaldi-larreak hondatzean eta ur-putzuak estaltzean; bada, hori egin ez balute, nahi izanez gero, erraz aurkitu ahal izango zituzten persiarrak; baina, berehalakoan erabakirik hoberena hartu zutela iruditu bazitzaien ere, hor huts egin zuten. Izan ere, szythiarrak, zaldientzat belarra eta ura zegoen beren lurraldean barrena joanaz ibili ziren etsaien bila, hauek ere handik ihes egingo zutelakoan; persiarrak, ordea,

lehen berek eginiko oinatza zainduz joan ziren, eta horrela aurkitu zuten, nekez bederen, ibai-bidea. Eta, gauez iritsi eta zubia desegina topatu baitzuten, hezurretarrainoko beldurra sartu zitzairen joniarrak abandonatu egin ote zituzten.

141. Bazen, hala ere, Darioren inguruan hots egiten inor baino gehiago zena; gizon horri, Istroren ertzean jarraraziz, Histieo miletoarrari deitzeko agindu zion; hark horrela egin zuen, eta Histieok lehenengo aginduan esana eginez, untzi guztiak prest jarri zituen gudarostea igarotzeko eta zubia elkartu zuen.

142. Beraz, horrela ihes egin zuten persiarrek. Szythiarrek, beren aldetik, bigarrenez ere huts egin zuten persiarren bila, eta joniarrak, aske bezala, munduko gizonik gaiztoenak eta koldarrenak direla uste dute; esklabotzat hartzen badira, berriz, esklabo nagusizale eta ihesgaitz hutsak direla diote. Hauek dira, hain zuzen, szythiarrek joniarrari jaurtitzen dizkieten eztenkadak.

143. Eta Dario, Thrazian barrena, Khersonesoko Sestora heldu zen; hemendik untziz Asiara igaro zen, eta Europan Megabazo persiarra uzten du gudalburu; honi behin Dariok ohore egin zion, persiarren artean honelako hitzak esanez: Dario mingrana batzuk jatera zihoala, lehenengo mingrana ireki bezain azkar, anaia Artabanok zer nahi zezakeen galdetu zion mingranean zeuden aleak bezainbat ugari izatea. Dariok Helade menpeko izan baino nahiago zuela esan zion kopuruz horrenbeste Megabazo eduki. Hori esanez ohoratu zuen persiarren artean, eta bera utzi zuen orduan gudalburu bere gudarosteko laurogei mila gudariek.

144. Megabazok, bere aldetik, helespontoarren artean oroitzapen hilezko bat utzi zuen ondoko hitz hauek esatean;

izan ere, Byzanzion zegoela, lurralde hau khalzedondarrek byzanziarrek baino hamazazpi urte lehenago kolonizatu zutela jakin zuen, eta, jakitean, khalzedondarrak garai honetan halabeharrez itsu aurkitzen zirela esan zuen; izan ere, ez omen zuten lurralde arloteagorik hautatuko, ederrago bat izanda,itsuak izan ez balira³⁰⁵. Beraz, sasoi honetan helespontoarren lurraldean utzia izan zen Megabazo horrek mediarren zale ez zirenak menperatu egin zituen.

145. Megabazo ekintza horiek burutzen ziharduela, une horretan bertan gudarostearen beste irtenaldi handi bat gertatu zen Libyaren aurka, lehenik ondoren doana esanda gero zehazki azalduko dudan aitzakiarengatik. Argoko marinelen³⁰⁶ semeen semeek, athenastar emakumeak Braurondik harrapatu zituzten pelasgoek egotzi baitzituzten, Lemnotik egotziak izan zirelarik, Lazedemonera jo zuten untziz, eta, Taygeton kokaturik, sua piztu zuten. Lazedemondarrek ikustean, mandatari bat bidali zieten nortzuk eta nondikakoak ziren jakitearren; hauek mandatariari, galdetzean, minyarrak zirela erantzun zioten, Argon nabigatu zuten heroien semeak zirela, eta, hain zuzen, heroi hauek Lemnon lehorreratuz sortu zituztela haiek. Lazedemondarrek, minyarren jatorri-adierazpena entzutean, mandataria bigarrenez bidaliz, lurralde hartara zer asmorekin etorri ziren eta sua zergatik piztu zuten galdetu zieten. Hauek erantzun zieten pelasgoek kanporaturik arbasoengana etorri zirela, zeren guztiz bidezkoa zela hori horrela izatea; eta beraiekin batera bizitzea eskatzen zutela eskubideetan esku hartuz eta lursailetan partaide izanez. Lazedemondarrei laket izan zitzaien

minyarrak berauek nahi zuten baldintzatan hartzea; bereziki hori eginarazi ziena tyndaridek³⁰⁷ Argon egin zuten itsasaldia izan zen. Eta minyarrak berekin hartuz, lursaila eman eta beren leinuen barruan banandu zituzten. Eta haiek ezkontzak egin eta Lemnotik ekarri zituzten emakumeak besteei eman zizkieten emaztetzat.

146. Luzaro gabe, ordea, minyarrak lotsagabetu egin ziren, erregetzan esku hartzea eskatuz eta legezkoak ez ziren beste gauza batzuk eginez. Beraz, lazedemondarrek haiek hiltzea erabaki zuten eta, atzemanetz, presondegian sartu zituzten. Hil, gauez hil ditzaketenak hiltzen dituzte lazedemondarrek, bakar bat ere ez egunez. Beraz, haiek hiltzera zihoazela, minyarren emazteek, hiritarrak izateaz gainera spartar aitzindarien alabak zirelarik, presondegian sartu eta nor bere senarrarekin hizketaratzea eskatu zuten. Lazedemondarrek utzi egin zieten, emakumeongandik inolako iruzurrik sortuko ez zelakoan. Hauek, ordea, sartu zirenean, hona zer egin zuten: zeramaten jantzi oro beren senarrei eman eta beraiek senarrarena hartu zuten. Eta minyarrak, emakume-jantzia jantziz, emakume bezala kanpora irten ziren, eta, era honetan ihes egin ondoren, berriz Taygeton kokatu ziren.

147. Bestalde, garai honetan Theras Autesionena Tisamenorena Thersandrorena Polynizesena Lazedemondik kanpora zihoan kolonia bat eraikitza. Theras hori, Kadmoren jatorrikoa zelarik, Aristodemoren seme Eurysthenesentzat eta Proklesentzat amaldeko osaba zen; eta seme hauek oraindik adin txikikoak ziren bitartean, Therasek izan zuen Spartako errege-ordekotza. Baina ilobak hazi eta agintea eskuratzean, Therasek, agintea dastatu ondoren

lotsagarri baitzeritzan besteen agintepaan egoteari, ez zela Lazedemonen geratuko, aititik, bere odolekoengana itsasoratuko zela esan zuen. Hain zuzen, gaur egun Thera eta lehen beroni Kaliste zeritzan irlan pheniziar Membliarao Pezilesenaren ondorengo batzuk zeuden. Izan ere, Agenorren seme Kadmo, Europaren bila, egun Thera deiturikoan lehorreratu zen; eta, lehorreratzean, nahiz lurraldea atsegin izan zitzaiolako, nahiz beste arrazoiren batengatik hori egin nahi zuelako, dena den, irla horretan uzten ditu pheniziar batzuk eta hauen artean bere ahaideetako zen Membliarao ere. Hauek zortzi gizaldi zeramatzaten Kaliste izeneko irlan bizitzen, Theras Lazedemondik etorri zen arte.

148. Beraz, hauengana abiatu zen Theras, leinuetatik osaturiko jendetza bat berekin zuelarik, elkarrekin bizitzeko asmoz; inola ere ez haiek kanporatzeko, adiskide min izateko baizik. Bestalde, minyarrek presondegitik ihes egin eta Taygeton kokatu ondoren lazedemondarrek hauek hiltzeko erabakia hartzen ari zirela, Therasek ez zedila hilketarik gerta erregutu zien eta, hartu ere, bere gain hartu zuen haiek lurraldetik ateratzea. Eta lazedemondarrak burubide honekin ados jarri zirelarik, hiru triekonterotan³⁰⁸ Membliaraoren ondorengoengana itsasoratu zen, nahiz eta minyar guztiak ez zeramatzan, gutxi batzuk baizik. Izan ere, hauetako gehienak paroreatengana eta kaukonengana zuzendu ziren, eta hauek lurralde horretatik egotzi zituztenean, beren buruak sei sailetan banandu zituzten, eta bertan honako hiri hauek eraiki zituzten berehala: Lepreo, Mazisto, Phrixas, Pyrgo, Epio, Nudio; hauetako gehienak nire garaian elearrak suntsitu zituzten. Irlari, bere aldetik, kolonizatzailearengandik sortu zitzaion Thera deitura.

149. Baina honi semeak ez zela berarekin itsasoratuko esan baitzion, ondorioz "ardia otso artean" bezala utziko zuela erantzun zion; esaera honetatik sortu zitzaion gaztetxo [horri] Eolyko izena, eta izen hori nagusitu bide zitzaion. Eta Eolykorengandik sortzen da Egeo eta honengandik dator Spartako leinu handi batek duen egiden deitura. Bestalde, leinu horretako gizonen umeek ez baitzuten bizirik irauten, orakulu bat zela bide, Laioren eta Ediporen Erinyen³⁰⁹ santutegi bat eraiki zuten; eta horren ondoren bazirauten. Hain zuzen, hori bera gertatu zitzaion Theran ere gizon horiengandik sortutakoei.

150. Kontakizun horretaraino, bada, era berean mintzatzen dira lazedemondarrak eta theratarrak; baina hortik aurrera theratarrek bakarrik kontatzen dute honelako gertaera hau: Grino Esaniasena, Theras horren ondorengoa eta Thera irlako errege zelarik, Delphosa joan zen hiriaren aldetik hekatombe bat³¹⁰ eramanez; beste hiritarren artean Bato Polymnestorenak, minyarren artean sendiz euphemoarra zenak laguntzen zion. Eta Grino, theratarren erregea, orakuluari beste gaiez galdetzen ari zela, Pythiak Libyan hiri bat eraikitzeke erantzuten dio. Orduan erregeak hau esanez erantzun zion: "Ni, Jauna, zaharra naiz jada eta ekintzarako astuna; alabaina, agin iezaiozu hori egiteko gazte hauetakoren bati". Eta hori esatearekin batera Bato seinalatu zion. Horrenbestexegertatu zen orduan; baina gero, itzuli zirenean, ez zuten orakuluarena aintzat hartu, Libya lurreko zein lekutan zegoen ez zekitelako eta zeregin ilun batera kolonia bat bidaltzera ausartzen ez zirelako.

151. Eta honen ondoren Theran ez zuen euririk egin zazpi urtean; hauetan irlako zuhaitz guztiak ihartu ziren, bat izan

ezik. Eta theratarrek orakuluari galdera egin ziotenean, Phytia Libyako koloniarena aurpegiratu zien. Eta gaitzaren inolako konponbiderik ez zutelako, mandatariak bidali zituzten Kretara, kretarren bat edo metekoren³¹¹ bat Libyara joana zen ikertuz. Eta hara-hona ibili ondoren, Itano hirira ere iritsi ziren, eta hemen Korobio izeneko purpura-arrantzale batekin elkartu ziren, zeinak haizeek eramanik Libyara eta Libyan Platea irlaraino iritsi zela esan zien. Eta hau, sari bidez berenganatuz, Therara eraman zuten, eta Theratik miatzaile batzuk, lehenik ez asko, itsasoratu ziren; eta Korobiok Plateako irla honetara gidatu ondoren, bertan utzi zuten Korobio, hainbat hilabeteetarako jakiak ondoan utziz; eta berak lasterka bizian itsasoratu ziren irlaren berri theratarrei emateko.

152. Baina hauek kanpoan, hitzarturikoa baino denbora gehiago egon zirenez, Korobio ororen faltan geratu zen. Ondoren, ordea, samoar untzi bat, patroï Kileo zuena, Egyptora zihoala, bere bidetik Platea horretara eramana izan zen; eta samoarrek Korobiorengandik istorio guztia jakin zutenean, urte beterako jakiak utzi zizkioten. Eta berauek, irlatik itsas zabalera joaz eta Egyptoren irrikaz nabigatzen zuten, sortalde-haizeak desbideratuz. Eta haizea ez baitzen geratzen, Heraklesen Zutabeak igaro eta jainko-laguntzaz baliaturik, Tartesora iritsi ziren. Garai honetan emporion hau ukitu gabe zegoen; hainbestearaino ezen, horiek berriz itzultzean, guk zehazki dakizkigunetatik bederen, heleniar guztien artean haiek atera zuten etekinik handiena garraioetatik, eginar Sostrato Laodamasenaren hurrena; ez baita beste inor honekin lehia daitekeenik. Eta samoarrek etekinen hamarrena -sei talentu³¹²- bereizi ondoren,

argostarraren erako brontzezko kratera bat egin zuten; honen inguruan grypoen buruak lerrokatzen dira; eta Hereoan eskaini zuten, honen pean, belaun gainean tinko, zazpi beso altu zen brontzezko hiru koloso zeudelarik. Eta egintza honetatik sortu ziren lehen aldiz zyrenetarren eta theratarren samoarrekiko adiskide-lotura estuak.

153. Eta theratarrak Korobio irlan utzi eta Therara heldu zirenean, Libyan irla bat kolonizatu zutela iragarri zuten. Orduan theratarrek, anaietatik zotz eginiko anaia bat eta, zazpi herrialde zirenez, guztietatik gizonak bidaltzea erabaki zuten, eta berauen gidari eta errege Bato izango zen. Horrela, bada, bost pentekontero igorri zituzten Plateara.

154. Hori diote theratarrek, eta gainerakoan jada bat datoz theratarrak zyrenetarrekin. Zeren, Batori buruz zyrenetarrak ez daude inola ere ados theratarrekin. Hona zer dioten. Bada Kretan herri bat: Oaxo. Izan zen hemen errege bat: Etearkho. Hau Phronime izeneko alabarengatik, ama gabe baitzegoen, alaba honengatik beste emakume batekin ezkondu zen. Baina, honek, etxeratu orduko, bidezkoztat jo zuen Phronimerentzat benetan ugazama izatea, gaiztakeriak egin eta haren aurka era guztietako azpikeriak asmatuz; azkenean, lizunkeriaz salatuz, esandakoak horrela zirela sinestarazi zion bere senarrari. Eta honek, andreak konbentziturik, egintza anker bat asmatu zuen alabaren kontra. Hain zuzen, Themison izeneko theratar merkatari bat zegoen Oaxon; honi Etearkhok, ostatu eman ondoren, zin eginarazi zion eska ziezaiokeena lortuko ziola. Zin eginarazi zionean, bere alaba ekarraraziz, honi entregatu zion, eta berekin eramanez itsasora botatzeko agindu zion. Themisok, bere aldetik, zinaren iruzurraz atsekabeturik eta ostatu-loturatik

libratuz, hau egin zuen: neskaxa berekin hartuz itsasora jo zuen, eta, itsas zabalean zegoela, Etearkhori emandako hitza beteaz, hura lokarriekin lotu eta itsasora bota zuen; baina, berehala ateraz, Therara etorri zen.

155. Ondoren, theratarren artean ospetsu zen Polymnestok, Phronime berekin hartuz, ohaide egin zuen. Denbora joanik, ahots ahul eta toteleko mutila jaio zitzaien. Bato jarri zioten izena, theratarrek eta zyrenetarrek diotenez; beste izen bat, ordea, nik uste dudanez. Hain zuzen, Libyara iritsi zenean izan zuen Bato izen-aldaketa, Delphosen egin zitzaion igarpenaren eta jaso zuen ohorearen ondorioz goitizen hori sortuaz. Libyarrek erregeari bato deitzen baitiote, Pythiak ere, igarpena egitean, honengatik deitu ziola uste dut libyar hizkuntzaz: Libyako errege izango zelako, hain zuzen. Zeren, gizondu zenean, Delphosa joan zen bere ahotsaz galdetzera; eta, galdetzean, Pythiak igarpen hau egin zion:

"Ahotsa dela eta heldu haiz, Bato; Jaun Phebo Apolok,
[ostera,

ardien hazle den Libyara igortzen hau kolonizatzeraz³¹³",

Heladeko hizkuntza erabiliz honela esan bailion: "Ahotsa dela eta heldu haiz, errege". Honek hitz hauekin erantzun zion: "Jauna, ni neure ahotsaz galdetzera etorri natzaizu; zuk, ordea, erantzuntzat ezinezkoak zaizkidan beste gauza batzuk esaten dizkidazu, Libya kolonizatzeke aginduz; zer-nolako indarrez?, zer-nolako eskuz?". Gauza horiek esan arren, ez zion beste erantzunik jalgiazi; aitzitik, lehengo erara egiten baitzuen orakulu, erantzunaren erdian utzi eta Bato Therara jan zen.

156. Baina, une beretik bai honi eta bai gainerako theratarrei berriro jainko-haserrea gaineratu zitzaien. Baina, theratarrek zorigaitzen nondikakoa ezagutzen ez zutelarik, mandatariak bidali

zituzten Delphosa, heldu zitzaizkien gaitzez galdera eginez. Pythiak, bere aldetik, hobeki joango zitzaiera erantzun zien Libyan Batorekin batera Zyrene kolonizatzen bazuten. Horren ondoren, theratarrek Bato pentekontero birekin bidali zuten. Eta hauek Libyara nabigatu ondoren, ez baitzekiten besterik zer egin zezaketen, berriro Therara joan ziren; baina, lehorreratzean, theratarrek gaineratu eta ez zieten utzi porturatzen; aitzitik, berritsasoratzeko agindu zieten. Hauek, beharturik, berritsasoratu ziren; eta Libyako kostaldean dagoen irla, lehen ere esan dudana bezela, Platea izena duena kolonizatu zuten. Eta irla, egungo Zyrene hiriaren tamainu berdinekoa dela esaten dute.

157. Bi urtez hemen bizi zirelarik, ezer onik ez baitzitzaien gertatzen, beretako bat bertan utziz, gainerako guztiak Delphoserantz itsasoratu ziren, eta, orakuluarengana iristean, erantzun bat eskatu zioten Libyan bizi eta, bertan bizi izan arren, ez zihoakiela hobeki esanez. Orduan, Pythiak honela erantzuten die hitz horiei:

"Hik heuk nik baino hobeki ezagutzen baduk ardi-hazle

[den Libya,

hi joan gabe, ni joanik³¹⁴, asko diat miresten hire jakinduria".

Hori entzutean, Batoren ingurukoek berriz itsasora jo zuten; jainkoak ez baitzituen koloniagintzatik libratzen uzten, Libyan bertan kolonia eraiki bide zuten arte. Eta irlara etorri eta hemen utzitakoa berekin hartu ondoren, Libyan bertan irlaren aurrez aurreko lurraldea, Aziris izeneko, kolonizatu zuten, alde bietatik ibarbaso bikainez itxia eta bestetik ibai bat doakiona.

158. Lurralde honetan bizi izan ziren sei urtez; baina zazpigarren urtean libyarrek gezurrez lurralde hobera eramango

zituztela esanez, irtetera limurtu zituzten. Eta, libyarrek haiek jaikiaraziz, mendebaldera eramán zituzten, eta, heleniarrek igarotzeán lurrálderik ederrena ikus ez zezaten, egunargiaren ordutegia kalkulatu ondoren, gauez gidatu zituzten; hain zuzen, Irasa du izena lurralde horrek. Eta Apolorena deritzan iturriraino eramán zituztenean, "heleniarrok! -esan zieten-, hemen komeni zaizue bizitzea; zerua zulatua baitago hemen³¹⁵".

159. Beraz, berrogei urteraino agindu zuen Bato kolonizatzailearen bizitzan eta hamasei urtez agindu zuen haren seme Arzesilaorenean, hasieran kolonizatzerá bidali zituzten adina zyrenetar bizi ziren. Hirugarrenaren bizitzan, ordea, Zorionsua zeritzan Batorenean, Pythiak, orakulu baten bidez, heleniar guztiei Libyarantz itsasoratzera eragin zien, zyrenetarrekin bizitzeko; zyrenetarrek, lurra birbanatzeko eskaintzarekin, berenganako deia egin baitzuten. Eta hona nolakoa zen orakulua:

"Lurra banatu ondoren Libya txit maitera berandu

[heltzen dena

damu izango da gero: hauxe da nire aldarrikapena".

Orduan Zyrenen jendetza handia bildu zelarik, inguruan bizi ziren libyarrei eta Adikran izeneko berauen erregeari ondoko lur ugari kentzen baitzieten, lur-kentzearengatik eta zyrenetarrek egin zizkien irainengatik mandatariak Egyptora bidaliz, beren buruak Apries Egyptoko erregeari entregatu zizkioten. Eta honek, egyptoar gudaroste handi bat bilduz, Zyreneren aurka bidali zuen. Zyrenetarrak, beren aldetik, gudarostearekin Irasa lurrálderá irtenez, Theste iturriaren parean borrokatu ziren egyptoarrekin eta borrokan irabazi egin zuten. Izan ere, egyptoarrek, lehendik heleniarrekiko eskarmenturik ez zutenez, gutxietsi egiten baitzituzten³¹⁶, halako galera izan zuten, non berauetako gutxi Egyptora itzuli ziren.

Egyptoarrak, galera honi aurre eginez eta berau Apriesi leporatuz, honen aurka altxatu ziren.

160. Bato horren semea da Arzesilao. Honek, lehen erregealdian liskarrak izan zituen bere anaiekin, hauek hura utzi eta Libyako beste lurralde batera joan ziren arte eta, beren gain hartuz, orduan eta gaur Barka deritzan hiri hori eraiki zuten; eta, eraikitzeaz bat, libyarrak zyrenetarrengandik banarazi zituzten. Berehala, Arzesilao, bere anaien hartzaile izateaz gainera beregandik banatu ziren libyarren aurka gerraratu zen; eta libyarrek, haren beldurrez ihesi, ekialdeko libyarrengana jo zuten. Eta, ihesi zihoazela Arzesilaok jarraitu zien, jazarritz Libyako Leukonen aurkitu eta libyarrek hari erasotzea erabaki zuten arte. Eta, elkar jo ondoren, hainbestez garaitu zituzten zyrenetarrak, non bertan Zyreneko zazpi mila hoplita erori ziren. Hondamen honen ondoren, gaixorik eta farmako bat edana zen Arzesilao anaia Learkhok itotzen du; Learkho, berriz, Eryxo izena zuen Arzesilaoren emazteak hiltzen du iruzurrez.

161. Arzesilao horren seme Batok oinordetu zuen erregetza, herren eta hankokerra zelarik. Eta zyrenetarrek, heldu zitzaien zorigaitza zela eta, mandatariak igorri zituzten Delphosa zernolako erakundez hobekien eraenduak izan zitezkeen galdetuz. Pythiak arkadiarren Mantineako ordenagilea ekartzeko kontseilatu zituen. Beraz, eskatu zuten eta mantinearrek hiritarrik ospetsuena eman zieten, Demonax zeritzana. Gizon honek [bada] Zyrenera etorri eta guztiaz zehazki jabetu ondoren, alde batetik hauek hiru leinutan egituratu zituen, era honetan bananduz: zati bat theratarrekin eta periekoekin³¹⁷

osatu zuen, bestea peloponesoarrekin eta kretarrekin, eta irlako guztiekin hirugarrena; bestalde, errege Batorentzat lursail eta apaizlan batzuk bereiziz, erregeek lehen zituzten gainerako eskubide guztiak herriarengan jarri zituen.

162. Bato horren garaian horrela jarraitu zuen egoerak; honen seme Arzesilaoren garaian, ordea, aginpideei buruzko aztoramen handi bat sortu zen; zeren, Bato Herrenaren eta Pheretimaren seme Arzesilaok ez zuela onartuko esan zuen Demonax mantinearrak ezarritako ordena; alderantziz, arbasoen eskubideak aldarrikatu zituen. Hau zela eta, matxinatzean, garaitua izan zen eta Samora ihes egin zuen, eta beronen amak Zyproko Salaminara alde egin zuen. Salaminan, berriz, sasoi honetan Euelthonek agintzen zuen, Delphosen ikusgarria den intsentsario bat eskaini zuenak, berau korinthoarren altxortegian dagoelarik. Eta Pheretimak, harenganatuz, Zyrenera itzularaziko zituen gudaroste bat eskatu zion. Euelthonek, ordea, gudarostea ez beste guztia eman zion; hark, emandakoa hartuz, hori ederra zela baina hura, eskatu zion gudarostea ematea, ederragoa zela esan zion. Eman eman, hori errepikatzen baitzuen, Euelthonek azken emaritzat urrezko ardatz bat eta gorua bidali zion eta [honek] mataza bat ere bazuen erantsia; baina Pheretimak lelo bera errepikatzen ziolarik, Euelthonek emakumeak halako emariekin oparitzen zituela esan zion, baina ez gudarostearekin,

163. Bestalde, Arzesilao denboraldi honetan Samon zegoelarik, gizon oro biltzen ari zen lurbanatze-eskaintzarekin. Eta gudaroste ugari bat osatzen zihoan bitartean, Arzesilao Delphosa joan zen, bere itzuleraz igarpena eskatzeko. Pythiak igarpen hau egin zion: "Lau Bato eta lau Arzesilao aldietan, hots, zortzi giza belaunaldietan Loxiasek Zyreneko erregetza

ematen dizue; hori baino gehiagoan saiatzea, ordea, galarazi egiten dizue. Dena den, hago hi lasai heure lurraldera itzultzean. Eta labea anforaz betea idoro badezak, ez itzak amphorak erre, aitzitik, bidal itzak aldeko haizearekin; labea erretzen baduk, ordea, ez hadi uhartera sartu; eta hala egiten ez baduk, heu hilko haiz eta hirekin zezenik ederrena hilko duk".

164. Pythiak igarpen horiek egin zizkion Arzesilaori. Eta hau, Samotik ekarriak berekin hartuz, Zyrenera itzuli zen eta, egoeraz jabetu ondoren, ez zen orakuluaz oroitu; aitzitik, aurkariei bere erbesterapenarengatik ordain eske hasi zitzaien. Orduan batzuek erabat alde egin zuten lurraldetik; beste batzuei, berriz, Arzesilaok eskua ezarriz, Zyprora bidali zituen berauen hondamenerako. Hain zuzen, knidiarrak izan ziren, berauen lurrera desbideratu zirelarik, haiek salbatu eta Therara igorri zituztenak; zyrenetarretako beste batzuk, ordea, Aglomakok berea zuen dorre handi batera ihes egin zutelarik, Arzesilaok egur-pilaz inguratu eta erre egin zituen. Eta eginaren gainean, orakuluak zioena horixe zela, hots, Pythiak labean aurki zitzakeen anforak erretzea galarazi ziola oharturik, bere nahiz Zyrene hiritik aldendu zen, igarritako heriotzaren beldurrez eta uhartea Zyrene zela pentsatuz. Bestalde, bere ahaide izateaz gainera Alazir izeneko barkatarren erregearen alaba zuen emazte; honengana joan zen eta barkatar gizonek eta Zyrenetikako iheslariak plazan zegoela jakitean, hil egin zuten, eta honekin batera baita beronen aitaginarreba Alazir ere. Beraz, Arzesilaok, nahita edo nahi gabe orakuluarena huts egin zuelako, bere patua bete zuen.

165. Ama Pheretimari zegokionez, berriz, Arkelao Barkan bere hondamena gauzatuz bizi zen bitartean, berak zituen

semearen eskubideak Zyrenen, gobernatuz eta kontseilu-bilkuratan eseriz. Baina, Barkan semea hil zitzaiola jakitean, Egyptora joan zen ihesi. Arzesilaok bazituen, izan ere, Kambyses Zyrorenari eginiko onegite batzuk; Arzesilao hori izan baitzen Zyrene Kambysesi entregatu eta bere buruari zerga bat ezarri ziona. Eta Pheretima, Egyptora iristean, Aryandesi otolari aurkeztu zitzaion, babes zezala eskatuz, bere semea mediarrenganako zaletasunagatik hil ziotela argudiatuz.

166. Hain zuzen, Aryandes hori, Kambysesek jarriarik, Egyptoko gobernari zen, eta gertakizun horiez geroztik Dario gainditzeko zebilela galdu zen. Izan ere, Dariok errege zen beste inork egin ez zuen zerbait bere oroigarritzat uztea desiratzen zuela jakin eta ikusi zuenean, imitatzeari ekin zion, hortik bere ordainsaria jaso zuen arte. Zeren, Dariok, urrea ahal zuen garbien arragotuz, dirua txanpondu zuen, eta Aryandeselek, Egyptoko gobernari zela, hori bera egin zuen zilarrarekin; eta gaur aryandikoa da zilarrik garbiena. Eta Dariok, hori egiten ziharduela jakitean, beste erru bat, haren aurka altxatzearena egotziz, hilarazi egin zuen.

167. Baina, aldi hartan Aryandeselek, Pheretimaz gupidaturik, Egyptoko gudaroste osoa eman zion, nola oinezkoa ala itsasokoa; oinezkoaren gudalburu Amasis maraphioa izendatu zuen; itsasokoarena, berriz, pasargaden odolekoa zen Badres. Baina gudarostea igorri baino lehen, Aryandeselek mezulari bat Barkara bidaliz, Arzesilaoren hiltzailea nor zen galdetu zuen. Orduan barkatar guztiek

beren gain hartu zuten hilketa, haren pean kalte ugari eta astunak jasan zituztela eta. Baina Aryandesek hori horrela zela jakin arren, gudarostea Pheretimorekin bidali egin zuen. Beraz, arrazoi hori itxurazkoa baizik ez zen; eta gudarostea, nire ustez, libyarrak menperatzearen bidaltzen zuen. Bada, libyarren artean herri asko eta era askotakoak daude, eta hauetako gutxi ziren erregearen esaneko; gehiengoak, aldiz, ez zuen Darioren kezkarik.

168. Bestalde, era honetan bizi dira libyarrak. Egyptotik hasiz, libyarretan lehenengo adyrmakhidak aurkitzen dira; hauek egyptoarren ohiturak erabiltzen dituzte gehienbat; jantzia, berriz, gainerako libyarrek bezalakoa daramate. Hauen emakumeek berna bakoitzean brontzezko eraztuna eramane ohi dute; buruetan ilea luze dutelarik, zorriak harrapatzen dituztenean, nork bereei hozkada ordainduz jaurtitzen dituzte. Libyarren artean hauek bakarrik egiten dute hori, eta hauek bakarrik aurkezten dizkiote erregeari ezkontzera doazen neskatxak; eta erregeak desloratzen du atsegin dakiokiena³¹⁸. Adyrmakhida horiek Egyptotik Plyno izeneko porturaino hedatzen dira.

169. Honen hurrena giligamak datoz, mendebaldeko lurralderantz Aphrodisias irlaraino sailkatzen direlarik. Lurralde honen erdiguneko kostaldean dago Platea irla, zyrenetarrek kolonizatu zutena, eta kontinentean daude Menelao portua eta zyrenetarrak bizi izan ziren Aziris; eta hemendik aurrera hasten da silphioa³¹⁹. Eta silfioa Platea irlatik Syrteren ahorraino iristen da. Lurralde honetakoek gainerakoen antzeko ohiturak erabiltzen dituzte.

170. Giligamez mendebaldera asbystak datoz; hauek Zyrenez goitik bizi dira. Asbystak ez dira itsasoraino luzatzen; itsasertzean zyrenetarrak sailkatzen baitira. Ez dira libyarren artean koadrigalari ahulenak, bizkorrenak baizik; eta zyrenetarren ohiturarik gehienak imitatzen ahalegintzen dira.

171. Eta asbystez mendebaldera auskhisak datoz; hauek Barkeaz goitik bizi dira, itsasertzean Euesperideseraino hedatuz. Eta auskhisen lurraldearen erdigunean bakalak bizi dira, herri urri bat, itsasertzean Barkako Taukhira hiriraino hedaturik; eta Zyrenez goitikoen ohitura berak erabiltzen dituzte.

172. Auskhisa hauez mendebaldera nasamonak datoz, herri ugaria delarik; hauek udan abere-taldeak itsasertzean utzi eta Augila lurraldera igotzen dira palmondo-igaliak biltzeko; ugari eta zabal hazten dira palmondo horiek, guztiak fruitu-emaile direlarik. Eta otiak ehizatzen dituztenean, eguzkitan lehortu ondoren, xehatu eta gero esne gainera botaz, edan egiten dute. Bestalde, bakoitzak andre asko izateko ohitura duelarik, hauekin, masagetek ohi duten era beretsuan, elkartze komuna egiten dute: bastoi bat aurrean ezarri eta elkartu egin ohi dira. Bestalde, nasamon bat lehen aldiz ezkontzean, emazte ezkonberria lehenengo gauean gonbidatu guztien eskutatik igaro ohi da, hauekin elkartuz; eta gonbidatuetako bakoitzak, elkartu ondoren, bere etxetik ekarria duen oparia ematen dio. Zin-egite eta igarpenetan honela jokatzen dute: beren artean gizonik zuzenenak eta adoretuenak

izan omen direnengatik zin egiten dute, eskuak hauen hilobi gainean jarritz; igarpena egiteko, berriz, gurasoen hilobietara joan eta, otoi egin ondoren, gainean etzaten dira; eta ametsetan ikusten duten ikuspenaz baliatzen dira. Eta era honetako hitzartzeak egiten dituzte: bata bere eskutik ematen du edaten eta berak bestearen eskutik edaten du; eta bustirik ez badute, lurretik hautsa hartu eta miazkatu egiten dute.

173. Psyloak dira nasomonen mugakide. Hauek era honetan suntsitu ziren: hego-haizeak, joaz, uhaskak lehortu zizkien, eta Syrteren barrualdean dagoen lurralde oro ur gabe zegoen; eta kontseiluan aho batez erabaki ondoren, hego-haizearen aurka gerraratu ziren (eta libyarrek diotena kontatzen dut), eta, hondardian zeudela, hegoak joaz hondarpean estali zituen. Eta, desagerturik, nasamonek daukate hauen lurraldea.

174. Hauez goitik, hego-haizerantz, piztien lurrean garamanteak bizi dira; hauek gizon eta gizarte orori ihes egiten diote; ez dute inolako gerra-armarik eta ez dakite defendatzen.

175. Beraz, hauek nasamonez goitik bizi dira. Eta mendebaldera itsasertzeko sailean makak daude; hauek buru erdian gora ilea hazten utzi ondoren, alde batekoa eta bestekoa hondo-hondotik moztu eta mototsa uzten dute; gerrara, berriz, ostruka-larruak eramaten dituzte babeskitzat. Hauen lurraldean barrena itsasoratzen da Zinye ibaia, Khariteena deituriko muinotik isuriz. Khariteen muino hori oihanez estalia dago, lehen aipatu dudan gainerako Libya soil dagoelarik. Hain zuzen, itsasotik muino horretaraino berrehun estadio dago.

176. Eta maken hurrena gindaneak datoz; hauen emakume bakoitzak orkatilen jiran larruzko zirgilo ugari eraman ohi

du, agidanez, honako honen arabera: berarekin elkartu den gizon bakoitzeko orkatilaren jiran zirgilu bat lotzen du; eta hoberena gehien izan ditzakeen hura dela uste izaten da, gizon gehienek maitatua izan delakoan.

177. Eta gindane hauen lurraldetik itsasoan barruratzen den mutur baten, soilki lotondoaren igalia janez bizi diren lotophagoak³²⁰ sailkatzen dira. Lotondoaren igalia, hain zuzen, legeltxorra bezain handi eta palmondoaren igalia bezain gozo da. Lotophagoek fruitu horretatik sortzen dute ardoa ere.

178. Lotophagoen hurrena itsasertzean makhlyak datoz; hauek ere lotondoaz baliatzen dira, lehen aipatu ditugunak baino gutxiago bederen. Triton izena duen ibai handiraino hedatzen dira; eta ibai hau aintzira handi batean, Tritonide aintziran, isurtzen da; eta hemen bertan Phla izeneko irla bat dago; hain zuzen, lazedemonдарrek ba omen zuten irla hori kolonizatzeko jainko-agindu bat.

179. Eta honako istorio hau ere kontatzen da: Jasonek Pelioaren³²¹ Argo itsasuntzia amaitu zuenean, besteren artean hekatombe bat eta brontzezko tripode bat barruratuz, itsasoz Peloponeso inguratzeari ekin omen zion, Delphosa iritsi nahiz. Eta Maleara heltzean, bat-batean ipar-haizeak harrapatu eta Libyarantz saihestu omen zuen; eta, lurra begiztatu baino lehen, Tritonide aintzirako ur meharretan aurkitu omen zen. Eta, untzia nola atera ez zekiela, Triton³²² agertu zitziola esaten da, eta Jasoni tripodea emateko eskatu ziola, bidea erakutsi ez ezik kalterik gabe aterako zituela baieztatuz. Jason ados jarri zelarik, Tritonek untzia lur meharretatik ateratzeko bidea erakutsi omen zien eta tripodea bere santutegian jarri omen zuen, tripodearen gainetik orakulu bat botaz eta Jasonen lagunei beronen esanahi guztia adieraziz, hots, Argoko

marinelen ondorengoetako batek tripodea eramaten zuenean, orduan halabeharrez ehun hiri heleniar kokatuko zirela Tritonide aintziraren inguruan. Hori entzutean, bertako libyarrek tripodea gorde egin omen zuten.

180. Makhlya horien hurrena auseak datoz; hauek eta makhlyak Tritonide aintziraren inguruan bizi dira, eta Tritonek mugatzen ditu erdiz erdi. Bestalde, makhlyek buruaren atzealdean uzten dute ilea; aurrealdean, berriz, auseek. Eta Athenearen urteroko jaialdian hauen neskatzak, bitan banandurik, harriekin eta makilekin borrokatzen dira elkarren aurka, berauek diotenez, guk Athenea deritzagun bertako jainkosaren omenez arbasoek ezarririko legeak beteaz. Zaurien ondorioz hiltzen diren neskatzei sasineskatxa³²³ deitzen diete. Eta borrokan utzi aurretik, hona zer egiten duten: aldiero neskatzarik ederrena, elkarren artean korinthoar kaskoz eta heleniarren panopliaz hornitu eta, gurdira igoaraziz, [aintziraren] biran eramaten dute. Baina, antzina, heleniarrak inguruan bizitzen jarri baino lehen, neskatzak nolako armez hornitzen zituzten ezin dut esan; hala ere, egyptoar armez hornitzen zituztelakoan nago; nire iritziz, ezkutua eta kaskoa Egyptotik heldu baitziren heleniarrengana. Bestalde, Athenea Posidonen eta Tritonide aintziraren alaba dela diote, eta, aitarekin zerbaitez kexu izanik, Zeusi eskaini ziola bere burua, eta Zeusek bere alaba egin zuela. Hori diote. Emakumeeekin elkartze komuna egiten dute, berauekin bizi gabe abereen gisa elkartuz. Eta emakumeari umetxoa hazten zaionean, hirugarren hilabetea

gizonak leku berean biltzen dira eta umeak zein gizonen antza duen, haren semetzat hartu ohi da.

181. Libyar nomaden artean horiek aipatzen dira kostaldekotzat. Hauez goitik, barrualdera, piztien Libya dago, eta piztienaz goitik hondarrezko gainalde bat hedatzen da, egyptoarren Thebastik Heraklesen Zutabeetaraino luzatuz. Gainalde horretan hamarren bat eguneko bidealdi, kozkor handiko gatz-mordoak daude muinoetan, eta muino bakoitzaren tontorrean gatz artetik ur fresko eta geza jaurtitzen da gorantz³²⁴; eta horren inguruan bizi dira eremurantz eta piztien lurraldez goitik azken biztanleak. Thebastik hamar eguneko bidean barrena amondarrak dira lehenak, thebistar Zeusengandiko santutegia dutelarik. Izan ere, Thebasen, lehen ere esan dudanez, Zeusen irudi ahariburuduna dago. Eta hauek badute halabeharrez beste iturburu bat ere, eguna zabaltzean epel eta plaza jendez betetzen den orduan hotzago egon ohi dena; eguerdia iritsi orduko hotz-hotz bihurtzen da. Hain zuzen, orduan ureztatzen dituzte baratzeak; eta eguna erortzen doan heinean hotza ere beheraka doa, eguzkia sortzearekin batera ura ere epeltzen den arte; eta, gero eta gehiagora joanez, gauerdian iristen da berotasunera eta orduan bor-bor irakiten du; eta gauerdia aurrera joan ahala, hozten doa egunsentira arte. Honi, deitura bezala, Eguzkiaren Iturburua deitzen diote.

182. Amondarren ondoren, hondardegiko gainaldean barrena beste hamar eguneko bidean, amondarraren antzeko gatz-muino bat eta ura dago, eta honen inguruan gizajendea biza da; eta lurralde horrek Augila du izena. Lurralde horretara joan ohi dira nasamonak palmondoen uzta biltzeko.

183. Augilatik beste hamar eguneko bidean beste gatz-muino bat dago, gainerakoek bezalaxe, ura eta palmondo igali-emaile ugari duena; eta bertan garamanteak izena duten gizonak bizi dira, herri agitz handia, gatzaren gainera lurra botaz ereiten dutenak, hain zuzen. Biderik laburrena lotofagoenganakoa da: hauengandik haiengana hogeita hamar eguneko bidea dago. Lurralde haietan daude atzeraka larratzen diren idiak ere. Eta hona zergatik diren atzeralarrekarri: adarrak aurrera okertuak dituzte; horrengatik larratzen dira atzeraka; adarrak aurrez lurraren kontra ezartzean, ezin baitute aurrera egin. Bestela, ez dira gainerako idietatik ezertan bereizten, horrengatik eta larruaren loditasun eta malgutasunagatik ez bada. Garamante hauek koadrigen bidez atzematen dituzte ethiopiar troglodytak³²⁵; ethiopiar troglodytak baitira aditzera dugunetan munduko oinkaririk lasterrenak. Bestalde, troglodytak suge, musker eta horrelako narrastiez elikatzen dira; erabiltzen duten hizkuntzak ez du beste inorenaren antzik; aitzitik, saguzarrak bezalaxe egiten dute garrasi.

184. Garamanteengandik beste hamar eguneko bidean beste gatz-muino bat eta ura dago, eta horren inguruan bizi diren gizonei ataranteak³²⁶ deritze; guk dakigunetan munduko bakarrak dira izenik ez dutenak; batera ataranteak deitzen bazaie ere, hauetako bakoitzak ez baitu bakarka inolako izenik. Eguzkiak neurriz gain jotzean, madarikatu egiten dute eta horretaz gainera iraintzat lotsagabekeria oro esaten diote, gizonak berak

eta berauen lurak kiskaliz suntsitzen dituelako. Eta, gero, beste hamar eguneko [bidean] beste gatz-muino bat dago urarekin, eta honen inguruan ere gizonak bizi dira. Eta gatz-haitz honetatik abiatuz, Atlas izena [duen] mendia³²⁷ dago. Meharra eta erabat zirkularra da; goieraz, berriz, hain garaia dela diote, non haren gailurrak ikustezinak diren; bada, hauetatik lainorik ez omen du kentzen, ez uda eta ez negu. Bertakoek zeruaren zutabe[a] dela esaten dute. Gizon hauek mendi horretatik dute beren izena; atlanteak baiteritze. Eta ez bizidunez elikatu eta ez amets-agerpenik ikusten omen dute.

185. Beraz, gainalde honetan atlante hauenganaino bizi direnen izenak zerrenda ditzaket, baina hauengandik aurrerakoena jada ez. Gainaldea, bada, Heraklesen Zutabeetaraino eta hauetatik kanpora ere hedatzen da. Eta alde honetan, hamar eguneko bidetartean, bada gatz-harrobirik eta giza biztanlerik. Bestalde, hauen guztien etxeak gatz-kozkorrez eginak daude. Izan ere, Libyako eskualde hauek jada eurigabeak dira; euria egingo balu, hormek, gatzezkoak izanik, ezin iraun ahal izango bailukete. Bertan itxura zuri eta gorriko gatz ateraaten da. Eta gainalde horretaz goitik, Libyako hegoaldera eta barrualdera, lurraldea eremu da, urik, piztiarik, euririk eta zuhaitzik gabea, eta bertan ez dago ezeren hezetasunik.

186. Horrela, Egyptotik Tritonide aintziraraino libyarrak nomada, haragijale eta esne-edale dira, eta egyptoarren arrazoi berarengatik ez dute behikirik dastatzen eta ez dute zerririk hazten. Halaber, zyrenetarren emakumeek Egyptoko Isisengatik

ez dute bidezko jotzen behikia jatea; are gehiago, baraualdiak eta jaialdiak egiten dizkiote; bestalde, barkatarren emakumeek behikiez gainera zerrikirik ere ez dute dastatzen.

187. Horrela da hori. Tritonide aintziraz mendebaldera, berriz, libyarrak jada ez dira nomada, usadio berak erabiltzen ez dituztelarik eta, haurrei dagokienez, nomadek ohi dutena ere egiten ez dutelarik. Izan ere, libyar nomadek, guztiek egiten dutenik ziur esan ez dezakedan arren, horietako gehienek bederen hau egiten dute: beren haurrei, lau urte betetzen dituztenean, artile koipetsuarekin burugaineko zainak erretzen dizkiete, eta berauetako zenbaitzuei lokietakoak ere bai, helburu honengatik, hots, burutik jariatzen zaien flegmak bizitza osoan kalte egin ez diezaien. Eta horrengatik omen dira guztiz osasuntsu. Zeren, libyarrak dira egiazki, guk ezagutzen ditugunetan, munduko gizonik osasuntsuenak. Horrengatik diren ezin dut ziur esan; baina, izan, osasuntsuenak dira. Eta haurrei erretzean spasmoren bat sor badakie, erremedioa ere topatua dute; bada, akerraren gernuaz igurtzi eta geldiarazten dute. Eta libyarrek berek diotena diot.

188. Bestalde, hona nomadek dituzten opalkuntzak: lehenik aberearen belarri-zati bat eskaini eta gero etxe gainera botatzen dute; eta, hori egin ondoren, lepoa bihurritzen diote. Eguzkiari eta ilargiari bakarrik egiten diote opari. Beraz, libyar guztiak dira hauei opari egiten dietenak, nahiz eta Tritonide aintziraren inguruan bizi direnek bereziki Atheneari eta hurrena Tritoni eta Posidoni egiten dioten.

189. Hain zuzen, heleniarrek libyar emakumeengandik berenganatu dituzte Athenearen irudien jantzi eta egidak³²⁸; zeren, libyar emakumeen jantzia, larruzkoa izatez beste eta hauen egiden

mendeletan sugeen ordeaz uhalak edukitzeaz aparte, gainerako guztian era berean prestatua dago. Are gehiago, izenak ere adierazten du paladioen jazkera Libyatik datorrena; izan ere, libyar emakumeek jantzi gainera mendeldun egea soilduak botatzen dituzte otzarrez tindaturik, eta egea horiengandik hartu dute heleniarrek egiden izena. Eta uste dut han sortu zela lehenik irrintzia ere errito sakratuen gaindik; usu baliatzen baitira horretaz libyar emakumeak, egoki baliatu ere. Eta heleniarrek libyarrengandik ikasi dute lau zaldi elkarrekin uztartzen ere.

190. Bestalde, nomadek heleniarren arabera lurperatzen dituzte hildakoak, nasamonek izan ezik; hauek eserita lurperatzen dituzte, azken-arnasa ematean eserrarazi eta ahoz gora hil ez daitezen zainduz. Bizitegiak, berriz, ihiez loturiko kanaberez osatzen dituzte eta hauek eramangarri dira. Honelakoxe ohiturak darabiltzate horiek.

191. Auseengandik Triton ibaiz mendebaldera³²⁹, jada goldelari diren eta etxeak eraiki ohi dituzten libyarrak datoz: maxyak dute izena. Hauek buruko eskuinaldean ilea utzi eta ezker aldean soiltzen dute; soina, berriz, minioz lohitzten dute³³⁰. Troiatik etorritakoen ondorengoak direla diote berauek. Bestalde, lurralde hau eta Libyako mendebaldean dagoen gainerakoa nomaden lurraldea baino askoz piztiatsu eta basotsuagoa da. Izan ere, Libyako ekialdekoa, nomadak sailkatzen dutena, baxua eta hondartsua da Triton ibairaino; aitzitik, hemendik mendebaldeko alderdia, goldelariena, guztiz menditsu, basotsu eta piztiatsua da³³¹. Horien artean, bada, sugetzarrak, lehoiak,

elephanteak, hartzak, sugegorriak, asto adardunak, izaki zakurburudunak eta, libyarrek diotenez, begiak bularretan dituzten izaki burugabeak daude, eta baita basagizon eta basaemakumeez gainera beste piztia ugari ere.

192. Nomaden artean, ordea, ez dago horrelakorik ezer, beste honelakoak baizik: antilope ipurzuriak, gazelak, bubaliak, astoak -ez adardunak, edale ez diren besteak baizik (ez baitute benetan edaten)-, oryak, zeinen adarrez eginak diren pheniziar lyren besoak (eta abere hori idiaren tamainukoa da), basarioak, hyenak, arantzurdeak, basahariak, diktyak, txakalak, pantherak, boryak, hiru beso luze eta muskerren guztiz antzekoak diren lehorreko krokodiloak, ostrukak eta adarbana duten sugetxoak. Eta, hain zuzen, bertan piztia horiek eta beste lurraldetakoak ere badaude, basahuntza eta basurdea izan ezik; Libyan ez baitago basahuntz eta basurdeen alerik. Baina hemen hiru sagu-arraza daude: batzuei dipodoak deritze, besteei zegeriak (hain zuzen, libyarra da izen hori eta heladeraz "muinoak" adieraz dezake), eta besteei iletenteak. Badira silphion jaiotzen diren erbinudeak ere, tartesoarren guztiz antzekoak. Beraz, honenbeste piztia ditu libyar nomaden lurraldeak, guk iritsi ahal izan dugun urrutien ikertu dugunez.

193. Eta libyar maxyzez hurrena zauekeak datoz; hauen emakumeek gidatzen dituzte gurdiak gudura.

194. Eta hurrena gyzanteak datoz; hauen artean ezti asko egin ohi dute erleek; hala ere, askoz gehiago egiten omen dute

artisauek. Beraz, hauek guztiak minioz lohitzten dira eta tximinoa jaten dute; hauek kontaezin ahala dituzte mendietan.

195. Horien aurrealdean, karkhedondarrek diotenez, Zyrauis izena duen irla bat datza, berrehun stadio luzean eta zabalean meharra dena; kontinentetik oinez igaro daiteke, eta olibondoaz eta mahatsondoz betea dago. Ba omen da hemen aintzira bat; honen hondoko lohietatik neskatxek bikez igurtziriko hegazti-lumez urrezko pipitak ateratzen omen dituzte. Ez dakit zinez hori egian denentz; nik, neure aldetik, esan ohi dena idazten dut. Hala ere, guztia litekeena da, neronek ikusi baitut Zazynthon ere aintzirako uretatik bikea ateratzen. Bada hemen aintzira bat baino gehiago ere; eta horietako handienak alde orotatik hirurogeita hamar oin ditu eta sakonean besaldi b³²; aintzira horren barruan haga bat sartzen dute muturrean mitre-adar bat loturik, eta ondoren mitre-adarrez bikea ateratzen dute, asfalto-usainduna den arren pieriar bikea baino hobea dena; gero, aintziratik hurbil hondeaturiko zulo batera isurtzen dute; eta asko bildu dutenean, zulotik amphoretara isurtzen dute. Bestalde, aintzirara erori bide dena, lurrazpian barrena joanaz itsasoan berragertzen da; eta hau lau bat stadiora dago aintziratik. Beraz, Libya aurrean dagoen irlari buruzkoek badute egiaren itxura.

196. Eta honako hau ere kontatzen dute karkhedondarrek: Heraklesen Zutabeetatik at ba omen da Libyan lurralde bat eta bertan biztanle batzuk; hauengana iritsi eta salkariak ateratzen dituztenean, hauek elkarren jarraian uhinak hausten diren itsasertzean utzi eta, untzietan sartuz, kea ateratzen omen dute; eta, bertakoek kea ikustean, itsasoraino joan eta berehala salkarien

ordain urrea utzi eta berriro salkarietatik aldendu egiten omen dira. Orduan karkhedondarrak lehorreratu eta begiratu egiten omen dute eta urrea salkarien baliokide dela iruditzen bazaie, hartu eta joan egiten omen dira; baina, ez dela irudituz gero, berriro untzietan sartu eta zain egoten; eta, diotenez, besteek, aurreratuz, urreak urrea gaineratu ohi diote haiek askiets dezaten arte. Baina bietako inork ez omen du zuzengabekeriarik egiten; zeren beraiek ez omen dute urrea ukitzen salkarien balioa berdindu arte, ezta haiek ere salkariak ukitzen dirua hartu bide duten arte.

197. Hauexek dira libyarretatik guk izenda ditzakegunak; eta hauetako gehienak ez orain eta ez lehen ez ziren mediarren erregeaz deus kezkatzen. Baina oraindik ere zerbait esan dezaket lurralde horretaz: bertan lau herri sailkatzen dira eta ez gehiago, guk dakigunez; herri horietatik bi autoktonoak dira eta bi ez: autoktonoak libyarrak eta ethiopiarrak, haiek Libyako iparraldera eta hauek hegoaldera bizi direlarik; aldiz, pheniziarrak eta heleniarrak etorkinak dira.

198. Bikaintasunari dagokionez, berriz, ez dut uste Libya Asiarekin eta Europarekin alderatzeko hain garrantzizkoa denik, soilki Zinye izan ezik; eta, hain zuzen, lurak ibaiaren izen bera du. Hau lurrik bikainenaren pareko da Demeterren fruitua³³³ ematen eta ez du gainerako Libyaren antzik; izan ere, lurbeltza da eta baita urtsua ere dituen iturriengatik; eta, lehorraren beldur ez denez eta euri gehiegirik irensten ez duenez, ez du galerarik; zinez, euria egiten baitu Libyako lurralde horretan; bestalde, fruituaren ekoizpenari dagokionez, babyloniar lurraren neurri beretara iristen da. Ona da euesperidestarrek sailkatzen duten lurra ere; bada, ehun halako

ematen du, bere hoberenak ematen dituenean; hirurehun halako, berriz, Zinypekoak.

199. Bestalde, zyrenetar lurraldeak ere, nomadek sailkatzen duten Libya honetako garaiena delarik, urteko hiru uzta aldi eman ohi ditu bere baitan, harrigarria bada ere. Zeren, lehenik itsasaldeko eskualdeak egon ohi dira fruituak biltzeko eta jasotzeko sasoian; eta hauek bildutakoan itsasaldez goitikoak [erdigunekoak], "mendiskak" deritzenak egoten dira biltzeko sasoian; eta, erdiguneko emaitza jaso orduko, heldurik eta sasoian egon ohi da goreneko eskualdekoa; hala ezen, lehenengo emaitza zurrupatu eta irenstearekin batera azaldu ohi da azkenekoa. Horrela, uztaroa zortzi hilabeteraino luzatzen zaie zyrenetarrei. Baina, honenbestez aski bedi gai horretaz.

200. Persiarrak Aryandesek Pheretimaren babesle gisa bidali ondoren³³⁴ Barkara iritsi zirenean, hiria setiatu zuten Arzesilaoren heriotza-eragileak entregatzeko eskatuz; baina herri osoa heriotzaren eragilekide zenez, ez zituzten haien hitzak aintzat hartu. Orduan persiarrak bederatzi hilabetez setiatu zuten Barka, lurpean harresi barruraino iraganzuloak hondeatuz eta eraso gogorrak eginez. Eta, hain zuzen, zulo horiek brontzelari batek topatu zituen brontzeztaturiko ezkutu batekin honelako asmakizunaren bidez: ezkutu hori, harresian barruz barru itzulinguruka erabiliz, hiriaren zoruari ezartzen zion. Eta, ezkutua ezartzen zien beste zoruak gor geratzen ziren, baina zulatuak ziren denetan ezkutuaren brontzeak durundatu egiten zuen. Orduan barkatarrek, bertan kontrahondeatuz, persiar lur-hondeatzaileak hiltzen zituzten. Horra nola aurkitua izan zen azpilan hori; bestalde, barkatarrek atzera botatzen zituzten erasoaldiak.

201. Eta luzarora alde bietako asko, eta persiarrak ez gutxi, ahitzen eta erortzen ari baitziren, oinezkoen gudaiburu zen Amasisi hau bururatzen zaio: oharturik barkatarrak ezin zitezkeela indarrez hartu, iruzurrez baizik, hona zer egiten duen: gauez hobi zabal bat hondearazi ondoren, honen gainean ohol ahul batzuk hedarazi eta oholtzaren gainaldean lur-geruza botarazi zuen, gainerako lur-zoruarekin berdinduz. Eta egunarekin batean hitz egitera gonbidatu zituen barkatarrak; hauek pozik jarri ziren horretara, eta azkenean hitzarmena egitea gogoak eman. Egin ere, honelako hitzarmen bat egin zuten ezkutuko hobi gainean opalmen-zinak burutuz: lur hura hala zegokeen bitartean, zinak indarrean jarraituko zuen, eta barkatarrek erregeari zegokien zerga ordaintzea agintzen zuten eta persiarrek ez zuten berriz haien aurkako beste ekinaldirik egingo. Zin egin ondoren, barkatarrak haiekin fidatuz, berak hiritik kanpora irten eta nahi zuen etsaiari harresi barrura sartzen utzi zioten, ate guztiak ireki ondoren. Orduan persiarrek, ezkutuko ohol-zubia hautsiz, korrika harresi barrura jo zuten. Eta honako honengatik hautsi zuten eraikitako zubia: egindako zinari eustearren; barkatarrekin opalmen-zina egin baitzuten lurak orduko egoera berean iraun bide zuen beste iraungo zuela hitzarmenak ere.

202. Beraz, persiarrek Pheretimari errudunenak entregatu zizkiotenean, honek harresi-biran hesolarazi zituen, eta, haien emakumeei bularrak motzaraziz, hauekin ere harresi ingurua pikardatu zuen; eta persiarrei, batoarrez gainera hilketan esku hartu ez zuten guztiak izan ezik, gainerako barkatarrak bahitutzat hartzera eragin zien; eta Pheretimak beste horiei itzuli zien hiria.

203. Beraz, persiarrek gainerako barkatarrak esklabo egin ondoren, etxerako bidea hartu zuten; eta zyrenetarren hiri ingurura iritsi zirenean, zyrenetarrek, orakulua zintzo betez, hirian barrena igarotzen utzi zieten. Baina gudarostea igarotzen ari zela, Badresek, itsas gudarostearen buruak, hiria hartzeko agindu zuen; Amasis oinezkoarenak, ordea, ez zuen utzi, heleniar hirietan Barkaren aurka bakarrik bidalia izan zela eta; baina azkenean, hiria zeharkatu eta Zeus Lyzeoren muinoan kokatzean, damutu egin ziren Zyreneren jabe ez izateaz. Eta berriz bertara sartzen saiatu ziren, baina zyrenetarrek ez zieten utzi. Orduan persiarrei, inork borroka egin gabe, izua gaineratu zitzaien eta hirurogeiren bat stadio ihes egin ondoren, bertan kokatu ziren. Baina, kanpamendua hemen finkatua zegoela, Aryandesen aldetik mandataria bat etorri zitzaien itzultzeko aginduz. Persiarrek, orduan, zyrenetarrei biderakoak eskatu eta hauek, halabeharrez, eman egin zizkieten, eta hauek, jaso ondoren, Egyptora abiatu ziren. Eta hemendik aurrerakoan libyarrek, berengan hartu zituztelarik, jantziarengatik eta hornidurarengatik haien artean atzera geratzen zirenak eta arrastaka zihoazenak hil egiten zituzten, Egyptora heldu ziren arte.

204. Persiar gudaroste hau Lybian urrutien Euesperideseraino iritsi zen. Bestalde, esklabo egin zituzten barkatarrak erregearengana deserriratu zituzten; eta Dario erregeak Baktra lurraldeko herrixka bat eman zien bertan ezartzeko. Eta herrixka horri Barka jarri zioten izena; hemen, Baktrako lurraldean, oraindik nire garaian ere bazen biztanlerik.

205. Pheretimak ere ez zuen ongi bukatu bere bizia. Izan ere, barkatarrez mendekatu eta Libyatik Egyptora itzuli

orduko, era txarrean hil zen; bada, bizirik zegoela, harrez josi zen³³⁵, gorrotagarri baitira jainkoentzat gizonen mendeku gogorregiak³³⁶. Horrelakoa eta horrenbestekoa izan zen, izan ere, Pheretima Batorenaren barkatarrenganako mendekua.

Oharrak

¹ Proemioak edo Sarrerak, hitzez hitz, obra osoa islatzen du:

Halikarnaso, Asia Txikiko hego-mendebaldean dagoen heleniar hiria da. Lau haizeetara zabaldua zegoen: Boreas-ek iparraldetik kostalde bereko Eolide eta batez ere Jonia mugakidearen eragina zekarkion; Noto-k hegoaldetik Kreta eta Egyptorena; Euro-k Asiarena eta lurralde bereko Kariarena ekialdetik; eraginik bortitzena, ordea, Zephyro-k ezarri zion, honek haizatu baitzituen Peloponesotik Egeo itsasoan barrena heldu zitzaizkion doriar kolonizatzaileen untzi-belak.

- Lau haizeetara zabalduriko talaia horretan ireki zituen lehenengo aldiz bere begiak Herodotok K.a. V. m. hasieran Persiak Heladeri, edo nahiago bada, Asiak Europari edota ekialdeak mendebaldeari egundaino egin dion erasorik bortitzenaren atarian. Herodotoren begi erneak Heladeko, eta batez ere Athenasko arorik loratsuenaren lekuko izan ziren. Ziurrenik aita asiar (kariar) eta ama europar (heleniar) odolekoa zuen hau, agian jatorri na-

hasikoen urrutimin eta ikusminak jota, mundurik mundu ibili zen. Lehenik Samora, joniarren artera joan zen deserriturik, eta, aberriratu ondoren, Athenasa, Egyptora, Pheniziara, Mesopotamiara eta Thuriosa, Athenasko buruzagi Periklesek Italiako hegoaldean eraikitako kolonia panhelenikora iritsi zen. Herodoto horrengatik da antzinateko idazle askorentzat Thurioskoa: (ARIST. Rhet. III 9). Begiak Heladeren garaipena ikusteko ireki bazituen, itxi, K.a. 425. urte inguruan, Heladeren hondamena izan zen Peloponesoko Gerra-ren azkena ez ikusteko itxi zituen.

Asia Txikiko kostalde berean iparraldera bizi izan bide zen lau mende lehenago itsua omen zen Homero. Itsua ez bazen ere, berak idatzi zituen Iliada eta Odyseako istorio eta ipuin zoragarriak belaunalditik belaunaldira ahoz aho eta bertsoz bertso josi (rháptein) eta errezitatzeko, ez zuten begien beharrik izan izenik gabeko rhapsodoek. Sortu ere, odolezko aristokrazia oligarkikoak menperatzen zuen nekazari-gizarte anonimo, behartsu, eta ugalduearen irudimenak sortu baitzituen amets horiek aro heroikoaren ondoko herrien gau ilun eta luzeak argituz.

Homeroz geroztik, ordea, Joniako herri barreiatu hori itsasora gainezkatzen da, merkatari, dirudun eta burujabe bilakatuz. Gizona edonor izatetik norbait izatera heltzen da: izen baten jabe, hiri aske eta jakin bateko hiritar Eta, sendi-lokarriak etenik hara-hona dabilela beraz beste den mundu zabalarekin topo egitean, norberatasunaren kontzientzia pizten zaio eta bere burua eta mundua arakatzeari ekiten dio, zientzialari, pentsalari eta poeta bihurtuz. Filosofian, esperientzia eta arrazoiak lotuz, beraz beste den izadia arakutzen du, honen hastapen edo oinarriak ezarriz; aitzitik, poesian, liraren laguntzaz, bere barne-esperientzia jalgitzen du lehenengo pertsonan mintzatuz.

-Araketa horrek lehen batean nork bere begiz errealitatea ikustea suposatzen du. Horixe egin zuen Miletoko Hekateo bidaiariak ere garaiko munduaren deskribapena eginez. Horixe bera egin zuen honen ondoren Herodotok ere, joniar itsas gizonen ikusmin berak jota mundurik mundu ibiltzean: hari ez bezala, bereziki gizonen eginikoak, nola heleniarrena hala barbaroenak axola zaizkiolarik, ume baten gisa begiak zabal-zabal, harridura sortzen dioten ororen azalpena egiten digu. Bigarren batean, ordea, araketak errealitatea ikertzea edo miatzea suposatzen du. Hori baizik ez du adierazten historia hitzak ("ikerketa"), obra honen izenburuak sagaraturiko zientziaren deitura bilakatu denak. Horretarako, ikusmenez ez ezik entzumenez ere baliatzen da. Hala ere, Herodoto ez da ikus-entzunaren kontalari hutsa. Filosofoa izadiaren iturburura doan bezala, Herodoto giza egintzen sorburura doa. Sophokles garaikidea adiskide mina zuen arren, urbilago dago Eskhyloregandik. Herodoto eta Eskhylo giza egintzek kezkatzen dituzte: gizadiaren bizitza drama (ekintza) da, moira edo patu itsuaren aurkako "ekintza tragikoa"; eta sarritan beronek eragiten dio gizonari suertatu zaion neurria gainditzera. Gainditze horren goranzko giza joerak (harrokeriak), ordea, jainkoen bekaitzez beheranzko zilipurdia edo katastropha dakarkio. Hybris eta katastrophé horren lekuko dira, besteren artean, Kreso, Kambyzes eta Xerxes, Persiarren erregea. Historiarekiko ikuspegi erlijioso hau Heladeko aro arkaikoari dagokio, eta ez Herodotok berak Athenasen eta Thuriosen, Protagoras sofistaren alboan ezagutu zuen Ilustrazioko arrazionalismoari, Euripides eta Thuzydidesen kasuan bezala. Peloponesoko Gerra-ren historialariarentzat interes ekonomikoak dira, batez ere, gerraren eragile.

-Badu, hala ere, Herodotoren obrak aro klasikokoari dagokion garrantzi handiko zerbait: antropozentrismoa. Esan dugun bezala, Herodotori batik bat "gizonen egindakoak" azaltzea axola zaizkio. Zergatik? Denboraren joanean desager ez daitezen. Hori da historialariaren zeregin berezia. Alaber, gizonen eginikoetan, lan handi eta miresgarriak ditu kontagai osperik gabe gera ez daitezen. Giza izatearen iragankortasuna topiko bat da Heladeko literatura osoan. Epika da lekuko: "orrien izaera nolakoa, halakoa gizonen

izaera ere" (Iliada VI 146). Jainkoaren atributua da hilezkor izatea; gizonarena hilkor izatea. Egitandien ospeak bakarrik eman diezaioke gizonari jainkoenganatzen duen hilezkortasuna: "ospea zero zabalera iristen da" (Odyssea VIII 74).

-Hala ere historialariaren zereginik handiena ez da iraganeko giza egintzei iraunkortasuna ematea. Bizi duen munduaren iraupenak kezkatzen du. Eta hondamenaren sorburua adieraziz, heleniarrek eta barbaroek elkarri egin zioten gerraren zergatia azaldu nahi digu, ospe emanez inoiz ahantz ez dezagun.

Zizeronek arrazoiz deitu zion Herodotori "Historiaren aita": patrem historiae (De Legibus I 1, 5).

² Antzinateko Erythre Itsasoa edo Itsaso Gorria (ejruqrhv) egungo Ozeano Indikoa da. Bertan barruratzen dira, beraz, egungo Golko Persikoa eta Itsaso Gorria, Herodotok Arábios kólpos deritzana (II 102, 2). "Itsaso honetara" esatean, erromatarrek Mare Nostrum (Gure Itsasoa) deituriko Mediterraneoz ari da.

³ Heleniarrek, noiztik noizarterainokoa adieraztean, prozedura inklusiboa erabiltzen dute, hau da, abiapuntu den eguna, urtea, belaunaldia edo mendea ere kontatu egiten dute bukaerakoa ez ezik. Beraz, testu grekoak literalki "bosgarren edo seigarren egunera" dio. Egungo prozedura eskusiboa, ordea, "laugarren edo bosgarren egunera" izango litzateke. Beharrezko ohar hau egin ondoren, nahiago izan dut itzulpen osoan grekoari bere horretan jarraitu. Ikus, adibidez, I 13: "Pythiak ... esan zuen, heraklidei bosgarren belaunaldian (esklusiboki laugarrenean) iritsiko zitzaizela mendekua".

⁴ Pertsona baten izena zehazteko, aldiz jaioterriarena gehitzen zaio, nongoa den adieraziz; ad. Halikarnosoko Herodoto (ikus Proemioa). Aldiz, patronimikoa datxekio (aitaren izena), noren seme edo alaba den edo noren (...)a den adieraziz; izen aurreko artikulua grekoak (maskulinoak ala femeninoak) esango digu euskarazko -a hori semeari ala alabari dagokion. Ad.(alaba)a > Io Inakhorena. Aldiz Agron Ninoren (seme)a Beloren (seme)a Alzeoren (seme)a. Honek, hurrenez hurren, lehenengoa ondorengoaren semea dela esan nahi du: Agron Ninoren semea, Nino Belorena eta Belo Alzeorena; laburtuz, Agron Ninorena Belorena Alzeorena (I 7). Ondorioz, Alzeo Agronen birraitona da. Euskal Herrian ez zaigu batere arrotz Perurena, nahiz eta ez duen adierazten "Peruren (seme)a", "Peruren (etxe)a" baizik; eta Perurena etxekoei "Perurena" deitzen zietelarik, ondorengo guztiek Perurena abizena hartu zuten, nahiz eta ez Perurenan bizi. Hala ere, ez dago baztertzetik -ena atzizkidun patronimikorik. Kurioski matronymiko bat topatzen dugu Nafarroa zaharrean (XIII. mendean) Sanso Urquarena ("Sanso Urrakaren semea"). Ikus L. MITXELENA, Apellidos Vascos, 83. or. S. Sebastián, 1973.

Euskarazko -tar atzizki gentilizioaren kidea da heladerazko -ida eta patronimikotzat ere har daiteke;"heraklida" edo "heraklestarra", hots, "Heraklesen ondorengoa".

⁵ Herodotok, zer non dagoen seinalatzerakoan, norabide desberdinak erabiltzen ditu: Zenbaitetan, eguzkia du norabide: egunsentia edo sortalde (Anatolia, "sortaldeko lurra"), arratsaldea edo sartalde , eguerdia edo hegoaldea . Ipar-izarra edo hartz-izarra ere erabiltzen du iparralde adierazteko. Haizeak ez gutxitan: boreas haizea edo ipar-haizea, zephyroa edo mendebal-haizea, notoa edo hego-haizea, euroa edo ekialdekoa, lips edo hego-mendebaldekoa, apeliotes edo ekialdekoa. Inoiz idazle beraren kokagunea (Helade) da norabide: "Halys ibaiak honantz (I 6)". Mendebaldera beraz. Sarri darabil -z goitik edo gora postposizioa itsasotik abiatuz lurbarrurako gorabidean dagoena adierazteko. Ikus I 175: "Halikarnasoz goitik barrualdean pedasarrak bizi ziren". Beraz, Asia Txikiari begiratzuz, pedasarrak Halikarnasoz ekialdera bizi ziren. Baina, I 185ean "Babiloniatik askoz gorago dio. Kasu honetan, Euphratesen iturbururantz begiratzuz, iparralderago esan nahi du. Esandakoaren arabera, Asia Behekoa (itsasaldekoa) Asia

Txikia da; aldiz, Asia Goikoa (lurbarrukoa) Asia Kontinental. Ikus I 177. Egyptora aldatzen bagara, ordea, gora-k hegoaldera adierazten du. Ad. II 5ean: "aintzira horretaz gora esatean, Niloren iturbururantz, hegoaldera dio.

⁶ Tirano hitzak ez du aldi honetan egungo adiera txarrik; soilki botere absolutuduna adierazten du. Heladen, K.a. VII. eta VI. mendeetan, tiranoek, aristokrazia oligarkikoaren partaide izanik, herritarren mesederako erabateko agintea eskuratu eta ekonomia garatzeaz gainera, eraikuntza eta kultur lan handiak egin zituzten, zenbait kasutan (Athenasen bezala) demokraziari bidea irekiz. Ospetsuak dira Korinthoko Periandro, Athenasko Pisistrato eta Samoko Polykrates.

⁷ Heleniarrek egungo Itsaso Beltza-ri zeritzaten Ponto Euxino. Lehenik Ponto Axeino, "itsaso ez-abegitsua" deitu zioten, agian iranerazko akhshaena ("beltza") hitzaren etymologia okerra eginez. Beraz, Itsaso Beltza. Gerora, ordea, edo lausengu-deituraz (deitura apotropaikoz) edota haren itsasertza kolonia loratsuez beterik zegoelako, Ponto Euxeino "abegi oneko itsasoa" deitu zioten.

⁸ Janbozko trimetroa, janboz osaturiko hiru oinbiko bertso-lerroa zen: Arkhilokok (712-644) erabili zuen bereziki bertso-mota hau.

⁹ Ikus I (3. Oharra).

¹⁰ Heladerazko tálanton (lat. talentum), pisuari eusten dion balantza-platera da (*tel- / *tol- / *tl- > lat. tollere, "eutsi", "euskarria"). Euskarri izatetik, eusten zuen pisua adieraztera iritsi zen, pisu-neurrien eredu bilakatuz: oin kubiko bete urak pisatzen zuena, hain zuzen. Neurri hauek ziren ohikoenak: talentua, mina eta drakma Solonen aurretik hiru pisu-systhema zeuden: eginarra (jatorriz pheniziarra), eubearra edo euboikoa (jatorriz persiarra) eta atikarra. Solonek (640-558), zenbait aldaerarekin, systhema eginarra hartu zuen saleroskientzat; euboikoa, ordea, diruarentzat. Hona, bada, Solonez geroztiko sistema atikarra:

a. saleroskien pisu-sistema: talentua 36,039 kg, mina 606 g, drakma 6 g.

b. diru-sistema: talentua 25,092 kg (60 mina), mina 432 g (100 drakma) eta drakma 4,32 g.

Diru oro, besterik esan ezean, zilarrezkotzat hartzen zen. Bazen estatara zeritzan diru bat: zilarrezkoak 4 drakma eta urrezkoak 20 drakma balio zuen. Persiar urrezko staterak (darikoak) 0,25 g gutxiago pisatzen zuen (atikarrak baino urre finagoa baitzuen). Talentuak (zilarrezkoak) egungo 250.000 pta inguru balio bide zuen. Urrezkoak, aldiz, hamar halako.

¹¹ Zitaraz lagundurik abesten zuena.

¹² Dionysoren omenezko himnoa, hasieran satiroz moxorroturiko koroak, korifeoa buru, jainko beraren aldare (qumevlh) inguruan dantzatzuz abesten zuena, eta tragediaren sorburu izan zena.

¹³ Lehorrean ehortzia izateak edo lurra gorpuari gaineratzeak hildakoaren arimari atsedena zekarkion eta hori ukatzea zigorrik handienetakoa zen, Antigonaren tragedian ikus dezakegunez.

¹⁴ Nomoa Apoloren omenezko himno liturgikoa da; nomo orthioa tonu altuan abesten zelako da.

¹⁵ Heleniarrek giza soinaren atalak zituzten luzeraren neurri. Oina batez ere. Hauek dira Solonez (640-558) geroztik atikarren luzera eta azalera neurri garrantzizkoenak txikienetik handienara:

a. luzerari dagokionez, hatza edo hazbetea, 0,0185 m; arra edo arrabetea, 0,074 m (lau hatz); oina, 0,296 m (16 hatz); besoa, 0,444 m (oin t'erdi); , besaldia, 1,776 m (6 oin); pletroa, 29,6 m (100 oin); estadioa, 177,6 m (600 oin), baina stadio olympikoak 192,27 m ditu, eskenoa, 60 (edo zenbaitentzat 30) estadio.

Parasanga, persiarren ibilera-neurriak 30 stadio ditu (sei bat kilometro).

b. Azalerari dagokionez: oin karratua, $0,0876 \text{ m}^2$; azena, 100 oin karratu ($8,76 \text{ m}^2$); pletroa, 10.000 oin karratu (876 m^2); arura edo goldea, 2.500 ohin karratu (219 m^2) Heladen eta 22.500 (2.190 m^2) Egypton.

¹⁶ Prieneko Bias, Lazedemongo Khilon, Lindoko Kleobulo, Korinthoko Periandro, Mytileneko Pitako, Athenasko Solon eta Miletoko Thales, Heladeko zazpi jakintsuak ziren.

¹⁷ Arrotza hitzak, heladeraz bezala euskaraz, adiera bi ditu: "atzerritarra" edota (heladeraz bederen maiz) "ostatu emandako atzerritarra edo kanpotarra", lat. hospes, fr. hôte, esp. huesped, ing. host.

¹⁸ Ume eder eta onak, hots, ume jatorrak; izan ere gizon eder eta ona-k izateak jatorra izatea esan nahi du, hots, neurri beteko gizona.

¹⁹ Heleniarrentzat aberriarengatik hiltzea zen heriotzarik ederrena.

²⁰ Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).

²¹ Ikus I (1. Oharra: moira eta hybris).

²² Ikus I (1. Oharra: moira eta hybris).

²³ Ikus I (1. Oharra: moira eta hybris).

²⁴ Erahilketaz isuritako odolaren zikina kutsakorra zen eta ondorengoetara iragan zitekeen (ikus I 91). Erinyek, Uranoren mozketa-odoletik sorturiko jainkosa ktonikoek, gogor jazartzen eta zigortzen zuten erailtzailea, heriotza heriotzari kate maila tragikoz lotuz. Horrela, alaba Iphigeniaren opalkuntzak dakar aita Agamenonen erailtzea, eta Agamenonenak emazte Klytemnestrarena eta ama Klytemnestrarenak pizten ditu seme Orestesen Eryniak (ikus ESKHYLO, Eumenideak). Halaber, Laioren hiltzeak piztu zituen (ezjakinean hil bazuen ere) seme Ediporen aitarekio Erinyak, eta aita Ediporen deserriratzeak beronen seme Eteokles eta Polynizesen elkar hiltzea sortu zuen (ikus IV 149). Egiaz, Erinyak kontzientzia txarraren pertsonifikazio ziren.

²⁵ Arrazoiak bentzutzeak duen hitzaren bidezko borroka-zentzu agonala Sokratesek garatu zuen dialogoetan goreneko mailaraino.

²⁶ Adrasto izenak "ihesgaitza" esan nahi du. Bere adurrari ihes egin ezin dion gizakiaren irudia da. Ikus I (24. Oharra).

²⁷ Jainkoa gurtzen den leku sakratua da hieron, santutegia. Aldiz, megaron hitzak, jatorriz "tegia", Herodotorenean tenplu barruko "jainkotegia" honek, hedaduraz, tenplu osoa adierazten du. Berdin megaron-ek ere temenos hitzaren kontrajarreran. Ikus I (100. Oharra).

²⁸ Hexametroat, daktilozko sei oineko bertso-lerroa zen. Igarleek, usu, hexametrotan egin ohi zituzten orakuluak.

²⁹ Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).

³⁰ Pisu neurria. Ikus I (10. Oharra).

³¹ Ikus I (10. Oharra).

³² Ontzien edukiera neurtzeko neurri desberdinak erabiltzen zituzten eduki likidoentzat eta solidoentzat. Hona Solonez geroztiko neurri garrantzitsuenak litrotan:

a. likidoentzat: kotylea 0,27, amphora 19,44, metretea 38'88. Aryster edo aryter neurriaren edukia (ikus II 168) kotylearena bera zen (burduntzalikada bat).

b. solidoentzat: kotilea 0,27, kenizea 1,08, medimnoa 51,84.

³³ Theophanietan Apolo, udaberriko eguzki-jainkoaren agerpena ospatzen zen.

34 Delphos, Ama Lurraren (Gearen) santutegi preindoeuropearra zen, Gearen seme Pytho (edo Python) erensugearen egoitza. Honen izenean egiten zituen igarpenak Pythia (edo Pythonisa) apaizemeak. Badirudi lehen garaiko amalehenen nekazari-gizartea irudikatzen zuela. Indoeuroparren (heleniarren) etorrerarekin aitalahenen abeltzain-gizartea eta kultura gainditu zen eta, ondorioz, zerutiko indarrak jarri ziren lurretikoen gain. Apolok, abeltzainen jainko aristokratikoak, hots, argiaren eta ordenaren eguzki-jainkoak gezi batez hil zuen Pytho, leizezulo iluneko Ama Lurraren semea, eta Pythia, honen sazerdotesa bere orakulu bilakatu zuen, Delphos Heladeko santutegirik ospetsuena bihurtuz. Bertan ospatzen ziren aristokraten topaleku eta lehiaketagune ziren joko pythikoak, olympikoak bezala, lau urtez behin.

35 Ikus I (10. Oharra).

36 Pelasgiarrak, lelegeak eta kariarrak, gero heleniarrek okupatuko zituzten lurraldeetakotzat jotzen dira K.a. IV. mendera arte. Heleniarrek edo helenoek Helen dute arbaso; eta hau Prometheoren seme Deukalionengandik sortu zen. Helenen seme Eolo-rengandik dator eoliarren edo eolioen leinua; Doro-rengandik, berriz, doriarrarena edo dorioena. Eolok eta Dorok beren sorterrria zen Thesaliatik anaia Juto bota zuten, eta honen seme Jon-engandik sortu ziren joniarrak edo jonioak. Leinu hauetako bakoitzak dialekto propioa garatu zuen.

37 Hots, "etruriarrez iparraldera". Tyrrenia eta Etruria Italiako lurralde bera dira.

38 Kreston (Krestona) orde, ez ote Kroton (Krotona)? Ikus LEGRAND, Hérodote, Livre I ..., ad locum.

39 Ikus I (16. Oharra).

40 Megarako portua.

41 Ikus III (39. Oharra).

42 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).

43 Hoplita baten, hots, "oinezko armadun" baten "armadura osoak" edo panopliak osagai hauek zituen batez ere: defentsarako, kaskoa, koraza, zango-babesak, ezkutu txiki borobila; erasorako, berriz, lantza eta aho biko ezpata motz eta zuzena.

44 Enomotiak edo "zinpekoak" Spartako gerrari talde txikienak ziren (22 lagunekoak), triekadak "hogeita hamarrekoak", sysitiak "mahaikideak", elkarrekin bizi eta jaten zutenak. Ephoroek edo "ikuskariak" 5 magistratuen elkarte osatzen zuten. Spartako konstituzioaren eta ohituren zaintzaile zorrotzak izatetik estatu osoa beren kontrolpean edukitzera heldu ziren. Geronteen edo "senatoreek" (lat. *senā tō res* < senes edo patres, "zaharrek" edo "gurasoek") hogeita zortzi "zaharren" Kontseilua osatzen zuten. Spartan Gerusia edo Senatua (lat. *Senā tus* eusk. Zaharrerria) zeritzaten. Apella-ri edo herri armatuaren batzarrari (Sparta osoa koartel bat baitzen) lege-proiektuak aurkezten zizkioten. Guztien buruzagi (apaizburu eta gudalburu), errege bi ziren.

45 Ontziaren edukiera neurria. Ikus I (32. Oharra).

46 Hereoa Heraren santutegia da, Artemisena Artemisia, Athenearena Atheneoa eta Demeterrena Demetrio den bezalaxe.

47 Zypre edo Txipre irla.

48 Heladeraz lepoa".

49 Iheslari bat norbaitengana otolari joatean, honen babespeko bilakatzen zen. Eta babes hau sakratua zen: babespekoa "erauziezina" bilakatzen zen, hots, a-sylo eskubidearen jabe. Beraz, ez jazartzaileak harrapa zezakeen, ez babestzaileak entregatu. Ikus I 160.

50 Ikus I (16. Oharra).

51 Thalesek iragarritako eklipse hau K.a. 585ean maiatzaren 28an gertatu zen.

52 Jainkoen eta izadiaren Amak, herrien eta aldien arabera, deitura asko zituen, besteen artean Gea edo Ama Lur, Demeter edo Jainko Ama, Rhea, Jainkosa Handi edota Zybele. Hau gurtzen zen batez ere Asia Txikian. Propontide (Marmara) itsasoko Zyzikon, Dindymon mendian, argonautek eraikia izan omen zen santutegi ospetsu bat zuen. Eleusisko Demeterrena bezala, misterio-erritoetan gauzatzen zen harekiko kultoa: landarediaren urteroko hil eta jaioberritzearen misterioarekin hain zuzen. Elezaharrak zioenez Atis artzainarekin maitemindu zen eta honen esku utzi zuen bere kultoa. Baldintza batekin: ez zuen ezkondu behar. Atisek ordea ez zuen hitza bete, eta bere burua irentzeraino erotu zuen Zybelek.

53 Zazpia zenbaki sakratua zen.

54 Herodotori etengabe nabari zaio gerraren gaitzespena. Ikus I (1. Oharra).

55 Ikus I (24. Oharra).

56 Loxias Apoloren goitizena da. Baliteke "bihurria" adieraztea, anbiguoak baitziren haren orakuluak; baita "argia" adieraztea ere lok- eoliarrari eta luc- (lux) latinoari bagatxezki.

57 Moira, izateak jatorriz izaki bakoitzari banatu dion zatia edo zortea da.. Hain zuzen, hitzak indoeuropar erro berekoak dira (*(s)mer- / *(s)mor- / *(s)mr-), eta "zatia", "zati-banatzea" eta "banaturiko zatia" adierazten du. Euskaraz adurra edo patua deritzagu (patua < lat. fā tum, jainkoak orakuluaren bidez "esana" edo erabakia). Gizonen eta, zenbaitetan, jainkoen gaindiko indar hori hiru irule bezala irudikatua azaltzen zaigu mitologian: Klothok bizitzako haria iruntzen du, Atropok harildu egiten du eta harildua inoiz ez du deshariltzen; azkenean, Lakhesis iruleak ebakitzen du haria, bakoitzari dagokion harilari amaiera emanez. Erromatarrek Parkak (lat. Parcae) zeritzeten.

58 Pronea edo Apoloren "tenpluaurrekoa".

59 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).

60 Ikus I (37. Oharra).

61 Niniveren jabe.

62 Meatar edo Meatide aintzira egungo Azov itsasoa da.

63 Saspireak egungo Georgian bizi bide ziren.

64 Errege-begiak Persiako Errege Handiaren esanera zeuden ofizial batzuk ziren.

65 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).

66 Indoeuropear *die- ("argi", "egun") erroitik dator *diē us, argigile den zerua eta zeru-jainkoaren izena, eta hemendik heleniarren Zeus: Persiarren Dyaus, lat. diē s > Diespater eta, *Dieu- > *Iou- > dies Iovis (gen.) eta *Iou-pater > Iuppiter. Hain zuzen, herri hauek jatorriz indoeuroparrak baitziren. Euskaldunok, hala ez garen arren, badugu haiekiko kidetasunik: *die- eta *diē us jainkotuen pareko baitira euskaldunon egu > eguna, Eguren (...)a > egu(r)ena > bizk. eguena, eta ortzi (ortz- / ost-) > ost-eguna > gip. osteguna, Egu edo Ortzi zeru-jainkoen eguna (lat. dies Iovis). Indoeuroparren etorrera aurretik, Mediterraneo inguruko lur emankorretan amalehena buru zuen amazko gizarte nekazariak bere irudira jainkoarteko buru Ama Lurra (Gea, Zybele, etab.) jarri zuen bezala, aitalehena buru zuen aitazko gizarte abeltzain eta aindoeuroparrak Aita Zerua (Zeus pater edo Jupiter) ipini zuen zeru-lurren jabe. Ikus, I (34. Oharra).

67 Aphroditari, Urano irenduaren odolak ernalduriko itsas aparretik sortu zelako Uranoarra legokioke goitizen; baina Zerutarra ere bai, Urano "zerua" baita, zeru-

jainkoa hain zuzen, beronen iloba Zeus bezalaxe. Ikus I (66. Oharra). Alde honetatik Aphrodita Pandemo-ri ("Herri ororenari") kontrajarria dago. Ikus PLATON, Symposion ("Oturuntza") 180 d, ...

68 Ardiak eta ahuntzak, bereziki.

69 Panjonioa "joniar ororen" tenplua da, Posidon Helikondarrari eskainia.

70 Joniar Ororena.

71 Pentapolis edo "Bost hirieta", Hexapolis edo "Sei hirieta", Asia Txikiko hegomendebaldean dagoen Dorideko lurraldea da. Hemen Apolo Triopiarraren omenez ospatzen ziren jokoak doriarren batzar-leku eta topagune ziren.

72 Prytaneo herriko etxea zen, Bera zen hiriko buruzagien (prytaneen) egoitza. Athenasko demokrazi aroan, Herodotoren garaian, bertan zaintzen zuten hiria gau eta egun, hogeita hamabostero txandatz, Atikako demoek osatzen zuten hamar leinuetako bakoitzaren ordezkariak (berrogeita hamar kontseilariak), hiriaren kontura mantenduz. Ikus III (39. Oharra). Hiri-jainkoen eta hiritar ororen etxea zenez, bertan gordetzen zen itzali gabe hiriko su sakratua, kolonia berriak eraikitzean oikistē s-ek ("fundatzaileak"), hiri berrira eraman ohi zuena. Atzerritarrei ere bertan eman ohi zitzaion ostatu.

73 Ikus aditzaren itzulpena: II (74. Oharra).

74 Euskaraz Ehun Irlak. Lesbo eta Asia Txikiaren artean kokatuak.

75 Pentekonteroak, berrogeita hamar arrauneko itsasuntzia da; alde banatan 25 arrauneko ilara bat du. Guztiz arin eta bizkorak zen.

76 Herriko plaza edo agora (ajgorav).

77 Hiri-Zaindariaren.

78 Ikus I (49. Oharra).

79 Hots, Asiako goialdetik (barrualdetik) beherantz, itsasorantz dagoen Asia Txikira. Ikus I (5. Oharra).

80 Ardo-irlak deritzen hauek Kio eta Asia Txikiaren artean daude.

81 Zyrno Korsika irla da.

82 Karthagoarrak. Karkhedon Karthago baita. Ikus III (13. Oharra).

83 Thebasen kadmoar anaia Eteoklesek eta Polynizesek elkarren aurka izandako guduan biek bizia galdu zuten, "garaitzailerik gabeko garaitzapenari" deritza kadmearra.

84 Ikus III (13. Oharra).

85 Enotria edo Ardo-lurra Italiako hegoaldea da: Brutium eta Lukania.

86 Elea.

87 Sardo edo Sardinia, Mediterraneoko irlarik handiena zela uste zuten Strabonen garaira arte.

88 Khersonesotik edo penintsulatik. Heleniarrek kherso-nē sos edo "lehorreko irla" deritzate penintsulari.

89 Ikus I (8. eta 28. Oharrak).

90 Ikus I (5. Oharra).

91 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).

92 Babylongo, hots, Bā sb-ilu edo Babelgo "dorre altu" hau zigurat-a da.

93 Karnak-eko Amon-en tenpluan.

94 Marduk-en irudia.

95 Pisu neurria. Ikus I (10. Oharra).

96 Bat dator Bibliak Daniel liburuko V. atalean dioenarekin.

97 Ontzien edukiera neurria. Ikus I (32. Oharra).

98 Ontzien edukiera neurria. Ikus I (32. Oharra).

99 Pisu neurria. Ikus I (10. Oharra).

100 Temenos (< *tem- / *tom- / *tm- "zatitu" > lat. templum) tenpluaren inguruan dagoen esparru edo lur-zati sakratuari deitzen zaio. Ikus I (27. Oharra). Esanahiaren aldetik badu *tem- / *tom- / *tm- erroak *nem- / *nom- eta *dā - / *de- erroekin kidetasunik: guztiok "zatitu", "banatu" edo "sailkatu" adierazten dute. Aditz hauek abeltzaina ibiltari izatetik egoneko izatera heltzen den unekoak dira: azken lurraldera iristean, lur-banaketa edo sailkatzea egiten dute. Heleniarrak jatorriz abeltzain indoeuroperrak baitziren, artzai bakoitzari egokitu zitzaion larreari nomós deitu zioten, leinu edo senitarte bakoitzari emandako lur-zatiari dā mos (de mos edo herria), eta jainkoari edo aitalehenari eskainitako barrutiari, berriz, témenos. Ikus III (39. Oharra).

101 Oxos, masageten eta Persiaren muga agian. Geroago, ordea, badirudi Araxes Armeniako Arask edo Volgaren behealdea dela.

102 Danubio.

103 Herodotok dioenak badu garrantzirik; Ptolomeo (100-170) arte Kaspiar itsasoa Meatide aintzirarekin (Azov itsasoarekin) edota mundua inguratzen omen zuen Ozeanorekin bat egina zegoelakoan baitzeuden.

104 Adierazpen hau IV 42an frogatzen du Herodotok.

105 Sufrimendua ikasbidea da Eskhylorentzat ere (Agamenon, 176- 177).

106 Sagariak ahobiko aizkorak dira.

107 Psametikhos (663- 609). Ikus II 151- 157.

108 Heleniarren ustez, Egipto da munduko herririk zaharrena (II 43, 144). Hain zuten Egipto eta Lybia geografiaz eta mitoz elkarri loturik azaltzen zaizkigu. Argosko Io neskatza, Inakhoren alaba eta Heraren apaizemea Zeusek bere egin zuelarik, emaztearen gorrototik aldentzeko behi bihurtu zuen. Baina Herak iteuliaren jazarpenez eroarazi eta Iok atsedetik gabeko ihesari ekin zion Europatik Asiara Bosporo (Bosphoro) itsasartetik igaroz. Hortik du itsasarteak izena ere: boos póros "behiaren igarobidea". Munduz mundu ibili ondoren, Egiptoko lurrian hartu zuen atsedea, bere jatorrizko izaerara itzuliz. Honen eta Zeusen seme Epapho, Nilo ibai-jainkoaren alaba Memphisekin ezkondu eta alaba bat izan zuen, Lybia, Afrikako lurralde osoari izena ezarri ziona. Lybiak Posidon itsas jainkoarengandik seme bi izan zituen: Agenor eta Belo. Agenorrek, Syriara heldu eta Tyroko errege zela, Kadmo, Phenix, Zilix eta Europa sortu zituen; Belok, berriz, Danao eta Egipto. Belok Danaori Lybiako lurraldea eman zion, eta Egiptori Arabiakoa. Baina honek Lybiako (Afrikako) melampodoen ("hankabeltzen") lurraldea bereganatu eta bere izena (Egipto) ezarri zion, Danaori Heladeko Argosa, Ioren sorterrira ihesaraziz. Danaok 50 alaba zituen. Beste horrenbeste seme Egiptok. Hauek Argosa jo zuten haiekin ezkontzeko asmoz. Eztei-gauean Danaok, Argosko errege zelarik laban bat eman zien berrogeita hamar alabei beren berrogeita hamar senarrak erail zitzaizkien. Hala egin zuten, batek izan ezik: Hypermnestrak ez zuen Lynzeo hil. Gerora, Lynzeoren iloba Akrisiorengandik sortu zen Danae, Perseoren ama. Herodotok, bere aldetik, elezahar honi interpretazio historiko bat ematen dio mitoen arrazoieratzeari ekinez (ikus I 1-2 edota II 56-57).

Nolanahi ere, Egiptoko lurraldea Heladeko heroi askoren jatorria da. Baita jainko gehienena ere (II 43, 46, 49, 50, etab.). Denbora joan ahala, Egipton jainkoekiko sinkretismoa edo nahasmendua nagusitu zen. Iparraldean, Memphis hiria Ptah (Hephesto) gizadigilearen egoitza zen; erdialdean, Heliopolis (Eguzki-hiria) Amon-Rha-

rena eta, hegoaldean, Thebas Aton-Rha-rena. Amon eta Atonek jainkorik handiena zen Rha Eguzkiaren izatea hartu zuten Zeusekin identifikatuz. Gehienek, abere- eta hegazti-buruen irudi zoomorfoa zuten ezaugarri. Ad. Rha (eguzki-jainkoa) belatza zen; baita Osiris eta Isisen seme Orus (zeru-jainkoa) ere; Apis zezena, Bastet katua edo lehoia, Hathor behia, Toth ibisa. Irudikatze honek antzinagoko abere-jainkoen gurtzea edo zoolatria (totemismoa) adieraz dezake. Dena den, erlijioak (bereziki, heriotza ondoko munduak) eraginik handienetakoa izan zuen Egypton, Osirisen mythoa lekuko. Osiris eguzki-argia da. Seth honen anaia, ilunaren jainkoa. Osirisek arreba Isis (ilargia) hartzen du emazte. Sethek Osiris hil eta zati-zati egiten du, lurpeko mundu ilunera bidaliz. Baina Isisek (Ama Lur) senarraren zatiak biltzen saiatzen da ahalegin guztiz eta, gorpua osatua duenean (ezin baita lehenago), Ka unibertsalaren hatsa ezartzen dio berpiztuz. Geroztik Osiris, eguzkia bezala sartu eta atera egiten da, hil eta berpiztu, negu-udaberriko landarediaren antzera. Eta Isis da (Ama Lurra), ka-ren zain dauden gorpuen iraunarazle eta zaintzaile. Halaber, ka hatsaren itxaropenean baltsamatu zituzten egyptoarrak beren gorpuak, eta ka-ren zain eraiki zituzten faraonek piramide ikusgarriak bere gorpuen gordeleku. Osirisek, bere aldetik, badu Dionysoren kidetasunik: biak izadiaren negu-udaberriko hiltze-berpiztearekin loturik daude. Deltan zegoen (Busirisen), lurralderik emankorrenean, Osiris eta Isisen egoitza (II 59).

Egiaz, Egypto deitura badirudi Memphisen izen sakratutik datorrela: He-ka- Ptah. "Ptah-ren ka (izpiritu hilezkorra)ren tenplua" esan nahi du. Babilondarrek Hikuptah deitu zioten; heleniarrek, berriz, Aígyptos (Egypto).

109 Egyptoarrak izan ziren lehenak egu-tegia edo "eguzki-kalendarioa" ezartzen: urteak 30 eguneko 12 hilabete zituen, amaieran 5 egun gehituz. Urtea ekainaren 15ean (eki edo eguzkia gainean zegoenean) hasten zen, Sirio-A (egypt. Sepet) zeruko izarrik distiratsuen, egun sentian Memphisko latitudean azaldu eta hain garrantzi handiko Niloren uhaldia hasten zenean, hain zuzen. Une honetan hasi eta berrogei egunez jotzen zuten ipar-iparmendebaletik haize etesioek edo "urterokoek" (evthvsioi), Niloren urak ustez handierazten zituztenak. Herodotorentzat, ordea, neguko ekaitza da eguzkiari hegoaldera eraginez Niloren uhaldia sortzen duena. Ikus II 24-26.

110 Egyptoko lurralde honi heleniar marinelek Delta deitu zioten, itsasotik begiratzuz Niloren itsasoratzeak delta letra (Δ) ematen baitzuen. Ikus II 15.

111 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).

112 Zeus, Hera, Posidon, Demeter, Apolo, Artemis, Hephesto, Athenea, Ares, Aphrodita, Hermes eta Hestia.

113 Ipar-izarretik edo iparretik.

114 Antzinateko zazpi lan miresgarrien artean daude Egyptoko pyramideak. Hona beste seiak: Babylongo jardin esekiak, Phidiasen Olympiako Zeus, Ephesoko Artemisen tenplua, Halikarnasoko Mausoleoa, Rhodasko kolosoa eta Alexandriako pharoa.

115 Ikus II (74. Oharra).

116 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).

117 Behia Osiris eguzki-jainkoaren emazte Isis, ilargi-jainkosari eskainia baitzegoen. Geroago, sinkretismoz Hathor, ernalkuntzako maitasun-behiarekin identifikatu zen, behi bilakatuz. Ikus II (2. Oharra).

118 Iliada, XVIII 607-608; Odysea XI 13. Joniarren ikuskera simetrikoki jarraituz, Ozeano ibaiak inguratzen du erabat plano den lurra "Akhilesen ezkutua" bailitzan, zirkuluaren erdian, munduaren gilbor Delphos delarik. Ikuskera symetrikoki honi datxekio Istrok (Danubiok) eta Nilok, meridiano berean egonik, bata Europa eta besteak Afrika erdibitzen duela esatean ere (II 33).

- 119 Herodotok Athenearekin idendifikatzen du Saisen bertako Neit gudu-jainkosa, haren ezaugarri berak zituen.
- 120 Ikus(74. Oharra).
- 121 Ikus AVIENO, Ora maritima 195 eta hurr.
- 122 Hau da, idazkera hieroglifikoa eta demotikoa. Herodotok ez du hieratikoa aipatzen.
- 123 Pythagorikoek (agian egyptoarrengandik) galarazia zuten arraina eta baba jatea.
- 124 Heleniarrek Epapho Ioren semearekin identifikatzen dute Apis edo Hep-apis, ernalkuntzako zezen-jainkoa. Ikus II (2. Oharra).
- 125 Ikus II (2. Oharra).
- 126 Delta inguruko txalupa, ur meharretarako egokia.
- 127 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).
- 128 Hathor, egyptoarren maitasun-jainkoa da.
- 129 Isisek (ikus 2. Oharra) Osirisen, hots, Dionysoren zatietatik zakila ez beste guztiak topatu zituelarik, zakilaren ordeztu egurrezko faloa jarri zion gorputzari (PLUTARKO, De Iside et Osiride 18, etab.). Emakumeek prozesioan gorantz altxatzean haren berpiztea ospatzen zuten.
- 130 Orus ithyphalikoa ("zakilzutia") bidegurutzetako artzai eta bidaiarientzat ernalkuntzaren eta ugalkortasunaren irudia zen.
- 131 Herodotok hemendik aurrera Egyptoko Amon eta Heladeko Dodonan zegoen orakuluaren arrazoieratzea egiten du. Dodonakoari buruz, ikus Odysea, XIV 327-328.
- 132 Katuburudun Bastet, pozaren jainkosaz ari da, Artemisekin zergatik identifikatzen duen ez badakigu ere. Ondoren aipatzen duen jaiari dagokionez, Isisen anaia eta senar Osirisen hiltze-berpiztearen misterioarekin zerikusi nabarmena zuen Eleusisko Demeterren alaba Persephonerenak. Bestalde, Athenea Neit, Helios Rha, Leto Uto eta Marte Seth lirarteke. Ikus II (2. Oharra).
- 133 Osirisengatik aritzen dira, Isisi senarra desagertu zitzaioneko dolumina berrituz.
- 134 Sais Neit jainkoaren egoitza da.
- 135 Osirisen erahile eta munduaren suntsitzaile den Seth "Iluna"-ren aurkako argiak dira.
- 136 Hermes hiria. Heleniarrek Hermes, Thot ibisburudunarekin identifikatu zuten: gogamenaren (Rha-ren bihotza-ren) eta idazki eta hitzaren (Ptah-ren mingaina-ren) jauna zen.
- 137 Egyptoarren lau urtaro zituzten: uhal-diarena (akhet), ernamuntzearena (pert) eta beroarena (shemu). Negua, aski epela zelarik, ernamuntzeari zegokion.
- 138 Heladeraz era berean deitzen da bai krokodiloa eta bai muskerra: krokódeilos.
- 139 Ibai-zaldiak.
- 140 Nilo (egypt. Hapi) egyptoarren zat emankortasunaren jainkoa da.
- 141 Phenix hegaztia, lertxuna (kurrikoaren antzekoa) izan bide zen; uhal-diaren hasieran azaltzen zen Egyptoko zeruan eta honen etorrera urtaro oparoaren seinale zen. Beraz, Toth-en pertsonifikazioa zen.
- 142 Egypton abereak jainkoren bati eskainiak zeudelako, eta Heladen metempsychosiarengatik. Metempsychosia, hildakoaren arima (-psykh-) beste gorputz baten barrura (-en-) aldatzea (met-) da. Metasomatosia ere deitzen zaio: "giza arima... beste gorputz batean sartzea". Ikus, II 123.
- 143 Osirisena.

- 144 Bihotza eta giltzurruna izan ezik.
- 145 Heladerazko livtron (natrona edo karbonato sodikoa) euskaraz gatzu itzultzen dugu.
- 146 Khemis (egypt. Khem-min) "Min-en hiria" da. Min ithyphalikoak (zakila zutiak) Pan-ekin zuen kidetasuna, ez Perseorekin.
- 147 Papyroa Egipto Beheko landare enblematikoa da, bertako sinbolo hieroglifiko eta erregearen diru-sarbiderik handiena bilakatuz. Hortik, agian, beraren izena ere: pa-perô "errege-jauregikoa".
- 148 Ikus I (10. Oharra).
- 149 Pisu neurria. Ikus I (10. Oharra).
- 150 Euskaraz, Lurgorrieta.
- 151 Ikus I (100. Oharra).
- 152 Hephestioa Hephestoren santutegia da. Ikus, I (46. Oharra).
- 153 Rhampsinito, hots, Rhampses: "Rha-k sortua eta Neit jainkoasaren semea".
- 154 Ikus II (46. Oharra).
- 155 Orphikoek eta pythagorikoek ziren giza arima beste baten gorputzean sartzen zela ziotenak. Ikus II (27. Oharra).
- 156 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).
- 157 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).
- 158 Ikus I (10. Oharra).
- 159 Granitoz.
- 160 Isis-Hathor, "urrezko behia".
- 161 Delphostarrek, Esopo faltsuki lapurreta sakrilegoaz akusaturik, Gearen egoitza zen Phedriasko arkaitzetatik amildu zuten eta horrengatik zigortuak izan ziren.
- 162 Azalera neurria. Ikus I (15. Oharra).
- 163 Sanakharibo edo Senakerib-ek (Sin-ahe-eriba-k) K. aurreko 701.ean jo zuen Palestina eta Egiptoren aurka. Bibliak dioenez aingeru batek suntsitu zion gudarostea Ninivera itzularaziz (II Erregeak, XIX 35-36). Aingeru suntsitzailea izurritea ote? Antzinatean arratoiak izurritearen adierazpengarri ziren (Iliada, I 39).
- 164 Typhon, Seth "Ilunaren jainkoa" eta Osirisen anaia hiltzailea da.
- 165 Semele (jatorriz Zemelo) Phrygiako Ama Lurra zen. Dio-nyso izenaren lehen zatia Zeus-en erro berekoa izan daiteke, Dio- < *diē us > Ze-. Ikus I (66. Oharra). Bigarren zatia, berriz, Nysa-rekin erlazioa daiteke. Heladeko elezaharrak zioenez, Zeus (zeru-jainkoa) Kadmoren alaba Semelerekin elkartu zen, eta, Dionyso jaiotzeaz zegoela, honen ama Semelek, Hera jeloskoraren eraginez, Zeusi bere jainkotasuna azaltzeko eskatu zion. Zeusek, orduan, tximist eta trumoi, erre egin zuen Semele. Hala ere, haurra bere izterrean josi, eta jaio zenean Hermesi eta inude Inori entregatu zien. Baina Herak, Io bezala, Ino ere erotu egin baitzuen, Heladetik urrun Ethiopiako Nysa lurraldera eramane zuen. Geroztik, semea amazale eta emakumeen (menadeen) lilura bihurtu zen, betiko Ama Lurraren landare-zykloari lotua geratu zelarik.
- 166 Homero ondoko zenbait elezaharretan Penelope ez da Homerorenean bezain emazte leial azaltzen. Hermesengandik Pan sortu bide zuen. Berez, Pan (Homerorenean agertzen ez bada ere) artzaien eta artaldean jainkoa da: ernalkuntzaren jainkoa (Hermes bera bezala). Erdi gizon, erdi abere, gerriz gora adar biko gizon bizarluze kokotsandi bat da; gerriz beheara, berriz, akerra. Etengabeko larru- eta adarjole honek jainko oro alaitzen badu ere, gizon eta bereziki neskatxa (nympha) ororen izu da, guztiei panikoa

piztuz. Syringe, haren ihesi, kanabera bihurtu zen. Haizearen eraginez kanaberari xirula-soinua zeriolarik, Panek zati desberdinetan ebaki, argizariz elkarri lotu eta syringe izeneko xirula sortu zuen neskatzaren oroigarri.

167 Krokodilopolis, Krokodilo-hiria, Sebek krokodilo-jainkoaren egoitza zen, honelako piztia ugari baitzen Al-Faium inguruan. Hiri honen parean aurkitzen zen labirintoa antzinateko zazpi lan miragarrien artean zegoen.

168 Ephesokoa Artemisi eta Samokoa Herari eskainiak zeuden.

169 Meris aintzira egun Al-Faium deritzan sakonunean zegoen. Egiptoarrek Pa-yom ("itsasoa") deitzen zioten, gerora lehortzen joan bazen ere.

170 Luzera neurriak. Ikus (15. Oharra).

171 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).

172 "Joseren kanalea" edo Bahr-Yussuf.

173 Ikus I (10. Oharra).

174 Niniven.

175 Joniar eta kariar hauek Gigesek Psametikhon I.ari asyriarren aurka laguntza gisa bidalitako mertzenariak ziren. Psametikhon I.ak hauen partaidetzarekin bereganatu zuen boterea eta Egiptoko XXVI. dinastiaren (663-525) fundatzaile izan zen. Ordainetan, mertzenarioei Nilo itsasoratzen den ekialdeko aho inguruan, Egiptorako sarbide estrategikoan, lurralde bat eman zien. Eta, erregea lagun, merkataritzaren eta kulturaren bidez heleniartasunaren hedagune bilakatu ziren Egipton, bertakoengan (bereziki apaizen eta militarren artean) Psametikhoren eta atzerritarren aurkako etsaitasuna piztuz. Egiptoarrek, hain zuzen, atzerritarrei "hizkuntza arrotzekoak" deritzete: allóglissoi. Ikus II 154. Arrotzat eduki ez zitzaizkien, erregeak arrotzen hizkuntza (heladera) ezarri nahi izan zuten bertakoei.

176 Kanpamenduak.

177 Ikus I (100. Oharra).

178 Ikus I (2. Oharra). Typhon Seth da, bere anaia Osiris hiltzeko asmoz, honen bila irteten zena. Isisek, Osirisen arreba eta emazteak, beren seme Orus (Apolo) Letori eman zion beronen anaia Typhonengandik (Sethengandik) gorde zezan. Dakigunez, heleniar mythologian, Apolo eta Artemis Zeusen eta Letoren seme-alaba bikiak ziren. Egiptoko mitoetan, ordea, Bastet (Artemis) ez zen Orusen arreba. Beraz, Herodoto egiptoar mitologia heleniartzen ari da.

179 Trierea edo trirreamea, hiru arraun-ilarako itsasuntzia da.

180 Nomo hitzak erro grekoa du: *nem* / *nom* - <i.e. **nem*- / **nom*- "banatu, sailkatu". Abeltzain indoeuroparrek (eta heleniarrak indoeuroparrak ziren), barrutietan sailkatzen zituzten larreak. Sailkatzeari *némein* (nevmein) zeritzaten, larre-sailari *nomós* (nomov) eta nork bere sailarekiko zuen ohiko erabilpen-eskubideari *nómos* (novmo). Beraz, *nómos* gizartean ezarritako "ohitura" eta "lege" bilakatu zen, edota, nahiago bada, "ohitura-lege". Nori bere "larrea" banatzeak berea zena okupatzea suposatzen zuen, are, nork berea banatzea edo eraentzea. Hau da, zuzen eta sakon, egun hain erabilia den autonomia hitzaren esanahia: nork bere burua gobernatzea, hots, burujabetasuna. Ikus, Thuzydides, III 46: "Egun, horren alderantzizkoa eginez, herri libre eta indarrez menperatua den bat, bidezkoa den bezala bere burujabetasunagatik matxinatzean, eskura badezagu, gogor zigortu behar dela uste izaten dugu".

Némein edo *némesthai* aditzek dagokienez, Herodotok, "halako herritarrak halako lurraldean kokatzen dira" esateko, *némontai* idazten du. Nik, aurreragoko esanahiari lotuz, sailkatzen dira edo sailkatzen dute itzuli dut. Bestalde, *nomós* substantiboari lotua dago Egiptoko

nomoa: administraritza-antolamendurako egyptoarren artean banaturiko lur-saila, eskualdea edo barrutia baita. Herrialdeburuari nomarkho zeritzaten.

181 Samoar besoak 7 arrabete ditu (0,518 m). Beraz, arura, alde bakoitzean 51,8 metro duen lauki karratua da. Ikus I (15. Oharra): luzera eta azalera neurriak.

182 Ikus I (10. Oharra).

183 Likidoen neurria. Ikus I (32. Oharra).

184 Ikus I (100. Oharra).

185 Trokhoide hitzak "gurpil (trocov)" itxurakoa" edo zirkularra esan nahi du.

186 Ikus II (46. Oharra).

187 Ikus II (74. Oharra).

188 Ikus I (100. Oharra).

189 Itsasmerkatu.

190 Ikus I (15. Oharra).

191 Ikus I (10. Oharra).

192 II. liburu osoa Egyptoko geografia, ohitura eta historiari buruzko digresioa izan da. Orain, III.ean, II 1, 2an hasi zuen kontakizunari darraio. Bestalde, kontalari gisa, Herodotok persiarren eta heleniarren arteko "Mediar Gerrateak" ditu kontagune, eta helburu horren ildotik aipatzen ditu hemen heleniarrak.

193 Heleniarrentzat Pheniziak edo "palmondoen lurak" Biblos ondoko Eleuthero ibaitik Karmelo mendirainoko kostaldea hartzen zuen (Biblo, Tyro eta Sidon barne). Honen hegoaldean Syria palestinarra edo Palestina (philisteoen lurraldea) zegoen: Azoto, Askalon, Gaza edo Kadytis, Ekron, etab. Ikus I 105.

194 Demarkhoa Athenasko demokraziaren oinarri zen demo-ko (udalerriko) "herriburua" (alkatea) zen. Ikus Isonomia-ri buruz III (39. Oharra). Herodoto Egyptoz hari denez, demarkho hitzak nomarkhoa adierazten du: "herrialdeburua". Ikus II (74. Oharra).

195 Zin egiterakoan hatz lodien ondoan eskupeak ebakitzeak eta zazpi harriez baliatzeak adierazgarri erlijiosoak dira, berdin zazpi zenbakia bera ere. Ikus Biblian Levitikoa XIV 25, 28, Genesia XXXI 45-53 eta Josue IV 20-24, etab.

196 Ikus Biblian Jeremias IX 25.

197 Bataila hau K. a. 525.ean gertatu bide zen.

198 Homologia (oImologiva) hitzak berez "buruz buruko elkarriketa", akordioa edo hitzarmena esan nahi du, baina kapitulazioa ere adieraz lezake, eufemismo bilakatuz. Ikus HEROD. VI 33; THUZID. I 29, 98, 107; XENOPH. Helen. II 3,6, Anab. VI 1, 27-28.

199 Diru neurria. Ikus I (10. Oharra).

200 Leukontikhos edo Gazteluzuri ospetsua (III 91).

201 Ikus Biblian 2 Erregeak XXIII 34 eta XXIV 17.

202 Ikus ARISTOT., Abereen Historia III 19; ARISTOPH., Zaldunak 83-84; PLUTAR., Themistokles 31.

203 Arrainjaleak.

204 Heladerazko Karkhedon latinezko Carthago da. Phenizieraz Qart Hadas? ("Hiri Berri") zeritzan. Izan ere, Tyroko pheniziarrek eraiki zuten K.a. 815ean. Ikus LIVIO, XXXIII 49. Elezaharraren arabera, Tyroko errege Pygmalionen arreba Elisa (Virgilioren Dido erregina) izan zen gidari.

205 Heleniarren ustez lurralde urrunetan (Ethiopian bezala) gizandi, noble eta zuzenak bizi ziren. Ikus Odysea XI 522 eta Iliada XIII 5.

- 206 Ostatupeko. Ikus I (17. Oharra).
- 207 Memphisen.
- 208 Elkarjatea edo alelophagia,
- 209 Zorionekoen irlak. Ez da berez heroien eta zintzoen hil ondorengo egoitza, Herodotok izen propioz Oasis deitzen dion Kharga oasisko Ibis hiriburuaren deitura baizik (egypt. Iu-hesyu); basamortu zabaleko oasis edo ouadi bat (egypt. ouhat) metaforaz itsas zabaleko "irla babesgarritzat" ere har baitzitekeen.
- 210 Apis zezena Epapho da, Rha eguzkiaren distirak ernaldtu zuen Io behiaren semea. Ikus II (2. Oharra).
- 211 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).
- 212 Ametsa da jainkoa gizonarekin komunikatzeko biderik zuzenena; amets-igarpema edo oniromantzia magoei zegokien.
- 213 Gaixotasun sakratua epilepsia da; epileptikoen dardarak, igarlea jainkoak harturik zegoeneko dardara baitzirudien. Hipokratesek bere Gaixotasun sakratuaz obran sineskeriatzat jo zuen iritzi hau.
- 214 Ptah gizadigilearen santutegia da.
- 215 Garaiko beste zenbait tiranoren modura, Polykrates aristokrata, oligarkhia aristokratikoaren aurka jaiki zen alderdi herritarraren laguntzarekin K.a. 540. inguruan.
- 216 Hiri estatua; beraz, irla osoa.
- 217 Arrotz-elkargoa edo ostatukidetasuna. Hitzarmen sakratu honen bidez bata bestearen ostatupeko bilakatzen zen, arrotz edo ostatupeko izateak zekarren elkarrenganako lotura hautsiezinarekin. Ikus I (17. Oharra).
- 218 Ikus I (1. Oharra).
- 219 Polykratesen eratzunaren istorio ospetsua erabili zuen SCHILLERek bere Der Ring des Polykrates baladan.
- 220 Ezaguna da Lakoniako izaera lakonikoa: doriar hauek disziplina gogorrean heziak zirelarik ez baitzuten luxurik eta gehiegikeriarik maite, gartxuak ziren jan-edanean eta jazkeran, hitz gutxikoak mintzaeran.
- 221 Periandro, Korinthoko tiranoa (625-585 K.a.). Itsas hiri hau hain puntu estrategikoan zegoen, lehendik zen aberatsa (ikus HOM. Iliada II 570; PINDARO Olympoarrak XIII 4). Periandrok, ordea, goreneko mailara igo zuen.
- 222 Nahi gabe hil zuen. Ikus DIOGENES LAERZIO, Philosophoen bizitza eta iritzien bilduma I 94.
- 223 Legearen aplikamen zuzena, aldian aldiko egoera desberdinari dagokion egokitzea edo epikeia kontrajartzen zaio: "ez da legezkoa baina bai itxurazkoa. Ikus ARIST. Ethika Nikomakhoarra V 14, 1137 b; Rhetorika, I 13, 1374 b 27.
- 224 Parosko marmola edo "harri distiratsua" ospetsua zen.
- 225 Diru neurria. Ikus I (10. Oharra).
- 226 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).
- 227 Arkhitektoa, "zurginburua > artisauburua > eraikuntzaburua" > egungo "arkhitektoa edo ingeniari".
- 228 530-522 K.a.
- 229 Mago-hilketa.
- 230 Isonomia hitzak hiritar orok legearen aurrean duen berdintasuna (legekidetasuna) adierazten du: hiritar bakoitza bestearen berdina da lege aurrean. Isonomia izan zen

demokrazia-ren lehen deitura. Demo edo damo izenak, nomós-ek bezala, "lur-saila" adierazten du, de- / da- erroak, nem- / nom- erroaren antzera, "banatu" edo "sailkatu" esan nahi baitu. Beraz, daíein "banatu" den bezala, da mos (de mos) "banatutako lur-saila" edo "herria" da. Ikus I (100. Oharra). Herodotok Athenasen ezagutu zuen Klisthenesen konstituzio demokratikoa, hain zuzen, demo-tan oinarritzen zen. Honek Atika osoa ehun demotan (udalerritan) banatu zuen. Hiritar bakoitzak, hiri-eskubide guztiak izateko, bere demoan izena eman behar zuen noren semea zen esanez; hori zen hiritar bakoitzaren Nortasun Agiria: "Sophanes Eutykhidesena, Dezelia herrikoa". Ikus IX 73. Aski zen, ordea, zein herritakoa zen esatea: "guztietaz hauek dira Demosthenesen aldeko testigutza egiten dutenak: Kalias Suniokoa, Zenon Phlyeskoa, Kleonte Phalerokoa, Demoniko Marathongoa (DEMOSTH., Koroaz 135)". Horrela, odoletiko jatorriak ez baina demo batean inskribaturik egoteak ematen zien hiritarrei legearekiko berdintasuna (isonomia). Demo edo udalerri bereko hiritar guztiak herriko agora edo plazan egiten zuten biltzarra, leku hori herriko bizitza osoaren erdigune bilakatuz. Herria zen herriko erabakiak hartzen zituen eta demarkhoa, "herriburua" edo alkatea, hautatzen zuena. Atikako hiru eskualde desberdinetan (hiriburuan, itsasaldean eta barrualdean) bizi ziren hiritarren interesak batzeko, hamar phylai edo leinutan banatu zituen Klisthenesek hiru eskualdeetako demoak. Leinu edo phylē bakoitza hiru eskualdeetako 50 demoz osatua zegoen: trittys ("hirukoitza") zeritzan. Demo bakoitzak bere ordezkaria hautatu ondoren, hamar leinuetako bakoitzaren 50 herri-ordezkariok gobernatzen zuten polis hiri estatua urte bakoitzaren hamarrenean (36ren bat egunean), eta hamar leinuetako 500 (50 ? 10) ordezkariak osatzen zuten Estatuko Kontseilua edo Boule legeak Batzarrari aurkeztu eta honek erabakitakoak beteak izan zitezen zaintzen zuena.

Herodotok Otanesen ahotan jartzen ditu isonomiaren hiru ezaugarriak: karguen zotz egitea, kontu ematea eta erabakiaren jabe herria izatea. Historialariak, Persiako agintearen aldaera dela eta, Heladen bizi-bizirik zegoen hiru erregimen politiko, demokrazia, oligarkia eta monarkia, persiarren eztabaidagai egiten baditu ere, heleniarren iritziak eta bereak jalgiaztatzen ditu horien ahotik; batez ere, demokrazia ezezaguna baitzen Persian. Dena den, hau da Heladeko literaturan erregimen politiko desberdinez egiten den lehen jorraketa.

231 Gurtza edo debozioz egin ohi den makurtze agurra zor zioten erregeri, ez jainkotzat hartzen zutelako (egyptiarrek bezala), jainko-ordezkatat zeukatelako baizik.

232 Bonbatxoan gisako galtza luzeetan.

233 Satrapa (pers. khshathraparan) hitzak erreginaren zaindaria esan nahi du. Berak gobernatzen zuen eskualde edo probintziari satrapia zeritzan. Darioren lorpenik handienetakoa izan zen zirkunskripzio politiko eta administratiboen antolaketa hau zergaren bidezko erregetza-garapenerako; horretarako txanpondu zuen darikoa zeritzan urrezko errege-txanpona ere. Ikus I (10. Oharra).

234 Diru neurriak. Ikus I (10. Oharra).

235 Gaztelu Zurian.

236 Solidoen neurria. Ikus I (32. Oharra).

237 Probidentzia edo pronoiak zerbait "aurrez ikustea" edo "kontuan hartzea" da. Kontzeptu honen arabera, jainkoak egite guztiak, bereziki munduko gertakizunak, alde aurretik bere adimenean dauzka. Adimen orozuzentzaileaz mintzatu ziren K. aurretik, geroak gero, Xenophanes, Anaxagoras eta Platon (Protagoras 321 b-c).

238 Ikus SOPH., Antigona 905-912.

239 Gizategia edo gizonezkoen egoitza.

- 240 Diru neurria. Ikus (10. Oharra).
- 241 Diru neurriak. Ikus I (10. Oharra).
- 242 Helade zen heleniar penintsula ez ezik Anatolia, Italiako hegoaldea eta Sizilia ere. Hain zuzen, Italiako hegoaldean du jatorria greko deiturak. Heladeraz Graikoí zeritzan beoziar herri bat etorri bide zen khalzistarrekin Heladetik Napolesko itsasertzera (K.a.750.ean), bertan Italiako koloniarik zaharrena eraikiz: Cumas. Latinoek Grai edo Graeci deitu zieten, eta gentilizio hau hortik bilakatu zen gerora heleniar guztien deitura. Kroton edo Crotona Tarentoko golkoan dago.
- 243 Gauloa (phen. qôl- "borobila") pheniziar zamauntzi bat da.
- 244 Zeus Askatzaileari.
- 245 Hamargarren egunetik beste zazpi egunera.
- 246 Ninivetarrenak.
- 247 K.a. 515.ean hartua izan zen Babylon.
- 248 Ponto Euxinoz iparraldera dagoen Szythian bizi ziren herri nomada edo erdinomada hauek Asia erdigunetik (Altai mendiez ekialdetik) etorri bide ziren K.a. VIII. edo VII. mendean, zenbait herrik atzetik bultzaturik.
- 249 Ikus Proemia, I (1. Oharra).
- 250 Zenbait lanbide mekanikotarako (gurpilari edo noriari bira emateko, etab.) bai abereen eta bai esklaboen begiak estali egiten zituzten, ihesa oztopaturik lan errepikatu eta aspergarriari hobeki zetxezkion. Hala nola Biblian azaltzen den Gazako Sanson (Epaileak, XVI 21-22).
- 251 Tauroar mendiak egun Krimea deritzan Taurikako hego-ekialdean daude.
- 252 Indoiranioen arteko hiru gizarte-klaseen adierazgarri ziratekeen: goldea eta uztarria nekazariena, sagaria (ahobiko aizkora) gerrariena eta libazio-kopa apaizena.
- 253 Ponto Euxinon. Ikus I (7. Oharra).
- 254 Hylea edo Oihanlurreko koban bizi zen izaerabiko herensugea lur-jainkoasaren bat da, Tabiti szythiarra, "Basapiztien Anderea" agian.
- 255 Egungo Kerch (edo Jenikale) itsasartea.
- 256 Anatoliako iparraldean, Ponto Euxinoren itsasertzean dago.
- 257 Phebo edo Phoibos ("Distiratsua") Apoloren goitizena zen. Beraz, phoibó-lamptos "Phebok argiturik" edo "Pheboren argi-eraginez".
- 258 Ipar-itsasoraino.
- 259 Lehen aipatu duen ipar-itsasoz hegoaldekoa: Ponto Euxino edo Itsaso Beltza.
- 260 Prokoneso, Propontide edo Marmara itsasoan dagoen irla eta hiria da; Metapontio hiria, berriz, Hego Italian Tarentoko golkoaren ertzean dago.
- 261 Italiaturiko heleniarrez ari da, hots, italiotez.
- 262 Szytiaz goikoa (iparraldekoa).
- 263 Emporio edo itsas portu hau Olbia hiria edo Olbiapolis da, hots, "hiri dohatsua", K.a. 645.ean miletoarrek eraikia. Hypanis (Bug) eta Borysthenes (Dnieper) ibaien artean kokatua dago.
- 264 Olbiopolita, Olbiako hiritarra.
- 265 Gizajaleak.
- 266 Herodotok szythiarren artean hiru herri-mota aipatzen ditu, argitu gabe: goldelariak, garia baizik egin bide ez zutenak; laborariak, lurra edozertarako lantzen zutenak; eta "errege-odola" zeramaketenak..

- 267 Egungo Don ibairaino.
- 268 Kapabeltzak.
- 269 Sauromatak (geroagoko sarmatak), Asia erdigunetik etorritako nomadak, iraniar odolekoak dira.
- 270 Uralez ari da.
- 271 Ikus Odysea IV 85.
- 272 Libya Homero eta Herodotorentzat Afrika da.
- 273 Peloponesoko ipar-mendebaldean dagoen lurraldea.
- 274 Hyperboreoak ipar-haizez haraindi zoriontsu, osasuntsu eta etengabeko gaztetasunean bizi den herria da. Urtero Apolok hara egiten du txango zero urdin distiratsuen bila eta ehun astoen erre-oparia eskaintzen diote, Apoloren herri bilakatuz.
- 275 Ilithyia umegintzaren jainkosa da. Herak, Zeusen emazte eta emakume ezkonduaren zaindari den jainkosak, bere zerbitzari hau bidaltzen dio laguntzera haurminetan dagoen emakumeari. Senarrarenganako jeloskortasunez, honen eta Letoren seme-alaba Apolo eta Artemisen jaiotza luzatzen baitzuen bere zerbitzariaren laguntza ukatuz, Argek eta Opisek bereganatu zuten Ilithyia emagina erditzea bizkor zezan.
- 276 Notoaz goitik edo hego-haizez haraindi bizi direnak.
- 277 Testuinguru honetan Ponto Euxino da ipar-itsaso.
- 278 Egeo itsasoan barrena.
- 279 Mediterraneon barrena.
- 280 Mare Nostrum Mediterranea da latinoentzat eta heleniarrentzat.
- 281 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).
- 282 Beraz, hau izan zen Afrikaren inguruan egindako lehen periploa edo itsasbira (25.000 Km inguru) K.a. 609-594ean, Nekao pharaonaren garaian. Libya (Afrika) inguratzean, eguzkia eskuinaldean izan zutela esateak egiaztatzen du, hain zuzen.
- 283 Darioren seme eta oinordekoa.
- 284 Nekaoren garaian, pheniziarrek (karkhedondarrek) geroago hartu zuten alderantzizko bidetik ekin zion Sataspesek Afrikako itsasbirari. Gineako golkoraino iristean Cabo Verdeko baretasuna topatu bide zuten.
- 285 Herodotok ondoren munduko hiru zatien (kontinenteen) izen-jatorria azaltzen du. Dioena dioelarik, Libya ninfa, Ioren ondorengoa eta Agenor eta Belo pheniziar heroien ama zatekeen (II (2. Oharra); Asia (Ozeano eta Tethysen alaba), Prometheo, Epimetheo eta Atlasen ama; Europa, Tyroko Agenorren alaba (Ioren iloba), Zeusek zezenaren antz-irudiz harrapatu eta Kretara eramana. Mythoez aparte, Asia hitza asyrierazko açu-tik erator daiteke, "sortaldea" esan nahi du; Europa, berriz, asyrierazko ibi edo arameozko ereb-etik: "arratsa" esan nahi du.
- 286 Balkanetako mendi-gailurretatik.
- 287 Tribalorren lautada Belgrad ingurua da.
- 288 Hona hemen garrantzitsuenak: Istro (Danubio), Tyres (Dniester), Hipanis (Bug), Borysthenes (Dnieper), Tanais (Don).
- 289 Bide Sakratuak.
- 290 Baina Gea (Ama Lurra) Khaosetik atera zen eta Urano ("Zerua") sortu zuen, eta honengandik jainkoak eta munstroak izan zituen.
- 291 Ikus I (52. eta 66. Oharrak).

292 Dionysorenganako jaiera, Ama Lurrarenganako bezala, urteroko landarediaren hil eta jaioberritze-zikloari lotua dago (mahatsondoari eta huntzari bereziki). Ikus II (48. Oharra). Semeleren seme amazulo hau udaberriro etortzen da nekazarien eta artzairen lurrera mahatsaren eta huntzaren zukuz mozortu eta zoraturiko emakume bakkhozaleen (menadeen) eta satyro txirulajoleen thyaso (prozesio) zaratatsu eta orgiastikoa bere tirsoarekin gidatuz, izadia eta gizadia, abesti eta dantza, antzaldatzera, mozorrotzera eta ernaltzera, akerra tartean delarik. Gure kobazuloetako sorginen (euskal "menadeen") eta ihauterietako mozorrotuen orgiak errito haien jarraipen "paganoak" dira, pagano hitza (lat. pagus) jatorrizko zentzuan erabiliz.

293 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).

294 Irla Zyaneak edo Ilunak, Bosporo (edo Bosforo) itsasartetik guztiz urbil dauden hamabi harkaitz dira. Elezaharrean Symplegadak ("elkarjoleak") deritzete. Itsasuntziak Ponto Euxinon, antzina Axeino edo "ez-abegikor" zen horretan sartzera zihoazela, harkaitz horiek elkar jotzen omen zuten, untzia apurtuz. Ikus I (7. Oharra).

295 Luzera neurriak. Ikus I (15. Oharra).

296 Grekoz "orotariko hamar sari". Heladerazko déka "hamarrak" eta euskarazko hamaika-k testuinguru hauetan "koantaezin ahala" esan nahi dute.

297 Lehenengo aldiz aipatzen dira. Balkanen eta Danubioren artean bizi ziren. Esklabu bezala, ezagunak ziren Heladen. Ez gutxi zenbait komediatako pertsonaia bezala.

298 Malkartsua deritzan penintsularaino.

299 Beraz, Herodotok, heleniarren symetriazaletasunak eraginik, Szythia lauki karratuaren antzera irudikatzen du, alde bakoitzeko 4.000 stadio (750 Km) duena: mendebaldetik Istrok mugatzen du, hegoaldetik Ponto Euxinok, ekialdetik honek berak eta Meatide aintzirak, eta iparraldetik szythiarrak ez diren lurraldeek.

300 Pinazijale edo zorrijale, fqeiro<tragevw aditzak esanahi bikoitza baitu. Ikus IV 168.

301 Amazonak edo bulargabeak emakume gerrariak ziren. Gizonezkoa, ernalkuntzarako izan ezik, etsai zuten eta uztaiia eroso maneiatzeko bular bat ebaki egiten zuten. Kapadoziako Thermodonte ibaiaren aranean, Ponto Euxinoren itsasertzean kokatuak zeuden. Heleniarrek, Herakles buru, garaitu omen zituzten.

302 Dario, persiar erregea.

303 Otoilarien zeinua zen babesleari eskuak luzatzea. Ikus I (49. Oharra).

304 Tyraniari buruz ikus I (6. Oharra). Anatoliako itsasertzean tyrano asko zen eta elkar babesten zuten. Persiak berak ere lagundu zieten Heladeko beste erregimen politikoen aurka, Halikarnasoko Lygdamis adibidez. Herodotok ez zituen atsegin. Ligdamis zela eta, atzerriratu behar izan baitzuen Samora. Hala ere, Histieo Miletokoak zerikusi handia izan zuen Joniaren persiarren aurkako altxamenduan (V 35; 106-107).

305 Byzanzio eta Khalzedon, Bospororen sarreran daude aurrez aurre; lehena Europako itsasertzean eta bigarrena Asiakoan. Megarako kolonoek eraiki zituzten K.a. VII. m.

306 Argo itsasuntziko marinelek (nau'tai) edo argonautek untzikide zituela joan zen Jason, Pelias Thesaliako erregearen aginduz, Ponto Euxinoren ekialdeko itsasertzean dagoen Kolkhidera. Urrezko ardilarua eskuratu behar zuen. Eta eskuratu ere, gero esker gaiztoz abandonatu zuen Medea, bertako printzesa eta aztiak lagundurik eskuratu zuen.

307 Spartako errege eta argonauta izan zen Tyndaroren seme Kastor eta Polux.

308 Triekontero 30 arrauneko itsasuntzi arin eta azkarra zen; alde bakoitzean 15 zituen.

309 Ikus I (24. Oharra).

- 310 Jainkoari ehun idi opaltzeari zeritzaten hekatombe. Ondoren edozein opari handiri deitu zioten. Egun, sarraski handi bati deritzagu.
- 311 Metekoa edo etorkina, hiritarturiko atzerritarra zen. Asko ziren Heladen: Athenasen, Periklesen garaian, biztanle libreen % 40a zen. Industriara eta merkataritzara dedikatzen ziren. Baina, libreak izan ziren arren, ez zuten hiri-eskubiderik.
- 312 Ikus I (10. Oharra).
- 313 Delphosko Apoloren orakuluak garrantzi handia izan zuen kolonien eraikuntzan.
- 314 Hemen ere Pythiaren ahoz hitz egiten du Apolok. Zyrene, Thesaliako ninfaz maitemindurik Libyara joan baitzen beronekin.
- 315 Eta zeruari zulo horietatik zerion euria. Leku honetan eraiki zuten, bada, Zyrene, gorago aipatu den Apoloren iturri ondoan K.a. 631an. Hiriari izena eman bide zion iturri horrek Zyrene zuen izena. Ikus PÍNDARO, Pythiak IX 18-69.
- 316 Harrigarria da heleniarrenganako gutxiespen hori; I 8-13 atalean ikusi dugun bezala, Gigesek bidalitako heleniar eta kariar mertzenarioei esker egotzi baitzituen Psametikok asyriarrak Deltatik, pharaon izatera iritsiz.
- 317 Hiri inguruan bizi zena zen periekoa("inguruan bizi"). Bereziki Lakoniakoari zeritzan: inguruko gehienak doriarrek beren etorreran menperatu zituzten autoktonoak (lur berekoak) baitziren, askeak izan arren ez zuten hiri-eskubiderik eta eskubideak zituzten doriarretakoren baten zerbitzuan bizi ziren.
- 318 Afrikan (antzinako Libyan) bizi diren bereberen artean, XIX. m arte iraun zuen ius primae noctis ohiturak; apaiznagusiak neskak ezkonberriak desloratzean, bertute goitiarrak ezartzen zizkiola sinesten baitzuten.
- 319 Silfioa (lat. silphium) lekale guztiz probetxugarria zen: gizakiarentzat elikagarri eta sendagai ez ezik abereentzat bazka ere bazen.
- 320 Lotojaleak. Ikus HOM., Odysea IX 82-104; POLIBIO, Historiak XII 2; PLINIO, Hist. Nat. V 28.
- 321 Pelio edo Pelion, Thesaliako mendia da.
- 322 Triton itsas jainkoa zen. Posidon eta Amphitrite nereidaren semetzat zeukaten gehienek. Era askotako itxurarekin agertzen zen, itsas agurearen antzera gehienetan. Posidon eta gizonen arteko harremanetan bitartekotza egiten zuen ararteko zen, ekaitzak baretuz.
- 323 Birjintasun gabea.
- 324 Herodotok ohasitza hartzen ditu gatz-muino hauek, zein eta haiek sakanean aurkitzen diren: egun ez ezik lehen ere El Fayum, Bahariya, Sirah eta gainerako ohasietako karabana-bidean zebiltzen merkatarientzat garrantzirik handiena baitzuen gatzak.
- 325 Heladeraz, τρώγλη (pizti zuloa) δρύς (sartu). Troglodyta, piztien gisa kobazuloan sarturik bizi dena da.
- 326 Ataranteak (tuaregeraz ataram "mendebala" da) Chad aintziraren eta Niger ibaiaren artean bizi bide ziren. Bereberen artean sarri tabu da pertsonaren izena ahoskatzea eta honi loturik legoke tuaregen aurpegi-estaltzea ere.
- 327 Herodotorenetik du deitura egungo Atlas mendikateak. Berak aipatzen duena, ordea, Tibesti inguruko sumendiren bat izan daiteke, 3.600 m altuko Tuside, adibidez.
- 328 Euskaraz "ahuntz-larrua". Kretako Ida mendian Zeus haurrari titia eman zion Amalthea ahuntzaren larruari zeritzan egida edo egea.

- 329 Herodotorentzat, Syrte eta Tritonide aintzirako lakutxoak salbu, Mediterraneo aldera dagoen Afrikako itsasertza zuzena da.
- 330 Gaur egun tuaregek aurpegia margotzen jarraitzen dute, gizonek urdinez eta emakumeek horiz.
- 331 Hemen dago egungo Atlas mendikatea.
- 332 Luzera neurria. Ikus I (15. Oharra).
- 333 Zereala edo laborea da (garia, garagarra, etab.) latinoen Ceres eta heleniarren Demeter (*Dea mā ter) "Jainko Ama"-ren emaria.
- 334 Historialariak IV 167 atalean etendako hariari jarraitzen dio.

335 Heriotza bera jasan zuten Silak (PLUTARKHO, Sila 36) eta Herodes Agripak (Apostoluen Eginak XII 23).

336 Beraz, behin eta berriz Herodoren ustez, gizadiaren hondamena, hybris edo harrokeriaz egindako ausarkeriagatik (indarkeriagatik) jainkoek ezarritako zigorra baizik ez da. Ikus I (1. Oharra).